Nerabe eta gazteei buruz Deustuko Unibertsitatean eginiko ikerlanetan –eta lan honetako kide batzuek Santa María fundazioan, Fundación de Ayuda contra las Drogadicción ("Drogamendekotasunaren kontrako Laguntzarako Fundazioa") delakoan, Bofill fundazioan eta Kataluniako Generalitatean eginikoetan, gehien aritutakoak bakarrik aipatuta– badago konstante bat, batez ere balioen eremua aztertzeari heltzearekin batera, alegia, lan horietan esaten da ezin hitz egin daitekeela nerabe-jendeaz edo gazteriaz kategoria uniformeak

balira bezala. Herritartasun jakin bat duen, esparru geografiko jakin batean bizi den edo mugatzeko erabiltzen den beste edozein nolakotasuna duen gazteria, azterketarako kategoriatzat –areago, ikergaitzat– hartzen denean, ez da uniformea, adinaren arabera ezarririko mugez harago. Nerabe-jendeaz gauza bera esan daiteke. Egia da Bourdieu gehiegizka ari zela *"la jeunesse ce n´est qu´un mot"* zioenean (orain ez dugu gogoan non), baina horrekin aditzera ematen zuen zaila edo ezinezkoa zela gazteria aztertzea, baldin haren barneko desberdintasunak baztertzen baziren. Hala, bada, gazte-talde jakin baten azterketa sinkroniko orotan, oso kontuz ibili behar da baieztapen orokortzaileekin, halakoek gazteen errealitate heterogeneoa ezkuta edo lauso dezaketelako, ezagutarazi eta azaldu beharrean. Hain zuzen ere, ikusmolde horren erakusgarri da gazteriaz gero eta tipologia gehiago egiten direla, gazteen errealitate pluralaren isla garbia, ahaztuta dagoen arren. Azterlan honetarako, guk familia tipologia labur bat prestatu dugu Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleentzat, eta DBHko ikasleak bereizi egin ditugu bereziki garrantzitsua den atal baterako, hau da, ikasle horiek ETAren terrorismoaren aurrean zer jarrera dituzten aztertzeko.

## 2. Gaur egun nerabe izatea testuinguruan kokatzea

Nabaria da mende berriko lehen hamarkadako EAEko nerabeak hazten ari direla 1990ko hamarkadako gazteak, esate baterako, hazi ziren testuinguruaz bestelako testuinguru batean. Horri dagokionez, Mannheim-en abiapuntu-hipotesia geure egin genuen aspaldi; hipotesi horren arabera, une historiko edo esparru geografiko jakin bateko nerabe eta gazteez hitz egin ahal izateko, esperientzia batzuk batera bizitzeak baino ezin sor ditzake belaunaldi-egoerak. Esan nahi baita, gazte izatea eraikitzen da norberari bizitzea egokitu zaion testuinguruaren arabera, hazten ari den-gizarte ereduaren edo ereduen arabera, bizi den gizarteko egitura soziodemografikoen arabera, gizarte hori osatzen duten gizarte-taldeen arabera, gora edo behera ari diren balio nagusien arabera, gizartekoitze-eragile bakoitzak duen pisuaren, eta abarren arabera.

Ezinezkoa da hemen azaltzea gaur egungo EAEko nerabeak zein egoera zehatzetan hazten diren. Labur aipatuko ditugu ondorengoak[1].

Duela hamar edo hamabost urte baino gutxiago dira. Euskadin, Espainian bezala, 1975. urtean bukatu zen *baby boom* zelakoa. Ondorioz, 1990ko hamarkadaren hasieraz geroztik nerabe-kopurua behera joatea izan da joera. Jaiotza-tasak beherako kurba batean jarraitu zuen, harik eta etorkinak iritsi ziren arte, joan den mendeko hamarkada berberaren bukaeran. Horrexegatik, gaur egungo nerabe gehienak seme edo alaba bakarrak dira. Bai, Euskadiko gaur egungo nerabe gehienak ume bakarrak dira. Orain, oso berrikitan, Euskadin bi eta hiru ume dituzten senar-emazteak gehitu direla hautematen da, nonbait, baina umerik gabeko bikoteak ere ugaritu dira, bai eta bakarrik bizitzea erabakitzen dutenak ere, nahiz eta horiek adin jakin batetik gorakoak diren.

---

[1] Lerro hauek bat datoz Javier Elzoren liburu berri batean *(La voz de los adolescentes*, PPC-SMk editatua) ageri diren gogoeta batzuekin, egin beharreko egokitzapenak eginik.

Nerabezaroa hedatu egin da. Lehenago hasi eta geroago bukatu egiten da. Gero eta lehenagoko adinetan igarotzen da haurtzarotik nerabezarora, eta nerabeak, ostera, urte gehiagoz egoten dira nerabetasunean, gaztarora igarotzea atzeratuta, eta, hortaz, helduarora igarotzea ere bai.

Gazteak teknologiazko iraultza betean bizi dira, komunikazioaren arloari dagokionez, batik bat (txatak, sakelako telefonoak, messenger-a, Internet, eta abar). Espainiako alde askotan baditugu datu batzuk, Internetek telebista gainditu duela adierazten dutenak, nerabeen denbora-pasarako gune gisa ez ezik, gizartekoitze-eragile gisa ere bai. Hala da Katalunian, lan honen antzeko samarra den landa-lan baten arabera[2].

Noraino orokortu behar da etxean itxita –ordenagailuaren aurrean, truke birtualean, jokoekin denbora-pasa– egoten den gaztetxoaren egoera? Zer eragin izan ditzake astialdiaren erabileran? Nola kokatu behar da ordenagailua telebistaren, kalearen, litroen, dantzalekuen eta abarren aurrean/ondoan? ¿Ordezko gisa kokatu behar dugu ala, ostera, osagarri gisa eta ondoan dagoen zerbait gisa, hipotesitzat ematen dugunez?

Bestelakoa da mutilen eta nesken arteko eskema. Badago nerabeek dagoneko barneratu duten berdinzaletasun bat, baina hitzezkoa da, beste ezer baino gehiago. Gainera, mutilen artean, erreferentzia "feministak" ez dira onartzen, eta batzuen artean –ahulenen artean?– arbuioa eragiten dute, eta erasorako sorburu izan daitezke.

Hala ere, mutilen eta nesken irakurgaiak gaur egun duela bost edo hamar urte bezain desberdinak dira, edo areago, eta genero-identitatea markatuta geratzen da, legez eta hitzez aldarrikatzen den berdinzaletasunagatik ere.

Gazteen indarkeria gaur egun ere gizonezkoena da gehienbat, baina emakumezko nerabeen indarkeriak badu nolabaiteko mamia estatistiketan. Bestalde, *bullying* deritzon fenomenoa sendo sartu da eskoletako ikasgeletan, hainbesteraino, non ikaskuntzaren inguruko beste gai batzuk bigarren mailan utzi baititu. Gainera, Espainiako alde batzuetan, ikasleen proportzio handi samar batek eskolan beldur dela adierazten du, eta diziplina zorrotzagoa eskatzen du. Garrantzizko datua da ezen, nahiz eta eskolan *bullying*a murriztu den (neurri handi batean, Jokinen suizidioaren ondorioz eta jendeak eta agintariek, gertaera horrexek eraginda, arazoari garrantzi handiagoa eman izanaren ondorioz), beldurra nabarmen areagotu dela, bai eta ikasleek berek diziplina zorrotzagoa ezartzeko egiten duten eskari esplizitua ere.

Azken bi urteetan egin diren ahaleginengatik ere, etxebizitza gero eta garestiagoa da, nahiz eta azken hilabeteetan, finantza-krisiaren oldarraren pean, pisuen prezioek behera egin duten, baina, aldi berean, kredituak lortzeko zailtasun handiagoa dagoela. Halaber, gero eta beranduago emantzipatzen dira gazteak jatorrizko familiatik ekonomiaren aldetik,

---

[2] GENERALITAT DE CATALUNYA. *Enquesta de convivencia escolar i seguretat a Catalunya Curs 2005-2206.* www.gencat.net/interior/departament/publicacions/estudis/ecesc.htm. 2007ko ekaina. Javier Elzoren aholkupean egin zen.

seme-alabak jada 30 urte inguru dituztenean, sobera aldiz. Horrek, osmosiz, eragina du nerabeengan, eta eroso-eroso gerizpetzen dira familia-txokoan.

Familiaguneak, berebiziko erritmoz, gero eta hauskorragoak dira, bai eta gero eta ezegonkorragoak ere. Gaur egungo nerabeak dira gurasoen banantzea edo dibortzioa bizi duten lehenak, alegia, estatistikaren aldetik nabarmenak diren proportzioetan (ia bitik bat 2006. urtean).

Zorionez, gero eta emakume gehiago dago lan-munduan, nahiz eta arlo batzuetan eta bestetzuetan duten banaketa, gure irudiko, beste dualtasun bat sortzen ari den lanean; hori aipatu baino ez dugu egingo hemen. Nabarmendu nahi duguna da ezen, emakumea (ama, zehazki) etxetik ateratzean, gure familia tradizionalaren ereduan funtsezkoa den irudi bat desagertzen ari dela gure begien aurrean: etxekoandrea. Bestalde, aita etxean sartu ez denez –ama atera den neurrian ez, bederen– eta aitona-amonak orain familiagune berrietan bizi ez direnez (ez eta beste senitarteko batzuk ere, hala nola osaba-izebak, eta abar), ikusten dugu gaur egungo haur eta nerabe askok etxea hutsik topatzen dutela eskolatik iristen direnean. Bakarrena hazten ari den belaunaldia da, eta, hala, autoheziketa bat gertatzen da, funtsean adiskide-taldearen eta komunikabideen bitartezkoa (Internet gero eta nagusiagoa da egunez egun). Horrek gaur egungo nerabeen gizartekoitze-era azalduko du, neurri handi batean, bederen.

Euskadin ez dugu Espainiako beste autonomia erkidego batzuetan aurkitzen den etorkintasa. Baina hemen ere, ikastetxeetan, gero eta aniztasun handiagoa dago geografiaren, etniaren zein arrazaren aldetik (halaxe egiaztatzen da lan honetan, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleen laginean atzerritar ikasleak %12 ziren eta), eta egoera horrek sortzen duen eskolaren ikasle-banaketa gurasoen beren eskolan zegoenaren nahikoa desberdina da. Aurreko belaunaldian pentsaezinak ziren zailtasun eta erronka berri batzuk dakartza, zalantzarik gabe, hainbat herrialdetako nerabeak hartzen dituzten eskolen egoerak, beste kultura bateko pertsonekin batera bizitzea aberasgarria izanik ere.

Zeharo irekita dago etorkinen eta bertakoen arteko nahiz etorkinen beren arteko eragintrukeari buruzko arazoa. Ba ote dago nazio-kidetasunaren araberako “ghettoak” sortzeko arriskua? Bestalde, erakundeek zaintzapean zituzten etorkin nerabe batzuk tartean zirela, berriki gertatu diren indarkeriazko gertakizun batzuek –gero gizarte komunikabideetan, noski, agertuta– gizarte-asaldura nabarmena sortu dute. Ez da batere erraza gizarteratzea oso patriarkalak diren gizarte batzuetatik datozen gazteak eta ez hain gazteak, bereziki gurasoak ehunka, edo are milaka, kilometrotara daudenean.

Garai hauetan *cannabis*a banalizaturik dago, eta droga hori, izatez, legezkoa da, aintzat hartuz gero nerabeek hura lortzeko duten berebiziko erraztasuna nahiz nerabezaroan hura esperimentatu, gutxienez, egin dutenen proportzio handia. Tabakoaren ordezkoa ote, alkohola epe labur batez –1980ko hamarkadaren bukaeran IHESa agertu ondoren– heroinaren eta droga “gogor”en ordezkoa izan zen bezala, gero halakoen ondoan kokatu bazen ere? Egiatan, gaur egungo unean ikusten dugu alkohol-kontsumoaren jai-eredua finkatzen ari dela, eta horrek, maizegi, legeen kontrakoak diren –baina gizartean edonon dauden– drogen kontsumoa ere loturik izaten duela, droga horien artean *cannabis*a dela nagusi. Ez ditugu

kokaina ahazten, nerabeen artean ere kontsumitzen baita, ez eta beste produktu batzuk ere, hala nola heroina, azken bi urteetan sartu da eta. 2007. eta 2008. urteetako azterlan batzuk bat datoz kontsumoak apur bat gutxiagotu direla ondorioztatzean, salbuespenak dauden arren, heroina kasu, 1980ko hamarkadako lehen urteetan zeuden mailetara itzuli baita (ez dute, ordea, xiringa bidez hartzen, bide parenteraletik baizik). Baina droga guztien kontsumo-mailak azken hogeita hamar urteetako handienetarikoak dira. Hala ere, erpin bat egon zen, berriz diogu, duela bi urte, gutxi gorabehera.

Horrez gain, helburuen paradigma aldatu egin da alkoholaren eta drogen inguruan. Lehen, ez kontsumitzea azpimarratzen zen, eta orain, aldiz, kontsumo seguruagoa sustatu da, edo –zehazkiago, beharbada– halakoak behin harturik, hain kaltegarria ez den kontsumoa. Prebentzio-politika lausotu egin dela ikusi dugu, baita diskurtsoetan ere, eta kaltea murrizteko politikaren gorakada gertatu da haren ordez. Pentsatu nahiko genuke Euskadin dagoneko hirugarren aro batean sartzen ari garela, non prebentzio-politika batera itzultzen baita, era eguneratu eta birformulatu batean, eta kaltea murrizteko politikaren alderdi onuragarrienak baztertu gabe. Badirudi, orobat, azkenean nerabeen edarizaletasuna dagokion tokia betetzen ari dela gazte-politiketan, nahiz eta era ahul samarrean eta orientazio zalantzakorrekin. Baina bide luzea, luze-luzea, geratzen da egiteko oraindik, eta, zalantzarik ez, gaur egungo nerabeek hura helduaroan biziko dute.

Azkenik, baina ez garrantzi gutxienekoa horregatik, Euskadin ETAren terrorismoaren itzulera bizi dugu, hamarkadetan zehar azkenetan dagoela esan izan den arren. Nazioarteko terrorismoa 2001eko irailaren 11tik presente egonik, askatasun murrizketetara jartzen hasia da gizartea, segurtasunaren mesedetan (milurteko berriko lehen hamarkadako egiazko fetixea da). Begira diezaiogun, konparazio baterako, bideozaintzako kamerak ugaritu izanari; hain zuzen ere, halako kamerak kale borrokako aldeetan eta epaileen kontrolpean jartzeak –joan den mendeko azken hamarkada, lehenagora jo gabe– eztabaida zabala piztu zuen arlo judizial zein politikoan.

Gizartekideak, segurtasunaren mesedetan, eguneroko bizitzan etengabe susmagarritzat har ditzaten ohitzen ari dira. Hala, bada, bigarren maila batera igaro da dagoeneko pertsonek beren duintasunaren inguruan duten ezin kenduzko eskubideen defentsa. Horren bilakaera oharkabean gertatzen ari da herritar gehienentzat, eta, jakina, belaunaldi berriei eragiten die; hala, mindulinagoak, proxemikoagoak, eta desberdinen aurreko tolerantzia gutxiagokoak dira. Ondorioz, zertzelada kezkagarriak ageri dira giza eskubideak sustatu eta babestearen inguruan, lan honetan aditzera ematen denez.

Honaino idatzirikoari amaiera emateko, esan dezagun aurrean, ondorioz, fenomeno bikoitza dugula: gazteak bereiztea, batetik, eta, bestetik, gizarte baten testuinguruan kokatzea aldi berean, gizarte horretan, EAEkoa kasu honetan, belaunaldien arteko aldeak oso handiak ez direla. Ez da inoiz ahaztu behar gazteak ez daudela gizartetik bereiz, ez dutela osatzen gizartetik kanpoko estamentu bat. Helduak eta nagusiak dauden gizarte berean daude haiek ere. Gizartearen aldetiko aldi bereko barneratze- eta bereizte-errealitate bat dugu aurrean. Andrés Orizo-k honela zioen hori *Jóvenes españoles 1999* ("Espainiako gazteak, 1999") azterlanean: *"Gizarteko indibidualizatze-prozesuak eta desberdintasunaren bilaketak (biak ala biak postmodernitatearen ezaugarriak dira) bultzatu egiten dute bizi-estiloak, taldeak,*

*tribuak, tipoak eta mikrotipoak ugari daitezen. Gazteek –helduek baino gehiago– dagoeneko ez dute beren burua behartzen estilo bakar batera mugatzera. Probatu edo aldatu egin dezakete."*

Har dezagun azkenean gure funtsezko hirugarren tesia: gaur egungo nerabe eta gazteen gizartekoitze-era berezia; horrek nerabe eta gazte baldintzatuak bihurtzen ditu, egia da, baina ez determinatuak.

## 3. Nerabea, gizarte-eragile baldintzatua baina ez determinatua: gizartekoitze-eragileak

Hain zuzen ere, testuinguruan kokatzeko beharra nabarmentzea ez da determinismotzat ulertu behar. Inguruneak, terminoaren adierarik zabalenean, baldintzatu egiten du, baina ez determinatu. Are gehiago. Postmodernitatea deritzon horretako gazte eta nerabeak, Mendebaldean, beste nerabe eta gazte batzuekiko talde-esperimentazioaren bidez gizartekoitzen dira batik bat (portaerak eta baliabideak partekatu eta saiatzea), eta ez beste gizartekoitze-instantzia historiko batzuen bidez, hala nola baitira eskola, elizak, alderdi politikoak eta bai gizarte-komunikabideak ere. Gizartekoitze-eragile klasiko horietako batzuek, itxura denez, gizartekoitzeko gaitasuna galdu dute: elizek, zalantzarik gabe, baina komunikabide jakin batzuek ere bai, batzuetan eragileen beren barne-arrazoiengatik, bestetzuetan beste berri batzuk agertu izanagatik.

Zehazkiago adierazteko, esan behar da ezen, aipatu berri ditugun betiko gizartekoitze-eragileei dagokienez, gaur egungo nerabe eta gazteek harrera-jokabide hotza izaten dutela, eta, ondorioz, arauak, balioak, mundu-ikuskerak, eta abar –era kritikoan bada ere– erreproduzitu beharrean, gazteek beren esperientzietan oinarriturik (gehienbat, nahiz eta ez bakarrik, talde-esperientziak dira, Internet dagoenetik batik bat) deseraikitzen eta berreraikitzen dute gizartekoitze-eragile tradizionalek helarazten dietena. Horrela, eraikuntza nomiko pertsonalak sortzen dituzte, eta halakoak gizartekoitze-eragile helduen ikuspuntutik inkoherenteak, osatugabeak, heteredoxoak, eta abar direla ikus daiteke, baina gazteen beren aburuz, ordea, norberarenak izatearen bertutea dute, berek eraikiak direlako, eta sarritan, beti gertatzen ez bada ere, kanpotik atzematen zaila den barne-koherentzia batekin.

Askotan egonkorra ez den prozesu horretan, gazteek beren eskema eta ereduak eratzen dituzte, bizi diren eta hazten ari diren gizarte-errealitatea ulertzeko. Puzzle erraldoi baten modukoa da, eta zeinek bere ezaugarri-mota duten piezekin eratuta dago (aginduzkoak, iradokizunezkoak, probokaziozkoak, eta abar), pieza horiek hainbat instantziatatik datozela (familia, eskola, komunikabideak, Internet, berdinen taldea, eta abar); pieza horiekin, bada, erreferentziazko eredurik gabe, oro har, beren eraikuntza propio eta indibidualak muntatzen dituzte, haien bizimodua (aisialdia, ikasketak, lana, familia, maitasun-harremanak, eta abar) osatzen duten errealitateei egokiturik. Azkenik, halako eraikuntzak esperimentazioaren eta baliagarritasun pertsonalaren bahetik pasatuta baliozkotzen dituzte. Ikuspegi horretan koka daiteke gaur egungo nerabeei ematen zaien "indibidualista" izendapena, egoismoaren eta gizarte-autismoaren konnotazioa halabeharrez –eta, batez ere, bakarrik– eman gabe, nerabe izatearen autoeraikuntzaren konnotazioa baizik.

Askotan baliatu gara goian aipaturiko puzzlearen adibide horretaz joan den mendearen bukaerako gazteen gizartekoitze-era azaltze aldera. Zerbait zehaztu behar da, ordea: osatuko duten puzzlean ez dago taparik, hots, eredurik. Irudika dezagun EAEko ikasle bat 1.000 piezako puzzle bat osatzen Kontxako badiaren, Bilboko Guggenheim museoaren edo Gasteizko katedral berriaren… irudiarekin, taparik gabe, eredurik gabe. Ezinezko eginkizuna dela pentsatuko bide du. Bada, horixe da, hain zuzen ere, joan den mendeko azken hamarkadako EAEko nerabe askok aurre egiten zioten egoera, are gehiago XXI. mendearen lehen zatiaren bukaerakoek, gure lagina osatzen duten nerabeek, erakartzen dituzten “input” berriak (teknologikoak, batik bat) ugarituta eta “input” tradizional batzuk gainbehera egonda (hainbat eredutan berriz egituratzeko bilakaera izaten ari da familia).

Ikus dezagun nola azter daitezkeen nerabeen gizartekoitze-eragile klasiko batzuk.

### 3.1. Familia, dauden familia-motak kontuan izanik

Familia aparteko kontua da, baita eredu berriak sortzen ari diren honetan ere. Familia egitura nagusi bat da oraindik ere, non nerabeak gizartekoitzen diren, lan honetan zehar ikusiko dugunez. Errepikatu egiten den eta inkesta askotan aurkitzen dugun datua da. Baina ez dago erabateko adostasuna zehazterakoan familia zein neurritan den gizartekoitzeko gunea, elkarrekin bizitzeko gunea izateaz harago. Sarrera-lerro hauetan eztabaidagai hori argitzeko asmorik gabe, jakina, Espainian berrikitan egin diren soziologiazko ikerketa batzuetan atera diren ondorio batzuk aipatuko ditugu laburki.

Familiak duen gizartekoitze-gaitasuna, funtsean, familiaren beraren barne-egituraren araberakoa da. Oinarri ideologiko eta emozional sendoa duen familia bat baldin badago, ez dago hura baino gizartekoitze-instantzia ahaltsuagorik ohiturak, pentsamendu-egiturak, jarrerak, balioak eta abar osatzeko garaian, bereziki pertsona baten bizitzako lehen urteetan; nerabezaroaurreraino, gutxienez. Hori hainbat faktore direla kausa gertatzen da, eta haietatik ondorengoak aipatuko ditut: gurasoen artean harmonia egotea; seme-alabei denbora eskaintzea; bizi-estilo positiboak izatea, eta familia bizitzarako proiektu bat egotea. Alderdi horiek askoz determinatzaileagoak dira, familiagunearen egitura formala baino. Argi eta garbi esanda, familia bat, zenbat eta familiagoa izan, hainbat gizartekoitzaileagoa izango da.

Espainia-mailan 2002. urtean egin zen azterlan batek[3] argiro egiaztatu zuen hori, eta azterlan hartan erakutsi ere egin genuen Espainian gizartekoitzeko gaitasuna zuten nukleo-familiek ez zutela %40 gainditzen. Berrikiago, Katalunia-mailako beste ikerketa batean ere (inprimatzen oraindik), non azterlan honetako kide zenbaitek lan egin baikenuen, Kataluniako familia askoren gizartekoitze-gaitasunak dituen mugak ikusi genituen. Goian aipatu diren arrazoi berberengatik. Argi eta aho betean esan dezagun: gazteriaz edo nerabe-jendeaz kategoria uniformeak balira bezala hitz egin ezin daitekeen bezala, familiaz ere ezin daiteke hala hitz egin. Familia ez da existitzen gizartekoitze-egitura gisa. Badira heziketa-ereduak, seme-alaben heziketan zein

---

[3] MEGÍAS, E. (koordinatzailea); ELZO, J.; MEGÍAS, I.; MÉNDEZ, S.; NAVARRO, F.J.; eta RODRÍGUEZ, E. *Hijos y padres: comunicación y conflictos.* Argitaratzailea: FAD. Madril, 2002. 344 orrialdea.

bere modura engaiatzen diren familiaguneak –batzuk beste batzuk baino gehiago, hamaika arrazoi direla kausa–, seme-alabok odolekoak izan zein adoptatuak izan, eta horrek ondorio desberdinak ditu batzuek eta bestetzuek gizartekoitzeko duten gaitasunean.

Sarrera-orrialde hauetan ezin luza gaitezke familiagune bakoitzean egoten diren heziketa-ereduak azaltzen, baina ohar pare bat emango dugu gaur egungo familiak eta duela bi belaunaldikoak, hain zuzen ere, bereizi ahal izateko, Weber-en "tipo idealak" antzeratuz.

Antza denez, gaur egun gurasoetako askok ez dute asmorik seme-alabei honelako edo halako pentsamolde bat, honelako edo halako mundu-ikuskera bat, uzteko. Atera behar den hipotesia da, ordea, neutraltasun axiologikoaren antzeko zerbait aldarrikatzen dela, honako printzipio hau oinarri harturik: "seme-alabek aukeratuko dute zer nahi duten, nagusiak direnean". Hala eta guztiz ere, guk diogu ezen (eta dagoeneko frogatu daiteke, ikerketa enpirikoaren armen bidez) familia-tradizioak, familiaren historiak, familia-"humus"ak baduela gure artean hainbateko indarra, non familia-balioak, gurasoen balioak (edozein joeratakoak izanik ere) gurasoengandik seme-alabengana –osmosi-fenomenoa, koexistentzia-fenomenoa balitz bezala– transmititzen baitira, balio horiek sakonenean dutenari dagokionez, ez halabeharrez tematizaturik dagoenari, baizik eta sentitu, bizi, nabaritu izan denari dagokionez. Transmisioa, gainera, bizitzako une jakin batean gertatzen da, nerabezaroa iristen den arte, are nerabezaroaren lehen zatian, hain zuzen ere, gainerako gizartekoitze-eragileek eragina izateko ahalmen gutxiago dutenean. Hori guztia dela eta, familiak oraindik ere gizartekoitze-ahalmen handia du.

Baina alderdi guztien gainetik, ahalmen hori nabarmentzen da erreferentziazko eskema sendoak eratzean, aski egituraturik, eraikirik, aldezturik, legitimaturik dauden balio-eskemak helaraztean garrantzizko hainbat punturen inguruan. Hainbat tokitan adierazi izan dugu, baina Martín Serrano-ren eta Velarde Hermida-ren hitzen bidez esango dugu, ondorengoa baitzioten dagoeneko Espainiako gazteen artean sentimendu xenofoboek izandako goraldiaren harira duela hamarkada bat: *"…gure garaian autoritarismoaren jatorria gurasoen ezintasuna da, haien nagusikeria baino gehiago. Ezintasun hori, hain zuzen, familia-etxean anomia nagusi denean nabarmentzen da."* Hor anomiatzat ulertzen da seme-alabei –batez ere nerabezaroan– arau-irizpide seguru eta egonkorrak emateko zailtasuna. Esan nahi baita, arau-irizpide seguru eta egonkorrak izatearekin batera, existentzia-baldintza errealetan moldatzeko irekiak eta eraginkorrak diren gizarte-balio batzuk"[4]. Gure aburuz, egoera horretatik ateratzen ari gara, baina geldiro, geldi-geldiro, eta konplexu gehiegirekin oraindik ere.

Familiari buruzko lerro hauek bukatze aldera, nabarmen dezagun aitona-amonen garrantzia, batez ere azken urteotan; izan ere, urteotan gurasoetan nola aitek hala amek etxetik kanpo lan egiten dute, familia gurasobakarren proportzioa gehitu da (gehienbat amaren ardurapekoen aldetik, nahiz eta halakoek, dirudienez, estatistiketan goiena jo duten eta aitaren ardurapekoak ugaritu diren), bai eta familia berrosatuak, dibortziatu eta bananduenak ere, eta horrek aitona-amonak bilobez arduratzera "behartzen" ditu. Amonak, hobeto esanda.

[4] INSTITUTO DE LA JUVENTUD. *Informe Juventud en España 96*. Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. Madril, 1996, 26. orrialdea

"Amona esklaboak" esaten diete leku batzuetan. Gure artean ikerketa enpiriko gutxi egindako puntuetako bat da hori.

### 3.2. Hezkuntza-egitura

Hainbat ikerlanek erakutsi dutenez, Lehen eta Bigarren Hezkuntzetako ikasleen artean, eskolak betekizun garrantzitsua du gizartekoitze-eragile gisa. Eta betekizun hori areagotu egin da, Euskadin ere bai, krisialdi luze eta sakon baten ondotik. Ikerketa horren datuek, halaber, eskolak duen funtsezko betekizuna agerian uzten dute, batez ere Lehen Hezkuntzan.

Hasteko, esan dezagun Euskadin biziki eskolatze-indize handiak ditugula eta ikasleek oso balioztapen ona adierazten dutela eskolan bai ikaskideekin bai irakasleekin dituzten harremanei buruz.

Goiko datu horien arabera, hezkuntzan dena arrosa-kolorekoa dela lirudike. Baina ez. Aditzera eman behar da nerabe nagusiek eta gazteek ikasten dutela titulu bat eskuratzeko eta lan bat erdiesteko batik bat. Horrenbestez, arrazoi instrumentala da nagusi, eta harexek azaltzen ditu, neurri handi batean, adin horien inguruko datuak, alegia, eskola bigarren mailako gizartekoitze-eragilea dela, betiere garrantzitsua den arren. Gainera, onartu behar da gazteek ordu gutxiz ikasten dutela astean. Duela urte batzuetatik hona esan izan du hori González Anleo ikertzaileak, hau ikusten baitzuen: *"gazte guztiek ez, baina bai gehien-gehienek, asteburu batean denbora gehiago ematen dute aisialdian aste osoan ikasten ematen dutena baino"*.

Irakaskuntzan dihardugunok jakin badakigu ikasle asko beharkizun hutsez daudela eskolako eserlekuan. Eskola-objektoreak dira halakoak. Dagoeneko ez zaizkie ardura ez azterketak ez suspentsoak, etxean jasan behar dituzten gatazkengatik (munta txikikoak) izan ezik. Hori da, gizartekoitze-eragilea izateko, eskolak gaitasun txikiagoa izan dezan eragin duen kausetako bat. Ez kausa bakarra, jakina. Kausa asko daude, eta garrantzitsuak deritzedan batzuk baino ez ditut aipatuko, bat baino gehiago esan gabe utziko dudala dakidan arren: hartara, irakaskuntza desegokia –molde tradizionalekoa– izatea, irudiaren gizarte batean; Lanbide Heziketaren eskaintza oraindik urria izatea; ikasarazten diren irakasgaiak zentzugabeak izatea, hala kopuruaren aldetik (talde-eskolak luzeegiak dira, eta ordu gehiegi dituzte eskola pasibo eta kolektibotan) nola hautaturiko gaien aldetik (bizitzari eta gizarteari loturiko gaien garrantzia txikia da, eta, aitzitik, ageriko interesa ez duten gai asko ikasi behar dira); bat ez etortzea eskolaren gogo-oinarriak (elkartasuna, tolerantzia, eta abar) eta eskolako kalifikazioen lehiazko praktika, kalifikazioak ezkutatu badira ere; eta irakasleak gizartean gutxi balioetsita egotea, luze hartu baitira eskola-emaile hustzat (eta ez hezitzailetzat), edo, bestela, "hezkuntzako langile"tzat.

Baina badago are gehiago. Hainbat esparrutan eskolaren eginkizunen desorekaz aritu gara. Hain zuzen ere, gaur egun inoiz baino gehiago, beharbada, zaila gertatzen da eskolaren helburu eta eginkizunak bateratzea. Eskolari emaniko beste eginkizun batzuen artean, honako hiru hauek nabarmendu behar ditugu hemen, hurrenkerarekin inongo lehentasunik ezartzeko asmorik gabe: *ezaguerak transmititzea,* albait ikaslerik eskolatuenak eta

jakitunenak erdiets ditzagun; *prestakuntza*, beharrezko trebetasunak eskura ditzaten, gizarteratu ahal izateko lanpostu bat lortuta; eta, hirugarrenik, *heziketa,* herritar arduratsu bilakatuko diren ikasleak lortze aldera. Gure aburuz, hiruetatik hirugarrena da premiazkoena eta garrantzizkoena gaur egun, baina irakaskuntzan dihardugunok jakin badakigu hori ez dela, inondik ere, gure lehentasunik behinena gure eguneroko lanean, aldarrikapen, gogo-oinarri, programa-helburu, eta abarretatik kanpo.

Ez ote da egia, neurri handi batean, irakasgai bakoitzaren garrantzia neurtu izan dela –batez ere, Irakaskuntza Ertainetan– ikasle eta haien gurasoen kezkaren arabera, lehenik, eta irakasle eta ikastetxeetako zuzendaritzenaren arabera gero, selektibitate-azterketan zuten pisuari begira (hura zegoenean), eta halaxe izango dela unibertsitaterako sarbide-probarekin ere? Ez ote da erabili ikastetxe askotan selektibitate-azterketan lorturiko arrakasta-ehunekoa ikasleak ikastetxera erakartzeko publizitatean? Azken batean, gazteak gizartekoitzerakoan krisia dagoela eta, zehazkiago, eskolaren eta hezkuntza-ereduen krisia dagoela diogunean, egiaz, hezkuntza-ereduen krisi bat dugu aurrean ala hezkuntzaren helburuen krisi bat? *Krisi*ak esan nahi du bereizkuntza. Bai, badago zer pentsatu ugari, edukiez eta hezkuntzako jakintzagaiez gain. Zertarako eramaten ditugu seme-alabak eskolara? Galdera horri zer erantzun eman, hitzez eta egitez, hezkuntza-eredu batzuk edo bestetzuk izango ditugu.

Immigrazioa gehitu izanari loturiko arazoak aipatze hutsak ez gaitu geure funtsezko planteamendutik mugiarazten. Gure hipotesiaren arabera, irakasle-klaustro egonkor bat, klaustroa izatearen kontzientzia duena, ikastetxerako berariazko proiektu bat bere gain hartu duena eta (datu hau funtsezkoa da) hura zuzentzen duen zuzendari bat baduena, oso faktore garrantzitsua litzateke ikastetxe batek gizartekoitzeko duen gaitasunaren aldetik. Gure ustez, hori askoz garrantzitsuagoa da argudiatu ohi diren beste ezaugarri batzuk baino, hala nola ikastetxearen kokalekua eta ikasleen osaera soziologikoa, bi bakarrik aipatzearren. "Ikastetxe-faktore"aren garrantzia da, goian aipatutako Kataluniako azterlanean berriki erakutsi genuenez; hain zuzen ere, hura azterlan honetako ikasleen antzekoen artean eginiko landa-lana izan zen. Kataluniako azterlan horrek arreta batez ere ikastetxeetako bizikidetzan jartzen bazuen ere, eskolan gizartekoitzearen arazoari ere heltzen zion.

### 3.3. Adiskideen, ezagunen eta noizbehinkako harremanen garrantzia

Euskadin adiskideen gizarte-sareak duen garrantziak agerian uzten du zein pisu duten talde primarioek erakunde-taldeen aldean, eta hori aurreko urteetan ere gertatzen ari zen joera da. Duela gutxiko Europako Balioei buruzko Inkestak (dagokion landa-lana 2008ko uztailean bukatu zen, eta azterketa-fasean dago orain) erakutsiko du nola EAEko gizartean astialdiak gero eta garrantzi handiagoa duen, gizarte osoan, oro har, ez bakarrik nerabeen artean; baina horrek, noski, badu bere eragina gazteenen artean. Nolanahi ere, duela hamarkada batzuetatik hona, jakina da zer-nolako toki abantailatsua duten aisiak eta astialdiak gazteak gizartekoitzean. Hain zuzen ere, adiskideek eratzen dute harremanek formalizazio-mailarik apalena duten gunea, hots, harremanak horizontalagoak dira (komunikabideetan ere bai, baina azken horien aurrean nerabeak pasiboagoak dira, eta eragin-truke gutxi dute, edo batere ez), hurbilagoak dira, eta horrek guztien baterako esperientzietan parte hartzea dakar

berekin, arautu gabeko esparru batean askotan (edo formala ez den eta nabarmen araututa dagoen esparru batean), askatasunean bizi izateko, beretarrekin egoteko pertzepzioa dutela, inoren zaindaritzapean egon gabe. Horiek guztiek, esperimentatzeko eta gauza berriak ezagutzeko adin betean, eragina izateko ahalmen handia dute, azalekoa eta une jakin batekoa, agian, baina ez transzendentzia gutxiagokoa haien bizitzako aro batean, orain bizi ari diren aroan. Arlo horretan, gaua, gauaren alderdia, nagusia da nerabeak gizartekoitzean.

Espainiako nerabe eta gazteen harremanei dagokien alderdia sakon aztertu du 2002. urteko lan batek[5]. Ateratako ondorioetan, egileek irmo baieztatzen dute nerabeen arteko harremanetan bereizi behar direla harremanetan egoteko beharrizana, batetik, eta *"adiskidetasun terminoaren bidez adierazten diren babesaren eta afektuzko hurbiltasunaren beharrizana",* bestetik. Halaber, diotenez, harremanak izateko eta bakarrik ez egoteko beharrizana *"oinarrizko gizarteratze-printzipioa da, 'gizarte-trebetasun'en garrantzia nabarmentzen duten neurrian, maila guztietan gizarte-arrakasta lortzeko baliabidetzat"*. Arrazoiak edozein direla ere, gizarte-harreman hori ez lortzeak eragiten du gazte bat hainbat tipologiatan "gizarte-uzkurra" izendatu duguna bihur dadin.

Denborarekikoak oso desberdinak dira "harreman huts"aren testuinguruan eta "adiskidetasun"arenean. Eguneroko bizitzaren ezagugarriak "iragankortasuna eta aldakortasuna" dira, azalekotasuna, une eta egoera jakin batekoa izatea. Gainera, testuingurua oso gutxitan izaten da isila, edo dezibel-maila apalekoa, hizketaldia izateko modukoa, alegia. Aditzera eman behar da nerabeen aisialdiaren gehiena, eta batez ere haien unibertso sinbolikoan, bai eta heldu askorenean ere (*"gauzak interesgarri jartzen direnean"*, batzuek diotenez), gaueko, dezibel askoko eta alkohol ugariko testuinguruan gertatzen dela, ahaztu gabe beste droga batzuk ere egoten direla, marihuana nagusi.

Adiskidetasunaren denbora oso bestelakoa da. Adiskidetasunari "iraunkortasuna, jarraitutasuna eta egonkortasuna" eskatzen zaizkio. Horrexegatik, onartzen da "adiskidetasuna ondasun urria dela, lortzen zaila, eta are gordetzen zaila". Baina badago zerbait gehiago, eta garrantzi gehiagokoa. Adiskidetasunari ez zaio besterik gabe eskatzen, une jakin bateko jai-harreman bati bezala, kolektibo batean integra gaitzala, ez gaitzala bakarrik utz. Eskatzen zaio harremana ezar dadila maila diadiko batean, bikote-mailan, maila berean, eta hor, aipaturiko azterlanaren egileen arabera, lau ezaugarri nagusi batu behar dira, benetako adiskidetasuna omen denaren tipo idealen eran; hona hemen ezaugarriok: konfiantza, zinezkotasuna, leialtasuna, eta elkarrekikotasuna (ikus 159. orrialdea eta hurrengoak). Eta horrela izan behar onerako eta txarrerako, bereziki txarrerako, azken egoera hori adiskideekin baino ezin baita partekatu, onerako badaudelako gehienbat dibertsiorako, une atseginetarako, soilik balio duten ezagunak.

---

[5] RODRÍGUEZ, E.; MEGÍAS, I.; eta SÁNCHEZ, E. *Jóvenes y relaciones grupales: dinámica relacional para los tiempos de trabajo y ocio.* Fundación de Ayuda contra la Drogadicción (FAD) eta INJUVE. Madril, 2002. Espainiako hainbat tokitako hamar eztabaida-talderekin egin zen lana; nerabe- eta gazte-taldeetan, 15-16 urtekoa zen talderik gazteena, eta 19-20 urtekoa nagusiena. Horrez gain, 1.098 test soziometriko aztertu ziren: DBHko 4. eta Batxilergoko 1. ikasmailetako 1.098 ikasleri banatu zitzaizkien Madrilgo hainbat ikastetxetan (%36 ikastetxe publikoak;, %33 ikastetxe pribatuak, eta %30,7 itunpeko ikastetxe pribatuak).

Gure ustez, nabarmendu behar da ezen, gizarte honetan apur bat arakatuta –non gazteria hautematen, sentitzen eta bekaitz izaten baita gaua, musika eta alkohola erabiltzen duten moduagatik– egiazta daitekeela haren ideala dela adiskidetasun iraunkor, jarraitu eta egonkorra, baita nerabeen artean ere. Adiskide on bat, neska edo mutila, zure unibertso sinboliko ideala eratzen duten elementu nagusietako bat da. Horrek ez du esan nahi jaian ibiltzea bilatzen eta irrikatzen ez dutenik, neurrigabe sarritan, baina laster, oso laster, erabat ohartzen dira hori ez dela aski, eta beste zerbait bilatzen dute. Ez dezagun ahatz litroak egitearen arrakastan osagai hori funtsezkoa dela, duela bi urte berariaz egin genuen azterlan batean aditzera eman genuenez[6].

Hemen emango diegu amaiera sarrera-orrialde hauei, honezkero nahikoa luzatu dira eta. Beste gizartekoitze-eragile batzuk jorratuz jarrai genezake, hala nola gizarte-komunikabideak, teknologia berriak –Internet nagusia dela– (azterlan honetan erakusten da zein eragin sakona duen Lehen Hezkuntzako 2. zikloko ikasleen artean, eta, hortaz, egoki hitz egin daiteke "Internet-belaunaldi"az), kalea, gure nerabeengan kaleak duen eragina eta pisua, eta abar. Ideologiaren arloko eragile klasikoak ahaztu gabe, hau da, alderdi politikoak eta Eliza (erlijio-sinesbideak esan beharko litzateke, zuzentasunez idazte aldera). Nahiz eta halakoek garai batean izan zuten eragina neurri handi batean galdu duten, ez da baztertu behar orain dutena; are gehiago, azkenaldi honetan gora egin dute; bai politikaren bai erlijioaren aldetik, etorkinen artean bereziki, haientzat erlijioa identitate-ezaugarria baita, eta haien tenpluak, ezin ukatuzko gizartekoitze-eragileak.

6 ELZO, J. (zuz.); LAESPADA, M.T.; eta PALLARÉS, J. *Más allá del botellón: análisis socioantropológico del consumo de alcohol en los adolescentes y jóvenes.* Agencia antidroga. Comunidad de Madrid. Consejería de Sanidad. Madril, 2003, 175 orrialde.

# HELBURUAK

**Azterlanaren helburuak** honako alderdi hauen ingurukoak dira:

a) Balioak belaunaldi berriei transmititzen dizkieten eragile nagusien garrantzia aztertzea; hona hemen eragileok: familia; eskola; berdinen taldea, eta teknologia berriak (telebista-kontsumoa, ordenagailuko jokoak, Internet, sakelako telefonoak, eta abar). Bai eta zer balio transmititzen ari diren eta transmisio hori nola gertatzen den jakitea ere.

b) Adingabeek gizartekoitze-eragile horietaz ematen duten balioztapena aztertzea, balioen transmisioan duten eraginari dagokionez.

c) Gure adingabeen artean kontrabalioak zein neurritan hedatzen eta jasotzen diren aztertzea, eta ikertzea halakoak nola berenganatzen dituzten eta hainbat eragilek –hala nola komunikabideek– zer garrantzi duten kontrabalio horiek hedatzean, besteak beste: nagusikeria; matxismoa; arrazakeria; homofobia; intolerantzia; xenofobia, eta abar...

d) Belaunaldi berriek ematen duten balioztapena ezagutzea parte-hartzeko duten bideez nahiz arlo bakoitzean (eskola, familia, udala, eta abar) belaunaldien arteko harremanetarako dauden aukerez.

**Laburbilduz, helburua da informazioa zuzenean lortzea, haren bitartez belaunaldi berriei balioen transmisioa hurbiltzeko estrategia egokia diseinatzearren, eta hainbat mailatarako gomendio batzuk ezarri ahal izatearren: hezkuntza sistemarako; haurrentzako ordutegiko telebista-programaziorako; merkatuan diren jokoen kontrolerako; udalen jarduera-planetarako, edo aisia-programetarako...**

# METODOLOGIA

## A. Lan-tresna

Hiru atal nagusi ditu ezarririko helburuak erdieste aldera azterlan honetan erabili den lan-metodologiak:

1) Lehenik, *dokumentu-azterketa* bat egin da; horren bitartez, gaiari buruzko informazioa franko bildu ahal izan da, eskura zeuden denetariko iturri sekundarioak erabilita. Horrela, aztertzeko esparru teoriko bat ezarri da.

2) Bigarrenik, *"in situ" galdera-sorta* bat banatu da gaztelaniaz eta euskaraz EAEko hainbat ikastetxetan, hautaturiko laginarekin bat eta bereizte-irizpide zenbait kontuan harturik: lurralde historikoa (Araba-Bizkaia-Gipuzkoa); sarearen izendapena (publikoa-pribatua); maila (Lehen Hezkuntzako 2. zikloa-Lehen Hezkuntzako 3. zikloa-DBH), eredua (A-B-D).

3) Azkenik, lau eztabaida-talde eratu dira, hain zuzen ere, nerabe-talde baten, guraso-talde baten, irakasle-talde baten eta hezkuntza- eta gizarte-arloko udal-zerbitzuetako arduradun-talde baten iritziak eta esperientziak ezagutze aldera, nerabeei balioak transmititzeari dagokionez.

## B. Laginak

*Azterlanaren lehen atal*erako, balioak nerabeei transmititzeari buruz dagoeneko zeuden lanak aztertu dira, bai eta, nahiz eta balioen transmisioa xede berezitzat ez duten, horri loturiko alderdiak biltzen dituzten lanak ere. Halakoak dira, esaterako, *Drogas y Escuela* ("Drogak eta eskola"), *Jóvenes, valores, y drogas* ("Gazteak, balioak, eta drogak") azterlanak edo Santa María fundazioak edo Kataluniako Bofill fundazioak eginiko hainbat lan, zeinetan Javier Elzo-k aholkulari nagusi edo aholku-taldeko kide aritu baita. Horrexegatik, halako ikerketetan baliaturiko galdera-sortak eskuratu ahal izateaz gain, haien emaitza nagusiak ezagutu ahal izan dira, eta horrek bide eman du bi errealitateren arteko alderaketa ezartzeko.

Azterlanaren bigarren atalari, hots, *metodologia kuantitatibo*ari dagokionez, ausazko lagin bat diseinatu da, aintzat hartuta aztertu beharreko populazioa osatzen zutela EAEn Lehen Hezkuntzako edo DBHko ikasketak egiten ari ziren ikasleak. Populazio hori 172.757 ikasle dira.

Lagina geruzapen anizkoitzaren irizpidearekin bat hautatu da, lurralde historikoa, sarea, maila eta eredua oinarri harturik. Horri dagokionez, azkenean lortu zen lagina Euskal Autonomia Erkidegoan Lehen Hezkuntza edo DBH ikasten ari ziren *1.829 ikasle*k osatzen zuten; horren arabera, aztertzen zen unibertsoaren adierazgarritasunaren formulari begiratuta, konfiantza-maila %99 eta lagin-errorea %3 zirela lan egin da.

Azkenik, *eztabaida-talde*ei dagokienez, lau eztabaida-talde bereiz antolatu ziren, eta haietan, batez beste, 8 lagunek parte hartu zuten. Zehazki, guraso-talde bat eratu zen 7 lagunekin; bigarren taldea ikasleekin osatu zen DBHko ikasle ziren 11 neska-mutilekin; beste eztabaida-talde bat DBHko 8 ikaslerekin eratu zen; eta azken eztabaida-taldean 7 pertsona zeuden, batzuk hezkuntzako ikuskariak zirela, eta beste batzuk berritzegune zenbaitetako zuzendariak eta teknikariak.

### C. Landa-lana: Informazioa biltzea

Landa-lana, galdera-sortari dagokionez, 2007ko urrian, azaroan eta abenduan egin zen.

Azkenik, eztabaida-taldeak 2007ko abenduan egin ziren.

### D. Laginaren ezaugarriak:

Galdera-sorta banatu zitzaion lagina, guztira, EAEko 25 ikastetxetan Lehen Hezkuntzako edo DBHko ikasketak egiten ari ziren **1.829** ikaslek osatzen zuten; hala, 100 ikasgela hautatu ziren lurraldearen arabera (Araba / Bizkaia / Gipuzkoa), sarearen arabera (publikoa / pribatua), mailaren arabera (Lehen Hezkuntzako 2. zikloa / Lehen Hezkuntzako 3. zikloa / DBH), eta ereduaren arabera (A, B, eta D) banaturik, 1. taulan adierazten den bezala.

**1. Taula. Laginaren banaketa sarearen, mailaren eta ereduaren arabera**

| MAILA | EREDUA | LURRALDE HISTORIKOA | SAREA | | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | *Publikoa* | *Pribatua* | |
| *Lehen Hezkuntzako 2. zikloa* | *A* | Araba<br>Bizkaia<br>Gipuzkoa | 0<br>51<br>0 | 21<br>49<br>0 | 21<br>100<br>0 |
| | | ***Guztira*** | ***51*** | ***70*** | ***121*** |
| | *B* | Araba<br>Bizkaia<br>Gipuzkoa | 9<br>28<br>0 | 17<br>0<br>0 | 26<br>28<br>0 |
| | | ***Guztira*** | ***37*** | ***17*** | ***54*** |
| | *D* | Araba<br>Bizkaia<br>Gipuzkoa | 23<br>82<br>91 | 0<br>49<br>63 | 23<br>131<br>154 |
| | | ***Guztira*** | ***196*** | ***112*** | ***308*** |
| | ***GUZTIRA*** | | ***284*** | ***199*** | ***483*** |
| *Lehen Hezkuntzako 3. zikloa* | *A* | Araba<br>Bizkaia<br>Gipuzkoa | 4<br>0<br>0 | 0<br>24<br>0 | 4<br>24<br>0 |
| | | ***Guztira*** | ***4*** | ***24*** | ***28*** |
| | B | Araba<br>Bizkaia<br>Gipuzkoa | 5<br>22<br>19 | 15<br>118<br>67 | 20<br>140<br>86 |
| | | ***Guztira*** | ***46*** | ***200*** | ***246*** |
| | *D* | Araba<br>Bizkaia<br>Gipuzkoa | 21<br>135<br>77 | 16<br>25<br>36 | 37<br>160<br>113 |
| | | ***Guztira*** | ***233*** | ***77*** | ***310*** |
| | ***GUZTIRA*** | | ***283*** | ***301*** | ***584*** |
| *DBH* | *A* | Araba<br>Bizkaia<br>Gipuzkoa | 15<br>24<br>9 | 56<br>117<br>16 | 71<br>141<br>25 |
| | | ***Guztira*** | ***48*** | ***189*** | ***237*** |
| | *B* | Araba<br>Bizkaia<br>Gipuzkoa | 0<br>38<br>14 | 36<br>83<br>37 | 36<br>121<br>51 |
| | | ***Guztira*** | ***52*** | ***156*** | ***208*** |
| | *D* | Araba<br>Bizkaia<br>Gipuzkoa | 35<br>72<br>58 | 0<br>75<br>77 | 35<br>147<br>135 |
| | | ***Guztira*** | ***165*** | ***152*** | ***317*** |
| | ***GUZTIRA*** | | ***265*** | ***497*** | ***762*** |
| **GUZTIRA** | | | **832** | **997** | **1.829** |

Aurrerago, metodologia kuantitatiboari dagokion kapituluan, laginaren profil xehatua jasotzen da.

ararteko

Herriaren Defendatzailea

*Defensoría del Pueblo*

# EMAITZEN AZTERKETA

I

# DOKUMENTU-AZTERKETA

ararteko

Atal honetan zehar, adingabeei balioak transmititzeari dagokionez, XXI. mendeko gizartean elkartzen diren eragile nagusiak azalduko dira banan-banan eta laburki. Horretarako, familia, eskola, berdinen taldea, komunikabideak –telebista, publizitate-mezuak–, eta teknologia berriak –Internet, bideo-jokoak eta sakelako telefonoak– aztertuko dira hurrengo lerroetan gure adingabe eta nerabeei balioak transmititzen dihardutenen eragile nagusitzat.

Bibliografiaren azterketa honen bitartez erantzun nahi zaien galdera nagusiak ondorengoak dira, egin diren azken ikerketetako batzuen ildotik: ¿ba ote dute eragin-maila bera, balioak transmititzeko garaian, familiak, eskolak, berdinen taldeak eta teknologia berriek?, ¿zer balio eta kontrabalio transmititzen dizkio haietako bakoitzak gure adingabe eta nerabeei?

Familiari eta eskolari dagozkien ataletan, bereziki nabarmenduko da hezteko eta portaera-eredu eta bizi-ohiturak hedatzeko eragile gisa nahiz kultura- eta gizarte-balioen transmititzaile gisa duten betekizuna. Hala eta guztiz ere, bizitzako lehen aldietan berebiziko betekizuna duten arren, eragile horiek pixkanaka galdu dute gizartekoitze-prozesuan eragina izateko ahalmena, eta beste eragile "birtual" batzuei utzi diete lekua, neurri handiagoan edo txikiagoan.

Gaur egungo gure gizarteak dituen bereizgarri nagusietakoa da komunikabideek eta teknologia berriek duten betekizun garrantzitsua balioak eta kontrabalioak pertsonei, oro har, eta adingabe eta nerabeei, bereziki, transmititzean. Ildo horretan, Plan Estratégico Nacional de Infancia y Adolescencia (2006-2009) ("Haurrentzako eta Nerabeentzako 2006 - 2009 aldirako Espainiako Plan Estrategikoa") deritzon planak ohartarazten du komunikabideen eta teknologia berrien goraldiak haur eta nerabeen kolektiboari ekar diezazkiokeen aukera eta arriskuez:

> *"Komunikabideak eta, bereziki, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien bat-bateko goraldia fenomeno globala da, ahalmen handikoa, eta ez bada fenomeno horretan behar adinako arreta jartzen, desberdintasun gehiago sor ditzake, eta, ondorioz, eten digitala handiagoa egin, herritarrek hezkuntzaren eta kulturaren aldetik daukaten ondarearen arabera. Haur eta nerabeei dagokienez, erronka bikoitza da. Alde batetik, ziurtatu behar da halakoak ezagutu eta erabil ditzaten, ikasteko eta garatzeko tresna gisa; bestetik, halakoak zein baldintzatan erabiltzen diren bermatu behar da, haurren eskubideak errespeta eta babes daitezen indarkeriazko, arrazakeriazko edo sexuzko edukien aurrean, bereziki mutil eta neska txikiak pornografiari eta indarkeriari lotutako irudietan erabiltzeari dagokionez."* (Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, 2006-2009, 11. or.)

Hori guztia dela eta, ondoren atal hauek jorratuko dira: lehenik, familia, nerabeei balioak transmititzeko eragilerik behinena den aldetik; gero, eskolak gizartekoitze-prozesuan duen betekizun aktiboa azalduko da; hirugarrenik, berdinen taldea aztertuko da, balioak eta kontrabalioak barneratzen taldearen presioak duen eraginaren aldetik; eta, azkenik, komunikabideak eta teknologia berriak aztertuko dira, bai eta balioen transmisioan duten eragina ere.

## 1. FAMILIA

Nahiz eta familiak balioak hedatzean duen betekizunak pixkanaka behera egin duen, ezin dugu eragin handiko erakunde hori baztertu edo gutxietsi; izan ere, familian sortzen dira pertsonak alde pertsonaletik zein gizartearen aldetik orientatzeko prozesuak gidatzen dituzten funtsezko balioak.

Fundación de Ayuda contra la Drogadicción (FAD, aurrerantzean) deritzon fundazioaren aburuz (2003), familia berebiziko antolakunde bat da, non pertsona guztiek era iraunkorrean parte hartzen baitute bizitzaren ziklo osoan zehar.

Elzo-k (2006) nabarmendu egiten du zein garrantzitsua den familian (familia erakunde gisa eta giza garapenaren lehen aldietako gizartekoitze-eragile nagusi gisa ulerturik) lehentasuna ematea transmititu beharreko balio nagusiei. Ildo horretan, seme-alaben heziketan lehentasunak ezartzerakoan, honako zazpi balio nagusi hauek transmititzea oinarritzat har dadila iradokitzen du:

1) Norberaren gaitasuna, “ikasten ikastea”, da adingabeek, gazteek eta nerabeek, abian jarri behar duten Jacques Delors-en esaera.

2) Arrazionaltasuna, adimen integratzailea eta pertsonen ondarean jasotzen diren zentzumenen eta sentimenduen adimena dela ulerturik.

3) Dirua balio gisa eta diruaren balioa bereiztea; esan nahi baita, desberdintzen irakastea dirua –balio-eskalan oinarriturik– lehentasunezko edo lehentasunik gabeko baliotzat, batetik, eta dirua lortu edo irabazteak berekin dakarren ahalegina, bestetik.

4) Tolerantzia eta aginpide arduratsua, ardura, bai eta sakrifizio eta ahaleginerako jarrera ere, pixkanaka hartzea sustatuz.

5) Permisibitatea eta beharrezko intolerantzia. Helburu horretarako, intolerantziaren kontzientzia hartu behar da, horrela, tolerantzia aktiboaren, autonomiaren, autoarduraren eta ardurakidetasunaren balioak agerian uzteko, bai eta elkartasunaren balioa ere.

6) Balio instrumentalak, hau da, asmo onak gauzatzea helburu horretarako behar diren ekintza konprometituak abian jarriz.

7) Mundu hobe bat lortzeko utopia, lehengo balioen gauzapen, emaitza eta ondorio gisa:

*"Utopia gertagarria denaren barrukoa da, arrazionalki pentsa daitekeenaren barrukoa, zer baldintzapenekin bizi behar dugun aintzat harturik. (…) Lortu beharreko helburu batzuez gain, erdietsi beharreko amets batez gain, borrokatzeko ideal batzuez gain, utopiak aurretik eskatzen du egin beharreko bidearen, gainditu beharreko inertzien, konbentzitu beharreko herritarren kontzientzia har dadila."* (24. or.)

FADek aita-amekin eta 14 urtetik 20 urtera bitarteko seme-alabekin eginiko azterlanaren arabera (2003), gurasoen %97k eta nerabeen %94k uste zuen "familiako harreman onak" edukitzea balio "nahiko edo oso garrantzitsua" zela. Era berean, azterlan horretan ondorioztatu zen ezen familia, familia-eredua edozein dela ere, balio garrantzitsuenen artean dagoela oraindik ere. Hala, bada, familia barruan seme-alabei eguneroko bizitzari aurre egiten laguntzeko moduko balioak transmititzen saiatzen dira, batez ere arauen arlokoak diren balioak. Ildo horretan, seme-alabek zuzen eta ongi identifikatzen dituzte pixkanaka berenganatzen dituzten arau-balio horien ondarea.

Ondoren aurkezten den taulan (2. Taula) laburbildurik ematen da seme-alabak hezteko gurasoen ikuspegitik garrantzitsuenak diren balioen hierarkia, bai eta adingabe eta nerabeen beren ikuspegitik ere. Taula horretan ikus daiteke, batetik, batzuek zein bestetzuek gehien balioesten dituzten balioak "arduraren zentzua", "ahalegina" eta "tolerantzia eta errespetua" direla eta, bestetik, haien lehentasun eta interesen azken tokietan dauden balioak "jakin-mina", "fede erlijiosoa" eta "atentzioa ez ematea" direla. Ondorioz, esan daiteke zuzeneko lotura dagoela aita eta amek irakasten dituzten balioen hierarkiaren –batetik– eta haien seme eta alabek balioen aurrean dituzten jarreraren –bestetik– artean.

**2. Taula. Seme-alabak hezteko garrantzitsuenak diren balioen hierarkia**

| BALIOAK | AITA-AMEN % | SEME-ALABEN % |
|---|---|---|
| Arduraren zentzua | 73,9 | 74,2 |
| Ahalegina | 69,7 | 72,1 |
| Tolerantzia eta errespetua | 65,7 | 60,7 |
| Elkartasuna | 29,6 | 23,8 |
| Manera onak | 27,2 | 40,3 |
| Ongi pasatzeko gaitasuna | 24,1 | 12,8 |
| Aurrezteko espiritua | 18,6 | 28,3 |
| Obedientzia | 16,0 | 22,8 |
| Ausardia, arriskatzeko gaitasuna | 8,9 | 6,7 |
| Gizarte- eta politika-interesa | 5,0 | 4,5 |
| Itxura fisikoa zaintzea | 4,9 | 5,8 |
| Jakin-mi na | 3,9 | 3,4 |
| Fede erlijiosoa | 2,8 | 5,2 |
| Atentzioa ez ematea | 1,6 | 3,9 |

Iturria: E. Megías (koord.). FAD. *Comunicación y conflictos entre hijos y padres*. 2003.

Nerabe eta gazteek familiari erakunde gisa ematen dioten garrantziaren inguruko beste argudio sendo bat da Santa María fundazioak 2005. urtean Estatuko (Ceuta eta Melilla izan ezik) 15-24 urteko 4.000 gazteri eginiko azterlan batean lortu zuen emaitza. Ondorengo taulan (3. Taula) ikus daitekeenez, azterlan horretan ondorioztatzen da gazteek garrantzi handia ematen diotela familiari (4tik 3,79), handiagoa berdinen taldeari (4tik 3,58) zein lanari berari (4tik, 3,52) ematen diotena baino. Ildo horretan, kontuan hartzeko beste datu bat da familiari ematen dioten garrantzia norberaren osasunari ematen diotenaren parekoa dela (4 puntutik, 3,80).

**3. Taula. Hainbat erakunde eta jarduerari ematen zaien garrantzi-maila**

| | |
|---|---|
| Osasuna | 3,80 |
| Familia | 3,79 |
| Adiskideak eta ezagunak | 3,58 |
| Lana | 3,52 |
| Dirua irabaztea | 3,46 |
| Bizimodu moral eta duina eramatea | 3,37 |
| Gogobeteko sexu-bizitza izatea | 3,36 |
| Astialdia eta aisia | 3,40 |
| Ikasketak, prestakuntza, lanbide-gaitasuna | 3,25 |
| Politika | 1,92 |
| Erlijioa | 1,76 |

Iturria: P. González Blasco (zuz.). Fundación Santa María. Jóvenes Españoles 2005.

Egiaztatu da familiak duen eragin handia –eragin positiboa, alegia–, bai erakunde gisa, bai gizartekoitze-eragile gisa, eta bai adingabeen bizitzarako funtsezko balioen transmititzaile gisa ere; orain, aldiz, bestelako alderdi bati heldu behar diogu, familiak kontrabalioak hedatzen ere garrantzi handia izan dezake eta. Horri dagokionez, gizartekoitze-prozesuaren barruan neskentzat edo mutilentzat desberdinak diren balioak aipatu behar dira, hau da, familia barruan jarrera sexistak transmititzea. Horrez gain, oroitarazi behar da ezen, sistema patriarkalaren ondorioz, mutilei eta neskei desberdin jokatzen –eta, hortaz, beren artean elkar bereizten– irakasteko joera dagoela.

Hala, bada, ondorengoak dira gizontasunari atxikitzen zaizkion balio, arau, ohitura eta bizi-estiloak: autokonfiantza; autokontrola; pertsonen eta baliabideen gaineko kontrola, beren burua familiaren mantenuaren hornitzailetzat baitute; politikaren eta gizartearen arloko bizitzan protagonismoa laster eta aise berenganatzen dute; goi-karguak betetzen dituzte, eta abar.

Aitzitik, emakumetasunaren heziketa edo irakaskuntza zuzenean lotzen zaio gizonezkoaren aurrean pasibo, mendeko eta esaneko izateari, bai eta seme-alabak eta gaixoak zaintzeko eginkizunei, etxeko langile onak izateari, idazkarien, diruzainen edo gizarte-laguntzaileen postuak eta antzekoak bete ahal izateari.

Horrenbestez, familiaren ingurunean, generoaren arabera bereiziriko gizartekoitze-prozesu baten emaitzak balio tradizionalak eta genero-estereotipoak ikasi eta barneratzea du bereizgarri, eta halakoek gizartearen sexuaren araberako banaketa sendotzen dute.

## 2. ESKOLA

Familiaren erakundearekin batera, hezkuntzaren erakundeak, dituen modalitateetan –hots, hezkuntza formalean eta hezkuntza ez-formalean–, berebiziko betekizuna du adingabe eta nerabeei balioak irakastean.

Hala, bada, Tedesco-k (1995) balioen hedapena nabarmentzen du ikastetxeen gizarte- eta hezkuntza-eginkizun nagusitzat, eta horretarako beharrezkoa da, berak dioenez: *"balioen arteko lotura sustatzea, eztabaida, elkarrizketa eta trukea sustatzea. Nortasun-eredu bakarra inposatzeko saio ororen traba dira. Ildo horretan, bere gizarte-loturak garatzean pertsona batek topatuko dituen askotariko aukeren aurrean, eskolaren eginkizuna da, nortasuna eratzeari dagokionez, erreferentzia-esparruak finkatzea bakoitzak bere modalitatea edo modalitate ugariak aukera eta osa ditzan ahalbidetzeko."* (129 or.)

Horrez gain, egileak dio ezen gizarte nahiz hezkuntzaren arloko balioetarako esku-hartzea haren alderdi guztietatik aurrera eraman behar dela: moraletik, gizabidetik, bizikidetzatik, aniztasunarekiko tolerantzia eta errespetutik…, zuzenean dela edo zeharka dela, curriculum-proiektuaren nahiz curriculumeko materialen zeharkako ardatz gisa.

Horri dagokionez, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legea (LOGSE, 1990) eta Hezkuntzaren Lege Organikoa (LOE, 2006) aipatu behar dira laburki; hain zuzen ere, legeok zeharkako ildo hauek bultzatzen dituzte: osasunerako hezkuntza; kontsumorako hezkuntza; hezkuntza moral eta gizabidezkoa; bakerako hezkuntza; bide-hezkuntza; eta sexuen arteko berdintasunerako hezkuntza.

Sexuen arteko berdintasunerako hezkuntzari dagokionez, nabarmendu behar da oraindik ere transmititzen direla balio sexistak, zuzenean nahiz zeharka. Hala, bada, López-en arabera (2003), *"testu liburuen eduki eta irudiek emakumeak ezkutatu egiten dituzte, edo, bestela, bi sexuen rol tradizionalak islatzen"* (9. or.).

Hezkuntzaren eta ikastetxeetan egiten den balio-transmisioaren garrantzia dela eta, era egokian prestatu behar dira bai irakasleak bai prozesu horretan parte hartzen duten hezkuntzako eragile guztiak. Ildo horretan, Pérez-en ustez (1999), balioen arloan egiten den hezkuntzazko esku-hartzea lan nekeza da, prestakuntza egokia eskatzen duena, bai eta adingabeengan aldaketa gertatzea posible delako ziurtasun eta uste osoa ere.

Horregatik guztiagatik, berdintasunaren balioa hezkuntza-sistemak nahiz gainerako gizartekoitze-eragileek lortu behar duten erronka bat da, zeren berdintasun formalean –berdintasun errealean barik– bermatutako eskola batean baikaude, eta berdintasun hori benetan erdiesteko beharrezkoa baita eskola mistotik baterako hezkuntzan dihardueen eskolara igarotzea.

## 2.1. Eskolako bizikidetzaren kudeaketa demokratikoari loturiko arazoak

Aipatu egin behar da, laburki bederen, *bullying* edo eskola-jazarpenaren fenomenoa. Haren bereizagarria da berdinen taldean gertatzen den indarkeria-mota izatea, eta gehienbat ikastetxeetan gertatzea.

Eskola-jazarpenari buruz eta, era orokorrago batean, eskolaren inguruneko bizikidetza eta gatazkei buruz, Ararteko erakundeak txosten berezi bat osatu zuen (*Bizikidetza eta gatazkak ikastetxeetan*, Ararteko, 2006), eta parte-hartzezko foro zenbait aurrera eraman du. Hain zuzen, azken foroaren ekarpenak berrikitan argitaratu den liburu batean jaso dira: *Eskolako bizikidetasuna eta gatazkak* (Ararteko, 2008).

Katalunian *Encuesta de convivencia escolar y seguridad en Cataluña* ("Kataluniako eskola-bizikidetzari eta setugurtasunari buruzko inkesta") izenburupean duela gutxi –Javier Elzoren aholkuekin– egin den azterlan batean adierazten denez, 16 urtetik 18 urtera bitarteko neska-mutilek beren segurtasun pertsonalaren kontrako erasoak (poltsa edo diru-zorroa lapurtzea, lapurreta bortitzak, indarrez tiraka lapurtzea, eta abar) jasateko duten arriskua hiru edo lau aldiz handiagoa helduen kasuan baino.

Horri dagokionez, berdinen taldekoen arteko indarkeriaren bereizgarri nagusietako bat da balio soziokulturalen eredu jakin batek, *nagusitasun/botere-mendekotasun* binomioan oinarrituak, markatzen duen gizarte heldu baten isla argia izatea.

Díaz-Aguado-k (2005) aditzera ematen duenez, garrantzitsua da eskolako indarkeria ez hartzea ikasle baten edo batzuen edo ikasgela batzuetako fenomeno bakan gisa, baizik eta hezkuntza-komunitate osoari doakion gizarte-arazo gisa.

Ildo horretan, Coonolly-k eta beste laguntzaile batzuek (2000) nerabeekin egin zuten azterlan batean, *bullying*aren, sexismoaren eta genero-indarkeriaren arteko lotura egiaztatu zuten:

> *"Ikaskideekin erasolariarena egiten dutenek –gainerakoen aldean– gehiagotan agertzen dituzte gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aurkako jarrerak, gehiagotan sartzen dira ohi baino goizagoko bikote-harremanetan, eta gehiagotan izaten dituzte genero-indarkeriazko jokabide bortitzak"* (Coonolly eta laguntzaileak, 2000; *in* Díaz Aguado, Martínez eta Martín, 2004, 95. or.)

Ezagutzaren, emozioen eta jokabidearen mailetako hainbat osagaik osatzen dituzte intolerantzia eta indarkeria. Horregatik, hezkuntzak osagai horietan duen eraginak funtsezko betekizuna du kontrabalio horiek desagerrarazteko. (Díaz-Aguado, Martínez eta Martín, 2004).

Laburbilduz, garrantzitsua da hezkuntza-komunitateak bultza ditzan aukera-berdintasunaren, lanbide-aukerak zabaltzearen, eta familia, bizitza pertsonala eta lana bateragarri egitearen inguruko balioak, eta, ondorioz, berdintasuna era aktiboan eraiki dezan, indarkeriaren agerpen guztiak prebenitu eta desagerrarazteko.

## 3. BERDINEN TALDEA ETA TALDE-PRESIOA

Berdinen taldeak garrantzi handia du adingabe eta nerabeen garapenean, alde pertsonaletik nahiz gizarte aldetik, zeren adiskide-talde batek onartuta sentitzeak, besteak beste, segurtasun- eta taldekidetza-sentipena ematen baitu.

Haurtzaroa atzean uzten denean, nerabeek multzo trinkoak osatzen dituzte berdinen taldetan; batez ere auzokideak eta eskolako ikaskideak diren aldetik berenganatutako harreman eta sareetan oinarriturik antolatzen dira beste berdin horiekin. Halako taldeak, eskuarki, harremanen hurbiltasunagatik edo gogoko gauzen (estetika, sentimenduak, eta abar) inguruko irizpideengatik eratzen dira.

Nerabezaroan, berdinen taldea korazatzat balio du munduko zailtasunetatik babeste aldera, esperientziak norberaren berdinekin partekatuta. Eta, nerabezaro eta gaztaroaren atakatik ateratzeko aukerarik ikusten ez den neurrian, taldeak are esanahi eta garrantzi handiagoa hartzen du. Gazteek, hainbat gizarte-taldek bezalaxe, era kontraesandunean erantzuten dute: astegunetan familiaren etxean, ikasketetan, musikan, bideo-jokoen kontsoletan edo ikus-entzunezkoetan bakartzen dira; eta asteburuan mundura irekitzen dira, taldetan kalera irtenik. Gazte-talde heterogeneoak dira, haietan antzeko egoeran dauden pertsonak onartzen direla (helduen munduranzko oztopo-lasterketa moduko zerbaitean galduriko nerabe eta gazteak), eta, banakako identitate bat baino gehiago, adinaren eta testuinguruaren araberako identifikazio iragankor eta aldakorrak bilatzen dituzte. (Elzo, J.; Laespada, T.; eta Pallarés, J., 2003, 111. or.)

Ildo horretan, adingabe eta nerabeek askotan berdinen taldeari gida ditzan uzten diote, talde horrek egiten dien presioa dela bide. Taldeak banakoari egiten dion presioak, sarritan, etsi oneko sentimenduak eragiten ditu, eta, horrenbestez, besteei espiritu kritikorik gabe jarraitzeko sentimenduak. Hala, bada, taldean izan ditzaketen portaera batzuek bakarka ez lukete zentzurik izango, ez eta aurrera eramateko aukerarik ere. Hona hemen jokabide horietako batzuk: iskanbila sortzea; ezezagun bat beldurtzea; helduei zirrara eragitea, eta abar. Halako egoeren aurrean, hoberena litzateke adingabeek ikastea iritziak, sentimenduak eta hobespenak haien balio eta argudioetan oinarriturik adieraztea, eta ez taldekide jakin batzuen presioan oinarriturik.

## 4. KOMUNIKABIDEAK ETA TEKNOLOGIA BERRIAK

> *"Baldin hogeita hamar urtean ez badugu ikasi telebista mendera ekartzen, zer ez da pasako azken dozena bat urtean etxean ordenagailua, bideo-jokoen kontsola, Internet eta sakelako telefonoak?"* Salvador Cardús, soziologoa (in Castells eta Bofarull, 2002)

Madrilgo Adingabeen Defendatzailearen Bulegoak 2004tik 2005era bitartean sustaturiko azterlan batzuen arabera, adingabeen %37k adierazi zuen teknologia berriak maiz erabiltzeko beharra zuela, %38k aditzera eman zuen erreakzio kaltegarriak nozitu zituztela sakelako telefonorik gabe egon zenean –hau da, adingabe horiek adierazi zuten *"oso estu sentitu*

*zirela, sakelako telefonoa kenduz gero"–, eta %*14k esan zuen bideo-jokoren baten *"mendetasuna"* zuela.

Era berean, Nafarroako Unibertsitateak 2005. urtean aisia digitalari buruz Espainiako hogei hiritako 4.000 adingabe eta neraberen artean eginiko azterlan baten arabera, telebista zen erakargarritasun gutxieneko komunikabidea, sakelako telefonoaren, bideo-jokoen eta Interneten aldean. Hala, bada, %37k telebista nahiago zuen, sakelako telefonoa hautatzen zuen %40aren aldean; %37k telebista aukeratzen zuen, bideo-jokoak hautatzen zituen %47aren aldean; eta, azkenik, %32k telebistaren alde egiten zuen, Internet nahiago zuen %38aren aldean.

Datu horiek ikusirik, badirudi zehatz-mehatz aztertu behar dela zer balio transmititzen diren aisia digitalean eta zer ondorio, positibo nahiz negatibo, sortzen dizkieten adingabe eta nerabeei telebistak eta haren publizitate-mezuek, sakelako telefonoaren erabilerak, Interneten ibiltzeak, eta bai bideo-jokoetan aritzeak ere.

### 4.1. Telebista eta publizitatea: komunikabideek adingabeen portaeran duten eragina

CEACCUk (Confederación Española de Organizaciones de Amas de Casa, Consumidores y Usuarios) zundaketa bat egin zuen 2004. urtean telebistaren eta teknologia berrien inguruan haurtzaroan eta gaztaroan zeuden kontsumo-ohiturei buruz, eta, lan horren arabera, 7 urtetik 12 urtera bitarteko haurrek telebista aurrean egunero 218 minutu ematen zituzten batez beste (3 ordu eta 40 minutu). Horregatik, badirudi balioak transmititzeko eragile ahaltsua dela telebista, balio horiek positiboak izan zein negatiboak izan. Azterlan horren arabera, beste datu garrantzitsu bat da telebista-kontsumoa adinarekin batera areagotzen dela:

> *"Sei urte bitartean, txikien %21ek ez du telebista egunero ikusten; sei urtetik hamaika urtera bitartean, %14k ez du egunero edo ia egunero ikusten. Alabaina, ehuneko hori %8ra jaisten da bat-batean nerabeen kasuan, 12 urte betez geroztik; hain zuzen ere, haien artean %92k ikusten du telebista egunero edo ia egunero."* (4. or.)

Urra-ren arabera (2006), telebistaren bereizgarria da komunikabide ahaltsuegia izatea, familiakoei eta irakasleei abantaila kentzen diena balioak transmititzean; dena dela, ez dago erabateko adostasunik horren inguruan. Telebistak idealak, balioak eta bizi-estiloak emititzen eta transmititzen ditu; zenbaitetan, halakoak positiboak dira, eta beste batzuetan, berriz, ez. Hala, bada, egile horrek harako komunikabideak gure adingabe eta nerabeei transmititzen dizkien kontrabalioak zehatz azaltzen ditu, eta ateratzen duen ondorioa da lehen mailako gizarte-arazoa osatzen dutela telebistak transmititzen dituen mezu kaltegarriek:

> *"Horregatik, telebista-kulturan indarkeria araua da, ez salbuespena. Biziraupenaren idealizazio arriskutsua transmititzen da, bai eta indartsuena, bihozgabea, –jendetasunez zein ez– harrapakaria denarenganako mirespena ere. Puntu horretara helduta, eta jakin badakigula komunikabideek gure kultura-eredua eta balio-sistema neurri handi batean islatzen dituztela, gizarte-arazo direla pentsatu behar dugu."* (440. or.)

Begi-bistakoa da telebistako indarkeriak indarkeria gehiago sortzen duela, halako jokabideak ikasi eta barneratzeko joera egoten baita, eta, beraz, indarkeria funtsik gabe erabiltzea normalizatu egiten da pixkanaka. Era berean, mezu sexistak helarazteak, edertasun-ereduak (emakumeei dagokienez, batik bat) eta mezu subliminalen eta publizitate tekniken bitartez kontsumitzera bultzatzeak eragiten dute adingabeak pertsona manipulatuak, halako mezuek gidatuak, bihur daitezen, espiritu kritikoa izan ezean (Acción Familiar, 2004).

Castells-en eta Bofarrull-en ikuspegitik (2002), "gizarte bulimiko" batez hitz egin behar da. Halako gizartearen bereizgarria da axaleko guztia irentsi nahi izatea, hots, balio garrantzigabeak eta zenbaitetan are hutsalak:

> *"Gizarte bulimikoa esan diogun horrek, axaleko guztia irensteko behar itxuragabea duen gizarte horrek, zeinetan denok murgildurik baikaude, ematen dio lehentasuna komunikabideetan mezu kontsumistaz etengabe josteari, mezuon artean ditugula, besteak beste, azkar aberasteko bideak, etxean bizi den seme edo alaba helduak gurasoen bizkarretik bizitzearen gorazarrea (…), hezkuntzan eskakizunak zorroztearen beldurra (…), komunikabideen arrunkeriaren aurrean atsegin hartzea, eta masiboki irenstea telebista-zaborra edo beste azpiproduktu batzuk, hala nola bideo-joko bortitzak, ikasle alferrentzako webguneak, eta abar…"* (18.or.)

FADek eta INJUVEk ikerlan bat egin zuten "Jóvenes y publicidad. Valores en la comunicación publicitaria para jóvenes" ("Gazteak eta publizitatea. Balioak gazteentzako publizitate-komunikazioan") (2004) izenburupean, gazteentzat egiten zen publizitatean zer balio zeuden aztertze aldera. Ondorioztatu zuenez, gehien transmititzen ziren balioak hauek ziren: "gauzak eduki edo kontsumitzea", "sentipen berriak esperimentatzea", "askatasun fisikoa, jokabidezkoa edo gogamenezkoa", "ordua mundu bizitzea", eta "boterea" eta "hausketa". Aitzitik, gutxien zabaltzen ziren balioak "etorkizunerako prestatzea", "elkartasuna", "familiako harmonia" eta "gizarte-konpromisoa" ziren.

Ondorio gisa, nabarmendu behar da ezen telebistan ageri diren estereotipo irrealak direla erreferentziazko eredurik ez edukitzeak ezaugarritzen duen gizarte baten emaitza. (Ezpeleta, 2007)

### 4.2. Bideo-jokoak

Badira Espainian hainbat azterlan bideo-jokoen kontsumoari buruz adingabeei dagokienez. AIMCren arabera (Asociación para la Investigación de los Medios de Comunicación), 2004an 8 urtetik 13 urtera bitarteko haurren %73,7k bideo-jokoetarako kontsola-motaren bat bazuen. Azterlan bera urtebete geroago eginik, agerian geratu zen 10 urtetik 15 urtera bitarteko haurrak zeuzkaten etxeen %57,7n bazegoela bideo-jokoen kontsola bat, eta zenbateko hori %61,8ra igotzen zen adin handiagoetan, 16 urtetik 17 urtera bitartean.

Gai horren gaineko iturri berrienetakoa da *Niños y Pantallas* ("Haurrak eta pantailak") azterlana. Centro de Investigación Vértice delakoak egin zuen 2004ko azken hiruhilekotik 2005ko lehen hiruhilekora bitartean, Espainia osoko 10 urtetik 18 urtera bitarteko 4.000 ikasleko

lagin batekin, haien hobespen-eskala jakitearren, telebistaren eta bideo-jokoen kontsumoari zegokionez. Ondoren, azterlan horren ondorio nagusietako batzuk azaltzen dira:

- Badaude alde esanguratsuak adingabeen adinaren eta sexuaren arabera, bideo-joko bat edo telebista hautatzeko garaian. Horri dagokionez, nabarmentzen da mutilek bideo-jokoa hobesten zutela kasuen %54an, eta, bestalde, hirutik batek hautatzen zuela telebista. Neskek, aitzitik, 4tik 3ko proportzioan adierazi zuten telebista nahiago zutela.

- Adingabeak zenbat eta nagusiago izan, hainbat handiagoa da bideo-jokoen kontsola hobesten dutenen ehunekoa. Gainera, bideo-jokoak maizago asteburuetan erabiltzen zituzten.

- Joko hezigarriek haien bizitzan zuten eraginari dagokionez, nabarmentzekoa da adingabeen heren batek adierazi zuen bideo-jokoen kontsolarekin jolasteak ikasteko denbora kentzen ziela, laurden baten ustez, bestalde, familiarekin egoteko denbora kentzen zien, eta, azkenik, bosten batek esan zuen berdinen taldearekin egoteko denbora kentzen ziola. Halaber, nabarmentzekoa da 10 urtetik 12 urtera bitarteko haurren %28k uste zuela bideo-jokoen mendera eroriak zirela.

Bideo-jokoetan ageri den indarkeriari dagokionez, ondorengoak azpimarratu behar dira, *Videojuegos, menores y responsabilidad de los padres* ("Bideo-jokoak, adingabeak eta gurasoen ardura") (Cirvértice-k eta Protégeles-ek egina, 2005) deritzon azterlanak lorturiko datuen arabera:

- Adingabeen %7k aitortzen zuen pertsonak torturatzen edo hiltzen zituela.

- Adingabeen %20k aitortzen zuen haurrak, zaharrak edo haurdunak zaurtzen, torturatzen edo hiltzen ziren bideo-jokoetan aritzen zela.

- Adingabeen %15ek aitortzen zuen emakumeen aurkako indarkeria eragin-trukezko eran irudikatzen zuten bide-jokoetan aritzen zela.

- Adingabeen %15ek aitortzen zuen pertsonaiek drogak hartzen zituzten bideo-jokoetan aritzen zela.

Azterlan horrek beste datu asaldagarri bat ematen zuen: inkesta egin zitzaien adingabeen %11k –mutiletan %15ek, eta nesketan %7k– uste zuen bideo-jokoen eraginez bortitzago bihur zitekeela.

FADek (2004) 14 urtetik 18 urtera bitarteko gazteen artean egin zuen azterlanaren arabera, bideo-jokoa erabiltzea gizonezkoen berezko jokabide kulturala da; izan ere, mutilak bikoitza aritzen dira jokoetan (%73,9 mutiletan, nesken %43,4aren aldean).

Bestalde, ADESEren (2006) *Usos y Hábitos de los Videojuegos* ("Bideo-jokoen inguruko erabilerak eta ohiuturak") azterlanaren arabera, Espainiako 7 urtetik 34 urtera bitarteko biztanleen %75-80k bideo-jokoak erabiltzen zituen, eta %70ek, gutxienez astean behin.

Arreta adingabeengan jarrita, 11 urtetik 16ra bitartekoen %78k bideo-joketan ibiltzen zen, eta 7 urtetik 10 urtera bitarteko haurren %67,4 ere bai. Datu horiek hala izanik ere, azterlanak aditzera ematen du bideo-jokoen zalearen profila ez zela, alabaina, hain gaztea; izan ere, hamarretik lau 20 urtetik 34 urtera bitartekoak ziren. Azkenik, txostenak nabarmentzen du jokoetan sakelako telefonoaren bidez aritzen zirenak asko gehitu zirela, guztizko populazioaren (hiru milioi erabiltzaile) %7 ziren eta.

Amnistia Internazionalaren aburuz (2002) oraindik ohikoa da giza eskubideen aurkako balioak bultzatzen dituzten bideo-jokoak egotea. Horrez gain, aditzera ematen du bideo-jokoei buruzko aldizkarietan erabiltzen duten hizkera oldarkorra dela, etengabe indarkeriara jotzen da eta:

> *"…indarkeria goraipatu eta saritu egiten da (gehienetan, hiltzeagatik saritzen zaitu jokoak), giza eskubideen aurka doa (goraipatu egiten da indarkeriaz helburuak lortzearren baliatzea), eta elementu sinbolikoak gainditzera eramaten du; horrela, indarkeria gaur egungo zerbait, zerbait erreala, are 'erakargarria', balitz bezala aurkezten zaigu"* (Amnistia Internazionala, 2002)

## 4.3. Internet

RED.ES delakoaren arabera (Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioari atxikiriko enpresa-erakunde publikoa da), 2007ko apirilean Espainiako 5,5 milioi etxe baino gehiago zeuden sarera konektaturik. 2006. urtean, Espainiako etxeen %33,9 Internetera konektaturik zegoen (RED.ES 2006); horrekin egiaztatu zen erabiltzaileak gehitu egin zirela, zehazki, %13,1 gehiago ziren, aurreko urteko aldi berean baino. Gainera, 6 urtetik 15 urtera bitarteko haurrak zeuzkaten etxeei zegokionez, hamarretik seietan gutxienez ordenagailu bat zegoen, eta %35,8k Interneteko konexioa zuen (RED.ES 2005).

Azpimarratu beharreko beste zenbateko bat da populazio osoaren erdira iristen dela populazio konektatua (%48,3), sarean sartzen diren pertsona guztiak kontuan hartuta betiere, nahiz eta beren etxetik ez sartu, baizik eta beste toki batetik, hala nola zibertokietatik.

ONTSI (Telekomunikazioen eta Informazioaren Gizartearen Behatoki Nazionala) delakoaren *Infancia y adolescencia en la sociedad de la información* ("Haur eta nerabeak informazioaren gizartean") (2005) txostenaren arabera, haurrak dauzkaten etxeetan Informazioaren eta Teknologiei (IKT) loturiko ekipamenduek batez bestekoa gainditzen dute. Era berean, azterlan horrek agerian uzten du haur eta gazteek era intentsiboagoan eta maizago erabiltzen dituztela IKTak, eta adingabeen eta helduen arteko desberdintasun adierazgarriak ematen ditu, estatistiken aldetik. Hala, bada, 10 urtetik 17 urtera bitarteko haur eta gazteen jarrera IKTen aldekoagoa da, helduena baino.

## 4.4. Sakelako telefonoak

Protégeles elkarteak Madrilgo Adingabeen Defendatzailearentzat "Seguridad Infantil y Costumbres de los Menores en el Empleo de la Telefonía Móvil" (Haurren segurtasuna eta

adingabeen ohiturak sakelako telefonoak erabiltzean") (2005) azterlana egin zuen, 11 urtetik 17 urtera bitarteko haur eta nerabeen artean, eta ondorio hauek atera zituen:

- Sakelako telefonoa telefono arruntzat erabiltzeari dagokionez, adingabeek ez dute horrela erabiltzen, gutxi batzuetan izan ezik. Gehien erabiltzen den aukera mezu laburrena da. Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen %29k eta DBHko ikasleen %50ek –sakelako telefonoa dunenen artean, betiere– ia egunero bidaltzen zituen mezuak. Bestalde, azterlanak aditzera ematen du lau adingabetik batek ia egunero deiak egiteko erabiltzen zuela. Dena dela, azterlanak adinaren araberako aldeak aurkitu zituen. Batetik, sakelako telefonoa zuten Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen artean, %9k baino ez zituen ia egunero deiak egiten. Beste aldetik, Bigarren Hezkuntzako ikasleei zegokienez, ehuneko hori handiagoa zela, %25, esan behar da.

- Sakelako telefonoa aisialdirako tresnatzat erabiltzea aipatzen dugunean, hiru erabilera mota aintzat hartu behar dira: sakelako telefonorako jokoak eskuratzea; telefonoaren bidez argazkiak trukatzea; eta txata erabiltzea. Horrez gain, argazkiak trukatzeari dagokionez, azterlanak erakusten du sakelako telefonoa zuten adingabeen %47k adiskideen argazkiak jaso zituela, %9k irudi pornografikoak jaso zituela, eta %7k irudi komikoak edo beste mota batekoak jaso zituela; gainerako %32ak, dena dela, esan zuen ez zuela inoiz inolako irudirik jaso.

  Txata sakelako telefonoan erabiltzea, nolanahi ere, tresna berria da, eta beharbada horrexegatik inkestatuen %14k baino ez zuen adierazi sakelako telefonoarekin txatean aritu izana. Hala eta guztiz ere, sakelako telefonoaren bidez txatean ibiltzen direnen %7 adiskideekin ez ezik, ezezagunekin ere aritzen zen hizketan.

### 4.5. Aisia digitalaren kudeaketatik datozen gatazkak

Sakelako telefonoa era desegokian eta kontrolik gabe erabiltzea egoera arazotsuak sor ditzake, *ciberbullying* delakoa, esaterako. Azken hori hainbat mekanismoren bidez gauzatzen da, hala nola baitira sakelako telefonoaren bidezko sexu-jazarpena, *happy slapping* edo "zaplada alaia" deritzon fenomenoa (biktima bati eraso egiten diote, eta bitartean elkar hartutako beste batek erasoa sakelako telefonoarekin grabatzen du), mezu mehatxagarriak bidaltzea, edo izena webean zikintzea. Gainera, halako erabilerak adingabeengan gehiegizko eraginerraztasuna sor dezake jokora eta kontsumora limurtzearen aldetik, ezezagunekin hizketan aritzearen aldetik, eta argazki pornografikoak jasotzearen aldetik.

*Ciberbullying* deritzon fenomenoari, teknologiak era desegokian erabiltzearen arriskuei eta halakoak era seguruagoan erabiltzeko irizpide edo aholkuei dagokienez, Ararteko erakundeak, berrikitan, bi material didaktiko argitaratu ditu, eta ikastetxeetan banatu. Adingabeentzako eragin-trukeko jokoak eta hezitzaileentzako gidak dauzkate: *ciberbullying (Teknologia berrien bidezko jazarpena prebenitzeko material didaktikoa)* eta *Leihoak (Abentura erreala mundu birtualean. Gozatu Internetez… Sarean erori gabe)*.

Ondoren, adingabeen deskribapen labur bat ematen da, bi ikuspegitatik. Batetik, eragile pasibo gisa edo errealitate gatazkatsu horien hartzaile gisa; eta, bestetik, eragile aktibo gisa.

a) *Adingabeak hartzaile gisa*

Teknologia berrien bitartezko jazarpenari dagokionez, esan behar da Lehen Hezkuntzako 6. ikasmailako (12 urte) adingabeen %6k sentitu duela noizbait sexu-jazarpena egin dietela. DBHko ikasleetan proportzio hori %18 da.

Adingabe inkestatuen %72k aditzera eman du zozketetan edo "kasino" erako zorizko jokoetan parte hartzera gonbidatzeko SMSak jaso dituztela. Ildo horretan, %68k esan du nahi ez zituen mezuak, *spam*a eta antzekoak, jaso izan dituela. Bestalde, nabarmendu behar da %9k baieztatu duela sakelako telefonoaren bidez irudi pornografikoak jaso izana. Bukatzeko, esango dugu gero eta gehiago direla eraso birtualen biktimak edo, bestela esanda, ziberbiktimak (Smith eta College).

b) *Adingabeak eragile aktibo gisa: berdinen taldekoen arteko jazarpena teknologia berrien bitartez (*ciberbullying*a)*

*Ciberbullying*a edo ziberjazarpena da teknologia berriak erabiliz pertsonei eraso egitea edo pertsonak apaltzea, sakelako telefonoaren bitartez, mezu iraingarrien bitartez, edo webgunea diseinatuz ikaskide baten izen ona galarazteko helburu nagusiarekin (Smith eta College). Haren bereizgarriak dira anonimotasuna, alegiazko ordezkariak aukeratzea, eta sortzen den kaltea ez hautematea, edo oso maila txikian hautematea. Faktore horiek direla medio, besteak beste, abusu-era hau ohiko estrategia bilakatu da adingabe askorentzat. *Ciberbullying*eko praktika batzuk posta elektronikoz eginiko laidoak dira, mezu mehatxagarriak eta iraingarriak bidalita.

Bestalde, *happy slapping* deritzon fenomenoa nabarmentzen da. Esapide horren itzulpena "zaplada alaia" izan daiteke, eta funtsean datza berdinen taldea aurrera eramaten ari den indarkeriazko eszena bat sakelako telefonoaren kamera digitalarekin grabatzean. Eraso egin, eta halako ekintza gogorrak grabatu ondoren, joera da irudiak berdinen taldearekin partekatzea, eta zenbaitetan indarkeriazko grabaketak Internetez hedatzen dira.

Urra-ren aburuz (2006), bideo-jokoak kontrolik gabe erabiltzeak, talde-presioarekin bat, sakelako telefonoaren bitartez halako indarkeriazko jokabideak gerta daitezen sor dezake, eta honela dio:

> *"Heziketa egokia gabe, gazteak pantailizatze deritzon horren biktima izan daitezke; fenomeno horretan, mundu erreala desitxuratzen da, eta pantaila baten neurrietara murrizten, telebistarena, sakelako telefonarena zein ordenagailuarena izan pantaila hori. Horrela, gaizki dagoena hain gaizki ez dagoela begitantzen zaie irudiaren kulturan haziriko nerabeei, dena grabatzen, argazkiak egiten, SMSak bidaltzen ohituta daudela."* (In La mirada de Jokin. "Los matones sofistican sus métodos". 2006ko otsailaren 16a).

c) *Teknologia berriekiko mendetasuna: gizartekoitze-eragileak versus indibidualizatze-eragileak*

Sakelako telefonoa, telebista, Internet eta bideo-jokoak bitarteko baliagarriak dira pertsonarteko harremanak izateko, eta, beraz, gizartekoitzen laguntzen dute. Bringué-ren hitzetan (2007), bitarteko horiek gizarte-harremanetarako pantailatzat joka dezakete (11. or.).

Hala ere, sakelako telefonoa, bai eta beste teknologia batzuk ere, gehiegi erabiltzeak mendetasuna ekar dezake, eta, ondorioz, bakartze iraunkorra ere bai. Teknologiak oso garaturik eta jendartean oso zabaldurik dauden herrialde batzuetan, hala nola Ameriketako Estatu Batuetan eta Japonian, kultura digitalaren mendera eroritako adingabeen ehunekoa handia da. AEBetan *screenagers* terminoa erabiltzen dute pantailari –ordenagailuaren, sakelako telefonoaren, telebistaren edo dena delakoaren pantailari– lapatuta egoten diren 10 urtetik 20 urtera bitarteko adingabe eta nerabeei oro har deitzeko.

Nahiz eta Estatuan ez den hain sarri eta hain bizi gertatzen gelan denetariko aparatu elektronikoen artean itxita egoten den adingabearen fenomenoa, ikerketa batzuek dagoneko hasi dira “bedroom culture” delakoa ikergaitzat hartzen (De Bofarrull, 2005 eta Livingston, 2002).

González, Espinar eta Frau-ren lana (2006) oinarri hartuta, jorratzen ari garen arazoak honela laburbiltzen dira:

> *“Badirudi logela norberaren santutegi bihurtu dela gazteen artean, hots, helduak ezin sar daitezkeen toki bat. Logela, bada, egon daitekeen eremu pribatu bakarra da, non telebista, musika eta ordenagailua elkarrekin lehiatzen baitira eta gazteen arreta partekatzen baitute. Interneterako sarbidea eta sakelako telefonoa adiskideekiko loturei urrutitik eta logelako bakartasunean eusteko bitarteko bilakatzen dira.”* (4.-5. or.)

Arazoa konpontzeko gakoa, zalantzarik gabe, UNESCOren Komunikabideen inguruko Heziketari buruzko Adierazpenean dago (1982. urtean eman zuen). Adierazpen horretan nabarmendu egiten da zein garrantzitsua den eskolek eta familiek beren gain har dezaten gazteak prestatzeko ardura, irudiak, hitzak eta soinua nagusi diren mundu batean bizi daitezen.

Azkenik, dokumentuen azterketari dagokion atal hau bukatzeko, argi utzi behar da aipatu ditugun gizartekoitze-eragile guztiak elkarrekin eragin-trukean ari direla etengabe, batak bestearengan izaten baitute eragina balioak eta kontrabalioak transmititzerakoan.

Hala, bada, ondoren ageri den grafikoan (1. Grafikoa) atal honetan zehar aipaturiko balio nagusiak, bai eta kontrabalioak ere, laburbiltzeko saioa egin da.

**1. Grafikoa. Gizartekoitze-eragile nagusiak: balio eta kontrabalioen transmisioa**




### TEKNOLOGIA BERRIAK ETA KOMUNIKABIDEAK

**KONTRABALIOAK:**

Telebista

- Telebista “umezain”
- Couch potatoes fenomenoa

Publizitate-mezuak

- Gizarte- eta sexu-arrakasta
- Lehia, lehiakortasuna, prestigioa eta boterea
- Gauzak edukitzeko grina
- Erosotasuna, ahaleginaren ukapena
- Prestigioa eta boterea, itxura
- Publizitate sexista

**BALIOAK:**

- Ezagutza unibertsal bihurtzea

### FAMILIA

**KONTRABALIOAK:**

- Sexuaren arabera desberdin gizartekoitzea
- Permisibitatea

**BALIOAK:**

- Arduraren zentzua
- Ahalegina
- Tolerantzia eta errespetua
- Enpatia

### ESKOLA

**KONTRABALIOAK: *Ciberbullying*a**

- Anonimotasunean eginiko indarkeria
- Nagusitasuna
- Sexismo baztertzailea aisiako kultura-euskarrietan
- Arrazakeria
- *Mouse Potatoes* fenomenoa

**BALIOAK:**

- Ezagutza eta informazioa unibertsal bihurtzea
- Ahalegina

### BERDINEN TALDEA

**KONTRABALIOAK:**

- Talde-presioa
- Errespetu-falta
- *Bullying* edo eskola-jazarpena
- Konformismoa
- Intolerantzia

**BALIOAK:**

- Adiskidetasuna
- Taldekidetzaren balioa
- Bestearekiko konpromisoa
- Elkartasuna

II

# METODOLOGIA KUANTITATIBOA: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HAINBAT IKASLERI EGINIKO GALDERA-SORTAK

Azterlanaren bigarren atal honetan, EAEko eskola-populazioarentzat prestatu ziren galdera-sortetako galdera nagusiak aztertuko dira. Halako galdera-sortak, hain zuzen, 1.829 pertsonari egin zitzaizkion.

Lehenik, laburki ematen dira Lehen Hezkuntzako 2. zikloko ikasleei egin zitzaien galdera-sortaren harira ateratako funtsezko ondorioak. Gero, Lehen Hezkuntzako 3. zikloko ikasleei dagozkienak jasotzen dira. Azkenik, EAEko DBHko ikasleentzat taxutu zen galdera-sortan sarturiko aldagaiak deskribatuko dira.

## 1. LEHEN HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOKO IKASLEENTZAKO GALDERA-SORTA

> *"Txikienak heztea ilusioa, maitasuna eta txera –batetik– eta erantzukizun handi bat eta zalantza ugari –bestetik– bateratzen dituen betekizuna da. Eskuarki, inor ez da zeregin horretarako aski prestaturik sentitzen, eta, itxuraz, borondate onak, esperientziak eta tradizioak ematen duten gida besterik ez du."*
>
> (Elena Rodríguez eta Ignacio Megías, 2005)

Azterlanaren atal hau da berriena –beharbada– txosten honetan; izan ere, adingabeei buruzko azterlanak norberak betetzeko inkesten bidez egiten direnean, ez da ohikoa 12 urteko xede-populaziotik behera joatea, eta are ezohikoagoak dira 8 urteko adin txikira jaisten diren azterlanak. Baina, gainera, are bakanagoa da ikerketaren arlo nagusia haurrek dituzten balioena izan dadin. Ikus dezagun zer arrazoi egon ziren adina maila horretaraino jaisteko.

Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena onartzea (1989; Espainiak hurrengo urtean berretsi zuen) garrantzizko aurrerapausoa izan zen adingabeak, mutilak zein neskak, eskubideduntzat hartzeko, bai eta helduek halako eskubideak babesteko duten betebeharrari eta adingabeen interesaren lehentasunari dagokienez ere. Zoritxarrez, ekonomiaren aldetik desabantaila duten ingurune askotan, are egoera oneko toki batzuetan, asmo-adierazpen hutsa baino ez da izaten, haurrak babesteko aukerak egiaz aplika daitezen eragin barik. Hala ere, hitzarmen hori eta hartan ezartzen diren eskubideak aintzat hartu beharrekoak dira haurren inguruan egiten den edozein ikerketa, txosten edo lanetan.

Hitzarmeneko 13. artikuluan haurren adierazpen-askatasunerako eskubidea dago jasorik, eta 14. artikuluan xedatuta dago haurrek pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna dutela eta eskubide horiek errespetatu behar direla; gero, oso laburrean aditzera ematen bada ere, haurrek beren ideiak eta bestelako pentsamendua izateko nahiz haiek adierazteko eskubidea dutela aitortzen da.

Oso gizarte aurreratu batzuetan bizi arren, oso gutxitan hartzen dira haurrak pentsamendu-subjektu aktibotzat, alegia, iritzia emateko, interesa adierazteko edo zuzenean doazkien berein gauzaren gainean erabakitzeko gai diren subjektutzat. Kasurik onenetan, haientzako onena lortu nahi izaten da, baina haiek kontuan hartu gabe. Zeharo ados gaude Jaume Funes-ekin (2008, 64. or.) suharki dioenean ezen adingabeek eskubidea dutela *"entzunak izateko helduek haien bizitzan eragin nabarmena duten erabakiak hartzen dituztenean; gainera, adingabeei entzutea erarik hoberena da, beti, interes gorena kontuan izateko, haurrak lehen buruan aintzat hartzeko"*. Hala ere, Funes-ek argitzen du adingabeek esan nahi dutena entzutean ez dela beti helduen moduan entzun behar, baizik eta pertsona heldu egokien laguntza izan behar dela, haiek "itzulpena" egin dezaten, haurren munduaren eta helduen munduaren arteko zubiarena.

Esan nahi baita, Funes-ek aditzera ematen du ezen haurren eskubideen lehentasuna haiei parte hartzen, beren bizitzen eragile izaten uztean datzala: *"…esan nahi du norberaren existentziaren kontzientzia pixkanaka hartzea, besteen laguntzarekin norberaren identitatea aurkitzea, nork bere burua maitatu ahal izatea, maitaturik sentitzen delako. Esan nahi du guztien bizitzan parte hartu ahal izatea, bizitza kolektiboa haurren ikuspuntutik ere zehazteko aukerak izanik. Esan nahi du, azkenik, beste haur batzuekin proiektuak, identitateak eta taldekidetzak eratu ahal izatea, aldi bateko, belaunaldi bateko, gizarte-izaera errespetatu bateko partaide senti daitezen."* (Funes, 2008, 67. or.)

Esparru hori dugu abiapuntu, haurrei beren balioei buruz galdetzerakoan. Arrazoi sendo horiek bultzatu gintuzten hain adin txiki eta ezohiko horietan daudenekin esperimentatzera adingabeentzako inkestetan. Gure funtsezko interesa zen haurren artean zein pentsamendu eta balio diren nagusi zehaztea halakoak eratzen hasten diren unetik bertatik.

Ontzat eman dezagun balioak direla onaren eta txarraren, onargarriaren eta arbuiagarriaren, onartuta dagoenaren eta debekatuta dagoenaren, egin beharrekoaren eta saihestu beharrekoaren definizioak (Elzo, 2002). Ongi eta gaizki dagoenaren definizio horiek guztiak gizabanakoaren jarreren edukiari gehitzen zaizkio, eta gure kanpo-jokabideetan uzten ditugu agerian, kide garen gizarteko gainerakoekin eragin-trukean aritzen garenean. Gizartekide garen aldetik, arau baten arabera jokatzen dugu, eta gainerakoek ere horrela joka dezagun espero dute, balioak eta arauak gizarteko gainerako kideekin partekatzen direlako. Balioak partekatzen diren bitartean, ez dira zalantzan jartzen eta taldekide guztiek barneraturik dauzkate; eta taldeak era mekanikoan jokatzen du balioekin bat, horren inguruan batere eztabaidarik edo arazorik sortu gabe. Duela mende batetik baino gehiagotik hona, ordea, badirudi egonkortasuna galdu dutela gizarte osoak partekatzen dituen balio horiek, eta gutxiengo batzuen jokabideak egonkortzat jotako balio horien aurka doaz; orduantxe diogu "balio-krisia" dagoela, eta gizarteak balioek indarrean jarraitzen duten ala eraginkortasuna galdu duten eztabaidatu eta justifikatu behar du.

Azken urteotan, etengabe jartzen ari da zalantzan gaur egungo balio-eredua indarrean ote dagoen, eta balio kontrajarriak agertzen ari dira, besteekin batera egoten direnak eta gizartekideak hartu beharreko balioei buruz erabakitzera behartzen dituztenak. Horrek nahasmendu handia eta egonkortasunik eza sortu ohi du, egokia zer den eta zer ez den.

Ziur aski ez dago egoera nabariagorik, balio batzuk eta bestetzuk –edo esaten duguna eta egiten duguna– aurrez aurre jartzeari dagokionez, balio horiek neskato-mutikoei transmititzeko unea gertatzen denean baino. Haurrek berebiziko gaitasuna dute ispiluaren aurrean jartzeko haiek hezten edo zaintzen dituzten helduak, eta, hala, geure inkongruentziei aurre egin behar izaten diegu.

Pentsamendua eta gogoeta oso egoera primitiboan dauden hasierako aldi horietan, haurrek ongi islatzen dute helduek transmititu dietena, transmisioak pisu handiagoa duela norberaren ideien lanketak baino, azken hori oraindik hastapenetan dago eta. Nolanahi ere, haurtzaroko lehen aldietan joaten dira ideia, balio eta iritzi horiek bilduz, harik eta nerabe egin eta beren pentsamendua lantzen hasten diren arte, eta halakoak dira, hain zuzen ere, mundua nahiz munduan duten tokia ulertzeko era osatzean, geroago erabiliko duten oinarri sendo eta irmoa.

Hori dela eta, gure inkestatuen adina beheratzeak, geure haurrei ahotsa jartzeak, berebiziko balioa zuela iruditu zitzaigun, zer iturritatik elikatzen diren ez ezik, beren ume-ikuspegitik zer iritzi duten eta mundua nola ikusten duten ere jakiteko. Azken batean, haien pentsamenduan sartu nahi izan genuen, barnetik ulertu, “haien azalean” jarri, nahiz eta horretarako helduek mezu anbibalenteekin aipatu ohi dituzten gauzen gainean galdetu behar genien, gizarte-eraikuntzaren aldian dauden gauzen gainean (horregatik, gizarte-balio eta -kontrabalioez hitz egin behar da).

Balioak, gainera, gizarte-ekintza gidatzen du, eta arauak –gizabanako batek zein kolektibitate batek hartu– gizarte-ekintzarako irizpide batzuk dira, arauok aldatu egin daitezkeela. Hortaz, balioak, arauak eta gizarte-ekintza elkarri loturik dagozkio, eta gehienetan arauek eta gizarte-ekintzak oinarritzat duten balioa islatzen dute, nahiz eta ez den beti hala.

Azterlanaren atal honetako neskato-mutikoei aplikaturik, haien ekintzak baliagarriak izango dira haien balioak –hots, haien portaera gidatzen duen hori– ezagutzeko. Horrexegatik, hain zuzen, galdera-sorta sakon egokitu da haiek behar dutenerako. Argazkiak eta marrazkiak erabili ditugu, galderak hobeto uler ditzaten, ikertzaileok hain atsegin ditugun balioztapen-eskalak kendu ditugu, hain adin txikikoek oraindik ez baitute lortu ñabarduretarako gaitasuna, haien koloretako munduan, zuria eta beltza banantzen dituen gama zabalagoa bilatzeko gaitasuna, alegia. Hala, bada, galdera-sorta behin eta berriz egokitu dugu, harik eta 8 urtetik 10 urtera bitarteko umeentzat –begirada “nagusien gauz”etara irekitzen ari diren umeentzat– oso aberatsa den galdera-sorta bat erdietsi dugun arte.

Galdera-sorta hori 483 ikasleri egin zaie, guztira; ikasleok honela banatuta zeuden, haien ezaugarri soziodemografiko nagusien arabera:

- *Sexua*: populazio inkestatuaren %47,4 neskak ziren, eta mutilak, aldiz, %52,6 ziren.

- *Sarea*: %58,8 publikokoak, %41,2 pribatukoak.

- *Maila*: mailaren arabera, ikasle inkestatuak honela banaturik zeuden: %51,8 Lehen Hezkuntzako 3. mailan eta %48,2 Lehen Hezkuntzako 4. mailan ari ziren.

- *Adina:* populazio inkestatuaren %45,3k zortzi urte zituen; %41,6k 9 urte zituen; %8,5k 7 urte zituen; eta gainerako %4,6ak, 10 urte.

- *Jaioterria:* %85,5 EAEn jaioa zen; bestalde, ikasle inkestatuen %2,3k Estatuko beste toki batean jaioak zirela adierazi zuten, eta %12,2k, atzerriko herrialde batean.

- *Lurralde historikoa*: Araba (%14,5) – Bizkaia (%53,6) – Gipuzkoa (%31,9).

- *Eredua:* A (%25,1) – B (%11,2) – D (%63,8).

- *Lehen Hezkuntzako 2. zikloa egiten ari diren udalerria:* Gasteiz (%9,1), Amurrio (%3,5), Guardia (%1,9), Bilbo (%16,1), Loiu (%10,1), Durango (%5,2), Barakaldo (%5,2), Getxo (%10,4), Galdakao (%6,6), Donostia (%3,3), Arrasate (%4,3), Ordizia (%5,4), Zarautz (%8,7), Lasarte-Oria (%3,1%) eta Deba (%7).

Ondoren, EAEko Lehen Hezkuntzako 2. zikloko ikasleentzako galdera-sortan islaturiko alderdi zenbaiten deskribapena ematen da.

### 1.1. Gizartekoitze-faktore eta -eragileak

Balioei buruzko inkestetan klasikoa den galdera bat egin dugu; haren abantaila da bizitzari loturiko gizartekoitzeko guneak zein diren jakitea ahalbidetzen duela, hots, bizitzari loturiko gaien inguruan portaera gidatze aldera edo aholkua eskatze aldera pertsonek bilatzen dituzten informazio- eta jakintza-iturriak zein diren jakitea.

Gure ikasle-kolektiboari (8-10 urte) dagokionez, lehen tokian ikasleak daude (%90,2), eta hurren familia dago (%87,8), oso alde txikiarekin. Berria da ikastetxearen eragina hain bizia izatea, familiarena berarena gaindituta, bien arteko aldea oso txikia izanik ere; dena dela, adinean aurrera egin ahala, hurrengo taulan ikusiko dugunez, erlazioa alderantzikatu egiten da, eta bat dator antzeko beste azterlan batzuekin.

Hirugarrenik, aldea handi samarra den arren, liburuetan (%54,3) aurkitzen dute garrantzitsua zer den ikasi ahal izateko lekua, eta atzetik adiskideak eta komunikabideak datoz.

Hala, bada, adin horietan irakaskuntza ikastetxeari lotzen diote, eta familia ia maila berean dagoen arren, biak dira ikasteko oinarri nagusiak.

Azken tokian “nire erlijioko elizan” ageri da (%47,4), ia %50eko proportzioan, hots, adingabeen populazio osoan lortu den proportziorik handienean, baina beste aukera batzuen azpitik. Duela urte batzuetatik hona esan izan dugu erlijioak eta haren erakundeek (gehienbat Eliza Katolikoa) garrantzia franko galdu dutela beren gizartekoitze-ahalmenaren aldetik nahiz

pertsonen bizitzako une erabakigarrietan lagun egitearen aldetik. Ume askok 10 urte dituztela egiten dute lehen aldiko jaunartze-sakramentua, eta aurretik, 6 urtetik 10era bitartean, katekesi-eskoletara joan ohi dira (%48,8k adierazi zuen kristau-ikasbidera joan izana), eta, beraz, jarduera horren eragina, dirudienez, determinatuta dago.

**2. Grafikoa. Non ikasten duzu zer den garrantzitsua, zer egin behar den eta zer ez? sexuaren eta adinaren arabera (%)**




4. taulan txosten honetarako eginiko hiru inkesten emaitzak erkatzen ditugu, Lehen Hezkuntzako 2. ziklorako, Lehen Hezkuntzako 3. ziklorako eta DBHrako emaitzak, alegia. Taulako datuetatik funtsezko alderdi batzuk ondorioztatzen dira:

- Antza denez, familiaren eragina indartsuago bilakatzen da Lehen Hezkuntzako 3. zikloan (10 urtetik 12 urtera bitartean), eta gero indar zerbait galtzen du, baina beti %90aren gainetik.

- Irakasleak garrantzia galduz doaz gizartekoitze-eragile gisa haur-gazteen adinak gora egin ahala. Lehen Hezkuntzako azken aldian, haien garrantzia Lehen Hezkuntzako 2. zikloan dutenaren antzekoa da, nahiz eta pixka bat txikiagoa izan; DBHn, bestalde, garrantziaren aldetik bigarren tokia izanik ere, haien ahalmenak atzera egiten du, beste gizartekoitze-instantzia informal batzuen aurrean.

- Adiskide-taldeak oso antzeko garrantzia du aztertu diren hiru kolektiboetan. Dena dela, txikienen artean liburuen atzetik geratzen da, eta hiru kasuetan bizitzan bide bat edo beste bat hartzeko adiskide-taldea garrantzitsutzat jotzen duten ikasleak %54aren inguru dira; hala ere, esan behar da DBHn kalea lagunen beste faktore osagarri bat dela.

- Adinak gora egin ahala, liburuak indarra galduz doaz informazio-iturri gisa eta portaerarako jakintza-leku gisa. Populazio gazteenari dagokionez, %64,5ek uste du liburuak garrantzizko iturri direla, eta proportzio hori %26,5era jaisten da DBHko ikasleen artean.

- Antzeko zerbait gertatzen da komunikabideekin (irratia, telebistan eta prentsa); hain zuzen, haien pisua handiagoa da txikienen artean, baina txikiagotu egiten da Bigarren Hezkuntzan (%22,3).

- Aldaketarik handiena elizaren arloan gertatzen da. Lehen esan dugu txikienen %47,4k onartzen zuela elizaren ahalmena bizitzan gidatzen laguntzeko, baina Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean, %7,6k baino ez du onartzen.

- Lehen Hezkuntzako azken zikloan eta Bigarren Hezkuntzan baino ez da Internet sartu galderan, eta, dirudienez, jakintza-iturritzat jotzen du 10 urtetik 12 urtera bitarteko umeen %37,8k, baina Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean behera egiten du nabarmen (%13,9). Hemen zalantza bat dago: adinaren kontua da eta zenbat eta nagusiago izan, Interneten ahalmena gehiago erlatibizatzen dute, ala belaunaldi gazteenen kontua da, Internet beren eguneroko bizitza erabat txertatu dutela eta? Gure hipotesia da Internet ongi pasatzeko modu bat dela nerabeen ikuspuntutik, bizitzarako erreferentzia-puntu bat baino neurri handiagoan, eta adin txikiagokoak oraindik ez direla hori bereizteko gai.

**4. Taula.Non ikasten duzu zer den garrantzitsua, zer egin behar den eta zer ez? (Lehen Hezkuntzako 2. zikloarentzat) edo zure ustez, non esaten dira bizitzan bide bat edo beste hartzeko gauzarik garrantzitsuenak? (Lehen Hezkuntzako 3. zikloarentzat eta DBHrentzat) (%)**

| GARRANTZITSUENA ZER DEN IKASTEN DUZU… | 2. zikloa | 3. zikloa | DBH |
|---|---|---|---|
| …etxean, familian | 87,8 | 93,1 | 91,4 |
| ...lagunen artean | 54,3 | 55,9 | 53,4 |
| …kalean | | | 15,8 |
| …liburuetan | 64,5 | 59,3 | 26,5 |
| …egunkarietan, irratian, telebistan | 48 | 46,4 | 22,3 |
| …irakasleekin | 90,2 | 85,2 | 54,1 |
| …nire erlijioko elizan | 47,4 | 26,3 | 7,6 |
| …Interneten | | 37,8 | 13,9 |
| …inon ez | 3 | 0,2 | 1,8 |
| Beste lekuren batean | | 12,4 | 2,8 |
| Erantzunik ez | 1,3 | 0,5 | 1,7 |
| N | 483 | 584 | 762 |

Jar dezagun berriz arreta Lehen Hezkuntzako 2. zikloari dagokion inkestan; hain zuzen, generoen artean ia ez dago alderik. Neskatoek gehiago nabarmentzen dute hezkuntza-sistema irakasteko eta bizitzan gidatzeko duen ahalmenagatik (%91,7), eta jarraian familia (%86,3) eta liburuak (%65,8) jartzen dituzte. Mutikoen artean, aldeak ez dira hain argiak.

Oso alde txikia dago familiaren (%89,2) eta eskolaren (%88,9) artean, hain txikia, non aipatu ere ezin baitaiteke egin. Bat datoz neskekin liburuak hirugarren tokian jartzean (%63,2).

Bai mutilen bai nesken kasuan, adiskideak laugarren tokian daude garrantziaren aldetik, apur bat garrantzitsuagoak direla nesken ustez, mutikoen ustez baino. Komunikabideen arloan aldeak handixeagoak dira; izan ere, mutilen ikuspegitik gizartekoitze-ahalmen handiagoa dute, aldea txikia direla betiere (%49,3 batetik eta %46,5 bestetik).

Generoaren arabera, alderik handiena Elizaren betekizunak islatzen du. Nahiz eta bai mutikoek bai neskatoek azken tokian uzten duten, neskatoen aburuz gizartekoitzeko balio eta ahalmen handiagoa du (%52,2), mutikoen aburuz baino (%42,9).

Adinari dagokionez, inkesta Lehen Hezkuntzako 2. zikloan egin zen, eta goiz da nerabezaroaurreko portaerak erakusteko; dena dela, aldaketa adierazgarri batzuk, bai, ageri dira.

**5. Taula. Non ikasten duzu zer den garrantzitsua, zer egin behar den eta zer ez? Sexuaren eta adinaren arabera (%)**

| GARRANTZITSUENA ZER DEN IKASTEN DUZU... | SEXUA | | ADINA | |
|---|---|---|---|---|
| | Neska | Mutila | 7-8 | 9-10 |
| …etxean, familiarekin | 86,3 | 89,2 | 87,0 | 88,9 |
| …lagunekin | 55,3 | 53,3 | 51,4 | 58,0 |
| …liburuetan | 65,8 | 63,2 | 66,0 | 62,4 |
| …egunkarietan, irratian, telebistan | 46,5 | 49,3 | 44,1 | 52,9 |
| …irakasleekin | 91,7 | 88,9 | 89,2 | 91,6 |
| …nire erlijioko elizan | 52,2 | 42,9 | 52,6 | 40,6 |
| …inon ez | 1,8 | 4,0 | 4,1 | 1,5 |
| Erantzunik ez | 0,5 | 2,1 | 1,3 | 1,4 |
| N | 229 | 253 | 272 | 210 |

Familia eta eskola gizartekoitzeko gune nagusitzat jotzea ez da aldatzen 7 urtetik 10 urtera bitartean, baina adiskideek eta komunikabideek beren gizartekoitze-ahalmena areagotzen dute, eta erlijioak eta liburuek, aldiz, ahalmen hori galtzen dute.

Adiskideak, zein nerabezaroan ia familia bezain garrantzitsuak izango baitira, garrantzitsuago egiten dira haurra hazi ahala, eta gizarte-lotura egonkorrak sortzen dituzte; hala, adin-talde batetik bestera %6,6 gora egiten dute.

Aipatu egin behar da sailkapen honetan komunikabideek duten bilakaera handia; hain zuzen ere, bizi garen garai honen bereizgarri izanik, garrantzi handiagoa hartzen dute haurren pentsamenduan. Horrek erantzukizun zuzena ematen die komunikabide horietan lan egiten dutenei, populazio-sektore ahul hori era berezian zain dezaten. Bilakaera hori hain da handia, non adiskideen bidez gizartekoitzearen bilakaera ere gainditzen baitu, adin-talde batetik bestera %8,8 gehituta.

Bestalde, erlijioa %12 jaisten da. Erlijioa, orientabide espiritualean oinarriturik, orain urte asko ez direla, iturri bat zen gogoetetarako nahiz zalantzen erantzunetarako; protagonismoa galtzen ari da, eta urteen poderioz azken tokian geratu da. Zehazki, ume hauen hobespenen artean, azken tokira jaisten da.

Familia-tipologia bat egin da etxeko familia osatzen duten kideak aintzat harturik. Gaur egun askotariko familia-motak daude, baina honelako lagin batean ez litzateke oso baliagarria gehiegi bereiztea. Hori dela bide, bost mota, gaur egun gehien gertatzen direnak, dituen sailkapen bat erabili dugu. Ume bat duen familia nuklearra, hau da, galdeturiko haurrak ez su beste seniderik eta, beraz, hiru lagunek osatzen dute familia-taldea; bi ume dituen familia nuklearra; familia ugaria, hau da, hiru ume edo gehiago dituena; familia zabala deitutakoa, hots, guraso eta seme-alabez gain, aitonak, amonak, izebak edo osabak edo beste pertsona batzuk ere batera bizi diren familia; eta familia gurasobakarra, non adingabea aitarekin edo amarekin bizi baita, nahiz eta zenbaitetan zehatz-mehatz senitartekoak ez diren beste pertsona batzuekin ere bizi da, familia berrosatuak deritzegun horietan.

Familiaren osaerak alde batzuk dakartza berekin, baina, dena dela, ñabardurak dira, bestelako mundu-ikuskera batzuen isla baino gehiago. Kasu guztietan, adin horretako neska eta mutilek familian, irakasleen artean eta liburuetan bilatzen dituzte orientabidea eta bizitzarako gauza garrantzitsuak; daitekeena da hurrenkera aldatzea, bai eta bakoitzari egozten zaion ahalmena ere.

Familia zabaletan bizi diren haurrek bereizten dituzte gainerakoek baino nabarmenago gizartekoitze-faktoreak, bereziki familia, irakasleak, adiskideak, eta erlijioa. Komunikabideek eragin handiagoa dute familia gurasobakarretan bizi diren haurrengan, eta familia ugarietan bizi direnek liburuak gehiago aipatzen dituzte.

**6. Taula. Non ikasten duzu zer den garrantzitsua, zer egin behar den eta zer ez? Haurraren familiaren osaeraren arabera (%)**

| | Nuklearra, ume bat | Nuklearra, bi ume | Familia ugaria | Familia zabala | Guraso-bakarra | Guztiak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Etxean, familiarekin | 88,3 | 84,7 | 91,0 | 95,7 | 92,2 | **87,8** |
| Lagunen artean | 52,0 | 48,3 | 54,3 | 81,1 | 66,7 | **54,4** |
| Liburuetan | 63,9 | 61,0 | 75,5 | 65,2 | 69,9 | **64,6** |
| Egunkarietan, irratian, telebistan | 41,3 | 43,8 | 51,5 | 59,2 | 68,9 | **48,1** |
| Irakasleekin | 90,5 | 90,0 | 87,6 | 93,2 | 92,0 | **90,2** |
| Nire erlijioko elizan | 37,2 | 47,9 | 48,7 | 55,7 | 50,6 | **47,5** |
| Inon ez | 4,4 | 2,3 | 1,9 | | 11,0 | **3,0** |
| **Guztira** | 68 (%13,9) | 258 (%52,8) | 70 (%14,1) | 48 (%10,6) | 38 (8,5%) | 482 |

* Ezin da %100 batu, galdera erantzun askokoa izanik.

7. Taulan ageri da 7 urtetik 10 urtera bitarteko haur-populazioak gizartekoitze-eragile bakoitzari ematen dion garrantzia, haurrek eragile horietako batzuekin duten harremanaren arabera, bai eta atal honetan guztian zehar erabili dugun alderdi bat aintzat hartuta ere, hots, boterea, nork erabakitzen duen haurren jolasa. Aldagai hori erabilita, merezi du labur azaltzea ematen zaion garrantzia. Gure aburuz, gainerakoek umearengan duten eragina neurtzeko zeharkako modu bat da. Horrela aztertzen dugu zer buruzagitza-gaitasun duen, zenbateraino moldatzen den adiskideek esaten dutenera, edo helduen munduak haren portaeran zer botere eta kontrol dituen. Ikusiko dugu portaera asko argitzen duen aldagaia dela, buruzagitza eta kontrola neurtzeko zeharkako aldagaia baita. Kasuen %48tan, oraindik gurasoek hartzen dute erabakia seme edo alabaren ordez. Aita-amen babesa handia da oraindik halako adinetan. Hala eta guztiz ere, kasuen %26,7tan adiskideek hartzen dute erabakia, eta %18,3tan, ordea, uste dute berek hartzen dutela.

Nabarmendu behar da oso haur gutxik adierazi zutela argi gurasoekin, gelakideekin edo irakasleekin gaizki konpontzen zirela. Gehien-gehienek –hamarretik zortzik– azaldu zuten harreman onak zituztela horiekin guztiekin, eta hamarretik bik baino ez zuten adierazi neurri batean edo bestean pozik ez zeudela. Horregatik, joera-moduan bada ere, harreman “onak” eta “hala-holakoak” neurtzen dituzten zutabeetan jarriko dugu arreta, harreman “txar”rei dagokien zutabea interpretatu gabe.

**7. Taula. Non ikasten duzu zer den garrantzitsua, zer egin behar den eta zer ez? Guraso, gelakide eta irakasleekin duten harremanaren arabera, bai eta jolasa nork erabakitzen duen kontuan izanda ere (%)**

| | GUZTIAK | Zer moduz konpontzen zara gurasoekin | | | Zelan konpontzen zara gelakideekin | | | Nola konpontzen zara irakasleekin | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Ondo | Hala-hola | Gaizki | Ondo | Hala-hola | Gaizki | Ondo | Hala-hola | Gaizki |
| Etxean, familiarekin | **87,8** | 89,8 | 84,6 | 85,2 | 86,9 | 91,9 | 100 | 86,9 | 92 | 100 |
| Lagunen artean | **54,3** | 55,9 | 52,9 | 55,1 | 56,4 | 45,4 | 28,7 | 54,9 | 50,4 | 68,3 |
| Liburuetan | **64,5** | 69,7 | 35,6 | 56,3 | 62,5 | 74,2 | 82,6 | 65,1 | 57,1 | 84,8 |
| Egunkarietan, irratian, telebistan | **48** | 50,8 | 37,6 | 43,2 | 47,7 | 48,8 | 63,4 | 46,1 | 56,6 | 52,1 |
| Irakasleekin | **90,2** | 90,6 | 92,5 | 100 | 90,9 | 89,3 | 80,7 | 90 | 92 | 89,8 |
| Nire erlijioko elizan | **47,4** | 50,8 | 33 | 37,6 | 48,2 | 41,6 | 80,7 | 46,8 | 48,3 | 52,1 |
| Inon ez | **3,0** | 3,0 | – | 11,4 | 2,9 | 3,5 | – | 2,9 | 1,3 | 18,4 |
| GUZTIRA | 483 | 396 | 57 | 8* | 399 | 74 | 5* | 402 | 68 | 9* |

** Ikus daiteke nola ozta-ozta 9 diren gurasoekin, gelakideekin edo irakasleekin harreman txarrak zituztela adierazten zutenak. Horrenbestez, proportzio hori estatistikaren ondorioetarako baino ez da ageri, baina haren emaitzak ezin dira interpretatu.

Hala, bada, gurasoekin harreman onak dituztenek neurri handiagoan balioztatzen dituzte gizartekoitze-eragile guztiak; gurasoekin hain harreman onak ez dituztenek, aldiz, gizartekoitze-eragile guztiek neurri apalagoak balioztatzen dituzte. Beharbada, esan daiteke ezen,

familia-egitura sendoa denean eta kontsolamendua eta irtenbidea bilatzeko lekutzat dutenean, haurrek gainerako faktorek guztiak indartzen dituztela. Era berean, gurasoekiko harremanak hala-holakoak direla uste duten haurrak gainerako gizartekoitze-erakunde guztiez mesfidatzen dira. Baina hori ez da gertatzen gelakide eta irakasleekiko harremanak hala-holakoak direnean. Gelakideekin edo irakasleekin hala-holako harremanak dituztela adierazten dutenek familia erdigunean jartzen dute, bizitzan norabidea aurkitzearren.

### *1.1.1. Familia*

Adin txikiko kolektibo honentzat diseinatu eta egokitutako galdera-sortaren zati handi bat familian oinarritu da gehienbat, bai eta haren barruan nahiz inguruan transmititzen diren balioetan ere. Ezin izan zitekeen bestela. Halako adinetan familiak eragin eta kontrol handia du adingabearen inguruan gertatzen denaren gainean; gurasoen balio-ereduak du eragin erabakigarria adingabeengan. Hala ere, zaila da zehazki ezartzea zeri deitzen diogun familia. Urrun geratu dira dagoeneko ugaltzeko gaitasunean eta adingabeak zaindu eta mantentzean oinarritzen ziren familiak.

Askotariko familiaguneak daude, elkarrekin bizitzeko itun bat dutenak, eta bizi-proiektuak partekatzeko gutxieneko oinarri batzuei buruzko elkarren arteko adostasun bat ere bai, baina ondorengorik izateko helburuarekin loturarik izan gabe zenbaitetan. Horrek askotariko familia-motak ekarri ditu, eta guztiak ez daude ugaltzean oinarriturik (asko dira umerik gabeko familiak), ezta sexu-harremanetan ere (elkarrekin bizi diren eta bizi-proiektuak partekatzen dituzten pertsona batzuek osatutako familiak, haien arteko harremana, baina, bestelako nahitasun batean oinarrituta dagoela).

Haurren ikuspuntutik, gaur egun denetariko familiak dauden arren, familiagune klasikoak –hots, aita-amek eta umeek, kopuru batean edo bestean, osatutakoak– dira gehienak adingabeak hezten. Batzuen edo bestetzuen alde onen azterketa moralik egiteko batere asmorik gabe, kasu honetan ere aniztasuna garrantzitsua da, baina neurri apalagokoa da, eta urrun dago oraindik –ia ziur– XXI. mendean zehar pixkanaka izango dugun aniztasunetik. Ezin dugu ezer teorizatu familia-eredu batzuek edo bestetzuek seme-alabak heztean duten egokitasunaz edo eraginkortasunaz. Familiagune guztiak izan daitezke onuragarriak, eta guztiak izan daitezke kaltegarriak. Zenbait azterlanen arabera, adingabeen garapen egonkor eta oreka emozionalerako funtsezko oinarritzat ageri dira adingabe horiek jasotzen dituzten ardura, txera eta heziketa, eta ez nor osatzen duten familiagunea. Jaume Funes-ek (2008, 87. or.) dioenez, familia-talde batek, funtsean, estimulu-, segurtasun- eta maitasun-iturri egonkorra izan behar du. Esaldi horrek garbi asko laburbiltzen du familia egokia halakoa ez den familiatik bereizten duena. Gainerakoa ñabardurei eta joerei dagokie.

Nolanahi ere, printzipio hori aintzat harturik, ezin ukatuzkoa da familia-mota batean edo bestean hazteak pertsonei mota bateko edo besteko ezaugarriak eransten dizkiela, eta, ziur aski, ezaugarriok ez dira ez hobeak ez okerragoak besteak baino; izan ere, oinarrizko printzipio batzuk bermaturik, semeak edo alabak bere lotura emozionala modu batera edo bestera erabiltzen du, bizitzea egokitu zaion familia-motaren arabera, baina bestelako taldekidetza-, erreferentzia-unibertsoa eratzen du, eta horrek balioetan lehentasunak ezartzeko bestelako moduak dakartza.

Ikuspegi horretatik, familia-motak adingabeen portaera azaltzeko oinarritzat erabili nahi izan dugu. Hain txikiak izaki, pentsa dezakegu haietaz arduratzen diren senitartekoen eragina oinarrizkoa dela haien pentsamendua eta mundu-ikuskera eratzeko.

**3. Grafikoa. Familia-mota ugarienak 7 urtetik 10 urtera bitarteko ikasleen artean (%)**




Edozelan ere, espero izatekoa denez, ikasle inkestatuetan familia-mota ugariena da amak, aitak eta bi umek osatzen duten familia (%52,8). Azken urteotan horixe da familia-eredu ohikoena, behin 1960ko hamarkadan biziki familia ugariek izan zuten goranzko joera eten eta gero. Hurren, familia ugariak datoz (%14,1) amak, aitak eta hiru umek osaturikoak, eskuarki; eta, hirugarrenik, ume bakarreko familiak daude (%13,9). Hau da, hamar haur inkestatutik, zortzi aitak, amak eta anai-arrebek –halakorik izanez gero– osatutako familia batean, familia-erarik klasikoenean, alegia bizi dira.

Familia zabala deritzogunean %10,6 bizi da, hau da, familia nuklearra beste pertsona batzuekin batera bizi den etxe batean, eskuarki, beste senitarteko handi batzuekin (aitona-amonak edo osaba-izebak); eta, azken tokian familia gurasobakarrak ditugu, non aita edo ama seme-alabekin bizi baita, nahiz eta familia horietako batzuk beste pertsona batzuekin berrosatuta ageri diren (%8,5), eta beste senitartekorekin batekin ere (aitona, amona) bizi daitezkeen.

**8. Taula. Zer moduz konpontzen zara gurasoekin? (%)**

| | SEXUA | | ADINA | | GUZTIAK |
|---|---|---|---|---|---|
| | Neska | Mutila | Lehen Hezkuntzako 3. maila | Lehen Hezkuntzako 4. maila | |
| Ondo | 81,2 | 82,6 | 82,8 | 80,9 | **81,9** |
| Hala-hola | 14,0 | 9,7 | 12,0 | 11,3 | **11,7** |
| Gaizki | 1,0 | 2,2 | 2,4 | 0,6 | **1,6** |
| EE | 3,8 | 5,6 | 2,8 | 7,1 | **4,7** |
| N | 229,0 | 253,0 | 267,0 | 216,0 | **483,0** |

Familia-harremanak onak izaten dira (%81,9). Oso gutxik esan zuten gurasoekin gaizki konpontzen zirela (%1,6), eta %11,7k adierazi zuen gurasoekin "hala-holako" harremanak zituela. Nesken eta mutilen artean ia ez dago alderik, ez eta Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetakoen artean.

Kontuan izanik alde handirik ez dagoela familia batzuei eta bestetzuei dagokien pertzepzioan, esan daiteke familia ugarietan bizi direnek dutela gurasoekiko harremanaren pertzepzio okerxeagoa (%78,1), eta familia gurasobakarretako seme edo alabek, berriz, harreman positiboagoa dutela aitekin edo amekin (%89,5).

**9. Taula. Gurasoekiko harremana, familia-motaren arabera (%)**

| | Nuklearra, ume bat | Nuklearra, bi ume | Familia ugaria | Familia zabala | Guraso-bakarra | Guztiak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Ondo | 81,3 | 81,1 | 78,1 | 86,7 | 89,5 | **81,9** |
| Hala-hola | 13,1 | 11,7 | 12,7 | 9,8 | 10,5 | **11,7** |
| Gaizki | 1,3 | 1,9 | 1,7 | 1,9 | | **1,6** |
| EE | 4,3 | 5,4 | 7,5 | 1,6 | | **4,7** |
| N | 68 (%13,9) | 258 (%52,8) | 70 (%14,1) | 48 (%10,6) | 38 (%8,5) | **482,0** |

• *Familiaren kontzeptua 7 urtetik 10 urtera bitarteko haurren artean*

Abiapuntu harturik azterlanaren helburua dela haurrei "entzutea" eta inguruan duten unibertsoaz interpretatzen dutena ezagutzea, jakin nahi izan dugu haurren ustez zein diren familia-eredu eta zein ez. Horretarako, aspaldi egin zen eta inoiz argitaratu ez zen galdera-sorta batetik hartu genuen ideia1. Elkarrizketatutako populazioaren adinagatik, egokia iruditu zitzaigun irudiez baliatzea haur horien ustez familia bat zer den eta zer ez den aztertzeko. Galdera-sortan lau familia-motaren irudiak aurkeztu genituen. Begien bistakoa da familia-ereduen sinplifikazioa dela, eta horrela izan daitezkeen familia batzuei eman zaiela lehentasuna, baina ez direla diren guztiak ageri. Hala ere, inkestatuen hain gazteak izanda, ezin zitekeen gehiago zehatz; dena dela, goragoko ikasmailetan bai, gehiago zehaztu da.

Lehen ere esan dugu: haur gehien-gehienak familia-eredu klasikoetan bizi dira, alegia, gutxienez bi gurasoek eta beste haurride batek edo batzuek osatutako familietan. Haurretako batzuek familia gurasobakarretan bizi zirela adierazi zuten, baina oraindik oso gutxi dira umeak dituzten familien artean bestelako familia-eredu batzuen arabera (bi aita, bi ama, eta abar) eraturikoak.

[1] Queer Ekintza elkartea (sexu-asakapenerako elkarte bat da) galdera-sorta eskuratu zigun, eta galderetarako ideia batzuk hartu genituen hartatik.

Hala, bada, haurren mundutik hurbilen dagoen erreferentzia familia klasikoena da; hortaz, haien esperientzia urriak eragina izango du beste familia-eredu batzuk aintzat hartzeko duten gaitasunean, eta bestelako familia-ereduak aintzat hartzera menturatzen direnak transmitituriko balioen erreferentziak erabiltzen ariko dira, ziur aski.

Ia ume inkestatu guztiek uste zuten gizona, emakumea eta haurrak egoteak familia eratzen duela. Horrela, %96,7k era horretan aurkeztutako argazkia familiatzat jotzen du. Bigarren tokian ama batek eta ume batek osaturiko familia dago, baina modalitate hori familiatzat hartzen duten ikasleen proportzioa %43,9ra murrizten da, hots, ez da ikasleen erdira iristen. Hirugarren tokian aurkitzen da umeak dauzkaten bi emakume erakusten dituen argazkia. Osaera hori familia bat da %33,8ren aburuz, baina seme-alabekin dauden bi gizonezko dauzkan argazkian, ordea, %22,3k baino ez du familia bat ikusi.

Haurrek familiatzat jotzen dutenaren sailkapena eginez gero, lehenik familia tradizionala jarri behar da; hurren, ama bakarra, populazioaren erdira iristen ez den ehuneko bat duela; eta hirugarren eta laugarren tokian lesbianen eta gayen familiak. Familiatzat jotzean, lesbianei gayen aurretik ematen zaien lehentasunaren jatorria bide da ama-irudiari oraindik ematen zaion garrantzia; hain zuzen, ama familiako oinarri nagusitzat hartzen da, berak sortzen dituela ondorengoak. Aitzitik, matriarkatuaren garrantzi horren aurrean dugu gure gizartean finkaturik dagoen beste ideia bat, alegia, gizonezkoek ama-irudia ezin ordezka dezaketela, eta horrexegatik, hain zuzen, jartzen da bikote-mota hori azken tokian familia-ereduen artean.

**4. Grafikoa. Familia bat denari buruzko kontzeptua 7 urtetik 10 urtera bitarteko haurren artean (%)**




Lehen Hezkuntzako 3. ziklokoei eta DBHkoei egin zitzaien inkestetan, galdera betiko eran osatu zen, itemak formulatuz, eta txikientzat aurkeztu ziren baino aukera gehiago jasoz. Zuhurtziaz erkatu behar dira emaitzak; izan ere, kasu batean, hau da, lehen kasuan, inkestatuei estimulu grafiko bat eman diegu, eta bigarren kasuan itemak irakurrarazi dizkiegu, begi-inpakturik gabe, eta item-kopuru handiagoa proposaturik. Nolanahi ere, emaitzok erkatu egin ditugu, kontuan izanik familiatzat zer hartzen den galdetzean batean eta bestean erabilitako formen arteko aldeak.

Ondorio garrantzitsua da ezen hiru kasuetan erantzunak era berean ordenaturik daudela. Hala, familia nagusia da era klasikoenean osatuta dagona, hots: emakumea eta gizona, ezkondurik egon zein ez (azken kasu honetan ez hain nabarmen), seme-alabekin edo seme-alabarik gabe. Bigarrenik geratzen den aukera seme-alabak dituen emakume bakarrarena da, are seme-alabak dituen gizon bakarrarena; azken horri dagokionez, ez hain nabarmen. Eta, azken tokian, gay eta lesbianen bikoteak dira gutxien aukeratuak.

Txikienek, argazkiak ikusarazi zaizkiela, besteek baino nabarmenago baieztatzen dute badela familia bat familia klasikoa deitu diogun hori, eta gainerako familia-motak askoz gutxiagotan hartzen dituzte halakotzat. Lehen Hezkuntzako 3. zikloko eta DBHko ikasle nagusiagoek, aldiz, mota gehiago sartzen dituzte familiari buruzko kontzeptuan. Hala, bada, hamarretik seik, gutxi gorabehera, familia gurasobakarrak familiatzat jotzen dituzte, eta erdiak baino gehiagok familiatzat hartzen ditu sexu bereko pertsonek osaturikoak.

**10. Taula. Familia bat denari buruzko kontzeptua, Lehen Hezkuntzako 2. zikloko, 3. zikloko eta DBHko emaitzen arabera (%)**

<table>
<tr><th></th><th>2. zikloa</th><th>3. zikloa</th><th>DBH</th></tr>
<tr><td>Emakume bat eta gizon bat, ezkonduta, seme-alabekin edo seme-alabarik gabe</td><td rowspan="2">96,7</td><td>87,2</td><td>90,7</td></tr>
<tr><td>Emakume bat eta gizon bat, elkarrekin bizi direnak ezkondu barik, seme-alabekin edo seme-alabarik gabe</td><td>54,6</td><td>73,2</td></tr>
<tr><td>Emakume bat eta seme-alabak</td><td>43,9</td><td>57,3</td><td>67,8</td></tr>
<tr><td>Gizon bat eta seme-alabak</td><td></td><td>53,9</td><td>64,5</td></tr>
<tr><td>Bi gay seme-alabekin</td><td>22,3</td><td>57</td><td>53</td></tr>
<tr><td>Bi lesbiana seme-alabekin</td><td>33,8</td><td>59,1</td><td>53,3</td></tr>
<tr><td>N</td><td>483,0</td><td>584,0</td><td>762,0</td></tr>
</table>

Lehen Hezkuntzako 2. zikloko haurren datuetara itzulita, sexuaren araberako aldeek adi-tzera ematen dute neskek familia-mota gehiago sartzen dituztela familiaren kontzeptuan; dena dela, mutikoen eta neskatoen arteko aldea ez da oso handia. Familiaren kontzeptu zabalagoa dute, neskek familia-mota gehiago onartzen dituzte, mutilek baino. Bai batzuek bai bestetzuek gutxien onartzen dituzten familiak gayek eta lesbianek osaturikoak dira, eta, hain zuzen, mutilek onartzen dute gutxien halako familia-eredua, bereziki gayei dagokienez, azken horiek %19,6k hautatzen baititu, nesken %25,2aren aldean.

Baldin orain ikasle inkestatuen iritziari begiratu, eta haien erantzunak adinaren aldagai askearen arabera hartzen baditugu, ondoriozta daiteke lehen haur-taldeak (7-8 urte) nahiz bigarren adin-taldeak (9-10 urte) antzeko familia-kontzeptua dutela, sexuaren arabera aldez aurretik ezarririko hurrenkera aldatu gabe.

**11. Taula. Familia bat dira...? Sexuaren eta adinaren arabera (%)**

| | | | SEXUA | | ADINA | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Guztiak | Neska | Mutila | 7-8 | 9-10 |
|  | Bai | 96,7 | 97,0 | 96,4 | 96,9 | 96,4 |
| | Ez | 2,6 | 2,4 | 2,8 | 3,1 | 1,9 |
| | EE | 0,7 | 0,7 | 0,8 | 0,0 | 1,7 |
|  | Bai | 22,3 | 25,2 | 19,6 | 23,0 | 21,3 |
| | Ez | 75,8 | 72,9 | 78,4 | 74,9 | 77,0 |
| | EE | 1,8 | 1,8 | 2,0 | 2,1 | 1,7 |
|  | Bai | 43,9 | 45,1 | 42,8 | 42,4 | 45,8 |
| | Ez | 54,4 | 53,0 | 55,7 | 55,9 | 52,5 |
| | EE | 1,7 | 1,8 | 1,6 | 1,7 | 1,7 |
|  | Bai | 33,8 | 36,3 | 31,5 | 34,1 | 33,4 |
| | Ez | 64,4 | 61,3 | 67,3 | 63,8 | 65,3 |
| | EE | 1,8 | 2,4 | 1,2 | 2,2 | 1,3 |
| N | | 483 | 229 | 253 | 272 | 210 |

Lehen genioenez, adin horietan norberaren familia-eredua da gainerako familiak balioztatzeko erreferentziazko eredua. Hala, bada, familia zabaletako seme edo alabek aiseago ikus ditzakete familiatzat bi ama edo bi aita dituzten familia-ereduak, eta, bestalde, familia gurasobakarretako umeek berek adierazten dute nabarmenago familia izan daitekeela familiaburu bakarreko sendia.

**12. Taula. Familiatzat zer hartzen duten eta zer ez, haur inkestatuaren familia-motaren arabera (%)**

| | Nuklearra, ume bat | Nuklearra, bi ume | Familia ugaria | Familia zabala | Guraso-bakarra | Guztiak |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Familia klasikoa | %94,6 | %97,9 | 96,6 | %96,7 | %91,9 | **%96,7** |
| Gay-bikotearen familia | %25,4 | %20,8 | 18,3 | %31,9 | %22,7 | **%22,3** |
| Familia gurasobakarra | %43,3 | %44,0 | 41,4 | %37,2 | %59,1 | **%44,0** |
| Lesbiana-bikotearen familia | %32,3 | %34,5 | 27,4 | %40,0 | %36,7 | **%33,9** |
| | 68 (%13,9) | 258 (%52,8) | 70 (%14,1) | 48 (%10,6) | 38 (%8,5) | 482 |

• *Familia-harremanak*

Familien funtzionamendua neurtzeko erabili ditugun item batzuk horretarako berariaz sortutako eskalak hartu dira eredutzat, (Familiaren Funtzionamenduaren *Circumplex* Eredua eta *Alabama Parenting* Questionaire[2]), baina ez dugu izan eskala bera aplikatzeko asmorik, ez eta egileen neurrira egokitzeko asmorik ere. Eskala horiek itemak franko dituzte. Inkestatzekoa zen populazioaren adina zela eta, item batzuk hautatzea eta hiru taldetan banatzea erabaki genuen, ikasleek erraz erantzuteko moduan; horretarako, inkestatuen adinean garrantzi gehien zuten itemak aukeratu ziren.

Ez da ahaztu behar inkestatuek, beren adinagatik, ez dutela galdera-sorta baten ohiko dinamika ezagutzen, baina galdera-sorta luze bat betetzeko ariketan arreta jartzeko duten ahalmena ere mugatua da. Itemak hiru arlotan banatu ziren: familiaren eguneroko funtzionamenduaren arloan; portaera egokietarako sarien arloan; edo portaera desegokietarako zigorren arloan.

Familiak seme-alaben portaeraren inguruan duen funtzionamendua garrantzitsua da, hainbat herrialde eta populaziotan egin diren azterlan ugariek hedatuki frogatu dutenez. Egiaztatu egin da afektibitatearen alderdiak zein garrantzitsua den familia-harremanetan. Familien hezteko estiloa maitasunean oinarrituta egoteak (seme edo alabaren balioztapen positiboa, interesa eta laguntza emozionala), arauak aplikatzean koherentziari eustearekin batera, berdintasuneko printzipio batzuk izatea eta bestearen beharrizanetan arreta jartzea dakar berekin.

Ondoren, hiru galderetan baliaturiko itemen azterketa jarri dugu. Azterketa horretatik honako hauek ondoriozta daitezke:

– Ume gehien-gehienek sentitzen dute gurasoak haien heziketan engaiatuta daudela, eskolako bileretara joanda (%93,5), maila ona dute familia-harremanetan, eta baterako jarduerak egiten dituzte haiekin, nahiz elkarrekin jolastuz, nahiz haiekin hizketan jardunez (%86,2), nahiz baterako jarduerak eginez, hala nola zinemara joan, telebista ikusi edo kirola egin (%88,6).

– Hala eta guztiz ere, haurrek zerbait gutxiago parte hartzen dute etxeko jardueretan, baina gehiengoa direla betiere (%78,1), eta are gutxiago dira gurasoek etxeko lanak egiten laguntzen dietela sentitzen dutenak (%76), hiru laurdenek baietz esaten badute ere.

[2] Paul J. Frick-ek argitaratu zuen *Alabama Parenting Questionaire* (APQ) eskala 1991n, eta 6 urtetik 13 urtera bitarteko haurren gurasoek baliatzen dituzten heziketa-praktikak –eta, hortaz, seme-alabak hezteko estiloak– balioztatzea ahalbidetzen duen galdera-sorta da; Olson-ek, Sprekle-ek eta Russell-ek sortu zuten Familiaren Funtzionamenduaren *Circumplex* Eredua delakoa 1979an.

– Ondo portatzen direnean gurasoek sariztatzen dituztela sentitzen duten haurren proportzioa handia da oso; izan ere, hala adierazten du %93,8k, eta, areago, gurasoek erakutsitako berotasunaren berri ere ematen du %87,4k.

– Seme-alaben portaera onaren aurrean egon daitezkeen bi egoera muturrekoen eta okerrenak dira gutxien gertatzen direnak. Hamarretik seik esan zuten gurasoek zerbait erosten zietela ondo portatzen zirenean, eta proportzio hori handi samarra da, horrela jokatzea heziketaren aldetik komenigarria izaten ez den erreakziotzat ikusten badugu. Hala ere, kontuan hartu behar da baieztapen horren atzean askotariko kasuak egon daitezkeela eta, beharbada, erantzun batzuetan une jakin bateko sariez ari direla, hots, heziketaren aldetik kaltegarriak ez diren sari batzuez. Beste muturrean seme-alabei inolako saririk ematen ez dieten gurasoak daude (%45,3), horrela jokatzea haurraren eginbeharra dela uste dutelako, besterik gabe. Proportzioa txikiagoa da, baina ia haurren erdiak uste du hori ere gertatzen dela haren etxean.

– Semea edo alaba gaizki portatzen denean, erreakziorik ohikoena agirika egitea eta haserretzea da (%78,1); neurri handi batean, gurasoak lasai saiatzen dira azaltzen zer dagoen txarto eta zergatik (%72,7); proportzio txikiago batean, hamar adingabetik seik adierazi zuten gurasoek pribilegioak kentzea hautatzen zutela (%59,9); eta proportzio txikiago baina ez baztergarri batean, gurasoek jo egiten zituztela esan zuten (%34,8).

– Azken datu horrek, gutxien gertatzen denaren proportzioa izan arren, aditzera ematen du aita eta amen kopuru handi bat zigor fisikoaz baliatzen dela zigortzeko, eta seme-alabek argi adierazten dute.

Egoera ugarietan erantzunek izan duten proportzio handiak agerian uzten du ez dela eredu bakarra erabiltzen sariztatu edo zigortzeko. Aplikatzen diren ereduak egoeraren araberakoak izaten dira, bai eta sortu den egoerari gurasoek aurre egiten dioten moduaren araberakoak ere.

Ez dago alde handirik generoaren aldetik haurrek familiaren funtzionamendua ikusten duten moduari dagokionez. Batzuek zein bestetzuek, mutilek eta neskek neurri berean adierazten dute gurasoek haien hezkuntza-bizitzan (eskolako bileretara joatea) duten parte-hartzea, dena dela, badirudi, mutilei baino, neskei gehiago laguntzen zaiela etxeko lanak egiten, proportzioen arteko aldea oso txikia dela betiere (%77,2 batetik eta %74,9 bestetik). Etxeko zereginei dagokienez, etxean neskek gehiago laguntzen dute, lagundu ere, mutilek baino (%82,1 batetik eta %74,4 bestetik), baina, hala ere, batzuen zein bestetzuen kasuan parte hartzen dutenen proportziona handia da; neskatoek gurasoekin harreman gehiago dutela sentitzen dute mutilek baino, proportzioen arteko aldea oso esanguratsua ez den arren.

**5. Grafikoa. Etxean gertatzen diren familiako jarduerak (%)**




Adin gehiagokoek biziago nabarmentzen dituzte familiako jarduera guztiak. Hala, bada, 9 urtetik 10 urtera bitarteko kolektiboak (Lehen Hezkuntzako 4. maila) tinko adierazten du familia-bizitza aktiboa duela, alderdi batean izan ezik: gurasoek eskolako bileretan parte hartzeari dagokion galderan, alegia, gainerako erantzunen oso bestelakoa da eta. Ehunekoa gutxiagotu egiten da gurasoek seme-alabentzako jarduera batean –hots, eskolako bileretan– parte hartzen ote duten galdetzen den kasu bakarrean; hain zuzen ere, 4,4 puntu jaisten da ehuneko hori.

Haurrak ongi portatzen direnean, gurasoek, oro har, indargarri positiboa emateko joera izaten dute, ez materiala, afektibitateari loturikoa baizik. Heziketaren aldetik, gauzak horrela egiteak eragin eta garrantzi handiagoa du pertsonarengan, opari materialak emateak baino. Baina, kasu horretan, ikusten da bigarren taldekoek zortzi puntu gehiagoko emaitza eman dutela, lehen adin-taldearen aldean, sari materiala jasotzeari dagokionez; horrek, desberdintasun erabatekorik agerian utzi gabe, aditzera ematen du ezen, beharbada, umeak hazten diren neurrian eta haiengandik gurasoek nahi duten portaera erdiestea zailago bilakatzen den neurrian, gehiago jotzen dela sari materialera.

**13. Taula. Egoera hauek gertatzen dira. Sexuaren eta adinaren arabera (%)**

| | | SEXUA | | ADINA | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Neska | Mutila | 7-8 | 9-10 |
| Gurasoekin jolasten zara edo hizketaldi atseginak izaten dituzu | Bai | 87,2 | 85,2 | 82,7 | 90,7 |
| | Ez | 9,3 | 13,5 | 14,9 | 7,1 |
| | EE | 3,4 | 1,3 | 2,4 | 2,2 |
| Zure gurasoek etxeko lanak egiten laguntzen dizute | Bai | 77,2 | 74,9 | 74,0 | 78,5 |
| | Ez | 22,1 | 22,5 | 23,8 | 20,3 |
| | EE | 0,7 | 2,6 | 2,1 | 1,2 |
| Familiako jardueren antolaketan parte hartzen duzu | Bai | 82,1 | 74,4 | 76,0 | 80,9 |
| | Ez | 13,3 | 24,4 | 21,6 | 16,0 |
| | EE | 4,5 | 1,2 | 2,4 | 3,2 |
| Zure gurasoak eskolako bileretara joaten dira | Bai | 93,5 | 93,5 | 95,4 | 91,0 |
| | Ez | 4,8 | 5,9 | 3,8 | 7,5 |
| | EE | 1,7 | 0,6 | 0,8 | 1,6 |
| Zinemara joaten zara gurasoekin, telebista ikusten duzu... | Bai | 90,2 | 87,5 | 85,9 | 92,5 |
| | Ez | 7,7 | 10,5 | 11,7 | 5,9 |
| | EE | 2,1 | 1,9 | 2,4 | 1,6 |
| N | | 229 | 253 | 272 | 210 |

Era berean, egia da ezen, zenbat eta nagusiago izan, orduan eta kontzientzia handiagoa izan behar dutela ongi eta txarto dagoenaz, hau da, dituzten arduren kontzientzia handiagoa; hartara, hazi ahala indargarriak pixkanaka desagertu behar du, ezin dudatuzko eginbehartzat onartzen delako, eta ez betetzeagatik ezartzen den zigorra handiagoa izaten da.

Aztergai dugun kasuan, goizegi da hori gerta dadin, oraindik nerabezaroaurrera ere iritsi ez diren neskato-mutikoak dira eta; orduantxe, hain zuzen, eratu beharko dute gurasoekiko eta hurbilenekiko harremanetarako eredu berri bat, eta eredu horretan aita-amek babesak kenduz eta familia-ingurunearekiko erantzun-eskakizunak areagotuz joan beharko dute. Arduretan oinarrituriko arau-bilakaera horrekin batera, dagokion indargarri kognitiboa eman behar da; hau da, haien arau-bilakaerako beste edozein unetan baino, orduantxe behar dute gehiago zer dagoen ongi egina eta zer gaizki egina azal diezaieten, zergatiko garatu eta arrazoituak emanik, barnera ditzaten eta berriz erabiltzeko gai izan daitezen berehalako orainean edo etorkizunean.

**14. Taula. Ondo portatzen zarenean, gurasoek zer egiten duten. Sexuaren eta adinaren arabera (%)**

| | | SEXUA | | ADINA | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Neska | Mutila | 7-8 | 9-10 |
| Gauzak ondo egiten dituzula esaten dizute | Bai | 94,2 | 93,4 | 91,9 | 96,3 |
| | Ez | 3,9 | 5,6 | 6,2 | 2,9 |
| | EE | 1,9 | 1,0 | 1,9 | 0,8 |
| Zorionak ematen dizkizute eta poz-pozik jartzen dira | Bai | 85,3 | 89,3 | 84,5 | 91,2 |
| | Ez | 11,5 | 9,7 | 13,1 | 7,2 |
| | EE | 3,2 | 1,0 | 2,4 | 1,6 |
| Gauza bat erosten dizute sari moduan | Bai | 62,1 | 61,4 | 58,0 | 66,6 |
| | Ez | 34,6 | 37,5 | 39,4 | 31,8 |
| | EE | 3,4 | 1,1 | 2,6 | 1,6 |
| Ez da ezer gertatzen, gurasoek zure eginbeharra dela diote | Bai | 43,4 | 47,1 | 45,1 | 45,6 |
| | Ez | 51,5 | 50,9 | 50,9 | 51,5 |
| | EE | 5,1 | 2,0 | 4,0 | 2,9 |
| N | | 229 | 253 | 272 | 210 |

Portaera txarraz erantzuki egiteko moduei dagokienez, nesken zein mutilen artean, lehen tokian dago gurasoak haserretzea eta agirika egitea; bigarrenik dago zer egin den txarto azaltzea; hirugarrenik, gustatzen zaien zerbait egiten ez uztea dator, eta, azkenik, ehunekoa aski txikiagoa dela, zigor fisikoa erabiltzea da; azken horrek haurrak hazi ahala egiten du behera.

Aita-amek umeekin baliatzen dituzten zigorrak, mutilak izan zein neskak izan, oso antzekoak dira, baina intentsitatea ez da berdina. Neskek neurri handiagoan hautematen dituzte gurasoen errietak eta haserreak, nahiz eta ez alde esanguratsu batekin, baina mutilek, ordea, denetariko zigorrak neurri handiagoan sentitzen dutela adierazten dute. Hala, bada, mutil gehiagok esan zuten gustuko gauzak egiten ez utziz zigortzen zituztela (%62,8 batetik eta %56,7 bestetik), eta, halaber, mutil gehiagok aipatu zuten zigor fisikoak, neskek baino –%31ren aldean, %38,2k–.

Antza denez, adinarekin bat gurasoek zigortzeko duten joerak ere gora egiten du, nahiz eta ez dirudien, gero ikusiko dugunez, gatazka askorik dagoenik. Hala, bada, 9 eta 10 urteko neska eta mutilen proportzio handiago batek ikusten zuen gurasoek agirika egiten ziela eta haserretzen zirela, pribilegioak kenduta zigortzen zituela, edo lasai azaltzen ziotela zergatik zegoen txarto egindakoa. Badirudi, aldiz, zigor fisikoak desagertzeko prozesuan sartzen direla, gutxiago baitira gurasoek jotzen dituztela diotenak.

Osagai nagusizko faktore-analisia egin dugu familiaren funtzionamendua barne hartzen duten itemei dagozkien hiru galderekin. Lortu den faktoriala hiru faktoreko faktore-egitura ematen du, bariantza azaldua %46,04 dela. Lehen faktoreak guztizko bariantzaren %22,72

azaltzen du; bigarren faktoreak %12,03 azaltzen du, eta hirugarren faktoreak %11,26 azaltzen du. Faktoreak faktorizazio-indize egokiak lortzen ditu (KMO: 0,825, sig.,000).

**15. Taula. Gaizki portatzen zarenean, gurasoek zer egiten duten. Sexuaren eta adinaren arabera (%)**

| | | SEXUA | | ADINA | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Neska | Mutila | 7-8 | 9-10 |
| Agirika egiten dizute eta haserretu egiten dira | Bai | 79,3 | 77,0 | 76,5 | 80,2 |
| | Ez | 17,7 | 21,2 | 20,7 | 18,0 |
| | EE | 3,0 | 1,8 | 2,8 | 1,8 |
| Zigortu egiten zaituzte eta ez dizuten uzten gustatzen zaizun zerbait egiten | Bai | 56,7 | 62,8 | 57,1 | 63,6 |
| | Ez | 41,9 | 35,6 | 41,1 | 35,2 |
| | EE | 1,5 | 1,6 | 1,8 | 1,2 |
| Belarrondoko bat ematen dizute | Bai | 31,0 | 38,2 | 36,1 | 33,1 |
| | Ez | 65,8 | 58,8 | 60,0 | 64,9 |
| | EE | 3,2 | 3,0 | 3,9 | 2,0 |
| Lasai azaltzen dizute zergatik dagoen txarto egin duzuna | Bai | 70,9 | 74,2 | 70,3 | 75,7 |
| | Ez | 25,0 | 22,7 | 25,6 | 21,5 |
| | EE | 4,1 | 3,0 | 4,1 | 2,8 |
| N | | 229 | 253 | 272 | 210 |

Aintzat hartu behar da 7 urtetik 10 urtera bitarteko haurren ikusmoldeak eratzen duela, nolabait, ateratzen den tipologia. Hiru faktoreetako lehenean biltzen dira portaera egokien aurrean txeraz erantzuteari eta aita-amak seme-alaben aisialdian engaiatzeari dagozkien itemak. Esan dezagun halako adinetarako familia-eredurik egokiena dela, heziketa indargarri positiboetan oinarritzen duten, seme-alaben heziketan eta zereginetan engaiatzen diren, eta umeek zerbait desegokia egiten dutenean gauzak lasai azaltzen dituzten familiena.

Bigarren familia-eredua, neska-mutilen ikuspegitik, haurrek afektibitate-maila apalenarekin hautematen dituzten familiek osatzen dute. Itemetako batek ere ez du zerikusirik nahitasunekin, eta bai, berriz, arau eta eginbeharrekin. Aita-amak umeen heziketan engaiatzen dira, eskolako bileretara joaten dira eta seme-alabei etxeko lanak egiten laguntzen dietelako, baina, itxuraz, ez dute afektuzko saririk ematen ongi egindakoen aurrean, eta sari bakarra materiala da, haurrei zerbait erosirik. Familien funtzionamenduaren hirugarren eredua da haurrek zigorrak eta diziplina nabarmentzen dituztenean sortzen dena. Faktore horretan zigorrak baino ez dira ageri, eta horrek eragin sakona du tartean diren haurrengan.

Ez da, egiaz, hertsiki egiaztatu eta erkatu den familia-eredua. Abiapuntu ditugun eskalek oso item-kopuru txikia dute, eta erantzunak, gainera, dikotomikoak dira (bai/ez); horrenbestez, erantzunei ñabardurak eranstea oso zaila da; dena dela, aztergai den populazioak duen adin txikia dela eta, nahitaez sinplifikazioak erabili behar ditugu, ñabardura gutxirekin. Nolanahi

ere, aurre-testa egitean dagoeneko egiaztatu genuen halako adinetan galdetutako populazioak ezin zuela ñabardurarik egin.

**16. Taula. Osagai nagusizko faktore-analisia familiaren funtzionamenduaren gainean (%)**

| | Osagai | | |
|---|---|---|---|
| | Familia txeratsua, engaiatua | Familia zuzentzailea | Familia zigortzailea |
| Bariantza azalduaren ehunekoa (%) | 22,72 | 12,03 | 11,26 |
| 9. G.- Ondo portatzen zarenean, gurasoek zorionak ematen dizkizute eta poz-pozik jartzen dira | ,743 | ,006 | ,184 |
| 9. G.- Ondo portatzen zarenean, gurasoek gauzak ondo egiten dituzula esaten dizute | ,690 | -,130 | ,176 |
| 11. G. Gurasoekin jolasten zara edo hizketaldi atseginak izaten dituzu | ,678 | ,218 | ,037 |
| 11. G.- Zinemara joaten zara gurasoekin, telebista ikusten duzu,... | ,645 | ,275 | -,062 |
| 11. G.- Familiako jardueren antolaketan parte hartzen duzu | ,617 | ,262 | ,014 |
| 10. G.- Gaizki portatzen zarenean, lasai azaltzen dizute zergatik dagoen txarto egin duzuna | ,595 | ,212 | -,038 |
| 9. G.- Ondo portatzen zarenean, ez da ezer gertatzen, gurasoek zure eginbeharra dela diote | ,050 | ,635 | ,154 |
| 11. G.- Zure gurasoek etxeko lanak egiten laguntzen dizute | ,016 | ,564 | -,015 |
| 11. G.- Zure gurasoak eskolako bileretara joaten dira | ,302 | ,518 | ,074 |
| 9. G.- Ondo portatzen zarenean, gurasoek gauza bat erosten dizute sari moduan | ,221 | ,461 | -,006 |
| 10. G.- Gaizki portatzen zarenean, zigortu egiten zaituzte eta ez dizute uzten gustatzen zaizun zerbait egiten | -,003 | -,091 | ,724 |
| 10. G.- Gaizki portatzen zarenean, belarrondoko bat ematen dizute | -,038 | ,313 | ,674 |
| 10. G.- Gaizki portatzen zarenean, agirika egiten dizute eta haserretu egiten dira | ,414 | ,064 | ,620 |

Lorturiko faktore bakoitzean dauden batez besteko faktore-puntuazioak ageri dira 17. Taulan. Atera diren neurriak korrelaziotzat hartu behar dira; horrenbestez, ez dira proportzioak, -1etik +1era bitartean aldatzen den neurri bat baizik (-1 = faktorialaren zentzuaren aurkako identifikaziorik handiena; eta +1 = faktorialaren zentzuaren aldeko identifikaziorik handiena).

Neurri hori zenbat ere 0tik hurbilago egon, hainbat ahulagoa izango da identifikazioa. Faktorial bat denez, oso bakanetan baino ez dira aurkitzen 0tik asko urruntzen diren esangurak, eta desbideratze txikiak interpretatzen dira gehienetan.

Familia txeratsu eta engaiatuak deritzen familiei dagokienez, familia zabaletan bizi diren neska-mutilek identifikatzen dute neurri handienean beren familiagunea ezaugarri horiekin, gainerako haurren aldean. Hau da, etxean, gurasoekin ez ezik, beste pertsona batzuekin ere bizi diren haurrek, hain zuzen, ikusten dute hobekiena gauzak ongi egin dutela adierazteko helarazten zaizkien txera eta maitasuna eta haiexek ere ibiltzen dira aisialdiko jardueretan aita-amekin batera. Hurrenkera horretan, bigarren tokian –baina nahiko urrun– familia gurasobakarrak daude, eta hirugarrenean –eta bigarren tokitik hurbil– ume bat duten familia nuklearrak.

Generoaren aldetik ez dago ia alderik, bai mutilek bai neskek neurri berean hautatzen dute familia-mota hori, baina adinaren aldetik badaude aldeak, itxura denez; izan ere, 3. mailako haurrak (8 eta 9 urte) gehiago identifikatzen dira familia-eredu horrekin, 4. mailakoak baino (9 eta 10 urte). Horren arrazoia izan daiteke, beharbada, ezen adinean gora egin ahala, haurrei gehiago eskatzen zaiela, eta haiei oraindik kostatu egiten zaiela gurasoek heziketan egin dituzten aldaketak; edo, agian, haien portaera desafiatzaileagoa da, eta gurasoak txeraz gutxiago baliatzen dira haurren portaera zuzentzeko.

Hori bai, nabarmendu egin behar dira mota horretako familietan egoten diren harreman onak. Batez besteko puntuazio faktoriala oso handia da, eta horrek aditzera ematen du familia horien barruan seme-alabak pozik sentitzen direla.

Familia zuzentzaileei dagokienez, familia ugarietan bizi diren umeek hautematen dute argiena halako familia batean bizi direla, non gurasoek ia ez baitute txerazko saririk ematen seme-alaben jarduera positiboengatik, baina haien prestakuntzaz eta heziketaz arduratzen baitira. Familia zorrotzagoak dira, beharbada, eginbeharra afektuaren aurretik jarrita dutenak. Familia zabaletako haur batzuek ere lotzen diote beren familia eredu horri. Hartara, familia zabalak bi familia-eredu horien artean “zangalatrau” daude itxuraz, lehen ereduak pisu handiagoa duela, betiere. Familia zuzentzailearen eredu horretan ez dute parte hartzen familia gurasobakarrek, ez eta ume bat edo bi dituzten familia nuklearrak.

Badirudi kasu honetan generoak ez dakarrela alde handirik nesken eta mutilen artean, ez eta adinak ere. Halako familietan haurrek ez dakite bereizten gurasoekiko harremana ona ala txarra den, erantzunik ez emateko aukera hartzen baitute.

Azkenik, familia zigortzaileak ditugu. Halakoekin, nonbait, familia gurasobakarretako seme-alabak identifikatzen dira, mota horretako familiak oso gutxi badira ere lortu den laginean. Familia horietan zigorrak nagusitzen dira gainerako alderdien gainetik, baina guztiz ezeztatu gabe, betiere. Horrexegatik deitu diogu familia zigortzailea. Honetan ere ez dago generoaren araberako identifikazio bereiz argirik, baina badirudi mutilek, bai, egoera horri gehiagotan antzematen diotela, neskek baino, eta adin handiagokoen artean maizago. Haur horiek ez dute argi bereizten familia-harreman txarrak ala hala-holakoak dituzten, baina garbi ukatzen dute beren familia familia-harreman oneko familiatzat hartzeko modukoa dela.

**17. Taula. Familien funtzionamenduaren tipologia, hainbat aldagairen arabera (%)**

| ALDAGIAK | Familia txeratsua, engaiatua | Familia zuzentzailea | Familia zigortzailea |
|---|---|---|---|
| FAMILIA-MOTA | | | |
| Nuklearra, ume bat | ,0531777 | -,0378034 | -,1152548 |
| Nuklearra, bi ume | -,0012861 | -,0298873 | -,0381170 |
| Familia ugaria | -,0593185 | ,1661419 | ,0071815 |
| Familia zabala | ,1709473 | ,1147679 | ,0499838 |
| Gurasobakarra | ,0438873 | -,1565692 | ,2506134 |
| SEXUA | | | |
| Mutila | ,0153953 | ,0106481 | ,0664228 |
| Neska | ,0213148 | -,0091059 | -,0830990 |
| MAILA | | | |
| Lehen Hezkuntzako 3. maila | ,1255105 | -,0259944 | -,0685335 |
| Lehen Hezkuntzako 4. maila | -,1136032 | ,0327317 | ,0577888 |
| ZER MODUZ KONPONTZEN ZARA GURASOEKIN | | | |
| Gaizki* | -,0809705 | -,0207226 | ,0439062 |
| Hala-hola | -,0809705 | -,0207226 | ,0439062 |
| Ondo | ,7180357 | -,0613175 | -,3433101 |
| EE | ,1109876 | ,3005552 | -,1161831 |
| *Kontuan izan 7 ikaslek baino ez zutela erantzun hori eman. | | | |

• *Familiako eztabaiden arrazoiak*

Galdera hori klasikoa da familiei eta gazteei buruz sarri erabiltzen ditugun galdera-sortetan. Haren xedea da familian egon daitekeen gatazkakortasun-maila neurtzea, bai eta gatazka horien arrazoiak ere.

Hala, bada, 7 urtetik 10 urtera bitartean, gurasoekiko eztabaida gehienak neba-arrebekin borrokan ibiltzearen inguruan sortzen dira (%65,4), bigarrenik, telebista dela eta (%43,2), eskolako lanengatik (%41), ordenagailuaren eta bideo-jokoen erabileragatik (%34,3), eta etxeko lanetan ez laguntzeagatik kasuen %22,2tan bakarrik.

Haurren %10,2k ez du eztabaidatzeko arrazoirik adierazten. Ez dute eztabaidatzen, besterik gabe. Gehienek harreman onak dituzte, baina eguneroko bizikidetzaren ondorioz edo seme-alaben portaerari mugak ezartzearen ondorioz sortzen diren eztabaidak izaten dituzte. Familia gutxitan eztabaidatzen da denagatik, gehienek bizpahiru gauzengatik eztabaidatzen dute. Haurren %15ek baino ez zuten aditzera eman haien etxean eztabaidatzen zela hasieran proposatzen genizkien itemetako bostengatik edo gehiagoarengatik.

**6. Grafikoa. Familiako eztabaiden arrazoiak (%)**




**7. Grafikoa.Eztabaidatzeko arrazoien kopurua (%)**




Nahiz eta, lehen esan dugun bezala, gure lagineko txikienek beren portaeraren ondoriozko zigor-kopuru txikiagoa hautematen zuten, horiexek dituzte, itxura denez, gurasoekin eztabaidan aritzeko arrazoi gehien, eta mutikoak neskatoak baino gehiago dira.

Familia-motari dagokionez, familia gehien-gehienek eztabaidatzeko arrazoi batetik laura bitarte dituzte. Ume bat edo bi dituzten familia nuklearretan dago eztabaidatzeko arrazoien kopururik handiena, eta, aldiz, familia zabaletakoek esaten dute neurri handiagoan ez dutela eztabaidatzen aurkeztutako arrazoietako batengatik ere.

**18. Taula. Eztabaidatzeko arrazoien kopurua, hainbat aldagairen arabera (% horizontalak)**

| ALDAGAIAK | Gatazkarik ez | 1 - 2 gatazka | 3 - 4 gatazka | 5 - 6 gatazka | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| MAILA | | | | | |
| Lehen Hezkuntzako 3. maila | 9,1 | 36,3 | 38,7 | 16,0 | **267** |
| Lehen Hezkuntzako 4. maila | 11,7 | 40,1 | 34,5 | 13,7 | **216** |
| SEXUA | | | | | |
| Neska | 10,3 | 42,6 | 35,2 | 12,0 | **230** |
| Mutila | 10,2 | 33,8 | 38,2 | 17,7 | **253** |
| FAMILIAK | | | | | |
| Nuklearra, ume bat | 13,0 | 35,3 | 35,9 | 15,8 | **68** |
| Nuklearra, bi ume | 7,7 | 36,8 | 37,1 | 18,5 | **258** |
| Familia ugaria | 6,3 | 38,5 | 46,4 | 8,8 | **70** |
| Familia zabala | 22,2 | 46,3 | 23,1 | 8,4 | **48** |
| Gurasobakarra | 15,2 | 40,9 | 37,2 | 6,7 | **38** |
| GURASOEKIKO HARREMANA | | | | | |
| Ona | 10,0 | 38,3 | 37,2 | 14,6 | **396** |
| Hala-holakoa | 6,8 | 34,4 | 42,3 | 16,5 | **57** |
| Txarra | | 15,3 | 30,1 | 54,6 | **8** |
| EE | 27,5 | 49,9 | 18,7 | 3,9 | **23** |

Eztabaidatzeko arrazoiei sexuaren eta adinaren arabera begiraturik, neskak erantzun txarrengatik sortzen diren eztabaidetan baino ez dira lehenak, eta aldea oso handia ez dela; mutilak bestalde neurri handiagoan dira nagusi eskolako lanengatik, etxeko lanetan ez laguntzeagatik, telebistagatik, ordenagailuagatik zein anai-arrebekin borrokatzeagatik sortzen diren eztabaidetan. Alde handienak, hain zuzen, baliabide teknologikoetan aurkitzen dira: ordenagailu eta bideo-jokoen erabileran (nesken artean %27,4 eta mutilen artean, aldiz, %40,5), eta telebistaren erabileran (mutilen artean %47 eta nesken artean, aldiz, %39,1).

**19. Taula. Zergatik eztabaidatzen duzu gurasoekin. Sexuaren eta adinaren arabera (%)**

| | | SEXUA | | ADINA | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Neska | Mutila | 7-8 | 9-10 |
| Erantzun txarrengatik | Bai | 61,8 | 59,3 | 64,9 | 54,7 |
| | Ez | 35,2 | 38,3 | 32,9 | 41,9 |
| Eskolako lanengatik | Bai | 37,6 | 44,1 | 45,8 | 34,8 |
| | Ez | 59,3 | 53,3 | 51,4 | 62,3 |
| Etxeko lanetan ez laguntzeagatik | Bai | 20,3 | 23,9 | 24,5 | 19,2 |
| | Ez | 75,4 | 74,3 | 73,4 | 76,7 |
| Telebistagatik | Bai | 39,1 | 47,0 | 46,1 | 39,5 |
| | Ez | 56,8 | 50,2 | 50,8 | 56,6 |
| Neba-arrebekin borrokatzeagatik | Bai | 64,3 | 66,3 | 65,7 | 64,9 |
| | Ez | 29,2 | 29,0 | 29,0 | 29,2 |
| Ordenagailuaren erabileragatik, bideo-jokoengatik... | Bai | 27,4 | 40,5 | 36,6 | 31,2 |
| | Ez | 68,6 | 56,6 | 59,9 | 65,4 |
| N | | 229 | 253 | 272 | 210 |

- *Familiako bizitzan parte hartzea*

Pixkanaka ikusi dugu familia funtsezko elementua dela haurrak era harmonikoan gara daitezen; orobat, ikusi dugu zenbait familia-mota daudela, eta mota horietako bakoitzak zer onarpen-maila duen, familia bat denaren eta ez denaren kontzeptuarekin batera. Halaber, haurren familiaguneen funtzionamendua igarri dugu, adierazi ditugun baldintza horiekin guztiekin, eta orain arreta jarriko dugu haurrek familiaren funtzionamenduan duten partehartzean.

Ume gehienek esan zuten etxeko lanak bakarrik egiten zituztela, laguntzarik eskatu behar izan gabe (%82,2), eta horrek eskolako eginbeharretarako autonomiaren hasiera iragartzen du. Era berean, %73,4k aditzera eman zuen autonomia hori ere iristen dela halako adinetan etxean laguntzearren aurrera eraman daitezkeen beste zeregin zenbaitetara.

Bi erantzun harrigarri suertatzen dira, erantzuteko izan zuten zintzotasun-mailagatik nahiz erantzunen beren proportzioagatik. Hainbat ikaslek –%64ko proportzioan, hain zuzen– uste zuten gurasoek egiten zizkietela berek egin zitzaketen gauza batzuk, eta horrek esan nahi du jakin badakitela egiten duten baino gehiago egin dezaketela, edo gurasoek beren gain hartzen dituztela seme-alaben esku utz ditzaketen zeregin batzuk. Harrigarria da, era berean, zein maila handitan egotz diezaioketen errua beren buruari neba-arreben arteko liskarrak daudenean. Hain zuzen ere, %38,2k baino ez die besteei errua egozten, eta %59,1ek, berriz, bere buruari botako lioke errua, edo banatuko luke, bederen. Hau da, haur gehienek barneratzen dute eta badakite eztabaida eta borroketan parte hartzen dutenean haiek ere

badutela nolabaiteko erantzukizuna. Horrek, gure aburuz, agerian uzten du adin horietan egotzi ohi diegun baino heldutasun-maila handiagoa dutela.

**8. Grafikoa. Familiako bizitzan parte hartzea (%)**




Sexuaren arabera azterturik, ikus daiteke neskak direla arduratsuenak. Neskek berek diotenez, etxean mutilek baino gehiago laguntzen dute (%80,2 batetik eta %67,2 bestetik); eskolarako lanak laguntzarik gabe gehiagotan egiten dute, nahiz eta alde txikiagoarekin (%84,3 batetik eta %80,4 bestetik); gutxiagotan egozten diete besteei errua liskarretan (%32,7 batetik eta %43,1 bestetik); eta, halaber, gurasoek gauza gutxiago egiten omen dituzte haien ordez, neskatoek berek egin ditzaketenen artean (%59,4 batetik eta %68,1 bestetik), ziurrenik, oso, lehen erantzunetan dagoeneko aditzera eman dutelako neurri handiagoan laguntzen dutela etxeko zereginetan.

Adinari dagokionez, lagin honetako gazteenen eta nagusienen arteko aldaketa nabarmena ageri da. Nagusiek gehiago laguntzen duten etxean, eta etxeko lanak ere gehiagotan egiten dituzten bakarrik; era berean, kontzienteago dira borrokak haien erruaz izan daitezkeela, eta –bitxia da– uste dute gurasoek behar baino zeregin gehiago beren gain hartzen dituztela, haurrek berek egin ditzaketenak, alegia, dagoeneko prestaturik daudelako; azken hori kontuan hartu gabe utzi behar ez den zerbait da, eta haren inguruan, hain zuzen, gogoeta egin beharko litzateke.

Datua da 9 eta 10 urteko haurren %67,6k uste duela etxean egiten duena baino gehiago egin dezakeela. Bestela esanda, haurrak jakitun dira gauza gutxiago egiten dituztela, etxeko jardueretan gutxiago parte hartzen dutela, egiaz ahal duten baino. Horren arrazoia izan daiteke gurasoek halako gainbabesa ematea, non zereginak egitea eragozten baitiete, haurrek beren burua horiek egiteko prest ikusten duten arren; edo, bestela, arrazoia izan daiteke, gurasoek eskatu arren, haurrek zereginak horiek ez betetzea, eta azkenean gurasoek berek egin behar izatea.

Ez da mezu bikoitzik bidali behar, eta horixe egiten da azken buruan modu horretan. Batetik arduratsuak eta autonomoak izan behar dutela esaten diegu, eta bestetik, horrelakoak

eginez, haiexek protagonista izan behar duten egoera edo erronka batzuei –txikiak izanik ere– aurre egin diezaietela eragozten ari gara.

Ardura bat betetzeko esaten badiegu, eta gero, gauzatzean, geuk galarazten badiegu egoerari irtenbide pertsonala eman diezaieten, gizarte-desgaitu bihurtuko dira. Halako neska-mutilek lasterbideak erabiliko dituzte eta beren ardurak beste batzuen esku utziko dituzte, gure jokabidearekin horrelaxe hezi ditugulako.

**20. Taula. Familiaren ingurunean egiten diren jarduerak. Sexuaren eta adinaren arabera (%)**

| | | SEXUA | | ADINA | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Neska | Mutila | 7-8 | 9-10 |
| Etxean laguntzen dut | Bai | 80,2 | 67,2 | 69,5 | 78,4 |
| | Ez | 19,1 | 31,6 | 30,0 | 20,1 |
| | EE | 0,7 | 1,2 | 0,5 | 1,6 |
| Etxeko lanak bakarrik egiten saiatzen naiz, laguntza eskatu gabe | Bai | 84,3 | 80,4 | 79,6 | 85,6 |
| | Ez | 15,4 | 17,7 | 19,5 | 12,9 |
| | EE | 0,4 | 1,9 | 0,9 | 1,5 |
| Neba-arrebekin edo lagunekin haserretzen naizenean, haiena da errua | SÍ | 32,7 | 43,1 | 41,0 | 34,5 |
| | Ez | 65,1 | 53,6 | 56,2 | 62,8 |
| | EE | 2,2 | 3,3 | 2,8 | 2,7 |
| Gurasoek nik egin ditzakedan gauzak egiten dizkidate | Bai | 59,4 | 68,1 | 61,2 | 67,6 |
| | Ez | 39,4 | 30,3 | 37,9 | 30,3 |
| | EE | 1,3 | 1,6 | 0,9 | 2,1 |
| N | | 229 | 253 | 272 | 210 |

### *1.1.2. Ikastetxea*

Jar dezagun orain arreta 7 urtetik 10 urtera bitarteko haurrentzat garrantzi gehien duten tokietako bigarrenean: eskolan, alegia. Gizartean gero eta lasterrago gertatzen ari diren aldaketek, batetik, eta aldaketok eskolan –hots, aspalditik geldirik iraun duen eta etengabeko egokitze-filosofia bat hartzeko zailtasunak izan dituen erakunde batean– sartzeko beharrak, bestetik, zalantzan jarri dituzte eskolak gizartean duen betekizuna, gizartekoitzeko eta hezteko duen gaitasuna, nahiz gaur egungo garaietarako haren egokitzapena ere.

Dena dela, egia da, halaber, eginkizun berri asko ikastetxeei eman izan zaizkiola, eta lehen beste gizartekoitze-eragile batzuetan zeuden eginkizun asko pixkanaka eskolari erantsi zaizkiola; horren ondorioz, nahitaez, eskoletan hezkuntza-zeregina aurrera eramateko modurik onena eztabaidatu behar izan da.

Nolanahi ere, Arartekoaren erakundetik, den erakunde-mota izanik, esan behar da ezen, nahiz eta prozesua oso zaila izan, haur guztiek dutela eskubidea bakoitzarentzako

hezkuntza-aukera hoberenak eskura izateko. Hori dela eta, daitekeena da diskriminazio positiboa aplikatu behar izatea, eskubide horixe, hain zuzen, bermatzeko hasieratik familia- edo egitura-defizitak dituzten haurrei, batzuentzat heldu-bizitzara igarotzea izan ohi den oztopo-lasterketan metro batzuk atzeragotik abiarazten diren horiei.

Egia da ez zegoela asmorik inkesta honen bidez alderdi horiek zeharo kontrolatzeko, eta azterlanaren xedea ere ez zen hori, baina, ordea, beharrezkotzat jo dugu eskatzea eskolan konforme ez dauden haur horiek era berezian aintzat har daitezela, eta ekintza-motak ugari daitezela, haur bakoitzarengandik etorkizun positiboa eta haren ahalbideekin bat datorrena atera ahal izate aldera.

Inkesta honetako haurrek, funtsean, gogobetetasun-maila egokia adierazi zuten irakasle, adiskide nahiz gelakideei dagokienez. Hamar haurretik zortzik esan zuten ondo moldatzen zirela irakasleekin eta gelakideekin; gutxi gorabehera %15ek ohartarazi zuen gatazkaren bat zuela, “hala-hola” konpontzen zela adierazi zuelako, adiskideen kasuan, ordea, ehunekoa zerbait txikiagoa dela. Hala ere, %2ra ere ez dira iristen irakasleekin edo gelakideekin gaizki konpontzen direla esanarazteko moduko arazoren bat dutenak; baina, bestela, %3k dio arazoak badituela adiskideekin:

**9. Grafikoa. Irakasle eta gelakideekiko harremana (%)**




Neskek harreman hobeak dituzte irakasleekin, mutilek baino, nahiz eta aldeak erabatekoak ez diren, eta mutilek aditzera ematen dute gelakide eta adiskideekin harreman hobeak dituztela, neskek baino. Beharbada eskema klasiko bat islatzen da hemen, non neskek harreman hobeak baitituzte erreferentziazko helduekin mutilek baino eta nesken beren artean baino.

Adinaren aldetik, ez dago alderik irakasleekiko harremanetan, baina bai gelakide eta adiskideekin dituzten harremanetan. Hala, bada, urte gehiago dituztenen gatazkakortasuna

–besteekin erkatuta, betiere– handiagoa da, baina, dena dela, harremanak oso onak dira bi adin-taldeetan.

**21. Taula. Nola moldatzen zara gelakideekin eta irakasleekin. Sexuaren eta adinaren arabera (%)**

| | | SEXUA | | ADINA | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Neska | Mutila | 7-8 | 9-10 |
| Nola moldatzen zara irakasleekin | Ondo | 86,1 | 80,7 | 82,8 | 83,8 |
| | Hala-hola | 11,7 | 16,4 | 13,7 | 14,7 |
| | Gaizki | 1,9 | 1,8 | 2,6 | 0,8 |
| | EE | 0,4 | 1,2 | 0,8 | 0,8 |
| Zelan konpontzen zara gelakideekin | Ondo | 81,3 | 83,8 | 84,2 | 80,6 |
| | Hala-hola | 17,1 | 13,7 | 13,9 | 17,1 |
| | Gaizki | 1,3 | 0,7 | 0,5 | 1,6 |
| | EE | 0,4 | 1,8 | 1,4 | 0,8 |
| Nolakoak dira lagunekin dituzun harremanak | Onak | 82,2 | 85,4 | 86,2 | 81,0 |
| | Hala-hola | 10,6 | 8,5 | 8,6 | 10,7 |
| | Txarrak | 2,4 | 3,2 | 2,9 | 2,7 |
| | EE | 4,8 | 2,8 | 2,2 | 5,6 |
| N | | 229 | 253 | 272 | 210 |

Gaur egun, ezaguerak transmititzeko toki hustzat hartzen da eskola. Ikasleei beren onenak ematen lagunduko dieten gaitasunak eta trebetasunak integratzeko beharra aipatzen dute. Horretarako, balio-heziketa lantzeko toki egoki gisa ere ageri da eskola.

Zer balio transmititu behar dira, ordea? Eztabaidak aspaldiko minak berritu ditu, balioei buruzko mundu-ikuskera berriak sartzeak balio-sistema klasikoagoei erantsi dien betekizunaren inguruan. Hainbat sektorek eztabaida hori manipulatu nahi izan dute, batzuek beren balio-unibertsoan funtsezkotzat jotzen dituzten alderdi batzuei eustearren, eta bestetzuek beste jatorri bateko hainbat ikuskera eta kode moral sartzearren.

Eztabaida horretan, baina, giza jokabidea arautu behar duten printzipio unibertsalak errespeta daitezen lortzeko saioa egin beharko litzateke. Horiek, hain zuzen, ez lirateke aldatu beharko. Printzipio horiek justizia, askatasuna, senidetasuna, maitasuna, elkartasuna, eta abar direla, iraunkorrak izan beharko lukete denboran zehar. Desberdintasuna datza printzipio horien artean ezartzen den hierarkian, bai eta oinarrizko printzipio horiek jarduna gidatzeko balio eta jarrera bilakatzen diren moduan ere. Balioak, azken batean, ez dira galtzen, aldatu egiten dira, eta berriak sortzen; areago, kontrabalioak ere azaleratzen dira gizarteko giza jokabide oro arautu behar dituzten printzipio unibertsalen aurkako jarrerak eta balioak agertzen direnean.

Balioen transmisioari buruz funts eta mami osoko azterlan bat ezin egin genezakeenez, xede-populazioaren adinagatik, eskolan mailarik oinarrizkoenean agertzen hasten diren elkartasunezko balio batzuen gainean galdetu dugu.

Ikasle gehienek elkartasun-maila handia erakusten dute adin horietan. Hamar umetik ia bederatzik esan zuten, gelako haur bat triste egonez gero, laguntzen saiatzen zirela, uste zuten gauzak partekatu behar zirela haiek baino gutxiago dutenekin, eta, partekatu ere, partekatu egiten zituztela gelakideekin.

Laurdenak baino gutxiagok adierazi zuen bere adiskide-taldearekin baino ez zuela jolastu nahi, eta, hortaz, adin horretako neska-mutilen hiru laurdenek onartzen dute haien adiskide-taldekoak bakar-bakarrik ez diren beste haur batzuekin ere jolasean aritzea.

Oso daitekeena da erantzun horiek erantzun arrazionalenera jo izana, lehentasunezko gizartekoitze-bideetatik (familia eta eskola) barneratu dutenera, alegia. Egokitzat duten eredua errepikatzen dute, baina horrek ez dio baliorik kentzen besteei laguntzeko ahalmena hain mugatua den adin horietan ematen duten elkartasunezko erantzunari, elkartasunaren printzipioei dagokienez, bederen.

**10. Grafikoa. Elkartasunezko balioak eskolan (%)**




Neskek mutilek baino sentiberatasun handiagoa agertzen dute inguruko pertsonengana, eta izate babesle bat –nolabait– garatzeko beharra sentitzen dute. Neskek, hain zuzen, gutxiago dutenekin partekatzeko joera handiagoa dute, eta haur bati laguntzen saiatzen dira, behar izanez gero, baina babestea beharrezkoa ez denean eta lehia azaleratzen denean, neskak dira lagunekin jostailuak gutxien partekatu nahi dituztenak; dena dela, neurri handiagoan atsegin zaie adiskide-talde hutsekoak ez direnekin jolasean ibiltzea. Adinari dagokionez, ia ez dago aipatzeko merezi duen alde esanguratsurik.

Adin horietan gatazkakortasuna ere handia da. Kontuan izan dezagun adin horietan indarkeriazko jokabideak dautzala, batez ere, boterea era desegokian erabiltzean, besteengandik zerbait erdiestearren. (Aznar, Carrasco eta Hinojo, 2007).

**22. Taula. Eskolan egiten ditudan gauzak, sexuaren eta adinaren arabera (%)**

| | | SEXUA | | ADINA | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Neska | Mutila | 7-8 | 9-10 |
| Jostailuak konpartitzen ditut gelakideekin | Bai | 83,8 | 89,6 | 86,9 | 86,7 |
| | Ez | 11,8 | 9,1 | 11,3 | 9,2 |
| | EE | 4,4 | 1,3 | 1,7 | 4,1 |
| Haur bat triste badago, laguntzen saiatzen naiz | Bai | 93,1 | 90,1 | 93,1 | 89,5 |
| | Ez | 2,9 | 8,3 | 5,4 | 6,0 |
| | EE | 4,0 | 1,7 | 1,4 | 4,5 |
| Nire lagun-taldearekin baino ez dut jolastu nahi | Bai | 18,5 | 27,9 | 23,2 | 23,7 |
| | Ez | 77,5 | 70,8 | 75,7 | 71,8 |
| | EE | 4,0 | 1,3 | 1,1 | 4,5 |
| Uste dut gauzak konpartitu behar ditudala nik baino gutxiago dutenekin | Bai | 88,5 | 85,4 | 86,4 | 87,5 |
| | Ez | 7,6 | 11,6 | 11,0 | 8,0 |
| | EE | 3,9 | 3,0 | 2,6 | 4,5 |
| N | | 229 | 253 | 272 | 210 |

Gatazken ebazpena aldi heldugabean dago, eta lehiak, norgehiagokak, bekaizkeriak eta segurtasunik ezak gelakideen arteko arazoak ekar ditzakete, besteek ere gatazkak ebazteko estrategia heldugabeak erabiltzen dituztenean. Isekan eta borrokan ibiltzea heldutasunik ezaren agerpena izan daiteke, ikasgelan gatazkak egotearena izan barik; baldin portaera horiek ez badira ongi bideratzen, baldin ez bada aurrera eramaten gogoeta-prozesu bat adingabearekin, horretara jotzea ohitura bihur daiteke nagusiago egin ahala.

Helburua ez da eskola-jazarpeneko egoerak detektatzea, eta, horregatik, galdera ez da horretarako prestatu. Besterik gabe, geletan dagoen gatazka-maila –egonez gero– eta gatazkaren agerpenak neurtzeko asmoa genuen. Eskola-jazarpeneko kasuak zehaztu eta goiz detektatzeko, tresna zehatzagoak behar dira.

Diseinatu diren galderekin ezin zehatz daiteke zein den abusua –jokabidea– arrisku bihurtzen duen azpiko helburua. Haur batek beste bat iraintzea portaera txarra da, baina hainbat haurrek behin eta berriz ume bera iraintzea, gainerako gelakideek horri erantzun gabe, masa-ekintza da, eta kezkatzeko eta asaldatzeko ezaugarriak hartzen ditu.

Ekintzak testuinguruan kokatzea ere garrantzitsua da. Esate baterako, ez da gauza bera neskato batek beste bat iraintzea haserrealdi batean, edo irainak etengabeak izatea eta bestea apaltzeko helburuarekin aritzea.

Ikus dezagun zer gertatzen den inkestaturiko haur-populazioarekin. Hamar ikasletik ia lauk esan zuten ikaskideei burla edo barre egin zietela edo iraindu zituztela (%38,6). Proportzio handi horrek aditzera ematen du halako jokabidea nahi baino zabalduago dagoela. Heren batek onartu zuen ikaskideak jo izana; hau da, gatazka ebaztearren indarkeriara jo zuen.

Laurden batek (%25) baztertu egin ditu lagunak, eta, beraz, pertsonak bakartu egiten ditu, haiekin egon nahi ez badu. Proportzio txikiago batek –nahiz eta ez den alde batera uztekoa, berekin dakarrena dakarrelako– adierazi zuen lagunak mehatxatu zituela, nahi ez zuten zerbait egitera behartzeko (%9,5). Hemen denetariko oldarrezko portaerak sartzen dira: haur batek beste batengandik nahi duena lortzearren mehatxatzeaz eta indarra erabiltzeaz ari gara.

Adin horretan irakasleak iraintzea da gutxien gertatzen den portaera; hain zuzen, adin horietako ikasleen %6,6k baino ez zuen onartu horrela jokatu izana.

**11. Grafikoa. Gatazka-egoerak eskolan (%)**




Emaitza hauek Lehen Hezkuntzako 3. zikloan lorturikoekin erkatuta[3], badirudi gatazka gehiago dagoela Lehen Hezkuntzako azken zikloan, aurrekoan baino. Ikasleen proportzio handi batek aitortzen du ikaskideren bati burla, barre edo irain egin izana, %67,4raino areagotuta. Eraso fisikoak, antza, ez dira gehitzen, baina bai, ordea, –nahiz eta ez asko– ikaskideak baztertu eta mespretxatzeko jokaerak, ikasle erasoa bakartzearren. Nahi ez den zerbait egitera behartzeko mehatxuak behera egiten du, baina oso gutxi, eta gora egiten dute, bestalde, irakasleei eginiko irainek.

Adin handiagokoak dira, baina. Azken urtean nerabezaroaurreko aldiaren hasieran sartzen dira, eta aurreratuenek kanpo-mundua gurasoen zaintza gabe aztertzeari ekiten diote. Hori dela eta, adin horretan –haurtzarotik irten gabe baina nerabezaroaurrean abiatuta– indarkeria, apalkuntzak eta irainak larriagoak dira, min emateko ahalmen handiagoa dutelako. Horrenbestez, hezkuntzazko neurriekin esku hartu beharko litzateke, portaera horiek zuzentzeko eta nerabezarora igarotzea hain gogorra izan ez dadin ahalbidetzeko.

[3] Ezin erka daitezke DBHko emaitzekin, galdera oso bestela egin da eta. Lehen Hezkuntzako 3. zikloari dagokionez, gutxienez "noizbait" adierazten zuten erantzunak batzea erabaki da.

**23. Taula. Eskolako gatazka-egoerak, Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloetako emaitzak erkatuta (%)**

| GATAZKA EGOERAK | Lehen Hezkuntzako 2. zikloa | Lehen Hezkuntzako 3. zikloa |
|---|---|---|
| Ikaskideei burla, barre edo irain egin diezu | 38,6 | 67,4 |
| Jo egin dituzu | 33,0 | 33,1 |
| Baztertu edo mespretxatu egin dituzu | 25 | 28,9 |
| Ikaskideak mehatxatu dituzu nahi ez duten zerbait egitera behartzeko | 9,5 | 8,0 |
| Irakasleren bat iraindu duzu | 6,6 | 10,0 |

Mutilek eta neskek desberdin jokatzen dute gatazkaren aurrean eskolan. Mutikoek gehiagotan erabiltzen dituzte trufa eta iraina (%45,4tan, nesken %31,1aren aldean); bai eta eraso fisikoa (%40,8tan, nesken %24,5aren aldean) eta, are, beste batek egin nahi ez duena egitera behartzeko mehatxua ere (%10,8tan, nesken %8aren aldean). Pertsona erasoari jolastea eragoztean bakarrik nabarmentzen dira neskak, alde esanguratsurik gabe, dena dela.

Lehen Hezkuntzako 2. zikloaren barruko datuak adinaren arabera erkatzean, nabaria da adinarekin bat gertatzen den igoera; eta halaxe egiaztatzen da, halaber, 2. zikloko datu horiek Lehen Hezkuntzako 3. ziklokoekin konparatzean.

**24. Taula. Egin duzu inoiz gauza hauetakoren bat? Sexuaren eta adinaren arabera (%)**

| | | SEXUA | | ADINA | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Neska | Mutila | 7-8 | 9-10 |
| Ikaskideei burla, barre edo irain egin diezu | Bai | 31,1 | 45,4 | 32,5 | 46,6 |
| | Ez | 68,0 | 54,6 | 67,5 | 52,4 |
| | EE | 0,9 | 0,0 | 0,0 | 1,0 |
| Jo egin dituzu | Bai | 24,5 | 40,8 | 31,2 | 35,4 |
| | Ez | 74,6 | 59,2 | 68,3 | 64,3 |
| | EE | 0,9 | 0,0 | 0,5 | 0,4 |
| Baztertu edo mespretxatu egin dituzu | Bai | 25,8 | 24,3 | 22,1 | 28,8 |
| | Ez | 73,5 | 75,4 | 77,9 | 70,0 |
| | EE | 0,7 | 0,4 | 0,0 | 1,2 |
| Ikaskideak mehatxatu dituzu nahi ez duten zerbait egitera behartzeko | Bai | 8,0 | 10,8 | 11,0 | 7,5 |
| | Ez | 91,6 | 88,9 | 89,0 | 91,7 |
| | EE | 0,4 | 0,3 | 0,0 | 0,8 |
| Irakasleren bat iraindu duzu | Bai | 5,7 | 7,5 | 6,4 | 6,9 |
| | Ez | 91,3 | 90,1 | 91,5 | 89,6 |
| | EE | 3,0 | 2,4 | 2,1 | 3,5 |
| N | | 229 | 253 | 272 | 210 |

### *1.1.3. Aisia eta astialdia*

Zabala eta askotarikoa da 7 urtetik 10 urtera bitarteko haurren aisia. Jarduera guztietan dira handiak praktika-mailak, baina ohikoena telebista ikustea da (%84), eta hurren kirola egitea dator (%75), bai eta gurasoekin kontu kontari egoten edo elkarrekin gauzak egiten denbora pasatzea ere (%67,3). Irakurtzea ere aisiatzat hautatzen dute, bideo-jokoetan aritzea edo musika eta irratia entzutea ere alboratu gabe. Erdia baino zerbait gehiago hasia da dagoeneko irten eta adiskideekin batera kalean ibiltzen, eta praktika erlijiosoa oraindik nolabaiteko garrantzia du, horretan katekesiak eragin handia duela, ziur aski.

**25. Taula. Lehen Hezkuntzako 2. zikloko ikasleek egiten dituzten aisia-jarduerak (%)**

| | |
|---|---|
| Telebista ikusi | 84 |
| Kirola egin | 75,7 |
| Gurasoekin jolastu, haiekin egon kontu-kontari edo elkarrekin gauzak egin | 67,3 |
| Liburuak, aldizkariak, komikiak eta abar irakurri, gustatzen zaizulako | 59,7 |
| Bideojokoekin jolastu | 59,2 |
| Musika eta irratia entzun | 55,4 |
| Lagunekin irten, lagunekin ibili kalean | 52,2 |
| Elizara edo meskitara joan, katekesira joan | 47,4 |
| Zinemara joan | 39,1 |
| Futbola, saskibaloia edo beste kirol batzuk ikustera joan | 35,5 |
| Interneten nabigatu | 33,2 |

Azterketa errazte aldera, aisialdiko jarduerak hainbat taulatan taldekatu ditugu, aisia-arloak kontuan izanik, haien praktika-mailei begiratu beharrean.

Kirola egitea edo ikustea garrantzi handia du balio-heziketan, bereziki adin horietan, alegia, haurren nortasuna eratzen ari den adinetan. Kirola gero eta gutxiago lotzen zaie gizonezkoei, bai ikuspegi orokor batean bai ikuspegi partikularrean. Hala eta guztiz ere, kirola egitea zabalduago dago mutiletan nesketan baino, adin horietan bien arteko aldea txikiagoa den arren, nagusiagoak direnean baino. Hala, bada, mutilen %80,8k esan zuen kirola egiten zuela, eta neskak, berriz, %70,1era jaisten dira kirola egiteari dagokionez.

Kirol-ikuskizunen aldetik, neskek askoz gutxiago ikusten dituzte, mutilek baino. Mutilen kasuan, %43,1 batzuetan joaten da, baina nesken artean %27 baino ez da joaten. Ez dakigu neskek hasiera batean uko egiten dioten ala aitek mutilei indar handiagoz transmititu ohi dieten kirolaren balioa, neskei baino, azken horiei arte eta kulturaren arloko jardueretara bultzatzen direla neurri handiagoan.

Kulturako jarduerak hazi ahala eta irakurketa-idazketako gaitasunez jabetu ahala praktikatuz joan daitezke haurrak, eta trebetasun hori errazago gertatzen bazaie, sustatu egiten da.

Pertsona batek edozein jardueratan zailtasunak baditu, saihestu egingo du, baina komiki bat irakurtzea, irratia entzutea eta zinemara joatea estimulua badira, estimulu hori berrelikatu egingo da, eta haien kultura-ondarea, areagotu.

**26. Taula. Maiztasuna kirol-jarduerak egitean, sexuaren eta adinaren arabera (%)**

| | | SEXUA | | ADINA | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Neska | Mutila | 7-8 | 9-10 |
| Maiztasuna: futbola, saskibaloia edo beste kirol batzuk ikustera joan | Inoiz ez | 71,9 | 56,9 | 65,4 | 62,3 |
| | Batzuetan | 27,0 | 43,1 | 34,0 | 37,3 |
| | EE | 1,1 | 0,0 | 0,6 | 0,4 |
| Maiztasuna: kirola egin | Inoiz ez | 27,8 | 16,9 | 21,6 | 22,8 |
| | Batzuetan | 70,1 | 80,8 | 75,4 | 76,1 |
| | EE | 2,1 | 2,3 | 3,0 | 1,2 |
| N | | 229 | 253 | 272 | 210 |

Irakurtzen aritzea da garrantzitsuena. Berdin zaio liburu egokituak izatea zein komikiak eta aldizkariak izatea. L. Miravalles-en artikuluan (1999), egileak komikiaren balioa azaltzen du; izan ere hizkuntzaren irakaskuntzan pedagogiazko tresnatzat sistematikoki erabiltzen denean, biziki tresna oso eta eraginkorra da, adierazpen plastikoa eta hizkuntza bateratzen ditu eta. Hori indartu egin zuen M. Barrero-k –Jerez de la Frontera-n (Espainia), narratiba grafikoari buruzko jardunaldi batzuetan– eman zuen hitzaldian (2002); hain zuzen, adierazi zuen komikiak balio etiko eta ideologikoak transmititzen dituela, errealitatearen irakurketa kritikoa sustatzeko ahalmena duela, ikaskuntzan laguntzen duela, eta errazago egiten duela hizkuntza ikonikoan alfabetatzea.

**27. Taula. Maiztasuna komikiak irakurtzean, zinemara joatean eta musika entzutean, sexuaren eta adinaren arabera (%)**

| | | SEXUA | | ADINA | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Neska | Mutila | 7-8 | 9-10 |
| Maiztasuna: liburuak, aldizkariak, komikiak eta abar irakurri, gustatzen zaizulako | Inoiz ez | 39,3 | 39,1 | 40,7 | 37,2 |
| | Batzuetan | 59,9 | 59,5 | 58,2 | 61,6 |
| | EE | 0,9 | 1,3 | 1,1 | 1,2 |
| Maiztasuna: zinemara joan | Inoiz ez | 64,9 | 51,2 | 58,4 | 56,8 |
| | Batzuetan | 32,9 | 44,7 | 38,5 | 39,8 |
| | EE | 2,2 | 4,1 | 3,1 | 3,3 |
| Maiztasuna: musika eta irratia entzun | Inoiz ez | 42,8 | 43,9 | 50,7 | 33,8 |
| | Batzuetan | 56,8 | 54,1 | 47,3 | 65,8 |
| | EE | 0,4 | 2,0 | 1,9 | 0,4 |
| N | | 229 | 253 | 272 | 210 |

Liburuak irakurtzeari dagokionez, ia ez dago alde esanguratsurik sexuaren arabera, baina badaude, ordea, zinemara joateko maiztasunean, mutilak maizago joaten baitira, bai eta musika, irratia eta abar entzutekoan ere, neskak sarriago aritzen baitira horretan. Mota horretako jarduеretan adin gehiagoko neska-mutilak gehiago ibiltzen dira; espero izatekoa da hori, heldu ahala irakurketaz, zinemaz eta musikaz gozatzeko funtsezko gaitasunak berenganatzen dituzte eta.

Itxura denez, teknologiari loturiko aisia guztia zabalduago dago mutilen artean, nesken artean baino. Bai telebista ikusten, bai Interneten nabigatzen, bai bideo-jokoetan jolasten mutilak gehiago ibiltzen dira, neskak baino. Adinaren araberako aldeak ez dira aipatzeko modukoak.

**28. Taula. Aisia teknologikoa, sexuaren eta adinaren arabera (%)**

| | | SEXUA | | ADINA | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Neska | Mutila | 7-8 | 9-10 |
| Maiztasuna: telebista ikusi | Inoiz ez | 16,6 | 10,6 | 13,9 | 12,8 |
| | Batzuetan | 81 | 86,6 | 83,6 | 84,5 |
| | EE | 2,4 | 2,8 | 2,5 | 2,7 |
| Maiztasuna: Interneten nabigatu | Inoiz ez | 70,1 | 60,4 | 66,1 | 63,7 |
| | Batzuetan | 28,3 | 37,6 | 32,3 | 34,3 |
| | EE | 1,5 | 2,0 | 1,7 | 2,0 |
| Maiztasuna: bideo-jokoekin jolastu | Inoiz ez | 51,3 | 29,6 | 38,3 | 42,0 |
| | Batzuetan | 47,7 | 69,7 | 60,8 | 57,3 |
| | EE | 1,0 | 0,7 | 0,9 | 0,8 |
| N | | 229 | 253 | 272 | 210 |

Harreman-aisia da gizarteko beste kide batzuekin (adiskideak, familia edo erlijio-komunitateko kideak) harremanak ezartzea helburu nagusitzat duena. Halako aisian, kasu guztietan, neskak gehiago aritzen dira mutilak baino, aldeak txikiak direla, betiere. Nolanahi ere, kasu honetan adinak badu garrantzia. Adiskideekin irtetea zazpi ehuneko-puntu igotzen da 7-8 urteetatik 9-10 urteetara bitartean; horrek esan nahi du pixkanaka gero eta neska-mutil gehiago iristen direla adiskideekin bakarrik kalean ibiltzeko autonomiara. Gurasoekin batera aisialdia emateko pertzepzioak ere gora egiten du, baina praktika erlijiosoak, aldiz, behera.

**29. Taula. Harreman-aisiako beste jarduera batzuen maiztasuna, sexuaren eta adinaren arabera (%)**

| | | SEXUA | | ADINA | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Neska | Mutila | 7-8 | 9-10 |
| Maiztasuna: lagunekin irten | Inoiz ez | 48,0 | 43,8 | 49,0 | 41,6 |
| | Batzuetan | 49,5 | 54,5 | 49,2 | 56,0 |
| | EE | 2,5 | 1,7 | 1,8 | 2,3 |
| Maiztasuna: gurasoekin jolastu, haiekin egon kontu-kontari edo elkarrekin gauzak egin | Inoiz ez | 42,8 | 43,9 | 49 | 36,4 |
| | Batzuetan | 56,8 | 54,1 | 49,7 | 62,4 |
| | EE | 0,4 | 2,0 | 1,3 | 1,2 |
| Maiztasuna: Elizara edo meskitara joan, katekesira joan | Inoiz ez | 49,1 | 52,9 | 46,5 | 57,0 |
| | Batzuetan | 48,8 | 46,2 | 52,2 | 41,2 |
| | EE | 2,1 | 1,0 | 1,3 | 1,7 |
| N | | 229 | 253 | 272 | 210 |

Gehien-gehienetan, aita-amek ezartzen dituzte oraindik arauak eta haurren jolasak. Haurrak gurasoek esaten dieten horretan jolasten dira. Kasuen %26,7tan jolasa adiskide-taldean erabakitzen da, eta %18,3tan haurrak berak erabakitzen du. Hau da, familiaren pisua oso handia da oraindik, eta nahikoa markatzen du aisialdia ere, geroago nerabeak ia bakar-bakarrik kudeatuko duen gune bat, hain zuzen.

**12. Grafikoa. Nork erabakitzen duen haurren jolasa (%)**




Generoen artean dagoen aldeak aditzera ematen du neskek erabakigarritasun handiagoa dutela zertan jolastu erabakitzeko garaian. Kasuen %23,4tan neskak berek erabakitzen dute, eta mutilei dagokienez, aldiz, hori %13,8tan baino ez da gertatzen. Mutilek, baina, aukera gehiago dituzte erabakiak beste batzuek haien partez hartzeko, gurasoek, adiskideek eta are beste batzuek ere ezartzen dituzte haien jolasak zein izango diren.

**30. Taula. Nork erabakitzen dituen jolasak. Sexuaren eta adinaren arabera (%)**

| | SEXUA | | ADINA | |
|---|---|---|---|---|
| | Neska | Mutila | 7-8 | 9-10 |
| Aitak edo amak | 44,4 | 51,2 | 46,5 | 49,9 |
| Lagunek | 24,8 | 28,4 | 27,1 | 26,2 |
| Nik neuk | 23,3 | 13,8 | 19,0 | 17,5 |
| Beste batzuek | 6,1 | 3,9 | 6,2 | 3,2 |
| EE | 1,5 | 2,6 | 1,2 | 3,2 |
| N | 229 | 253 | 272 | 210 |

### *1.1.4. Komunikabideak eta teknologia berriak*

Hainbesterainokoa da teknologia berrien inpaktua, non neskato-mutikoen %4,9k baino ez baitzuen esan ez zekiela Internet zer zen; ezagutu bai, baina Internet erabiltzen ez zuela adierazi zuen %22a batuz gero horri, esan dezakegu 7 urtetik 10 urtera bitarteko haurren laurden bat baino zerbait gehiago dela Internet erabiltzen ez duena. Ordea, %70,8k erabili egiten du edo erabili izan du, maiztasun gehiagoz edo gutxiagoz. Esan daiteke, horrenbestez, belaunaldi hau Interneten aroan jaio dela, eta aski txikitatik bertatik ezagutzen duela; hartara, zaila egingo zaie irudikatzea Internet gabeko lehengo garaiak zer ziren, telebista zabaldu zenean hazi ziren belaunaldiekin gertatu zen antzera.

Lehen ere esan dugu: mutiletan erabilera eta ezagutza handiagoak dira, nesketan baino. Mutilek, hain zuzen, gehiago ezagutzen eta erabiltzen dute.

**31. Taula. Interneten erabilera, sexuaren eta adinaren arabera (%)**

| INTERNETEN ERABILERA | Guztiak | Neskak | Mutilak | 7-8 urte | 9-10 urte |
|---|---|---|---|---|---|
| Bai, sarri | 28,7 | 23 | 33,9 | 31,2 | 25,6 |
| Bai, baina gutxitan | 42,1 | 45,8 | 38,8 | 39,5 | 45,4 |
| Ez dut erabiltzen | 22 | 23,3 | 20,7 | 22 | 21,9 |
| Ez dut Internet ezagutzen | 4,9 | 6,1 | 3,9 | 6,7 | 2,7 |
| Erantzunik ez | 2,2 | 1,8 | 2,6 | 0,5 | 4,4 |
| **Guztira** | **483** | **229** | **253** | **272** | **210** |

Baldin inkesta egin zaien hezkuntzako hiru zikloetako emaitzak erkatzen badira, ikus daiteke sarearen erabilera gero eta handiagoa dela adingabeen artean. Hala, bada, DBHn %5,4k baino ez zuen esan ez zuela erabiltzen, eta erabileraren maiztasuna era esanguratsuan areagotzen da; izan ere, %63,6k esan zuen sarri erabiltzen zuela, eta horrek –7 urtetik 10 urtera bitarteko haurren %28,7aren aldean– agerian uzten du nerabezaroko adinetan teknologia hartuz doan gorakada.

**32. Taula. Interneten erabileraren konparazioa inkestako hiru zikloen artean (%)**

| INTERNETEN ERABILERA | 2. zikloa | 3. zikloa | DBH |
|---|---|---|---|
| Bai, sarri | 28,7 | 33,5 | 63,6 |
| Bai, baina gutxitan | 42,1 | 45,1 | 29,1 |
| Ez dut erabiltzen | 22 | 18 | 5,4 |
| Ez dut Internet ezagutzen | 4,9 | 2,4 | 0,4 |
| Erantzunik ez | 2,2 | 1 | 1,5 |
| **Guztira** | **483** | **584** | **762** |

Internet erabiltzen duten haurren %36,3k normalean bakarrik erabiltzen du, heldu batekin egon gabe, sarean eta bisitatzen dituen web-orrialdeetan zer egiten duen begiratzeko. Bestela, %16,5 normalean adiskideekin edo haurrideekin batera ibiltzen da Interneten. Gurasoen kontrol iraunkorra kasuen %17,3tan gertatzen da, eta beste %18,1etan batzuetan bakarrik eta beste batzuetan gurasoekin nabigatzen dute.

Hori kontuan hartu beharreko alderdi bat da, ziur aski. Baliabide teknologikoak erabiltzea lagungarria zaie haurrei halabeharrez erabili beharko dituzten tresnekin treba daitezen, baina komeni da gurasoen kontrolaren pean erabiltzea, sarean molda daitezen eta webgune desegokietan sar ez daitezen[4].

Gurasoek seme-alabak non, norekin eta zertan jolasten diren kontrolatzen dute, telebistan zer programa ikusten dituzten, eskolan nola dabiltzan zaintzen dute, beste kontrol gutxiasko zorrotz batzuk egiten dituzte, baina ez dute gauza bera egiten adingabeak Interneten sartzen direnean. Ez da aintzat hartzen Internet ate handi-handi bat baino ez dela, eta ate horretatik sartzen diren eduki eta pertsonak ez direla beti fidagarriak, areago, adingabeentzat kaltegarriak ere izan daitezkeela.

Interneten belaunaldia dugu. Azken Estudio General de Medios ("komunikabideei buruzko ikerketa orokorra") delakoaren arabera, 8 urtetik 13 urtera bitarteko hamar haurretatik zazpik traba gabe nabigatzen dute Interneten; horrela, bada, Espainiako populazioaren batez bestekoa baino 28 puntu gehiago dira.

Konponbidea ez da baliabide hori eskuetatik kentzea, baizik eta tresnak ematea arriskurik gabe nabigatzeko gai izan daitezen, ezezagun batzuek erasotzen ez dioten pribatutasun baten barruan.

---

[4] Ez da beti pentsatu behar sexuari edo indarkeriari loturiko web-orrietan (ordenagailuak horien aurka babestu egin daitezke), baizik eta bestelako webgune batzuetan, susmagarriak ez diren arren eta are ofizialak diren arren, askotariko informazioa eta oparoa ematen baitute haurrek –oraindik garatzen ari den haien psikologia dela eta– oraindik uler ezin ditzaketen gaien gainean.

Ekimen batzuk sortzen ari dira, hala nola *Guía de recomendaciones para navegar de manera segura* ("Seguru nabigatzeko gomendio-gida") izenburuko gida, non datuak babestearen garrantzia nabarmentzen baitute, edo Arartekoak berrikitan (2008) argitaratu duen materiala bera: *Leihoak. Abentura erreala mundu birtualean. Gozatu Internetez… Sarean erori gabe.* Baina horren guztiaren oinarria nabigazio kritikoa da, eta hartaz, hain zuzen, hitz egiten da Wartella-ren, Lee-ren eta Caplovitz-en azterlanean (2002): nabigazio kritiko hori lortzen da edukiak balioztatzeko gaitasuna sustatuz, bisitatzen diren webguneetan zer iragartzen den uler dezaten, eta kalitate birtuala kalitate errealetik bereiz dezaten ikusten dituzten eduki horietan.

Interneten nabigatzeko moduan ez dago alde handirik batzuen eta bestetzuen artean. Dena dela, taulak erakusten dituen alde urrien arabera, dirudienez, mutilek gehiagotan nabigatzen dute bakarrik eta gurasoekin, eta neskek, berriz, neurri handiagoan nabigatzen dute adiskideekin eta neba-ahizpekin, mutilek baino; betiere, kontuan hartu behar da neskek gutxiago erabiltzen dutela Internet mutilen aldean.

Inkestak biltzen duen informazio urria dela eta –inkesta egin zaion kolektiboagatik, hain zuzen–, ezin izan da sakonago ikertu zertan erabiltzen duten Internet, baina antzeko populazioekin egin diren beste azterlan batzuek (Moraga eta Contreras, 2005) egiaztatu dute sareaz gutxien dakitenek batez ere eskolako lanak egiten jarduten dutela, eta ezaguera handiagoa duten taldeak, ostera, denbora gehiago ematen duela jarduera gehigarrietan, hala nola multimediak erabiltzen, txatean edo jokoetan. Sexuen arteko aldeei dagokienez, azterlan berak agerian uzten digu ezen nesken artean eskolari eta komunikazioari (txata, messenger-a, blogak, eta abar) loturiko erabilerak direla ohikoenak, eta mutilek, funtsean, jokoetarako erabiltzen dutela.

**33. Taula. Norekin erabiltzen duten Internet, sexuaren eta adinaren arabera (%)**

| | Guztiak | Neskak | Mutilak | 7-8 urte | 9-10 urte |
|---|---|---|---|---|---|
| Normalean bakarrik | **36,3** | 34,3 | 38,1 | 39,8 | 32,1 |
| Normalean gurasoekin | **17,3** | 13,5 | 20,7 | 19,1 | 15,1 |
| Batzuetan bakarrik eta beste batzuetan gurasoekin | **18,1** | 20 | 16,4 | 15,1 | 21,7 |
| Normalean lagunekin edo neba-arrebekin | **16,5** | 19,4 | 14 | 16,3 | 16,8 |
| Ez dut Internet erabiltzen | **23,9** | 26,8 | 21,3 | 26,1 | 21,2 |
| Erantzunik ez | **3,9** | 3,6 | 4,1 | 2,8 | 5,1 |

Baldin hezkuntzako hiru zikloetako inkestak erkatzen baditugu, ikusten dugu nabarmen areagotzen dela Internet bakarrik erabiltzea, gurasorik, adiskiderik edo haurriderik gabe. Nerabeentzat, internet funtsezko komunikazio-tresna bihurtu da. Gazteenak 7-10 urteko adin txikietan hasten dira Internet erabiltzen, eta, hazi ahala, haien autonomia areagotu egiten da tresna hori erabiltzen.

Lehen genioen gurasoen edo helduen kontrola garrantzitsua dela, baina baieztapen hori adin guztietara zabaldu beharko litzateke, adingabe diren bitartean, bederen. Egia da ezen, adinean gora egiten duten neurrian, aita-amek arauak egokitu behar dituztela, eta kontrol batzuk lasaitu, baina –adingabearen pribatutasuna errespetaturik ere– jakin behar lukete zer egiten duten beren seme-alabek Interneten, eta zertarako erabiltzen duten.

**34. Taula. Norekin erabiltzen duten Internet, hezkuntzako hiru zikloen arteko konparazioa (%)**

| | 2. zikloa | 3. zikloa | DBH |
|---|---|---|---|
| Normalean bakarrik | 36,3 | 49,5 | 73,6 |
| Normalean gurasoekin | 17,3 | 9,3 | 3,3 |
| Batzuetan bakarrik eta beste batzuetan gurasoekin | 18,1 | 18 | 11,4 |
| Normalean lagunekin edo neba-arrebekin | 16,5 | 15,3 | 9,5 |
| Ez dut Internet erabiltzen | 23,9 | 17,8 | 4,4 |
| Erantzunik ez | 3,9 | 0,8 | 1,9 |

- *Bideo-jokoen edo ordenagailu-jokoen erabilera*

Lehen itxuran, 1990ko hamarkadaren hasieran, ez zirudien ordenagailuetarako jokoen merkatua etorkizun handikoa zenik. Ordenagailuen salneurriak handiak ziren, eta, beraz, halakoak edukitzea enpresen arlokoa zen, familien aisiaren arlokoa baino gehiago. Normala zen ordenagailuak erabiltzeko denbora ekonomia gestioetarako edo datuak tratatzeko izatea. Salneurriek 1990ko hamarkadaren erdialdean behea jotzean eta, ondorioz, ordenagailuak etxetresna elektriko bihurtzean baino ezin izan zen berriro sinetsi ordenagailuei dibertsiorako ahalmena emateko aukeran, ordu arte dibertsioaren arlo hori kontsoletara edo jolas-aretoetako makinetara mugaturik zegoela.

Aldaketa horrexen ondorioz bihurtu zen ordenagailua, jolas-erabilerari zegokionez, kontsolak baino etxetresna elektriko eskuragarriago bat. Gaur egungo ordenagailu-joko gehienak CD-ROM eta DVD formatuan egoteaz gain, ordenagailu pertsonal horietan bideo-jokoen kontsolen emuladoreak instala daitezke, horien jokoak erabili ahal izateko. (CIDE, Instituto de la mujer, 2004)

Baina gaur egun merkatuan diren kontsolek ez dute erabilera bakarra. Hala, bada, Nielesen Games-ek Eragin-trukeko Softwarearen Europako Federazioarentzat (ISFE) eginiko azterlanean (2008) esaten da ezen Europako hamar jokatzailetik ia zortzik (%78) adierazi duela haien bideo-jokoen kontsolak badituela multimediarako ahalmenak, eta %72k aditzera eman duela kontsola beste jarduera batzuetarako erabiltzen duela, hala nola Interneten sartzeko, DVDak erreproduzitzeko edo musika MP3 formatuan entzuteko.

Bideo-jokoen gaian gehiago barneratu baino lehen, garrantzitsua da kontzeptu zenbait argi izatea, alegia, bideo-jokoak zer diren eta bide-jokoak nola sailka daitezkeen.

Marqués-en definizioaren arabera (2000), bideo-jokoa da eragin-trukeko joko elektroniko oro, jolas-jarduera batzuk eskaintzen dituena (edukia), erabiltzen den baliabidea izanik joko guztien oinarria (plataforma elektronikoa), euskarria gorabehera (barneko ROMa, kartutxoa, disko magnetiko edo optikoa, on-line) nahiz erabiltzen den plataforma teknologikoa gorabehera (sakelako makina, telebistara konektatzeko bideo-jokoen kontsola, jolas-makina, mikroordenagailua, eragin-trukeko bideoa, sare telematikoa, sakelako telefonoa).

Estalló-k (1997) bi irizpide bateratzen ditu: batetik, jokorako behar diren trebetasunak eta baliabide psikologikoak, eta, bestetik, jokoaren beraren garapena eta gaiak. Horren arabera, lau banaketa handi ezartzen dira: *arcade*ak (plataformak, labirintoak, kirol-jokoak eta tiro-jokoak), simulazio-jokoak (instrumentalak eta egoerazkoak, mitologikoak sozioekonomikoak, bioekologikoak eta kiroletakoak), elkarrizketa- edo estrategia-abenturak (abentura grafikoak, rol-jokoak eta *war-games* direlakoak) eta mahai-jokoen antzeratzeak.

Egia esan, bideo-jokoak pixkanaka gero eta unibertsalagoak dira. Gero eta jende gehiago hasten da bide-jokoak erabiltzen urtero, eta horrek eragina du, bereziki, hazteko eta gizartekoitzeko prozesuan dauden adingabe eta nerabeengan. Errealitate ulertu eta pentsatzeko moduak eratzean haiengan duen eragina ahaltsua da, eta hori gero eta sakonago eta zehatzago ezagutu eta aztertu behar dugu. Eragin-trukeko jokoa ahalbidetzen duten denetariko gailu elektronikoak indartsu zabaldu dira halakoen aurrean sendo iraun ohi duten sektore batzuetan ere, esate baterako, adin gehiagoko pertsonen artean. Bideo-jokoen kontsola batzuk pertsona nagusien ohituretara egokitzeak belaunaldi zenbait eserarazi ditu sofan, bideo-jokoetan batera aritzeko.

Gure inkestaren arabera, haurren %3,7k adierazi zuen ez zela jolasten bideo-jokoekin edo ordenagailu-jokoekin. Horri erantzunik eman ez zuen %3,3a gehituta, esan dezakegu populazioaren ia %10ek ez duela joko teknologikorik erabiltzen; gainerakoek, erabili egiten dituzte. Beraz, joko teknologikoak asko erabiltzen dituzten belaunaldiak ditugu aurrean.

**13. Grafikoa. Bideo-jokoen kontsolen eta ordenagailu-jokoen erabilera (%)**




Ordenagailua da jokorako tresna EAEko haurren %61,4rentzat; hurren, bideo-jokoen Nintendo kontsola da erabiliena (%56,2); hirugarrenik PlayStation dago (%53,8), eta, azkenik,

Game Boy (%46,5). Hau da, elementu horiek guztiak nahikoa erabiltzen dira, eta gehienetan haietako bat baino gehiago erabiltzen da.

Gure inkestan, 7 urtetik 10 urtera bitarteko haurren %5,7k baino ez zuen esan inolako joko teknologikorik erabiltzen ez zuela.

Badaude alde nabarmenak sexuaren arabera bideo-jokoen erabileran. Mutilek neskek halako bi erabiltzen dute *PlayStation* kontsola (batzuen %70,8k eta besteen %35ek), eta, halaber, *Game Boy* kontsola erabiltzen ere nabarmentzen dira mutilak (mutilen %55,6k eta nesken %36,5k), baina aldea txikiagoa da ordenagailua erabiltzeari dagokienez (%63,5 eta %59,1), eta alde hori are txikiagoa da *Nintendo* kontsolaren erabileran (%57,1 eta %55,3).

Emaitza horiek mutilen eta nesken jokoei buruz aritzen diren hainbat azterlanetan[5] ageri dira, eta bat datoz sexuaren nahiz maiztasunaren inguruko desberdintasunetan; hain zuzen ere, jokatzen duten mutilak gehiago dira nesken aldean, eta mutil horiek, gainera, denbora gehiago ematen dute bideo-jokoetan.

Dena dela, kontsola bataren edo bestearen enpresek baliatzen dituzten marketingean ere badatza azalpena. Lehiari, indarkeriari eta mutilen kirolari loturiko balioetan oinarritzen den gizonezko-estereotipoa zehatz islatzen da kontsola batzuetan (PlayStation delakoan, esaterako), jokoak ikuspegi horretatik diseinatzen dituzte eta. Zeharo mutilentzat prestatutako jokoak dira, nesken sektorea erakartzen ez dutenak (edo ez da interesatzen erakartzea). Hartara, PlayStation kontsolarekin jolasten diren mutilen proportzioa neskena halako bi da (PlayStation kontsola laugarrena nesken aukeren artean, %35,0 duela, eta mutilen artean, aldiz, lehen tokian dago, %70,8 lortuta).

Nintendo konpainiari dagokionez, hark gizonezkoen ikuspegi tradizionala gainditu du, eta sortu dituen kontsoletako jokoek –estrategiari, maskotak zaintzeari eta antzekoei loturik– parte hartzeko aukera ireki die neskei berrikitan. Era berean, koloretako kontsolak sortu dituzte, eta horrek gehiago erakartzen ditu neskak; areago, hori islatzen da neskentzat bakarrik eginiko publizitate-kanpaina batzuetan. Konpainia horrek hainbeste zabaldu ditu aukerak, non helduen unibertsoa bereganatzeari ere ekin baitio, “adimen-estimuluko jokoak” deritzen jokoen bidez.

Urbina Ramírez-ek eta beste zenbaitek (2002) diotenez, *“baldin bide-jokoen historiaren bilakaerari begiratzen badiogu, ausaz joko horietako batzuetan arreta jarriz, egiaztatuko dugu haietako askotan genero-rolen irudi gutxi-asko uniformatua eta murriztailea ematen dutela: emakumea rol pasiboak ditu, biktimarena edo seduzitzailearena, parean gizonezko-irudi aktibo, bortitz, menderatzaile, eta ausarta duela.”*

---

[5] Buchman, Funk ,1996; Estalló, 1997; Etxeberria, 1999; eta Instituto de la Mujer, Cide 2004.

**35. Taula. Bideo-jokoekin edo ordenagailu-jokoekin jolasten zara? Sexuaren eta adinaren arabera (%)**

| | SEXUA | | ADINA | |
|---|---|---|---|---|
| | Neska | Mutila | 7-8 | 9-10 |
| Bai, Play Stationarekin | 35,0 | 70,8 | 55,0 | 52,2 |
| Bai, ordenagailuarekin | 59,1 | 63,5 | 60,7 | 62,3 |
| Bai, Nintendoarekin | 55,3 | 57,1 | 42,8 | 45,0 |
| Bai, GameBoyarekin | 36,5 | 55,6 | 46,1 | 47,1 |
| Ez | 5,7 | 2,0 | 4,5 | 2,7 |
| Erantzunik ez | 3,0 | 3,6 | 1,4 | 5,8 |
| N | 229 | 253 | 272 | 210 |

Hezkuntzako zikloak erkatuz gero, ikusten da txikienek erabiltzen dituztela neurri handiagoan denetariko kontsola-motak. PlayStation kontsolak egonkor jarraitzen du urteetan aurrera egin ahala, eta nagusiek nahien dutena da, sakelako kontsolek –Nintendo edo Game Boy kontsolek, alegia– interesa galtzen dutelako nagusientzat, txikienen artean produktu horiek nagusi diren arren.

**36. Taula. Bideo-jokoen kontsolen eta ordenagailu-jokoen erabilera hezkuntzako etapetan (%)**

| | Lehen Hezkuntzako 2. zikloa | Lehen Hezkuntzako 3. zikloa | DBH |
|---|---|---|---|
| Bai, Play Stationarekin | 53,8 | 55,3 | 53,2 |
| Bai, Nintendoarekin | 56,2 | 50,5 | 20,5 |
| Bai, GameBoyarekin | 46,5 | 33,2 | 14,2 |
| Bai, ordenagailuarekin | 61,4 | 61,3 | 64,4 |
| Ez | 3,7 | 5,5 | 9,0 |
| Erantzunik ez | 3,3 | 1,2 | 0,6 |

Halako jokoak erabiltzeko maiztasuna handia da oso. Hala, bada, %31 egunero ibiltzen da egunero jokoetan, eta %26 astean batzuetan jolasten da; heren bat asteburuetan erabiltzera mugatzen da, gurasoek ezarritako arauen eragina handia delako, pentsatzen dugu. Horrenbestez, gehienek, %57k, ia egunero erabiltzen dituzte bideo-jokoak.

Generoaren araberako aldeei begiratuta, mutilek gehiago jolasten dira eguneroko maiztasunez, neskak baino. Dena dela, oro har, neskak maizago jolasten dira; izan ere, "ia egunero" eta "astean batzuetan" aukerak batuz gero, neska jolasten dira sarriago, eta neurri handiagoan asteburuetan jolasten dira mutilak gehiago. Ziur aski, hori lotura handia

du gurasoek egiten duten kontrolarekin: PlayStation-en gainean kontrol gehiago egin ohi dituzte kontsola txikien gainean baino; lehena mutilek nahien dutena da, azkenak, nesken gogokoenak.

**14. Grafikoa. Zenbat jolastu zara bideo-jokoekin edo ordenagailu-jokoekin azken hilabetean? (%)**




Adinaren araberako datuek adierazten dute Lehen Hezkuntzako 4. mailakoek maiztasun gutxiagoz erabiltzen dituztela bideo-jokoen kontsolak. Gehienbat, asteburuetan erabiltzen dituzte (%40,1), eta asko murrizten da eguneroko erabilera, ikaskide gazteagoen aldean. Ziurrenik, eskolako ardurak gehiago dira, eta etxean egin beharreko lanek eragina dute jokoak erabiltzeko garaian.

**37. Taula. Zenbat jolastu zara bideojokoekin edo ordenagailu-jokoekin azken hilabetean? Sexuaren eta adinaren arabera (%)**

| | SEXUA | | ADINA | |
|---|---|---|---|---|
| | Neska | Mutila | 7-8 | 9-10 |
| Ia egunero | 23,8 | 37,6 | 35,8 | 24,8 |
| Astean batzuetan | 33,7 | 19,0 | 26,8 | 25,0 |
| Asteburuetan bakarrik | 31,1 | 36,3 | 29,0 | 40,1 |
| Behin ere ez | 8,7 | 5,3 | 7,9 | 5,6 |
| Erantzunik ez | 2,7 | 1,8 | 0,5 | 4,5 |
| N | 229 | 253 | 272 | 210 |

Jokoak asko eta askotarikoak direnez eta adin horietakoentzat joko guztiak egokiak ez direnez, galdera irekia egin genuen, lau joko gustukoenak edo erabilienak esateko eskatuta. Erantzunen kopurua dela eta, jokoen bilaketa- eta kodeketa-lana egin behar izan da, haietako asko izen ulergaitzekin izendaturik zeudelako, edo gaizki idatzi zituztelako, edo nola idatzi ez zekitelako, ziur aski.

Nolanahi ere, erantzunetako lau aukerekin hasierako sailkapen bat osatu dugu, bederatzi joko-motatan banaturik eta adingabeentzat egokiak diren edo ez aintzat hartuta. Azken horretarako, PEGI-k (Pan European Game Information) ematen duen sailkapenean oinarritu gara. Sistema horrek bideo-joko eta ordenagailu-jokoetarako adinaren araberako sailkapena ematen du, eta bideo-jokoaren industriako gehienak harexeri atxiki zaizkio borondatez.

7 urtetik 10 urtera bitarteko haurrek identifikatzeko moduko 796 joko aipatu zituzten. Haien artean, erabilienak dira abenturakoak, plataformakoak, estrategiakoak eta indarkeriarik gabeko ekintzakoak. Funtsean, honelakoak dira: *Mario Bross*, *Pokemon*, *Sims*, *Colegas en el bosque*, *Animal crossing* eta antzeko jokoak. Halako jokoak bideo-jokoetan aritzen diren haurren %65,1ek erabiltzen du.

Bigarrenik ageri dira filmetatik eta marrazki bizidunetatik datozen bideo-jokoak, neskato-mutikoen artean oso harrera zabala izaten dute eta (*Cars*, *Spiderman*, *Nemo*, *Happy feet*, *Shrek*, eta abar). Kasu horretan, haurren %40,6k hautatu zituen halakoak.

Hirugarren tokian kirolak antzeratzen dituzten bideo-jokoak daude (*FIFA*, *NBA*, *Golf*, *Surf*, *Pro evolution soccer*, eta abar); hain zuzen, haurren %29k erabiltzen ditu. Zerikusia handia dute halakoekin auto- eta motor-lasterketen jokoak (*Moto GP*, *F1*, *Need for speed*). Umeen %15,5 aritzen da azken joko-mota horretan.

Berrikitan boladan jarri diren joko batzuk dira maskotak (txakurrak, katuak, zaldiak) zaintzearen simulagailuak, eta neska-mutilen %15,2k horiek erabiltzen ditu, baina eguneroko jardueren simulagailuak ere bai (sukaldaritza, moda, baita panpinak eta haur txikiak zaintzea ere), umeen %8,2k aukeratuta.

Inkestatuen %15,3k argi eta garbi indarkeriazkoak, gerrakoak eta borroka edo ekintza gogorrekoak ziren jokoak aukeratu zituen. Aipatzen ditugunak dira, hain zuzen, *Pressing catch* nonahikoa (borroka librea antzeratzen du), *Sanandreas*, *Tom Ryder*, *Tekken*…; haietako batzuk, egiazki, ez dira egokiak adingabeentzat.

Azkenik, joko hezigarriak umeen %14,1ek baino ez zituen hautatu.

Jokoak adingabeen adinerako egokiak izateari dagokionez, esan behar da ezen, zenbaitetan –haien adinerako egokituta egon arren eta PEGI-k, hain zuzen, horrelaxe adierazten duen arren–, joko batzuk PEGI-ren sailkapenean hizkera zakarra edo indarkeriazko eszenak edukitzeagatik markatuta daudela eta horiek ez bide direla oso gomendagarriak populazio horrentzat.

**38. Taula. Gehien erabiltzen dituzten joko-motak**

| | Aipaturiko jokoen kopurua | Aipatu diren joko baliozkoen arteko % | Erantzun duten haurren arteko % |
|---|---|---|---|
| Maskotak zaintzea (txakurrak, katuak, zaldiak) | 54 | %6,8 | %15,2 |
| Abenturak, plataformak, estrategia, indarkeriarik gabeko ekintza | 231 | %29,0 | %65,1 |
| Gerrakoak, indarkeriazkoak, borrokakoak, ekintza gogorrekoak | 122 | %15,3 | %34,4 |
| Bizitzaren, sukaldaritzaren, haurrak zaintzearen simulagailuak | 8 | %1 | %2,3 |
| Filmei buruzkoak (Cars, Madagascar, Simpsons, Shin Chan) | 144 | %18,1 | %40,6 |
| Auto-, motor-lasterketak | 55 | %6,9 | %15,5 |
| Panpinenak (Bratz, Barbie), sukaldaritzakoak, arropa, soineko eta modakoak, eta abar | 29 | %3,6 | %8,2 |
| Hezigarriak, ikastekoak | 50 | %6,3 | %14,1 |
| Kirolak | 103 | %12,9 | %29 |
| **GUZTIRA** | **796** | **796** | **%355** |

Haurrek erabiltzen dituzten joko gehien-gehienak (%87,4) haien adinerako egokituriko bideo-jokoak dira. Egokiak ez diren jokoak %12,6k erabiltzen ditu, eta ia guztiak indarkeriazko, borrokako edo gerrako jokoak dira.

**39. Taula. Bideo-jokoak haurrentzat egokiak izatea (%)**

| | Kopurua | Ehunekoa |
|---|---|---|
| Egokituak | 696 | 87,4 |
| Ez egokituak | 100 | 12,6 |
| **Guztira** | **796** | **100** |

Alderdi esanguratsuenetakoa da bideo-jokoen erabileran generoaren arabera dauden aldeak. Lehen ere aipatu dugu. Duela gutxi arte, bideo-jokoak mutilentzako jolas-tresna bat izan dira. Estetikaren erabilera eta jokoen estiloa ongi egokitzen zitzaizkien oraindik gizonezkoek dituzten hobespenei, eta oso gaizki emakumezkoenei. Beharbada, jokoena da generoen arteko bereizketa gehien hautematen den guneetako bat. Joko batzuk edo beste batzuk aukeratzean, generoaren arabera erabakitzen da, eta halaxe gertatzen da, pedagogia lanean ari bada ere jokoan generoaren araberako profil bereizlerik ez markatzeko beharraren inguruan.

Abenturetako, plataformako eta estrategiako jokoetan bai mutilak bai neskak jolastu ohi dira, baina neskak gehiago direla betiere. Joko-mota horietan, batzuk neskek nahiago dituzte, eta beste batzuk, mutilek, baina egia da biek parteka ditzaketela (neskatoen %69k eta mutikoen %62k hautatzen dituzte). Filmen ildotik eginiko jokoei dagokienez, halakoetan ere neskak zein mutilak aritzen dira, mutilek gustukoago dituztela (%43,5), neskek baino (%36,8). Argitu behar da atal honetako joko gehienak *Cars* filmaren ingurukoak zirela.

Badaude joko batzuk argi eta garbi gizonezko edo mutilentzat direnak. Esaterako, indarkeriazko jokoak –borrokakoak edo gerrakoak–, zein mutikoen %54k hautatu baitzituen, nesken %9aren aldean; kirol-jokoak, mutilen %43,5ek aukeratuak, eta, aldiz, nesken %10,3k bakarrik; eta auto- eta motor-lasterketetako jokoak, mutilen %22,5en aukera, eta, bestalde, nesken %6,5arena bakarrik.

Baina badaude joko batzuk, orobat, argi eta garbi emakumezko edo neskentzat bakarrik direnak. Halako jokoak izaten dira maskotak zaindu eta babestekoak (*Nintendogs*, *Catz*) edo haur txikiak zaintzekoak (*Jugando a ser mamá*); hain zuzen, nesken %25,8k aukeratu zituen, mutilen %7aren aldean; badira, halaber, protagonista panpina famatuak dituzten jokoak (Bratz, Barbie); edo tradizioz emakumeei egotzitako eginkizun bat dituztenak beren dinamikan (moda, sukaldaritza, pertsonaia neska bat dela), halakoak nesken %18,7k aukeratu zituela, eta mutil batek ere ez. Joko hezigarriak deitu diegunak –matematikako, hizkuntzako, ingeleseko, eta abarretako ariketak egiteko ondutakoak– nesken %21,5ek hautatu zituen, mutilen %8,5aren aldean.

**40. Taula. Gehien erabiltzen dituzten joko-motak, sexuaren arabera (%)**

| JOKO-MOTAK | Neska | Mutila | Guztira |
|---|---|---|---|
| Maskotak zaintzea (txakurrak, katuak, zaldiak) | 25,8 | 7,0 | **54** |
| Abenturak, plataformak, estrategia, indarkeriarik gabeko ekintza | 69,0 | 62,0 | **231** |
| Gerrakoak, indarkeriazkoak, borrokakoak, ekintza gogorrekoak | 9,0 | 54,0 | **122** |
| Bizitzaren, sukaldaritzaren, haurrak zaintzearen simulagailuak | 4,5 | 0,5 | **8** |
| Filmei buruzkoak *(Cars, Madagascar, Simpsons, Shin Chan)* | 36,8 | 43,5 | **144** |
| Auto-, motor-lasterketak | 6,5 | 22,5 | **55** |
| Panpinenak (Bratz, Barbie), sukaldaritzakoak, arropa, soineko eta modakoak, eta abar. | 18,7 | 0,0 | **29** |
| Hezigarriak, ikastekoak | 21,3 | 8,5 | **50** |
| Kirolak | 10,3 | 43,5 | 103 |
| GUZTIRA | 155 | 200 | 355 |

Jokoa adingabearen adinari egokiturik egoteari dagokionez, egokituago daude nesketan mutiletan baino. Horren funtsezko arrazoia da ezen 7 urtetik 10 urtera bitarteko umeentzat egokiak ez diren borrokako eta gerrako jokoak mutilen artean daudela zabalduago.

**41. Taula. Jokoak adingabearen adinerako egokiak izatea, sexuaren arabera (%)**

| | Neska | Mutila | |
|---|---|---|---|
| Egokituak | %96,5 | %81,6 | 696 |
| Ez egokituak | %3,5 | %18,4 | 100 |
| GUZTIRA | 313 | 483 | 796 |

• *Telebistaren erabilera*

Duela urte batzuetatik hona, etxeetako erdiguneko elementu bat da telebista. Gaur egungo haur eta nerabeen gurasoak dagoeneko jaio ziren telebistak egongela, jangela eta sukaldeetan zuen betiereko presentziarekin. Elementu horrek garrantzia ere galdu du gazte- eta nerabe-sektore batzuetan, azken horiek ordenagailua erabiltzea hobetsi dutelako, telebistak ematen ez dituen komunikazio etengabea eta eragin-trukea eskaintzen die eta.

Telebista (eta zinema) bideo-jokoekin erkatzen ari dela, García Jiménez-ek (1996) ondorengoa azaltzen du: *"telebistari edo zinemari begira egotearen aldean (nahiz eta estimulu intelektuala eragin eta irudimena piztu, ikusten ari denari ekimenerako aukera gutxi ematen diote), bideo-jokoek beren garapenean era aktiboan parte har dadila eskatzen dute"*.

Jolasten aritzen den pertsonak bera jokoaren prozesuan sartzen duten erabakiak hartu behar ditu, eta jokoan bertan dagoela sentitzen du, programak rol bat betetzea eskaintzen baitio argumentuan, fantasiari loturiko testuinguru simulatu batean (espazioan edo aspaldiko denboretan garatzen diren eszenak). Rol batean sartzeko sentipenak identifikazio bizi bat sortzen du jokatzailearengan, eta bere egiten ditu kontakizunaren nondik norakoak.

Horrexek bihurtzen ditu bideo-jokoak funtsean desberdin, egungo gainerako ikus-entzunezko fenomenoen aldean. Baina ezin ahatz dezakegu bideo-jokoen egitura eta testuingurua ere argi mutatuta eta zehaztuta daudela aldez aurretik. Narratzailea ezkutaturik geratzen da erabiltzaileak itxuraz kontakizunaren eta jolasaren harian duen esku-hartzearen atzean.

Telebistak gaur egun duen presentzia handia dela medio, zaila da pentsatzea ez duela izango eragin nabarmen bat haurren gizartekoitze-prozesuetan. Haurren %84k telebista ikusten ematen dute beren astialdiaren zati bat. Gehienek egunero ikusten dute (%64,9), edo astean batzuetan (%20,7). Oso gutxik esan zuten ez dutela inoiz telebista ikusten (%1,6).

Txikienek dute telebista egunero ikusteko ohiturarik handiena. Hezkuntza-mailatan eta, beraz, adinean ere gora egin ahala, telebista egunero ikusteko maiztasuna txikitu egiten da. Nolanahi ere, desberdintasun horrengatik ere, nagusien eta txikien profilak antzekoak dira. Oso gutxi dira, %1 inguru, telebista behin ere ez edo ia ikusten ez dutenak, eta %10ek asteburuetan baino ez du ikusten; gainerakoek telebista ikusteko ohitura handiagoa dute.

**15. Grafikoa. Telebistaren erabileraren maiztasuna (%)**




**42. Taula. Telebistaren erabileraren maiztasuna hiru zikloetan (%)**

| | Lehen Hezkuntzako 2. zikloa | Lehen Hezkuntzako 3. zikloa | DBH |
|---|---|---|---|
| Egunero | 64,9 | 61,3 | 47,1 |
| Astean batzuetan | 20,7 | 24,5 | 40,8 |
| Asteburuetan bakarrik | 9,6 | 12,3 | 10 |
| Behin ere ez edo ia | 1,6 | 1 | 1,1 |
| EE | 3,2 | 0,8 | 1 |

Bai mutilek bai neskek oso antzera erabiltzen dute telebista; mutilen maiztasuna, baina, handiagoa da telebista egunero ikusteari dagokionez. Baina telebistaren erabilera hain da berealdikoa, non banaketan alde gutxi gertatzen baita, generoaren nahiz adinaren arabera.

**43. Taula. Telebistaren erabileraren maiztasuna, sexuaren eta adinaren arabera (%)**

| | GUZTIAK | Neska | Mutila | 7-8 urte | 9-10 urte |
|---|---|---|---|---|---|
| Egunero | 64,9 | 61,1 | 68,4 | 64,8 | 65,1 |
| Astean batzuetan | 20,7 | 22,8 | 18,9 | 21,7 | 19,5 |
| Asteburuetan bakarrik | 9,6 | 10,8 | 8,5 | 9,5 | 9,7 |
| Behin ere ez edo ia | 1,6 | 1,6 | 1,6 | 1,6 | 1,6 |
| EE | 3,2 | 3,8 | 2,7 | 2,4 | 4,1 |

Neska-mutilen hiru laurdenek ikusten dute telebista gauez. Inkestaren diseinua dela eta, 7 urtetik 10 urtera bitarteko adinetarako egokitua izaki, ezin zehatz zitekeen gehiago zeri esaten diogun *gaua*. Pentsatzen dugunez, ohikoena izango da afaltzen denetik oheratu bitartean.

Badaude telebista ikusten ematen den denboraren bi une nagusi, eskolara joan aurretik (%56,3) eta eskolatik irten ondoren (%54,6); eguerdian telebista ikusten duten umeen proportzioa, berriz, %34,7 baino ez da (espero izatekoa da hori, haur askok ikastetxean bazkaltzen dutelako).

**16. Grafikoa. 7 urtetik 10 urtera bitarteko haurrek telebista zein ordutan ikusten duten (% – erantzun askoko galdera)**




**44. Taula. 7 urtetik 10 urtera bitarteko haurrek telebista zein ordutan ikusten duten, sexuaren eta adinaren arabera (% – erantzun askoko galdera)**

| | GUZTIAK | Neska | Mutila | 7-8 urte | 9-10 urte |
|---|---|---|---|---|---|
| Eskolara joan aurretik | 56,3 | 44,2 | 67,3 | 55,6 | 57,2 |
| Eguerdian | 34,7 | 35,9 | 33,6 | 38,1 | 30,5 |
| Eskolatik irten ondoren | 54,6 | 49,0 | 59,8 | 56,5 | 52,3 |
| Gauean | 77,7 | 78,9 | 76,6 | 73,2 | 83,2 |

Umeek telebistan gehien ikusten dituzten programei dagokienez, nabarmen askotarikoak dira. Haurrentzat bereziki eginiko programak ez ezik, beste asko ere ikusten dituzte, eta batzuk haurrentzat egokiak dira, eta beste batzuk ez. Goiko tokian, espero izatekoa zenez, marrazki bizidunak daude, haurren %27,5k ikusten ditu eta. *Shin Chan* eta *Dragoi bola* dira gehien aipatzen dituzten marrazki bizidunak. Bi produktuak umeentzat dira, baina heziketaren aldetik duten balioa zalantzazkoa da.

Hurren, berez haurrentzat ez diren telesailak ageri dira, helduentzako telesailak (%13,7), eta haien artean *Los Simpsons* delakoa nabarmentzen da (%11k aipatu zuen); azken telesail horren marrazki bizidun erako formatuak haurrak erakartzen ditu, baina haren edukia eta ulermen-maila helduentzat egokituta dago, ez haurrentzat. Egoera berean dago *Padre de familia* telesaila, baina, dena dela, oso ume gutxik aipatu zuten.

Neska-mutilen %13,5ek telebistan kirolak eta ikuskizunak ikusten zituztela esan zuten, baina futbolaren edo tenisaren aipamen zehatzen bat kenduta, programetan nagusia *Pressing catch* deritzon borroka libreko saioa da.

Umorezko saioak aipatu zituen %11k. Gehien aipatzen dena *Escenas de matrimonio* delakoa da; telesaio hori ez da batere hezigarria 7-10 urteko umeentzat. Bigarrenik, baina ia lekukotasun huts gisa, *Wazemank*, *El hormiguero* eta *Camera café* aipatu zituzten

Haurrentzako saio batzuk aipatu zituen %6k, hala nola *Betizu*, *Ordu txikitan* eta, ia lekukotasun huts gisa, *Clan TV*. Horrez gain, %5ek adierazi zuen haurrentzako telesailak ikusten zituztela, batez ere *Hotel dulce hotel*, *H2O*, *Hanna Montanna*, *High school musical* eta *Zoey 101;* horiek guztiak umeentzat eginak dira, baina haien edukia, balioen transmisioari dagokionez, eztabaidagarria da oso.

**45. Taula. 7 urtetik 10 urtera bitarteko haurrek gehien ikusten dituzten programa-motak (%)**

| TELEBISTA-PROGRAMAK | GUZTIRA | % |
|---|---|---|
| Telenobelak | 13 | 2,7 |
| Filmak | 3 | 0,6 |
| Haurrentzako telesailak | 24 | 5,0 |
| Helduentzako telesailak | 66 | 13,7 |
| Umorezko saioak | 53 | 11,0 |
| Lehiaketak | 22 | 4,6 |
| Kirolak eta ikuskizunak | 65 | 13,5 |
| Marrazki bizidunak | 133 | 27,5 |
| Kanal tematikoak (TB digitala) | 12 | 2,5 |
| Haurrentzako saioak | 29 | 6,0 |
| Dokumentalak | 12 | 2,5 |
| Reality showak | 1 | 0,2 |
| **Guztira** | **433** | **89,6** |
| Ez dira identifikatu edo erantzunik ez | 50 | 10,4 |
| **GUZTIRA** | **483** | **100** |

Egokitzat har daitezke, oro har, 7 urtetik 10 urtera bitarteko umeek ikusten dituzten telesaioak, nahiz batzuen edukiak zalantzazkoak izan, gai batzuei buruz aritzeko eragatik (gehiegizko axalkeria, hizkera zakarra, neskato-mutikoek guztiz ulertzen ez dituzten gizarteegoeren karikaturak egitea, umore desegokia, eta abar). Haurrek ikusten dituzten beste programa batzuk ez daude egiaz oso egokiturik ume-unibertsorako (%35,4). Beste alderdi korapilatsuagoa da jakitea ea telebista helduen kontrolpean eta helduekin batera ikusten duten, pantailan agertzen diren egoera batzuk esplikatzeko moduan, ala telebista umeak lasai edukitzeko tresna baliagarria den, haiek zaintzen dituzten nagusiek beste gauza batzuk egiten dituzten bitartean.

Haurrek haien adinerako egokiturik ez dauden programak ikustearen arrazoia da *Pressing catch* eta antzekoak hautatzen dituztela; izan ere, halakoen indarkeriazko edukia ezin da haurrentzako hezigarritzat eduki.

**46. Taula. Haurrek gehien ikusten dituzten telesaioen sailkapena, 7 urtetik 10 urtera bitarteko ikusleentzako egokitasunaren arabera (%)**

| | Maiztasuna: | Ehunekoa | Neska | Mutila |
|---|---|---|---|---|
| Egokiak | 262 | 54,2 | 63,2 | 58,1 |
| Ez egokiak | 171 | 35,4 | 36,8 | 41,9 |
| **Guztira** | **433** | **89,6** | **204** | **229** |
| Identifikatu gabe edo erantzunik ez | 50 | 10,4 | – | – |
| **GUZTIRA** | **483** | **100,0** | – | – |

Sexuaren araberako aldea azterturik, ikusten da mutilek kirolak, ikuskizunak eta marrazki bizidunak hautatzen dituztela, eta neskatoek telesailak nahiago dituztela –haurrentzakoak zein helduentzakoak izan–, bai eta haurrentzako saioak ere.

**47. Taula. Haurrek gehien ikusten dituzten programen sailkapena, mailaren eta sexuaren arabera (%)**

| | Lehen Hezkuntzako 3. maila | Lehen Hezkuntzako 4. maila | Neska | Mutila | GUZTIAK |
|---|---|---|---|---|---|
| Telenobelak | 2,6 | 3,5 | 6,4 | - | **3,0** |
| Filmak | 0,4 | 1,0 | 0,5 | 0,9 | **0,7** |
| Haurrentzako telesailak | 5,6 | 5,4 | 7,8 | 3,5 | **5,5** |
| Helduentzako telesailak | 13,9 | 16,8 | 18,6 | 12,2 | **15,2** |
| Umorezko saioak | 8,7 | 16,3 | 13,7 | 10,9 | **12,2** |
| Lehiaketak | 6,1 | 4,0 | 4,9 | 5,2 | **5,1** |
| Kirolak eta ikuskizunak | 17,3 | 12,4 | 3,9 | 24,9 | **15,0** |
| Marrazki bizidunak | 31,6 | 29,7 | 26,5 | 34,5 | **30,7** |
| Kanal tematikoak (TB digitala) | 2,6 | 3,0 | 3,4 | 2,2 | **2,8** |
| Haurrentzako saioak | 8,7 | 4,5 | 10,8 | 3,1 | **6,7** |
| Dokumentalak | 2,2 | 3,5 | 3,4 | 2,2 | **2,8** |
| *Reality showak* | 0,4 | - | - | 0,4 | **0,2** |
| | 231 | 202 | 204 | 229 | **433** |

## 1.2. Jarrerak eta balioak, desberdintasunarekiko tolerantzia

Adin horietako neska-mutilak ulertzen hasiak dira dagoeneko gizartean hainbat rol daudela. Oraindik ez dute arrazionalizatu rol batzuk edo beste batzuk arrazoi batzuen edo beste batzuen arabera esleitzen diren, bidezkoak diren ala ez, bestela izan behar ote duten. Besterik gabe, era kultural batean ikusten dutena errepikatzen dute, alegia, familian, gizarte-ingurune hurbilenean, egiten dituzten jolasetan eta komunikabideetan ikusten dutena. Halako adinetan imitazio-eredua da nagusi ikaskuntzan, eta oraindik piztu gabe egoten da kontzientzia eta pentsamendu autonomoa era horretako abstrakzioetan.

Edozelan ere, ez da erraza hain ume gazteei galdetzea horren inguruan duten berezko iritzia, jarduera hori eginez gero, haiek ez baileudeke horretarako prestaturik. Horregatik, Queer Ekintza elkartearen galdera-sorta nahiz beste batzuk eredutzat hartuta, bi galdera egin genituen, ikus-ikonoak –berriro ere– baliaturik. Hala, bada, bi ikono hautatu ziren: bata Minnie irudikatzen zuen (emakumetasun merke eta pinpirin-ustearen karikatura), eta bestea Mickey zen (bestearen laguna). Biak erabili ziren haien adinean egin daitezkeen jarduera batzuetarako. Honela egin zen galdera:

> *"Mickeyri eta Miniri ondo pasatzea gustatzen zaie eta gauza asko egiten dute. Baina Mickeyk gauzak batzuk egiten ditu eta Minik beste batzuk. Zein uste duzu egiten duela bakoitzak? Adibide bat jarriko dizugu: "bizikletan ibiltzea" Miniri gustatzen zaio. Lotu geziekin zure ustez zer gustatzen zaion bakoitzari."*

Atera ziren emaitzen arabera, dagoen tradizioak determinatzen du rolak haur-jolasen bidez esleitzea. Gizonezkoen rola futbolean jokatzeari lotzen zaio (%80,9), eta, ordea, %1,2k baino ez zion lotu emakumezkoen rolari; dena dela, %15ek bi rolei lotu zien aldi berean. Kotxeekin jolastea ere gizonezkoen rolari egotzi zioten, kasuen %76,1etan, eta, aldiz, emakumezkoen rolari %7,7tan eta biei %15,6tan. Emakumezkoen rola pelutxeekin zuela lotura adierazi zuten (%74,2), eta askoz neurri gutxiagoan –eta gizonezkoaren rolarekin oso parekatuta– margoekin pintatzeko jarduerarekin (%36,3). Irakurtzea eta patinatzea bi rolei lotzen zaizkien bi jarduera dira, baina zerbait gehiago emakumezkoenari.

Bestela esanda, asko bereizten dira gizonezkoen eta emakumezkoen rolak jolasen banaketan.

Horrek dakarren ondorioa da ezen etiketen hesiak gainditu beharko dituztela, muga zeharkatu, eta haurren unibertsoan beste generoari izendatzen zaizkion jarduera batzuk egin nahi dituzten neska eta mutilek, *statu quo*ak ezartzen duen betiko ohituratik ateratzen dira eta, eta ziur aski gustu txarreko txantxaren bat edo txantxa gaiztoren bat jasan beharko dutela.

**48. Taula. Haurren rolen esleipena (%)**

| | Margoekin pintatzea | Pelutxeekin jolastea | Futbolean jolastea | Irakurtzea | Patinatzea | Kotxeekin jolastea |
|---|---|---|---|---|---|---|
|  | 33,2 | 8,5 | 80,9 | 25 | 29,7 | 76,1 |
|  | 36,3 | 74,2 | 1,2 | 35,2 | 35,4 | 7,7 |
|  | 29,9 | 15,5 | 14,9 | 39,1 | 34,6 | 15,6 |
| EE | 0,7 | 1,8 | 3 | 0,6 | 0,3 | 0,6 |

Rolen esleipena adinaren eta sexuaren arabera ageri da 49. Taulan. Deigarria da, oso, zer adostasun-maila handia dagoen mutilen eta nesken artean sexu bakoitzari jarduera batzuk edo beste batzuk esleitzean. Ez dago desadostasunik erabilitako roletan, eta bat-etortzearen maila oso handia da. Bi salbuespen daude bakarrik: patinatzeari dagokionez, mutilek neurri handiagoan esleitzen diote beren buruari neskek mutilei baino eta neskek, halaber, beren buruari gehiago esleitzen diote patinatzea mutil ikaskideek neska haiei baino; kotxeekin jolasteari dagokionez, bestalde, neskek gehiagotan esleitzen diote mutilei eta mutilek, bestalde, neurri handixeagoan pentsatzen dute bien baterako jarduera dela. Nolanahi ere, bi aukera horietan izan ezik, bi sexuen arteko adostasuna hain handia izanik, agerian geratzen da zenbateraino dituzten barneraturik eta berendurik rolak neska-mutilek.

**49. Taula. Haurren rolen esleipena, sexuaren eta adinaren arabera (%)**

| | | SEXUA | | ADINA | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Neska | Mutila | 7-8 | 9-10 |
| Margoekin pintatzea | Mickey | 33,0 | 33,3 | 31,1 | 35,8 |
| | Minnie | 36,3 | 36,3 | 37,5 | 34,7 |
| | Biak | 30,0 | 29,8 | 31,0 | 28,4 |
| | EE | 0,7 | 0,6 | 0,3 | 1,1 |
| Pelutxeekin jolastea | Mickey | 7,0 | 9,9 | 9,2 | 7,5 |
| | Minnie | 76,9 | 71,8 | 71,4 | 77,9 |
| | Biak | 14,9 | 16,1 | 17,1 | 13,4 |
| | EE | 1,3 | 2,2 | 2,2 | 1,2 |

| | | SEXUA | | ADINA | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Neska | Mutila | 7-8 | 9-10 |
| Futbolean jolastea | Mickey | 80,4 | 81,5 | 78,1 | 84,7 |
| | Minnie | 0,5 | 1,8 | 1,1 | 1,2 |
| | Biak | 15,1 | 14,7 | 17,6 | 11,3 |
| | EE | 4,0 | 2,1 | 3,2 | 2,8 |
| Irakurtzea | Mickey | 24,3 | 25,7 | 22,1 | 28,9 |
| | Minnie | 39,7 | 31,2 | 41,4 | 27,3 |
| | Biak | 35,7 | 42,2 | 36,1 | 43,1 |
| | EE | 0,4 | 0,8 | 0,5 | 0,8 |
| Patinatzea | Mickey | 24,5 | 34,3 | 33,2 | 25,1 |
| | Minnie | 42,5 | 28,9 | 35,2 | 35,7 |
| | Biak | 32,6 | 36,4 | 31,6 | 38,5 |
| | EE | 0,4 | 0,3 | 0,0 | 0,8 |
| Kotxeekin jolastea | Mickey | 81,2 | 71,4 | 74,2 | 78,5 |
| | Minnie | 4,6 | 10,6 | 8,5 | 6,7 |
| | Biak | 13,3 | 17,7 | 16,9 | 14,0 |
| | EE | 0,9 | 0,3 | 0,4 | 0,8 |
| N | | 229 | 253 | 272 | 210 |

Hurren, haiek oraindik betetzen ez dituzten baina hurbileko ingurunean ikusten dituzten rolei buruz ere galdetu genien. Horretarako, honela egin genuen galdera:

> *"Mutil bat eta neska bat etxean daude etxeko lanak egiten. Zein gauza uste duzu egiten dituela mutilak eta zein gauza neskak?*
> *Guk badakigu oheak egitea mutilari tokatu zaiola. Lotu geziekin zure ustez nork egiten dituen gainerako lanak."*

Gizonezkoei eta emakumezkoei egozten zaizkien rolen arabera emaniko erantzunak aztertzean, egoera are bereiziago dago. Hala, bada, 7 urtetik 10 urtera bitarteko haurren aburuz, gizonezkoen rolak dira telebista konpontzea (%91,5), bonbilla bat aldatzea (%84) eta koadro bat esekitzea (%65,5); eta emakumezkoen rolak dira, aldiz, arropa lisatzea (%85,2), zorua garbitzea (%66,9), janaria prestatzea (%62,5), erosketak egitea (%53) eta harrikoa egitea (%62,9).

Aipatutako rol horietako bat ere ez zaie esleitzen gizonezkoei zein emakumezkoei aldi berean. Erosketak egitea eta janaria prestatzea baino ez dira bien zereginak Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleen laurden baten ustez.

**50. Taula. Emakumezkoen eta gizonezkoen rolen esleipena (%)**

| | TB konpondu | Arropa lisatu | Zorua garbitu | Harrikoa egin | Erosketak egin | Bonbilla aldatu | Janaria prestatu | Koadroa eseki |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|  | 91,5 | 3,5 | 13,1 | 24 | 16,3 | 84 | 11,9 | 65,5 |
|  | 2,1 | 85,2 | 66,9 | 52,9 | 53 | 5 | 62,5 | 16,4 |
|  | 5,6 | 10,7 | 18,5 | 21 | 28,1 | 8,7 | 24,2 | 17,2 |
| EE | 0,9 | 0,5 | 1,5 | 2,2 | 2,6 | 2,3 | 1,4 | 0,8 |

Sexuak aintzat hartuta eginiko azterketan, oso antzekoa da generoaren araberako rol-esleipena. Bai mutilak bai neskak bat datoz gizonezkoek eta emakumezkoek betetzen dituzten zereginen inguruan. Hori dagokio, ia erabat ziur, haien etxean gertatzen denari. Horrela, zeregin batzuek, argi eta garbi, haien etxeetako gizonezko-irudiek betetzen dituzte, eta beste batzuek, batez ere, emakumezko-irudiek.

**51. Taula. Zereginak sexuen artean banatzeko modua, sexuaren eta adinaren arabera (%)**

| | | SEXUA | | ADINA | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Neska | Mutila | 7-8 | 9-10 |
| Telebista konpondu | Mutila | 90,6 | 92,2 | 88,9 | 94,7 |
| | Neska | 2,4 | 1,8 | 2,3 | 1,8 |
| | Biak | 6,7 | 4,7 | 7,8 | 2,7 |
| | EE | 0,4 | 1,3 | 0,9 | 0,8 |
| Arropa lisatu | Mutila | 5,9 | 1,4 | 3,9 | 3,1 |
| | Neska | 81,7 | 88,4 | 83,3 | 87,7 |
| | Biak | 12,1 | 9,5 | 12,8 | 8,1 |
| | EE | 0,4 | 0,7 | 0,0 | 1,2 |
| Zorua garbitu | Mutila | 13,7 | 12,6 | 13,4 | 12,8 |
| | Neska | 64,3 | 69,2 | 64,9 | 69,4 |
| | Biak | 19,8 | 17,3 | 19,9 | 16,7 |
| | EE | 2,1 | 0,8 | 1,7 | 1,1 |

| | | SEXUA | | ADINA | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Neska | Mutila | 7-8 | 9-10 |
| Harrikoa egin | Mutila | 24,1 | 23,9 | 24,3 | 23,6 |
| | Neska | 51,8 | 53,9 | 52,0 | 54,0 |
| | Biak | 22,5 | 19,6 | 21,8 | 19,8 |
| | EE | 1,7 | 2,7 | 1,9 | 2,6 |
| Erosketak egin | Mutila | 14,8 | 17,7 | 16,1 | 16,6 |
| | Neska | 58,1 | 48,3 | 54,0 | 51,7 |
| | Biak | 24,1 | 31,8 | 27,3 | 29,2 |
| | EE | 3,0 | 2,2 | 2,6 | 2,5 |
| Bonbilla bat aldatu | Mutila | 82,6 | 85,2 | 81,8 | 86,8 |
| | Neska | 6,0 | 4,0 | 6,0 | 3,6 |
| | Biak | 9,1 | 8,4 | 10,0 | 7,1 |
| | EE | 2,2 | 2,4 | 2,1 | 2,6 |
| Janaria prestatu | Mutila | 10,9 | 12,7 | 13,4 | 9,8 |
| | Neska | 65,3 | 60,0 | 61,4 | 64,0 |
| | Biak | 22,7 | 25,6 | 24,9 | 23,4 |
| | EE | 1,1 | 1,6 | 0,3 | 2,8 |
| Koadro bat eseki | Mutila | 62,8 | 68,1 | 65,0 | 66,3 |
| | Neska | 18,9 | 14,2 | 15,5 | 17,6 |
| | Biak | 18,0 | 16,5 | 19,0 | 14,9 |
| | EE | 0,4 | 1,2 | 0,5 | 1,2 |
| N | | 229 | 253 | 272 | 210 |

• *Desberdintasunarekiko tolerantzia*

Berriro ere, uste dugu neska-mutilek tolerantziaren eta desberdintasuna onartzearen inguruan izan dezaketen jarrerak zerikusi handia duela etxe barruan garatzen den gizartekoitze- eta ikaskuntza-prozesuarekin.

Aurkeztu ziren gai guztietan, homosexualitate, ezintasun zein immigrazioan, onarpen-tasak handiagoak izan dira arbuio-tasak baino. Dena dela, batzuetan onarpena handiagoa da beste batzuetan baino.

Arbuio gehien sortzen duen gaia homosexual-bikote bat jendaurrean laztan egitea da. Hain zuzen ere, %42,7k adierazi zuen ezin zuela ikusi homosexual-bikote bat musuka. Hala ere, ia ziur, ingurune hurbilenean entzuten edo esaten dena baino ez dute errepikatzen. Gaur egun ere, homosexualen bikoteak legez onartuta dauden arren, esan daiteke haien arteko harremanak onartzen direla, baina ez, ordea, harremanok jendaurrean adieraz ditzaten, eta haurrek, kasu honetan, entzundakoak edo ikusitako jarrerak islatzen dituzte.

Horrez gain, %30ek esan zuen hobe zela gelan haur etorkinik ez egotea. Arbuio-proportzio hori oso handia da, are gehiago EAEko ikasgeletako etorkin-tasa %6,57 dela. Nolanahi ere, egia da haur etorkinenganako onarpena nagusi dela arbuioaren aldean (%66,7k onartzen ditu).

Ezintasunen bat duten haurrei dagokienez, %80,8k uste du integratu egin behar direla halako ezintasunik ez duten haurrekin batera jolasean. Bereizketa nahi dituztenen ehunekoa %16,1 baino ez da.

**17. Grafikoa. Ondorengo itemen onarpena (%)**




Hiru itemei emaniko erantzunekin onarpen-indize bat osatu dugu. Hala, bada, %38,9k aurkeztu diren hiru kolektiboak onartzen ditu; talde horretakoak dira, horrenbestez, onarpen-mailarik handienean daudenak. Gero, %37,2k kolektibo bakar bat ez du onartzen, batzuetan homosexualena, beste batzuetan etorkinena eta besteetan ezintasunak dituztenena, baina gehienbat homosexualen kolektiboa. Bestalde, %19,9k kolektibo bakarra onartzen du, eta %3,3k aurkeztu diren aukera guztiak arbuiatu ditu. Azken hori arbuio-mailarik handiena da.

**18. Grafikoa. Aurkeztu diren kolektiboen onarpen-indizea (%)**



Mutilak baino, neskak toleranteagoak direla ageri da 52. Taulan. Neskek, gizartearen aldetik, onarpen-indize handiagoak dituzte berak ez bezalako kolektiboak onartzeari dagokionez.

Adinari begiraturik aztertuz gero, ikusten da hazi ahala toleranteago egiten direla, homosexualitatea onartzearen kasuan izan ezik, horretan ez baita aldaketa esanguratsurik gertatzen. Adinak gora eginda, halaber, zailtasuna areagotu egiten da kolektibo horienganako beren tolerantziaz erantzuteko. Neska-mutil kopuru handiago batek aukeratzen du gai horiei buruzko jarrerarik ez adieraztea.

**52. Taula. Desberdintasunarekiko tolerantzia, sexuaren eta adinaren arabera (%)**

| | | SEXUA | | ADINA | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Neska | Mutila | 7-8 | 9-10 |
| Ezintasunen bat (ikusteko, entzuteko, ulertzeko... arazoren bat) duten haurrek haien moduko haurrekin bakarrik jolastu behar dute | Bai | 11,7 | 20,0 | 18,3 | 13,2 |
| | Ez | 85,5 | 76,6 | 79,6 | 82,5 |
| | EE | 2,7 | 3,4 | 2,1 | 4,4 |
| Hobe da gelan haur etorkinik ez egotea | Bai | 27,7 | 32,0 | 32,0 | 27,3 |
| | Ez | 69,2 | 64,4 | 65,3 | 68,4 |
| | EE | 3,1 | 3,6 | 2,6 | 4,3 |
| Berdin zait homosexualak ezkontzen badira, baina ezin ditut bi mutil edo bi neska elkarri musuka ikusi | Bai | 38,7 | 46,4 | 42,2 | 43,4 |
| | Ez | 58,6 | 49,4 | 55,2 | 51,9 |
| | EE | 2,7 | 4,2 | 2,6 | 4,7 |
| Onarpen-indizea | | | | | |
| Hiru kolektiboak onartu | 42,1 | 34,5 | 33,2 | 44,1 | 184 |
| Bi kolektibo onartu aurkeztuetatik | 40,7 | 36,8 | 40,2 | 36,6 | 186 |
| Kolektibo bat onartu aurkeztuetatik | 14,2 | 24,7 | 22,1 | 16,7 | 95 |
| Kolektibo guztiak arbuiatu | 3,1 | 4,1 | 4,5 | 2,5 | 17 |
| N | 483 | 229 | 253 | 272 | 210 |

Egiten dituzten ekintza zehatzei dagokienez, elkartasunezko identitateak eraikitzeko jokabideek aditzera ematen dute ikasle horiek ingurumenari loturikoak errespetatzen zituztela gehien. Haien artean, hain zuzen, %84,6 gune naturaletan hondarrik ez uzten saiatzen da, eta, %70ek esan zuen paperontziak erabiltzen zituztela.

Hala ere, adiskide-taldearekin haur etorkin bati jolasten utzi behar zaienean ere geratzen da agerian etorkinen aldera lehen adierazi den onarpen-maila. Horrenbestez, %70ek esan zuen ez ziola inoiz eragotzi ume etorkin bati bere jolasetan parte hartzea, eta %26,4k adierazi zuen baietz, noizbait hori egin zuela, eta proportzio hori oso hurbil dago gelan etorkinekin batera egotearen inguruan lorturikoarekin.

**19. Grafikoa. Egiten dituzten elkartasunezko ekintzak (%)**




Gurutzatu egin ditugu etorkinei buruzko bi galdera horiek. Zer pentsatu ematen du 53. Taularen azterketak. Ikasleen erdiak baino apur bat gehiagok (%52,2) onarpen- eta tolerantzia-jarrera du etorkinen aurrean. Bestalde, %12,6k etorkinen aurkako arbuio-jarrera argia du, aurkeztutako bi itemetan baiezkoa emanda, eta %31,1aren kasuan, gutxi gorabehera, jarrera aldakorra dute edo ez da hain finkoa. Kasuen %17,2tan ez dute onartzen haur etorkinak haien gelan egotea, baina tolerantziazko ekintzak dituzte, berekin jolasten uzten diete eta. Ordea, %13,9tan alderantziz gertatzen da, hain zuzen, ez baitiete etorkinei beren laguntaldean sartzen, baina eragozpenik jarri gabe gelan haiekin batera egoteari.

**53. Taula. Etorkinen inguruko balio eta ekintzak (%)**

| | | Balioa: Hobe da gelan haur etorkinik ez egotea | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Bai | Ez | EE | GUZTIRA |
| Ekintza: Etorkin bati ez diot gurekin jolasten utzi jolastokian | Bai | 12,6 | 13,9 | 0,2 | **26,6** |
| | Ez | 17,2 | 52,2 | 0,5 | **69,8** |
| | EE | 0,2 | 0,6 | 2,7 | **3,5** |
| | GUZTIRA | **30,0** | **66,7** | **3,4** | **483** |

Esan behar dugu, horrenbestez, ikasleen erdiak baldintzarik gabe onartzen dituela etorkinak; %12k argi eta garbi arbuiatzen ditu; %17k ez du haiekin gelan egon nahi, baina bai jolasean; eta %14k ez du eragozpenik etorkinak gelan egon daitezen, baina ez ditu onartzen adiskide-taldean.

Sexuaren araberako azterketa eginik, agerian geratzen da neskek tasa handiagoak dituztela desberdintasunarekiko tolerantziaren arloan, eta bai gizabide-mailarik handiagoak dituztela ere inguruko gizartearekin bizikidetza ona izateko. Hala eta guztiz ere, etorkinenganako onarpena edo arbuioa oso antzekoak dira mutilen zein nesken artean.

Berriro ere, adinean gora egin ahala, emaitza hobeak ageri dira elkartasunezko ekintzetan. Hartara, gizartekoitze-trebetasunak ongi erabiltzea lotuta duten ekintzak gehitu egiten dira adinak gora egitean. Egia da, halaber, aukerak ere gehitzen direla; izan ere, urte gehiago izanda, haien laguntza, ez zikintzeko kontzientzia eta abar beharrezkoak egiten dituzten egoerak bizitzeko aukerak gehiago dira. Aipatu behar da, orobat, erantzunik ematen ez duten neska eta mutilen proportzioa areagotu egiten dela; beharbada ez dute nahi, beharbada ez dakite.

**54. Taula. Egiten dituzten ekintzak, sexuaren eta adinaren arabera (%)**

| | | SEXUA | | ADINA | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | Neska | Mutila | 7-8 | 9-10 |
| Laguntza behar zuen bati edo adineko pertsona bati eskailera igotzen lagundu diot | Bai | 73,0 | 67,2 | 66,1 | 74,9 |
| | Ez | 24,3 | 29,4 | 31,8 | 20,7 |
| | EE | 2,7 | 3,4 | 2,1 | 4,4 |
| Nahiz eta paperontziak egon inguruan, lurrera bota ditut paperak | Bai | 20,6 | 33,0 | 28,9 | 24,8 |
| | Ez | 76,0 | 63,9 | 68,4 | 71,2 |
| | EE | 3,4 | 3,1 | 2,7 | 4,0 |
| Banku batean lotan zegoen pertsona batez barre egin dut | Bai | 12,2 | 17,1 | 15,2 | 14,2 |
| | Ez | 84,0 | 78,9 | 81,0 | 81,8 |
| | EE | 3,8 | 4,0 | 3,8 | 4,0 |
| Etorkin bati ez diot gurekin jolasten utzi jolastokian | Bai | 26,4 | 26,4 | 28,4 | 23,7 |
| | Ez | 70,3 | 69,9 | 68,7 | 71,9 |
| | EE | 3,3 | 3,7 | 2,9 | 4,4 |
| Mendira edo hondartzara joaten naizenean, zaindu eta errespetatzen dut | Bai | 86,6 | 82,7 | 82,9 | 86,7 |
| | Ez | 9,2 | 13,8 | 13,8 | 8,7 |
| | EE | 4,2 | 3,6 | 3,3 | 4,6 |
| N | | 229 | 253 | 272 | 210 |

## 2. LEHEN HEZKUNTZAKO 3. ZIKLOKO IKASLEENTZAKO GALDERA-SORTA

Galdera-sorta hori 584 ikasleri egin zitzaien, guztira; ikasleok honela banatuta zeuden, haien ezaugarri demografiko nagusien arabera:

- *Sexua:* populazio inkestatuaren %45,9 neskak ziren, eta mutilak, aldiz, %54,1 ziren.
- *Sarea:* %48,5 sare publikokoak ziren, eta %51,5 sare pribatuan ari zen Lehen Hezkuntzako 3. zikloa ikasten.
- *Maila:* mailaren arabera, ikasle inkestatuak honela banaturik zeuden: %32 Lehen Hezkuntzako 5. maila eta %68 Lehen Hezkuntzako 6. maila egiten ari ziren.
- *Adina:* populazio inkestatuaren %3,6k 9 urte zituen; %37,8k 10 urte zituen; %52,4k 11 urte zituen; eta gainerako %6,2ak, 12 urte.
- *Jaioterria:* %89,6 EAEn jaioa zen (zehazki, %7,2 Araban, %52,7 Bizkaian eta %29,7 Gipuzkoan); bestalde, ikasle inkestatuen %2,7k Estatuko beste toki batean jaioak zirela adierazi zuten, eta %7,7k, atzerriko herrialde batean.
- *Lurralde historikoa:* Araba (%10,4) – Bizkaia (%55,5) – Gipuzkoa (%34,1).
- *Eredua:* A (%4,8) – B (%42,1) – D (%53,1).
- *Lehen Hezkuntzako 3. zikloa egiten ari diren udalerria:* Gasteiz (%3,6), Amurrio (%5,3), Guardia (%1,5), Bilbo (%17,1), Durango (%4,3), Barakaldo (%7,2), Getxo (%2,2), Mungia (%10,8), Galdakao (%2,7), Gernika-Lumo (%10,8), Donostia (%10,3), Arrasate (%4,5), Ordizia (%2,9), Irun (%0,3), Zarautz (%7), Lasarte-Oria (%6,2) eta Deba (%3,3).

### 2.1. Gizartekoitze-faktore eta -eragileak

Laburki aipatu behar da aldi honetan balioen transmisioan zuzen eta zeharka eragina duten gizartekoitze-eragile bakoitzaren betekizuna. Helburu hori harturik, banan-banan aztertuko ditugu ondorengo faktoreak.

#### *2.1.1. Familia*

Aldi honetan hasten da, ziur aski, familiaren garrantzia, batetik, eta beste gizartekoitze-eragile batzuen eragina –eskolarena edo berdinen taldearena, esaterako–, bestetik, oreka zailean egoten diren garai bat. Horri dagokionez, nahiz eta familia oraindik gizartekoitze-eragile nagusia den, nabaria da haren parte-hartzea murriztu egiten dela –beste arlo batzuen mesedetan– nortasunaren eraikitze-prozesu neketsuan, non, askotan, hausturak ekartzen dituen heltze-prozesu baten emaitza baita norberaren irizpide batzuez jabetzea.

Era askotako interpretazio eta teoriak egon dira familia-harremanen garrantziaz, betekizunaz eta estatusaz. Asko hitz egin da familiaren krisiaz, eta, are gehiago, gizarte-eragile gisa duen ezintasuna nabarmendu izan dute.

**55. Taula. Zer moduz konpontzen zara gurasoekin? Sexuaren arabera**

| SEXUA | Oso gaizki | Hala-hola | Ondo | Oso ondo | GUZTIRA | Batez bestekoa* |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Neskak | 2,0 | 1,1 | 14,6 | 82,4 | 100 | 5,72 |
| Mutilak | 2,0 | 4,2 | 18,9 | 74,9 | 100 | 5,59 |
| **GUZTIAK** | **2,0** | **2,8** | **16,9** | **78,3** | **100** | **5,65** |
| | **11** | **16** | **99** | **458** | **584** | |

*Ez dago alde esanguratsurik estatistiken aldetik. Puntuazioa, 1: Oso gaizki. 6: Oso ondo.

Behin 55. Taulako datuak aztertuta, ikusten da EAEko gazteek familia-harreman bikainak dituztela, edo horrela hautematen dute haiek, bederen. Nabaria da aitaren eta amaren rolek izaeraz eta esanahiz izan duten aldaketa balioetsi egin dutela seme-alabek. Populazio inkestatuaren %95ek aditzera eman zuen gurasoekin "oso ondo" edo "ondo" konpontzen zela. Sexuaren araberako aldeei begiraturik, ez da aurkitu estatistikaren aldetiko desberdintasun esanguratsurik.

**56. Taula. Zer moduz konpontzen zara gurasoekin? Adinaren arabera**

| SEXUA | Oso gaizki | Hala-hola | Ondo | Oso ondo | GUZTIRA | Batez bestekoa* |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 9 urte | 0,0 | 0,0 | 37,7 | 62,3 | 100 | 5,62 |
| 10 urte | 0,9 | 2,6 | 15,6 | 80,8 | 100 | 5,72 |
| 11 urte | 2,4 | 3,3 | 15,3 | 79,0 | 100 | 5,63 |
| 12 urte | 5,8 | 0,0 | 27,8 | 66,4 | 100 | 5,44 |
| **GUZTIAK** | **2,0** | **2,8** | **16,9** | **78,3** | **100** | **5,65** |
| | **11** | **16** | **99** | **458** | **584** | |

*Ez dago alde esanguratsurik estatistiken aldetik. Puntuazioa, 1: Oso gaizki. 6: Oso ondo.

*Adina* aldagaiaren eragina zein den ikertzerakoan, egoera oso homogeneoa dela ikusten da orobat. Hirugarren zikloko adin-taldeen artean, ez dago, besteen aldean, jokabide berezirik duenik. Talde guztietan gurasoekiko harremanak gogobetekoak dira oso, eta ez da ikusten alde esanguratsurik, estatistikari dagokionez. Sarearen arabera azterturik, gauza bera gertatzen da: ez da alde esanguratsurik aurkitu sare publikoaren eta sare pribatuaren artean. Bai batean bai bestean, itxura denez, gurasoekin dituzten harremanak guztiz ona dira.

- *Portaeraren indargarriak*

Familiak gizartekoitze-prozesuan duen eragina neurtzeko garaian, portaeraren indargarriena da alderdi garrantzitsuenetakoa. Kontzeptu horrekin adierazten dugu gurasoek portaera batzuetan eragina positiboa izateari ematen dioten garrantzia, ikasleek bereizkuntza-irizpide argi bat izan dezaten indartu beharreko eta saihestu beharreko portaerei buruz.

Ikuspuntu positiboa aintzat harturik, ikerketan ikasleei galdetu zaie *Ondo portatzen zarenean…*, eta balioztatzeko aukera batzuk eman zaizkie: a) *Gurasoek gauzak ondo egiten dituzula esaten dizute;* b) *Gurasoek zorionak ematen dizkizute eta poz-pozik jartzen dira*; c) *Gurasoek poztasuna adierazten dizute musu eta besarkadekin;* eta d) *Gurasoek nahi zenuen gauza bat erosten dizute sari moduan*. Argi dago alderdi horiek guztiak askotarikoak direla, baina guztiek duten ezaugarria da gurasoek seme-alaben portaerari ematen dioten indargarri positiboaren maila neurtzen dutela.

Lau aldagaiak batean bilduta, 57. Taula osatu da, eta taula honek, hain zuzen, dagoen egoera argi laburbiltzen du:

**57. Taula. Ondo portatzen zarenean… Sexuaren arabera**

| SEXUA | Indargarri positiboak | Indargarri positiborik ez | EE | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| Neskak | 90,1 | 7,3 | 2,7 | 100 |
| Mutilak | 80,2 | 15,7 | 4,1 | 100 |
| GUZTIAK | 84,7 | 11,8 | 3,4 | 100 |
| | 496 | 68 | 20 | 584 |
| Khi-karratua esanguratsua da –9,634– %95eko esanguratasun-mailan. | | | | |

Behin 57. Taulako datuak aztertuta, ikusten da badagoela lotura sexuaren aldagaiaren eta portaeraren indargarriak egotearen edo ez egotearen artean. Ildo horretan, atzematen da indargarriak nabarmen handiagoak direla nesken kasuan, mutilenean baino.

Baina, antza, generoak portaera bereizten badu ere indargarri positiboak hautematearen edo ez hautematearen aldetik, ez da gauza bera gertatzen sarearen ezaugarriei begiratuz gero. 58. Taulan ikus daiteke sare publikoan zein sare pribatuan egoera ia berbera dela.

**58. Taula. Ondo portatzen zarenean… Sarearen arabera**

| SAREA | Indargarri positiboak | Indargarri positiborik ez | EE | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| Publikoa | 84,8 | 11,9 | 3,2 | 100 |
| Pribatua | 84,6 | 11,8 | 3,6 | 100 |
| GUZTIAK | 84,7 | 11,8 | 3,4 | 100 |
| | 496 | 68 | 20 | 584 |
| * Khi-karratua ez da estatistikoki esanguratsua | | | | |

Era berean, adinaren edo lurralde historikoen araberako loturarik ere ez da aurkitu. Egoera, oro har, nahikoa homogeneoa da.

Osagarri, hau galdetu zaie: *Ondo portatzen zarenean... ez da ezer gertatzen, gurasoek zure eginbeharra dela diote.* Item horren zentzua besteena ez bezalakoa denez, bereiz aztertu da:

**59. Taula. Ondo portatzen zarenean… ez da ezer gertatzen, gurasoek zure eginbeharra dela diote. Sexuaren arabera**

| SEXUA | Inoiz ez | Gutxitan | Batzuetan | Beti | EE | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Neskak | 25,9 | 22,2 | 33,3 | 16,3 | 2,3 | 100 |
| Mutilak | 27,8 | 24,0 | 26,3 | 20,2 | 1,8 | 100 |
| GUZTIAK | 26,9 | 23,2 | 29,5 | 18,4 | 2,0 | 100 |
| | 161 | 134 | 169 | 107 | 13 | 584 |

Goiko 59. Taulan ikusten denez, gurasoen %50ek, gutxi gorabehera, ez du halako iruzkinik egiten, eta, egiten baditu, noizean behin. Ez dago sexuaren araberako alde esanguratsurik. Hala ere, baldin adinaren araberako aldeei begiratzen badiegu, 60. Taulan ikusiko dugu alde nabarmenak daudela portaera positiboak indartzean 9 urteko haurren eta nagusien artean. Datuei begiratuta, 9 urtekoen eta gainerakoen artean dagoen aldea ia 9 puntukoa da. Esan daiteke, datu horien arabera, neska-mutilak hazi ahala, gurasoek joera handiagoa izaten dutela ekintza positiboen berezko eginbeharraren eta arduraren zentzua indartzeko.

**60. Taula. Ondo portatzen zarenean… ez da ezer gertatzen, gurasoek zure eginbeharra dela diote. Adinaren arabera**

| ADINA | Inoiz ez | Gutxitan | Batzuetan | Beti | EE | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 9 urte | 42,4 | 4,9 | 38,7 | 13,9 | 0,0 | 100 |
| 10 urte | 31,5 | 20,9 | 28,7 | 16,6 | 3,5 | 100 |
| 11 urte | 23,0 | 26,0 | 30,1 | 19,8 | 1,1 | 100 |
| 12 urte | 24,6 | 22,3 | 31,2 | 19,1 | 2,9 | 100 |
| GUZTIAK | 26,9 | 23,2 | 29,5 | 18,4 | 2,0 | 100 |
| | 161 | 134 | 170 | 107 | 12 | 584 |

Portaera negatiboen ikuspegitik, hau da, gurasoek galarazi edo zigortu beharreko portaeren ikuspegitik, oso desberdin diren bi egoera aintzat hartu dira: nolabait agirika egiten den edo zigorra ezartzen den egoera, batetik, eta halakorik gertatzen ez den egoera, bestetik. Ikasleei *Gaizki portatzen zarenean, gurasoek...* galdera egin, eta lau itemen bitartez honako egoera hauek aurkeztu zitzaizkien: a) *Agirika egiten dizute eta haserretu egiten dira;* b) *Zigortu egiten zaituzte eta ez dizute uzten gustatzen zaizun zerbait egiten;* c) *Zigortu egingo zaituztela esaten dizute baina gero ez dute egiten*; eta, azkenik, d) *Belarrondoko bat ematen dizute*. Nabaria da itemak elkarren oso desberdinak direla, eta askotariko jokabideak barne

hartzen dituztela, baina, ikuspegi orokor bat izate aldera, gurasoen jokabiderik ohikoena jakin nahi izan dugu, nahi ez diren portaerak zuzentzearren zigorra tresnatzat erabiltzeari edo ez erabiltzeari dagokionez.

Horretarako, 61. taula osatu da, goian aipatu diren zigorren inguruan eman ziren erantzun-mota guztiak batera bildurik, jakitearren gurasoek zenbateraino diren permisiboak ala ez:

**61. Taula. Gaizki portatzen zarenean, gurasoek… Sexuaren arabera**

| SEXUA | ZIGOR-MOTAREN BATEN INGURUAN EMANDAKO ERANTZUNA | | |
|---|---|---|---|
| | BAI | EZ | GUZTIRA |
| Neskak | 15,7 | 84,3 | 100 |
| Mutilak | 19,8 | 80,2 | 100 |
| GUZTIAK | 17,9 | 82,1 | 100 |
| | 109 | 475 | 584 |
| * Khi-karratua ez da esanguratsua | | | |

Datuetatik ateratzen diren ondorioak erabatekoak dira, %17,9k baino ez du erabiltzen zigorra edo haren mehatxua zuzentzeko irizpide gisa. Ez dago alde esanguratsurik nesken eta mutilen artean, 61. Taulan bertan ageri denez. Dena dela, nahiz eta, generoei begiratuta, gurasoek bi modu berezitan hezten duten atzemateko moduko alde esanguratsurik aurkitzen ez dugun, adinarekin aldaketarik ote dagoen, behintzat, jakin nahi genuen.

**62. Taula. Gaizki portatzen zarenean, gurasoek… Adinaren arabera**

| ADINA | ZIGOR-MOTAREN BATEN INGURUAN EMANDAKO ERANTZUNA | | |
|---|---|---|---|
| | BAI | EZ | GUZTIRA |
| 9 urte | 23,3 | 76,7 | 100 |
| 10 urte | 20,0 | 80,0 | 100 |
| 11 urte | 16,3 | 83,7 | 100 |
| 12 urte | 16,3 | 83,7 | 100 |
| GUZTIAK | 17,9 | 82,1 | 100 |
| | 109 | 475 | 584 |
| * Khi-karratua ez da esanguratsua | | | |

Egoera ez da aldatzen adinaren arabera, 62. Taulan ikus daitekeenez. Ezin esan daiteke, seme-alabak hazi ahala, gurasoek zabaltzen dutenik portaera okerrak galarazteko zigor-neurrien aukera. Ez da alde esanguratsurik atzeman ez adinaren arabera, ez sarearen edo lurralde historikoaren arabera.

Ildo horretan, eta gai polemikoa denez, jakin nahi izan genuen *zein neurritaraino erabiltzen den oraindik zigor fisikoa,* portaera "zuzentzeko" bidetzat. Datu horiek 63. Taulan aurkezten dira.

**63. Taula. Gaizki portatzen zarenean, gurasoek belarrondoko bat ematen dizute. Sexuaren arabera**

| SEXUA | Inoiz ez | Gutxitan | Batzuetan | Beti | EE | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Neskak | 56,6 | 31,2 | 9,7 | 1,4 | 1,1 | **100** |
| Mutilak | 50,5 | 29,0 | 13,5 | 5,8 | 1,3 | **100** |
| GUZTIAK | **53,3** | **30,0** | **11,7** | **3,8** | **1,2** | **100** |
| | **310** | **175** | **69** | **23** | **7** | **584** |

*Khi-karratua = 10,793, estatistikoki esanguratsua %95ean.

Zaila bada ere igartzea "belarrondoko bat emate"aren izaera eta norainokoa zein diren eta, beraz, aukera badago ere oker ulertzeko horrek zer esan nahi duen eta ikaskuntza-metodo gisa zer betekizun duen, 63. Taulako datuetatik ondorio hauek atera daitezke:

Halako zigor-mota ez da, oro har, erabiltzen, edo salbuespenetan, bakarrik. Hau da, gurasoen "iruditerian", belarrondokoa erabiltzen da edo egoera oso larria denean edo gurasoei egoera menderatzeko era bakarra dela iruditzen zaienean, egoera horrek gainez egin du eta. Horrek argitzen du zergatik belarrondokoaz baliatzea, oro har, noizean behin baino ez den gertatzen. Hain zuzen, %30ek esan zuen gutxitan jo zutela gurasoek.

Nabarmendu behar dira, baina, sexuaren araberako aldeak. Horri dagokionez, harritzekoa da *"belarrondokoaren erabilera"* noizean behingo metodo gisa batez ere mutilen %5,8ri eragiten diola, nesken %1,4aren aldean. Alde hori esanguratsua da estatistikaren aldetik.

**64. Taula. Gaizki portatzen zarenean, gurasoek belarrondoko bat ematen dizute. Adinaren arabera**

| ADINA | Inoiz ez | Gutxitan | Batzuetan | Beti | EE | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 9 urte | 33,4 | 33,4 | 24,1 | 9,1 | 0,0 | **100** |
| 10 urte | 48,2 | 34,2 | 11,0 | 4,8 | 1,8 | **100** |
| 11 urte | 57,6 | 28,1 | 11,2 | 2,8 | 0,3 | **100** |
| 12 urte | 59,1 | 18,9 | 13,5 | 2,9 | 5,6 | **100** |
| GUZTIAK | **53,3** | **30,0** | **11,7** | **3,8** | **1,2** | **100** |
| | **310** | **175** | **69** | **23** | **7** | **584** |

*Khi-karratua = 128,41, estatistikoki esanguratsua %99ko konfiantza-mailan.

Baina datuak adinari begiraturik aztertuz gero, jokabide hori askoz adierazgarriagoa da. Baieztatu egin daiteke, 64. Taulako datuen argitan, *belarrondokoaren erabilera* pixkanaka baztertzen dela, seme-alabak hazi ahala. Argi ikus daiteke 9 urteko umeen artean belarrondokoa kasuen 9,1etan erabiltzen dela "normalean", eta ehuneko hori, ordea, txikiagoa dela 10 urtekoen artean (%4,8) nahiz 11 urtekoen artean (%2,8).

**65. Taula. Gaizki portatzen zarenean, gurasoek belarrondoko bat ematen dizute. Sarearen arabera**

| SAREA | Inoiz ez | Gutxitan | Batzuetan | Beti | EE | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Publikoa | 49,3 | 33,1 | 13,2 | 2,7 | 1,7 | **100** |
| Pribatua | 57,2 | 27,0 | 10,3 | 4,8 | 0,6 | **100** |
| GUZTIAK | **53,3** | **30,0** | **11,7** | **3,8** | **1,2** | **100** |
| | **310** | **175** | **69** | **23** | **7** | **584** |
| Khi-karratua = 62,492, esanguratsua %99ko konfiantza-mailan. | | | | | | |

Horren ordez, ikaskuntza-prozesuan oso garrantzitsua da jarraibide edo irizpide argiak ezartzea, nerabeei jakiten laguntzearren portaerak zergatik diren egokiak edo ez. Espezialista askoren aburuz, ikaskuntza-prozesuari dagokionez, heziketa-prozesuan kaltegarriena ez da orientatzeko eskema hertsi bat izatea, batere eskemarik ez izatea baizik, permisibitate usteko baten aitzakian. Praktikak, hain zuzen ere, frogatzen du nerabeek irizpide garbiak behar dituztela eguneroko zereginetan gidatzeko.

Ildo horretan, oso interesgarria da jakitea zenbateraino hautematen duten nerabeek gurasoek orientatze-eskema argiak ematen dizkietela, arrazionaltasunean eta elkarrizketan bermaturiko ikaskuntza-prozesu bat oinarri hartuta. Behin 66. Taulako datuak azterturik, ondorengoa esan daiteke:

**66. Taula. Gaizki portatzen zarenean, gurasoek lasai azaltzen dizute zergatik dagoen txarto egin duzuna. Sexuaren arabera**

| SEXUA | Inoiz ez | Gutxitan | Batzuetan | Beti | EE | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Neskak | 5,7 | 15,2 | 35,9 | 42,9 | 0,4 | **100** |
| Mutilak | 10,9 | 20,3 | 34,7 | 32,3 | 1,8 | **100** |
| GUZTIAK | **8,5** | **18,0** | **35,2** | **37,2** | **1,2** | **100** |
| | **51** | **106** | **203** | **217** | **7** | **584** |
| *Khi-karratua esanguratsua da –10,980– %99ko konfiantza-mailan. | | | | | | |

Elkarrizketa eta azalpena ikaskuntza-metodotzat baliatzen dituzten gurasoak %37,2 dira.

Berriro ere, alde esanguratsuak daude mutilen eta nesken artean. Antza denez, neskak irekiagoak dira azalpenen aurrean: %42,9tan, mutilen %32,3aren aldean. Noski, estatistikaren aldetik esanguratsua den alde horrek ez du argitzen horren arrazoia neskek aurretik halako joera izatea, haien komunikaziorako gaitasuna handiagoa izatea ala, aitzitik, beste arrazoi batzuk dauden. Argi geratzen da, ordea, ikaskuntza desberdina dela sexuaren arabera, eta neskekin elkarrizketazko eta komunikaziozko prozedurak gehiago erabiltzen direla mutilekin baino.

**67. Taula. Gaizki portatzen zarenean, gurasoek lasai azaltzen dizute zergatik dagoen txarto egin duzuna. Adinaren arabera**

| ADINA | Inoiz ez | Gutxitan | Batzuetan | Beti | EE | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 9 urte | 24,0 | 13,9 | 33,9 | 28,2 | 0,0 | **100** |
| 10 urte | 7,7 | 19,2 | 33,5 | 37,3 | 2,2 | **100** |
| 11 urte | 7,7 | 17,5 | 36,9 | 37,5 | 0,3 | **100** |
| 12 urte | 10,9 | 16,4 | 31,6 | 38,2 | 2,9 | **100** |
| GUZTIAK | **8,5** | **18,0** | **35,2** | **37,2** | **1,2** | **100** |
| | **51** | **106** | **203** | **217** | **7** | **584** |

*Khi-karratua = 76,43, esanguratsua %99ko konfiantza-mailan.

Baldin 67. Taulako datuei begiratzen badiegu, ikusiko dugu adina erabakigarria dela ikaskuntza-prozesuan, eta eragina duela gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazio-eran. Oso adierazgarria da 9 urte bete bitartean gurasoek neska-mutilei ez dietela ia azalpenik ematen gaitzesten dizkieten ekintzen izaeraz. Hala, bada, %24k aditzera eman zuen inoiz ez ziotela azaldu zergatik dagoen txarto egindakoa, eta ehuneko hori, berriz, nabarmen murrizten da, %7,7raino 10 urte betez geroztik; aldi berean, gainera, %37,3ra igotzen dira egindakoa zergatik dagoen txarto beti azaltzen dietela esaten dutenak. Dirudienez, tarte hori "etenpuntua" da gurasoak pentsatzen has daitezen ekintzei buruzko azalpen arrazoitua eman behar dela.

**68. Taula. Gaizki portatzen zarenean, gurasoek lasai azaltzen dizute zergatik dagoen txarto egin duzuna. Sarearen arabera**

| SAREA | Inoiz ez | Gutxitan | Batzuetan | Beti | EE | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Publikoa | 7,6 | 18,4 | 38,5 | 34,2 | 1,4 | **100** |
| Pribatua | 9,4 | 17,5 | 32,1 | 40,1 | 1,0 | **100** |
| GUZTIAK | **8,5** | **18,0** | **35,2** | **37,2** | **1,2** | **100** |
| | **51** | **106** | **203** | **217** | **7** | **584** |

*Khi-karratua = 36,87, esanguratsua %99ko konfiantza-mailan.

Sareen arabera, gurasoen eta seme-alaben artean elkarrizketa egoteko jarrera zabalduago dago sare pribatuan sare publikoan baino, baina aldeak ez dira aldez aurretik espero zitezkeen bezain handiak. Horri dagokionez, bada, sare pribatuko %40,1ek adierazi zuen gurasoek beti lasai azaltzen zietela beren portaera txarto egoteko arrazoiak, eta hori, ostera, sare publikoko ikasleen %34,2tan baino ez da gertatzen.

**69. Taula. Gaizki portatzen zarenean, gurasoek lasai azaltzen dizute zergatik dagoen txarto egin duzuna. Hizkuntza-ereduaren arabera**

| HIZKUNTZA- EREDUAK | Inoiz ez | Gutxitan | Batzuetan | Beti | EE | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| A eredua | 13,3 | 23,4 | 13,3 | 50,0 | 0,0 | **100** |
| B eredua | 31,3 | 19,3 | 26,2 | 18,7 | 4,5 | **100** |
| D eredua | 24,8 | 26,1 | 33,5 | 15,4 | 0,3 | **100** |
| GUZTIAK | **26,9** | **23,2** | **29,5** | **18,4** | **2,0** | **100** |
| | **51** | **106** | **203** | **217** | **7** | **584** |
| *Khi-karratua = 277,09, estatistikoki esanguratsua %99ko konfiantza-mailan. | | | | | | |

Alderdi honetan aldeak agerian uzten dituen aldagaia hizkuntza-ereduarena da, izan ere. Hala, bada, 69. Taulan ikus dezakegunez, oso alde handiak aurkitzen dira hizkuntza-ereduak erkatzean. Antza denez, "A eredua", gurasoek ematen duten heziketaren aldetik, oso jokabide desberdinekoa dela gainerakoen aldean. Hain zuzen ere, eredu horretakoen %50ek aditzera eman zuen gurasoek "beti" lasai azaltzen zietela zergatik zegoen txarto egindakoa, baina gainerako ereduetan, ordea, ehunekoak %15,4aren (D eredua) eta %18,7aren (B eredua) artekoak dira. Nabaria da balioen transmisioa ulertzeko bi era guztiz desberdin daudela.

• *Familiako egoerak eta generoa*

Eguneroko egoeren deskribapena esparru ezin hobea da gurasoek gizartekoitze-eragile gisa duten rola atzemateko, are gehiago oinarritzat, gurasoen pertzepzioa hartu beharrean, seme edo alabena hartzen denean.

Hala, bada, 20. Grafikoan ikus daitekeenez, gurasoek aurrera eraman ditzaketen eguneroko jardueren hainbat alderdi aintzat hartu dira. Jarduera-multzo konplexua da, eta barne hartu ziren komunikazioarekin, besterik gabe, zerikusia duten alderdiak, ematen den laguntza edo zerbitzuari loturiko alderdiak, baita harremanen eta aisialdiaren inguruko alderdiak ere.

Datuek ondorio argia ematen dute horren inguruan: gurasoek parte-hartze aktiboa dute seme-alaben gizartekoitze-prozesuan, zalantzarik gabe. Horrenbestez, 20. Grafikoko datuek honako hauek uzten dituzte agerian:

Lehenik eta behin, komunikazioaren eta harremanen inguruko jarduera batzuetan ikusten da gurasoek zeregin garrantzitsua dutela seme-alaben bizitzan. Halakoak dira –20. Grafikoan

ikusten denez– lerro eten gorriaren gainetik dauden jarduerak, neska-mutilen erantzunen arabera %75a gainditzen dutenak, hain zuzen.

Bigarrenik, beste jarduera-multzo bat osatzen dute gizartekoitzeari, aisiari eta seme-alabei ematen zaien laguntzari loturiko jarduera batzuek; halakoek ez dute aurreko multzokoen pisu bera, baina bide ematen dute igartzeko gurasoek zer rol duten nolabaiteko gizartekoitze-maila eraikitzen eta behar den egoeretan laguntzen. Hartara, gurasoek eskolako lanak egitean ematen duten laguntza edo oraindik jolaserako eta aisiarako baterako guneak izatea funtsezko alderdiak dira, gurasoek seme-alaben bizitzan duten presentziaren berri ematen baitute.

Azkenik, gogoan izan behar da, behin eta berriz agertzen denez, amaren garrantzia aitarena baino handiagoa izaten dela oraindik halako jardueretan. Bai eskolako bileretara joateari dagokionez, bai eskolako lanak eta beste batzuk egiten laguntzeari dagokionez, amaren presentzia indar handiagoz hautematen dute, aitarena baino.

**20. Grafikoa. Familiako egoerak, sexuaren arabera***




*Bakarrik 3 eta 4 erantzunen datuak biltzen dira, elkarren ondoan: “Batzuetan” eta “Beti”.

Baina aurreko horren osagarri, nabaria da jarduerak egitearen pertzepzioa desberdina dela generoaren arabera. Ikusten da generoaren arabera oso bestela hautematen direla gurasoei

egozten zaizkien jarduerak. Badago aipatu beharreko alde esanguratsurik generoaren aldetik? Honako hau ikus daiteke 21. Grafikoan:

Lehenik eta behin, atzematen da nesken alderako joera bat dagoela gurasoek betetzen duten rolari buruzko pertzepzioan. Aldeak nabarmenak dira. Barra urdinek adierazten dute neskek gurasoen rolak era nabarmenagoan hautematen dituztela, mutilek baino.

Alde horiek egoteak ez du kausalitatearen inguruko irizpiderik adierazten. Zaila da esatea nesken pertzepzioaren arrazoia dela gurasoek neskei kasu gehiago egiten dietela mutilei baino ala, aitzitik, neskek komunikazio emozionalerako gaitasun handiagoa dutela mutilek baino, eta, hortaz, halako harremanak era biziagoan hautematen dituztela. Dena dela, adierazgarria da ia eguneroko jarduera guztietan, mutilek baino, neskek gurasoen rola era biziagoan hautematea zaintzako, ikaskuntzako eta komunikazioko zereginetan.

Azkenik, zer pentsatu ematen du mutilek, hain zuzen, gurasoengandik bakartuta egotea indar handiagoz hautemateak. Berriz ere galdetu behar da ea hori horrela den gurasoek neskei kasu gehiago egiten dietelako, mutilei baino, ala komunikaziorako berezko zailtasunak beren burua bakartiago ikustarazten dielako. Halako galderak erantzuteak, noski, azterlan honen helburua gainditzen du, eta sakonago ikertu beharko da.

**21. Grafikoa. Hautematen diren aldeak, sexuaren arabera***




*Barra urdinek nesken alderako diferentziala adierazten dute; barra gorriek, aldiz, mutilen alderako diferentziala.

- *Familiako "ika-mikak"*

Belaunaldi arteko gatazkek osatzen dute familiako bizitzaren bereizgarri nagusietako bat, nahi eta nahi ez gertatu ohi baitira. Jakina, ez gara hertsiki ari aski larriak diren gatazkez, hots, nortasunaren egiturari eragiten dioten gatazkez, baizik eta familian bizitza dinamiko eta konplexua izatearen ondorioz sortu ohi diren "bizikidetzako ika-mika" horietaz. Familian gertatzen diren ika-mikak azterturik, aztarnaren bat lor dezakegu ikaskuntza-prozesuan eta, oro har, gizartekoitze-prozesuan gehien gertatzen diren zailtasunei buruz.

Gurasoekin gehienetan zergatik eztabaidatzen duten galdetuta, lortu diren emaitzak, sexuaren arabera, ondorengoak izan dira (ikus 22. Grafikoa):

**22. Grafikoa. Guraso eta seme-alaben arteko eztabaiden arrazoiak, sexuaren arabera**




Iturria: guk egina.

Lehenik, ageri da berdinen arteko liskarrei dagozkien arrazoiak, hots, "neba-arrebekin borrokatzea", direla eztabaida gehien sortzen dituztenak.

Bigarrenik, ikusten da, paradoxikoki, neskek askoz gehiago erantzuten dietela gurasoei, mutilek baino. Horrek pentsarazten du gatazkak ere dakartzala lehen, aurreko atalean, aipatu dugun komunikazio emozionalak, ezarririko ereduei egokitzeko zailtasunen ondorioz. Horren inguruan, nabarmendu behar da bi sexuen arteko aldea 10 puntukoa dela, gutxi gorabehera.

Bestalde, ikasketengatik pizten diren ika-mikak askoz gehiago dira mutilen artean, nesken artean baino. Horrek berretsi egiten du neskek, mutilen aldean, eskola-porrotari loturiko arazo gutxiago izaten dituztela.

Mutilek, ordea, gehiago nabarmentzen dira ordenagailua, bideo-jokoak eta gainerako teknologiak erabiltzeagatik sortzen diren eztabaidetan.

- *Familia-ereduak*

Begien bistakoa da familiak, haren zentzu tradizionalean, aldaketa sakonak izan dituela azken urteetan, eta horrek eragina izan du errealitate hori ulertzeko era tradizionalean. Aipatutako aldaketa horiek bai kuantitatiboak bai kualitatiboak izan dira. Alde kuantitatiboari dagokionez, familiaren egitura eta tamaina "argaldu" egin da. Hala, "familia zabal" tradizionaletik, zeinen bereizgarria baitzen batera bizpahiru belaunaldi bizitzea, oso urte gutxitan beste familia-eredu batzuetara igaro gara: "familia nuklearrera", "familia gurasobakerrera", eta abarretara. Egia da bizitzaren ezin saihestuzko pribatizatze-prozesua halako erakundeak argal daitezen eragiten ari dela, eta horrek, nahi eta nahi ez, bizikidetzari buruzko ikuskera berrietara darama.

Alderdi kuantitatiboan aldaketa sakon eta funtsezkoak gertatu dira, baina alderdi kualitatiboan, zer aldaketa ez dira gertatu? Horrekin esaten ari gara familia-rolen izaeran eta ikuskeran eraldaketa sakona gertatu dela (gertatzen ari dela). Gure artean oso erroturik dauden kontzeptu batzuk, hala nola *aita, ama,* berrikusi egin dira, bai ikuspegi funtzionaletik bai haien izaera eta esanahiaren aldetik. Horrexegatik, nerabeen kontzeptualizatze-maila oso handia ez den arren, jakin nahi izan genuen zenbateraino identifikatzen dituzten familia-mota zenbait halakotzat. Emaitzan 23. Grafikoan ageri dira.

**23. Grafikoa. Familia bat dira.? Sexuaren arabera**



Datuak azterturik, honako ondorio hauek ateratzen dira:

- Mutilen aldean, neskek gaitasun handiagoa dute konbentzionalak ez diren familia-egiturak onartzeko.
- Nabaria da gehienek, alde handiz, identifikatzen dutela familia egitura konbentzionalen kasuan: *Emakume bat eta gizon bat, ezkonduta, seme-alabekin edo seme-alabarik gabe,* %85. Baina, nolanahi ere, konbentzionalak ez diren ereduen onarpen-maila (*Bi lesbiana/gay seme-alabekin*, *Emakume bat eta gizon bat, elkarrekin bizi direnak ezkondu barik, seme-alabekin,* eta abar) handi samar da, %55etik gora.
- Familiatzat jotzean, identifikazio-maila apalagoko eredu bakarrak *seme-alabarik gabeko gay/lesbian*enak dira (%35 inguru).

• *Familia eta rolak: berdintasunaren pertzepzioa*

Behin familia-ereduak identifikatuta, komeni da galdetzea ea nola ikusten dituzten familiako rolak bi generoek. Jakina, galdera horren atzean berdintasunaren arazoa dugu. Kontzeptu horren esangura zehaztasunez ezagutze aldera, nerabeei familiako rolak nola ikusten dituzten galdetu zaie. Egindako galderen erantzunak 24. Grafikoan ageri dira.

**24. Grafikoa. Zure ustez… Sexuaren arabera. (Familia eta rolak)**



Behin 24. Grafikoko datuak azterturik, ondorioztatzen da nerabeek familiako rolez duten ikuskera gehien bat berdintasunezkoa dela. Adostasun-maila handia atzematen da bikote-harremanetan egon beharreko rol-berdintasunari buruz (ikus lerro eten gorriaren gainetik dauden eta %70eko baino gehiagoko atxikipena lortu duten itemak). Gainera, ez dago alde esanguratsurik estatistikaren aldetik.

Aitzitik, gauza zehatzagoak aipatzen direnean, bikote-harremanen alderdi funtzionalei dagozkienak eta generoen arteko desberdintasuna nabarmentzen duten gaien ingurukoak, jarrerek erakusten dute genero batak edo besteak ez dutela pertzepzio bera, nahiz eta hori orokorra ez izan.

Baldin lerro gorriaren azpitik dauden galdera guztiei begiratzen badiegu (*Etxeko lanetan laguntzeko orduan, normalagoa da neskek sukaldean laguntzea eta mutilek entxufeak-eta konpontzea, Amak zaindu behar ditu seme-alabak,* eta abar), estatistikaren aldetik esanguratsuak diren generoaren araberako ehuneko-aldeak ikusten dira, batzuetan 9 eta 10 punturen artekoak. Zer esan nahi du horrek? Gure aburuz, genero-harremanen kontzeptuzko esparruan rolen berdintasuna indartu den bitartean, definizio funtzionalean, berriz, hori ez dela gertatu, hau da, harremanak rolen sexu-banaketaren ikuspegitik ikustean. Oraindik, nolabait, eskema tradizional batzuetan harrapatuta jarraitzen da, lehengo garaietako joera txar batzuek diraute, baina, esan bezala, ez da gehiengoaren jarrera.

Hori aise egiaztatzen da 25. Grafikoan ageri diren datuekin. Grafiko horretan azaltzen dira 14h) itemarekin ados egon ziren 518 nerabe inkestatuak (%89); honela dio, hain zuzen, item horrek: "*Bikote harremanetan, gizonak eta emakumeak elkarrekin hartu behar dituzte ardura eta erabaki guztiak*".

**25. Grafikoa. 14Gh) itemarekin ados daudenen jarrera: "Bikote harremanetan, gizonak eta emakumeak elkarrekin hartu behar dituzte ardura eta erabaki guztiak"**




Espero izatekoa da halako ikusmoldea bateragarria izan ez dadin rol tradizional batzuk generoaren arabera –25. Grafikoan bertan ageri denez– esleitzen dituen pentsaera batekin. Datuak, baina, argiak dira:

– Genero-berdintasunaren alde egiten dutenen %31,5ek –hots, 3tik 1ek, gutxi gorabehera– ama ikusten du seme-alabak hezi eta zaintzearen arduradun.

– Era berean. generoen arteko berdintasuna babesten dutenen %24,5ek –hau da, 4tik 1ek, gutxi gorabehera– gizonari esleitzen dio erabakiak hartu eta agintzeko ardura.

Nahiz eta zaila den doi neurtzea zer esanahi ematen dioten ikasleek halako gaiei, argi dago, ordea, haien buruan bi errealitate daudela, batzuetan elkarren ondoan egoten direnak eta elkar indartzen dutena, baina ez direla errealitate bera. Gauza bat da rolen banaketa funtzionala, rolak generoaren arabera esleitzea, eta beste gauza bat da berdintasunaren balioztapena familia-harremanetan. Argi dago ezen, baztertzeko modukoa ez den kopuru baten aburuz, berdintasuna onartzeak berekin ez dakarrela ezinbestez rolak aldatzea, alegia, rol tradizionalak betetzen jarraitzea eta berdintasuna gauzatzea bateragarri direla pentsatzen jarraitzen dute.

Begi-bistakoa da, halere, inertziazko iritzi horietan norberak ezagutzen duenak zerikusi handia duela bi sexuei tradizioz egotzi zaizkien rolen banaketa eta esanahia balioztatzeko orduan. Gure iritziz, ikuskera horiek aldatzeko modu bakarra jokabide eredugarriak indartzea izango da, nerabeek formalki pluralagoak eta berdintasun-irizpideekin bateragarriak diren ereduak pixkanaka barnera ditzaten.

- *"Etxean lagundu"*

Belaunaldi arteko familia-harremanetan gertatzen ari diren aldaketak aztertzean, seme-alabek etxean duten ardurakidetasunari dagokionez, alderdi interesgarrietako bat da etxeko zereginetan seme-alabek duten parte-hartzearena, "etxean laguntzea" esan ohi dena. Terminoa lausoa den arren, askotariko egoerei dagokielako, zalantzarik gabe, aldi berean, laguntzeko funtsezko jarrera bat ere adierazten du, eta jarrera hori, denboran aurrera egin ahala, erabakigarria da nortasuna osatzean eta, batez ere, harremanak berdintasunean oinarriturik eratzean. Egun dagoen eztabaida dela eta, oinarrizko hurbilketa bat da jakitea ea zenbateraino duten bi sexuek berdintasunezko ikuskera bat eguneroko bizitzaz. Hala, 26. Grafikoko datuak aztertu eta gero, hau atzematen da:

– Bigarrenik, ikusten da pentsatzen dutela etxeko zereginetan laguntzea noizean behin, une jakin batzuetan, bakarrik egiteko zerbait dela, eta ahal badute, zeregin horretatik itzurtzen saiatzen direla.

– Sexuak aintzat hartzen dituen azterketaren arabera, neskek barneratuago dute "laguntzeko eginbeharra", mutilek baino. Ildo horretan, ohea egin eta antzeko zereginak egiteak edo etxean laguntzeko gurasoek eskatu arte itxaroteak eginbehar-sentimendu desberdina eragiten dute, mutilen eta nesken arteko aldea 14 puntukoa dela, nesken alderantz.

– Lehenik, nabaria da ikasketekin lotura dituztenak edo norberak “propio”tzat dituen gauzak nork bere kabuz konpondu ohi dituela, eta gurasoen laguntza norberak ezin duenean baino ez dela eskatzen.

**26. Grafikoa. Esan ea honelakorik egin duzun (baietz erantzun dutenak), sexuaren arabera (“Etxean lagundu”)**




Badirudi, 26. Grafikoak aditzera ematen duenez, norberarenak direla pentsatzen diren zereginetan –ikasketaren alorrekoak diren eta, hortaz, ikaslearen rolari berez dagozkion zeregintzat hartzen diren horietan–, bakoitza aurrera ateratzen saiatzen dela, laguntzarik eskatu baino lehen, baina ez dela gauza bera gertatzen etxeari edo familiako ardurei loturiko eguneroko bizitzako berezko zereginekin. Hor nabarmen jaisten da parte-hartzearen maila. Hain zuzen, %90ek esan zuen etxeko lanak bere kabuz egiten zituela, eta, aldiz, gutxi gorabehera %59k baino ez zuen adierazi familiako eginbeharrak bere gain hartzen zituela. Ez diogu kopuru hori handia ez denik, baina bestea baino aski txikiagoa da.

Ikus dezagun, esate baterako, nola jokatu zuten *“Etxean laguntzen dut (mahaia ipini, zarama jaitsi, etab.) gurasoek eskatu gabe”* itemean. Aldagai horretan ageri den jokabidea azterturik, ikusi da ezen, espero izatekoaren aurka, seme-alabak hazi ahala gutxiagotu egiten dela etxean ematen duten laguntza. Hortaz, 12 urtekoek askoz gutxiago laguntzen dute 9 edo 10 urtekoek baino.

Bestalde, aipatu behar da ez dela desberdintasunik aurkitu jokabideetan generoaren, hizkuntza-ereduaren edo lurralde historikoaren arabera.

**70. Taula. Etxean laguntzen dut (mahaia ipini, zarama jaitsi, etab.) gurasoek eskatu gabe. Adinaren arabera**

| ADINA | BAI | EZ | EE | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| 9 urte | 86,3 | 13,7 | 0,0 | **100** |
| 10 urte | 83,8 | 15,2 | 1,1 | **100** |
| 11 urte | 74,3 | 25,1 | 0,6 | **100** |
| 12 urte | 74,1 | 23,0 | 2,9 | **100** |
| GUZTIAK | **78,2** | **20,9** | **0,9** | **100** |
| | **456** | **123** | **5** | **584** |

### *2.1.2. Ikastetxea*

Familiarekin batera, ikastetxea da beste gizartekoitze-eragile nagusi bat. Hezkuntzazko arazoez gain, Goffman-ek aipatzen zigun “erakunde total” moduko hori bilakatzen da ikastetxea, eta betekizun ahaltsua du, munduaren ikuskera bat emanez ez ezik, etorkizunean ziur aski eragina izango duten harreman batzuk, nortasunaren eraikuntzan erabakigarriak izango direnak, sortuz eta ehunduz ere bai. Integraturik sentitzea edo ez, onartuta sentitzea, pertsonari harremanak izan ditzan ahalbidetzeko moduko adiskide-sare bat edukitzea, erabakigarria da nortasuna eraikitzean, bai eta gizabanakoak bere buruaz eratzen duen kontzeptuan bertan ere. Horri dagokionez, gelakideen arteko giroa nolakoa den jakitea oso garrantzitsua da eskola-jazarpenezko egoerak saihestearren.

**71. Taula. Zelan konpontzen zara gelakideekin?**

| KATEGORIAK | BATEZ BESTEKOA* | TALDEAK** |
|---|---|---|
| Publikoa | 1,367 | A |
| Pribatua | 1,392 | A |
| Bizkaia | 1,340 | A |
| Gipuzkoa | 1,422 | A |
| Araba | 1,459 | A |
| A eredua | 1,286 | A |
| D eredua | 1,371 | A |
| B eredua | 1,402 | A |
| Neskak | 1,351 | A |
| Mutilak | 1,405 | A |
| 11 urte | 1,353 | A |
| 10 urte | 1,380 | A |
| 9 urte | 1,524 | A |
| 12 urte | 1,528 | A |

* Puntuazioa 1etik (handiena) 5era (txikiena) artekoa da.

** Barne-aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak (konfiantza-tartea %95 da), talde bakarra dago.

Konfiantza-tartea %95,00 da.

Hala, 3. zikloko ikasleei gelako giroaz galdetuta, bai gelakideei bai irakasleekiko harremanei zegokienez, erantzunak 71. Taulan jaso dira gelakideei buruzko galderarako, eta 72. Taulan irakasleak kontuan hartzen dituen galderarako.

Erantzunak Likert eskalari jarraituz eginak zeuden, tartearen muturrak 1=Oso ondo eta 5=Oso gaizki zirela. Talde bakoitzarentzat lortu diren emaitzak aipaturiko taulen "BATEZ BESTEKOA" deritzon zutabean ageri dira.

Ikasle inkestatuen %95ek, gutxi gorabehera, gelakideekin oso ondo edo ondo konpontzen zela adierazi zuen, eta horrek pentsarazten du gelako giroa laguntasun handikoa dela. Hala eta guztiz ere, bariantza-analisi baten bidez, gainerakoen artean nabarmentzen zen jokabideren bat ote zegoen bilatu da, eta 72. Taulako emaitzetan egiazta daitekeenez, azpitalde guztiak talde berekoak dira. Ez dute batere eraginik ez generoak, ez adinak, ez hizkuntza-ereduak, ez sare-motak; horrek pentsarazten du nahiko talde homogeneoa dela.

*Irakasleekin duten giro*ari dagokionez, 72. Taulako datuek alde batzuk uzten dituzte agerian. Ikus daitekeenez, nahiz eta giroa, egiaz, oso ona den (batez besteko puntuazioak 1etik hurbil daude), badaude aldeak generoaren eta adinaren arabera.

**72. Taula. Nola moldatzen zara irakasleekin?**

| KATEGORIAK | BATEZ BESTEKOA* | TALDEAK** | |
|---|---|---|---|
| Publikoa | 1,420 | A | |
| Pribatua | 1,465 | A | |
| Bizkaia | 1,423 | A | |
| Gipuzkoa | 1,447 | A | |
| Araba | 1,541 | A | |
| A eredua | 1,432 | A | |
| D eredua | 1,455 | A | |
| B eredua | 1,464 | A | |
| Neskak | 1,347 | | B |
| Mutilak | 1,525 | A | |
| 11 urte | 1,415 | | B |
| 9 urte | 1,429 | A | B |
| 10 urte | 1,452 | A | B |
| 12 urte | 1,639 | A | |

* Puntuazioa 1etik (handiena) 5era (txikiena) artekoa da.

Fisher (LSD) / Taldeen arteko aldeen analisia %95,00eko konfiantza-tartearekin.

Ikasleen %93,4k esan zuen irakasleekin ondo edo oso ondo moldatzen zirela, baina nesken kasuan irakasleekiko harremanak hobeak dira, eta estatistikoki esanguratsuak dira, gelako

mutilen aldean. Adinaren aldetik gauza bera gertatzen da, aldeak atzematen baitira, eta 12 urteko ikasleek dituzte puntuazio okerrenak.

Hala ere, lehen ez bezala, kasu honetan ikusten da bi kolektiboen artean badagoela alde esanguratsua estatistikaren aldetik. Neskek harreman hobeak dituzte irakasleekin, mutilek baino.

Beste irudi adierazgarri bat tutorearena da, une jakin batzuetan erreferentzia delako ikasleentzat. Garrantzizko erreferentzia da eskolako bizitzan. Nolabait, ikastetxearen eta ikaslearen arteko harremanak indibidualizatzen dituena da tutorea.

**73. Taula. Uste duzu tutoreak zure ardura hartzen duela? Sexuaren arabera**

| SEXUA | EE | BETI | BATZUETAN | INOIZ EZ | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| Neskak | 1,1 | 50,9 | 42,7 | 5,3 | **100** |
| Mutilak | 0,6 | 39,5 | 50,9 | 9,0 | **100** |
| GUZTIAK | **0,8** | **44,8** | **47,1** | **7,3** | **100** |
| | **5** | **263** | **275** | **41** | **584** |

*Khi-karratua estatistikoki esanguratsua da –8,930– %95eko konfiantza-mailan.

Horrenbestez, 73. Taulako datuek erakusten dutenez, %44,8k esan zuen *tutoreak haren ardura hartzen duela*. Nolanahi ere, badirudi tutorearen eta ikaslearen arteko harremanak desberdin bizi duela genero batek edo besteak. Ildo horretan, esan behar da harremana askoz estuagoa da nesken kasuan mutilenean baino. Estatistikaren aldetik esanguratsua den korrelazioa egoteak hala adierazten du. Aldea nahiko handia da: nesken %50,9k adierazi zuen tutorea beti haien ardura hartzen zuela; mutiletan, aldiz, ehuneko hori %39,5 baino ez da, hau da, 10 puntu gutxiagokoa.

Azkenik, merezi du agerian uztea nola sentitzen diren ikasleak beren baitan eskolan egiten dituzten lan eta jarduerekin. Modu batera edo bestera, kontzeptuak berak laguntzen digu taldeari dagokionez zer egoeratan dauden gutxi gorabehera jakiten, batez ere alderdi psikologikotik.

Behin 74. Taula aztertuta, ondorio hauek atera daitezke:

– Ikasleek duten autokontzeptua nahikoa baikorra da. Oso gutxi sentitzen dira gainerakoen azpitik, %6-7 inguru bakarrik. Gainerakoak maila berean gutxienez sentitzen dira (%61), edo ikaskideek baino lan hobea egiten dutela uste dute (%32,4).

– Ikasleek beren buruaz autokontzeptu orekatua dute. Batez bestekoa 2ren (ume gehienena baino hobea) eta 3ren (ume gehienenaren antzekoa) artean dago. Antza denez, ez dute beren burua nabarmendu nahi, nahiz eta puntuazioak gehienaren gainetik dauden.

– Dena dela, populazioa homogeneo samarra da, mutilek neskek baino autokontzeptu hobea duten arren, edo sare publikokoek sare pribatukoek baino. Hizkuntza-ereduetan baino ez dira estatistikaren aldetik esanguratsuak diren barne-aldeak atzematen. Hain zuzen, B eredukoek autokontzeptu hobea dute D eta A ereduetan baino. Gainerako aldagaietan aldeak ez dira esanguratsuak estatistikaren aldetik; denak dira talde berekoak.

**74. Taula. Gelan eta etxean egiten duzun eskolako lana kontuan hartuta eta gelako beste umeen lanarekin konparatuta, nolakoa da zure lana?**

| KATEGORIAK | BATEZ BESTEKOA* | TALDEAK** | |
|---|---|---|---|
| Publikoa | 2,558 | A | |
| Pribatua | 2,625 | A | |
| Bizkaia | 2,525 | A | |
| Gipuzkoa | 2,586 | A | |
| Araba | 2,623 | A | |
| A eredua | 2,520 | | B |
| D eredua | 2,623 | A | B |
| B eredua | 2,893 | A | |
| Neskak | 2,544 | A | |
| Mutilak | 2,649 | A | |
| 11 urte | 2,480 | A | |
| 9 urte | 2,524 | A | |
| 10 urte | 2,663 | A | |
| 12 urte | 2,722 | A | |

* Puntuazioan maila hauek zeuden: 1-Bikaina, 2-Gelako ume gehienena baino hobea, 3-Gelako ume gehienenaren antzekoa, 4-Gehienena baino eskasagoa, 5-Eskasa, beharbada txarrenetakoa.

** Hizkuntza-ereduetan izan ezik, barne-aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

Fisher (LSD) / Taldeen arteko aldeen analisia %95,00eko konfiantza-tartearekin.

- *Nahi ez diren portaerak*

Portaera horiek gizartekoitze-prozesuaren alde ezkutuenari dagozkio. Zerikusia dute gatazka-egoerei aurre egiteko eta lehia, arbuioa edo onarpenik eza gertatzen diren egoerak ulertzeko gaitasunarekin.

Noski, halako portaeren larritasuna eta intentsitatea neurtzen zailak dira; izan ere, nork ez ote du agertu, bere eskola-bizitzan zehar, ikaskide batez trufatzeko, ironiaz mintzatzeko edo ikaskide hori baztertzeko beharra?

Nolanahi ere, gatazka-egoerei loturiko portaerak aztertzea barometro ona da eskolako giroa, oro har, neurtzeko.

### a) Ikaskideari burla egitea

Zaila da "burla" delakoak zenbaterainoko garrantzia duen zehaztea eta balio erreal bat egoztea gizarte-harremanetan; izan ere, batzuetan mespretxatzeko edo baztertzeko mekanismoa izan daiteke, baina beste batzuetan, ordea, identitatea babesteko eta norbera taldearen aurrean indartzeko mekanismoa da. Edozelan ere, nahi ez den portaeratzat har daitekeen neurrian, egokitzat iritzi zaio 3. zikloko ikasleek ikaskideei zenbateraino burla egiten dieten aztertzeari. Emaitzak 75. Taulan ageri dira:

**75. Taula. Ikaskideei burla, barre edo irain egin diezu**

| AZPITALDEAK | BATEZ BESTEKOA* | TALDEAK** | |
|---|---|---|---|
| Publikoa | 1,788 | A | |
| Pribatua | 1,890 | A | |
| Bizkaia | 1,754 | A | |
| Gipuzkoa | 1,829 | A | |
| Araba | 1,864 | A | |
| A eredua | 1,755 | | B |
| D eredua | 1,929 | A | B |
| B eredua | 1,939 | A | |
| Neskak | 1,623 | | B |
| Mutilak | 2,025 | A | |
| 11 urte | 1,805 | | B |
| 9 urte | 1,810 | A | B |
| 10 urte | 1,840 | A | B |
| 12 urte | 2,083 | A | |

* Puntuazioan maila hauek zeuden: 1-Inoiz ez, 2-Noizbait, 3-Hainbat aldiz, 4-Askotan.
** Hizkuntza-ereduaren, sexuaren eta adinaren.
Fisher (LSD) / Taldeen arteko aldeen analisia %95,00eko konfiantza-tartearekin.

Hortaz, 75. Taulako datuak azterturik, ondorioztatzen da ikasleek errespetuz eta laguntasunez jokatzen dutela elkarrekin. Puntuazio guztiak "inoiz ez" eta "noizbait" adierazten zituztenen artean zeuden. Azpitaldeak banan-banan hartuta:

- Sare publikoko ikasleek errespetu handiagoz jokatzen dute, sare pribatukoek baino, baina, dena dela, aldeak ez dira esanguratsuak estatistikaren aldetik.
- Lurralde historikoen arabera, ikaskideei burla edo barre egitea neurri gutxiagoan gertatzen da Araban, Gipuzkoan edo Bizkaian baino, baina hemen ere aldeak ez dira esanguratsuak estatistikaren aldetik.

– D ereduan balioak txikiagoak dira, beste ereduen aldean, eta, gainera, dagoen aldea esanguratsua da estatistikaren aldetik. Horrek esan nahi du eredu horretan dagoela girorik hoberena bestea errespetatzeari dagokionez.

– Neskek gutxiagotan burla egiten dute, aldeak estatistikoki esanguratsuak direla.

– Azkenik, nabarmendu behar da adinak baduela eragina halako jokabideetan; izan ere, hazi ahala, burla edo barre egiteko jokabidea maizago gertatzen da.

b) Indarkeria erabiltzea

Era berean, indar fisikoa erabiltzeari dagokionez (ikus 76. Taula), ikusten da oso gutxitan jotzen dela indarkeriara hertsapen-neurri gisa, batzuetan esaten eta helarazten denaren kontrara. Balioak 1en (inoiz ez) eta 2ren (noizbait) artean daude. Ikus daitekeenez, datuek jokabide desberdinak, estatistikoki esanguratsuak, aditzera ematen dituzte sareari, hizkuntza-ereduari eta sexuari begiratuz gero. Hala, bada:

**76. Taula. Jo egin dituzu, ostikoak eman dizkiezu edo lekuren batean sartu eta han itxita utzi?**

| AZPITALDEAK | BATEZ BESTEKOA* | TALDEAK** | |
|---|---|---|---|
| Publikoa | 1,357 | | B |
| Pribatua | 1,468 | A | |
| Bizkaia | 1,344 | A | |
| Gipuzkoa | 1,382 | A | |
| Araba | 1,448 | A | |
| A eredua | 1,290 | | B |
| D eredua | 1,500 | A | B |
| B eredua | 1,561 | A | |
| Neskak | 1,254 | | B |
| Mutilak | 1,551 | A | |
| 11 urte | 1,380 | A | |
| 9 urte | 1,418 | A | |
| 10 urte | 1,524 | A | |
| 12 urte | 1,528 | A | |

* Puntuazioan maila hauek zeuden: 1-Inoiz ez, 2-Noizbait, 3-Hainbat aldiz, 4-Askotan.
** Sarearen, hizkuntza-ereduaren eta sexuaren araberako aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.

Fisher (LSD) / Taldeen arteko aldeen analisia %95,00eko konfiantza-tartearekin.

– Sare publikoko ikasleek neurri txikiagoan erabiltzen dute indarra, sare pribatukoek baino.

– D ereduak puntuazio hobeak ditu, A eta B ereduek baino.

– Neskek gutxiago jotzen dute, mutilen aldean.

c) Baztertzea eta mespretxatzea

Ikasleek ikaskideak baztertu edo mespretxatzeari dagokionez, 77. Taulan ikus daitekeenez, jokabide desberdinak atzematen dira sarearen eta hizkuntza-ereduaren arabera. Bestalde, ez dute loturarik halako jokabideek ez lurralde historikoarekin, ez generoarekin, ez adinarekin. Hau ikusten da, bada, horren inguruan 77. Taulako datuei begiraturik:

**77. Taula. Baztertu edo mespretxatu egin dituzu?**

| AZPITALDEAK | BATEZ BESTEKOA* | TALDEAK** | |
|---|---|---|---|
| Publikoa | 1,300 | A | |
| Pribatua | 1,429 | | B |
| Bizkaia | 1,322 | A | |
| Gipuzkoa | 1,377 | A | |
| Araba | 1,392 | A | |
| A eredua | 1,258 | A | |
| D eredua | 1,357 | A | B |
| B eredua | 1,504 | | B |
| Neskak | 1,321 | A | |
| Mutilak | 1,405 | A | |
| 11 urte | 1,314 | A | |
| 9 urte | 1,333 | A | |
| 10 urte | 1,421 | A | |
| 12 urte | 1,500 | A | |

* Puntuazioan maila hauek zeuden: 1-Inoiz ez, 2-Noizbait, 3-Hainbat aldiz, 4-Askotan.
** Sarearen eta hizkuntza-ereduaren araberako aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.

Fisher (LSD) / Taldeen arteko aldeen analisia %95,00eko konfiantza-tartearekin.

– Lehenik, nabarmendu behar da egoera oso homogeneoa dela. Ikus daitekeenez, azpitaldeen puntuazioak 1etik hurbil daude, eta horrek esan nahi du halako jokabideak noizean behingoak, une jakin batekoak, direla, eta ez direla bazterketa-egoera orokorrak izaten, ezta hurrik eman ere.

– Bigarrenik, azpimarratu behar da kolektiboa nahikoa homogeneoa dela, sexuak, adinak eta lurralde historikoak garrantzirik ez baitute edo, bestela esanda, ez baitute eragiten jokabide bereizirik.

– Hirugarrenik, aditzera eman behar da, baina, estatistikaren aldetik esanguratsuak ziren aldeak aurkitu direla sarea publikoa ala pribatua den. Hala, bada, ikus daitekeenez, bazterketa-egoera neurri txikiagoan gertatzen da sare publikoan, sare pribatuan baino, eta, era berean, atzeman da D ereduan egoera hori gutxiagotan gertatzen dela gainerako hizkuntza-ereduen aldean.

## d) Autoritatea zalantzan jartzea

Gaurkotasun handiko gai bat da irakaslearen irudia, hark errespetatua izateko eta bere jarduera inork haren autoritatea zalantzan jarri gabe aurrera eramateko duen gaitasuna. Ildo horretan, egokia zirudien ikasleen jokabidea zein zen jakitea, zenbateraino barre edo irain egiten dioten irakasleari. Emaitzak 78. Taulan aurkezten dira.

**78. Taula. Irakasleren bat iraindu duzu?**

| AZPITALDEAK | BATEZ BESTEKOA* | TALDEAK** | |
|---|---|---|---|
| Publikoa | 1,130 | A | |
| Pribatua | 1,141 | A | |
| Bizkaia | 1,090 | A | |
| Gipuzkoa | 1,115 | A | B |
| Araba | 1,216 | | B |
| A eredua | 1,000 | A | |
| D eredua | 1,116 | A | |
| B eredua | 1,175 | A | |
| Neskak | 1,090 | A | |
| Mutilak | 1,174 | | B |
| 11 urte | 1,100 | A | |
| 9 urte | 1,143 | A | |
| 10 urte | 1,154 | A | |
| 12 urte | 1,194 | A | |

* Puntuazioan maila hauek zeuden: 1-Inoiz ez, 2-Noizbait, 3-Hainbat aldiz, 4-Askotan.
** Lurralde historikoaren eta sexuaren araberako aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.
Fisher (LSD) / Taldeen arteko aldeen analisia %95,00eko konfiantza-tartearekin.

Irainak arbuiatzeko bitartekotzat erabiltzeari dagokionez, berriro ere ikusten da ikasleen jokabidea inklusiboa dela. Hain zuzen, %1,9k bakar-bakarrik (egiaz, lekukotasun hutsa baino ez da) esan zuen iraina erabili ohi zuela, eta gainerakoek irakaslearekin adeitasunezko harremanak zituztela azaldu zuten.

Nolanahi ere, azpitaldeen arteko aldeak azterturik, 78. Taulan ageri den eran, ondorengoa ikusten da:

– Aski homogeneoa da 3. zikloko populazioa. Puntuazio guztiak 1etik hurbil daude; hau da, errespetuz jokatzen dute irakaslearekin.

– Hala ere, estatistikaren aldetik esanguratsuak diren aldeak atzeman dira. Horri dagokionez, mutilen aldean, neskak errespetutsuagoak dira irakaslearekin, eta Bizkaiko ikasleek gutxiago iraintzen dituzte irakasleak, Arabako edo Gipuzkoakoek baino.

### e) Mehatxua erabiltzea zerbait egitera behartzeko

Mehatxuek hertsapen-egoerak dakartzate berekin, eta indarkeria estaliko egoerak adierazten dituzte; halakoak, hain zuzen, indarkeria ageriko egoera bilaka daitezke. Pertsona edo talde baten nagusitasun-, mendekotasun-egoera agertzen dute, eta horrek eragin negatiboa izaten du azkenean eskolako giroan. Honen inguruan esan behar da halako mehatxu edo hertsapenak –gutxi-asko estaliak– nekez adierazten direla nabarmenki.

Halako jokabidek ikasleen artean duten egiazko garrantzia jakite aldera, galdetu zitzaien ea zenbateraino baliatzen ziren “bitarteko” horretaz besteak kikiltzeko tresnatzat. Emaitzak 79. Taulan ageri dira.

**79. Taula. Ikaskideak mehatxatu dituzu nahi ez duten zerbait egitera behartzeko?**

| KATEGORIAK | BATEZ BESTEKOA* | TALDEAK** |
|---|---|---|
| Publikoa | 1,117 | A |
| Pribatua | 1,206 | A |
| Bizkaia | 1,136 | A |
| Gipuzkoa | 1,196 | A |
| Araba | 1,197 | A |
| A eredua | 1,123 | A |
| D eredua | 1,207 | A |
| B eredua | 1,214 | A |
| Neskak | 1,116 | A |
| Mutilak | 1,203 | A |
| 11 urte | 1,048 | A |
| 9 urte | 1,150 | A |
| 10 urte | 1,176 | A |
| 12 urte | 1,250 | A |

* Puntuazioan maila hauek zeuden: 1-Inoiz ez, 2-Noizbait, 3-Hainbat aldiz, 4-Askotan.
** Aldeak ez dira estatistikoki esanguratsuak.

Fisher (LSD) / Taldeen arteko aldeen analisia %95,00eko konfiantza-tartearekin.

Mehatxu egiten duten pertsonen ehunekoa %2 baino ez da, 79. Taulako datuen arabera. Ikus daitekeenez, jokabide arriskutsuak ugaritzen ari direla dioten irakurketa alarmisten kontrara, datuek ez dute zalantzarik sortzen. Mehatxuak hertsapen-mekanismotzat erabiltzeari dagokionez, datuek agerian uzten dute praktikan populazio inkestatua oso homogeneoa dela eta lortu diren datuak 1etik (hots, "inoiz ez") oso hurbil daudela. Horrez gain, ez da alde esanguratsurik aurkitu azpitaldeen artean.

### f) Laburpena: portaera gaitzesgarrien garrantzia

Halako jokabideen garrantziari buruzko ikuspegi orokorra izate aldera, taldekaturiko datuak 80. Taulan aurkeztu dira: Datuak azterturik, honako ondorio hauek atera dira:

**80. Taula. Ikaskideekiko portaera gaitzesgarriak, kontzeptu guztiak kontuan hartuta (laburpena)**

| KATEGORIAK | BATEZ BESTEKOA* | TALDEAK** | |
|---|---|---|---|
| Publikoa | 6,703 | A | |
| Pribatua | 7,123 | | B |
| Bizkaia | 6,787 | A | |
| Gipuzkoa | 6,929 | A | |
| Araba | 6,945 | A | |
| A eredua | 6,542 | A | |
| D eredua | 7,000 | A | B |
| B eredua | 7,386 | | B |
| Neskak | 6,403 | A | |
| Mutilak | 7,358 | | B |
| 11 urte | 6,857 | A | |
| 9 urte | 6,876 | A | |
| 10 urte | 6,882 | A | |
| 12 urte | 7,556 | A | |

* Puntuazioa 4tik (inoiz ez) 16ra (askotan) artekoa da.
** Sarearen, hizkuntza-ereduaren eta sexuaren araberako aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.
Fisher (LSD) / Taldeen arteko aldeen analisia %95,00eko konfiantza-tartearekin.

– Nahiz eta balioak oso txikiak diren, kontuan izan dezagun portaera gaitzesgarriak neurtu direla 4tik (inoiz ez) 16ra (askotan) arteko eskala baten bidez. Portaera gaitzesgarrien garrantzia handiagoa da sare pribatuan, sare publikoan baino. Aldeak esanguratsuak dira estatistikaren aldetik.

– Lurralde historikoei begiratuta, egoera oso homogeneoa da; dena dela, Araban dute garrantzi gutxien halako portaerek, eta Gipuzkoan, berriz, garrantzi gehien. Lehen esan dugunez, halere, aldeak ez dira esanguratsuak estatistikaren aldetik.

– Hizkuntza-ereduen arabera, esan behar da badaudela alde esanguratsuak estatistikaren aldetik. Horri dagokionez, D ereduan gertatzen dira gutxiena halako portaerak, eta B ereduan, aldiz, dute garrantzirik handiena. Azpimarratu behar da betiere puntuazioak txikiak direla, 6-7 bitartekoak, hain zuzen.

– Badago nabarmendu beharreko jokabide-desberdintasuna sexuen artean. Arlo honetan, mutilek portaera oldarkorragoa dute, neskek baino. Khi-karratuak halaxe adierazten du, aldeak benetan esanguratsuak dira eta. Hala, bada, nesketan portaera gaitzesgarrien garrantzia %7,6 baino ez da, eta mutiletan, ostera, %21,4 ere bada ehuneko hori. Gure ustez, sexua da halako portaerak egotearekin loturarik handiena duen aldagaia, alde handiz.

– Oro har, ikaskideen kalterako diren portaera gaitzesgarrien nondik norakoa populazioaren %15 dagokio.

### *2.1.3. Lagun-taldea*

Nerabezaroan, adiskideak familiari kontrajartzen zaizkio gizartekoitze-prozesuan. Oro har, adiskideek kanpoko mundurako beharrezko irekiera eragiten dute, eta horrek balio du familiaren mundutik datozen erreferentziak mundu horretakoak ez diren kanpoko erreferentziekin konparatzeko. Horregatik, funtsezkoa da jakitea nolakoak diren adiskidetasun-harremanak, desberdinak direnak integratzeko duten gaitasuna, eta abar, lortu den tolerantzia-maila handiagoa ala txikiagoa den ulertzeko. Ezin ahatz dezakegu –Mead-en eta Cooley-ren teoria klasikoei jarraituz– identitatea sortzeak alteralitatea aurresuposatzen duela, hau da, bestearekin aurrez aurre egoteko eta eragin-trukean aritzeko gaitasuna. “Bestearen ispiluak” bihurtzen digun irudian oinarriturik baino ez dugu erdiesten ideia bat osatzea nor garen eta nola jokatzen dugun.

Ildo horretan, adiskideek gazteen bizitza-testuinguruan duten garrantziaz nahikoa ideia zehatza ematen diguten hainbat gairi heldu diegu.

**81. Taula. Nolakoak dira lagunekin dituzun harremanak? Sexuaren arabera**

| SEXUA | LAGUNEKIKO HARREMAN-MOTA | | | | | GUZTIRA | BATEZ BESTEKOA* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Oso onak | Onak | Hala-holakoa | Oso txarrak | EE | | |
| Neskak | 74,7 | 22,7 | 1,9 | 0,0 | 0,7 | 100 | **1,26** |
| Mutilak | 67,4 | 28,0 | 2,1 | 1,3 | 1,2 | 100 | **1,38** |
| GUZTIAK | **70,7** | **25,5** | **2,0** | **0,7** | **1,0** | **100** | 1,32 |
| | **416** | **146** | **12** | **4** | **6** | **584** | |

* Balioak 1etik (oso onak) 5era (oso txarrak) artekoak dira.

Gazteak oso pozik daude dituzten adiskidetasun-harremanekin, 81. Taulan ikus daitekeenez. Datuek oinarrizko zerbait uzte dute agerian: adiskideak oso garrantzitsuak dira

gazteen bizitzan, eta harremanak oso gogobetekoak dira bi generoentzat, estatistikaren aldetik esanguratsua den alderik gabe.

**82. Taula. Zenbat lagun dituzu? Sexuaren arabera**

| SEXUA | ASKO | HAINBAT | GUTXI | EE | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|
| Neskak | 84,9 | 14,7 | 0,4 | 0,0 | **100** |
| Mutilak | 80,9 | 14,4 | 3,7 | 0,9 | **100** |
| GUZTIAK | **82,7** | **14,6** | **2,2** | **0,5** | **100** |
| | **483** | **85** | **13** | **3** | **584** |

Halaber, gazte guztiek oso harreman zabalak dituztela atzematen da, 82. Taulako datuek, antza denez, aditzera ematen dutenez. Erraz ikusten da nola ia %98k harrotasunez adierazten duen adiskide-sare zabala duen. Oso gutxik esan zuten "zirkuitu itxi"ko politika egiten zutela, alegia, ozta-ozta %2k esan zuen lagun gutxi zuela. Jakina, datu horiek irekiera gertatzen den aldi batekoak dira, aukerak zabaltzen diren aldi batekoak, eta aldi hori bat dator bizitza-mugak hedatzen den garai batekin, non "berria", "desberdina", dena oso erakargarri gertatzen den.

**83. Taula. Lagun batekin haserretzen zarenean, nola konpontzen duzue arazoa? Sexuaren arabera**

| SEXUA | ELKAR JOTZEN DUGU | HITZ EGITEN DUGU | EGUN BATZUETAN EZ DIOGU ELKARRI HITZ EGITEN ETA GERO ADISKIDETU EGITEN GARA | EZ DIOGU GEHIAGO HITZ EGITEN ELKARRI | EE | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Neskak | 0,3 | 69,3 | 30,0 | 0,3 | 0,0 | **100** |
| Mutilak | 11,8 | 55,4 | 31,2 | 0,6 | 1,0 | **100** |
| GUZTIAK | **6,5** | **61,8** | **30,6** | **0,5** | **0,6** | **100** |
| | **38** | **358** | **182** | **3** | **3** | **584** |

Adiskidetasun-harremanetan gatazkak konpontzeari dagokionez, datuek ez dute ezer berezirik azaltzen. Hala, bada, 83. Taulan ikus daitekeenez, muturreko egoerak (*elkar jotzea* edo *elkarri gehiago ez hitz egitea*) ozta-ozta %7 dira biak batera; dena den, den-dena esate aldera, *indarkeria fisikoa gatazkak ebazteko erabiltzea gizonezkoei baino ez dagokien mekanismoa da*: %11,8; emakumezkoen %0,3k baino ez zuen esan joka aritzen zela haserretzen zenean.

**84. Taula. Nork erabakitzen ditu zure jolasak, jarduerak...? Sexuaren arabera**

| ERAGINA: | NESKAK | MUTILAK | GUZTIAK |
|---|---|---|---|
| Aitak edo amak | 27,3 | 31,8 | 29,6 |
| Lagunek | 17,1 | 19,1 | 18,1 |
| Nik neuk | 48,6 | 43,5 | 46,0 |
| Beste batzuek | 7,0 | 5,6 | 6,3 |
| GUZTIRA | 100 | 100 | 100 |

Adiskidetasun-harremanen esparruan aintzat hartu behar den garrantzizko alderdi bat da eskuzabaltasun-mailarekin nahiz besteari lagundu eta irekitzeko eredu batzuk norbereganatzearekin zerikusia duena. Xedea da jakitea zenbateraino diren nerabeak gai hurkoengana enpatia izateko eta haiekin elkartasunez jokatzeko. Elkartasunerako eta elkar laguntzeko ereduak garatzea oinarria da etorkizunean gizarte orekatu eta kohesionatua izateko.

Elkartasunez eta era irekian jokatzeko ereduak garatzeari loturiko portaera "estandar" batzuk bildu dira 27. Grafikoan, eta datu horiek aztertu eta gero, honako hau nabarmendu behar da:

**27. Grafikoa. Esadazu ea gauza hauek egiten dituzun (baiezko erantzunen irudikapena). Sexuaren arabera**



Lehenik eta behin, azpimarratu behar da eskolako nerabeek elkartasun-maila handia erakusten dutela ikaskideengana. Hirugarren zikloko ikasleen ia %90ek adierazi zuen gelakideei laguntzen zietela eta haiekin jostailuak partekatzen zituztela.

Bigarrenik, esan behar da, halere, sexu bataren eta bestearen jokabideak desberdinak direla. Esan daiteke ezen, oro har, bai era positiboan adierazi diren portaeretan (*"Gelako haur bat triste badago edo zerbait gertatzen bazaio, laguntzen saiatzen naiz"),* bai kontrabalio gisa jarritakoetan (*"Nire lagun taldearekin baino ez dut jolastu nahi, ez zait gustatzen beste inorekin jolastea"*), neskek elkartasunera lerratuagoa eta irekiagoa den pentsaera agertu dutela.

Hirugarrenik, ikastetxearekin, erakundea den aldetik, lankidetzan aritzeko jarduera nabarmen handiagoa da nesken artean, mutilen artean baino.

Azkenik, bakartzeko eta ixteko gaitasuna handiagoa da mutiletan, nesketan baino. Hain zuzen, esaterako, nesken %8k esan zuen *"Nire lagun taldearekin baino ez dut jolastu nahi, ez zait gustatzen beste inorekin jolastea"*, baina ehuneko hori %25,7raino igo zen mutilen kasuan.

- *"Beste"aren onarpena berdinen taldean*

Nerabeei galdetu zaie ea zenbaterainoko axola zaien mahia eta gela berean egotea –hainbat arrazoi direla eta– gizarte-irudi estigmatizatua duten ikaskide zenbaitekin. Lortutako emaitzak 28. Grafikoan ageri dira, ikus daitekeenez:

**28. Grafikoa. Axolako litzaizuke ikaskide moduan edukitzea...?**
**(baiezko erantzunen irudikapena) Sexuaren arabera**



Erantzunak ehuneko handienetik txikienera ordenaturik, aipatutako grafikoan ezin hobeto ikus daiteke 3. zikloko ikasleen tolerantziaren profila:

Ikasgelan *ETAko kide baten seme-alabekin, neonaziekin* edo *ijitoekin* batera egotea –hurrenkera horretan– dira ikasleen artean arbuiorik handiena sortzen duten kultura-talkak. Estatistikaren aldetik oso nabarmenak diren aldeak atzemate dira sexuaren arabera. Hain zuzen ere, nesken %61,3k adierazi zuen axola zitzaiola ETAko kide baten seme edo alaba ikaskide gisa izatea, mutilen %51,6aren aldean. Alde bera agertzen da neonazien kasuan. Aitzitik, ijitoei dagokienez, mutilen arbuioa handiagoa da, 5 puntu inguruko aldea dagoela.

Homosexualitatea bada oraindik kezka-faktore garrantzitsu samar bat: %40,6 mutilen aldetik, nesken %31,8aren aldean.

*Etorkina* edo *musulmana* izateagatik, *islamiar zapia* eramateagatik eta abarrengatik dauden desberdintasunek sortutako kezka-maila %25 da, gutxi gorabehera, baina guztietan mutilek adierazten dute mesfidantza handiagoa, neskek baino.

Militar, polizia, guardia zibil edo ertzain baten semea edo alaba ikaskide edukitzea %25i axola zaio, mutilak kezkatuago ageri direla, neskak baino.

Azkenik, itxuraren edo gizartearen aldetiko arrazoiengatik (*neska edo mutil lodi, itsusi, gaizki jantzi edo arraroa izatea)* edo nolabaiteko ezintasuna izateagatik sortzen den estigmatizazioak eraginiko arbuioaren maila aipatu behar da. Kasu guztietan, "arbuio"aren maila %20 aren ingurukoa da, eta mutilak neskak baino baztertzaileagoak dira, alde handiz.

### *2.1.4. Komunikabideak eta teknologia berriak*

Komunikazioaren teknologien agerpenarekin, adiskidetasun-harremanen izaera eraldatu egin da. Informazioaren teknologia berriek aldaketa gogorra ekarri dute harremanetan egoteko erara. Berdinen arteko harremanen euskarri diren oinarriak aldatzen ari da informazioaren teknologiak erabiliz komunikazio birtualak ezartzeko ahalmena.

Begien bistakoa da ezen komunikazioaren teknologien erabileran dagoen belaunaldi arteko etenak balioztatzen zailak diren eta polemika sortzen duten alderdi ezezagunak eta erronkak dakartzala. Batzuen ustez, pribatizazio-maila handitzen duten teknologiak dira; beste batzuen iritziz, berriz, harremanetarako gaitasuna mugarik gabe areagotzea ahalbidetzen dute, hurbil dauden tokietan bizi behar izatea gaindituriK.

Nolanahi ere, beharrezkoa da jakitea teknologia berriek zein neurritan aldatzen ari diren pixkanaka nerabeen arteko harreman-erak, zenbateraino ari diren gizartekoitze-era berri batzuk zaharrak ordezkatzen. Horregatik, 3. zikloko ikasleei galdetu zaie ea zein neurritan erabiltzen dituzten informazioaren teknologiak, edo ez. Emaitzak 29. Grafikoan aurkezten dira; hona hemen:

**29. Grafikoa. Nola komunikatzen zara lagunekin?**
**Sexuaren arabera**




Honako ondorio hauek ateratzen dira 29. Grafikoko datuetatik:

- Lehenik, informazioaren teknologien erabilera oraindik apal samarra da (ez da hurbiltzen 16 urteko edo gehiagokoen tasetara), baina esanguratsua, hala ere. Kontzeptu guztiek bateratuta (e-maila, SMSak edo txatak), guztizkoaren %40 hartzen du erabilera horrek.

- Bigarrenik, azpimarratu behar da, dena dela, komunikazioaren euskarritzat teknologia berriak erabiltzeak ez dituela bertan behera uzten zuzeneko, aurrez aurreko, harremanak. Azken hori da, hain zuzen, komunikatzeko erarik ohikoena.

- Adin-taldeen artean ez dago alde esanguratsurik.

Interneten erabilerari dagokionez, ikusi da handi samarra dela. Hala, 3tik batek, gutxi gorabehera, esan zuen sarri erabiltzen duela Internet (%33,5). Nahiz eta mutilak Interneti askoz "lapatuago" egon (%38,8), neskak baino (%27,2), aldeak ez dira esanguratsuak estatistikaren aldetik. Ikus 85. Taula.

**85. Taula. Internet erabiltzen duzu?**

| AZPITALDEAK | BATEZ BESTEKOA* | TALDEAK** | |
|---|---|---|---|
| Publikoa | 1,910 | A | |
| Pribatua | 1,929 | A | |
| Bizkaia | 1,867 | A | |
| Gipuzkoa | 1,934 | A | |
| Araba | 2,000 | A | |
| A eredua | 1,714 | A | |
| D eredua | 1,913 | A | |
| B eredua | 1,951 | A | |
| Neskak | 1,870 | A | |
| Mutilak | 1,978 | A | |
| 12 urte | 1,639 | A | |
| 11 urte | 1,876 | A | |
| 10 urte | 1,995 | A | B |
| 9 urte | 2,238 | | B |

* Puntuazioak hauek dira: 1-Bai, sarri; 2-Bai, baina gutxitan; 3-Ez dut erabiltzen; 4-Ez dut Internet ezagutzen.
** Adinaren aldagaian baino ez dira ageri estatistikoki esanguratsuak diren gorabeherak.
Fisher (LSD) / Taldeen arteko aldeen analisia %95,00eko konfiantza-tartearekin.

Hala ere, erabileraren maiztasunari dagokionez, atzeman da adinaren aldagaiak duela eraginik handiena eta sortzen dituela desberdintasunak jokabidean. Ikus daitekeenez, adinean aurrera egin ahala, Internet erabiltzeko maiztasuna sarriagotu egiten da.

Edozelan ere, argi ikusten da batez besteko puntuazioak 1etik (Bai, sarri) 2ra (Bai, baina gutxitan) artekoak direla. Horrek esan nahi du informazioaren teknologiak erabiltzeko aukera, neurri handiagoan edo txikiagoan, errealitate orokorra dela, erabiltzen diren maiztasuna gorabehera.

Hala, bada, 30. Grafikoan azaltzen diren datuen arabera, ikasleek ordenagailua erabiltzea bakarrik egiten den jarduera izaten da. Horri dagokionez, nabarmendu egin behar da sexu baten edo bestearen jokabideak ez direla berdinak: mutilentzat, bakarkako jarduera izaten da (%49,7), baina nesketan, ordea, hori neurri txikiagoan gertatzen da (%36,9), eta ordenagailuaren erabilera adiskideekin partekatzeko joera izaten dute, 14,9tan, hain zuzen, mutilen %9,8aren aldean. Nolanahi ere, ikusten da gurasoen zaintza lekukotasun hutsa dela ia-ia, ikasleen %8k, gutxi gorabehera, esan baitzuen gurasoekin batera konektatzen zela Internetera. Adin-taldeen arteko aldeak txikiak dira, zeharo.

**30. Grafikoa. Nola erabiltzen duzu Internet?
Sexuaren arabera**




Internet azken hilabetean erabili izanari lotzen bagatzaizkio, erabileraren adierazletzat, atzematen dugu etxean erabiltzea dela gehiengoaren aukera, 31. Grafikoan ikus daitekeenez.

**31. Grafikoa. Azken hilabetean, erabili duzu Internet ordenagailu batean?
Sexuaren arabera**




Bestela esanda, ezin ukatuzkoa da zein neurritan sartu diren etxean informazioaren teknologia berriak, eta etxea da, hain zuzen, haiek erabiltzeko toki nagusia, bi ikasletik batek horrela adierazi zuen eta. Bestalde, agerian gelditu denez, bakarka egiten den jarduera izaten da, eta gurasoek ia ez dute esku hartzen arautzeko eta erabiltzeko.

**32. Grafikoa. Interneten ibiltzen zarenean, helburu hauetarako ibiltzen zara noizbait? Sexuaren arabera**




Internet zertarako erabiltzen duten aztertuta, ikusten da batez ere aisialdirako, harremanetarako eta ikasketetan laguntzeko tresna dela. Nolanahi ere, 32. Grafikoko datuei begiratuz gero, ikusten da sexuaren araberako alde esanguratsuak daudela:

- Hain zuzen ere, nesken %59.4k Internet erabiltzen dute *aktore, abeslari eta abarren informazioa bilatzeko*, mutilen %41,2aren aldean. Zenbat eta 18,2 puntu batetik bestera, bi ehunekoak erkatzen direnean!

- Kontrakoa gertatzen da Internet *sarean bideojokoekin jolasteko* erabiltzen denean. Mutilen %67,9k erabiltzen du Internet jarduera horretarako, nesken %58,3aren aldean.

- Aipatu beharreko beste jarduera bat *filmak, abestiak, musika eta abar jaistea* da. Internet erabiltzen dutenen %60k egiten ditu halako deskargak.

- Interneti ikasketetarako laguntza gisa ematen zaion garrantzia ere (*Klaseko lanak, azterketak eta abar prestatzeko*) aipatu beharreko jarduera bat da. Hala mutiletan nola nesketan, bitik batek, gutxi gorabehera, Internetez baliatzen da zeregin horretarako.

- Azkenik, ordenagailuak jendea bere ingurunetik bakartzen duela diotenen aurrean, esan behar da ez dela gutxiestekoa komunikazio-euskarri horri harremanetarako tresna gisa ematen zaion garrantzia: Messenger, Tuenti, Skype eta antzeko plataformak erabat boladan daude nerabeen artean.

• *Txateatzea*

Ingelesetiko hitz horren bidez adierazi nahi da gizartekoitasunari eta komunikazioari loturiko hizketaldi informalek gaur egun hartu duten garrantzia. Halakoen euskarria informazioaren teknologia berriak dira, Messenger-en, Tuenti-ren edo antzeko plataformen bitartez (datu-base multimedia batzuk, denbora errealeko komunikazio integrala ahalbidetzen dutenak, irudiak, bideoak eta antzekoak ere txertatuta).

**33. Grafikoa. Txateatzean, egoera hauetakoren batean egon zara? Sexuaren arabera**




Goian, 33. Grafikoan ikusten denez, txateatzearen harremanetarako helburua, funtsean, ez da engaiamenduzkoa; dena dela, komunikaziorako euskarriaren bereizgarri teknikoengatik, zenbaitetan, zuzeneko komunikazioa ahalbidetzen du, baina gutxiengo baten kasuan, betiere. Hala, bada, datuak azterturik, honako ondorio hauek ateratzen dira:

– Bideojokoak, musika eta antzekoak trukatzeko asmoz txateatzen du %40k baino gehiagok, bestelako engaiamendu sakonagorik gabe. Azaleko harremana izaten da.

– Beste %30 batek txata harremanetan jartzeko eta zuzeneko komunikazioa lortzeko bitartekotzat erabiltzen du. Esan behar da ezen, sarean parte hartzen dutenek “nickname” direlakoak ezagutzen duten neurrian, harreman-eredua kontrolatu samar dagoela, ez itsua edo anonimoa, oso egoera jakin batzuetan izan ezik.

– Txateatzetik eta ordenagailu bidezko komunikaziotik zuzeneko, aurrez aurreko, harremanetara igarotzea gutxiengo baten kasuari dagokio bi sexuetan, baina batez ere nesken artean, haiek baitute errezelo gehien zuzenean harremanetan jartzeko garaian.

– Bereziki esanguratsua da *noizbait lehendik ezagutzen ez den norbaitekin gelditzea txataren bitartez*. Mutilei dagokienez, %14k bitarteko hori erabili ohi du adiskide berriak ezagutzeko, baina nesken artean, ordea, ehuneko hori %6,5era jaisten da. Alderdi hori balioztatzea zaila da, eta kezka handia sortzen die guraso zein irakasleei; dena dela, aldi berean, ezeztatu egiten du Interneten –eta, oro har, teknologia berrien– erabileraren inguruan zabalduen dagoen usteetako bat: ordenagailua gizarte-bakartzea eragiten duela jakintzat ematea, alegia. Datu hauek, nolabait, baieztapen hori zalantzan jartzen dute. Horri gehitzen badiogu, lehen ere aipatu dugunez, Messenger, Tuenti eta antzeko plataformak nahiko adin txikitik franko erabiltzen dituztela, uste dugu aurrean dugula balioztatzen zaila den, baina gizartekoitze-ereduei eraldaketa erabakigarria eragiten dien, errealitate bat.

**86. Taula. Zenbat nabigatu duzu Interneten zure astialdian azken hilabetean? Sexuaren arabera**

| MAIZTASUNA | NESKAK | MUTILAK | GUZTIAK |
|---|---|---|---|
| Egunero edo ia egunero 15 minutu inguru | 14,6 | 23,7 | 19,5 |
| Astean batzuetan | 23,6 | 15,6 | 19,3 |
| Behin ere ez | 18,9 | 17,6 | 18,2 |
| Asteburuetan bakarrik | 12,3 | 9,2 | 10,6 |
| Bizpahiru bider hilean | 10,3 | 7,4 | 8,8 |
| Behin baino ez | 8,3 | 8,7 | 8,5 |
| Astean behin | 6,5 | 8,8 | 7,7 |
| Egunero edo ia egunero bi ordu edo gehiago | 4,5 | 7,4 | 6,1 |
| Erantzunik ez | 1,1 | 1,6 | 1,4 |
| GUZTIRA | 100 | 100 | 100 |

Ordenagailuaren eta, zehazkiago, Interneten erabilerari dagokionez, esan behar da erabilera hori, oro har, “noizean behingoa” dela. Hain zuzen, %6,1ek baino ez zuen adierazi “mendean” zegoela, eta, hortaz, gutxienez egunean bi ordu ematen zituela jarduera horretan.

Nolanahi ere, tresna hori erabiltzea orokor bilakatzen ari da bai mutiletan bai nesketan, ia alde adierazgarririk gabe. Internet egunero edo astean batzuetan erabiltzen zutela adierazi zutenak %39,8 izan ziren, egunero 2 ordu ematen zituen %6,1az gain, lehen esan bezala. Guztira, %45 inguru dira (ia 2tik 1) goiko 86. Taulan ikusten denez.

**34. Grafikoa. Zenbat nabigatu duzu Interneten zure astialdian azken hilabetean? Adinaren arabera**




Erabilera horri adin-taldeen arabera behatzen badiogu (ikus 34. Grafikoa), ikusten da nagusiagoen taldeak zerbait gehiago erabiltzen duela Internet, baina aldeak oso txikiak dira; horrek aditzera ematen du teknologia berrietan sartzeko prozesua ia berdina dela, eta adin txikietan gertatzen dela.

**87. Taula. Bideo-jokoekin edo ordenagailu-jokoekin jolasten zara? Sexuaren arabera**

| JOKO-MOTA | NESKAK | MUTILAK | GUZTIAK |
|---|---|---|---|
| Ordenagailua | 33,6 | 26,9 | 29,8 |
| PlayStation | 17,0 | 34,2 | 26,9 |
| Nintendo | 31,2 | 19,6 | 24,5 |
| Game Boy | 14,2 | 17,6 | 16,1 |
| Ez da jolasten | 3,9 | 1,7 | 2,7 |
| **GUZTIRA** | **100** | **100** | **100** |

Bideo-jokoen edo ordenagailu-jokoen artean dauden motei dagokienez, esan behar da jokabide bat baino gehiago dagoela haiek erabiltzean, merkatuko joko-eskaintzaren ezaugarri berezien ondorioz, ziurrenik. Hala, PlayStation eta Game Boy mutilek erabiltzen dituzte batik bat, eta neskek, berriz, ordenagailu-jokoak eta Nintendo erabiltzen dituzte. Ziur aski, horrek euskarri bakoitzerako eskaintzen diren jokoen izaerarekin izango du zerikusi handia.

**88. Taula. Zenbat jolastu zara bideo-jokoekin edo ordenagailu-jokoekin zure astialdian azken hilabetean? Sexuaren arabera**

| MAIZTASUNA | NESKAK | MUTILAK | GUZTIAK |
|---|---|---|---|
| Astean batzuetan | 41,7 | 33,4 | 37,2 |
| Egunero edo ia egunero 30 minutu inguru | 9,5 | 18,7 | 14,4 |
| Astean behin | 14,9 | 12,0 | 13,3 |
| Egunero edo ia egunero 30 minutu baino gehiago | 6,4 | 17,2 | 12,2 |
| Bizpahiru bider hilean | 13,8 | 8,2 | 10,8 |
| Behin ere ez | 6,2 | 5,3 | 5,7 |
| Behin baino ez | 6,5 | 3,0 | 4,6 |
| Erantzunik ez | 1,1 | 2,1 | 1,6 |
| GUZTIRA | **100** | **100** | **100** |
| | **268** | **316** | **584** |

Era berean, 88. Taulako datuei begiraturik, ikusten da bideo-jokoen garrantzia handia dela oso. Bai mutilen bai nesken artean, ia %65 ohiko jokalariak dira. Zentzu hertsian, hau da, *egunero 30 minutu baino gehiago jolasten direnak,* %12,2 dira. Segmentu horretan mutilak gehiago dira neskak baino; mutilak askoz "lapatuago" daude, lehen ere esan denez.

- *Telebista*

Gaur egun, ezin pentsatuzkoa da aisiari loturiko jokabideak telebista albo batera utziz aztertzea. Telebistaren betekizunaz, saioen edukiaz eta abarrez dauden iritzi eta eztabaidak gorabehera, telebista, egiatan, funtsezko erreferentzia-elementua da, nerabeen unibertso sinbolikoa ulertuko bada. Haien erreferentzia, jokabide edo ereduetako asko telebistako mundutik atera dira; hain zuzen, telebistak badu ahalmen handia besteek antzera dezaten eragiteko, eta ezin baztertuzko erreferentzia-esparrua da.

Horregatik, oso interesgarria da ikasle hauek zer-nolako telesaioak ikusten dituzten jakitea, horrek ezagutarazten baitigu, gutxi gorabehera, zer pentsamolde-mota eratzen ari den:

**35. Grafikoa. Zein saio-mota ikusten duzu gehien telebistan? Sexuaren arabera**




Nabarmendu beharreko alderdi esanguratsu batzuk daude, 35. Grafikoan ikus daitekeenez:

– Lehenik eta behin, esan behar da *filmak, umorezko saioak, marrazki bizidunak* eta *kirolak* direla, hurrenkera horretantxe, nerabeek gehien ikusten dituzten telebista-emanaldiak.

– Bigarrenik, ikusten da neskek, oro har, telebista gehiago kontsumitzen dutela, mutilek baino, bi ataletan izan ezik: *kirol*etan (28 puntuko aldea dago) eta, neurri apalagoan, *dokumental*en eta *Espainiako saio*en ataletan.

– Neskei dagokienez, mutilekin konparaturik, alde handienak emanaldi-mota hauetan gertatzen dira: *marrazki bizidun*etan (12,4 puntuko aldea) eta *musika-saio*etan (10,8 puntuko aldea).

**89. Taula. Zenbat ikusi duzu telebista zure astialdian azken hilabetean?**

| KATEGORIAK | BATEZ BESTEKOA | TALDEAK** | |
|---|---|---|---|
| Publikoa | 3,180 | A | |
| Pribatua | 3,209 | A | |
| A eredua | 3,036 | A | |
| D eredua | 3,146 | A | |
| B eredua | 3,248 | A | |
| Bizkaia | 3,164 | A | |
| Gipuzkoa | 3,181 | A | |
| Araba | 3,410 | A | |
| Mutilak | 3,003 | A | |
| Neskak | 3,422 | | B |
| 12 urte | 2,917 | A | |
| 11 urte | 3,157 | A | |
| 10 urte | 3,204 | A | |
| 9 urte | 4,143 | | B |

** Badaude aldeak sexuaren eta adinaren arabera.

Fisher (LSD) / Taldeen arteko aldeen analisia %95,00eko konfiantza-tartearekin.

| PUNTUAZIO-ESKALA | |
|---|---|
| 1 | Egunero hiru ordu baino gehiago |
| 2 | Egunero 1-3 ordu |
| 3 | Egunero ordubete gutxienez |
| 4 | Astean batzuetan |
| 5 | Asteburuetan bakarrik |
| 6 | Astean behin |
| 7 | Bizpahiru bider hilean |
| 8 | Behin ere ez edo ia |

Telebista ikusteko maiztasunari dagokionez, ondorengoak esan behar dira:

- Lehenik, nabaria da telebistak presentzia handia duela nerabeen bizitzan. Aisiarako duten denboraren zati handi bat hartu ohi die. Ildo horretan, telebista ikusten duten pertsona guztiak, zenbat denboraz gorabehera, kontuan hartzen baditugu, guztien %61,3 dira.

– Bigarrenik, nolanahi ere nabarmendu behar da ezen –baldin, hipotesi gisa, arrisku-tartea egunean 3 ordu baino gehiago ikusten dutenena dela hartzen badugu– ikusten dugula nerabe guztien %11,4 geruza horretan dagoela, sexuaren araberako alde nabarmenekin; izan ere, 3 ordu baino gehiago ikusten duten mutilen ehunekoa %15,7 da, eta neskena, berriz, %6,5 (hortaz, aldea 9 puntukoa da). Horrenbestez, ondoriozta daiteke *mutilak neurri handiagoan daudela telebistaren mendera erorita, neskak baino.*

– Hirugarrenik, aditzera eman behar da sexuaren eta adinaren aldagaiek bakarrik dutela kolektibotik estatistikoki aldentzen den jokabide bat. Ildo horretan, esan behar da mutilek askoz gehiago ikusten dutela telebista, neskek baino, eta, lehen ere esan denez, zenbat eta urte gehiago bete, hainbat gehiago ikusten dutela. Horri dagokionez, ohartu behar dugu ezen, 89. Taulan ageri denez, 9 urteko ikasleek askoz gutxiago ikusten dutela telebista, gainerako adin-taldeen aldean.

- *Telebista-ordutegiak*

Telebista ikusteko garai nagusia gaua da, 36. Grafikoan argi ikusten denez, eta alde handiarekin, gainerako ordu-tarteekin erkatuz gero. Telebista-ordutegiak homogeneoak diren arren, badaude, dena dela, sexuaren araberako aldeak 36. Grafikoan atzeman daitekeenez:

**36. Grafikoa. Normalean zein ordutan ikusten duzu telebista egunero? Sexuaren arabera**




Lehen ere esan dugu mutilak telebistaren *menderago* daudela, neskak baino. Aldeak esanguratsuak dira estatistikaren aldetik, baina, gainera, atzematen denez, gorabehera txiki batzuk daude, sexuaren araberako jokabide desberdinak daudela adierazten dutenak. Hala, bada, esan dezakegu mutilek gehiago ikusten dutela telebista eskolara joan aurretik, 9 puntuko aldearekin, hots, egiaz esanguratsua den alde batekin. Aitzitik, eskolatik irten ondoren, neskek ikusten dute gehiago telebista.

**90. Taula. Normalean zein ordutan ikusten duzu telebista egunero? Adinaren arabera**

| ADINA | Eskolara joan aurretik | Eguerdian | Eskolatik irten ondoren | Gauean |
|---|---|---|---|---|
| 9-10 urte | 34,54% | 28,90% | 43,69% | 62,12% |
| 11-13 urte | 28,84% | 29,78% | 32,23% | 73,21% |
| (%) | 31,14% | 29,43% | 36,86% | 68,73% |
| N | 186 | 170 | 219 | 404 |

Adinari dagokionez ere badaude aldeak; hain zuzen, lehen esan dugu gazteenen (9 urte) jokabide-eredua besteenaz bestelakoa dela. Hala, nagusiek ez dute telebista ikusten eskolara joan aurretik, ez behintzat neurri berean, eta gazteenek, berriz, bai. Gure ustez, telebistan ematen diren saio-motek eragina izango du. Gauza bera gertatzen da eskolara irten ondoren.

Hala ere, argi dago ezen, arrazoia edozein dela ere, gaueko telebista-kontsumoa nabarmen txikiagoa dela 9-10 urtekoen artean, 11-12 urtekoen artean baino. Pentsatzen dugu gurasoen eraginak (ordutegiak mugatzea, zein saio-mota ikus dezaketen eta zein ez ezartzea) baduela zeregin handia lortu diren alde horietan, aldeok, hain zuzen, 11 puntu ingurukoak baitira.

- *Irakurtzea*

Azkenik, merezi du azpimarratzea gazteen artean irakurtzeak duen garrantzia. Ezaguna da, oso, gizartean dagoen eztabaida irakurtzeak gazteen artean duen betekizunaz, batez ere teknologia berrien gorakada gertatuz geroztik. Badirudi gauza jakina dela irakurtzeko ohiturak oso adin txikietan hasten direla; areago, batzuen esanetan, oso txikitan ez badira ohitura horiek hartzen, gero hartzea ezinezko gertatzen omen da.

Nolanahi ere, ikasleei galdetu zitzaien ea zenbat liburu irakurtzen zuten, eskolan eskatzen zizkietenez gain, eta lortutako emaitzak 91. Taulan ezarri dira.

**91. Taula. Zenbat liburu irakurri dituzu azken urtean eskolan eskatu dizkizutenetatik aparte, hau da, inork behartu gabe?**

| KATEGORIAK | BATEZ BESTEKOA* | TALDEAK** | | |
|---|---|---|---|---|
| Publikoa | 3,140 | A | | |
| Pribatua | 2,912 | | B | |
| Araba | 3,672 | A | | |
| Bizkaia | 3,068 | | B | |
| Gipuzkoa | 2,769 | | | C |
| B eredua | 3,098 | A | | |
| D eredua | 2,997 | A | | |
| A eredua | 2,786 | A | | |
| Neskak | 3,071 | A | | |
| Mutilak | 2,994 | A | | |
| 9 urte | 3,429 | A | | |
| 10 urte | 3,081 | A | | |
| 11 urte | 2,997 | A | | |
| 12 urte | 2,750 | A | | |

* Puntuazioen nondik norakoak hauek ziren: 1-Bat ere ez, 2-1etik 3ra, 3-4tik 7ra, 4-8tik 12ra, 5-13 edo gehiago.
** Sarearen eta lurralde historikoaren araberako aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.

Fisher (LSD) / Taldeen arteko aldeen analisia %95,00eko konfiantza-tartearekin.

Behin datuak aztertu eta identifikazio-aldagai adierazgarrienekin gurutzatu eta gero, ondorio hauek atera dira:

– Nabarmendu behar da ezen, nahiko ikuskera ezkor batzuen kontrara, 3. zikloko ikasleen irakurketaren batez bestekoa ikasturtean 4 liburutik 7 liburura artekoa dela, bestek agindurik irakurri behar ez dituzten liburuei dagokienez. Horrenbestez, gazteek irakurtzen ez dutelako iritzi orokor horren aurrean, datuek kontrakoa uzten dute agerian.

– Bigarrenik, datuen arabera, sare pribatuko ikasleek sare publikokoek baino gehiago irakurtzen dute.

– Hirugarrenik, aurkitu dugu lurralde historikoen artean badaudela estatistikaren aldetik esanguratsuak diren aldeak. Hain zuzen, Araban gehiago irakurtzen da Gipuzkoan baino eta Bizkaian baino.

– Laugarrenik, esan daiteke ez dagoela alde esanguratsurik sexuaren arabera, nahiz eta neskek gehiago irakurtzen duten, mutilek baino. Ikus daitekeenez, baina, batez bestekoen arteko aldea ez da estatistikoki esanguratsua.

– Azkenik, nabarmendu behar da ez hizkuntza-ereduek ez adinak ez dutela eraginik irakurtzeko ohituretan.

### 2.2. Jarrerak eta balioak, desberdintasunarekiko tolerantzia

Izenburu horren azpian, gazteen iritzi- eta balio-sistemei loturiko galdera batzuk jaso dira. Funtsean, neurri handiagoan edo txikiagoan, tolerantziari dagozkie, eta haien helburu nagusia da jakitea ea sexu-joera, etorkina izatea, ezintasunen bat izatea edo antzeko alderdiak naturaltasunez onartzen diren gizabidezko heziketa ireki eta tolerante baten barruan ala, aitzitik, gure artean oraindik pentsamendu-eskema zurrunek badirauten, desberdinen arteko komunikazio eta elkartzerako eragozgarri.

**37. Grafikoa. Zure ustez… (baiezko erantzunak) Sexuaren arabera**




Baiezko erantzunak jaso dira 37. Grafikoan, jendearen sexu-joerari, etorkina edo gutxiengo etniko batekoa (ijitoak kasu), izateari edo ezintasunen bat edukitzeari loturiko esaldiak aurkeztu direnean. Gai horietan muga garbirik ezartzea zaila den arren –oso arlo desberdinetakoak direlako eta, gainera, batzuek zentzu positiboan eta beste batzuk zentzu negatiboan adierazirik daudelako–, ikasleen baiezko erantzunak zehatz-mehatz aztertzeak agerian uzten ditu, antza denez, bat-egite edo alderdi interesgarri batzuk:

- Lehenik eta behin, aurkeztu diren gaien izaera dela eta, badirudi itxuraz erabateko adostasuna dagoela jarrera berdinzale eta toleranteak hartzean, aurkezten diren itemek kontzeptu edo ideia orokorrak adierazten dituztenean (esate baterako, *etorkinak gu bezalakoak dira eta tratu bera jaso behar dute)* edo, orobat, ondorengo baieztapenak duen izaera minoritarioaren aurrean: *homosexualitatea gaixotasun bat da.* Ildo horretan, gutxiengo bat kenduta, datuek erakusten dute gehiengoak onartzen dituela tolerantziaren eta berdintasunaren aldeko kontzeptuzko postulatuak.

  Baina oso bestelakoa da egoera, kontzeptuzko baieztapenez harago, zehazten eta deskribatzen hasten denean, eta, hortaz, egoera berei dagozkien jokabide zehatzak balioztatu behar direnean. Esan nahi baita, *berdin zait homosexualak ezkontzen badira, baina ezin ditut bi mutil edo bi neska elkarri musuka ikusi* itemaren aurrean, homosexualen arteko maitasunaren agerpen fisikoa arbuiatzeko jarrera hartzen duten ikasleak dira %45,9 mutiletan eta %43 nesketan, hau da, ia bitik bat.

  Gauza bera gertatzen da *hobe da gelan haur etorkinik ez egotea* galderaren aurrean Baiezko erantzunen ehunekoa %36,5 da mutiletan, eta %25,7 nesketan, zenbateko handi samarrak. Zer esan nahi du horrek? Nahiz eta esateko zaila den, gure aburuz, neska-mutilek erakusten duten jarrera helduek dutenaren oso antzekoa da, eta bizitzako berezko prozesu bat islatzen du, non jokabide zehatzak benetan barneratzea halakoen kontzeptuzko onarpenaren atzetik baitoa.

- Bigarrenik, beste alderdi interesgarri bat azpimarratu behar da. Aipatu nahi dugu generoaren araberako aldeak kasu guztietan izan direla esanguratsuak estatistikaren aldetik, salbu h) *Berdin zait homosexualak ezkontzen badira, baina ezin ditut bi mutil edo bi neska elkarri musuka ikusi* itemean. Zer esan nahi du horrek? Horrek esan nahi du ezen, ezagutzen ez ditugun arrazoi zenbaitengatik, mutilek askoz jarrera intoleranteagoa agertzen dutela, nesken aldean. Kasu batzuetan aldeak beregainekoak dira, hala nola *homosexualitatea gaixotasun bat da* galderaren aurrean, baina gauza bera ikusten da beste item batzuetan, 37. Grafikoan garbi asko ikusten denez.

**38. Grafikoa. Egin duzu honelakorik (ekintza positiboak) zure bizitzako momenturen batean (baiezko erantzunak). Sexuaren arabera**




Galdera-sortako galdera berari dagozkio 38. zein 39. grafikoak. Bereizi egin dira, alde batetik ekintza positiboak (ikus 38. Grafikoa) eta bestetik kontrabalioen agerpen diren ekintza negatiboak (ikus gorriz 39. Grafikoa) aurkeztearren. Horrela, garbiago ikusten da generoaren aldetik dagoen aldea eskuzabaltasuna, integrazioa edo laguntza ematea berezkoak dituen jokabide-multzoan, apalkuntza, zigorrak edo, gutxienez, gizarte-integraziorako oztopoak barne hartzen dituzten jokabideen multzoaren aldean.

Ekintza positiboak azterturik, argi eta garbi esan daiteke gazteak benetan solidarioak direla eta gizabidearen oso zentzu handia dutela, bai eta, aldi berean, hurkoengana oso jarrera eskuzabala izaten dutela ere, haiei laguntzen eta babesa ematen saiatzen baitira une oro. Ia %80k izaten ditu errespetuan eta laguntza ematean oinarritutako altruismozko jokabideak. Hala eta guztiz ere, item guztietan neskek jokabide eskuzabalagoa agertzen dute, mutilen aldean.

**39. Grafikoa. Egin duzu honelakorik (ekintza negatiboak edo kontrabalioak) zure bizitzako momenturen batean (baiezko erantzunak). Sexuaren arabera**




Jokabide negatiboei dagokienez, eguneroko bizitzan halakoek duten garrantziaren maila neurtzea objektiboki zaila da; hain zuzen, *Egin duzu honelakorik* ***zure bizitzako momenturen batean?*** (geuk markatu dugu enfasia) galdearen aurrean, zuhurtziaz jokatu behar da, zeren eta nork ez du, bada, bere bizitzan noizbait 39. Grafikoan gorriz jarritako horietakoren bat egin? Nolanahi ere, erantzunak aztertuta, parekotasun batzuk atera daitezke:

– Lehenik, kontu arin batzuetan –nolabait esatearren– izan ezik, hala nola *paperak lurrera botatzean,* halako jokabideen garrantzia txiki samarra dela.

– Bigarrenik, berriro ere generoaren araberako alde garrantzitsua atzematen da. Mutilek, alde handiz, neskek baino jokabide negatiboagoa dutela aitortzen dute. Item guztietan, lehenean izan ezik (*Nahiz eta paperontziak egon inguruan, lurrera bota ditut paperak),* aldeak estatistikoki esanguratsuak dira. Horri dagokionez, etorkinekin batera jolasteari uko egitea, behartsuei irain edo burla egitea %20aren nahiko gainetik daude mutilen kasuan, baina nesken artean %10 inguru baino ez dute.

## 3. DBHKO IKASLEENTZAKO GALDERA-SORTA

Galdera-sorta hau guztira 762 ikasleri egin zitzaien, eta hauek ziren ikasleon ezaugarri soziodemografikoak: inkestatuen sexuaren aldetik, 382 neskak ziren eta 380, mutilak; haien adinei dagokienez, 177k hamabi urte zituzten galdera-sorta egin zenean, 278k hamahiru urte zituzten, 169k hamalau zituzten, 84k hamabost zituzten, 44k hamasei urte zituzten eta 10ek hamazazpi urte edo gehiago zituzten; inkestatuen jaioterriari dagokionez, 86 Arabakoak ziren, 355 Bizkaikoak ziren, 241 Gipuzkoakoak ziren, 10 Espainiar Estatuko beste toki batzuetakoak ziren, eta 71 atzerrian jaioak ziren.

Dena dela, DBHko ikasleen adierazpenak interpretatzea errazagoa izateko, atal honetako gai batzuetan jaioterriaren aldagaia berrantolatuko dugu, eta bi talde orokor sortuko dira, hemen aztergai dugun balioen alderdiari dagokionez itxuraz duten antzekotasuna aintzat harturik: hartara, "Atzerritarrak" terminoarekin deitutako taldea –Espainiar Estatutik kanpo jaioriko guztiena, alegia– eta "Euskadi" deritzon taldea sortuko dira. Azken horretan, zuzentasun hertsiaren mugak hautsita, Euskadin (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa) jaio direnen erantzunak ez ezik, Espainiar Estatuko beste toki batzuetan jaiotakoen erantzunak ere sartuko dira. Nahiz eta geopolitikaren ikuspuntutik egokiagoa izango zatekeen Euskadin jaioak eta Espainiar Estatuko beste toki batzuetan jaioak "Espainiar Estatua" izeneko sailean sartzea, soziologiaren ikuspuntutik –bigarren horien adierazgarritasuna hain txikia izanik– hemen aurkeztu den aukera egokiagoa iruditu zaigu.

Azkenik, inkestatuen ikastetxe-motaren aldetik, 328 inkestatu ikastetxe publikoetakoak ziren, eta gainerako 434ak, aldiz, ikastetxe pribatuetara joaten ziren.

Behin lagina nolakoa zen jakin eta gero, galdera-sortaren beraren edukia (txosten honen azken zatian dator erantsirik) ezagutuko dugu, hemendik aurrera aurkeztuko diren atalen banaketa ulertu ahal izateko. Galdera-sortak hirurogeita hamar galdera ditu, eta galderok hiru ardatz nagusi dituzte.

Lehen ardatza –hurren sakon aztertuko duguna, hain zuzen– "Gizartekoitze-faktore eta -eragileak" izenburuaren azpian jarri da, eta familiari, eskolari, adiskide-taldeei eta komunikabideei buruzko galderak barne hartzen ditu.

Bigarrenik, hurrengo gai-blokeari "Balioak" deritzo, eta hartan sartu diren galderek adingabeen "Ikono adierazgarriak", "Astialdia eta aisia" kudeatzeko modua, bai eta "Ekologia eta ingurumena" arloaren barruko hainbat alderdi ere aintzat hartzen zituzten.

Hirugarrenik eta azkenik, "Jarrerak, desberdinekiko tolerantzia" ardatzaren inguruko informazioa biltzen da. Xedea da adingabeen pentsamenduak eta jokabideak ezagutzea gai jakin batzuk kontuan izanda: "Nesken eta mutilen arteko berdintasuna", "Ezgaitasunen bat duten pertsonak", "Etorkinak", "Homosexualak" eta "ETAren indarkeriaren aurreko jarrerak".

Gai-bloke bakoitzean aukera izango dugu DBHko gazteen erantzunak aztertzeko eta hainbat aldagai soziodemografikoren arabera erkatzeko (sexua, adina, hezkuntza-eredua, jaioterria, eta abar). Nolanahi ere, irakurlea taula eta grafiko gehiegirekin ez gogaitzearren, bakarrik erakutsi ditugu aldagaion araberako alde aipagarrienak agertzen dituztenak.

## 3.1. Gizartekoitze-faktore eta -eragileak

Adingabe hauek irizpidetzat dituzten balio eta kontrabalioak ezagutzen hasi baino lehen, komeni da halako balio edo kontrabalioak ezartzen dituzten gizartekoitze-faktore eta -eragileek duten betekizuna laburki aipatzea. Horretarako, atal honetan lehenik aztertuko dugu gazte inkestatuek familiari ematen dioten garrantzia, eta, horrenbestez, haien familia-egoerak eta balioztapen pertsonalak sakon ikertuko ditugu. Gero, eskolako egoeraz hautematen dituztenak aztertuko ditugu, eta hor sartuko dira bai beren errendimendu akademikoaz egiten duten balioztapena, bai tartean diren pertsonekin (ikaskideak, irakasleak, tutorea, eta abar) izaten dituzten gizarte-harremanak, besteak beste. Azkenik, zenbait komunikabiderekin dituzten harremanak izango ditugu aztergai. Atal honetan ikusiko dugu, besteak beste, komunikabide horiekin zenbat denbora ematen duten nahiz zer helbururekin erabiltzen dituzten.

### *3.1.1. Familia*

- *Gurasoen lana*

Familien barne-dinamika ulertu ahal izate aldera, familia horien nondik norakoak zein diren jakitea interesgarria, behintzat, bada. Hala, bada, heziketa-prozesuan –eta, beraz, arlo horretako balio-transmisioan– parte hartzen duten faktoretako bat da helduek seme-alabekin ematen duten denbora (denbora horren kalitateaz gain, noski).

Duela hamarkada gutxi batzuk arte, gizonek lan egiten zuten etxetik kanpo, eta emakumeak neurri handiagoan aritzen ziren umeak hezten; baina denok dakigu ezen, lan-arloan generoaren ikuspegia sartzean, Euskadiko familiaguneak oso denbora gutxitan eraldatu direla.

Hori esan eta gero, eta, besterik gabe, Euskadiko emakumeak lan ordainduaren esparruan sartzearen gorabehera ezagutze aldera, egokia iruditu zaigu gure lagin-taldekoen bi gurasoen lanbideak zein diren jakitea. Hori lortzeko, gazteei zegokien laukian x bat jartzeko eskatu genien, guraso bakoitzarentzako hamabi aukera proposatuta. Nolanahi ere, datuak era praktikoago batean aztertu ahal izateko, erantzunak ondorengo taulan ageri diren aukeren arabera berrantolatu ditugu.

**92. Taula. Amaren lana (%) Adinaren arabera**

| ADINA | Bere kontura lan egiten du | Besteren kontura lan egiten du | Lanbide liberala | Ez du lan egiten, edo etxean lan egiten du | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| 12-13 urte | 17,1 | 34,6 | 24,1 | 24,1 | **100** |
| 14 urte edo gehiago. | 13,2 | 38,9 | 19,0 | 28,7 | **100** |
| Guztiak | 15,6 | 36,2 | 22,2 | 25,8 | **100** |
| N | 107 | 248 | 152 | 177 | **684** |

Amen profilari dagokionez, ikusten dugu gaur egun ama gehienak (%36,26) besteren kontura aritzen direla lanean, eta %10eko aldea baino ez dietela ateratzen "Ez du lan egiten edo etxean lan egiten du" izenburuaren pean jarritako amei, azken horiek, hain zuzen, guztien %25,88 baitira.

Aitzitik, aipatu den azken kolektibo horretan sartzen diren aiten zenbatekoa ia hutsala da (%2,28). Gehienak (%42,01) beren kontura lan egiten dute, eta %35,3k, bestalde, besteren kontura.

**93. Taula. Aitaren lana (%). Adinaren arabera**

| ADINA | Bere kontura lan egiten du | Besteren kontura lan egiten du | Lanbide liberala | Ez du lan egiten, edo etxean lan egiten du | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| 12-13 urte | 43,3 | 34,2 | 20,3 | 2,1 | **100** |
| 14 urte edo gehiago. | 39,7 | 37,2 | 20,5 | 2,5 | **100** |
| Guztiak | 42,0 | 35,3 | 20,4 | 2,2 | **100** |
| N | 276 | 232 | 134 | 15 | **657** |

Aiten eta amen lan-egoerak zein diren jakin eta gero, kalkulatu egin daiteke zenbat gurasok dute aukera, oro har, etxean era jarraitu eta ohiko batean egoteko. Hala, 94. Taulan ikusten dugunez, etxeen %75,85etan bi gurasoek lan egiten dute, eta %23,1etan bakarrik lan egiten du guraso bakarrak.

**94. Taula. Etxean egoten diren guraso-kopurua (lan egiten duten ala ez kontuan hartuta) (%). Adinaren arabera**

| ETXEAN EGOTEN DEN GURASO-KOPURUA | Bat ere ez | Bat | Biak | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| 12-13 urte | 77,3 | 21,3 | 1,2 | **100** |
| 14 urte edo gehiago. | 73,4 | 25,8 | 0,6 | **100** |
| Guztiak | 75,8 | 23,1 | 1,0 | **100** |
| N | 578 | 176 | 8 | **762** |

Egia da datu horiek ematen duten informazioa kuantitatiboa eta alderdi jakin bati buruzkoa baino ez dela, eta bestelako datu batzuk beharko genituzkeela interpretazio sakonago bat egiteko, hala nola lanaldiak, ordutegiak, joan-etorrietarako denbora eta abar; hala eta guztiz ere, harrigarria, behintzat, bada zenbat etxetan duten bi gurasoek etxeko zereginez kanpoko lan bat eta, hortaz, seme-alaben heziketaz kanpoko lan bat. Informazio horri dagokion balioa emanik, abiapuntutzat bederen har dezakegu, aurrerago agertuko diren beste informazio batzuk kokatzeko.

Hain zuzen, datu horien artean nabarmendu behar da *"Zure gurasoak oso lanpetuta daude eta ahaztu egiten zaie non zauden eta zertan zabiltzan"* galderari emandako erantzunen eta amak egiten duen lanaren artean, amaren lana lehen aipatu diren kodeen arabera hartuta. Horri dagokionez, atzeman dugu ezen, amak lanbide liberal batean diharduenean, "Batzuetan" eta "Beti" erantzunen batura %13,25 dela, besteren kontura lan egiten duenean %12,6 dela eta, berriz, bere kontura edo etxean lan egiten duenean zenbatekoak jaitsi egiten direla: hurrenez hurren, %7,8 eta %5,1. Hortik ondoriozta daiteke ezen, neurri handiagoan edo txikiagoan, amaren lanak eragina duela heziketan duen engaiamenduan.

**95. Taula. Amaren lana (%)**
**("Zure gurasoak oso lanpetuta daude eta ahaztu egiten zaie non zauden eta zertan zabiltzan" itemari baiezko erantzuna eman diotenei dagokienez bakarrik)**

| AMAREN LANA | Guztira |
|---|---|
| Bere kontura lan egiten du | 7,8 |
| Besteren kontura lan egiten du | 12,6 |
| Lanbide liberala | 13,2 |
| Ez du lan egiten, edo etxean lan egiten du | 5,1 |
| Guztiak | 10,0 |
| N | 68 |

- *Familia-harremanak*

Baina, lehen ere aipatu dugunez, familiari eskaintzen zaion denbora eta haren kalitatea ez dira gauza bera. Bestela esanda, etxean denbora gehiago egoteak ez dakar berekin halabeharrez familiako kideen arteko harremanak onak izan daitezen. Horrenbestez, gazteek beren familia-harremanak nola balioztatzen dituzten jakin ahal izateko, 96. Taulan ageri diren erantzunen artean aukeratzeko eskatu genien. Horren inguruan jasoriko datuen arabera, %84,78k onartzen du harreman horiek "oso onak" edo "onak" direla.

**96. Taula. Nolakoak dira gurasoekin dituzun harremanak? (%). Sexuaren arabera**

| | Oso onak | Onak | Hala-holakoak | Txarrak | Oso txarrak | EE | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Neskak | 53,5 | 32,8 | 7,3 | 1,3 | 0,5 | 4,4 | **100** |
| Mutilak | 56,1 | 27,0 | 6,3 | 0,5 | 0,7 | 9,1 | **100** |
| Guztiak | 54,8 | 29,9 | 6,8 | 0,9 | 0,6 | 6,8 | **100** |
| N | 418 | 228 | 52 | 7 | 5 | 52 | **762** |

Baina familiako dinamikez egiten dituzten autobalioztapenetatik harago, ikus dezagun jarraian, balioen aldetik, zer garrantzi ematen dioten ikasleek familia-harreman onak izateari.

Horretarako, galdera horri erantzuteko eskatu genien, aukera hauek emanik erantzunean: "Ez da batere garrantzitsua", "Ez da oso garrantzitsua", "Nahiko garrantzitsua da" edo "Oso garrantzitsua da". Hala ere, emaitzen interpretazioa errazago egiteko, eskala berrantolatu dugu lehen biak batuz ("Nahiko edo oso garrantzitsua da"), batetik, eta hurrengo biak ("Ez da oso edo batere garrantzitsua"), bestetik. Horrela, atzeman dugu ezen familia-harreman onak edo oso onak adierazi zuten ia inkestatu guztiek (%99,23) ziotela harreman horiek "nahiko" edo "oso garrantzitsuak", baina ez zela gauza bera gertatzen beren familia-harremanak "hala-holakoak" edo "txarrak" zirela adierazi zutenen artean, zeren eta azken kolektibo horretako %12,9k esan baitzuen harreman horiek ez zirela "oso edo batere garrantzitsuak".

**97. Taula. Familia-harreman onak edukitzeari emaniko garrantzia dituzten familia-harremanak kontuan hartuta (%)**

| | Nahiko edo oso garrantzitsua da familia-harreman onak edukitzea | Ez da oso edo batere garrantzitsua familia-harreman onak edukitzea |
|---|---|---|
| Familia-harreman txarrak edo hala-holakoak | 87,0 | 12,9 |
| Familia-harreman onak edo oso onak | 99,2 | 0,7 |

Hori bi ikuspuntutik interpreta daiteke, aintzat hartuta adingabeen balioztapena familiako egoera horrelakoa izan aurretikoa ala ondorengoa den. Hala, bada, lehen hipotesiaren arabera, adingabekoak har genitzake familiako giro negatiboaren sortzailetzat, beren lehentasunen ordenan familiako harremanei ematen dieten tokiagatik; bigarren hipotesiaren arabera, ordea, defentsa-mekanismo bat litzateke, adingabearen ongizate psikologikoa lortzeko helburua lukeena, ohartuki edo oharkabez, familian duen egoeraren aurrean. Hala ere, familiari loturik tartean diren aldagaien konplexutasuna dela eta, daitekeena da bi faktoreek elkartzen diren eraginak izatea, bata edo bestea baztertu gabe, eta, hala, egoeraren kausa eta ondorioa izatea aldi berean.

- *Ikaskuntza-estiloak eta portaerazko ondorioak*

Ikasleek familia-harremanez egiten duten balioztapena ezagutu eta gero, aita-amen eta seme-alaben artean egoten diren dinamikak sakonago ikertuko ditugu. Zehazki, atal honetan aztertuko ditugu adingabeek gurasoengandik portaeraren arabera jasotzen dituzten erantzunak, eta begiratuko dugu ea alderik dagoen portaera egokia dutenean edo portaera desegokia dutenean izaten diren ondorioetan. Ikus dezagun.

Horretarako, ikasleei galdetu genien portaera egokia zutenean ea gurasoek zer erreakzio zuten, eta erantzuteko 40. Grafikoan ageri diren aukerak zituzten. Grafiko horren barretan, bilduriko datuak era bakunagoan aurkezteko, "Beti" adierazten zuten erantzunei "Batzuetan" erantzunak gehitu dizkiegu.

**40. Grafikoa. Zure portaera egokia denean, gauzak ondo egiten dituzunean... Sexuaren arabera**




Ikus dezakegunez, datuek aditzera ematen dute ehuneko handienek komunikazioa eta emozioen adierazpena sustatzen duten jarrerak ordezkatzen dituztela; hain zuzen ere, %84,12k aukeratu zuen "Gurasoek zorionak ematen dizkizute eta poz-pozik jartzen dira", eta hurren, %74 inguruk, "Gurasoek poztasuna adierazten dizute musu eta besarkadekin" edo "Gurasoek gauzak ondo egiten dituzula esaten dizute besterik gabe", azken bi aukera horietan nesken ehunekoa handiagoa dela, mutilena baino.

Dena dela, nabarmendu egin behar da zein ehuneko handitan (%47,24) uzten dute gurasoek seme-alabak batere indargarririk gabe. Itxuraz hotza eta pasiboa den jokabide hori kaltegarria da psikoheziketaren aldetik, adingabeek egunez egun berenganatzen baitituzte jokabide-ohitura batzuk, eta helduaroko nortasunaren oinarria izango diren ezaguera batzuk barneratzen. Oso daitekeena da horren ondorioak larriago bihur daitezen, baldin, aldi berean, pentsamendu kritikoa eta autonomoa sustatzen ez badira, pentsamendu-mota horiek beharrezkoak izanik haien portaerekin bat datorren berezko atsegin bat lortzeko.

Planteamendu horixe oinarri hartuta, ez da garrantzi gutxiagokoa portaera egokien ondorioz ematen diren indargarri materialen (eta ez dira, halabeharrez, emozionalak) ehuneko handia, halako sariak %46,06 ere badirela. Datu horren aurrean, nahitaez galdetu behar dugu horrek eraginen bat ote duen balioen transmisioan, eta hala izanez gero, nola gertatzen den.

Horri dagokionez, gizartean onartuta –edo planteatuta, bederen– dagoen hipotesia da ezen opari materialez baliatzeak hartzailearengan jarrera materialistago eta kontsumistagoa izatea eragiten duela. Hipotesi horren sendotasuna egiaztatze aldera, galdera-sortaren bitartez bilduriko datuak aprobetxatuko ditugu.

Oraingo honetan, aztertu dugu adingabeek zer balio ematen dioten diruari, indargarri materialak jaso ohi dituzten ala ez aintzat hartuz.

**41. Grafikoa. Seme-alabek diruari ematen dioten garrantzia, gurasoek seme-alaba horiekin sari materialak erabiltzen dituzten ala ez kontuan hartuta**




Hala, bada, 41. Grafikoan ikus dezakegunez, ondoriozta daiteke adingabeek diruari ematen dioten garrantzia baduela zerikusia hartzen dituzten indargarri materialekin. Hain zuzen, normalean indargarri materialik jasotzen ez dituzten gazteek garrantzia kentzen diote diruari (%56,4k uste zuen dirua irabaztea ez zela “oso” edo “batere” garrantzitsua), indargarri materialak maizago hartzen dituztenei kontrajarrita (%43,6).

Behin gazteek etxean portaera egokia izatearen ondorioak, afektuzkoak zein materialak, aztertu eta gero, ikus dezagun orain gurasoek nola kudatzen dituzten zigorrak portaera desegokien aurrean.

**98. Taula. Zure portaera desegokia edo gogaikarria denean, gaizki portatzen zarenean, gurasoek (%). Sexuaren arabera**

| SEXUA | Agirika egiten dizute eta haserretu egiten dira | Zigortu egiten zaituzte eta ez dizute uzten irteten, bideo-jokoekin jolasten, ordenagailuan ibiltzen edo gustatzen zaizkizun gauzak egiten | Zigortu egingo zaituztela esaten dizute baina gero ez dute egiten | Belarrondoko bat ematen dizute | Lasai azaltzen dizute zergatik dagoen txarto egin duzuna | Portaera zuzentzera behartzen zaituzte |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Neskak | 76,1 | 49,0 | 49,6 | 8,9 | 60,6 | 76,6 |
| Mutilak | 74,0 | 53,8 | 42,2 | 17,8 | 53,5 | 77,1 |
| Guztiak | 75,0 | 51,4 | 45,9 | 13,3 | 57,0 | 76,9 |
| N | 572 | 392 | 350 | 102 | 435 | 586 |

Horri dagokionez, taulan ikus dezakegunez, portaera egokien kasuan gertatzen zen modu berean, neskek abantaila handiagoa dute mutilen aldean; izan ere, neskei %60,6tan azaltzen zaie lasai zergatik dagoen txarto egin dutena, eta mutilei, aldiz, %53,5etan. Gurasoek ehunekoen arteko alde berari eusten diote zigortzeko mehatxatu, eta azkenean zigor horiek ez ezartzean. Horrenbestez, mutilen aldean, neskek maizago erdiesten dute zigorra saihestea.

Hala ere, aita-amek izaten duten jarrera horren hartzaileen sexua gorabehera, portaera desegokiagatik inongo ondoriorik, oro har, jasaten ez duten gazteen ehuneko handiaz gogoeta gehiago egin beharko litzateke. Hain zuzen ere, gero eta indibidualistago eta lehiakorragoa den gizarte batean –non gero eta sarriago hartzen baitugu arautzat “nahi dut” esatea, “behar dut” esatea baino edo non maizago jotzen baitugu eskubideetara, betebeharretara baino– ezin eztabaidatuzkoa gertatzen da arduraren (indibiduala nahiz kolektiboa) balioa eta antzekoak barneratzearen garrantzia eta beharra. Horretarako, geure portaerekin kontsekuenteak izatea edo, bestela esanda, geure jokabide eta jarreren ondorioak ezagutu eta onartzea *conditio sine qua non* izatea suertatu da pertsonaren osoko heltze-prozesuan.

Psikoheziketaren ikuspegitik, ez dugu ahaztu behar prozesu horren helburu nagusietakoa dela geure adingabeak pertsona autonomo eta bizitzaren arlo guztietarako gai bihurtzea. Horretarako, oso komenigarria da gure ekintzen ondorioek ahalbide dezaten zuzeneko ikaskuntza bat, ikaskuntza horixe eragiten duen portaerarekin lotura duena; hori berez sortzen den zerbait da giro natural batean, baina aldez aurretiko azterketa bat behar izaten du familiaren ingurunean era artifizialean sortzen denean.

Hain zuzen ere, portaeraren eta ondorioaren artean loturarik ez egote hori gertatzen da ikaskuntza-metodotzat belarrondokoa erabiltzen denean. Gainera, 98. Taulan jasotzen denez, teknika hori bi aldiz gehiago baliatzen da mutilekin, neskekin baino; azken horiekin, aitzitik –lehen ere esan dugunez–, denbora gehiago ematen da haien hutsegitearen arrazoia lasai azaltzeko.

Belarrondokoa erabiltzeak, nahiz eta ondorio erreal eta praktikoak ematen dituen, zigorraren mehatxu hutsak ematen ez dituenak, hain zuzen, ez du sustatzen hainbat trebetasun eta gaitasun gara daitezen, hala nola gogoeta, azterketa kritikoa, komunikazioa, gatazken ebazpena edo aurre egiteko hainbat teknika, besteak beste, pertsonaren osoko garapenerako beharrezkoak direnak; gainera, uste dugu adin horietan gaitasun horiek egon badaudela, eta gurasoek bultzatu egin beharko lituzketela, era teorikoan zein praktikoan (ordezko ikaskuntzaren bitartez), gurasoak baitira, hain zuzen, seme-alaben arduradun nagusiak eta, horrenbestez, erreferentzia-puntuak eta jarraitzeko ereduak.

Aita-amek, seme-alabekin dituzten zailtasunak konpontzeko garaian, aurre egiteko dituzten estiloen ondorioak neurtzeko asmoz, bi aldagai gurutzatu ditugu. Alde batetik, seme-alaben portaera desegokia denean egindakoa zergatik dagoen txarto lasai azaltzen duten gurasoen eta, egoera berean, belarrondoko bat ematen duten gurasoen arteko aldeak aztertu ditugu. Ikus dezagun emaitza.

**99. Taula. Adingabeek gatazkak ebaztea, gurasoek haiekin gatazkak ebazteko erabiltzen duten metodoaren arabera (%)**

| | Elkar jotzen dugu eta asko haserretzen gara | Hitz egiten dugu, baina kostatu egiten zaigu ados jartzea | Egun batzuetan ez diogu elkarri hitz egiten eta gero adiskidetu egiten gara | Ez diogu gehiago hitz egiten elkarri |
|---|---|---|---|---|
| Zure portaera desegokia denean, gurasoek belarrondoko bat ematen dizute | 12,2 | 52,0 | 32,6 | 3,0 |
| Zure portaera desegokia denean, gurasoek lasai azaltzen dizute zergatik dagoen txarto egin duzuna | 5,9 | 61,5 | 31,2 | 1,1 |

Datuak ikusita, "Batzuetan" edo "Beti lasai azaltzen didate zergatik dagoen txarto egin dudana" erantzun zutenen %61,6 saiatzen da lagunekin hitz egiten haiekin haserretzen denean, eta belarrondokoak hartzen dituztela esaten dutenen artean, berriz, ehuneko hori %52ra murrizten da.

Horrez gain, datuak alderantzizkoak dira lagunekin gatazka dutenean elkar jotzen duten eta asko haserretzen direnen kasuan. Halakoetan, gaizki portatzen direnean etxean belarrondokoa hartzen dutenen ehunekoa handiagoa da (%12), gauzak lasai azaltzen dizkietenekin erkatuz gero (%6).

Beraz, nahiz eta adingabeak tratatzen dugun erak ez duen determinatzen haiek beren berdinekin gero erabiliko duten tratua, badirudi zentzuzkoa ondorioztatzeak ezen horrek bai izango duela nolabaiteko eragina haiengan, etxean komunikazio handiagoa eta afektuzko aberastasuna dituztenek lagunekin ere horiexek erabiltzen dituztelako, itxura denez, eta etxean gatazkak belarrondokoekin konpontzen dizkietenek, aldiz, neurri handiagoan baliatzen dutelako indarkeria fisikoa gatazkak ebazteko bidetzat.

- *Elkarrekin emandako denbora kudeatzea*

Atal honetan, jakiten saiatuko gara ea zertan eta nola ematen duten elkarrekin egoten diren denbora guraso-umeek. Zartan aritzen zara? Nola izaten dituzte harremanak?

Hasteko, aitek eta amek seme-alabekin nolako engaiamendua duten aztertuko dugu. Horretarako, adingabeei galdetu genien zenbat aldiz gertatzen ziren 100. Taulan ageri diren jarduerak. Taula horretan "Batzuetan" eta "Beti" aukeratu zutenen erantzunak bildu dira.

**100. Taula. Zenbat bider gertatzen dira honelako egoerak zure etxean (%). Sexuaren arabera**

| EGOERAK | SEXUA | | Guztiak | N |
|---|---|---|---|---|
| | Neskak | Mutilak | | |
| 1. Amarekin jolasten zara edo hizketaldi atseginak izaten dituzue | 75,8 | 73,2 | 74,5 | 568 |
| 2. Aitarekin jolasten zara edo hizketaldi atseginak izaten dituzue | 60,6 | 70,3 | 65,4 | 499 |
| 3. Amak etxeko lanak egiten laguntzen dizu | 47,5 | 41,3 | 43,9 | 335 |
| 4. Aitak etxeko lanak egiten laguntzen dizu | 43,0 | 37,8 | 40,4 | 308 |
| 5. Gurasoek zurekin irteten diren lagunak ezagutzen dituzte | 72,9 | 70,3 | 71,6 | 546 |
| 6. Zure gurasoak oso lanpetuta daude eta ahaztu egiten zaie non zauden eta zertan zabiltzan | 8,1 | 12,8 | 10,5 | 80 |
| 7. Ama eskolako bileretara joaten da | 83,4 | 83,2 | 83,3 | 635 |
| 8. Aita eskolako bileretara joaten da | 46,9 | 50,1 | 48,5 | 370 |
| 9. Bakarrik gelditzen zara etxean nagusirik gabe | 59,3 | 58,2 | 58,7 | 448 |
| 10. Zinemara, antzerkira eta abar joaten zara gurasoekin, telebista ikusten duzu haiekin | 65,8 | 64,8 | 65,3 | 498 |

Eskolako bileretara joateari dagokionez –eta begiratu gabe, gurasoen lana aztertzean aipatu dugunaren harira, lan ordainduan sartu diren ala ez–, gaur egun amak arduratzen dira oraindik ere halako bileretara joateaz, aitekin erkatuta aldea 35 puntukoa dela, ehunekotan.

Beste datu interesgarri bat da ezen, nahiz eta gurasoekin baterako jardueretan maiztasun berarekin parte hartzen zutela esan zuten (%65), adierazi zutela amekin hizketaldi atsegin gehiago izaten zituztela (%75), aitekin baino (%65).

Dena dela, taulako daturik adierazgarrienak dira bakarrik, etxean heldurik egon gabe, gelditzen diren adingabeen ehuneko handia (%58,8) eta, batez ere, oso lanpetuak egoten diren eta seme-alabak non dauden eta zertan ari diren ahazten zaien gurasoen ehunekoa (%10,5).

Azterlan honen interesguneetako bat da ikertzea zein diren gurasoen eta adingabeen arteko desadostasun nagusiak. Zer arrazoi izan ohi dituzte eztabaidatzeko? Badago alderik adinaren, sexuaren edo beste aldagai soziodemografikoren baten arabera?

Horretarako, gazteei egoera-zerrenda bat aurkeztu, eta galdetu genien ea zer maiztasunez gertatzen zen haietako bakoitza gurasoekin eztabaidatzeko arrazoi. Ondorengo grafikoan "Askotan" eta "Batzuetan" erantzun zutenen emaitzak ageri dira batera.

**42. Grafikoa. Zenbat aldiz izaten dira hurrengo gaiak zure gurasoekin eztabaidatzeko arrazoia. Sexuaren arabera**




Lortutako emaitzei begiratuta, baiezko erantzunen kopurua %20aren eta %60aren artekoa da, osagai bakoitzaren arabera. Hala ere, gehienak %20aren eta %30aren artean biltzen diren arren, hiru elementu nabarmentzen dira besteen gainetik.

Ikus dezakegunez, eztabaidatzeko arrazoi nagusien buruan "Ikasketak" daude, %57 dute eta, eta horretan, gainera, mutilek 10 puntuko aldeaz gainditzen dituzte neskak.

Baina, zer guraso-eredu aritu ohi da eztabaidan adingabeekin ikasketak direla eta? Arrazoia edozein dela ere, seme-alabei etxeko lanak egiten laguntzen denborarik ematen ez dutenak ala, aitzitik, engaiamendu handiagoa dutenak?

Zalantza hori argitze aldera, gurutzatu egin ditugu gurasoen engaiamenduari dagokion aldagaia ("Gurasoek etxeko lanak egiten laguntzen dizute"), batetik, eta ikasketak eztabaidatzeko arrazoitzat adierazten duen aldagaia ("Ikasketak dira batzuetan edo askotan gurasoekin eztabaidatzeko arrazoia"), bestetik.

Grafikoen islaturik geratzen denez, %15eko aldea dago lehen taldearen eta bigarren taldearen artean, eta hortik ondorioztatzen dugu ezen, seme-alaben eskola-errendimenduaz kexatzen diren gurasoen artean, gehienak errendimendu horrek aurrera egin dezan zuzenean engaiatzen direnetakoak direla. Nolanahi ere, eta korrelazio bat izaki, ezinezkoa da zehaztea zein den aurrekaria eta zein den atzekaria. Esan nahi baita, ezin zehatz dezakegu ea umeei etxeko lanak egiten laguntzen dieten gurasoek gehiago eskatzen dieten horretan engaiatu direlako, hain zuzen, ala engaiatzea erabaki duten aurretik izan dituzten eztabaiden ondorioz.

**43. Grafikoa. Gurasoek etxeko lanak egiten laguntzen dizute ala ez? (bakarrik "Ikasketak gurasoekin eztabaidatzeko arrazoia dira" itemari "Batzuetan" edo "Askotan" erantzun diotenak kontuan hartuta)**




Iturria: guk egina, 2008.

Bigarrenik, "ikasket"en ondotik, "erantzun txarrak" datoz, %55arekin. Kasu horretan, batez bestekoa gorabehera, berria da historiaren aldetik neskek izatea gehienbat halako eztabaidak, mutilen gainetik 16 puntuko aldea dutela. Nola azaltzen da hori?

Berriz ere harturik sozioafektibitatearen aldetik zegoen desberdintasunari buruz lehen lortu diren emaitzak, edo are gurasoek umeen sexuaren arabera izaten duten etorkortasunari buruzko datuak, galdetu egin dezakegu, bederen, familia barruko komunikazioa sustatu beharrean, ez ote duten izango eragin negatiboa alaben portaeran.

Hirugarrenik, %43 duela, gazteek "Ordenagailuaren erabilera" identifikatzen dute gurasoekin eztabaidatzeko arrazoi nagusien artean. Honetan ere neskek sortzen dituzte neurri handiagoan gatazkak, mutilen gainetik %10eko aldea dutela. Adingabeek teknologia berrien arloan dituzten kontsumo-ohiturak hobeto ezagutuko ditugu "Komunikabideak" atalean.

- *Familia-egiturei buruzko iritziak*

Atal honen xedea da jakitea ea zein familiagune-eredu jotzen dituzten gazteek berez familiatzat, eta ea zer faktore hartzen dituzten erabakigarritzat beren iritziak osatzeko. Horretarako, adingabeei galdetu genien ea ondorengo taulan ageri diren ereduak familia bat ote ziren haien ustez, eta baiezko erantzunak bildu ditugu.

**101. Taula. Zure ustez, ondoko bizimoduak familia bat dira? (%). Sexuaren arabera**

| FAMILIAGUNE-EREDUAK | SEXUA | | Guztiak | N |
|---|---|---|---|---|
| | Neskak | Mutilak | | |
| 1. Emakume bat eta gizon bat, ezkonduta, seme-alabekin edo seme-alabarik gabe | 93,1 | 88,1 | 82,1 | 691 |
| 2. Emakume bat eta gizon bat, elkarrekin bizi direnak ezkondu barik, seme-alabekin edo seme-alabarik gabe | 76,3 | 67,4 | 71,9 | 548 |
| 3. Emakume bat eta seme-alabak | 72,4 | 60,8 | 66,6 | 508 |
| 4. Gizon bat eta seme-alabak | 69,0 | 58,0 | 63,5 | 484 |
| 5. Bi gay seme-alabarik gabe | 56,9 | 46,4 | 51,7 | 394 |
| 6. Bi lesbiana seme-alabarik gabe | 56,1 | 48,2 | 52,2 | 398 |
| 7. Bi gay seme-alabekin | 80,0 | 62,9 | 71,5 | 545 |
| 8. Bi lesbiana seme-alabekin | 81,1 | 63,5 | 72,3 | 551 |

Lorturiko datuei behatuta, funtsezko ideia hauek azpimarratu behar dira.

– Lehenik, baldintza berdinetan (adibidez, "Emakume bat eta seme-alabak" edo "Gizon bat eta seme-alabak"), aldeak txikiak diren arren, neurri handiagoan jotzen direla familiatzat emakumeek osatzen dituztenak, gizonek bakarrik osatzen dituztenak baino.

– Gainera, eta bigarrenik, ehuneko hori handiagoa da seme-alabak tartean daudenean, familiagunean halakorik ez dagoenean baino (adibidez, "Bi lesbiana seme-alabekin" eta "Bi lesbiana seme-alabarik gabe").

– Eta hirugarrenik, nabarmendu behar da ezen, aztertzen den familia-egitura edozein izanik ere, neskek joera handiagoa dutela familia-eredu alternatiboak onartzeko, mutilen aldean. Itxura denez, pentsamolde irekiagoa dute. Hori erakusten dute, behintzat, haien aldera lerratzen diren batez bestekoen arteko aldeek.

• *Adingabeek etxeko zereginetan laguntzea*

Atal honen xedea da jakitea DBHko gazteak zenbateraino engaiatzen diren etxeko zereginetan. Horretarako, "Bai" edo "Ez" erantzuteko eskatu genien, beren bizipenen arabera, ondorengo taulan ageri diren esaldiei.

**102. Taula. Esan ea honelakorik egin duzun (%). Sexuaren arabera**

| SEXUA | Etxean laguntzen dut (mahaia ipini, zarama jaitsi, etab.) gurasoek eskatu gabea | Gurasoek eskatuta baino ez dut laguntzen etxean | Neba-arrebekin edo lagunekin haserretzen naizenean, haiena izaten da errua | Gehienetan, gurasoek nik egin ditzakedan gauza asko egiten dizkidate | Gauza bat kostatzen zaidanean, ez egiten saiatzen naiz | Gauza bat kostatzen zaidanean, egin egiten dut, nire eginbeharra delako |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Neskak | 77,4 | 37,8 | 25,9 | 58,0 | 32,8 | 75,5 |
| Mutilak | 79,2 | 42,5 | 32,0 | 69,5 | 36,2 | 75,5 |
| Guztiak | 78,3 | 40,1 | 29,0 | 63,7 | 34,5 | 75,5 |
| N | 597 | 306 | 221 | 486 | 263 | 576 |

Ikus dezakegunez, etxeko zereginak egiterakoan, gazteen ehuneko handi batek (%78,3) adierazten du etxean laguntzen duela gurasoek hala eskatu gabe.

Nolanahi ere, “Gehienetan, gurasoek nik egin ditzakedan gauza asko egiten dizkidate” itemari baiezkoa eman zion ikasle-kopurua ere nabarmentzen da, guztira %63 izan zirela. Halakoetan, taulan jasoriko datuen arabera, adingabeen sexuaren arabera dagoen aldea ere (%11) harrigarria da. Hain zuzen, mutilen %70ek onartu zuen laguntza hori jasotzen zuela, eta nesketan, berriz, %58k baino ez zuen hori onartu.

Datu horietatik ondorioztatzen da ezen, nahiz eta neska-mutilek etxeko zereginetan neurri berdintsuan laguntzen dutela esaten duten, haien aita-amek, hain zuzen, jarraitzen dutela bereizkuntzak ezartzen etxeko zereginetan parte-hartzeko eskatzean. Horrek bultzatzen du, zalantzarik gabe, lehendik ezarririko gizarte-rolek iraun dezaten, eta oztopatzen du halako lanetan berdintasuna egon dadin; horrek bere ondorioak izango du gizarte eta lanaren aldetik.

Azkenik, datuen arabera, badirudi gurasoengandik jasotzen duten laguntzak ez dituela murrizten haien adorea eta hobetzeko nahia; izan ere, %75ek adierazi zuen “gauza bat kostatzen zaionean, egin egiten duela, haren eginbeharra delako”.

### *3.1.2. Ikastetxea*

Atal honetan, DBHko ikasleen eskola-inguruneko nondik norakoak ezagutu ditugu: beren errendimendu akademikoari buruzko balioztapenak; irakaskuntzaren inguruneko pertsonekin dituzten harremanak (gelakideak, irakasleak, tutoreak); eta ikastetxean duten portaera.

- *Eskola-errendimendua*

Gazteei “Zure ustez, nolakoa da zure lana eskolan, gelakoen lanarekin konparatuta?” galdetu zitzaien, eta erantzunak 44. Grafikoan bildu dira. Banaketa orokorrak badu Gauss-en

kanpaiaren nolabaiteko antza, baina arretaz aztertzen bada, ordea, ikusten dugu badagoela norberaren eskola-errendimendua neurriz gain balioztatzeko joera orokorra; izan ere, %10k uste du batez bestekoaren azpitik dagoela, eta %33ek, berriz, batez besteko horren gainetik dagoela dio.

**44. Grafikoa. Zure ustez, nolakoa da zure lana eskolan, gelakoen lanarekin konparatuta? Sexuaren arabera**




Badago deigarria, bederen, den beste datu bat, mutilak nesken gainetik kokatzea bi zentzuetan, alegia. Esan nahi baita, nesken aldean, mutilek %6 gehiago jartzen dute beren burua gelako batez bestekoaren gainetik, baina gauza bera egiten dute %5tan kontrako zentzuan, hots, beren burua gelako batez bestekotik behera jarririk.

Nola azaltzen da hori? Batetik, onar daiteke neskek egiaz batez besteko errendimendu bat dutela, eta mutilek, aldiz, bai gainetik bai azpitik egoten direla. Hala ere, beharbada logikoagoa da arrazoitzea hori ez dagoela datu objektiboetan oinarrituta, baizik eta adingabeen beren iritzietan. Hain zuzen, daitekeena da, errendimendu akademiko bera izanda, mutilek ausartago jokatu izana autobalioztapenetan, neskek baino, eta, hortaz, azken horien gainetik jarri izana bi muturretan.

- *Eskola-inguruneko harremanak*

Atal honen xedea da sakonago ezagutzea gazteek zer-nolako harremanak dituzten, beren ustez, eskola-inguruneko zenbait arlotan. Horretarako, 45. Grafikoan bildu dira DBHko ikasleek hezkuntza-sistemaren hiru zutabeez dituzten iritziak: gelakideez, irakasleez eta ikasgaiez, hain zuzen.

**45. Grafikoa. Nola definituko zenuke ikastetxean duzun egoera, kontuan hartuta... ("Oso ona" eta "Nahiko ona" erantzun dutenak bakarrik). Sexuaren arabera**




Oro har, eta aurkeztu ziren gai bakoitza sakon aztertu baino lehen, deigarria gertatzen da, mutilen aldean, neskek eman ditzaten balioztapen positiboenak alderdi guztietan. Hori uler liteke edo jarrerari loturiko ezaugarria dela (neskek nortasun baikorragoa agertzen dute egoera beraren aurrean) edo, aurreko kapituluan aurkitu diren komunikaziorako erraztasunak direla medio, neskek harremanetan gehiago sakon dezaketela eta haietaz gehiago goza daitezkeela.

Hipotesiak albo batera utzirik, ikus dezagun orain zer balioztapen ematen dioten alderdi bakoitzari. Grafikoa aztertuta, ikusten dugu puntuaziorik apalena ikasgaiei dagokiela; hain zuzen ere, gazteen %64k pentsatzen zuen haiei loturiko egoera "Nahiko" edo "Oso ona" zela.

Nahiz eta datu horrek ikasle gehienek "nahikoa" eman izana, nolabait esatearren, esan nahi duen, adierazgarria da %35ek irakasgai horiek motibazio- eta interes-iturritzat ez ikustea. Zer esan nahi ote du horrek?

Psikoheziketaren aldetik, zentzuzkoa da pentsatzea estimulu jakin batek (demagun, irakasgaia) gugan pizten duen interesaren mailak baduela lotura motibazio-mailarekin eta, beraz, estimulu horren inguruan izan nahiko dugun engaiamendu- eta sakrifizio-mailarekin. Nahiz eta horrek ez duen esan nahi ezen, baldin ikasleek ikasgai bat gustuko ez badute, ez dutela hura ikasiko (etxeko zereginei buruzko atalean ikusi dugu gazteen %75ek halakoak egiten zituela, kostatu arren), daitekeena da haien ahalegina alde batetik edo bestetik murriztea eta, okerrenean, gainerako ikaskideak ere kaltetzea, edo irakasleak, zuzen edo zeharka.

Ematen diren ikasgaietan interes gutxi izateak izan ditzakeen ondorio negatiboak ahalik eta gehiena murrizteko, eta kontuan izanik zenbat eta DBHko geletako ikasleen heren bat aipatzen ari garela, uste dugu kopuru hori nahikoa handia dela gurasoek, ikasleek eta irakasleek baterako gogoeta-lana egin dezaten, guztien ongizatea sustatzeko behar diren doikuntza eta esku-hartzeak aurrera eraman ahal izateko.

Irakasgaiei ematen zaien balioztapena albo batera utzirik, gazteen %71k esan zuen harremanak "Oso onak" edo "Nahiko onak" zituela.

Ideia horretan sakontze aldera, galdera-sortan ondorengo galdera sartu zen hezkuntzako langileek zuten engaiamendu-maiari buruz: "Nola sentitzen zara ikastetxean tutoreekin, irakasleekin, ikasketa-buruekin?", eta 46. Grafikoan ageri diren aukeretako bat hartzeko eskatu zitzaien ikasleei.

**46. Grafikoa. Nola sentitzen zara ikastetxean tutoreekin, irakasleekin, ikasketa-buruekin? Sarearen arabera**




Lorturiko datuei begiratuta, bi aldagai soziodemografikotan ikusten ditugu desberdintasunik handienak: ikastetxe-motan (publikoa-pribatua) eta jaioterrian (Euskadi-atzerria). Ikus dezagun.

Lehen aldagaiari dagokionez, ikastetxe pribatuetan %55,9k uste zuen "ikasketekin ez ezik gure bizitzarako garrantzitsuak diren beste gauza batzuekin ere kezkatzen" zirela, baina publikoetan, ordea, zenbateko hori %39ra jaisten da; horrek, gure aburuz, islatzen du lehen ikastetxe-motan ikasleez era osoago batean arduratzen direla.

**103. Taula. Nola sentitzen zara ikastetxean tutoreekin, irakasleekin, ikasketa-buruekin? (%). Jaioterriaren arabera**

| JAIOTERRIA | Uste dut ikasketekin ez ezik gure bizitzarako garrantzitsuak diren beste gauza batzuekin ere kezkatzen direla | Uste dut nahiko kezkatzen direla ikasketekin, baina ez gure bizitzako beste gauza batzuekin | Uste dut euren lana egiten dutela, euren eskolak eman, eta nahi duenak ikas dezala | Ez dut uste gutaz asko kezkatzen direnik, paso egiten dute | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Euskadi | 48,6 | 23,5 | 22,6 | 5,1 | **100** |
| Atzerritarrak | 62,1 | 15,1 | 22,7 | 0,0 | **100** |
| Guztiak | 49,8 | 22,7 | 22,6 | 4,7 | **100** |
| N | 361 | 165 | 164 | 34 | **724** |

Antzeko ehunekoa duen aldea (%13) ikus dezakegu 103. Taulan, galdera bera adingabeen jaioterriaren arabera aztertzen denean. Kasu horretan, atzerritarrek uste dute (%55,9) hezkuntzako arduradunak adingabeen ongizateari doazkien arazoez kezkatzen direla, ikasketez gainera.

Esan nahi du horrek ikastetxeetako arduradunak gehiago kezkatzen direla atzerritarren ongizateaz Euskadin jaiotakoenaz baino? Ez, nahitaez. Hain zuzen ere, gure ustez azalpen arrazoizkoagoa da ezen, beharbada, atzerritar ikasleek badituztela beste beharrizan batzuk, ikasketez gain, eta arduradunekin partekatzen dituztela, eta Euskadin jaiotako ikasleek, ordea, zailtasun gutxiago izaten dituztela arlo horretan, eta beraz, aukera gutxiago dituztela ikusteko pertsonak horiek zer engaiamendu-maila duten, hezkuntzazko jardueraz gain.

Eta, azkenik, espero izatekoa zenez, gazteek ikaskideei eman zieten puntuaziorik handiena; hala, bada, gazteen %90ek uste zuen ikaskideekiko harremanak kontuan hartuta haren egoera ikastetxean "Oso ona" edo "Nahiko ona" zela.

- *Lankidetzako jokabidea*

EAEko ikasleek eskola-ingurunean izaten dituzten lankidetzako jokabideak eta jokabide prosozialak aztertze aldera, eskatu genien adieraz zezatela zenbat aldiz parte hartzen zuten besteei laguntza edo zerbitzua emateari loturiko jardueretan, 104. Taulan jasota dagoen eran.

**104. Taula. Esadazu ea gauza hauek egiten dituzun (%). Sexuaren arabera ("Askotan" eta "Noizbait" erantzun dutenak bakarrik).**

| JARDUERAK | SEXUA | | Guztiak | N |
|---|---|---|---|---|
| | Neskak | Mutilak | | |
| 1. Gelan zailtasunak dituzten gelakideei lagundu egiten diet | 77,1 | 71,2 | 74,2 | 556 |
| 2. Gauzak konpartitzen ditut nik baino gutxiago dutenekin | 68,6 | 65,7 | 67,2 | 500 |
| 3. Borondatez parte hartzen dut ikastetxean proposatzen dizkidaten ekintzetan | 61,9 | 62,8 | 62,3 | 466 |
| 4. Planeta hobetzeko eta hainbeste ez kutsatzeko gauzak egiten saiatzen naiz | 55,3 | 56,9 | 56,1 | 428 |
| 5. Nire lagun taldearekin baino ez naiz jolasten, beste inorekin ez | 51,8 | 51,7 | 51,8 | 383 |
| 6. Atsedenaldian, zailtasunak dituzten edo gelakideek hainbeste onartzen ez dituzten neska-mutilekin egoten naiz jolastokian edo haiekin ibiltzen naiz futbolean edo beste zer edo zertan | 38,7 | 54,7 | 46,6 | 348 |
| 7. Txiroei edo zailtasun asko dituzten pertsonei laguntzeko ekintzetan laguntzen dut | 40,6 | 37,0 | 38,8 | 296 |

Oro har, nabarmendu beharreko ideia da egoera guztien batez bestekoak, baiezko erantzunei dagokienez, ez duela %56 gainditzen, edo, bestela esanda, gazteen erdiak baino ez duela izaten altruismozko edo elkartasunezko jokabideak izaten ("Askotan" eta "Noizbait" erantzunak baturik).

Egoerak banan-banan aztertuta, zalantzarik gabe, baiezko erantzun gehien dituztenak dira "Gelan zailtasunak dituzten gelakideei lagundu egiten diet" (%74), "Gauzak konpartitzen ditut nik baino gutxiago dutenekin" (%67) eta "Borondatez parte hartzen dut ikastetxean proposatzen dizkidaten ekintzetan" (%62). Aitzitik, gutxien aurrera eramaten dituzten jarduerak dira "Txiroei edo zailtasun asko dituzten pertsonei laguntzeko ekintzetan laguntzen dut" (%39) eta "Atsedenaldian, zailtasunak dituzten edo gelakideek hainbeste onartzen ez dituzten neska-mutilekin egoten naiz jolastokian edo haiekin ibiltzen naiz futbolean edo beste zer edo zertan" (%46). Azken horri dagokionez, %16ko aldea aurkitzen dugu sexuaren aldagaiaren arabera. Hain zuzen, neskek uzkurrago jokatzen dute halako kasuetan sartzeko (%38,7), baina mutilek, zalantzarik gabe, askoz jarrera abegitsuagoa eta gizartekoiagoa izaten dute horren inguruan (%54,7).

Zer ondoriozta dezakegu datu horietatik? Oro har, badirudi gazteak laguntzeko prest daudela hurbileko pertsonei dagokienean eta parte-hartzeak sakrifizio handia eskatzen ez duenean. Horrek azaltzen du asko axola ez izatea dutena partekatzea, egoerak hala eskatuz gero, baina, ordea, ez ekitea ardura eta sakrifizio pertsonal handiagoa –gure ustez– berekin ekar dezaketen jarduerak sortzeari edo haietan parte hartzeari.

Ildo berean, harreman materialez gain, jarrera hori harreman pertsonaletan ere deigarria da. Hain zuzen, %27,5eko aldea atzematen dugu "Gelan zailtasunak dituzten gelakideei lagundu egiten diet" itemari baiezkoa ematen dioten ikasleen (%74,2) eta baiezkoa "Atsedenaldian, zailtasunak dituzten edo gelakideek hainbeste onartzen ez dituzten neska-mutilekin egoten naiz jolastokian edo haiekin ibiltzen naiz futbolean edo beste zer edo zertan" itemari eman dioten ikasleen (%46,6) artean.

Datuek agerian uzten dutenez, badirudi gazteek atzerapen handiagoa dutela pertsona behartsuei edo onartuak ez direnei laguntzeko. Dena dela, hurbilketa hori zerk eragozten duen zehazteko, beharrezkoa izango da zehatz-mehatz aztertzea adingabeen balio-eskala "Balioak" atalean.

### *3.1.3. Lagun-taldea*

Atal honen xedea da atzematea DBHko ikasleek beren berdinekin zer harreman dituzten, eskola-ingurunera mugatu beharrik gabe oraingoan. Zenbat adiskide dituzte? Haien harremanak nolako sendoak direla uste dute? Nola konpontzen dituzte beren gatazkak? Zer komunikazio-bide erabiltzen dituzte?

- *Kopurua*

Lehenik eta behin, jakin dezagun gazten horiek zenbat adiskide dutela uste duten. Horretarako, 105. Taulan jasoriko erantzun-aukerak zituen galdera egin genuen.

**105. Taula. Zenbat lagun dituzu? (%). Jaioterriaren arabera**

| JAIOTERRIA | Asko | Hainbat | Gutxi | Bat ere ez | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Euskadi | 75,1 | 21,5 | 3,1 | 0,1 | **100** |
| Atzerritarrak | 50,7 | 29,8 | 19,4 | 0,0 | **100** |
| Guztiak | 72,9 | 22,3 | 4,5 | 0,1 | **100** |
| N | 540 | 165 | 34 | 1 | **740** |

Ikus dezakegunez, nahiz eta gazte inkestatuen %95ek adiskide "asko" edo "hainbat" adiskide dituztela dioten, funtsezko aldeak adingabeen jaioterria erkatuz aurkituko ditugu. Zehazki, Euskadi jaiotakoen %3,1ek baino ez zuen adierazi adiskide "gutxi" zituela, eta atzerritarren kasuan, berriz, zenbateko hori %19,4ra igotzen da.

Datuak ikusita, begien bistakoa da adiskide-sare zabala garatzeko aukera askoz handiagoa dela bertakoentzat, atzerritarrentzat baino, baina, zer da desberdintasun horren kausa?

Batetik, arrazoizkoa dirudi toki batean zenbat eta gehiago bizi, berdinekin harremanak izateko aukera handiagoa izateak eta denboran zehar harreman horiei eusteak. Baina, zentzugabea ote litzateke galdetzea, gainera, ea atzerritar ikasleen jaioterria eragozpena izan daitekeen Euskadin onar ditzaten? Hau da, baztertzen ote dituzte etorkinak beren berdinen taldeetan? Hori sakonago ikusteko aukera izango dugu "Desberdinekiko tolerantzia" atalean.

- *Kalitatea*

Behin, haiek diotenez, gazteek izaten duten adiskide-kopurua ezagutu eta gero, adiskide horiek nola balioztatzen dituzten jakitea ere interesgarria iruditzen zaigu. Horretarako, 106. Taulan jasoriko erantzun-aukerak zituen galdera egin genuen.

**106. Taula. Nolakoak dira lagunekin dituzun harremanak? (%). Sexuaren arabera**

| SEXUA | Oso onak | Onak | Hala-holakoak | Txarrak | Oso txarrak | EE | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Neskak | 76,9 | 18,6 | 2,3 | 0,5 | 0,5 | 1,0 | **100** |
| Mutilak | 67,7 | 23,1 | 3,4 | 0,5 | 0,7 | 4,4 | **100** |
| Guztiak | 72,3 | 20,8 | 2,8 | 0,5 | 0,6 | 2,7 | **100** |
| N | 551 | 159 | 22 | 4 | 5 | 21 | **762** |

Lorturiko datuen arabera, ia gazte guztiek esan zuten adiskideekin harreman "onak" (%20) edo "oso onak" (%72) zituztela, oraingoan alde adierazgarririk ez dagoela, galdera-sortan jasotzen ziren aldagai soziodemografiko konplexuetan oinarrituta.

- *Gatazkak ebaztea*

Nahiz eta itxuraz sendoa den harreman-sare bat izan, denok dakigu horrek ez duela galarazten adiskideen artean ika-mikak edo gatazkak gertatzeko aukera. Horrexegatik, hain zuzen ere, saiatu gara aurkitzen halako egoeretan gatazkari aurre egiteko zer estrategia erabiltzen dituzten gehienbat.

"Lagun batekin haserretzen zarenean, nola konpontzen duzue arazoa?" galderari erantzun diotenen artean (107. Taula), ikusten da ezen, %91,4k adiskidetasun-harremanari eusteko gai dela dioen arren, lehen batean baliatzen dituzten bitartekoak asko aldatzen direla batetik bestera.

**107. Taula. Lagun batekin haserretzen zarenean, nola konpontzen duzue arazoa? (%). Sexuaren arabera**

| SEXUA | Elkar jotzen dugu eta asko haserretzen gara | Hitz egiten dugu, baina kostatu egiten zaigu ados jartzea | Egun batzuetan ez diogu elkarri hitz egiten eta gero adiskidetu egiten gara | Ez diogu gehiago hitz egiten elkarri | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Neskak | 1,6 | 62,8 | 33,9 | 1,6 | **100** |
| Mutilak | 12,0 | 54,3 | 31,6 | 1,9 | **100** |
| Guztiak | 6,7 | 58,6 | 32,8 | 1,7 | **100** |
| N | 50 | 434 | 243 | 13 | **740** |

Hala, bada, adingabeen %58,6k arazoak hitzaren bitartez konpontzea lortzen du, %32,8k, ordea, lagunari hitz egiteari uzten dio, besterik gabe, eta, areago, %6,7k indarkeriaz baliatzen da.

Datu horiek ikusirik, galdetu dezakegu, bederen, ea gizarte- eta politika-egitura berria ez ote da eragina izaten ari, era gutxi-asko zuzenean, adingabeen jokabidean. Ildo horretan, ez da zentzugabea galdetzea ea amen zein aiten lan-ordutegia luzatu izana, jaiotza-tasaren beheraldia eta gero eta lehiakorragoak eta indibidualistagoak diren bizi-estiloak (azken horien isla da gazteek bakarrik ematen duten ordu-kopuru handia) ez ote diren mugatzen ari pertsona arteko gaitasunen berezko trebetasunak, hala nola barkamena, esker ona, enpatia edo negoziazioa.

- *Komunikazio-erak*

Azken urteotan komunikazioen arloan izan den gorakada kuantitatibo zein kualitatiboa dela eta, gazteei galdetu genien, adiskideekin harremanetan egoteari zegokionez, zer era nahiago zuten. Horretarako, zerrenda egin genuen komunikatzeko bide horietako batzuekin, eta 47. Grafikoan sartu ditugu aukera horiek garrantzi "Asko" edo "Nahikoa" zutela usten zutenen erantzunak.

**47. Grafikoa. Lagunekin komunikatzeko, zenbateko garrantzia dute komunikabide hauek? (“Asko” eta *“Nahiko”* erantzun dutenak bakarrik). Sexuaren arabera**




Erabilienen artean (%80 inguru), lehenak ditugu “Messengerrak”, “Telefono mugikorrak / SMS mezuek” eta “Ikastetxeko jolastokian, autobusean... hitz egiteak” aukerak. Informazio horri esker jakinaren gainean berretsi dezakegu batzuek aurretik esaten zutena. Hain zuzen ere, gaur egun teknologia berriek hain dute leku garrantzitsu eta naturala geure bizitzetan, non ia hamarkada batean hartu baitute metodo tradizionalenek urteetan zehar izan duten garrantzia.

Sexuaren aldagaien eraginari begira, ikusten dugu neskek erabiltzen dutela gehiena edozein komunikazio-euskarri, “Interneten txateatze”ari dagokionez izan ezik, hori mutilek %5,6 gehiago aukeratu zuten eta. Datuei begiraturik, esan daiteke neskek, baliatzen den bidea edozein dela ere, mutilak baino gehiago komunikatzen direla, eta, horrenbestez, komunikatzeko euskarri gehiago erabiltzen dituztela, hala nola “Gutunak / posta” eta “Telefono mugikorrak / SMS mezuak”, %10,5eko eta %8,8ko aldearekin, hurrenez hurren.

### *3.1.4. Komunikabideak*

- *Internet*

Goiko atalean jaso denez, Internet da, itxuraz, harremanetan egoteko maizen erabiltzen diren bidetako bat. Baina zein da maiztasun hori? Adingabeek tresna hori zenbateraino ezagutzen duten eta zein maiztasunez erabiltzen duten ikertzeko asmoz, galdera egin genien, eta 48. Grafikoan ageri diren erantzun-aukerak jarri genituen.

**48. Grafikoa. Internet erabiltzen duzu?**




Datuak ikusita, Internet ezagutzeari dagokionez, atzeman dugu EAEko gazteen ia %100ek ezagutzen dutela gaur egun Internet, eta, nahiz eta gutxigatik haren erabilera horren zabaldurik ez dagoen, ikusten dugu ia %94k Internet erabiltzen duela neurri handiagoan edo txikiagoan, %64,3 izan zirela "sarri" erabiltzen zutela adierazi zutenak.

Baina, zehazki, zer maitasunez? Horixe da, hain zuzen, adingabeei egin genien galdera, 108. Taulan ageri denez, astialdian, Interneten zenbat denbora ematen duten jakite aldera.

**108. Taula. Zenbat nabigatu duzu Interneten zure astialdian azken hilabetean? (%). Sexuaren arabera**

| MAIZTASUNA | SEXUA | | Guztiak | N |
|---|---|---|---|---|
| | Neskak | Mutilak | | |
| 1. Egunero edo ia egunero 30 minutu baino gehiago | 27,8 | 22,0 | 24,9 | 190 |
| 2. Astean batzuetan | 26,7 | 22,8 | 24,8 | 189 |
| 3. Egunero edo ia egunero 30 minutu inguru | 13,6 | 19,6 | 16,6 | 127 |
| 4. Asteburuetan bakarrik | 11,5 | 14,1 | 12,8 | 98 |
| 5. Bizpahiru bider hilean | 6,5 | 5,2 | 5,9 | 45 |
| 6. Behin ere ez | 3,9 | 5,5 | 4,7 | 36 |
| 7. Astean behin | 4,2 | 4,7 | 4,4 | 34 |
| 8. Behin baino ez | 3,6 | 2,8 | 3,2 | 25 |
| EE | 1,8 | 2,8 | 2,3 | 18 |
| **Guztira** | **100** | **10** | **100** | **762** |

Taulak aditzera ematen duenez, ikasleen %42k onartu zuen Internet egunero erabiltzen zuela, eta beste %25ek "Astean batzuetan" erabiltzen zuela adierazi zuen. Hartara, zalantzarik

gabe, urte gutxian Internet EAEko gazteen bizitzen ezinbesteko –edo, behintzat, normalizatutako– zati bilakatu da.

Zer eragin izan dezake horrek adingabeei balioak transmititzean? Galdera horri behar bezala erantzun ahal izateko, Interneten zenbat denbora ematen duten jakiteaz gain, halabeharrezkoa da zehaztea EAEko gazteek nola erabiltzen duten tresna horiek; izan ere, erabiltzen den moduak bihurtzen du tresna bat onuragarri edo kaltegarri.

Ildo horretan, eta Internetek ezin konta ahala aukera ematen dituela kontuan harturik, zerrenda batean aukera horietako batzuk jaso genituen, 109. Taulan ikus daitekeenez. DBHko ikasleei eskatu genien erantzun zezatela ea Internet helburu horietarako erabili zuten inoiz, "Bai" edo "Ez" hautatuz.

**109. Taula. Interneten ibiltzen zarenean, helburu hauetarako ibiltzen zara noizbait? (%). Sexuaren arabera**

| | SEXUA | | Guztiak | N |
|---|---|---|---|---|
| | Neskak | Mutilak | | |
| 1. Filmak, abestiak, musika eta abar jaisteko | 83,7 | 75,6 | 79,6 | 596 |
| 2. Klaseko lanak, azterketak eta abar prestatzeko | 80,0 | 78,3 | 79,2 | 594 |
| 3. Txateatzeko | 74,4 | 68,9 | 71,7 | 532 |
| 4. Sarean bideo-jokoekin jolasteko | 60,1 | 78,2 | 69,1 | 516 |
| 5. Aktore, abeslari eta abarren informazioa bilatzeko | 76,6 | 43,7 | 60,1 | 450 |
| 6. Kirol albisteak kontsultatzeko | 25,9 | 56,8 | 41,3 | 309 |
| 7. Beste sexuko gazteekin ligatzeko | 24,5 | 36,3 | 30,4 | 228 |
| 8. Albisteak irakurtzeko (politika, ingurumena... | 18,4 | 26,6 | 22,5 | 168 |
| 9. Sexu orriak kontsultatzeko | 8,0 | 34,2 | 21,1 | 157 |
| 10. Sexu bereko gazteekin ligatzeko | 4,5 | 12,6 | 8,6 | 64 |

Ikus daitekeenez, hauek dira hiru zertarako nagusiak: "Filmak, abestiak, musika eta abar jaisteko", "Klaseko lanak, azterketak eta abar prestatzeko" eta "Txateatzeko", haien batez bestekoa, hurrenez hurren, %79,6, %79,2 eta %71,7 dela; gainera, erantzun horietan nesken eta mutilen ehunekoak berdintsuak dira.

Horren inguruan nabarmendu behar den beste datu bat da ezen nesken %30ek eta mutilen %40k Internetera jotzen dutela nesketan edo mutiletan egiteko. Nahiz eta ez den, alde handiz, teknologia berri horren erabilera nagusietakoa, zenbatekoa deigarria da, bederen. Nola azaltzen da hori? Jokabide horren arrazoiak azaltzeko, gaiari buruz dauden datuak nahikoak ez badira ere, baldin datuak gaur egungo gizartearen testuinguruan kokatzen baditugu, hiru hipotesi dira arrazoizko.

Lehen hipotesia jolas eta esperimentuzko teoria da. Ildo horretan, kontuan hartzen badira, batetik, gazteek bakarrik ematen duten denbora eta, bestetik, Euskadin seme edo alaba

bakarren kopuruak izan duen gorakada, pentsa dezakegu Internet aisialdia betetzeko modu bat dela eta, aldi berean, probatu egiten direla nerabezaroan berriak diren pertsona arteko harremanetarako trebetasunak.

Bigarren hipotesiaren arabera, guraso-irudiek libre duten denbora urriaren ondorioz, gero eta gutxiago dira "Ez"ak, eta, hortaz, gazte-belaunaldiek jasaten dituzten frustrazioak ere gero eta gutxiago dira. Ideia horretan oinarri harturik, bikote-harremanak izan eta konprometitzeak berekin sufritzeko aukera (beste emozio batzuez gain) dakarrenez, bai eta arbuiatua izateko aukera ere, beharbada, ez da zentzugabea pentsatzea Internet ongi pasatze hutserako bidetzat erabiltzen dela, mina eta desilusioak saihestea ahalbidetzen baitu ordenagailua itzaltzeko keinu soilarekin.

Eta, azkenik, nolabaiteko lotura dagoela bigarrenarekin, beste aukera bat da berehalako atsegina bilatzen dela, bilaketa-mota hori gaur egun nagusi izaki. Hala, bada, komunikabideetan mailegu azkar-azkarrak lortzera bultzatzen den era berean –geure apetak "hemen eta orain" asetzearren–, bikotekideak ezagutu edo izan nahi dituzten gazteek, une jakin batean eta horretarako eskaintzan dauden webguneak eta prest dagoen jende ugaria profitatuz, pantaila piztu baino ez dute egin behar halakoak aurkitzeko, nahi duten hori eskuratzeko izan ohi duten erraztasun berarekin.

Bestela, albo batera utzirik EAEko gazteak Interneten "neskatan" edo "mutiletan" aritzeari dagokion kopurua, merezi du lasai aztertzea sexuaren arabera dauden lehentasunak. Hain zuzen, ondorengoak dira mutilak, ehunekoen aldetiko desberdintasun handiekin, nesken gainetik dauden arloak: "Sexu bereko gazteekin ligatzeko", "Sexu orriak kontsultatzeko", "Kirol albisteak kontsultatzeko", "Albisteak irakurtzeko (politika, ingurumena..." eta "Sarean bideojokoekin jolasteko" dioten itemak; neskak, ordea, "Aktore, abeslari eta abarren informazioa bilatzeko" delakoan nabarmentzen dira. Hori esan eta gero, eta datu nabariei helduta, badirudi batzuk eta besteak ezaugarritzen dituzten rol, estereotipo eta jarrerek, biologikoak izan zein ikasirikoak izan, gaur egun ere islatzen dituztela bi sexuen berezko estiloak.

Hain zuzen ere, webguneko materialari eta gazteek hura erabiltzeko moduari dagokienez, interesgarria iruditzen zaigu galdetzea ea nor egoten da adingabeekin Internet erabiltzen ari direnean. Hori jakiteko, DBHko ikasleei galdetu genien norekin erabiltzen zuten Internet, erantzuteko ondorengo grafikoan agiri diren baieztapenak aurkeztuta.

Hala, 49. Grafikoan ageri diren emaitzen arabera, gazteen %72 bakarrik egoten da Internet erabiltzen duenean. Halaber, ikusten dugu neskak ibiltzen direla maizago Interneten adiskideekin edo, noizean behin, gurasoekin (%29,1), mutilen aldean (%10,1).

Datu horietatik ateratako ondorio gisa, pentsa daiteke gazteek pantailen aurrean egoki jardutea haien borondatearen mende egongo dela, bai eta jasotzen duten heziketa-orientazioaren mende ere, gurasoek oso gutxi gainbegiratzen baitute jarduera hori, ikusten ditugun ehunekoen zenbatekoei kasu eginez gero.

**49. Grafikoa. Nola erabiltzen duzu Internet? Sexuaren arabera**




Baina, zer dela eta, bada, kontrol-falta hori? Horri dagokionez, badago horren arrazoia aztertzen hasten lagunduko digun galdera bat: non erabiltzen dute gazteek internet? Horrela, ulertu ahal izango dugu, bederen, ea gazteak berak fisikoki urruntzen diren gurasoengandik –kontrola saiheste aldera– ala, aitzitik, Internet etxean erabiltzen duten eta gurasoek uko egiten ote dioten ardurari. Horretarako, ikus dezagun 50. Grafikoan jasoriko datuak.

**50. Grafikoa. Azken hilabetean, erabili duzu modu pertsonalean Internet ordenagailu batean? Jaioterriaren arabera**




Barrei begiraturik, ikusten dugu Internet batez ere etxean erabiltzen dutela (%82,31). Hala ere, horretan badaude aldeak Euskadi jaiotakoen (%83,6) eta atzerritarren (%69,1) artean; dena dela, antzeko zenbatekoak daude gainerako esparruetan.

Nolanahi ere, behin balioak ikusi eta gero, eta gazteek Internet batez ere etxean erabiltzen dutela jakinik, baztertu egiten dugu gutxi gainbegiratu edo lagun egitearen arrazoia izan

dadin gurasoak –beren adingabeen heziketaren arduradun nagusiak, hain zuzen– Internet erabiltzen den tokietan ezin egotea. Horrenbestez, argitu gabe geratzen den zalantza da ea kontrol-faltaren arazoa den aita-amak umeen heziketan denbora gehiago ezin ematea ala, beharbada, heziketa hori bukatutzat eta behargabekotzat jotzea. Ideia hori xeheago aztertzeko aukera izango dugu "Txata" hurrengo atalean.

- *Txata.*

Lehen ere ikusi dugunez, "txata" da gaur egun Interneten erabiltzaileek gehien bisitatzen dituzten atarietako bat. Hala ere, beste pertsona batzuekin era birtualean komunikatzeko aukerak mesfidantza eta zalantza ugari sortu du gizartean. Zehazki, gezurrezko identitateak edo datu faltsuak erabiltzeko erraztasuna da gehien aipatzen den eta eztabaida gehien sortzen duen alderdietako bat.

Horrez gain, gerta daitekeena da komunikazio-tresna horren bidez baino ezagutzen ez den pertsona batekin ezarritako hitzordu batera joatea, horren ondoriozko arriskuak eta gertakizunak ere hor daudela. Horregatixe, ikerketa-talde honek erabiltzaileek horren inguruan zer ohitura dituzten jakin nahi izan zuen.

**51. Grafikoa. Txateatzean, egoera hauetakoren batean egon zara? Sexuaren arabera**




Hala, 52. Grafikoan ageri diren datuen arabera, oro har ikusten dugu gazte gehienek (%60 inguru) txata erabiltzen dutela iritzien gainean hitz egiteko, gai pertsonaletan sartu gabe, neskak mutilen gainetik daudela, 12 puntuko aldearekin.

Gai pertsonalei buruz hitz egitean, norbera nor den esateari dagokionez, neskek %41,7tan eusten diote anonimotasunari, halakoetan identitatea gordetzen duten mutilen %31,7aren aldean. Ildo beretik, nahiz eta lehendik ezagutzen ez zuten norbaitekin hitzordua izan

dutenen batez bestekoa %19,8 den, mutilak dira aukera hori gehien erabiltzen dutenak, %26,5etan, hain zuzen. Zeinek jokatzen dute horrela?

Beste aldagai soziodemografiko batzuen araberako (hala nola, jaioterria, ikastetxe-mota, eta abar) aldeak alboratu eta gero, aurkitu dugu gazte horien profila argiroena definitzen duen aldagaia adina dela, hain zuzen ere. Eta ustekabea izan dugu atzeman dugunean, 52. Grafikoan islatzen denez, gazteenak geratu direla noizbait ezagutzen ez zuten norbaitekin, %22,7ko ehunekoan, nagusien %15,4aren aldean, eta haiexek hitz egiten dutela neurri handiagoan gai pertsonalei buruz engainatu gabe nor diren esanda.

**52. Grafikoa. Txateatzean, egoera hauetakoren batean egon zara? Adinaren arabera**




Ez dugu ahazten –jokabide horrek ekarritako ondorio desatseginengatik, beharbada (saiatuz eta huts eginez ikasita), edo nerabezaroan aurrera egin ahala berez gertatzen den heltze-prozesu batengatik, agian– horrela jokatzen jarraitzen duten DBHko ikasleak gero eta gutxiago direla, eta gazteen %60k, gutxi gorabehera, tresna hori erabiltzen duela batez ere denbora-pasarako iritzien gainean ideiak elkarri azaltzen; baina, hala eta guztiz ere, ezin dugu albo batera utzi arduragabeki –edo arriskuz, bederen– jokatzen duten adingabeen ehuneko handia.

Zenbateko horri dagokionez, berriz har dezagun lehen, Interneti buruzko atalean, argitu gabe utzi dugun galdera, gurasoek gazteen Interneten erabilera hain neurri txikian kontrolatzearen arrazoiez galdetzen genuela. Kontrol-falta horren arrazoia da aita edo ama izateak berez dakarren heziketa-lana betetzeko astirik ez izatea, ala, aitzitik, semeak edo alabak aski heldu eta arduratsutzat jotzea eta kontrol hori beharrezkotzat ez edukitzea?

Datuen argitan, behien bistakoa da 12-13 urteko gazteek, mutilek batik bat, txata zuhurtziarik gabe erabiltzen dutela, ezezagunei datu pertsonalak jakinaraziz (%40) eta, areago, aurrez aurre ezagutzea onartuz (%20). Horrenbestez, eta delako galderari dagokionez, uste

dugu alde horretatik eztabaidagarria, gutxienez, dela txataren erabileraren inguruan familia barruan egiten ari den heziketa-lana, oinarrian egon daitezkeen arrazoiak gorabehera.

- *Bideo-jokoak*

Teknologia berriei loturiko kontsumo-indizeak direla eta, eta gazteek bakarrik ematen duten denbora ere aintzat harturik, pentsatu genuen espero izatekoa zela gaur egungo gazteek bideo-jokoak eta ordenagailu-jokoak erabil zitzaten jolas-jarduera gisa.

Era enpirikoan egiaztatze aldera, hau galdetu genien gazteei: "Bideojokoekin edo ordenagailu-jokoekin jolasten zara?", erantzun-aukeren artean haiek erabiltzen zituztenak adierazteko eskatuta.

**53. Grafikoa. Bideo-jokoekin edo ordenagailu-jokoekin jolasten zara? (erantzun dutenak). Sexuaren arabera**




Nabarmendu beharreko datuetako bat da ezen inkestatuen %8,5ek baino ez zuela ezetz erantzun galdera horretan, eta hori are txikiagoa da (%3,9) mutiletan. Horrez gain, datuek argi uzten dute ordenagailua dela horretarako erabiliena, batez besteko %64,8 izaki. Hala ere, eta bideo-jokoen kontsolei dagokienez, zalantzarik gabe PlayStation deritzona da erabiliena; hori bai, mutilek %45,1 gehiago erabiltzen dute, nesken aldean.

Baina, zenbat denbora ematen dute gazteek halako jolas-jardueretan? Horretarako, ikus dezagun 110. Taulako datuak, *"Zenbat jolastu zara bideojokoekin edo ordenagailu-jokoekin zure astialdian azken hilabetean?"* galderari emaniko erantzunak dira-eta.

**110. Taula. Zenbat jolastu zara bideo-jokoekin edo ordenagailu-jokoekin zure astialdian azken hilabetean? (%). Sexuaren arabera**

| MAIZTASUNA | SEXUA | | Guztiak | N |
|---|---|---|---|---|
| | Neskak | Mutilak | | |
| 1. Astean batzuetan | 20,2 | 38,3 | 29,2 | 223 |
| 2. Astean behin | 21,2 | 12,3 | 16,8 | 128 |
| 3. Egunero edo ia egunero 30 minutu baino gehiago | 8,4 | 19,9 | 14,17 | 108 |
| 4. Bizpahiru bider hilean | 19,1 | 8,6 | 13,9 | 106 |
| 5. Egunero edo ia egunero 30 minutu baino gehiago | 7,3 | 13,9 | 10,6 | 81 |
| 6. Behin baino ez | 10,5 | 3,6 | 7,0 | 54 |
| 7. Behin ere ez | 12,3 | 1,8 | 7,0 | 54 |
| 8. EE | 0,7 | 1,3 | 1,0 | 8 |
| Guztira | 100 | 100 | 100 | 762 |

Hala, bada, nesken %63,3 "Behin ere ez" eta "Astean behin" erantzunetan biltzen da, eta mutilen %71ek, berriz, "Astean batzuetan" eta "Egunero edo ia egunero 30 minutu baino gehiago" erabiltzen dituzte halako jokoak. Hartara, mutilek ematen dute denbora gehiago jarduera horietan, zalantzarik gabe.

Hala ere, Interneten askotariko erabilerak aipatu ditugun bezala, bideo-jokoen helburua ere desberdina da joko-motaren arabera, eta jokoon tipologiak, gaur egun, bizitzak beste aukera ematen ditu.

Jokoen helburua igartzeko, gutxienez, gehienak sailkatzen saiatu ginen, eta 111. Taulan ageri den sailkapena egin genuen.

**111. Taula. Zein bide-ojoko edo ordenagailu-joko mota duzu gogokoen jolasteko? (%). Sexuaren arabera**

| SEXUA | Erakunde-, enpresa-, familia-arloko joko estrategikoak (gizarte-simulatzaileak) | Historia- eta gerra-joko estrategikoak | Gerra-jokoak | Kirol-jokoak | Borroka-jokoak, manga-komikietako protagonistenak... | Beste batzuk |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Neskak | 35,7 | 6,5 | 2,8 | 31,7 | 11,8 | 33,8 |
| Mutilak | 19,6 | 26,7 | 27,3 | 58,7 | 41,4 | 22,3 |
| Guztiak | 27,6 | 16,6 | 15,0 | 45,2 | 26,6 | 28,0 |
| N | 211 | 127 | 115 | 345 | 203 | 214 |

Horrela ikus daiteke halako jokoen edukia hautatzean ere badaudela sexuaren araberako aldeak. Hain zuzen, mutilek "Borroka-jokoak, manga-komikietako protagonistenak...", "Kirol-

jokak", "Gerra-jokoak" edo "Historia- eta gerra-jokoak" nahiago dituzte, eta neskek, aldiz, "Erakunde-, enpresa-, familia-arloko joko estrategikoak" hautatzen dituzte, eta gehiengoa dira, gainera, mota horretan.

- *Telebista*

Bideo-jokoen kontsolak eta beste teknologia berri batzuk baino zaharragoa den arren, ez dago zalantzarik gazteek beren denborako hainbat ordu ematen dituztela telebista-aparatuaren aurrean. Baina, zer ikusten dute adingabeek? Azter ditzagun lortutako emaitzak 112. Taulan.

**112. Taula. Zein saio-mota ikusten duzu gehien telebistan? (%) Sexuaren arabera**

| PROGRAMAK | SEXUA | | Aldea | Guztiak | N |
|---|---|---|---|---|---|
| | Neskak | Mutilak | | | |
| 1. Filmak | 70,6 | 66,1 | 4,4 | 68,3 | 21 |
| 2. Umorezkoak | 43,5 | 48,0 | - 4,4 | 45,8 | 49 |
| 3. Kirola / futbola | 14,9 | 36,7 | - 21,7 | 25,8 | 97 |
| 4. Espainiako telesailak | 30,1 | 20,7 | 9,4 | 25,4 | 194 |
| 5. Atzerriko telesailak | 29,1 | 19,1 | 9,9 | 24,1 | 84 |
| 6. Lehiaketak | 23,8 | 17,0 | 6,8 | 20,4 | 156 |
| 7. Marrazki bizidunak | 18,3 | 16,8 | 1,5 | 17,5 | 134 |
| 8. Dokumentalak | 11,0 | 20,4 | - 9,4 | 15,7 | 20 |
| 9. Musika-saioak | 20,4 | 6,3 | 14,1 | 13,3 | 102 |
| 10. Kanal tematikoak (TB digitala) | 4,7 | 7,0 | - 2,3 | 5,9 | 45 |
| 11. Bihotzeko programak | 7,6 | 1,5 | 6,0 | 4,5 | 5 |

Emaitzen arabera, gazteek filmak eta umorezko saioak hartzen dituzte hobetoena. Dena dela, gustuak sexuaren arabera aldatzen dira. Aldagai horretan oinarrituz gero, alderik handienak neskenganantz lerratzen dira *"Musika-saioak"* aukeran, eta mutilenganantz *"Kirol-saioak"* barne hartzen dituen aukeran, alde horiek 14 eta 21 puntukoak direla, hurrenez hurren.

Nolanahi ere, adinaren arabera ere atzematen dugu alderen bat, 113. Taulan azaltzen denez.

Hala, bada, gazteenek umorezko saio eta marrazki bizidun gehiago ikusten dituzte nagusiagoen aldean, eta azken horiek, bestalde, telesail eta film gehiago. Datu horiek logikoak eta naturalak dira, itxuraz, eta, ziur aski, adin bakoitzaren eboluzioaldiekin bat datorren ezagutza-garapena adierazten dute.

**113. Taula. Zein saio-mota ikusten duzu gehien telebistan? (%). Adinaren arabera**

| ADINA | 12-13 urte | 14 urte edo gehiago | Aldea | Guztiak | N |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Filmak | 66,8 | 70,7 | - 3,8 | 68,3 | 21 |
| 2. Umorezkoak | 50,4 | 38,4 | 11,9 | 45,8 | 349 |
| 3. Kirola / futbola | 41,8 | 39,7 | 2,1 | 41,6 | 20 |
| 4. Espainiako telesailak | 25,4 | 26,5 | - 1,1 | 25,8 | 197 |
| 5. Atzerriko telesailak | 22,2 | 30,6 | - 8,3 | 25,4 | 94 |
| 6. Lehiaketak | 18,5 | 32,9 | - 14,4 | 24,1 | 84 |
| 7. Marrazki bizidunak | 23,0 | 16,3 | 6,7 | 20,4 | 56 |
| 8. Dokumentalak | 19,8 | 13,9 | 5,9 | 17,5 | 134 |
| 9. Musika-saioak | 12,1 | 15,3 | - 3,1 | 13,3 | 102 |
| 10. Kanal tematikoak (TB digitala) | 4,9 | 7,4 | - 2,5 | 5,9 | 45 |
| 11. Bihotzeko programak | 3,6 | 6,1 | - 2,4 | 4,5 | 5 |

Gazteek telebista zer maiztasunez ikusten duten aztertzen denean, 114. Taulak erakusten duenez, atzematen dugu inkestatu gehienak (ia %87) "Egunero" eta "Ia egunero" adierazten duten erantzunetan biltzen direla.

Aldagai soziodemografikoei loturik aurkitu ditugun alde bakarrak nesken eta mutilen artekoak dira, eta "Asteburuetan bakarrik edo astean behin" ikusten dutenei dagokienez bakarrik, kolektibo horretan neskak mutilen bikoitza baitira, hots, batzuk %14 eta besteak %7.

**114. Taula. Zenbat ikusi duzu telebista zure astialdian azken hilabetean? (%). Sexuaren arabera**

| SEXUA | Egunero 2 ordu baino gehiago | Egunero 2 ordu gutxienez | Ia egunero | Asteburuetan bakarrik edo astean behin | Behin ere ez edo ia | EE | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Neskak | 22,3 | 22,5 | 39,1 | 13,9 | 1,3 | 0,7 | **100** |
| Mutilak | 24,9 | 24,4 | 41,9 | 6,5 | 0,7 | 1,3 | **100** |
| Guztiak | 23,6 | 23,4 | 40,5 | 10,2 | 1,0 | 1,0 | **100** |
| N | 180 | 179 | 309 | 78 | 8 | 8 | **7** |

Baina, eguneko zein une aukeratzen dute adingabeek telebista ikusteko? Desberdinak ote dira ordutegiak astegunetan eta asteburuetan?

Gazteek onartzen dutenez, telebista astegunetan zein ordutan ikusten duten 54. Grafikoak adierazten du. Ikus dezakegunez, telebista-kontsumoa pixkanaka areagotzen da orduak igaro ahala; hala, bada, *"Eskolara joan aurretik"* telebista ikusten duela esan zutenak %13 izan ziren, eta gero arian-arian igotzen da ehunekoa egunean zehar, gaueko ordutegiko ikusle adingabeak %65 izateraino.

**54. Grafikoa. Normalean zein ordutan ikusten duzu telebista astegunetan? Adinaren arabera**




Nahiz eta egia den gauez 14 urteko edo gehiagoko adingabeak %5 gehiago direla telebista ikusten, 12-13 urtekoekin konparaturik, ez dago zalantzarik gaueko ordutegia dela aukeratuena telebista ikusteko.

Lortu diren emaitzak ikusirik, galdetu behar dugu, bederen, ea zer balio transmititzen dizkien gaueko programazioak adingabe horiei (ez dezagun ahatz azken hori); are gehiago, kontuan hartzen badugu, haiexek jakinarazi dutenez, gehien ikusten dituztenak direla “Filmak” (ordu horietan ez dira izango, ziur aski, egokiak adingabeentzat), “Umorezko saioak” eta “Dokumentalak” (azken horiek gutxi eta haien ezagutzazko gaitasunetara moldatu gabeak, ziurrenik).

Nolanahi ere, 55. Grafikoan islatuta geratu denez, telebista kontsumitzeko ohiturak nabarmen aldatzen dira asteburuetan; hain zuzen, era homogeneoago batean banatzen dira telebista-orduak, gaueko ordutegian pilatu beharrean. Uste dugu aldaketa horren arrazoia dela aisialdi gehiago dutela eta aisialdi horretan hainbat denbora-pasa mota konbinatzen dituztela, besteak beste, telebista ikustearekin bateragarriak ez diren aire zabaleko jarduerak. Asteburuetan ez dugu alde nabarmenik aurkitu aldagai soziodemografikoetan oinarriturik.

**55. Grafikoa. Normalean zein ordutan ikusten duzu telebista asteburuetan? Sexuaren arabera**



- *Liburuak*

Zalantzarik gabe, irakurketa izan da beti, heziketaren ikuspegitik, aisialdia betetzeko era gomendagarrienetakoa. Badakigu, gainera, eskoletan bertan sustatzen den jolas-jarduera bat dela, eta zenbaitetan gurasoentzat buruhaustea dela irakurtzera bultzatzea. Azken horren bukaera, sarritan, edo erabateko porrot-egitea edo, umeek halako ohiturak hartzeari gogor eginda, gurasoen amore-ematea izaten da.

Zenbat liburu irakurtzen dituzten EAEko gazteek hezkuntza-sistematik kanpo? Bada, 56. Grafikoko zenbatekoek aditzera ematen dutenez, inkestatu gehienek (%41,6) adierazi zuten urtean 1-3 liburu irakurtzen zituztela, eskolan eskatutakoetatik aparte. Horrez gain, sexuaren araberako aldeak aurkitu ditugu. Hain zuzen, "Bat ere ez" erantzun zutenen artean, mutilak 13 puntu gorago daude, nesken gainetik; "1-3" erantzun zutenen artean, neskak %8,2 gehiago dira; eta urtean 8 liburu edo gehiago irakurtzen zituztenen artean ere neskak %5,8 gehiago dira, mutilak baino. Esan dezakegu, gehiegizko sinplifikazioa izan badaiteke ere, neskek irakurtzeko ohitura handiagoa dutela.

**56. Grafikoa. Zenbat liburu irakurri dituzu azken urtean eskolan eskatu dizkizutenetatik aparte, hau da, inork behartu gabe? Sexuaren arabera**




Harrigarria suertatzen da, adinari begiraturik, gazteenek irakurtzea liburu gehiago urtean, 57. Grafikoan azaltzen denez. Hain zuzen, 14 urteko edo gehiagoko gazteek %16,6tan gainditzen dute urtean batere libururik irakurtzen ez duten 12-13koen ehunekoa, baina gainerako erantzun-aukeretan txikienak jartzen dira beste haien gainetik. Hartara, susmoa da ezen, familiaren kontrola zenbat eta txikiagoa izan eta, aldi berean, autonomia-maila handiagoa, orduan eta apalagoa dela irakurketa-maila.

**57. Grafikoa. Zenbat liburu irakurri dituzu azken urtean eskolan eskatu dizkizutenetatik aparte, hau da, inork behartu gabe? Adinaren arabera**




Ehunekoen arteko antzeko aldea atzematen dugu galdera beraren erantzuna jaioterriaren arabera aztertzen dugunean.

**58. Grafikoa. Zenbat liburu irakurri dituzu azken urtean eskolan eskatu dizkizutenetatik aparte, hau da, inork behartu gabe? Jaioterriaren arabera**




Irakurketa-mailan alde esanguratsua dago, 58. Grafikoan ikusten denez, bertan eta atzerrian jaiotakoen artean. Horri dagokionez, oso argi ikusten da EAEn jaiotakoen irakurketa-maila nabarmen handiagoa dela atzerrian jaiotakoen mailarekin erkatuz gero.

**Laburbilduz,** adingabeek gehien erabiltzen dituzten komunikabideei dagokienez, Internet, bideo-jokoak eta telebista nabarmentzen dira.

Hain zuzen, DBHko ikasleen ia %100ek erabiltzen du Internet egunero; hori bai, askotariko helburuak dituztela. Interneten erabilera nagusien artean daude filmak eta musika jaistea eta eskolako lanak prestatzea (biak %80tan); eta horiek atzetik hurbil dute txateatzea, ikasleen %70ek aukera hori adierazi baitzuen.

Azken tresna horri dagokionez, azpimarratu behar da ezen, nahiz eta adingabeen ehuneko handi batek (%70) etxean txateatzen zuela onartu zuen, gurasoek, antza denez, ez dutela batere kontrolik egiten hor trukatzen den informazioaren gainean; izan ere, gazteen %40k esan zuen egiazko datu pertsonalak ematen zizkiola beste erabiltzaile batzuei, eta %20k aurrez aurre ezagutzea onartzeraino ere iristen dela. Haien profilari dagokionez, mutilek eta 12-13 urteko adingabeek dute joera handiena halako egoeretan arriskatzeko, aztertu ditugun aldagaien arabera.

Bideo-jokoak erabiltzeari dagokionez, adingabeen %65ek, gutxi gorabehera, ordenagailuaz baliatzen da. Hala ere, berealdiko aldea dago PlayStation kontsola erabili nahiago duten mutilen ehunekoan, neskekin erkatuta (%76 mutiletan eta %31 nesketan). Orain arte aurkitu ditugun lehentasunekin bat etorrita, bideo-jokoetan ere mutilek kirolari eta borrokari loturiko gaiak nahiago dituzte, eta neskek, aldiz, gizarte-simulatzaileak.

Telebista da, zalantzarik gabe, gazte hauen egunean zati bat hartzen duen beste komunikabide bat. Hain zuzen, adingabeak egunean 2 ordu inguru egoten dira pantailen aurrean, eta, astegunetan, gaueko ordutegiak biltzen du ikusle gazte gehien.

Azkenik, nabarmendu behar da zer zaletasun gutxi dioten EAEko gazteek liburuei; izan ere, datuak ikusita, gehienek (%43) onartu zuen liburu batetik hiru liburu bitarte irakurtzen zutela urtean, ikastetxean irakurtzeko eskatzen zizkietenen gain. Nolanahi ere, irakurtzeko ohiturei dagokienez, egiaztatu dugu 12-13 urteko ikasleek eta neskek irakurtzen dutela gehien.

## 3.2. Balioak

Behin aurreko atalean aipatu diren transmisio-eragileen eraginaren berri izan eta gero, EAEko gazteen balio nagusiak zein diren aztertzea komeni da. Horretarako, aztergaitzat hartuko ditugu, astialdiaren kudeaketa, haien jarrerak, eta ekologiaren eta ingurumenaren arloan dituzten jokabideak.

### *3.2.1. Astialdia eta aisia*

Atal honetan jakin ahal izango dugu EAEko gazteek zertan ematen duten astialdia, zer jarduera egiten dituzten, zer lehentasun dituzten, balioen transmisioaren zein eragilek du garrantzi gehien egoeraren arabera, eta abar. Labur esanda, apur bat gehiago jakingo dugu zer diren eta zer izan nahiko luketen.

- *Jarduerak, portaerak*

EAEko gazteen ohiturak ezagutze aldera, jarduera-zerrenda bat osatu, eta honela erantzuteko eskatu zitzaien: 1-Inoiz ez, 2-Urtean behin edo birritan, 3-Hilean behin baino gehiagotan, 4-Ia astero, 5-Astean egun baten, bitan edo hirutan, eta 6-Egunero.

**118. Taula. Zenbat aldiz egiten dituzu gauza hauek? Sexuaren arabera**

| JARDUERAK | SEXUA | | Aldea | Batez bestekoa |
|---|---|---|---|---|
| | Neskak | Mutilak | | |
| 1. Telebista ikusi | 5,64 | 5,67 | - 0,03 | 5,65 |
| 2. Musika entzun. | 5,56 | 5,22 | 0,34 | 5,39 |
| 3. Lagunekin irten | 4,78 | 4,62 | 0,16 | 4,7 |
| 4. Kirolak | 4,01 | 4,89 | - 0,88 | 4,45 |
| 5. Internet | 4,33 | 4,14 | 0,19 | 4,24 |
| 6. Gurasoekin egon | 4,34 | 4,11 | 0,23 | 4,23 |
| 7. Bideo-jokoekin jolastu | 3,86 | 4,51 | - 0,65 | 4,19 |
| 8. Egunkaria, aldizkariak, komikiak... irakurri | 3,6 | 3,58 | 0,02 | 3,59 |
| 9. Liburuak irakurri ondo pasatzeko | 3,4 | 3,09 | 0,31 | 3,24 |
| 10. Zinemara joan | 2,95 | 2,82 | 0,13 | 2,89 |
| 11. Kirol-ikuskizunetara joan | 2,57 | 3,14 | - 0,57 | 2,86 |
| 12. Gazte, kirol eta halako elkarteetan parte hartu | 2,50 | 2,85 | - 0,35 | 2,68 |
| 13. Jarduera artistikoak | 2,93 | 2,16 | 0,77 | 2,54 |
| 14. Mutil-lagunarekin edo neska-lagunarekin egon | 2,5 | 2,55 | - 0,05 | 2,52 |
| 15. Arratsaldez edo gauez parrandan ibili | 2,42 | 2,44 | - 0,02 | 2,43 |
| 16. Lonjara (txokora, lokalera) joan | 2,41 | 2,37 | 0,04 | 2,39 |
| 17. Bidaiak egin, beste kultura batzuk ezagutu | 1,98 | 1,93 | 0,05 | 1,96 |
| 18. Kontzertuetara joan | 1,96 | 1,83 | 0,13 | 1,9 |
| 19. Ospakizun erlijiosoetan parte hartu | 1,84 | 1,8 | 0,04 | 1,82 |
| 20. Museoetara, erakusketetara, antzerkira joan | 1,84 | 1,74 | 0,1 | 1,79 |
| *Puntuazioak, 1etik 6ra: 1-Inoiz ez... 6-Egunero. | | | | |

Honako hauek nabarmenduko ditugu 118. Taulan ageri diren emaitzen artetik:

- Oro har, norbera gutxi sakrifikatzeko eskatzen duten jarduerak egiten dute maizen gazteek. Hala, bada, esate baterako, eguneroko elementuak, esku-eskura daudenak, erabiltzen dituzte, hala nola "*Telebista ikusi*", 5,65eko bataz bestekoarekin; "*Musika entzun*", 5,39rekin; "*Lagunekin irten*", 4,70ekin; "*Internet*", 4,24rekin; "*Gurasoekin egon*", 4,23rekin; edo "Bideo-jokoekin jolastu", 4,19rekin. Aitzitik, irakurtzea (komikiak nahiz liburuak) eta antzeko jarduerak, alegia, buru-ahaleginen bat eska dezaketenak, bigarren mailan geratzen dira, 3,9ren inguruko puntuazioekin.

Horri dagokionez aurkitu dugun salbuespen bakarra, lorturiko datuen arabera, kirol egitea da, batez besteko balioa 4,7 puntu dela. Dena dela, aipatu dugun ildotik, zenbateko hori 2,6ra jaisten da gazte elkarteen kasuan, besteak beste. Horren pentsarazten du adingabeek kirola beren kabuz egiten dutela, ziur aski, haiek nahi duten unean eta moduan, egituraturik dagoen eta, ziur aski, ordutegien aldetik zorrotzagoa den antolakunde batean egin beharrean, engaiamendu eta sakrifizio pertsonal handiagoa eskatuko dien antolakunde batean, beraz.

– Gure ustez, jarduera batzuetan edo bestetzuetan aritzea sustatzen edo eragozten duen beste faktore bat da ordaindu behar izatea. Hain zuzen, ikusten dugu gazteek interes handia dutela "*Musika entzu*"teko, batez bestekoa 5,4 izanik, baina "*Kontzertuetara joan*" jarduera 1,9ra murrizten da. Era berean, "Lagunekin irten" aukeraren puntuazioa 4,7 da, eta "Lonjara joan" delakoari dagokiona 2,3 da, ordea; "Telebista ikusi" aukerak (gogora dezagun hemen filmak zirela ikusienak) du puntuaziorik handiena, 5,6 puntu, eta "Zinemara joan" delakoak, berriz, 2,9 baino ez.

– Gainera, datuak ikusita, badirudi gutxien egiten dituzten jarduerak direla, oro har, erlijioarekin eta kulturarekin zerikusia dutenak, hala nola "*Jarduera artistikoak*" (2,5), "*Bidaiak egin, beste kultura batzuk ezagutu*" (1,8), "*Ospakizun erlijiosoetan parte hartu*" (1,8) eta "*Museoetara, erakusketetara, antzerkira joan*" (1,7).

– "*Komunikabideak*" atalean datuek aditzera ematen zutenarekin bat, berriz ere egiaztatzen da telebistan eta bideo-jokoetan ematen den denborak alde handiz gainditzen duela irakurtzen ematen dutena.

– Nabarmendu, bederen, egin behar den beste datu bat da adingabeek denbora gehiago ematen dutela lagunekin kalean ibiltzen (4,7) gurasoekin baino (4,2). Gero sakonago aztertu ahal izango dugu bi elementu horiexen indarra, balio-transmisioari dagokionez.

– Sexuaren arabera dauden alde handienen aldetik, ikusten dugu mutilek "Kirola egi"ten, "Kirol ikuskizunetara joa"ten eta "Bideojokoekin jolas"ten batez ere gainditzen dituztela neskak, eta zenbatekoak alderantzizkoak direla, ordea, "Jarduera artistiko"en kasuan; datu horiek, zalantzarik gabe, bat datoz orain arte galdera-sortako beste atal batzuetan ikusirikoarekin.

– Adinaren araberako aldeei dagokienez, espero izatekoa zenez, 14 urteko edo gehiagokoek 12-13 urtekoak gainditzen dituzte "Mutil-lagunarekin edo neska-lagunarekin egon" eta "Arratsaldez edo gauez parrandan ibili" direlako jardueretan. Horri buruz, ez dago zalantzarik adingabeek gero eta adin aurreratuagoetan hasten direla helduen berezko jardueretan. Bestalde, gazteenek –lehengo beste atal batzuetan dagoeneko egiaztatu dugunez– berretsi egin zuten atal honetan denbora gehiago hartzen dutela liburuak denbora-pasa irakurtzeko, nagusiek baino.

**119. Taula. Zenbat aldiz egiten dituzu gauza hauek? Adinaren arabera**

| JARDUERAK | ADINA | | Aldea | Batez bestekoa |
|---|---|---|---|---|
| | 12-13 urte | 14 urte edo gehiago | | |
| 1. Telebista | 5,64 | 5,67 | - 0,03 | 5,65 |
| 2. Musika entzun. | 5,28 | 5,57 | - 0,29 | 5,39 |
| 3. Lagunekin irten | 4,66 | 4,77 | - 0,11 | 4,70 |
| 4. Kirolak | 4,61 | 4,21 | 0,40 | 4,45 |
| 5. Internet | 4,08 | 4,49 | 0,41 | 4,24 |
| 6. Gurasoekin egon | 4,37 | 3,99 | 0,38 | 4,23 |
| 7. Bideo-jokoekin jolastu | 4,18 | 4,21 | - 0,03 | 4,19 |
| 8. Egunkaria, aldizkariak, komikiak... irakurri | 3,74 | 3,37 | 0,37 | 3,59 |
| 9. Liburuak irakurri ondo pasatzeko | 3,58 ⟷ | 2,7 | 0,88 | 3,24 |
| 10. Zinemara joan | 2,98 | 2,75 | 0,23 | 2,89 |
| 11. Kirol-ikuskizunetara joan | 2,93 | 2,74 | 0,19 | 2,86 |
| 12. Gazte, kirol eta halako elkarteetan parte hartu | 3,00 ⟷ | 2,14 | 0,86 | 2,68 |
| 13. Jarduera artistikoak | 2,76 ⟷ | 2,2 | 0,56 | 2,54 |
| 14. Mutil-lagunarekin edo neska-lagunarekin egon | 2,32 ⟷ | 2,85 | - 0,53 | 2,52 |
| 15. Arratsaldez edo gauez parrandan ibili | 2,05 ⟷ | 3,03 | - 0,98 | 2,43 |
| 16. Lonjara (txokora, lokalera) joan | 2,22 | 2,67 | - 0,45 | 2,39 |
| 17. Bidaiak egin, beste kultura batzuk ezagutu | 2,02 | 1,86 | 0,16 | 1,96 |
| 18. Kontzertuetara joan | 1,86 | 1,96 | - 0,10 | 1,90 |
| 19. Ospakizun erlijiosoetan parte hartu | 1,97 | 1,58 | 0,39 | 1,82 |
| 20. Museoetara, erakusketetara, antzerkira joan | 1,91 | 1,59 | 0,32 | 1,79 |
| *Puntuazioak, 1etik 6ra: 1-Inoiz ez... 6-Egunero. | | | | |

Sexuaren aldagaian ez ezik, jaioterriaren arabera ere alde batzuk atzeman ditugu. Hain zuzen, 120. Taulan erakusten denez,, Euskadin jaio direnak maizago aritzen dira aurkezturiko jardueretan, bereziki "Lagunekin irten", "Kirola egin" eta "Gazte, kirol eta halako elkarteetan parte hartu" jardueretan.

Lehengo atalean egiaztatu da atzerrian jaioriko gazteek adiskide-kopuru txikiagoa izaten dutela, eta, hortaz, ez zaigu harritzekoa iruditzen haiekin kalean gutxiago ibiltzea. Hala eta guztiz ere, gazteek, oro har, kiroletan izaten duten interes handia dela eta, "Gazte, kirol eta halako elkarteetan parte har"tzea aukera interesgarria izan daiteke, beharbada, atzerrian jaiotakoen kirol-zaletasuna asetzeko, eta, aldi berean, pertsona berriak ezagutzeko, bai eta, zergatik ez, adiskide berriak egiteko ere ingurune osasungarri batean, lankidetza eta talde-lana bereizgarritzat dituen ingurune batean.

**120. Taula. Zenbat aldiz egiten dituzu gauza hauek? Jaioterriaren arabera**

| JARDUERAK | JAIOTERRIA | | Aldea | Batez bestekoa |
|---|---|---|---|---|
| | Euskadi | Atzerritarrak | | |
| 1. Telebista | 5,67 | 5,54 | 0,13 | 5,66 |
| 2. Musika entzun. | 5,38 | 5,56 | - 0,18 | 5,40 |
| 3. Lagunekin irten | 4,77 ⟷ | 4,08 | 0,69 | 4,70 |
| 4. Kirolak | 4,52 ⟷ | 3,70 | 0,82 | 4,44 |
| 5. Internet | 4,25 | 4,12 | 0,13 | 4,24 |
| 6. Gurasoekin egon | 4,23 | 4,06 | 0,17 | 4,21 |
| 7. Bideo-jokoekin jolastu | 4,22 | 3,91 | 0,31 | 4,19 |
| 8. Egunkaria, aldizkariak, komikiak... irakurri | 3,63 | 3,23 | 0,40 | 3,59 |
| 9. Liburuak irakurri ondo pasatzeko | 3,26 | 3,03 | 0,23 | 3,24 |
| 10. Zinemara joan | 2,87 | 2,97 | - 0,10 | 2,88 |
| 11. Kirol-ikuskizunetara joan | 2,89 | 2,52 | 0,37 | 2,86 |
| 12. Gazte, kirol eta halako elkarteetan parte hartu | 2,73 ⟷ | 2,16 | 0,57 | 2,68 |
| 13. Jarduera artistikoak | 2,57 | 2,34 | 0,23 | 2,55 |
| 14. Mutil-lagunarekin edo neska-lagunarekin egon | 2,52 | 2,72 | - 0,20 | 2,53 |
| 15. Arratsaldez edo gauez parrandan ibili | 2,45 | 2,30 | 0,15 | 2,43 |
| 16. Lonjara (txokora, lokalera) joan | 2,40 | 2,33 | 0,07 | 2,39 |
| 17. Bidaiak egin, beste kultura batzuk ezagutu | 1,96 | 1,87 | 0,09 | 1,95 |
| 18. Kontzertuetara joan | 1,90 | 1,83 | 0,07 | 1,90 |
| 19. Ospakizun erlijiosoetan parte hartu | 1,83 | 1,85 | - 0,02 | 1,83 |
| 20. Museoetara, erakusketetara, antzerkira joan | 1,79 | 1,80 | - 0,01 | 1,79 |
| *Puntuazioak, 1etik 6ra: 1-Inoiz ez... 6-Egunero. | | | | |

Datuak ikusita eta jaioterria gorabehera, "Lagunekin irten" da adingabeek gehien egiten duten jardueretako bat (4,7). Nahiz eta denbora-pasarako modu hori kaltegabea, baita askotan mesedegarria ere, izan daitekeen gazteen garapen psikosozialerako, hori kili-kolo geratzen da adingabeek gaueko arriskuen (nolabait esatearren) eraginpera ateratzen direnean horretarako behar bezain helduak izan gabe. Kalera irtetean dituzten ohitura horiek sakonago aztertze aldera, adingabeei galdetu genien ea zer maiztasunez ateratzen diren gauez.

Hala, bada, 59. Grafikoan ageri denez, "Asteburuetan gauez irteten zara?" galderari erantzun zioten gazteen %54,6k "Egun berezietan baino" ez zen irteten.

Hala ere, nabarmendu behar da, orobat, gazteen %20k adierazi zuela asteburuero irteten zirela; ehuneko hori %3 handiagoa zen nesketan.

**59. Grafikoa. Asteburuetan gauez irteten zara? Sexuaren arabera**




Badago adinaren araberako alderik gaueko irtenaldietan? Txikiak gutxiagotan ateratzen dira, 60. Grafikoan ikusten denez. Hain zuzen, 12-13 urteko gazteek 20 puntuz gainditzen dituzte nagusiak "Ez naiz inoiz gauez irteten" eta "Egun berezietan baino ez naiz irteten" erantzunetan, proportzio hori alderantzizkoa da gauez maizago irteteari loturiko erantzunetan.

**60. Grafikoa. Asteburuetan gauez irteten zara? Adinaren arabera**




Nahiz eta zenbatekoak asko jaisten diren adinaren arabera, interesgarria litzateke jakitea irteteko ordutegietan ere desberdintasunik ote dagoen. Horretarako, gazteei *"Gauez irteten bazara, noizean behin baino ez bada ere, zein ordutan itzultzen zara etxera?"* galdera egin genien, eta 61. Grafikoan jasotako erantzun-aukerak eskaini genizkien.

Emaitzak ikusita, atzematen dugu adingabe gehienak (%36,1) "Gaueko 12ak baino lehenago" itzultzen dela etxera, eta ehuneko hori gero eta txikiagoa dela, gauean aurrera egin ahala; hala, "Gaupasa" egiten dutenen ehunekoa %2,2 baino ez da.

**61. Grafikoa. Gauez irteten bazara, noizean behin baino ez bada ere, zein ordutan itzultzen zara etxera? Sexuaren arabera**




Orain arte lorturiko datuekin bat, berriz ere, badaude aldeak ohitura horietan adinaren arabera. Hain zuzen, 12-13 urteko gazteak, 14 urtekoen edo gehiagokoen aldean, ordu bata baino lehen itzultzen dira etxera, eta nagusiak gehiago dira beranduagoko ordutegietan. Hartara, ulertzen dugu gauez irteteko ordutegien mugak zabaldu egiten direla adingabeen adinaren arabera.

Nolanahi ere, gazte-kolektiboan ehuneko txikia diren arren, nabarmendu behar da 12-13 urteko adingabeen %10 eta 14 urteko edo gehiagokoen %15 etxera itzultzen direla gaueko 3retatik hurrengo goizera bitarteko tarte batean.

**62. Grafikoa. Gauez irteten bazara, noizean behin baino ez bada ere, zein ordutan itzultzen zara etxera? Adinaren arabera**



Gazte bakoitza irteteko ordutegirik onena zehaztea zaila da, zalantzarik gabe, baina, halere, ez dugu ahaztu behar alkohola hartzea legez debekaturik dagoela 18 urte bete arte eta oso litekeena dela gaueko 12ak jota etxera itzultzen diren gazteetako edozein egotea kontsumo horren arriskutik oso hurbil, zuzenean edo zeharka, legez kanpoko beste drogen arriskuaz gain; izan ere, azken horiek, legez kanpokoak izanik ere, erraz eskuratzeko modukoak dira, denok dakigunez, eta gazteenek erosteko moduko prezioan.

Ildo horretan, kontuan izan behar dugu bilduriko datuek laburbiltzen dutela gehienbat 12 urtetik 15 urtera bitartekoak ziren gazteek egin zituzten autotxosten batzuen bidez jasoriko informazioa, gazte horiei gaur egun ez zaiela arriskuei aurre egiteko eta gizarte-ardurak beren gain hartzeko besteko heldutasun pertsonala aitortzen, eta, gainera, orain arte aztertutako datuen arabera ikusi dugunez, balio azalekoenak dituztela gidari. Gorabehera horiek direla eta, gogoeta egin behar da, bederen, adingabe horiek gaueko giro batzuen eraginpean uzteak ekar ditzakeen kalte eta zailtasun psikosozialez, arduradun gisa haien nortasuna zentzuz garatzen laguntzeko nahia eta beharra betetze aldera, betiere.

**121. Taula. Egin duzu honelakorik zure bizitzako momenturen batean? (%) Sexuaren arabera**

| EKINTZAK | SEXUA | | Aldea | Guztiak | N |
|---|---|---|---|---|---|
| | Neskak | Mutilak | | | |
| 1. Paperak lurrera bota ditut nahita, nahiz eta paperontziak egon inguruan | 57,3 | 61,2 | - 3,8 | 59,2 | 450 |
| 2. Gelakide bati burla edo eraso egin diot behin baino gehiagotan | 38,4 | 48,0 | - 9,5 | 43,2 | 326 |
| 3. Amari edo aitari irain egin diot noizbait | 35,3 | 30,5 | 4,8 | 32,9 | 248 |
| 4. Kaleko, eskolako, metroko edo beste leku publikoren bateko hormak edo ateak pintatu edo markatu ditut | 28,1 | 33,0 | - 4,9 | 30,6 | 232 |
| 5. Irakasleren bati irain egin diot noizbait | 21,5 | 28,9 | - 7,4 | 25,2 | 190 |
| 6. Jende ezezaguna molestatu edo iraindu egin dut kalean edo leku publikoren batean | 21,1 | 26,2 | - 5,1 | 23,6 | 178 |
| 7. Nahita mozkortu naiz batzuetan | 16,5 | 20,6 | - 4,1 | 18,5 | 140 |
| 8. Porroak erre ditut eskola-egunetan | 6,9 | 9,2 | - 2,3 | 8,0 | 61 |
| 9. Kontenedoreren bat irauli dut kalearen erdian | 4,8 | 10,1 | - 5,3 | 7,5 | 56 |
| 10. Aparkatuta zegoen auto edo motorren bat markatu dut nahita | 3,4 | 9,2 | - 5,8 | 6,3 | 48 |
| 11. Aurre egin diet indarrez udaltzainei, ertzainei, etab. | 2,1 | 9,8 | - 7,6 | 5,9 | 45 |
| 12. Inoiz nirekin ligatu nahi ez zuen mutil/neska bat fisikoki behartu dut | 1,0 | 3,7 | - 2,6 | 2,3 | 18 |
| 13. Kokaina, anfetaminak... hartu ditut noiz edo noiz | 2,3 | 1,8 | - 0,5 | 2,1 | 16 |

Ikerketa hori ahalbidetzeko, EAEko gazteen portaera prosozial eta antisozialen azterketa aurkezten dugu ondoren. Lehenik eta behin, 121. Taulan bildu dira psikologiaren, gizartearen edo ingurumenaren aldetik okerrenak diren portaerei emandako baiezko erantzunak.

Ondoren, datu deigarrienetako batzuk bildu ditugu.

- Sexuaren araberako aldeei dagokienez, ikusten dugu ezen aurkeztutako egoera guztietan baietz erantzun zuten mutilen ehunekoa handiagoa dela, "Amari edo aitari irain egin diot noizbait" aukeran izan ezik, hor neskek emandako baiezkoak %5 gehiago baitira, mutilen aldean.

- Paperontziak hurrean edukita ere, paperak lurrera botatzen dituzten gazteen proportzio handia (%60) dela eta, erlatibizatu, bederen, egin behar da –nahiz eta ez baztertu– adingabeek aurreko atal batzuetan ingurumenari ematen zioten balioa (ikus "Ikono adierazgarriak"), zeren eta, nolabait balioesten badute ere, ingurumenak haien erosotasunari apurtxo bat eragiten dienean, ingurumen hori bigarren mailan geratzen baita, argi eta garbi.

- Azpimarratu beharreko beste ideia bat da gazteen errespetu-falta orokorra, nahiz ezezagunengana (%30) nahiz haien hezkuntzaren, zaintzaren eta ongizatearen arduradunengana (%25 inguruk iraindu dute noizbait aitak, amak eta irakasleak).

- Pertsonenganako errespetu-falta baino are handiagoa da adingabeek ondasun publikoei dieten begirune eskasa, %30ek onartu baitzuen "Kaleko, eskolako, metroko edo beste leku publikoren bateko hormak edo ateak pintatu edo markatu" izana.

- Azkenik, nahiz eta ehunekoa txikiagoa den, ez du zirrara txikiago bat eragiten adin horietako mutilen %3,7k aitortzeak "Inoiz nirekin ligatu nahi ez zuen mutil/neska bat fisikoki behartu" duela.

Datuek, zalantzarik gabe, ez dute azalpen gehiagoren beharrik, eta badirudi gure gazteak hasiak direla joerak hartzen. Nolanahi ere, egokia iruditu zaigu aztertzea ea adinaren araberako alderik ote dagoen, jakite aldera ea portaera horiek une jakin batekoak, iragankorrak, diren eta denbora igaro ahala areagotzeari uzten dioten. Ikus ditzagun bildutako emaitzak 122. Taulan.

**122. Taula. Egin duzu honelakorik zure bizitzako momenturen batean? (%) Adinaren arabera**

| EKINTZAK | ADINA | | Aldea | Guztiak | N |
|---|---|---|---|---|---|
| | 12-13 urte | 14 urte edo gehiago | | | |
| 1. Paperak lurrera bota ditut nahita, nahiz eta paperontziak egon inguruan | 54,8 | 66,3 | - 11,4 | 59,2 | 450 |
| 2. Gelakide bati burla edo eraso egin diot behin baino gehiagotan | 43,2 | 43,3 | - 0,1 | 43,2 | 326 |
| 3. Amari edo aitari irain egin diot noizbait | 29,7 | 38,0 | - 8,2 | 32,9 | 248 |
| 4. Kaleko, eskolako, metroko edo beste leku publikoren bateko hormak edo ateak pintatu edo markatu ditut | 26,2 | 37,5 | - 11,3 | 30,6 | 232 |
| 5. Irakasleren bati irain egin diot noizbait | 18,5 | 35,0 | - 16,4 | 24,9 | 190 |
| 6. Jende ezezaguna molestatu edo iraindu egin dut kalean edo leku publikoren batean | 20,8 | 28,1 | - 7,3 | 23,6 | 178 |
| 7. Nahita mozkortu naiz batzuetan | 8,4 | 34,4 | - 25,9 | 18,5 | 140 |
| 8. Porroak erre ditut eskola-egunetan | 4,3 | 14,0 | - 9,7 | 8,0 | 61 |
| 9. Kontenedoreren bat irauli dut kalearen erdian | 7,2 | 8,0 | - 0,7 | 7,5 | 56 |
| 10. Aparkatuta zegoen auto edo motorren bat markatu dut nahita | 4,7 | 8,8 | - 4,1 | 6,3 | 48 |
| 11. Aurre egin diet indarrez udaltzainei, ertzainei, etab. | 5,4 | 6,9 | - 1,4 | 5,9 | 45 |
| 12. Kokaina, anfetaminak... hartu ditut noiz edo noiz | 1,5 | 3,0 | - 1,5 | 2,1 | 16 |
| 13. Inoiz nirekin ligatu nahi ez zuen mutil/neska bat fisikoki behartu dut | 1,5 | 0,6 | 0,8 | 1,2 | 18 |

Hala ere, espero genuenaren kontrara, datuek frogatzen dute badagoela, oro har, korrelazio bat adin handiagoaren eta portaera antisozialen agerpen handiagoaren artean. Zehazki, aintzat hartzen ditugun adin-tarteetan, alde handienak daude irakasleei eginiko irainetan eta drogen kontsumoan (alkohola eta porruak).

Drogen kontsumoa –drogak legezkoak izan zein legez kanpokoak izan– aita-amak kezkatzeko moduko gaia dela pentsatzen dugunez, ikertu nahi izan dugu ea loturarik ote zegoen kontsumoaren eta gurasoekiko harremanen artean. Horretarako, “Harreman txarrak” izendapenaren barruan sartu ditugu “Nolakoak dira gurasoekin dituzun harremanak?” galderari “Txarrak” edo “Oso txarrak” erantzun ziotenak, eta “Harreman onak” izendapenean, aldiz, galdera berari “Onak” edo “Oso onak” erantzun ziotenak; bestalde, lehengo irizpide berari eutsi zaio, adierazitako kontsumo-ohiturei baiezkoa erantzun ziotenak bakarrik jasota.

**63. Grafikoa. Droga-kontsumoa ("Nolakoak dira gurasoekin dituzun harremanak?" galderan "Oso onak", "Onak", "Txarrak" edo "Oso txarrak" erantzun zutenen artean, bakarrik)**




Hori egin eta gero, 63. Grafikoan ageri denez, ikusten dugu legezko nahiz legez kanpoko drogen kontsumoa nabarmen gehitzen dela gurasoekin harreman txarrak dituztela uste duten adingabeen kasuan. Zehazki, nahita hartutako mozkorrak %33,4 gehitzen dira. Porruen kontsumoa ere handiagoa da, hain zuzen, %18,2 handiagoa, eta droga kitzikagarrien kontsumoak ere gora egiten du, %23,5 handiagoa da eta.

Horrenbestez, datuak ikusirik, ez dago zalantzarik lotura estua dagoela familiako harremanen eta adingabeen droga-kontsumoen artean. Horrek ate bat irekitzen digu esku hartzeko aukeren aldetik, eta gurasoek adingabeen kontsumo-ohituren inguruan duten erantzukizuna erakusten.

Berriz ere portaera negatiboenen zerrendara itzulita, Euskadin eta atzerrian jaiotakoen artean ere aldeak aurkitu ditugu, 123. Taulan jaso denez.

**123. Taula. Egin duzu honelakorik zure bizitzako momenturen batean? (%) Jaioterriaren arabera**

| EKINTZAK | JAIOTERRIA | | Aldea | Guztiak | N |
|---|---|---|---|---|---|
| | Euskadi | Atzerritarrak | | | |
| 1. Paperak lurrera bota ditut nahita, nahiz eta paperontziak egon inguruan | 60,1 | 52,2 | 7,8 | 59,4 | 445 |
| 2. Gelakide bati burla edo eraso egin diot behin baino gehiagotan | 44,1 | 32,8 | 11,3 | 43,1 | 321 |
| 3. Amari edo aitari irain egin diot noizbait | 35,0 | 13,6 | 21,3 | 33,1 | 246 |
| 4. Kaleko, eskolako, metroko edo beste leku publikoren bateko hormak edo ateak pintatu edo markatu ditut | 31,5 | 22,3 | 9,1 | 30,7 | 230 |
| 5. Irakasleren bati irain egin diot noizbait | 25,3 | 26,8 | - 1,5 | 25,4 | 189 |
| 6. Jende ezezaguna molestatu edo iraindu egin dut kalean edo leku publikoren batean | 24,8 | 10,4 | 14,4 | 23,5 | 175 |
| 7. Nahita mozkortu naiz batzuetan | 18,0 | 27,2 | - 9,2 | 18,8 | 140 |
| 8. Porroak erre ditut eskola-egunetan | 8,5 | 4,6 | 3,9 | 8,2 | 61 |
| 9. Kontenedoreren bat irauli dut kalearen erdian | 7,6 | 5,9 | 1,6 | 7,4 | 55 |
| 10. Aparkatuta zegoen auto edo motorren bat markatu dut nahita | 6,1 | 6,0 | 0,1 | 6,1 | 46 |
| 11. Aurre egin diet indarrez udaltzainei, ertzainei, etab. | 6,2 | 2,9 | 3,2 | 5,9 | 44 |
| 12. Inoiz nirekin ligatu nahi ez zuen mutil/neska bat fisikoki behartu dut | 2,0 | 5,9 | - 3,9 | 2,4 | 18 |
| 13. Kokaina, anfetaminak... hartu ditut noiz edo noiz | 2,2 | 1,4 | 0,7 | 2,1 | 16 |

Horren inguruan, hona hemen ideia nagusiak:

- Oro har, Euskadin jaio diren gazteek izaten dituzte portaera arau-hausle gehiago.
- Pertsona hurbilenganako (amak/aitak) nahiz ezezagunenganako errespetu-falta bereziki handia da Euskadin jaiotako gazteen artean, aldeak 20 eta 15 puntu ingurukoak direla, hurrenez hurren.
- Atzerriko herrialderen batean jaiotako adingabeak maizago mozkortzen dira, Euskadin jaiotakoen aldean, lehenek %27 dutela, eta besteek, aldiz, %18.
- Ehunekoen arteko aldea bada nabarmena, orobat, “Inoiz nirekin ligatu nahi ez zuen mutil/neska bat fisikoki behartu dut” esaldiari baietz erantzun diotenen artean; hala, bada, atzerrian jaiotakoak %6 ere badira horiek, Euskadin jaiotakoen %2aren aldean.

Hala eta guztiz ere, grafikoen interpretazioa laburbiltzearren erakutsi diren datu zehatzak gorabehera, gure ustez, halako portaerak xehekiago aztertu behar dira. Etikazko eta moralezko gogoetaren aldetik –azterlan honen muina horri dagokiola, hain zuzen–, aintzat hartu behar da zenbat portaera suntsitzailek osatzen duten, era gutxi-asko normalizatuan, EAEko gazteen bizimodua. Gaur egun, 12 urteko adin goiztiarrean ere orokortzen ari dira besteengan ondorio psikologiko kaltegarriak eragin dezaketen portaerak (iraindu, burla egin edo eraso kasu), norberarengan ere halako ondorioak izan dezaketen portaerak (mozkortu, esaterako) edo, areago, gizarte edo ingurumenarentzat ondorio txarrak dakartzaten portaerak (paperak lurrera bota edo hormak margotu, adibidez). Gainera, datuak ikusita, halako portaerak larriagotu egiten dira adina gehitzean, murriztu beharrean.

Batez ere konduktista den ikuspegi batetik, egoera horren azalpena da halako portaerak barneratzen dituztela inguruan dituzten gorabeherei aurre egiteko estrategia baliagarritzat. Haien jokabidearekiko albokotasunez eta kausalitatez izan daitezkeen ondorioengatik ere (zigorrak, jendearen arbuioa, eta abar), adingabeek halako ondorioak hartzeko besteko atsegingarritzat jotzen dituzte portaera horiek.

Haatik, ikuspegi kognitibistago edo gestaltikoago, beharbada, batetik, kausa horietan sakonago ikertuta, portaera arau-hausleen gehikuntza interpreta dezakegu oinarritzat hartuz nerabearen eta helduaren arteko loturaren etena –eta, harekin batera, ezarri edo transmititutako arau eta balioen (halakorik egonez gero) etena ere bai–.

Teoria berri horrek, gainera, bi jarrera-mota ondoriozta ditzake, jatorriaren arabera. Hala, bada, onartzen badugu gazteek orain ez dutela amaren edo aitaren presentzia –ez eta haien kode morala ere– haurtzarotik helduarorako trantsizio gogorreko lehen zailtasunei bakarrik aurre egiten dietenean, daitekeena da portaera horiek murriztea gizartean gehiago onartzen diren eta egokituagoak diren estrategiak baliozkoak direla egiaztatzen dutenean.

Hala eta guztiz ere, emaitzak ikusita, indar gehien hartzen duen teoriak dio ezen, aurreko hori pentsatu beharrean, aurkakotasunezko etena dagoela planteatu dezakegula, non berariaz eta aurretik erabakiriko eran jokatzen baita; hain zuzen ere, badirudi horrela gertatzen dela nahita mozkortzen direnetan, inguruan paperontziak daudela jakinik, paperak lurrera botatzen dituztenean, eta abarretan.

Horrela balitz ere, nerabezaroan, batez ere, berez egoten den arauen aurkako jarrera naturala badagoela onartuta ere –baldin nerabezaroa horrela uler badaiteke–, garrantzitsua da onartzea adingabe horien senitarteko eta hezitzaileek duten erantzukizuna, mugak argitu eta onartzeari dagokionez zein aurreko atal batzuetan aipaturiko pertsonaren baitako eta pertsona arteko trebetasun batzuk garatzeari dagokionez. Ildo horretan, ezin ahatz dezakegu gazteak, pozik egon zein ez, kide diren gizartearen kate-maila bat direla, eta hori, gizartearen aldetik, bi noranzko eran ikusi behar dela.

Lehen aipatu ditugu zein normaltasunez eta maiztasunez izaten dituzten adingabeek portaera arau-hausle zenbait; orain, ordea, portaera prosozialekin zer gertatzen den galdetu behar dugu.

**64. Grafikoa. Egin duzu honelakorik zure bizitzako momenturen batean? Sexuaren arabera**




Ondorengo ideiak azpimarratuko ditugu, 64. Grafikoan jasotako erantzunei dagokienez:

- Oro har, portaera prosozialen ehunekoek (guztiak %80-85 ingurukoak dira) alde handiz gainditzen dituzte lehenago aztertu diren portaera antisozialak.

- Argi eta garbi, neskek gauzatzen dituzte halako portaerak neurri handiagoan, eta “Ikaskideei euren izenaz deitzen saiatzen naiz, nahiz eta ahoskatzen zaila izan” itemean nabarmentzen dira batez ere, mutilen aldean %12,7 gehiago egiten baitute hori.

Ikusita atzerrian jaiotakoek neurri apalagoan izaten dituztela, oro har, gizartearen ikuspuntutik desegokiak diren portaerak, egiazta dezagun orain ea haiek ere izaten dituzten gehiagotan portaera prosozialak.

Atzeman dugu, 65. Grafikoan bildutako datuen arabera, ehunekoak apur bat handiagoak baino ez diren arren, Euskadin jaioek jokatzen dute laguntzeko joera nabarmenagoarekin, “Etorkin batek kalean zerbait galdetzen badit, laguntzen saiatzen naiz ” itemean izan ezik, beharbada aldagai soziodemografiko horrexengatik, hain zuzen, eta etorkinekin enpatia izateko erraztasunagatik, beraz.

**65. Grafikoa. Egin duzu honelakorik zure bizitzako momenturen batean? Jaioterriaren arabera**




Hartara, aldagai horri dagokionez, nahiz eta, atzerritarren aldean, Euskadin jaioriko gazteek gizarterako desegokiak diren portaerak gehiagotan izaten dituzten, egia da portaera prosozialak neurri handiagoan aurrera eramaten dituztela, atzerrian jaiotakoekin erkatuz gero.

- *Lehentasunak*

Portaerez harago, ondoren gazteek gidari dituzten lehentasun eta balioak aztertuko ditugu. Horretarako, 124. Taulan ageri den gai-zerrenda osatu genuen, eta adingabeei eskatu genien adieraz zezatela bakoitza zenbateraino zen garrantzitsua haien bizitzan. Zenbatekoan batu dira item horiei "Oso garrantzitsua da" eta "Nahiko garrantzitsua da" erantzun zieten emaitzak.

**124. Taula. Esango didazu zenbateraino den garrantzitsua kontu hauetako bakoitza zure bizitzan? (%)**
**(*"Oso garrantzitsua da"* edo *"Nahiko garrantzitsua da"* erantzun dutenak bakarrik). Sexuaren arabera**

| | SEXUA | | Aldea | Guztiak | N |
|---|---|---|---|---|---|
| | Neskak | Mutilak | | | |
| 1. Familia-harreman onak edukitzea | 98,4 | 97,8 | 0,5 | 98,1 | 742 |
| 2. Lagun asko edukitzea | 91,4 | 93,5 | - 2,1 | 92,4 | 688 |
| 3. Dirua irabaztea | 90,7 | 93,6 | - 2,8 | 92,1 | 696 |
| 4. Kultura- eta lanbide-gaitasun maila ona lortzea | 90,6 | 90,8 | - 0,1 | 90,7 | 680 |
| 5. Ingurumena zaintzea | 92,0 | 88,5 | 3,5 | 90,3 | 681 |
| 6. Bikote-harreman ona edukitzea | 87,2 | 93,0 | - 5,7 | 90,1 | 676 |
| 7. Lanean arrakasta edukitzea | 84,7 | 89,1 | - 4,3 | 86,9 | 653 |
| 8. Arauak eta agintea errespetatzea | 86,1 | 82,4 | 3,7 | 84,3 | 628 |
| 9. Denbora libre/aisialdi asko edukitzea | 79,7 | 87,6 | - 7,8 | 83,7 | 623 |
| 10. Mehatxatutako pertsonen bizitza defendatzeaz arduratzea | 75,6 | 69,5 | 6,1 | 72,5 | 543 |
| 11. Munduko beste leku batzuetan gertatzen denaz arduratzea | 68,5 | 61,8 | 6,7 | 65,1 | 492 |
| 12. Gogobeteko sexu-bizitza edukitzea | 54,6 | 73,8 | - 19,2 | 64,3 | 478 |
| 13. Egunean bizitzea etorkizunean pentsatu barik | 63,0 | 59,0 | 4,0 | 61,0 | 454 |
| 14. Auzoa hobetzeko gauzak egitea | 60,5 | 60,2 | 0,3 | 60,4 | 449 |
| 15. Erlijio-kontuez arduratzea | 19,8 | 29,0 | - 9,1 | 24,4 | 182 |
| 16. Politika-gaietan interesatzea | 11,5 | 18,6 | - 7,0 | 15,05 | 112 |

Ideia hauek nabarmentzen ditugu:

– Gazteen lehentasun nagusiak harreman onak izateari buruzkoak dira, batez ere familian (%98), adiskideekin (%92) eta bikotean (%90).

– Gainera, bikoteari dagokionez, gogobetetasun emozionala nahiago dute (%90), fisikoa baino (%64). Dena dela, "Gogobeteko sexu-bizitza edukitzea" baieztapena mutilen adostasuna neurri handiagoan jaso du, nesken gainetik %19,3ko aldea dutela.

– Gazteen artean, "Dirua irabaztea" nahikoa garrantzitsuagoa da (%92), "Denbora libre/aisialdi asko edukitzea" ideiaren aldean (%83).

Orain arte ikusi dugunarekin bat, EAEko gazteen artean beste kultura batzuk ezagutzeko interesa murritza da, bai eta motibazioa eskasa ere hurkoei laguntzera engaiatzeko. Hain zuzen, "Mehatxatutako pertsonen bizitza defendatzeaz

arduratzea", "Munduko beste leku batzuetan gertatzen denaz arduratzea" eta "Auzoa hobetzeko gauzak egitea" esaldiek %72ko, %65eko eta %60ko adostasuna jaso zuten, hurrenez hurren. Hala ere, nesken joera mutilena baino 6 puntu handiagoa da lehen bi baieztapenetan, eta, hortaz, gizarte-gaietan engaiamendu handiagoa dutela erakusten dute.

– Dena dela, gehien baztertzen diren gaiak dira erlijioa (%24), batetik –neskek 10 puntuko aldea dutela, mutilekin konparaturik, halere– , eta batez ere eta azkenik, politika (%15).

DBHko ikasleen adin-taldeen arabera atzeman ditugun aldeak 125. Taulan ageri dira.

**125. Taula. Esango didazu zenbateraino den garrantzitsua kontu hauetako bakoitza zure bizitzan? (%)**
**(*"Oso garrantzitsua da"* eta *"Nahiko garrantzitsua da"* erantzun dutenak bakarrik).**
**Adinaren arabera**

| | ADINA | | Aldea | Guztiak | N |
|---|---|---|---|---|---|
| | 12-13 urte | 14 urte edo gehiago | | | |
| 1. Familia-harreman onak edukitzea | 97,8 | 98,6 | - 0,7 | 98,1 | 742 |
| 2. Lagun asko edukitzea | 93,6 | 90,7 | 2,8 | 92,4 | 688 |
| 3. Dirua irabaztea | 90,9 | 94,1 | - 3,2 | 92,1 | 696 |
| 4. Kultura- eta lanbide-gaitasun maila ona lortzea | 90,2 | 91,7 | - 1,5 | 90,7 | 680 |
| 5. Ingurumena zaintzea | 90,9 | 89,3 | 1,5 | 90,3 | 681 |
| 6. Bikote-harreman ona edukitzea | 87,8 | 93,7 | - 5,9 | 90,1 | 676 |
| 7. Lanean arrakasta edukitzea | 85,0 | 90,0 | - 5,0 | 86,9 | 653 |
| 8. Arauak eta agintea errespetatzea | 86,8 | 80,2 | 6,5 | 84,3 | 628 |
| 9. Denbora libre/aisialdi asko edukitzea | 83,1 | 84,7 | - 1,6 | 83,7 | 623 |
| 10. Mehatxatutako pertsonen bizitza defendatzeaz arduratzea | 72,7 | 72,4 | 0,3 | 72,5 | 543 |
| 11. Munduko beste leku batzuetan gertatzen denaz arduratzea | 67,3 | 61,7 | 5,5 | 65,1 | 492 |
| 12. Gogobeteko sexu-bizitza edukitzea | 58,0 | 74,1 | - 16,0 | 64,3 | 478 |
| 13. Egunean bizitzea etorkizunean pentsatu barik | 61,5 | 60,1 | 1,4 | 61,0 | 454 |
| 14. Auzoa hobetzeko gauzak egitea | 64,4 | 54,1 | 10,2 | 60,4 | 449 |
| 15. Erlijio-kontuaez arduratzea | 28,6 | 17,7 | 10,9 | 24,4 | 182 |
| 16. Politika-gaietan interesatzea | 13,9 | 16,7 | - 2,8 | 15,0 | 112 |

Ikus daitekeenez, 12-13 urteko gazteek errespetu handiagoa diote aginteari (%86, besteen %80aren aldean), gauzak egiten dituzte auzoa hobetzeko (%64, besteen %54aren aldean),

eta erlijio-kontuez kezkatzen dira (%28, besteen %18aren aldean); nagusiek, aldiz, bikotearen inguruko gaiei ematen diete garrantzi handiagoa. Hain zuzen, "Bikote-harreman ona edukitzea" itemak %94ren adostasuna jaso zuen, txikiagoen %88aren aldean, eta, batez ere, "Gogobeteko sexu-bizitza edukitzea" aldezten dute, %74tan aukeratzen baitute, besteen %58aren aldean.

Jaioterriari dagokionez ere (ikus 126. Taula) atzeman ditugu aldeak aurkezturiko gaietako batzuetan.

**126. Taula. Esango didazu zenbateraino den garrantzitsua kontu hauetako bakoitza zure bizitzan? (%)**
**("Oso garrantzitsua da" eta "Nahiko garrantzitsua da" erantzun dutenak bakarrik).**
**Jaioterriaren arabera**

| | JAIOTERRIA | | Aldea | Guztiak | N |
|---|---|---|---|---|---|
| | Euskadi | Atzerritarrak | | | |
| 1. Familia-harreman onak edukitzea | 98,0 | 98,5 | - 0,4 | 98,1 | 732 |
| 2. Lagun asko edukitzea | 93,0 | 86,3 | 6,7 | 92,4 | 689 |
| 3. Dirua irabaztea | 92,3 | 92,6 | - 0,3 | 92,3 | 678 |
| 4. Kultura- eta lanbide-gaitasun maila ona lortzea | 90,3 | 95,5 | - 5,1 | 90,8 | 671 |
| 5. Ingurumena zaintzea | 89,8 | 95,3 | - 5,5 | 90,3 | 672 |
| 6. Bikote-harreman ona edukitzea | 91,3 | 77,9 | 13,4 | 90,1 | 667 |
| 7. Lanean arrakasta edukitzea | 86,3 | 91,0 | - 4,6 | 86,7 | 643 |
| 8. Arauak eta agintea errespetatzea | 83,5 | 91,0 | - 7,5 | 84,2 | 619 |
| 9. Denbora libre/aisialdi asko edukitzea | 83,8 | 80,6 | 3,2 | 83,5 | 613 |
| 10. Mehatxatutako pertsonen bizitza defendatzeaz arduratzea | 72,6 | 74,2 | - 1,6 | 72,7 | 537 |
| 11. Munduko beste leku batzuetan gertatzen denaz arduratzea | 64,8 | 69,1 | - 4,2 | 65,2 | 486 |
| 12. Gogobeteko sexu-bizitza edukitzea | 64,8 | 64,6 | 0,2 | 64,8 | 475 |
| 13. Egunean bizitzea etorkizunean pentsatu barik | 61,4 | 55,2 | 6,2 | 60,9 | 447 |
| 14. Auzoa hobetzeko gauzak egitea | 59,8 | 64,6 | - 4,7 | 60,3 | 442 |
| 15. Erlijio-kontuaez arduratzea | 23,3 | 37,8 | - 14,5 | 24,6 | 181 |
| 16. Politika-gaietan interesatzea | 15,2 | 13,4 | 1,8 | 15,1 | 111 |

Hala, bada, Euskadin jaio diren gazteak balio handiagoa ematen diete bikote-harremanei (aldea %13 da), dirua irabazteari (aldea %7 da) eta egunean bizitzeari, etorkizunean pentsatu barik (adostasuna %6 handiagoa da), eta atzerrian jaio diren gazteek, berriz, ondorengoetan gainditzen dituzte EAEkoak, adieraziriko ordenan: erlijio-kontuez arduratzean (%14ko aldea), arauak eta agintea errespetatzean (%7), eta ingurumena zaintzean (%5).

Behin adingabeen lehentasunak azterturik, eta kontuan izanda zer garrantzi ematen dioten pertsona arteko harreman sendoei, egokia iruditu zaigu jakitea ea haien inguruko zer pertsonak duten garrantzi gehien gazte hauek hainbat arlotan laguntza behar dutenean.

Lehenik eta behin, aztertuko dugu norengana joko luketen lehentasunez ikasketen arloko aholkua edo laguntza eskatzeko.

**66. Grafikoa. Norengana joko zenuke ikasketa-kontuetan aholkua edo laguntza beharko bazenu? Sexuaren arabera**




Gazteek, 66. Grafikoan ikusten dugunez, halako egoeretan amaren edo aitaren laguntza nahiago dute, batez besteko ehunekoa %53,7 dela, eta, hurren, "Irakaslea edo tutorea" aukeratzen dute, 30,8tan, hain zuzen. Horrez gain, ikusten dugu mutilek jotzen dutela ehuneko handiago batean gurasoengana, eta, ordea, irakaslea edo tutorea hautatzen duten nesken ehunekoa %7 handiagoa da, mutilekin erkatuta.

Banaketa bera ote dago adinaren arabera?

Hala, 67. Grafikoan ageri denez, funtsezko aldea dago adinen arabera; hain zuzen ere, 12-13 urteko gazteek ia %10 gehiago jotzen dute gurasoengana, nagusiagoen aldean, eta adinean aurrera egin ahala, berriz, aldearen ehuneko hori adiskideen eta neba-arreben artean banatzen da.

**67. Grafikoa. Norengana joko zenuke ikasketa-kontuetan aholkua edo laguntza beharko bazenu? Adinaren arabera**




Erantzunak jaioterriaren arabera aztertzen direnean ere badago zer nabarmendu. Kasu honetan, atzerrian jaioek batez ere irakasleengan dute jarrita konfiantza, %18ko aldearekin, eta Euskadin jaioei dagokionez, aldiz, egoera hori alderantziz ageri da, ehunekoen arteko alde hori gurasoen aukerak hartzen baitu.

**68. Grafikoa. Norengana joko zenuke ikasketa-kontuetan aholkua edo laguntza beharko bazenu? Jaioterriaren arabera**




Familia-kontuei dagokienez, nahikoa adostasun handia aurkitzen dugu gehienbat gurasoak aukeratzean erreferentziazko pertsona gisa, aldagaiak gorabehera (%73). Beharbada, aipatu

beharreko bakarra da, sexuaren aldetik, neskek gehiago jotzen dutela adiskideengana (nesken %13, mutilen %8aren aldean), eta mutilek, berriz, gurasoengana jotzen dutela gehiago (mutilen %77, nesken %69aren aldean).

**69. Grafikoa. Norengana joko zenuke familia-kontuetan aholkua edo laguntza beharko bazenu? Sexuaren arabera**




Erantzun-aukerak inkestatuen adinaren arabera aztertzen direnean, ikusten dugu, ondorengo grafikoan, ikasketen arloan aurkitutako erantzun-eredu bera dugula. Esan nahi baita, 12-13 urtekoek gehiago jotzen dutela gurasoengana, 14 urteko edo gehiagokoek baino (batzuek %76tan eta besteek %69tan), eta azken nagusiago horiek, berriz, gehiago jotzen dutela adiskide eta neba-arrebengana. Hortik interpreta daiteke haurtzaroan gurasoak direla adingabeen funtsezko erreferentzia-ardatza eta, hazi ahala, beren berdinengan laguntzazko beste lotura batzuk aurkitzen dituztela eta, ondorioz, haien harremanak zabaltzen.

**70. Grafikoa. Norengana joko zenuke familia-kontuetan aholkua edo laguntza beharko bazenu? Adinaren arabera**




Aisia-kontuei dagokienez, horietan ere dira gurasoak adingabeen lehen erreferentzia-puntua (%53), atzetik adiskideak datozela (%32). Aurreko galderan bezalaxe, neskek mutilek baino ehuneko handiago batean jotzen dute adiskideengana (neskek %36tan eta mutilek, aldiz, %30etan), eta mutilek neurri handiagoan gurasoengana (%55tan, nesken %50aren aldean).

**71. Grafikoa. Norengana joko zenuke astialdi-, opor-... kontuetan aholkua edo laguntza beharko bazenu? Sexuaren arabera**




Gauza berbera gertatzen da atzera ere adinaren arabera: txikienek jotzen dute neurri handiagoan gurasoengana, eta nagusienek gehiago bilatzen dute adiskideen laguntza.

**72. Grafikoa. Norengana joko zenuke astialdi-, opor-... kontuetan aholkua edo laguntza beharko bazenu? Adinaren arabera**




Euskadin jaiorikoen artean, aisia-kontuez arduratzeko gurasoengana jotzen dutenen ehunekoa %6,9 handiagoa da, atzerrian jaiorikoekin erkatuta, eta azken horiek, berriz, Euskadin jaioek baino %5 gehiagotan esan zuten ez zutela inorengana jotzen.

**73. Grafikoa. Norengana joko zenuke astialdi-, opor-... kontuetan aholkua edo laguntza beharko bazenu? Jaioterriaren arabera**




Ikus dezagun orain zer gertatzen den barneagoko gaiei loturiko zailtasunekin. Sexu-kontuetan, 74. Grafikoan ageri denez, EAEko gazteek adiskideengana jotzen dute lehentasunez (%38,2), nahiz eta gurasoak ere, %28,9tan, kontuan izaten dituzten; neska-lagunak eta mutil-lagunak hirugarren tokian daude. Ziurtasunez esateko beharrezko informazioa ez dugun arren, daitekeena da bikotekideak hirugarren tokian alboraturik geratzearen arrazoia izan dadin gazte horietako askok oraindik ez izatea bikotekiderik, kolektiboaren adin-tartea dela eta (12-14 urte).

**74. Grafikoa. Norengana joko zenuke sexu- eta maitasun-kontuetan aholkua edo laguntza beharko bazenu? Sexuaren arabera**




Sexuaren arabera, grafikoko bertako barrek erakusten dutenez, neskek konfiantza adiskideengan maizago jartzen dute, antza denez (%44tan, mutilen %32aren aldean), eta badirudi mutilek, berriz, neurri handiagoan bikotekidearengan jartzen dutela konfiantza (%18tan, nesken %10aren aldean).

Berriro ere, aurkitzen dugu jaioterria, itxura denez, erabakigarria dela norengana jo erabakitzean. Hain zuzen, 75. Grafikoan ikus dezakegunez, Euskadin jaiotakoek %23,4 gehiago jotzen dute adiskideengana, eta atzerrian jaiotakoek %14,9 gehiagotan ez dutela inorengana jotzen. Daitekeena da, aurreko beste atal batzuetan ikusi dugunez, adiskide-kopuru txikiagoa izanda eta, beharbada, jatorrizko herrialdeetako kulturen eraginagatik, nolabaiteko zailtasunak izatea hain barneko eta pertsonalak diren gaiei buruzko komunikazioan.

**75. Grafikoa. Norengana joko zenuke sexu- eta maitasun-kontuetan aholkua edo laguntza beharko bazenu? Jaioterriaren arabera**



EAEko adingabeek dituzten laguntza-iturri nagusiei buruz orain arte lortu diren datuetatik ondorio hauek atera ditzakegu:

- Sexuaren aldagaiari begiraturik, neskek gehiagotan jotzen dute adiskideengana, eta mutilek, baina, konfiantza handiagoa izaten dutela gurasoengan –gaiak garrantzi-gabeak izanez gero, betiere–, edo beren kezkak inori ez azaltzea aukeratzen dute, gaiak barneko eta pertsonalagoak direnean.

- Adina aintzat harturik, gazteenek (12-13 urte) gehiago jotzen dute gurasoengana, eta nagusiek gehiagotan eskatzen diete aholkua adiskide eta neba-arrebei.

- Eta, jaioterriari helduta, ikusten da atzerrian jaioriko gazteek irakasleengana jotzen dute gehiago, gurasoengana baino. Nolanahi ere, horren inguruan esan behar da alde nabarmen hori ikasketen arloan baino ez dela izan hain handia, eta, hortaz, horrek ez duela esan nahi irakasleengan konfiantza handiagoa dutenik, baizik eta, besterik gabe, arazo horietarako prestatuago ikusten dituztela, haien lanbidea dela eta.

- *Balio-transmisioko eragileak*

Era orokorrago batean oraingoan, gure asmoa izan zen jakitea gazteek zer garrantzi ematen zioten ondoren datozen eragileetako bakoitzari, bizitzan gidatze aldera. Horretarako, "Zure ustez, non esaten dira bizitzan bide bat edo beste hartzeko gauzarik garrantzitsuenak?" galdera egin genien, eta 127. Taulan bildutako erantzun-aukerak aurkeztu.

**127. Taula. Zure ustez, non esaten dira bizitzan bide bat edo beste hartzeko gauzarik garrantzitsuenak? (%) Jaioterriaren arabera**

| | JAIOTERRIA | | Aldea | Guztiak | N |
|---|---|---|---|---|---|
| | Euskadi | Atzerritarrak | | | |
| 1. Etxean, familian | 91,6 | 92,6 | - 0,9 | 91,7 | 690 |
| 2. Lagunen artean | 54,2 | 42,6 | 11,5 | 53,1 | 400 |
| 3. Kalean, nire adineko jendearen artean | 16,3 | 8,8 | 7,5 | 15,6 | 118 |
| 4. Liburuetan | 28,0 | 32,3 | - 4,2 | 28,4 | 214 |
| 5. Komunikabideetan | 22,6 | 29,4 | - 6,7 | 23,2 | 175 |
| 6. Ikastetxeetan | 56,8 | 41,1 | 15,6 | 55,4 | 417 |
| 7. Nire erlijioko tenpluan edo elizan | 7,8 | 17,6 | - 9,7 | 8,7 | 66 |
| 8. Interneten | 14,1 | 16,1 | - 2,0 | 14,3 | 108 |
| 9. Inon ez | 1,7 | 1,4 | 0,2 | 1,7 | 13 |

Zalantzarik gabe, garrantzirik handiena familiari ematen diote (%91,7), eta hurren ikastetxeak (%55,4) eta adiskideak (%53,1) jartzen dituzte.

Nahiz eta ehuneko handienak familiari dagozkien, jaioterriaren araberako aldeak daude beste transmisio-eragile batzuei ematen dieten garrantzian. Hain zuzen, Euskadin jaiotakoek konfiantza handiagoa jartzen dute ikastetxeetan (%57 atzerritaren %41aren aldean), lagunengan (%54, atzerritarren %43aren aldean) edo are kalean, beren adineko jendearen artean (%16, atzerritaren %9aren aldean), eta atzerrian jaiotakoen artean, aldiz, beren erlijioari emandako garrantzia askoz handiagoa da (%18, Euskadin jaiotakoen %8aren aldean).

Adinari dagokionez, eta 128. Taulako datuak ikusita, nabarmenena da txikienek, nagusiagoen aldean, Interneti (%18, nagusien %9aren aldea) eta liburuei (%32, nagusien %23aren aldean) ematen dioten balioa.

**128. Taula. Zure ustez, non esaten dira bizitzan bide bat edo beste hartzeko gauzarik garrantzitsuenak? (%) Adinaren arabera**

| | ADINA | | Aldea | Guztiak | N |
|---|---|---|---|---|---|
| | 12-13 urte | 14 urte edo gehiago | | | |
| 1. Etxean, familian | 91,4 | 92,5 | - 1,0 | 91,8 | 700 |
| 2. Ikastetxeetan | 56,2 | 55,4 | 0,7 | 55,9 | 426 |
| 3. Lagunen artean | 54,4 | 51,0 | 3,4 | 53,1 | 405 |
| 4. Liburuetan | 32,0 | 23,1 | 8,9 | 28,6 | 218 |
| 5. Komunikabideetan | 25,4 | 19,7 | 5,7 | 23,2 | 177 |
| 6. Kalean, nire adineko jendearen artean | 16,8 | 13,6 | 3,2 | 15,6 | 119 |
| 7. Interneten | 17,7 | 9,1 | 8,5 | 14,4 | 110 |
| 8. Nire erlijioko tenpluan edo elizan | 10,9 | 5,1 | 5,8 | 8,6 | 66 |
| 9. Inon ez | 1,9 | 1,3 | 0,5 | 1,7 | 13 |

- *Erlijioa*

Atal honetan, ikasleen aukera erlijiosoa aztertuko dugu; horretarako, aukeren zerrendan 129. Taulan jasorikoak sartu genituen. Taulan, jaioterriaren arabera aztertzen dira, hori izan baita alde handienak agertzen zituen aldagai soziodemografikoa.

Hala, bada, taulako datuek argitzen dutenez, gehiengoaren aukera “Katoliko ez oso elizkoia” izan zen (%29,1), eta hurren “Katoliko ez elizkoia” (%23,9) eta “Sinesgabea” (%18,5).

Jaioterriaren araberako aldeei dagokienez, atzematen dugu “Sinesgabeak” direla uste duten Euskadin jaioriko pertsonak %10 gehiago direla atzerrian jaioen artean aukera hori markatu zutenak baino (%12 eta %2, hurrenez hurren). Aitzitik, Euskadin jaiorikoek atzerrian sortutakoak gainditzen dituzte, %15etan, “Sinesgabea” erantzunean (%20 eta %5, batzuek eta bestetzuek).

**129. Taula. Erlijio-kontuetan, zer zarela uste duzu? (%). Jaioterriaren arabera**

| ERLIJIOA | JAIOTERRIA | | Aldea | Guztiak | N |
|---|---|---|---|---|---|
| | Euskadi | Atzerritarrak | | | |
| Katoliko elizkoia | 11,2 | 16,6 | - 5,4 | 11,7 | 86 |
| Katoliko ez oso elizkoia | 28,7 | 33,3 | - 4,6 | 29,1 | 214 |
| Katoliko ez elizkoia | 23,9 | 24,2 | - 0,3 | 23,9 | 176 |
| Beste erlijio bateko sinestuna | 2,2 | 12,1 | - 9,8 | 3,1 | 23 |
| Indiferentea | 7,6 | 6,0 | 1,5 | 7,4 | 55 |
| Ateoa | 6,4 | 3,0 | 3,4 | 6,1 | 45 |
| Sinesgabea | 19,8 | 4,5 | 15,3 | 18,5 | 136 |
| **Guztira** | **100** | **100** | - | **100** | **735** |

- *Dirua*

Gaur egungo garaietan, zalantzarik gabe, aisiaz hitz egitean dirua ere aipatu beharra dago. Aspaldikoak dira goma-jolasa, sokasaltoa edo zapaburutan ibiltzea. Hirian bizitzea landa-inguruan bizi izateari nagusitu izana, teknologia berriak ziztu bizian garatu izana eta ugaritu izana, eta kontsumismo handiagoko gizarte bat garatu izana –non, gainera, ikusiriko datuen arabera, baliorik materialenak nagusi baitira– izan dira sorburuak gazteenen gogoko gauzen zerrendetan egon daitezen bideo-jokoetan aritzea, dantzalekura joatea edo modara ibiltzea (eta horiek, gaur egun, diru-inbertsio handia eskatzen dute, denborarenaz gain).

**76. Grafikoa. Zenbat diru edukitzen duzu normalean astean zure gastuetarako? Adinaren arabera**




Hala ere, halako gastuen kargua gurasoek hartu ohi dute, gazteek berek administratzeko izaten duten aste-sariaz edo pagaz gain. Asteko gastuetarako zenbat diru izaten duten kalkulatze aldera, gazteei galdera hau egin genien: *"Zenbat diru edukitzen duzu normalean*

*astean zure gastuetarako?".* Galdera irekia zenez, lortutako datuak 76. Grafikoan ageri diren aukeretan antolatu ditugu geroago.

Horri dagokionez, alderik handienak adinaren eta jaioterriaren arabera aurkitzen ditugu. Hala, bada, gehien aukeratu zuten erantzuna "10 euro bitarte" izan zen, %71,6ko batez bestekoarekin . Diru-kopuru hori izaten dutela esan zutenen artean, 17,8 puntuko aldea dago 12-13 urteko gazteen eta 14 urteko edo gehiagokoen artean, eta ehunekotan adierazitako alde hori alderantziz agertzen da, ia, "11-24 euro" erantzun zutenetan. Hortik ondorioztatzen dugu badagoela korrelazio bat adinaren eta diruaren artean; hartara, espero izatekoa denez, 12-13 urtekoek diru gutxiago hartzen dute nagusiagoek baino.

Jaioterriari dagokionez, "10 euro bitarte" erantzunean ikusten dugu Euskadin jaiotako pertsonek %14,3ko aldearekin gainditzen dituztela atzerrian jaiorikoak, eta alde hori alderantziz gertatzen dela 11 eurotik 48 eurora bitartean izaten dituztenen erantzunak batuz gero. Hortaz, emaitzei begiratuta, atzerritar gazteen erosahalmena handiagoa da Euskadin jaioenena baino.

**77. Grafikoa. Zenbat diru edukitzen duzu normalean astean zure gastuetarako? Jaioterriaren arabera**




### *3.2.2. Ekologia eta ingurumena*

Orain arte ikusi dugunez, nahiz eta adingabeek baliorik material, azaleko eta estetikoenei ematen dieten lehentasuna, atzeman dugu ekologia eta ingurumena bereziki interesatzen zaien gai bat dela.

Orain aztergai dugun gai horretan gazte hauek duten engaiamendu-maila –ezagutzari nahiz jokabideari dagokienez– zein den jakite aldera, zerikusia duten iritzi eta neurri batzuk aurkeztu genizkien.

Aurrean jarri genizkien iritzi horien zerrenda 130. Taulan biltzen da, eta eskatu genien ondorengo aukeretako bat adierazteko, planteatzen zen ideiarekin zenbateraino zeuden ados kontuan hartuta: "Oso ados", "Nahiko ados", "Hala-hola", "Ez oso ados" edo "Ez nago batere ados".

**130. Taula. Adierazi zenbateraino zauden ados ondorengo baieztapenekin (%) (*"Oso ados"* eta *"Nahiko ados"* erantzun dutenak bakarrik). Sexuaren arabera**

| BAIEZTAPENAK | SEXUA | | Aldea | Guztiak | N |
|---|---|---|---|---|---|
| | Neskak | Mutilak | | | |
| 1. Talde ekologista batzuk inoren kontura bizi dira gizartearen garapena eragotziz | 31,4 | 47,1 | - 15,7 | 39,3 | 281 |
| 2. Zientziak eta teknologiak ziurtatuko dute Lurra ezin-bizitzezko lekua ez bihurtzea | 43,1 | 54,6 | - 11,5 | 48,8 | 347 |
| 3. Gizateriaren krisi ekologikoa gehiegi ari da puzten | 37,6 | 44,5 | - 6,9 | 41,0 | 290 |
| 4. Ingurumena babesteak lehentasuna izan behar du politikan, baita hazkunde ekonomiko motelagoa badakar ere | 46,7 | 52,6 | - 5,9 | 49,7 | 353 |
| 5. Herrialde garatu bateko herritarra izanik daramadan bizimodua (kontsumoa, aisia pasatzeko moduak, etab. garrantzitsua da planetaren kontserbaziorako | 48,4 | 45,6 | 2,8 | 47,0 | 335 |

Daturik adierazgarrienak biltze aldera, taulan baturik jaso dugu "Oso ados" eta "Nahiko ados" erantzun zutenen erantzunak.

Nahiz eta adingabeek gehien onartzen duten iritzia "Ingurumena babesteak lehentasuna izan behar du politikan, baita hazkunde ekonomiko motelagoa badakar ere" den, eta gutxien aukeraturikoa "Talde ekologista batzuk inoren kontura bizi dira gizartearen garapena eragotziz", bien arteko aldea ez da %10 baino gehiago, eta, hortaz, erantzunak nahikoa berdinduta daude batez besteko puntuetan.

Sexuaren arabera, baina, ikusten dugu mutilek eszeptizismo handiagoa dutela talde ekologista batzuen lanaren aurrean (mutilen %47k, nesken %31ren aldean, erantzun zuen "Talde ekologista batzuk inoren kontura bizi dira gizartearen garapena eragotziz"), bai eta konfiantza handiagoa ere zientzia eta teknologiaren aurrean, Lurra ezin bizizko lekua ez bihurtzeari dagokionez (mutilek %55etan erantzun zuten, eta neskek, aldiz, %43tan).

Jaioterriaren araberako alde aipagarriak ere aurkitu ditugu, 131. Taulako datuek aditzera ematen dutenez.

**131. Taula. Adierazi zenbateraino zauden ados ondorengo baieztapenekin (%). Jaioterriaren arabera**

| | JAIOTERRIA | | Aldea | Guztiak | N |
|---|---|---|---|---|---|
| | Euskadi | Atzerritarrak | | | |
| 1. Ingurumena babesteak lehentasuna izan behar du politikan, baita hazkunde ekonomiko motelagoa badakar ere | 49,6 | 50,8 | - 1,2 | 49,7 | 348 |
| 2. Zientziak eta teknologiak ziurtatuko dute Lurra ezin-bizitzezko lekua ez bihurtzea | 49,9 | 39,3 | 10,5 | 49,0 | 343 |
| 3. Herrialde garatu bateko herritarra izanik daramadan bizimodua (kontsumoa, aisia pasatzeko moduak, etab. garrantzitsua da planetaren kontserbaziorako | 46,4 | 51,6 | - 5,2 | 46,8 | 329 |
| 4. Gizateriaren krisi ekologikoa gehiegi ari da puzten | 41,8 | 31,1 | 10,7 | 40,9 | 285 |
| 5. Talde ekologista batzuk inoren kontura bizi dira gizartearen garapena eragotziz | 40,3 | 26,2 | 14,1 | 39,1 | 276 |

Datuak ikusita, atzerrian jaiotakoak sentiberatuago daude politikak nahiz norberaren bizimodua gaur egungo ekologia-krisiari egokitzearekin, eta Euskadi jaio direnek, aldiz, neurri handiagoan uste dute arazo hori gehiegi ari dela puzten (%42tan, besteen %31ren aldean) eta talde ekologista batzuk abaguneari probetxua ateratzen ari zaizkiola (%40tan, besteen %26aren aldean); gainera, konfiantza handiagoa dute zientzian arazoa konpontzeko etorkizunean (%50, besteen %39aren aldea). Era horretan, Euskadin jaioek agertzen dute oraingo ingurumen-egoeraren ikuspegi materialistagoa eta teknologikoagoa dutela.

Behin ezagutu eta gero gazte hauek, teoriaz bederen, gidari dituzten oinarrizko iritzi eta sinesbideak, orain eguneroko praktikak azter ditzagun, eta ikus dezagun zenbaterainoko koherentzia-maila duten. Horretarako, *a priori* ingurumena babesteko eta, ondorioz, garapen iraunkorra izateko onuragarriak diren neurri batzuen zerrenda aurkeztu genien, eta bakoitzari hiru erantzun-aukeretako bat markatuz erantzuteko eskatu: 1-Egiten dut, 2-Ez dut egiten, baina pentsatuta daukat egitea; eta 3-Ez dut egiten eta ez dut uste egingo dudanik.

Taulako datuak azterturik, aipatu behar da aldeko jarrera gehien bildu zituzten erantzunak izan zirela "Argiak eta tresna elektrikoak itzali, behar ez direnean" (1,3), eta "Hondakinak birziklatzeko ahal dudana egin" eta "Ur korrontearen kontsumoa murriztu" (1,5); bestalde, aldekotasun gutxien bildu zituztenak ondorengoak izan ziren: "Ingurumenaren aldeko ekitaldietan (hitzaldiak, kanpainak, manifestazioak) parte hartu" (2,2), "Hauteskundeetako botoa erabaki ingurumen kontuak kontuan hartuz" (2) eta "Okela gutxiago eta barazki eta fruta gehiago jan" (1,9).

**132. Taula. Esango didazu ondoren aipatzen diren neurrietatik zein hartu duzun etorkizuna ziurtatzen laguntzeko? Adinaren arabera**

| ETORKIZUNA ZIURTATZEKO NEURRIAK | ADINA | | Aldea | Batez bestekoa* | N |
|---|---|---|---|---|---|
| | 12-13 urte | 14 urte edo gehiago | | | |
| 1. Ingurumenaren aldeko ekitaldietan (hitzaldiak, kanpainak, manifestazioak) parte hartu | 2,15 | 2,30 | - 0,15 | 2,20 | 723 |
| 2. Hauteskundeetako botoa erabaki ingurumen kontuak kontuan hartuz | 2,07 | 2,06 | 0,01 | 2,06 | 713 |
| 3. Okela gutxiago eta barazki eta fruta gehiago jan | 1,90 | 2,04 | - 0,14 | 1,95 | 714 |
| 4. Itzultzekoak edo birziklatzekoak diren ontzietan datozen edariak erosi | 1,72 | 1,87 | - 0,15 | 1,78 | 716 |
| 5. Kontsumoa murriztu beharrezkoa ez denean | 1,64 | 1,63 | 0,01 | 1,64 | 706 |
| 6. Ur korrontearen kontsumoa murriztu | 1,48 | 1,66 | - 0,18 | 1,55 | 734 |
| 7. Hondakinak birziklatzeko ahal dudana egin | 1,44 | 1,59 | - 0,15 | 1,50 | 728 |
| 8. Argiak eta tresna elektrikoak itzali, behar ez direnean | 1,40 | 1,35 | 0,05 | 1,38 | 730 |

* Puntuazioak 1etik (Egiten dut) 3ra (Ez dut egiten eta ez dut uste egingo dudanik) artekoak ziren.

Kontuan izanda, nolabait laburbiltzearren, adingabe hauek ingurumenari loturiko arazoen inguruan duten kezka-maila %50-60 dela (132. Taulan adierazirikoaren arabera), badirudi haien jarduerak bat datozela adierazten dutenarekin, gehienak eskalaren erdigunean kokatzen baitira (1,4ren eta 2,2ren artean) garapen iraunkorraren alde aritzeko garaian.

Arlo honetan ere badaude aldeak adinaren arabera; hain zuzen, txikienak daude kontzientziatuago eta engaiatuago etorkizun iraunkorra izaten laguntzeko neurriekin. Zehazki, 132. Taulan ikus dezakegunez, aldeko jarrera handiagoa adierazi zuten "*Ur korrontearen kontsumoa murriz*"teko (1,5eko balioa, 1,8ren aldean), "*Ingurumenaren aldeko ekitaldietan (hitzaldiak, kanpainak, manifestazioak) parte har*"tzeko (2,15eko balioa, 2,3ren aldean), "*Itzultzekoak edo birziklatzekoak diren ontzietan datozen edariak eros*"eko (1,7ko balioa, 1,9ren aldean), eta "*Hondakinak birziklatzeko*" ahal dutena egiteko (1,4ko balioa, 1,6ren aldean).

- *Giza eskubideak*

Azkenekoa, baina ez gutxienekoa, izan da ikertzea ea, 133. Taulan ageri diren giza eskubideen artean, zeini ematen dieten garrantzi gehiago. Horregatik, garrantzitsuenak iruditzen zaizkien lauak aukeratzeko eskatu genien.

**133. Taula. Ondoren aipatzen diren giza eskubideetatik, adierazi zein lau iruditzen zaizkizun garrantzitsuenak (%). Sexuaren arabera**

| GIZA ESKUBIDEAK | SEXUA | | Aldea | Guztiak | N |
|---|---|---|---|---|---|
| | Neskak | Mutilak | | | |
| 1. Pentsamendu- eta adierazpen-askatasuneko eskubidea | 60,6 | 61,1 | - 0,5 | 60,8 | 464 |
| 2. Lana edukitzeko eskubidea | 59,8 | 54,8 | 4,9 | 57,3 | 437 |
| 3. Osasunerako eskubidea | 47,2 | 45,1 | 2,1 | 46,1 | 352 |
| 4. Etxebizitza duina izateko eskubidea | 43,5 | 46,7 | - 3,1 | 45,1 | 344 |
| 5. Hezkuntza hartzeko eskubidea | 47,5 | 39,1 | 8,4 | 43,3 | 330 |
| 6. Sexu, arraza, hizkuntza, erlijio, orientazio sexual eta abarrengatik bereizkeriarik ez jasateko eskubidea | 37,5 | 32,0 | 5,5 | 34,7 | 265 |
| 7. Bizitzeko eskubidea, ideia politikoak edozelakoak izanda ere | 30,1 | 29,1 | 1,0 | 29,6 | 226 |
| 8. Ingurumen osasungarria izateko eskubidea | 21,0 | 22,3 | - 1,3 | 21,6 | 165 |
| 9. Haurtzaro duina izateko eskubidea | 19,1 | 17,0 | 2,1 | 18,1 | 138 |

Taulan islaturik ageri denez, hauek dira sailkapen horretako buru: "Pentsamendu- eta adierazpen-askatasuneko eskubidea", %60,8arekin; "Lana edukitzeko eskubidea", %57,3arekin; "Osasunerako eskubidea", %46,19arekin; eta "Etxebizitza duina izateko eskubidea", %45,1arekin, gai horiek guztiak biziki boladan daudela EAEko gizartean.

Hala ere, sexuaren araberako alderik nabarmenena "Hezkuntza hartzeko eskubide"ari emandako garrantzian dago; hain zuzen, mutilek baino, neskek %8 gehiagotan aukeratu zuten (neskek %47tan eta mutilek %39tan).

Har dezagun berriro "Pentsamendu- eta adierazpen-askatasuneko eskubidea", hura aukeratu baitzuten gazteek garrantzitsuentzat. Ikusten dugu, 78. Grafikoak erakusten duenez, badaudela adinaren araberako alde batzuk.

**78. Grafikoa. Ondoren aipatzen diren giza eskubideetatik, adierazi zein lau iruditzen zaizkizun garrantzitsuenak. Adinaren arabera**




Kasu honetan, nagusiek, hain zuzen, hartu zuten aukera hori neurri handiagoan, txikien gainetik %9,4ko aldea dutela. Beste atal batzuetan ikusi dugunez, politikako gaietan engaiamendu handiagoa dute adin horietan, eta arrazoizkoa da pentsatzea alde hori datorrela, neurri batean, behintzat, euskal gizarteari dagokion egoera politikotik.

Baina, sexuaren eta adinaren aldetik ez ezik, berriro ere jaioterriaren aldetik ere aurkitu ditugu aldeak.

Oraingoan, beste aldagai-gurutzatze honetan ikus dezakegu "Pentsamendu- eta adierazpen-askatasuneko eskubide"ari lehentasuna eman zioten gazteen ehuneko handi bat atzerrian jaiotakoak, hain zuzen, zirela (%80, besteen %60aren aldean). Horrez gain, haiek ere ematen diote "Hezkuntza hartzeko eskubide"ari garrantzi gehien (%59, besteen %41aren aldean). Aitzitik, Euskadin jaiorikoek balioztatzen dituzte neurri handiagoan "Osasunerako eskubidea" (%48tan, eta besteek, aldiz, %28tan) eta "Ingurumen osasungarria izateko eskubidea" (%22tan, eta besteek, %11tan).

**79. Grafikoa. Ondoren aipatzen diren giza eskubideetatik, adierazi zein lau iruditzen zaizkizun garrantzitsuenak. Jaioterriaren arabera**




## 3.3. Jarrerak, desberdinekiko tolerantzia

Azkenik, DBHko ikasleei dagokien atal honetan, haien ezaguerak, jarrerak eta jokabideak aztertuko ditugu "Jarrerak, desberdinekiko tolerantzia" izenburuaren pean bildu diren hainbat gairi dagokienez. Atal honetan honako hauek sartu dira: nesken eta mutilen arteko berdintasuna; ezgaitasun bat duten pertsonak; etorkinak; homosexualak; eta ETAren indarkeriaren aurreko jarrerak.

### *3.3.1. Nesken eta mutilen arteko berdintasuna*

Gazte hauek, nesken eta mutilen berdintasunaren inguruan, beren bizitzan dituzten irizpideak zein diren jakite aldera, 80. Grafikoan bilduriko itemak aurkeztu genizkien, eta beren jarrera adierazteko eskatu genien, erantzun-aukera hauek emanik: "oso ados", "nahiko ados", "hala-hola", "ez oso ados" eta "ez nago batere ados".

Hala ere, gero, jasoriko informazioa laburbildu eta haren interpretazioa egiteko asmoz, erantzunak honela taldekatu genituen berriro: "ez oso edo ez batere ados", "hala-hola", "nahiko edo oso ados".

**80. Grafikoa. Adierazi zenbateraino zauden ados baieztapen hauekin (nesken eta mutilen arteko berdintasuna)**




Ideia hauek atera daitezke grafikotik:

- Oro har, nabarmendu behar da ezen baieztapen horiek, guztiak emakumeen gutxiespenean oinarrituta daudela, batez beste %77ko arbuioa jasotzen dutela; horrek aditzera ematen du oraindik lau adingabetik batek pentsamolde matxista duela, nahiz eta, oro har, emakumearen eskubideak gizonarenak bezala babesten dituzten gazteak aurkitzen ditugun.

- Adostasun-mailarik txikiena dugu funtsean heziketa akademikoari eta ardurei dagozkien baieztapenetan, alegia, "*Neskek eta mutilek prestakuntza eta ikasketa desberdinak eduki behar dituzte lan egiteko*" (%86ko desadostasuna) itemean, batetik, eta, bestetik, "*Emakumeek ez lukete ardura handiko lanik egin behar (politika, esaterako), seme-alabak zaindu behar dituztelako*" (%83ko desadostasuna) eta "*Bikote-harremanetan, gizonak eta emakumeak ez dituzte elkarrekin hartu behar ardura eta erabaki guztiak*" (%90eko desadostasuna) itemetan.

- Aldeko iritzi gehien –eta, hortaz, pentsamolde matxistagoak agerian uzten dituzten– baieztapenak etxe-ingurunekoari buruzkoak dira. Hala, bada, esaterako, "*Aitak agindu behar du etxean*" baieztapenak %13ko adostasuna jaso zuen, eta "*Amak zaindu behar ditu seme-alabak*" eta "*Gizona arduratu behar da familiaz*" esaldiek %15koa.

Baina, nola azaldu "*Bikote-harremanetan, gizonak eta emakumeak ez dituzte elkarrekin hartu behar ardura eta erabaki guztiak*" baieztapenak %90ko desadostasuna jasotzea, eta ehuneko hori, berriz, %67 baino ez izatea *"Gizona arduratu behar da familiaz"?*

Horri dagokionez, galdetu daiteke ea gazteek uste ote duten bikote-harremana trantsizioko aldi bat baino ez dela, familia osatu bitartekoa, eta orduan, familia osatzean, inork ez dakien arrazoiengatik, rolak berriro banatzea erabakitzen dutela, amari seme-alabak zaintzearen ardura emanda, eta aitari, gainerako guztiaren ardura.

Lortutako emaitzak esplikatzen dituzten hipotesiak gorabehera, hel diezaiegun orain gertaerei, ikusteko ea zein neurritan aldatu diren erantzunak inkestatuen sexuaren arabera. Horretarako, 81. Grafikoan jasoriko datuak aztertuko ditugu; hain zuzen, grafiko horretan sexuaren araberako batez bestekoak ondorengo eskala aintzat hartuz kodetu dira: 1-Ez nago batera ados, 2-Ez oso ados, 3-Hala-hola, 4-Nahiko ados, eta 5-Oso ados.

**81. Grafikoa. Adierazi zenbateraino zauden ados baieztapen hauekin *(nesken eta mutilen arteko berdintasuna).* Sexuaren arabera**




Lorturiko datuetan oinarriturik, ondorengoa ikus dezakegu:

- Argi eta garbi, neskak sentiberatuago daude gizonen eta emakumeen arteko berdintasunarekin, desadostasun handiagoa adierazten baitute aurkezturiko baieztapen guzti-guztietan.

– Baina, horrez gain, adingabeek sexuaren arabera duten pentsamolde-desberdintasun handiena atzematen da, hain zuzen, oro har onarpenik handiena jaso dituzten baieztapenetan, lehen aipatu ditugun berberetan: alegia, "*Gizona arduratu behar da familiaz*" eta "*Amak zaindu behar ditu seme-alabak*" baieztapenetan (2,4 neskek eta 1,9 mutilek bietan), eta "*Aitak agindu behar du etxean*" esaldian (2,4 neskek eta 1,8 mutilek).

Datu horietatik ondoriozta dezakegu pentsamolde-talkarik handiena dagoela, hain zuzen, familiaren ingurunean; han, mutilek pentsamolde matxistagoa dute oraindik, eta neskek, aldiz, neurri handiagoan aldezten dute berdintasuna.

Hala ere, inkestatuen sexuaren araberako aldeez gain, gazte hauen hezkuntza-ereduari loturiko aldeak ere aurkitu ditugu, 82. Grafikoan ageri denez.

**82. Grafikoa. Adierazi zenbateraino zauden ados baieztapen hauekin *(nesken eta mutilen arteko berdintasuna).* Ereduaren arabera**




### *3.3.2. Ezgaitasunen bat duten pertsonak*

Beste atal honen xedea da jakitea zer deritzeten gazteek ezgaitasun bat duten pertsonei. Horretarako, gai horri buruzko baieztapen batzuk taxutu, eta inkestatuei ondorengo eskala kontuan hartuta erantzuteko eskatu zitzaien: 1-Ez nago batera ados, 2-Ez oso ados, 3-Hala-hola, 4-Nahiko ados eta 5-Oso ados.

**83. Grafikoa. Adierazi zenbateraino zauden ados baieztapen hauekin (ezgaitasunen bat duten pertsonak). Sexuaren arabera**




Hau ondorioztatu dugu 83. Grafikoan ageri diren datuetatik:

– Nesken eta mutilen arteko berdintasunari buruzko zatian gertatzen zen bezala, lortutako erantzunen batez bestekoa, eskalari jarraituta, 2,5 izan arren (“ez oso ados” eta “hala-hola” adostasun-mailen artekoa), garrantzitsua da arreta jartzea, praktikotasunaren aldetik, pertsona horiek gizarteratzearen aurkako jarrera –zuzenean edo zeharka– adierazten duten gazteen ehunekoan.

– DBHko ikasleen adostasuna gehien jasotzen dituzten baieztapenak dira ezgaitasunen bat duten pertsonentzako aukerei dagozkionak, lanaren arloan izan (“Ezgaitasunak dituzten pertsonek ez lituzkete eduki beharko beste edonork dituen lan-aukerak” esaldian batez bestekoa 1,9 da) zein ikasketen arloan izan (“Ez litzateke egokia ezgaitasunen bat dutenek ezgaitasunik ez dutenekin ikasi ahal izatea” baieztapenaren batez bestekoa 2,2 da).

– Hala eta guztiz ere, halako pertsonak gizarteratzearen aldeko jarrera aldatu egiten da horrek haien bizitzaren alderdiren bat mugatu edo baldintzatu dezakeenean: haien amodio-harremanak (“Ez nintzateke ezkonduko ezgaitasunen bat duen pertsona batekin” esaldiak 3,3 batez bestekoa du), haien eguneroko bizitza (“Ezgaitasunen bat duten pertsonak arazo bera dutenekin bizi beharko lirateke”, 2,7ko batez bestekoa) edo ikasgelako martxa (“Ezgaitasunak dituztenek ez dute gelako erritmoa oztopatu behar”, 2,7ko batez bestekoa).

– Sexuaren araberako aldeei dagokienez, badirudi neskak sentiberatuago daudela ezgaitasunen bat duten pertsonengana, desadostasun-maila handiagoa adierazten

baitute aurkezturiko baieztapenen aurrean, edo, bestela, mutilenaren berdina da behintzat.

Nahiz eta datuek azalpen-beharrik ez duten eta, nolabait, azterlan honetan zehar ikusten ari garen iritzi, balio eta pentsamenduen ildoa berresten duten, uste dugu beharrezkoa dela gogoeta egitea, bederen, gure gazteek ezgaitasunen bat duten pertsonei, halakoak izate hutsagatik, egunero sortzen dizkieten zailtasun gehigarrien inguruan.

Buru-zorroztasuna eta gazteen kolektiboaren ahalegin bateratuak –"azken modan" dabilen gizarte bateko izateko helburu behinena dutela– estetikaren aldetik planteatzen dira, itxura guztien arabera, eta albo batera uzten, begien bistakoa denez, aldi berean sortzen diren beste beharrizan batzuk, garrantzi handiagokoak direnak, hala nola elkartasuna, enpatia edo elkar ulertzea, batzuk esatearren; hain zuzen ere, halakoak beharrezkoak dira mundu honetan, non medikuntzaren eta teknologiaren aurrerakuntzek ahalbidetzen baitute egoera psiko-fisiologiko askotako pertsona-kopuru handiagoa bizi daitezen elkarrekin

**84. Grafikoa. Adierazi zenbateraino zauden ados baieztapen hauekin (ezgaitasunen bat duten pertsonak). Ereduaren arabera**




Horrez gain, 84. Grafikoak erakusten duenez, hezkuntza-ereduen araberako aldeak ere aurkitu dira arlo honetan.

Oraingo honetan, emaitzak ikusita, egiaztatu dugu D ereduko ikasleek adierazten dituztela zailtasun gehien –atzetik B eredukoak eta A eredukoak datozela, hurrenkera horretan– ezgaitasunen bat duten pertsonak gizartera daitezen errazteko garaian, "*Ezgaitasunen bat duten pertsonak arazo bera dutenekin bizi beharko lirateke*" itemean izan ezik.

### *3.3.3. Etorkinak*

EAEko gazteek etorkinen inguruan zer iritzi dituzten jakiteko, eskatu egin genien 85. Grafikoan jasoriko baieztapenekin zenbateraino zeuden ados adieraz zezatela.

**85. Grafikoa. Adierazi zenbateraino zauden ados baieztapen hauekin (etorkinak).**




Lorturiko emaitzei behatuta, ideia hauek azpimarratu behar dira, gure uztez.

- Aurkeztu ziren baieztapenen aurrean, desadostasunaren batez bestekoa %48 baino ez denez, badirudi hau dela EAEko ikasleek gutxien babesten duten kolektiboa, orain arte azterturiko beste kolektiboekin erkatuz gero (emakumeak eta ezgaitasunen bat duten pertsonak).

- Hala ere, aurkeztu diren itemak, aztertzen zen kolektiboaren arabera, era batekoak edo bestekoak izan direnez (esate baterako, atal honetan gizarte-laguntzak aipatzen dira, eta ez bikote-harremanak; ezgaitasunen bat duten pertsonen atalean, ordea, bai), ezinezkoa da erkaketa zuzen bat egitea eta, beraz, erkaketa horretatik ezin atera daiteke behin betiko ondoriorik.

– Gehien arbuiatu diren baieztapenak askotarikoak dira, hala nola kirol-instalazioak erabiltzeko debekuari buruzkoa (“Etorkin gazteek ez lituzkete erabili behar herrietan dauden futbol eta saskibaloi jokalekuak”, %68ko desadostasunarekin), etorkinek beren ohiturei uko egiteari buruzkoa (“Etorkinek gure ohiturak eta hizkuntzak hartu behar dituzte eta eurenak alde batera utzi”) edo etorkinak Europara etorkizun hobea izateko datozelako ideia ukatzen duen baieztapena (bietan desadostasun-maila %61 da).

– Bestalde, adostasun handienak jaso dituzten esaldien gaiak funtsezko bi ardatz, ongi zehazturik daudenak, dira: ekonomia-arazoak eta gizarte-arazoak, alegia. Hain zuzen, gazteen %42 ados dago “Etorkinak etortzea ez da aberastasun handiagoa gure herrialdearentzat” ideiarekin; %37ri ongi iruditzen zaio “Etorkinek bertokoek besteko soldata jasotzen dute nahi dituzten lanetan” esaldia; %35 ados agertzen da “Etorkinei erraztasun gehiegi ematen diegu” baieztapenarekin; eta %30 ados dago “Etorkinek lana kendu eta arazoak sor ditzakete” esatearekin.

Bitxia da ezen, eskubideei buruzko atalean ikusten genuenez, “Lana edukitzeko eskubidea” Euskadin jaiotakoen bigarren aukera zela, baina etorkinei dagokienez, ordea, nahigabe nagusietako dela, nonbait. Baina, zer azalpen du horrek?

Datuak ikusita, daitekeena da, garrantzi gehien ematen dieten eskubideen artean lehentasuna ezartzerakoan, gazte hauek garrantzi handiagoa eman izana zuzenean mehatxu handiago baten azpian sentitzen dituzten eskubideei; horrela, gazteek lan-arloan gaur egun izaten dituzten arazoak direla eta, sentitzen dute pertsona-kopuru handiago batek lanaren aldetiko lehia handiagoa sortzen duela eta, hortaz, haientzako zailtasun handiagoak ere bai. Edo, bestela esanda, “Lana edukitzeko eskubidea” diotenean, beren eskubideaz ari direla, ez besteenaz.

Era berean, ikasleen sexuaren araberako alde batzuk aurkitu ditugu etorkinen aurreko jarreren aldetik 86. Grafikoan ikus daitekeenez.

**86. Grafikoa. Adierazi zenbateraino zauden ados baieztapen hauekin (etorkinak). Sexuaren arabera**




Nabarmenenak dira kirol-instalazioak erabiltzeari buruzkoa eta ohiturak eta hizkuntza gordetzeari buruzkoak; hain zuzen, haietan neskek 0,5 puntu gutxiago dituzte, eskalaren arabera, eta, horrenbestez, etorkinen kultura-integrazioaren aurreko susmo gutxiago dituztela agertzen dute

Berriro ere, gazte inkestatuen hezkuntza-ereduaren arabera ere aurkitu ditugu aldeak. Hala, bada, 87. Grafikoan jasota dagoenez, B ereduko ikasleek, oro har, jartzen dituzte oztopo gehien, eta A eredukoek oztopo gutxien.

**87. Grafikoa. Adierazi zenbateraino zauden ados baieztapen hauekin (etorkinak). Ereduaren arabera**




Ildo horretan, alde handienak lehen aipatu diren gizarte- eta ekonomia-gatazken arlokoak dira. Hala, bada, esate baterako, *"Etorkinek lana kendu eta arazoak sor ditzakete"* eta *"Etorkinek arazoak baino ez dituzte ekartzen: lapurreta, delinkuentzia eta indarkeria gehiago dago"* eskalaren araberako 0,5 puntu gehiagotan aldezten dituzte B ereduko ikasleek, D eredukoen aldean, eta *"Etorkinei erraztasun gehiegi ematen diegu*" baieztapenean ere antzekoa da aldea, 0,4 puntukoa, hain zuzen.

### *3.3.4. Homosexualak*

Homosexualitateari dagokionez, 88. Grafikoan islatzen denez, gazteen jarrera, oro har, toleranteagoa da intrantsigentea baino. Hala eta guztiz ere, "desberdinak" onartzeari dagokionez, ehunekoak ez dira zeharo lasaigarriak, beste kolektibo batzuekin gertatu den bezala. Ikus dezagun.

**88. Grafikoa. Adierazi zenbateraino zauden ados baieztapen hauekin (homosexualak)**




– Aurkeztu ziren baieztapenen artean, hauek dira adostasun-maila handiena bildu dutenak. "*Nahiago dut heterosexuala izan homosexuala baino*", %54 lortuta; nahikoa adierazgarritasun gutxiagorekin, "*Gizarteak homosexualitatea onartuko balu, jende gehiago bihurtuko litzateke homosexual*," %35 lortuta; eta "*Berdin zait homosexualak ezkontzen badira, baina ezin ditut bi mutil edo bi neska elkarri musuka ikusi*" eta "*Lotsa emango lidake nire neba/arreba/anaia/ahizpa sexu bereko pertsona batekin ezkonduko balitz*", %29na lortuta.

– Bestalde, desadostasun gehien sortu duten itemak hauek izan dira: "Homosexualitatea gaixotasun bat da", "Inoiz ez nintzateke izango homosexual baten laguna", "Sexualitate askearen aurka nago" eta "Homosexualitatea anormala da eta deuseztatu egin beharko litzateke ", haien puntuazioek %70-75eko arbuioa adierazten dutela.

Zer ondorio argi atera daiteke lerro horietatik?

– Ikerketa osoan zehar adingabeek adierazitakoarekin bat datorren pentsamendu-ildoa erakusten dute datuek; hain zuzen ere, pentsaera horrek aditzera ematen du

ezen, oro har eta modu abstraktuan besteekin toleranteak eta errespetutsuak diren arren, haien iritzi eta jokabideak aldatu egiten direla halako egoerak erreal bihurtzen eta, oroz gainetik, hurbildu egiten direnean.

- Horrela uler daiteke ezen –nahiz eta gazteen %70 inguru sexualitate askearen alde dagoen eta homosexualitatea ez litzatekeela "deuseztatu" behar (baldin kontzeptu hori onartzeko modukoa bada) uste duen– hark berak heterosexuala izan nahiago duela, eta ez duela, era berean, oso ulerkor jokatzen neba/arreba/anaia/ahizpa bestelako sexu-joera izatearen aurrean.

- Horren inguruan, inkestatuen sexuaren araberako aldeak aurkitu ditugu. Desberdintasun handiak daude, 134. Taulan ikus daitekeenez, nesken eta mutilen tolerantzia-mailen artean; hala, bada, batez beste, neskak azaldutako eskalako 0,5 puntu inguruan dira mutilak baino toleranteagoak, bereziki desadostasun-indizerik handiena aditzera ematen duten baieztapenetan.

- Zehazki, sexuaren araberako alde nabarmenenak ondorengo baieztapenetan gertatu dira: "Inoiz ez nintzateke izango homosexual baten laguna" itemean, neskek 0,8 puntu gutxiago dituztela mutilek baino; "Homosexualitatea gaixotasun bat da" itemean eta "Sexualitate askearen aurka nago" delakoan, bietan aldea 0,7 puntu dela, nesken tolerantziaren handiagoaren alderantz, berriz ere.

Azkenik, eta "Jarrerak, desberdinekiko tolerantzia" deritzon atal honetan zehar gertatu izan denez, berriro ere atzeman ditugu ikasleen hezkuntza-ereduaren araberako aldeak.

**134. Taula. Adierazi zenbateraino zauden ados baieztapen hauekin (homosexualak). Sexuaren arabera**

| HOMOSEXUALAK | SEXUA | | Aldea | Batez bestekoa* |
|---|---|---|---|---|
| | Neskak | Mutilak | | |
| 1. Nahiago dut heterosexuala izan homosexuala baino | 3,5 | 3,7 | - 0,2 | 3,6 |
| 2. Gizarteak homosexualitatea onartuko balu, jende gehiago bihurtuko litzateke homosexual | 3,1 | 3 | 0,1 | 3,1 |
| 3. Berdin zait homosexualak ezkontzen badira, baina ezin ditut bi mutil edo bi neska elkarri musuka ikusi | 2,6 | 2,9 | - 0,3 | 2,7 |
| 4. Lotsa emango lidake nire neba/arreba/anaia/ahizpa sexu bereko pertsona batekin ezkonduko balitz | 2,4 | 2,9 | - 0,5 | 2,6 |
| 5. Homosexualen aldeko manifestazioak debekatu egin beharko lirateke | 2,2 | 2,6 | - 0,4 | 2,4 |
| 6. Asko axolako lidake nire irakaslea homosexuala balitz | 2,2 | 2,6 | - 0,4 | 2,4 |
| 7. Pertsona bat aldatu egiten da niretzat homosexuala izateagatik | 2,1 | 2,6 | - 0,5 | 2,3 |
| 8. Homosexualei ez litzaieke utzi beharko seme-alabak hezten | 1,9 | 2,4 | - 0,5 | 2,2 |
| 9. Sexualitate askearen aurka nago | 1,7 | 2,4 | - 0,7 | 2,1 |
| 10. Inoiz ez nintzateke izango homosexual baten laguna | 1,6 | 2,4 | - 0,8 | 2 |
| 11. Homosexualitatea anormala da eta deuseztatu egin beharko litzateke | 1,7 | 2,2 | - 0,5 | 2 |
| 12. Homosexualitatea gaixotasun bat da | 1,5 | 2,2 | - 0,7 | 1,8 |
| * Puntuazioak 1etik (Ez nago batere ados) 5era (Oso ados) artekoak dira. | | | | |

Kasu honetan, oro har, A ereduko ikasleek agertzen dute susmo gehien pertsona homosexualak onartzerakoan, hurren B eta D eredukoak datozela, hurrenkera horretan bertan. Alderik handiena "Homosexualei ez litzaieke utzi beharko seme-alabak hezten" dioen baieztapenean atzematen dugu, puntuazioa 0,5 puntu handiagoa baita A ereduan, D ereduaren aldean; horrenbestez, lehenek (A eredua) adostasun-maila handiagoa adierazi zuten itemarekin. Hurren, "Nahiago dut heterosexuala izan homosexuala baino" eta "Berdin zait homosexualak ezkontzen badira, baina ezin ditut bi mutil edo bi neska elkarri musuka ikusi" baieztapenak datoz, haietan bietan aldea 0,4 dela, A eredukoen tolerantzia apalagoa adieraziz atzera ere.

**89. Grafikoa. Adierazi zenbateraino zauden ados baieztapen hauekin (homosexualak). Ereduaren arabera**




### *3.3.5. Ikasleen jarrerak ETAren eta terrorismoaren aurrean*[6]

DBHko euskal ikasleek giza eskubideei eta balioak bereganatzeari buruz zein balio dituzten aztertzen duen ikerketa batean ezin ziren saihestu oinarri-oinarrizko eskubideak larriki urratzen dituzten jarduerak. ETAren indarkeria terroristaz ari gara. Jakina, gai horrek, berez, berariazko trataera exijituko luke, baina beharrezkoa iruditu zaigu lan honetan aipatzea, nahiz eta hemen batik bat beste gai batzuk aztertzen diren, hala nola genero bereizkeria, sexu-joera, emigrazioa, familian aitek eta amek dituzten eginkizunak, zenbait gorabeherarengatik besteren mende dauden pertsonenganako jarrerak, e.a. Gaiok indarrez azaleratu dira azken urteotan, baina beste gai batzuk ere gogoan izan behar dira, esaterako, kideen arteko indarkeria: ikasle nerabeen kasuan, eskolako tratu txarrak edo bullying-a deitzen zaio eta Ararteko erakundeak dagoeneko aztertu du gai hori lan monografiko batean. Nolanahi ere, mende hasierako Euskadin balioak helarazteaz hitz egiten denean, aztertu beharra dago, azaletik bada ere, ikasleek zer jarrera hartzen duten ETAren terrorismoaren edo

[6] Atal hau kopiatu dugu *Euskadin terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta* izenburuko txostenean. Txosten hori orain dela gutxi argitaratu du Arartekoak (368-394. orr.).

"kale borroka" deritzanaren aurrean, hori zenbateraino justifikatzen edo onartzen duten, zer iruditzen zaien terrorismoaren biktimei arreta ematea, oro har zer iritzi duten ETAren ekintzez, e.a.

Atal honek lau zati izango ditu. Hasteko, adieraziko dugu Euskadin DBH ikasten ari diren ikasleek nolako balorazioak egiten dituzten eta nolako jarrerak erakusten dituzten ETAren terrorismoaren eta horren ondorioen aurrean. Ondoren, osagai nagusien faktore-analisiaz baliatuta, azalduko dugu ikasleek ETAren terrorismoaren eta giza eskubideen aurrean dituzten jarrerak hiru multzo handitan bereiz ditzakegula, kualitatiboki. Hirugarren, ETA gaitzesteari buruzko eskala bat egin dugu, oraingoan kuantitatiboki neurtu ahal izateko zenbat ikaslek eta zenbateraino gaitzesten edo aldezten dituzten ETAren ekintzak. Azkenik, faktore-analisia eta ETAren aurreko hiru jarrera-multzoak berriz hartuta, zera galdetuko diogu geure buruari: ikasle-multzo bakoitzean, ikasleen planteamenduetan zer-nolako garrantzia duten familiak, eskolak eta lagun taldeak, sozializazio eragile gisa.

### *A) Terrorismoari buruzko balorazioak eta jarrerak. Lehen interpretazioa*

Galdera-sortaren galdera berean (57. galdera), Euskadin jasaten dugun indarkeriaren gaineko bederatzi item edo adierazpen zehatz sartu ditugu, eta adierazpen bakoitzeko, ikasleei eskatu diegu esan diezagutela adierazpen horietako bakoitzarekin zenbateraino dauden ados, eskala honen arabera: "oso ados", "nahiko ados", "erdi ados", "ez oso ados" edo "batere ados ez". Horrela, 135.A, 135.B eta 135.C tauletan xeheki kontsulta daiteke ikasleek zer erantzun dioten proposatutako esaldi edo item bakoitzari, eta 136. taulan bederatzi esaldi horiei emandako erantzunen laburpena eskaintzen da, bi neurgailuren arabera: zutabe batean balio zentrala jarri dugu, hau da, eskala honen arabera lortutako erantzunen batez besteko balioa: 5 balioa "oso ados" erantzunari, 4 "nahiko ados" erantzunari, eta abar, 1 baliora ("batere ados ez") iritsi arte; hortaz, balio zentrala 3 izango litzateke. Beste zutabe batean, batu egin ditugu "oso ados" eta "nahiko ados" dioten erantzunen portzentajeak, eta horrela lortu dugu proposaturiko itemarekin argiro ados dauden ikasleen portzentajea. Irakurketa errazteko, laburpen-taulan ikasleen adostasunik handiena lortu duten itemetatik adostasunik gutxiena lortu dutenetara ordenatu ditugu.

**135.A Taula. Zenbait adierazpenekiko adostasun maila (% bertikalak)**

| ADOSTASUN MAILAK | Ekintza terrorista guztien biktimek gure laguntza eta babesa merezi dituzte | Torturak eta tratu txarrak baztertu egin behar dira, edozein egoeratan | ETA talde terrorista da eta biktimak sortzen ditu. ETA suntsitu behar da |
|---|---|---|---|
| Oso ados | 35,1 | 42,9 | 33,9 |
| Nahiko ados | 24,2 | 11,2 | 14,0 |
| Erdi ados | 16,4 | 17,7 | 20,8 |
| Ez oso ados | 6,8 | 8,9 | 10,4 |
| Batere ados ez | 11,1 | 11,8 | 13,6 |
| Ed/Ee | 6,4 | 7,4 | 7,3 |
| N=762 | %100 | %100 | %100 |

**135.B taula. Zenbait adierazpenekiko adostasun maila (%bertikalak)**

| ADOSTASUN MAILAK | Gaur egun, eskubideen urratzerik handiena ETAk egiten du Euskadin | Pertsonen kontrako indarkeriazko ekintzak ezin dira inoiz ere justifikatu | Batzuetan, ekintza terroristak justifikatuta egon daitezke |
|---|---|---|---|
| Oso ados | 26,0 | 23,4 | 12,2 |
| Nahiko ados | 18,7 | 10,1 | 11,9 |
| Erdi ados | 25,7 | 25,6 | 27,0 |
| Ez oso ados | 9,2 | 13,6 | 16,6 |
| Batere ados ez | 14,1 | 19,1 | 24,8 |
| Ed/Ee | 6,3 | 8,2 | 7,5 |
| N=762 | %100 | %100 | %100 |

**135.C taula. Zenbait adierazpenekiko adostasun maila (%bertikalak)**

| ADOSTASUN MAILAK | ETAko kideen giza eskubideak errespetatu egin behar dira beti | Gaizki iruditzen zait inor hiltzea, baina beharrezko ikusten dut kale borroka | ETAren ekintzak onak dira Euskadirentzat |
|---|---|---|---|
| Oso ados | 12,5 | 9,4 | 5,5 |
| Nahiko ados | 11,7 | 8,3 | 6,0 |
| Erdi ados | 23,5 | 20 | 18,1 |
| Ez oso ados | 19,2 | 18,3 | 16,8 |
| Batere ados ez | 26,2 | 37,3 | 47,1 |
| Ed/Ee | 6,9 | 6,7 | 6,6 |
| N=762 | %100 | %100 | %100 |

**136. taula. ETAri eta giza eskubideei buruzko bederatzi adierazpenekiko adostasun mailak, labur azalduta. Adierazpen horiek beroriekiko agertu den adostasun mailaren arabera ordenatu dira goitik behera**

| ITEMAK | Batez besteko adostasuna: 5-oso ados 1-batere ados ez | Adostasunaren portzentajea: oso ados + nahiko ados |
|---|---|---|
| Ekintza terrorista guztien biktimek gure laguntza eta babesa merezi dituzte | 3,70 | 59,30 |
| Torturak eta tratu txarrak baztertu egin behar dira, edozein egoeratan | 3,70 | 54,1 |
| ETA talde terrorista da eta, horren ondorioz, biktimak sortzen ditu. Eta suntsitu behar da | 3,48 | 47,9 |
| Gaur egun, eskubideen urratzerik handiena ETAk egiten du Euskadin | 3,36 | 44,7 |
| Pertsonen kontrako indarkeriazko ekintzak ezin dira inoiz ere justifikatu | 3,06 | 33,5 |
| Batzuetan, ekintza terroristak justifikatuta egon daitezke | 2,68 | 24,1 |
| ETAko kideen giza eskubideak errespetatu egin behar dira beti | 2,62 | 24,2 |
| Gaizki iruditzen zait inor hiltzea, baina beharrezkoa iruditzen zait kale borroka | 2,30 | 17,7 |
| ETAren ekintzak onak dira Euskadirentzat | 1,99 | 11,5 |
| N | 762 | |

Datuak datu dira eta, soziologia-azterketetan egon daitezkeen errore-marjinen barruan, ezin eztabaidatuzkoak. Beste gauza bat da datu horietaz egin daitezkeen interpretazioak, batez ere interpretazio horiek xeheak badira eta xehetasunetan sartu nahi bada. Gizarte ikertzaile askok diotenez, gizarte-zientzietan ezinezkoa da objektibotasuna, ikertzailearen ekuazio pertsonala alde batera utzita gizarte-analisiak egiteko aukera gisa ulertuta. Hori orain dela urte asko adierazi zuen soziologiaren sortzaileetako batek, honako hau baieztatu zuenean: *"...ikertzailea eta bere garaia menderatzen dituzten baliozko ideiek erabakiko dute zein izango den ikerketaren mamia, eta ikerketa hori zein neurritan hedatuko den lotura kausalen mugagabetasunean"*[7]. Neutraltasun soziologikoa, beraz, ikertzailearen subjektibotasuna objektibatzearen parekoa dela esan daiteke.

Hori esan ondoren, goazen azaldutako datuen lehen interpretazioa egitera, kezkatzeko arrazoi dezente ematen baitute. Oinarri-oinarrizko giza eskubideekiko begirunerik eza

[7] Max Weber. "La objetividad cognoscitiva de la ciencia social y de la política social", 73. or. *Ensayos sobre metodología sociológica*, Buenos Aires Amorrortu, 39-101. orr. Zifra hori Manuel Mª Urrutiari hartu diogu, bere lan honetatik: "La cueva de minotauro: valores y ciencia social en la obra de Max Weber". *Inguruak, Revista Vasca de Sociología y Ciencia Política*, 2003ko iraila, 159-180. orr.

erakusten duten balorazioak eta jarrerak dirautela adierazten dute datu horiek, portzentaje esanguratsuan gainera; sektore batzuk ekintza terroristak eta indarkeriazkoak ez gaitzestera edo justifikatzera iristen dira, edo, bestela, ontzat jotzen dituzte. Hasteko, azpimarra ditzagun honako zifra hauek: ikasleetatik %24,1en ustez (12,2+11,9), "batzuetan, ekintza terroristak justifikatuta egon daitezke". Beste item bati emandako erantzunean, hain justu, "pertsonen kontrako indarkeriazko ekintzak ezin dira inoiz ere justifikatu" adierazpenaren aurrean, ikasleetatik %19,1ek adierazi dute ez daudela batere ados, eta %13,6k ez daudela oso ados. Nabarmendu beharreko hirugarren erantzuna hauxe da: %18k adierazi dute gaizki iruditzen zaiela inor hiltzea, baina beharrezko ikusten dutela kale borroka. Eta, azkenik, azpimarratu behar dugu ikasleetatik %11,5en ustez (5,5+6), ETAren ekintzak Euskadirentzat onak direla. Emaitza hauek, hala ere, 141. taulan bildutakoekin alderatu behar ditugu, taula hartan berariaz erakusten baita ETArekiko gaitzespen-maila. Hori gero aztertuko dugu.

Zifra horiek argiro positiboagoak diren beste batzuekin osatu beharko ditugu, baina giza eskubideak baliatzean eta gai jakin batzuetan ez dago erdibideko baliorik. Hilketa justifikatu egiten da ala ez da justifikatzen, justifikatzeko edozein arrazoi emanda ere.

"ETAko kideen giza eskubideak errespetatu egin behar dira beti" dioen itemari ikasleek emandako erantzunak eskaintzen digu beste datu negatibo bat, izan ere, ez da %24ra iristen baieztapen horrekin ados daudenen portzentajea, eta %45etik gora daude argi eta garbi horren kontra. Agerikoa denez, kontua ez da erasotzailea -kasu honetan, indarkeria terrorista erabiltzen duena- biktimarekin parekatzea. Pertsona guztiek, pertsona izateagatik, giza eskubideak dituztela eta eskubide horiek une oro bete behar direla azaltzea da kontua. Printzipio etiko ukaezin horri epelki eusten zaio gure ikasleen datuetan.

Haatik, oso ontzat jotzen ditugun beste datu batzuk ere badirela adierazi behar dugu. Ikasleen artean, ia %60 daude terrorismoaren biktimen alde, adierazpenik argienean, eta %78ra iristen da erdibideko erantzuna ("erdi ados") gehitzen badiogu; eskalan "erdi ados" hori agertzeak azalpena behar du[8]. Baina terrorismoaren biktimen aldeko itemari berriro helduz, ohar gaitezen erantzun ez duen %6a alde batera utzita, %18 garbiki terrorismoaren biktimei zor zaien laguntzaren kontra agertu direla. Hortaz, dagoeneko talde bat itxura hartzen ari da: talde horrek, itemen arabera, ETAren eta ETA babesten duten taldeen planteamenduetatik hurbil dauden planteamenduekiko adostasuna erakusten du.

Era berean, oso datu positibotzat jotzen da euskal ikasleetatik %54k, argiro, torturak eta tratu txarrak edozein egoeratan baztertu egin behar direla uste izatea. Hala eta guztiz ere, kezkaturik adierazi behar dugu ikasleetatik %20 ez direla aurreko adierazpen horren aldekoak.

---

[8] Eskalekin egindako galderetan beti zalantza geratzen zaigu ea horiek erantzunen zenbaki bikoitia edo bakoitia eskaini behar duten. Zenbaki bikoitiak erantzunean iritzia azaltzera "behartzen du", alde ala kontra. Zenbaki bakoitiak –azkenean hori aukeratu dugu kasu honetan, "erdi ados" erantzunari dagokionez– inorena ez den lurrean kokatzeko aukera ematen die erantzunari buruzko zalantzak dituztenei edo, kasuan kasuko arrazoiengatik, beren iritzia eman nahi ez dutenei. Proposatu ditugun itemak kontuz hartzekoak direnez gero, erantzuten diguten ikasle askoren adin txikia kontuan hartuta, ikasleenganako jokaera adeitsuagoa iruditu zaigu haiek beren iritzia ematera ez behartzea, agian ez baitzeukaten argi edo behar beste hausnartuta. Horrek, aldi berean, baliozkotu egiten ditu beren iritzia eman dutenen erantzunak.

Bi adierazpen geratzen zaizkigu iruzkinak egiteko. Bata, "Gaur egun, eskubideen urratzerik handiena ETAk egiten du Euskadin": item hori onartzen duten ikasleak (ia %45) gaitzesten dutenak (%23,3) baino gehiago dira; hala ere, azpimarratzekoa da ikasleetatik %25ek baino gehixeagok erdibideko iritzia dutela. Jarraian, galdera horretako bederatzi itemen osagai nagusien faktore-analisia egingo dugu (ONFA), eta analisi horrek argiago erakutsiko digu datu horiek nola interpretatu.

Aztertzeko geratzen zaigun beste itemak errealitate jakin bat jarri du agerian; errealitate horrek gure kezka handitu du eta erakutsi digu Euskadin oraindik ere lan handia egin behar dela giza eskubideak errespetatzearen aldeko balioetan hezteari dagokion guztian. Itemak honela dio: "ETA talde terrorista da eta, horren ondorioz, biktimak sortzen ditu. Eta suntsitu behar da". Egiaz, item horren alde agertzen diren ikasleak askoz ere gehiago dira, %50etik gertu, baina %24 argi eta garbi horren kontra daude, eta erdibideko puntuan geratu diren %21etik hurbil. Edonola ere, esan behar dugu ETArekiko gaitzespen-maila (141. taulan bildu dugu eta gero azalduko dugu) datuok haztatu gabe egindako interpretaziotik ondoriozta litekeena baino dezente handiagoa dela.

### *B) Hiru jarrera ETAren terrorismoaren eta giza eskubideen aurrean*

Bederatzi item erabili ditugu eta arestian laburtu ditugu horiei emandako erantzunak. Goraxeago adierazi dugunez, item horien osagai nagusien faktore-analisia egin dugu (ONFA), analisi horrek ikasleen erantzunak beren antzagatik multzokatzen baitizkigu. Ondo uler bedi zer neurtzen den hemen. Datuek erakusten dutenez, ETAren ekintzak onak direla besteek baino neurri handiagoan uste duten ikasleak, adibidez, inor hiltzea gaizki iruditzen zaiela baina kale borroka beharrezko ikusten dutela eta ETAko kideen giza eskubideak errespetatu egin behar direla besteek baino neurri handiagoan uste duten ikasle berberak dira.

Horri gehitzen badiogu ikasle horiek "batzuetan, ekintza terroristak justifikatuta egon daitezkeela" uste dutelako ere nabarmentzen direla, pentsaera jakin baten profila izango dugu, dauzkagun itemetara mugatua, noski. ONFAk erantzunak multzokatzen ditu, ez pertsonak. Azkeneko hori testu honen hirugarren zatian egingo dugu, nahiz eta, normala denez, erantzunak pertsonen erantzunak ere badiren.

Horrela, informatika-trataerak, eskuz ezin egingo litzatekeen edo oso modu korapilatsuan eta motel burutuko litzatekeen lana eginez, hiru faktore edo multzo handitan bildu ditu ikasleek 9 item horiei emandako erantzun guztiak, eta bariantzaren –hau da, hainbeste ikaslek eman ditzaketen hainbeste erantzunen sakabanatze handiaren– %62,53a bildu du, alajaina! [9].

Lehen faktore edo multzoa jada azaldu dugu bi paragrafo gorago, eman dugun adibidearen bidez. Biztanle guztien artean, argiro ETAren ekintzak justifikatzen dituzten edo haien alde

---

[9] Kontuan har bedi 762 ikaslerekin ari garela lanean, ikasle horiek bederatzi itemi erantzun dietela eta item bakoitzak bost erantzun-aukera dituela; beraz, eman litezkeen 41.148 erantzunetatik, egiaz eman diren 6.958 erantzunekin dihardugu lanean.

dauden ikasleen erantzunak biltzen ditu. Zenbat diren badakigu, itemez item, 135.A, 135.B eta 135.C taulei esker, eta indize orokorra ematen ahaleginduko gara hirugarren zatian. Hemen erantzun motak bildu ditugu, eta jarraian ikusiko dugu zein den erantzun batzuk ala besteak eman dituzten ikasleen profil nagusia.

Laburbilduz, erantzunen lehen faktore edo multzoa dugu. Erantzun horiek ETAren, kale borrokaren eta ETAko kideen giza eskubideak defendatzearen alde egoteagatik nabarmentzen dira. Lehen faktore horri "I. Faktorea" deitu diogu[10]. Ikusi 137. taula.

**137. taula. ETArekin zerikusia duten adierazpenen Osagai Nagusien Faktoriala (Bariantzaren %62,53a azaltzen du)**

| | I. FAKTOREA | II. FAKTOREA | III. FAKTOREA |
|---|---|---|---|
| ETAren ekintzak onak dira Euskadirentzat | ,804 | -,138 | -,113 |
| Gaizki iruditzen zait inor hiltzea, baina beharrezko ikusten dut kale borroka | ,796 | ,041 | -,040 |
| ETAko kideen giza eskubideak errespetatu egin behar dira beti | ,733 | ,266 | -,104 |
| Batzuetan, ekintza terroristak justifikatuta egon daitezke | ,722 | -,105 | ,217 |
| Pertsonen kontrako indarkeriazko ekintzak ezin dira inoiz ere justifikatu | ,028 | ,793 | ,048 |
| Torturak eta tratu txarrak baztertu egin behar dira, edozein egoeratan | ,014 | ,743 | ,188 |
| Gaur egun, eskubideen urratzerik handiena ETAk egiten du Euskadin | ,118 | -,050 | ,845 |
| Ekintza terrorista guztien biktimek gure laguntza eta babesa merezi dituzte | -,045 | ,394 | ,647 |
| ETA talde terrorista da eta, horren ondorioz, biktimak sortzen ditu. Eta suntsitu behar da | -,378 | ,372 | ,554 |

II. Faktore edo multzoan biltzen dira giza eskubideak babesten dituztelako besteen gainetik nabarmentzen diren ikasleen erantzunak, ETAren ekintzez harago edo, nahiago bada, ETAren ekintzak alde batera utzita. Erantzunok honako item hauekin guztiz bat etortzeagatik nabarmentzen dira: "pertsonen kontrako indarkeriazko ekintzak ezin dira inoiz ere justifikatu" eta "torturak eta tratu txarrak baztertu egin behar dira, edozein egoeratan". Ohar gaitezen erantzun horiek estuki lotuta daudela, halaber, terrorismoaren biktimen alde agertzearekin eta ETA suntsitu behar delako ideiarekin, baina bi item horiek hirugarren batekin elkartuko

[10] Gaizki interpreta daitezkeen gehiegizko etiketak kentzearren, eta, gainera, faktoreak etiketatzean ikertzailearen subjektibotasuna nabarmena denez gero, bereizitako hiru faktorez hitz egitea erabaki dugu, besterik gabe: I. Faktorea, II. Faktorea eta III. Faktorea.

dira III. Faktorea osatzeko. Azken hori hurrengo paragrafoan azalduko dugu. Baina II. Faktorearekin jarraituz, ohar gaitezen, orobat, faktore hau osatzen duten erantzunak positiboki korrelazioan jartzen direla "ETAko kideen giza eskubideak errespetatu egin behar dira beti" dioen itemarekin, nahiz eta item hori nagusiki I. Faktorean bildu. Laburbilduz, II. Faktorean biltzen dira pertsonen giza eskubideak oro har defendatzeagatik nabarmentzen diren ikasleen erantzunak, pertsona horiek edozein direlarik ere. Jakina, horien barruan sartzen dira terrorismoaren biktimen giza eskubideak. ETAko kideen eskubideak ere hor sartzen direla ulertu dugu. Faktore horri "II. Faktorea" deitu diogu.

III. Faktore edo multzoan biltzen dira ETArekiko gaitzespena eta terrorismoaren biktimen alde agertzea esplizituki azpimarratzen duten erantzunak. Honako hau adierazten duten itemak dira: "gaur egun, eskubideen urratzerik handiena ETAk egiten du Euskadin", "ekintza terrorista guztien biktimek gure laguntza eta babesa merezi dituzte", "ETA talde terrorista da eta, horren ondorioz, biktimak sortzen ditu. Eta suntsitu behar da".

Orduan, faktore-analisi horrek hiru multzo, faktore edo ardatz handitan bildu dizkigu –hitz horietako edozein erabiltzen da zientzia lanetan– DBHko euskal ikasleen erantzunak. Multzo batek, I. Faktorea deritzanak, ETAren ekintzak justifikatzea du bereizgarri; gainera, sentikortasun berezia erakusten du ETAko kideen giza eskubideekiko. Bigarren multzoak, II. Faktorea deitu dugunak, pertsona guztien giza eskubideak oro har defendatzea du bereizgarri; horrek berekin dakar ETAren indarkeria gaitzestea eta terrorismoaren biktimen alde agertzea, baita ETAko kideen eskubideak babestearen alde agertzea ere. Hirugarren multzoak, III. Faktore gisa identifikatu dugunak, ETAren indarkeria zeharo gaitzestea du bereizgarri, eta bereziki azpimarratzen du terrorismoaren biktimen giza eskubideekiko arreta.

Beste urrats bat dugu egiteko: zehaztu behar dugu zein den faktore-analisitik ateratzen diren hiru faktore horietako bakoitzean gehiago edo gutxiago agertzeagatik nabarmentzen diren ikasleen profil psikologiko bereizia. Datuak 138. taulan azaltzen dira.

Taula hori honela interpretatu behar da: informatika trataerak "0" puntuan kokatu du faktore bakoitza osatzen duten itemen multzoari ikasleek emandako erantzunen balioa. Horren ondorioz, I. Faktorean adibidez, nesken kasuan (-.15) balioa eta mutilenean (+.15) balioa aurkitzen baditugu, horrek esan nahi du mutilak neskei nagusitzen zaizkiela I. Faktorea osatzen duten itemen multzoan. Biztanleria osoa hartuta, mutilak I. Faktorearen esanahiaren alde agertzen dira (+.15), eta neskak kontra (-.15). Zenbat eta handiagoa izan balio bakoitza, orduan eta sendotasun handiagoa du aztertutako faktorean.

**138. taula. ONFAren batez besteko faktorialak, DBHko ikasleei buruzko oinarrizko irizpide soziodemografikoetan oinarrituta**

| | I. FAKTOREA | II. FAKTOREA | III. FAKTOREA |
|---|---|---|---|
| SEXUA | | | |
| Neska | -,1499296 | -,0233757 | -,0361394 |
| Mutila | ,1467201 | ,0228753 | ,0353658 |
| ANOVA Sig. | .000 | .557 | .364 |
| IKASTETXE MOTA | | | |
| Publikoa | ,1279023 | -,1924988 | -,0889856 |
| Itundua | -,0649947 | ,0978199 | ,0452188 |
| ANOVA Sig. | .020 | .000 | .107 |
| IKASTURTEA | | | |
| DBHko 1. maila | -,1450682 | -,1251056 | ,0585793 |
| DBHko 2. maila | ,1371129 | -,1203310 | -,0914702 |
| DBHko 3. maila | -,1454280 | ,2498617 | -,0152519 |
| DBHko 4. maila | -,0132441 | ,2865636 | ,2410770 |
| ANOVA Sig. | 0,10 | 0.00 | .049 |
| LURRALDE HISTORIKOA | | | |
| Araba | ,0643798 | -,0169106 | -,2412636 |
| Bizkaia | -,1007328 | ,0463846 | ,1353239 |
| Gipuzkoa | ,1489887 | -,0774267 | -,0929315 |
| ANOVA Sig. | .018 | .397 | .001 |
| HIZKUNTZA EREDUA | | | |
| A | -,2554112 | ,1319685 | ,0884103 |
| B | -,0128207 | ,0050893 | ,2016079 |
| D | ,1940042 | -,0992111 | -,1993313 |
| ANOVA Sig. | .000 | .048 | .000 |
| Zure etxean 'ETAren indarkeria onartezina da' esaten da | | | |
| Askotan | -,2426420 | ,1760425 | ,3081580 |
| Batzuetan | ,0786629 | ,0465323 | -,1730413 |
| Gutxitan | ,2153191 | -,0106521 | -,0318949 |
| Inoiz ez | ,2327529 | -,3204678 | -,3405982 |
| ANOVA Sig. | .000 | .000 | .000 |

Behean agertzen den zifra ["ANOVA Sig." (esanahiaren laburdura)] bariantza aztertzerakoan sarritan erabiltzen den estatistika-kontzeptua da eta horrek adierazten digu zenbaterainoko

ziurtasunez esan daitekeen erlazionatutako aldagaien artean lotura dagoela, kasu honetan, sexuaren eta I. Faktorearen artean. Ikusten dugunez, balioa .000-koa da (milatik 999ko ziurtasuna, erraz esatearren). Hori da ikerlanetan exijitu ohi den gehienezko zifra, lotura dagoela ziurtatzeko. Normalean ulertzen da .05 zifrara arte (ehuneko 95eko ziurtasuna) aldagaien artean estatistika-lotura dagoela esan daitekeela. ANOVA zifra .05etik gorakoa denean, lotura hori, estatistikaren ikuspuntutik, ez dela nahikoa uste izaten da, edo ez dagoela loturarik, zifra altuetara iristen bada.

Aurreko guztiaz zera esan daiteke, hitz sinpleagoak erabiliz, lehen aipatu dugun adibidean: mutilak neskei nagusitzen zaizkiela ETAren, kale borrokaren eta abarren alde agertzean. Datuen arabera, ETAren alde egitea gehiago da mutilen kontua neskena baino. Haatik, II. eta III. Faktoreetan ez dago alde nabaririk mutilen eta nesken artean.

Horrelako analisietara ohituta ez dagoen irakurleak tauletan irakur ditzake gehien interesatzen zaizkion alderdiak. Emaitza nagusiak jakinaraziko ditugu, besterik gabe.

Ikastetxeen titulartasunari buruz, hauxe ikusi dugu: ikastetxe publikoetan gehixeago onartzen eta justifikatzen dira ETAren ekintzak (I. Faktorea) eta sentikortasun gutxiago dago, argi eta garbi, pertsonen giza eskubideak babesteari dagokionez, pertsona horiek edozein izanda ere (II. Faktorea). Aitzitik, berriro ere, ez dago alde garrantzitsurik III. Faktorean.

Ikasleak zein urtetan edo mailatan ikasten ari diren begiratuta, egiaztatu dugu I. Faktorean ia ez dagoela alderik ikasturtearen arabera (orduan, ezta adinaren arabera ere; beraz, ez dugu kopiatuko adinen araberako taula). Hau da, ETAren eta kale borrokaren aldeko jarrera ez da aldatzen ikasturte batetik bestera, adin batetik bestera (12 eta16 urte bitartean; adin hori dute azterlan honetako gehienek). Datu hori arras garrantzitsua da, izan ere, adierazten digu ETAren ekintzen aldeko jarrera hori haurtzarotik datorrela, nerabezaroaren aurreko aldian eta lehen nerabezaroan ia ez baita aldatzen (Anova .10). Horrek guztiak pentsarazten du ETAren aldeko jarrera familian bertan sortzen dela; hori aurrerago egiaztatuko dugu, beste analisi-mekanismo batzuen bitartez. Datu hori are garrantzitsuagoa bihurtu da II. III. Faktoreekin ez dela gauza bera gertatzen ikusi dugunean.

Ohar gaitezen, egiaz, nola giza eskubideekiko sentikortasuna (II. Faktorea) areagotuz doan maila batetik hurrengo mailara igotzean (hortaz, adinarekin ere bai) modu lineal eta argian gainera (Anova .000). Horren antzeko zerbait gertatzen da III. Faktorearekin, baina hemen DBHko 3. mailatik 4. mailara igaro arte itxaron behar da jauzi hori ikusteko (hortaz, Anova .05). Alegia, ETAren aldeko jarrera lehenagotik dator eta ez da adinarekin aldatzen; beraz, oso errotuta dago. Aitzitik, eskola-umea helduz doan neurrian areagotu egiten da haren giza eskubideekiko sentikortasuna eta “ETAri ez” adierazteko jarrera. Gure iritziz, datu hori, garrantzitsua izateaz gain, argigarria ere bada, eta, neurri batean behintzat, ongi etorria. Izan ere, argitzen du ez direla gauza bera I. Faktorea berrestea eta horri eustea (gogoratu, “haren ekintzak onak dira Euskadirentzat”, “kale borrokako ekintzak beharrezkoak dira”, “batzuetan terrorismoa justifikatuta dago”, eta abar) eta III. Faktorearen aldeko jarrerak hartzea (gogoratu, “ETAk sortzen du giza eskubideen urratzerik larriena”, “Eta suntsitu beharra dago”) eta giza eskubideen unibertsaltasunaz kontzientzia hartzea. Lehenbiziko kasuan, badirudi haurtzarotik emana datorren zerbait dela (beraz, familiarengandik); bigarrenean, berriz, urteak

eta hezkuntza-zikloa aurrera joan ahala hartu diren jarrerak. Adieraz al dezakegu dagoeneko, hipotesi gisa, hezkuntza-lanak, hitzaren zentzurik zabalean (eskolak, hedabideek, familiek, erakunde-ahaleginek eta abar egindakoak) "ETAri ez" esateko jarreran eta giza eskubideen unibertsalizazioan limurtzeko eta eragiteko ahalmena duela, eta, aldiz, jada ETAren aldekoak direnengan ahalegin horiek ez dutela inolako eraginik? Horrelako zerbait badagoela uste dugu, eta aurrerago sakonduko dugu ideia horretan.

Lurraldeei erreparatuta, ikasleak bizi diren tokiak aztertuz, beste azterlan batzuk kontuan hartuz espero zitezkeen hainbat diferentzia egiaztatu ditugu, baina, hala ere, ez dago alde handiez hitz egiterik. Egiaz, Gipuzkoak erakusten du garbiki I. Faktorearekiko aldekotasunik handiena, eta Bizkaiak gutxiena, baina alde izugarririk gabe (Anova .018). Ez dago batere alderik II. Faktorean, eta hirugarrenean, hasieran behintzat harrigarria den datua aurkitu dugu: Arabak III. Faktorearen kontrako jarrera erakutsi du.

Horrek berriro erakusten digu ez direla gauza bera ETAren ekintzen, kale borrokaren eta oro har terrorismoaren alde agertzea (I. Faktorea, non Araba ez baita ezertan nabarmentzen, biztanleriaren batez bestekoari jarraiki) eta ETA gaitzestea (hor Arabak kontrako jarrera erakutsi du, biztanleriaren batez bestekoaren aldean). Ezer esan baino lehen, egin dezagun beste urrats bat beste aldagai batekin, ikasketak zein hizkuntza-eredutan egiten dituzten oinarri hartuta. Hor ere antzeko zerbait aurkituko dugu.

Hasteko, ikasleen ikasketetarako hizkuntza-ereduen arabera egiten den bereizketak erakusten digu aldagai bereizle baten aurrean gaudela.

Ikasketak A ereduan egiten dituztenek argiro nabarmentzen dira (Anova .000) ETA gutxien justifikatzeagatik eta, baita ere, baina ez hain argiro (Anova .048), guztien giza eskubideekiko sentikortasunik handiena erakusteagatik. Jakina, ikasle desberdinez hitz egiten ari gara bi kasu horietan, nahiz eta biak A ereduan ikasten aritu. III. Faktorean, A ereduan ikasten dutenak biztanleriaren batez bestekoan kokatzen dira.

B ereduan ikasten ari diren ikasleak portzentajeetan nabarmentzen dira III. Faktorean, ETA eta beraren ekintzak indartsuki gaitzesten dituztelako. Bestalde, D ereduan ikasten ari direnen artean, portzentaje esanguratsu bat, beste bi ereduetako ikasleena baino handiagoa, I. Faktorean kokatzen da, alegia, ETAren ekintzak eta kale borroka ez gaitzesteagatik bereizten den horretan, eta, aldi berean, III. Faktorearen kontra agertzen da eta II. Faktorean zorrozki biztanleriaren batez bestekoan kokatzen da.

Hemen jada aurreratzen dugu atal honen azken puntuan ikusiko duguna: familiaren eragina. 138. taularen azpialdean agertzen diren datuak dira. Etxean "ETAren indarkeria onartezina da" esaten denean, ikasle batzuk garbiki III. Faktorearen alde jartzen dira. Etxean baieztapen hori egiten ez denean, ikasleak I. Faktorearen alde jartzen dira, aurrekoan bezain argi. Orobat, etxean "ETAren indarkeria onartezina da" sarritan esateak korrelazio positiboa du II. Faktorearekin, eta alderantziz, inoiz esaten ez denean, giza eskubideen defentsa ahuldu egiten da, galanki gainera.

Ez dago dudarik: familiako sozializazioa funtsezkoa da gai hauetan.

Ikasleen erantzunen profil soziodemografikoen laburpena honela egin liteke, hiru multzo handitan bilduta:

- Jarrerak argiagoak eta zehaztuagoak daude ETAren alde agertzeari edo ETA justifikatzeari buruzko iritzia ematerakoan. I. Faktorea osatzen duten itemez ari gara: ETA eta kale borrokaren ekintzak onak dira Euskadirentzat, batzuetan terrorismoa justifikatuta dago, eta ETAko presoen giza eskubideak errespetatu behar dira. Item horiekin konformeago daude mutilak, ikastetxe publikoetan ikasten dutenak, D ereduan ikasten dutenak eta Gipuzkoan bizi direnak, eta, aldiz, adina edo ikasturtea ez dira bereizleak. Jarrera horrekiko adostasunik gutxiena erakusten dutenak A ereduko ikasleak dira, neskak eta Bizkaian bizi direnak.

- III. Faktorean ETAren kontrako jarrera agertzen dutenen erantzunak biltzen dira, honako adierazle hauekin: eskubide-urratzerik handiena ETAk egiten du Euskadin, ETA suntsitu beharra dago eta biktimei lagundu behar zaie. Faktore horren aurrean, iritziak ez daude hain zehaztuta. Adierazpen horiekin ados egoteagatik nabarmentzen dira DBHko 4. mailako ikasleak, B hizkuntza eredukoak, eta Bizkaian bizi direnak. Ez daude ados, ordea, arabarrak eta D ereduan ikasten dutenak, arestian hipotesi gisa azaldu ditugun arrazoiengatik.

- Azkenik, II. Faktorean –giza eskubideen unibertsalizazioarekiko sentikortasuna– nabarmentzekoak dira, beraien adostasun mailagatik, DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleak, A eredukoak. Aitzitik, ikastetxe publikoetan ikasten ari direnek erakusten dute sentikortasun gutxiena. Ez dira bereizleak ez sexua, ez biziterria ere.

- Familiako sozializazioa eragile nagusietako bat bezala agertzen da ikasleek gai honetan dituzten iritziak azaltzeko orduan. Egiaz, familiako sozializazioa da hemen azterturiko faktore guztietatik erabakigarriena.

### *C) ETA gaitzesteari buruzko eskala ordinal baten bila*

Aurreko puntuan, osagai nagusien faktore-azterketan oinarrituta, ETArekiko jarreren arabera ikasleek zein ezaugarri dituzten jorratu dugu. Baina aztertzeko teknika horri jarraiki, ez dago esaterik (estatistika malabarismoa egin ezean) zenbat ikaslez hitz egiten ari garen kasu bakoitzean. Hemen helburu hori lortu nahi dugu: ahalik eta zehatzen zenbatzea ETAren terrorismoaren aldeko jarrerak eta gaitzespenak. Zehazkiago, ETArekiko agertzen duten gaitzespen mailaren arabera euskal ikasleak ordenatzen ahaleginduko gara.

Horretarako, ikasleen tipologia moduko zerbait eratuko dugu, ETAri buruzko adierazpen batzuekin zenbateraino dauden ados oinarritzat hartuta. Galdera-sortaren 57. galderari helduz –horrekin egin dugu Osagai Nagusien Faktoriala– eta faktore-analisiaren emaitzan oinarrituta, bederatzi itemetatik seirekin lan egingo dugu, inolako zalantzarik gabe ETAren ekintzekin zerikusia duten seiekin. Ez ditugu hartu, lehenik, faktore-analisian erdibideko puntuan kokatzen ziren bi itemak, hau da, “pertsonen kontrako indarkeriazko ekintzak ezin dira inoiz ere justifikatu” eta “torturak eta tratu txarrak baztertu egin behar dira, edozein egoeratan”.

Era berean, alde batera utzi dugu "ETAko kideen giza eskubideak errespetatu egin behar dira beti" zioen itema, bada baieztapen hori ETAren ekintzez edozer pentsatuta ere egin daiteke. Egiaz, faktore-analisiak item horretan ETAren ekintzak gaitzesten ez dituzten ikasleak nabarmentzen direla erakutsi badigu ere, ikusi dugu II. Faktorearen aldeko jarrera dutenak ere item horrekin ados daudela. Beraz, anbiguotasun oro kentzeko asmoz, gainontzeko sei itemak hartu ditugu, dudarik gabe ikasleek ETAren ekintzez, kale borrokaz eta horien ondorioez (besteak beste, sortzen dituen biktimez) egiten duten balorazioari buruzkoak.

Azken batean, sei item hartu ditugu DBHko euskal ikasleek ETAren terrorismoarekiko erakusten duten onarpen- edo gaitzespen-indizea osatzeko. 139.A eta 139.B tauletan agertzen direnak dira.

**139.A Taula. Adierazpen hauekiko adostasun-maila**

| ADOSTASUN MAILA | Ekintza terrorista guztien biktimek gure laguntza eta babesa merezi dituzte | ETA talde terrorista da eta biktimak sortzen ditu. ETA suntsitu behar da | Gaur egun, eskubideen urratzerik handiena ETAk egiten du Euskadin |
|---|---|---|---|
| Oso ados | 35,1 | 33,9 | 26,0 |
| Nahiko ados | 24,2 | 14,0 | 18,7 |
| Erdi ados | 16,4 | 20,8 | 25,7 |
| Ez oso ados | 6,8 | 10,4 | 9,2 |
| Batere ados ez | 11,1 | 13,6 | 14,1 |
| Ed/Ee | 6,4 | 7,3 | 6,3 |
| N=762 | %100 | %100 | %100 |

**139.B taula. Adierazpen hauekiko adostasun-maila**

| ADOSTASUN MAILA | Batzuetan, ekintza terroristak justifikatuta egon daitezke (Eskalaren zentzua aldatu da) | Gaizki iruditzen zait inor hiltzea, baina beharrezko ikusten dut kale borroka (Eskalaren zentzua aldatu da) | ETAren ekintzak onak dira Euskadirentzat (Eskalaren zentzua aldatu da) |
|---|---|---|---|
| Oso ados | 12,2 | 9,4 | 5,5 |
| Nahiko ados | 11,9 | 8,3 | 6 |
| Erdi ados | 27 | 20 | 18,1 |
| Ez oso ados | 16,6 | 18,3 | 16,8 |
| Batere ados ez | 24,8 | 37,3 | 47,1 |
| Ed/Ee | 7,5 | 6,7 | 6,6 |
| N=762 | %100 | %100 | %100 |

Ikus daitekeenez, A taulako itemek ETAren ekintzekiko gaitzespena erakusten dute eta B taulakoek, aldiz, aldeko jarrera edo justifikazioa. Sei itemekin laburpen-eskala egin nahi

bada, ezinbestekoa da seiak zentzu berean ordenatuta egotea. Horixe egin dugu B taulako itemen zentzua aldatuz[11]; horrela, item bakoitzarekin ados egoteak esan nahiko du ETA eta beraren ekintzak gaitzesten direla.

Azkenean, taula guztietako emaitzak batuz, honako ibilbidea izango genuke: goiko muturretik hasita, 30etik (ikaslearen erantzun guztiak argiro ETAren kontrakoak dira eta hartutako sei itemekin "oso" ados daude, %100ean: 5 x 100, sei bider/100 = 30) beheko muturrera, 6ra (erantzun guztiak ez daude "batere" ETAren kontra; hortaz, 1 x 100, sei bider/100 = 6). Bestela esanda, sei item dituen eskala batukorra eraiki dugu: eskala horren gutxienezko balioa 6 izango litzateke (ikaslea item bakoitzaren guztiz kontra egongo litzateke eta, orduan, ETArekiko gaitzespena txikiena izango litzateke) eta gehienezko balioa, berriz, 30 (ikaslea erabat ados egongo litzateke sei itemekin eta, beraz, ETAren ekintzekiko gaitzespena handiena izango litzateke).

140. taulan zehatz-mehatz transkribatu ditugu ETArekiko gaitzespena erakusten duten zifrak, eta ikasleen erantzunak honela ordenatu ditugu: ETA gutxien gaitzesten dutenetatik (eskalaren 6 puntua) gehien gaitzesten dutenetara (30 puntua).

**140. taula. ETA gaitzesteari buruzko eskala ordinal zehatza**

| ETA GAITZESTEARI BURUZKO ZIFRAK | DBHko IKASLEAK | |
|---|---|---|
| | Kopuru absolutua | Portzentajeak |
| 6,00 (Gaitzespenik txikiena) | 2 | ,3 |
| 8,00 | 2 | ,3 |
| 9,00 | 1 | ,1 |
| 10,00 | 8 | 1,2 |
| 11,00 | 2 | ,3 |
| 12,00 | 5 | ,7 |
| 13,00 | 7 | 1,0 |
| 14,00 | 19 | 2,7 |
| 15,00 | 14 | 2,0 |
| 16,00 | 24 | 3,5 |
| 17,00 | 18 | 2,6 |
| 18,00 Balio ertaina | 96 | 13,9 |
| 19,00 | 49 | 7,1 |
| 20,00 | 49 | 7,1 |
| 21,00 | 34 | 4,9 |

11 ETAren ekintzak Euskadirentzat onak direla dioen itemarekin oso ados dauden ikasleetatik %5,5, esate baterako, ETAren ekintzak Euskadirentzat onak "ez" direla dioen itemarekin batere ados ez dauden ikasleen %5,5 bihurtzen da.

| ETA GAITZESTEARI BURUZKO ZIFRAK | DBHko IKASLEAK | |
|---|---|---|
| | Kopuru absolutua | Portzentajeak |
| 22,00 | 49 | 7,1 |
| 23,00 | 46 | 6,6 |
| 24,00 | 41 | 5,9 |
| 25,00 | 43 | 6,2 |
| 26,00 | 69 | 10,0 |
| 27,00 | 34 | 4,9 |
| 28,00 | 21 | 3,0 |
| 29,00 | 22 | 3,2 |
| 30,00 (Gaitzespenik handiena) | 37 | 5,3 |
| **Guztira** | **691** | **100,0** |
| ED/EE | 71 | |
| ETA gaitzesteari buruzko eskalako batez bestekoa: 21,75 (6 eta 30 bitartean) | | |

Taula honela irakurri behar da: gure sei itemen arabera, bi ikaslek gaitzespenik txikiena erakutsi dute ETAren ekintzekiko (eskalako 6 puntua), eta, beraz, ez daude "batere ados" proposaturiko sei itemetako bakoitzarekin. Ikasleetatik %0,3 dira horiek. Kontrako aldean, 37 ikaslek gaitzespenik handiena erakutsi dute ETAren ekintzekiko (eskalako 30 puntua), bada "oso ados" daude proposaturiko sei itemekin. DBHko ikasleetatik %5,3 dira horiek[12]. Eta horrela balio ertainetarako.

Egia esan, taula hori zehatzegia da. Ikasleen erantzunak maila ezberdinetan multzokatu beharra dago. Maila horiei esker jakingo dugu zenbatekoa den ETArekiko gaitzespen-maila, zenbat ikaslek gaitzesten duten ETA eta nolako sendotasunaz. Hasteko, esan behar da gai honetan egiten den edozein multzokatze arbitrario samarra dela. Zer puntutatik aurrera esan daiteke ETArekiko gaitzespena erabatekoa dela? Eskalako 30 puntuan bakarrik, hau da, ikasleetatik %5,3k? Printzipio horren arabera, esango al genuke, halaber, ETAren guztiz aldekoak gure eskalako sei puntu lortu dituzten ikasleak direla, alegia, %0,3? Hori onartuta ere, zer egingo dugu ikasleetatik %94,4rekin? Nola ordenatuko ditugu ETArekiko erakusten duten gaitzespen handiagoaren edo txikiagoaren arabera? Aukera bakarra dago: 6tik –ETArekiko gaitzespenik batere ez– 30era –ETArekiko erabateko gaitzespena– bitarteko eskalan mozketak egin behar dira, eta mozketa horiek non egin erabaki. 140. taula eskaintzen dugu, izan litezkeen balio guztiak zehazki azaltzen dituena, irakurleak egoki irizten dien tokietan mozketak egin ditzan.

Luzaroan hausnartu eta hainbat proba egin ondoren, ikasleak zorrozki estatistika-irizpideen arabera mailakatzea erabaki dugu. Ikusi dugunez, eskala 6 eta 30 balioen artean mugitzen

12 Item guztiei erantzun dietenetatik, izan ere, 762tik 71k ez diote erantzun itemen bati eta, beraz, analisitik kanpo geratu dira.

da, biak barne direla. Ibilbidea 4 zati berdin-berdinetan zatitu dugu, erdiko puntuan balio zentralari –18ari– eutsiz. Zifra horren azpitik daudenak ETArekiko gaitzespen txikienaren muturrean daude (edo aldeko jarrera edo justifikaziorik handieneko puntuan, nahiz eta ez duen gauza bera esan nahi). Aldiz, 18tik gorakoak ETArekiko gaitzespenik handieneko muturrean daude. Eta inorena ez den lurrean geratzen dira 18. puntuan daudenak, bada adierazten du "erdibidean daudela" ETAren alde ala kontra agertzean (barkamena eskatzen dugu gauzak esateko modu horregatik, baina argitasunik eta ulerterraztasunik handiena lortu nahi dugu, zenbaki eta estatistiketan aditua ez den irakurlea gogoan). Era berean, mutur bakoitza bi maila berdin-berdinetan banatu dugu, ETArekiko gaitzespen ala justifikazio maila handiagoaren edo txikiagoaren arabera. Horrela, bost maila lortu ditugu, horietatik lauk eskalako balio kopuru bera hartzen dute beren baitan, sei kasu bakoitzean, eta batek, balio zentralak soilik, 18 puntua. Hau da, eskalako ibilbidea lau kuartiletan banatu dugu, eta erdian gorde dugu eskalako batez besteko balioa. 141. taulan azaldu ditugu eta, maila bakoitzean, beren baitan hartutako ikasleen kopuru absolutua eta portzentajezkoa adierazi ditugu.

Ikus daitekeenez, bigarren zutabean, irakurleari lana errazteko, 6tik 30erako eskalako balioak 0tik 10erako eskala ohikoagora aldatu ditugu. Hortaz, 142.A taulatik 142.E taulara, 0tik 10erako eskala dezimala bakarrik azaldu dugu.

**141. taula. ETA gaitzesteari buruzko eskala, ikasleen iritziak lau kuartiletan banatuta eta eskalako ibilbideko estatistika-puntu zentrala hartuta**

| ETA GAITZESTEA. Eskala-balioak 6-30 eskalan | 0-10 eskalara aldatzea (gaitzespenik handiena: 10) | IKASLE KOPURUA | IKASLEEN PORTZENTAJEA |
|---|---|---|---|
| 6tik 11ra (%25 txikiena) | Oso gaitzespen gutxi (0-2,5) | 15 | %2,2 |
| 12tik 17ra (%25 balio ertainaren azpitik) | Gaitzespen gutxi (2,5- 5,0) | 87 | %12,6 |
| 18 puntua (Balio ertaina) | Gaitzespen ertaina (5,0) | 96 | %13,9 |
| 19tik 24ra (%25 balio ertainetik gora) | Gaitzespen handia (5,0-7,5) | 268 | %38,8 |
| 25etik 30era (%25 handiena) | Oso gaitzespen handia (7,5 -10) | 225 | %32,6 |

Gure ustez, irakurketa, berez, aski argia da. Hartutako irizpidearen arabera –zorrozki estatistika irizpidea–, baterako eskala batukorrean honako hau izango genuke: ikasleetatik %2,2k oso gutxi gaitzesten dute ETA, eta %12,6k gutxi; orduan, euskal ikasleen artean %14,8 ETA gaitzestearen kontra daude, argiro. Erdibidean, %13,9 daude inoren lurrean, eta %71,4, berriz, ETA garbiki gaitzesten duen muturrean (azken hauetan, %38,8k ETArekiko gaitzespen maila handia erakusten dute eta %32,6k oso gaitzespen maila handia).

ETA gaitzesten ez duen ikasle bakar bat egoteak kezkagarria izan beharko luke guretzat. ETA dudarik gabe gaitzesten ez duten %15 inguru eta erdibidean kokatzen diren %14 egonda, kezka are handiagoa da. Jakina, gehienak, hamarretik zazpi baino gehiago, ETAren kontra

daude, zalantza barik. Azken zifra baliagarria izan bedi euskal gazte gehienak ETAren aldekoak direla dioten iritzi batzuk indargabetzeko. Ikus daitekeenez, euskal nerabeen gehiengo kualifikatua, hamarretik zazpi baino gehiago, ETAren kontra agertzen da argi eta garbi. %14 inguruko talde batek jarrera anbibalenteak ditu eta, azkenik, eta hau benetan kezkagarria da, beste %14k ez du ETA gaitzesten, zalantzarik gabe. Kuantitatiboki hori esan daiteke orain, azterketa honen arabera, DBHko euskal ikasleek ETArekiko erakusten duten gaitzespen mailari buruz.

ETA gaitzesteari buruzko bost maila horietan tipologizatutako ikasleen oinarrizko profil soziodemografikoa ia guztiz bat dator faktore-analisian ikasleen hiru multzoak aztertuz ikusi dugunarekin. Irakurleei hori erakusteko, zenbait taula ekarri ditugu hona, hain zuzen, 142. Atik 142.Era zenbakitu ditugunak.

**142.A taula. ETA gaitzesteari buruzko eskala, sexuaren arabera (% bertikalak)**

| ETA GAITZESTEA (0-10) ESKALA | SEXUA | | |
|---|---|---|---|
| | Neska | Mutila | Denak |
| Oso gaitzespen gutxi (0-2,5) | ,9 | 3,5 | 2,2 |
| Gaitzespen gutxi (2,5-5,0) | 12,4 | 12,8 | 12,6 |
| Gaitzespen ertaina (5,0) | 13,0 | 14,8 | 13,9 |
| Gaitzespen handia (5,0-7,5) | 37,9 | 39,7 | 38,8 |
| Oso gaitzespen handia (7,5-10) | 35,8 | 29,3 | 32,6 |
| N | %691,100 | | |

Neskek mutilek baino zertxobait irmoago gaitzesten dute ETA. Nesken artean %73,7 argi agertzen dira ETAren kontra. Zifra hori %69ra jaisten da mutilen kasuan. Horren antzeko aldea ikusi dugu gaitzespenik gutxieneko mailan ere: nesketan %0,9, baina mutiletan %3,5ra igotzen da.

**142.B taula. ETA gaitzesteari buruzko eskala, ikasleek beren ikasketak egiten dituzten ikastetxe-motaren arabera (% bertikalak)**

| ETA GAITZESTEA (0-10) ESKALA | ESKOLA SAREA | | |
|---|---|---|---|
| | Publikoa | Itundua | Denak |
| Oso gaitzespen gutxi (0-2,5) | 2,2 | 2,2 | 2,2 |
| Gaitzespen gutxi (2,5-5,0) | 13,4 | 12,2 | 12,6 |
| Gaitzespen ertaina (5,0) | 18,2 | 11,7 | 13,9 |
| Gaitzespen handia (5,0-7,5) | 45,0 | 35,7 | 38,8 |
| Oso gaitzespen handia (7,5-10) | 21,2 | 38,3 | 32,6 |
| N | %691,100 | | |

Ikastetxe motari begiratzen diogunean –publikoa edo itundua–, ETArekiko gaitzespen maila handietan aurkitzen ditugu alde nagusiak: itundutako ikastetxea nabarmentzen da, ETArekiko gaitzespen maila oso handia erakusteagatik. Halaber, itundutako ikastetxeetako ikasle gutxiago kokatu dira gaitzespen ertaineko puntuan. Hala ere, ETA gutxien gaitzesten duten puntuetan (beraz, berriro diogu, ziur asko ETA mantendu dezaketenak) ia ez dago alderik bi irakaskuntza-sare horien artean.

**142.C taula. ETA gaitzesteari buruzko eskala, ikaslea DBHko zein mailatan dagoen kontuan hartuta (% bertikalak)**

| ETA GAITZESTEA (0-10) ESKALA | DBHn IKASTEN ARI DA | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | 1. maila | 2. maila | 3. maila | 4. maila | Denak |
| Oso gaitzespen gutxi (0-2,5) | 1,9 | 2,5 | ,8 | 3,4 | 2,2 |
| Gaitzespen gutxi (2,5-5,0) | 13,1 | 15,7 | 8,7 | 5,7 | 12,6 |
| Gaitzespen ertaina (5,0) | 13,8 | 13,2 | 15,9 | 13,8 | 13,9 |
| Gaitzespen handia (5,0-7,5) | 30,0 | 45,9 | 34,1 | 35,6 | 38,8 |
| Oso gaitzespen handia (7,5-10) | 41,3 | 22,6 | 40,5 | 41,4 | 32,6 |
| N | %691,100 | | | | |

Ikasmailaren (beraz, adinaren) eta ETA gaitzestearen arteko korrelazioak (142.C taula) hainbat gorabehera ditu, baina bada nabarmendu beharreko datu positibo bat: oro har, ikasketetan aurrera egin ahala (baita adinean ere), areagotuz doa ETArekiko gaitzespena. Datu hori ona da, bada, jakina, adinean aurrera egin ahala, arrazoitutako hautabideek garrantzi handiagoa hartzen dutela uste da. Korrelazio hori ez da garbia, DBHko bigarren mailan inflexio bat gertatzen delako. Horri baino garrantzi gutxiago eman diogu DBHko 4. mailako ikasleetatik %3,4k ETArekiko gaitzespenik txikiena agertzeari, izan ere, zenbaki absolutuetan ikasle bat gutxiago egongo balitz, gaitzespen ertainaren inguruan egongo litzateke.

**142.D taula. ETA gaitzesteari buruzko eskala, ikaslea bizi den lurraldearen arabera (% bertikalak)**

| ETA GAITZESTEA (0-10) ESKALA | ZEIN LURRALDETAN BIZI DEN | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE |
| Oso gaitzespen gutxi (0-2,5) | 2,4 | 1,3 | 3,6 | 2,2 |
| Gaitzespen gutxi (2,5-5,0) | 14,2 | 9,9 | 16,7 | 12,6 |
| Gaitzespen ertaina (5,0) | 14,2 | 12,9 | 15,6 | 13,9 |
| Gaitzespen handia (5,0-7,5) | 44,9 | 35,2 | 41,7 | 38,8 |
| Oso gaitzespen handia (7,5-10) | 24,4 | 40,6 | 22,4 | 32,6 |
| N | %691,100 | | | |

Lurralde historikoei erreparatuz, emaitzek erakutsi digute Gipuzkoa dela ETA gaitzesten ez duen taldeak zale gehien dituen lurraldea, eta Bizkaia gutxien dituena. Araba bien artean kokatzen da.

**142.E taula. ETA gaitzesteari buruzko eskala, ikasketak zein hizkuntza-eredutan egiten dituzten kontuan hartuta (% bertikalak)**

| ETA GAITZESTEA (0-10) ESKALA | HIZKUNTZA-EREDUAK | | | |
|---|---|---|---|---|
| | A | B | D | Denak |
| Oso gaitzespen gutxi (0-2,5) | 0,5 | 1,5 | 3,8 | 2,2 |
| Gaitzespen gutxi (2,5-5,0) | 7,7 | 13,3 | 15,6 | 12,6 |
| Gaitzespen ertaina (5,0) | 10,6 | 10,7 | 18,4 | 13,9 |
| Gaitzespen handia (5,0-7,5) | 34,8 | 34,7 | 44,4 | 38,8 |
| Oso gaitzespen handia (7,5-10) | 46,4 | 39,8 | 17,7 | 32,6 |
| N | %691,100 | | | |

Azkenik, ikasleek beren ikasketak egiten dituzten hizkuntza-ereduen eta ETA gaitzestearen arteko korrelazioak hauxe erakusten digu: A ereduan (gaztelaniazko eskolatzea, euskal hizkuntza irakasgaia izan ezik, hori euskaraz ematen baita) ikasten dabiltzanen artean aurkitzen dugu ETArekiko gaitzespenik handiena, eta, aldiz, D ereduan (euskarazko eskolatzea, hizkuntza izan ezik, hori gaztelaniaz ematen baita) ikasten dutenak nabarmentzen dira ETA gutxien gaitzesteagatik. Azkenik, B eredukoak (erdia euskaraz, erdia gaztelaniaz) gaitzespen ertaineko puntuan kokatzen dira.

Laburbilduz, DBH ikasten ari diren hamar ikasletatik zazpik baino gehiagok argiro gaitzesten dute ETA. %14k ez dute iritzirik ematen edo jarrera anbiguoa dute, eta gainontzeko %14a, hori ere argiro, ETA gaitzestearen kontra agertzen da.

### *D) Sozializatzeko hiru eragilek zeharka duten garrantzia*

Galdera-sortan hiru galdera berdin-berdinak egin ditugu, baina hiru testuinguru desberdinetan (26, 31 eta 35. galderak). Horien bitartez neurtu nahi da, zeharka, ea nerabeak sozializatzeko hiru eragilek edo espazio klasikok eraginik ba ote duten. Familiaz, eskolaz eta lagun taldeaz hitz egiten ari gara.

Espazio horiek eraginik ba ote duten zeharka neurtu nahi dugula esan dugu, izan ere, ikasleek erantzun behar dute ea beren "etxean", "eskolan" edo "lagun taldean" zenbait gaiez hitz egiten den eta, zehazki, horietaz nola hitz egiten den. Galderak honela idatzita daude: "Zure etxean (eskolan, lagun taldean) esaten da...". Eta jarraian, bederatzi adierazpen egiten dira, giza eskubideekin edo etorkinekin, ezinduekin, homosexualekin, emakumeekin eta ETArekin zerikusia dutenak. Kasu bakoitzean galdetzen zaie ea baieztapen horiek nolako maiztasunaz egiten diren hiru eremu horietan (familia, eskola eta lagunak), hau da, ea adierazpen zehatz horiek askotan, batzuetan, gutxitan esaten diren, edo inoiz ez diren esaten.

Ikusten denez, kontrolatu nahi da bederatzi adierazpen zehatz (orientazio garbia duten adierazpenak, irakurtzean egiaztatzen denez) zenbateraino agertzen diren etxeko, eskolako eta lagunen arteko solasaldietan. Adierazpenok batere neutroak ez direnez gero, zeharka ikusten dugu zein balorazio nagusitzen den hiru eremu horietako bakoitzean. Azken batean, bi gauza kontrolatzen ditugu: gai jakin batzuk etxean, eskolan eta lagunartean nolako maiztasunaz agertzen diren eta, zeharka, hiztunek zer-nolako iritzia duten hiru eremu horietako bakoitzean aipatutako gaiez.

– **Familiako, eskolako eta lagunen arteko solasaldietan bost gizatalde zehatz aipatzen ote diren eta horietaz zein iritzi agertzen diren**

Lehenbizi, laburki adieraziko ditugu bederatzi adierazpen horietan lortutako emaitzak, eta, bigarren, zehazkiago azalduko ditugu ETAri dagozkion bi galderetarako erantzunak, hori baita txostenaren atal honetako oinarrizko helburua. Ikusi 143. taula.

**143. taula. Etxean, eskolan eta lagunartean nolako maiztasunaz hitz egiten den gai jakin batzuen gainean (familian aipatzen diren batez besteko maiztasunaren arabera ordenatuta, goitik behera)**

| ETXEAN, ESKOLAN, LAGUNARTEAN, NOLAKO MAIZTASUNAZ EGITEN DIRA HONAKO BAIEZTAPEN HAUEK | BATEZ BESTE 4: ASKOTAN; 1: INOIZ EZ | | |
|---|---|---|---|
| | Etxean | Eskolan | Lagunartean |
| Ezinduei bizimodu normala egitea erraztu behar zaie | 3,12 | 2,83 | 2,43 |
| Homosexualak pertsona normalak eta arruntak dira | 2,98 | 2,66 | 2,46 |
| ETAren indarkeria onartezina da | 2,77 | 2,30 | 2,25 |
| Etorkinek herrialdea aberasten dute | 2,03 | 1,99 | 1,82 |
| Etorkinek lana kentzen digute, laguntza gehiegi jasotzen dituzte | 1,85 | 1,84 | 1,80 |
| Ezinduek ez dute lanik egin behar | 1,66 | 1,71 | 1,68 |
| Badira ETAk jarduteko arrazoiak | 1,59 | 1,69 | 1,74 |
| Emakumeek ez lukete erantzukizun handiko lanik egin behar (politika, esaterako), beren seme-alabak zaindu behar dituztelako | 1,45 | 1,59 | 1,54 |
| Homosexualek ez lukete ezkondu behar, ezta seme-alabarik izan ere | 1,44 | 1,70 | 1,62 |

143. taularen gaineko iruzkina laburra izango da, bada lan honen beste zati batean aztertuta dago. Orain komentatzera goazen sailkapenean kokatzen dira aipatu ditugun lau gizatalde horiei buruzko datuak –zenbateraino hitz egiten den talde horietaz, eta zenbateraino onartzen diren–.

Lehenik, arreta berezirik merezi ez duten diferentzia txiki batzuk alde batera utzita, familian gai horietaz nolako maiztasunaz hitz egiten den kontuan hartuta taulan eskaintzen dugun sailkapena mantendu egiten da erreferentzia-eremua eskola eta lagunartea direnean ere. Gainera, eskuarki (salbuespen bakarrarekin), famili barruan hitz egiten da gehien gai horietaz, bereziki aipatutako taldeen giza eskubideak ontzat jotzen dituzten adierazpenez mintzo garenean. Beste azterlan batzuetan ere islatzen da ikasleek familia hartzen dutela sozializatzeko eragile nagusitzat. Lan honek ideia hori egiaztatu du.

Berehala erantsi beharra dago egiaztapen horrek (zenbaki hutsak, datuak) ez duela adierazten famili barruan hainbat talderen giza eskubideak errespetatzeko balio positibo gehiago dagoenik. Hemen ez da esaten familiak eskolak edo lagun taldeak baino giza balio gehiago ematen duenik. Beste zerbait esaten da: ikasleei balio positiboez maizen zein eremutan hitz egiten den galdetzen zaienean, lehen tokian eta argiro, “familian” erantzuten dutela.

Horrexegatik adierazi dugu honako hau: nerabeen esanean, familian aurkitzen dituzte bizitzan nondik nora jo jakiteko gauzarik garrantzitsuenak. Orain gehiago dakigu. Orain badakigu gauza horiek gehienetan giza eskubideak errespetatzearen aldeko balio positiboak direla. Egiaz, ez familia guztietan, eta, kasu askotan, ez nahiko genukeen portzentajeetan, baina ikasleek batik bat famili barruan bereganatzen dituzte, dudarik gabe, giza eskubideak errespetatzearen aldeko balio positiboetan aurrera egiteko oinarriak.

“Kasurik gehienetan” azpimarratu dugu, bada, aurrerago ikusiko dugunez, analisi zehatzago baten bitartez, familia balio negatiboak helarazteko faktore indartsua ere izan daiteke.

Era positiboan adierazitako itemei dagokienez, ezinduei lan normala egitea erraztu behar zaiela dioen itemarekiko erakutsi dute ikasleek sentikortasunik handiena; ondoren, bigarren tokian, homosexualak, besterik gabe, pertsona normalak direla dioen adierazpena kokatzen da; hirugarren tokian, etorkinak herrialdea aberasten dutela dioena; eta, azkenik, aurrekoetatik oso urrun, ETAk jarduteko arrazoiak badirela dioena. Item bakarrean aipatzen da emakumea, eta era negatiboan adierazita dago (“emakumeek ez lukete erantzukizun handiko lanik egin behar –politika, esaterako–, seme-alabak zaindu behar dituztelako”), baina formulazio horrek sortzen duen gaitzespenak (eskolan eta lagunartean gaitzespenik handiena) ondorio hau ateratzeko bide ematen digu: adierazpena era positiboan egin izan bagenu, adibidez, “emakumeek lanean gizonek dituzten eskubide eta soldata berberak izan behar dituzte”, item hori ezinduei buruzko adierazpenaren onarpen-maila berean edo antzekoan egongo zela.

Laburbilduz, alde txiki batzuk alde batera utzita, familiaren, eskolaren edo lagunartearen arabera, giza eskubideak babestu behar zaizkien taldeen sailkapena honako hau izango litzateke: lehen tokian, emakumea eta ezinduak; ia maila berean, homosexualak; maila bat beherago, etorkinak; eta ikuspegi oso bestelako eta aurrekoekin alderatzerik ez dagoen

batekin, ETAri buruzko aipamenak agertzen dira, “Badira ETAk jarduteko arrazoiak” dioen adierazpenarekin. Azken horrek ez digu ahantzarazi behar, ordea, adierazpen negatiboak (“ETAren indarkeria onartezina da”) aldeko jarrera asko sortu dituela.

Azkenik, hirugarren tokian, ohar gaitezen ezinduen eta homosexualen kasuan giza eskubideen defentsarako planteamenduak argiagoak direla, izan ere, talde horien eskubideei buruzko adierazpen positiboarekin ados daudenen eta adierazpen negatiboarekin bat datozenen arteko aldea handiena da. Gure iritziz, emakumeen kasuan adierazpen positiboa egin izan bagenu, gauza bera esan beharko genuke talde horretaz ere.

Ez da halakorik gertatzen etorkinekin eta are gutxiago ETAri buruzko aipamenekin. Etorkinei dagokienez, ohar gaitezen adierazpen positiboak (“etorkinek herrialde hau aberasten dute”) eskalan (“askotan”: 4; “inoiz ez”: 1) 2,77 zifra ematen digula famili barruan egindako adierazpenei dagokienez, 2,38 eskoletan egindakoetan, eta 2,25 lagunartean egindakoetan. Balio ertaina 2,5 dela kontuan hartuta, ondorioztatu behar da gai hori ez dela sarri aipatzen solasaldietan, bereziki eskolan, eta are gutxiago ikasleen artean.

Baina bada beste zerbait, hori bezain interesgarria. “Etorkinek lana kentzen digute, laguntza gehiegi jasotzen dituzte” adierazpen negatiboari erreparatzen badiogu, ohartzen gara, eskala beraren arabera, adierazpen hori 2,03ko maiztasunaz esaten dela familian (0,74 puntu adierazpen positiboaren azpitik), 1,84ko maiztasunaz eskolan (0,15 puntu azpitik) eta 1,80ko maiztasunaz lagunartean (0,02 gutxiago, beraz, ia parean). Horrek guztiak gauza izugarri garrantzitsua adierazten du: etorkinak gure artean izateak aberastu egiten gaituela onartzen duten ikasleak gehiago diren arren, ia parean direla etorkinek, hemen egonda, “lana kentzen digutela” eta “laguntza gehiegi jasotzen dituztela” uste dutenak, batez ere solasaldiak lagunartekoak, ikasle artekoak direnean. Eskoletan gertatzen denaz irakurri duguna ere ez da batere itxaropentsua.

Erraz esateko: etorkinenganako jarrerak nabarmenki hobetu daitezke.

ETAren kasuak berariazko tratamendua behar du. Gainera, atal honetako gaia da eta horretaz mintzatuko gara iruzkin honetan geratzen zaigun zatian.

– **ETAren presentzia eta ETArekiko jarrerak familiako, eskolako eta lagunarteko solasaldietan**

Konparazio hutsezko analisia eginez gero, zalantza barik hauxe esan beharko litzateke: ETAren indarkeria onartezina dela dioen adierazpenean oinarrituta ETA askoz sarriago gaitzesten dela hiru eremu horietan (familia, eskola, lagunak), ETAren jarduera justifikatzeko arrazoiak daudela dioen adierazpenean oinarrituta ETA onartzen dutenen aldean. Esate baterako, ikasleetatik %58k adierazi dutenez, familien barruan maiz esaten da “ETAren indarkeria onartezina da”; aldiz, “Badira ETAk jarduteko arrazoiak” adierazpenaz ari direnean, kopurua %18ra jaisten da, eta kopuru hori aintzat hartzeko modukoa da, nahiz eta aurrekoaren aldean, askoz kopuru txikiagoa izan. Ikusi 144. taulak.

**144.A. taula. Zure etxean esaten da…**

| MAIZTASUNA | ETAren INDARKERIA ONARTEZINA DA | BADIRA ETAk JARDUTEKO ARRAZOIAK |
|---|---|---|
| Askotan | 39,0 | 6,7 |
| Batzuetan | 19,1 | 11,2 |
| Gutxitan | 16,6 | 14,7 |
| Inoiz ez | 22,6 | 64,2 |
| ED /EE | 2,7 | 3,0 |
| N=762 | %100 | %100 |
| Batez beste:<br>4 Askotan, 1 Inoiz ez | 2,77 | 1,59 |

**144.B. taula. Zure eskolan esaten da…**

| MAIZTASUNA | ETAren INDARKERIA ONARTEZINA DA | BADIRA ETAk JARDUTEKO ARRAZOIAK |
|---|---|---|
| Askotan | 25,4 | 8,0 |
| Batzuetan | 14,5 | 11,9 |
| Gutxitan | 20,6 | 18,4 |
| Inoiz ez | 36,0 | 57,8 |
| ED /EE | 3,6 | 3,8 |
| N=762 | %100 | %100 |
| Batez beste:<br>4 Askotan, 1 Inoiz ez | 2,30 | 1,69 |

**144.C. taula. Zure lagun taldean esaten da…**

| MAIZTASUNA | ETAren INDARKERIA ONARTEZINA DA | BADIRA ETAk JARDUTEKO ARRAZOIAK |
|---|---|---|
| Askotan | 24,8 | 8,6 |
| Batzuetan | 14,6 | 13,8 |
| Gutxitan | 16,5 | 18,3 |
| Inoiz ez | 40,3 | 56,4 |
| ED /EE | 3,8 | 3,0 |
| N=762 | %100 | %100 |
| Batez beste:<br>4 Askotan, 1 Inoiz ez | 2,25 | 1,74 |

Eskolan ETA gaitzesteko adierazpena maiz entzuten da, ikasleetatik %40k esan dutenez, eta ETAren aldeko adierazpena ikasleetatik %20k entzun dute.

Lagunartean, gaitzespen-adierazpena maiz agertzen da ikasleen hizketaldietan, ikasleetatik %39k adierazi dutenez, eta onarpen-adierazpena entzuten dutela diote Euskadiko DBHko ikasleetatik %22k.

Laburbilduz, ETArekiko gaitzespena argi eta garbi sarriago agertzen da familietan (sarritan, hamar ikasletatik seik diotenez) eta dezente gutxiago eskolan eta lagunartean (bi eremu horietan, hamar ikasletatik lauk soilik adierazi dute maiz agertzen dela). Goraxeago adierazi duguna berresten dugu: familia da ETAren kontrako lehenbiziko sozializazio-eragilea euskal ikasleen artean.

ETAren alde sarritan hitz egiteari buruzko adierazpenean ("Badira ETAk jarduteko arrazoiak"), ia ez dago alderik: ikasleetatik %18k familia aipatzen dute, %20k eskola eta %22k lagun taldea.

Aurreko datu horiek, ez ahaztu, ikasleen multzo osoari dagozkio. Alabaina, atal honen 3. puntuan azaldu berri dugu osagai nagusien faktore-analisia. Ikusi dugunez, ETArekin eta giza eskubideen defentsarekin lotutako bederatzi itemi emandako erantzunen arabera, hiru erantzun-multzo bereiz ditzakegu. Hiru multzo horiek hiru jarrerarekin, hiru balio-sistemarekin dute zerikusia, euskal ikasleek ETAri buruz eta giza eskubideei buruz duten iritziari dagokionez. Orain beste urrats bat egingo dugu, oso garrantzitsutzat jotzen duguna. Geure buruari galdetuko diogu ikasleek, beren iritziak hartu eta horiei eusteko, zein eremutan bereganatzen dituzten hiru multzo edo faktore horiek (I, II eta III. faktoreak). Orduan, ETArekiko eta giza eskubideak babestu eta sustatzearekiko erakutsi dituzten hiru jarreretan oinarrituta, hiru multzo bereizi eta segmentatu ondoren, hemen bereizi nahi dugu gaur egungo euskal ikasleengan familiak, eskolak eta lagun taldeak nolako garrantzia duten. Hori irakur daiteke 145. taulan.

**145. taula. Familiak, eskolak eta lagun taldeak ikasleen sozializazioan nolako garrantzia duten, ikasle horiek ETAren ekintzez eta giza eskubideez eman dituzten erantzunen arabera multzokatu ondoren**

| | I. FAKTOREA | II. FAKTOREA | III. FAKTOREA |
|---|---|---|---|
| **Zure etxean** esaten da: "ETAren indarkeria onartezina da" | | | |
| Askotan | -,2426420 | ,1760425 | ,3081580 |
| Batzuetan | ,0786629 | ,0465323 | -,1730413 |
| Gutxitan | ,2153191 | -,0106521 | -,0318949 |
| Inoiz ez | ,2327529 | -,3204678 | -,3405982 |
| ANOVA Sig. | .000 | .000 | .000 |

| | I. FAKTOREA | II. FAKTOREA | III. FAKTOREA |
|---|---|---|---|
| Zure etxean esaten da "Badira ETAk jarduteko arrazoiak" | | | |
| Askotan | ,9607963 | -,3507318 | -,2032325 |
| Batzuetan | ,6726958 | ,0031308 | -,1410275 |
| Gutxitan | ,2607366 | -,0812761 | -,1530669 |
| Inoiz ez | -,2552521 | ,0639835 | ,1012770 |
| ANOVA Sig. | .000 | .059 | .002 |
| **Zure eskolan** esaten da: "ETAren indarkeria onartezina da" | | | |
| Askotan | -,2244716 | ,1441599 | ,2615961 |
| Batzuetan | ,0699476 | -,0346720 | ,0038345 |
| Gutxitan | ,1629027 | ,1557777 | -,1086247 |
| Inoiz ez | ,0059052 | -,1686607 | -,1355785 |
| ANOVA Sig. | .003 | .005 | .001 |
| Zure eskolan esaten da: "Badira ETAk jarduteko arrazoiak" | | | |
| Askotan | ,7605083 | ,0511381 | -,1412356 |
| Batzuetan | ,3834003 | -,1840174 | -,0037780 |
| Gutxitan | ,2445364 | -,0218579 | -,0533133 |
| Inoiz ez | -,2721898 | ,0453451 | ,0488595 |
| ANOVA Sig. | .000 | .360 | .492 |
| **Zure lagun taldean** esaten da: "ETAren indarkeria onartezina da" | | | |
| Askotan | -,2337830 | ,1994817 | ,3127702 |
| Batzuetan | ,0641245 | -,1000190 | ,0296943 |
| Gutxitan | ,0342361 | ,0558343 | ,0347373 |
| Inoiz ez | ,0838010 | -,0789790 | -,1840662 |
| ANOVA Sig. | .015 | .015 | .000 |
| Zure lagun taldean esaten da: "Badira ETAk jarduteko arrazoiak" | | | |
| Askotan | 1,0190756 | ,0038017 | -,0594236 |
| Batzuetan | ,4808763 | ,0162075 | -,0897465 |
| Gutxitan | ,1853380 | -,0811162 | ,0033796 |
| Inoiz ez | -,3461260 | ,0217696 | ,0484135 |
| ANOVA Sig. | .000 | .905 | .184 |

Hori irakurtzean, nagusiki 1. multzoa aztertu behar da arretaz, ETAren ekintzak, kale borroka eta terrorismoa batzuetan justifikatzen dituzten ikasleen erantzunek osatutakoa. Zehazki, "Badira ETAk jarduteko arrazoiak" dioen itemak etxean, eskolan eta lagunartean esaten denarekin zenbaterainoko korrelazioa duen aztertu nahi dugu. Eta erantzuna ikaragarria da.

Oso korrelazio estua dago ikasleek etxean, eskolan eta lagunartean “Badira ETAk jarduteko arrazoiak” oso maiz entzutearen eta ikasle horiek ETAren ekintzak, kale borroka eta terrorismoa oro har onartzearen artean. ETA legitimatzearen sozializazioa nabarmena da eta lan honetan guztian aurkituko dugun indartsuena. Badakigu ikasle multzo txiki baina esanguratsu baten aurrean gaudela. Orain badakigu, orobat, beste ezein multzotan ez dugula aurkituko hori bezalako sozializazio indartsurik ETAren jarduera-arrazoiak legitimatzen.

Hori esanez ageriko zerbait baino ez diogula pentsa liteke. Alegia, etxean, eskolan eta lagunartean ETAk jarduteko arrazoiak badirela maiz entzuten duenarengandik, ETAren legitimazioan sozializatzen duten ikaslearengandik espero daitekeela “ETAren ekintzak onak dira Euskadirentzat” esaten bukatzea, haren ustez “kale borroka beharrezkoa izatea”, eta abar. Baina garrantzitsuena, berriro diogu, zera da: egiaztatu dugu sozializazio hori oso indartsua dela, ez duela parekorik beste iritzi batzuk dituzten ikasleen sozializazioarekin. Kopuruek, kopuru hotzek berriro ere, kasu batzuetan eta besteetan sozializazioak duen indarra erakusten digute.

Kopuruen zale ez direnei ere kopuruei pixka bat erreparatzeko eskatzen diegu. Etxean “Badira ETAk jarduteko arrazoiak” askotan esatearen eta ETA legitimatzearen arteko korrelazioa .96ra iristen da; eskolaz ari bagara, zertxobait jaisten da, baina, hala ere, .76an geratzen da; eta lagunartean 1.02an (horregatik azpimarratu ditugu zifra horiek). Irakurleak errepasatu dezala 145. taula eta ez du aurkituko horiei hurbiltzen zaien zifrarik. Azterlan honetako korrelazio-zifrarik altuenak dira (jakina, ETArekin lotutako alderdietan sozializatzeari dagokion azterlanaren atalaz mintzo gara).

I. Faktorean ere, “ETAren indarkeria onartezina da” itemarekiko korrelazioak –korrelazio negatiboak, noski– askoz ere txikiagoak dira, nahiz eta, kasu guztietan, oso esanguratsua den ANOVA izan.

Gainontzeko bi multzoei erreparatzen badiegu, II. Faktoreari eta III. Faktoreari, korrelazioak txikiagoak dira eta, zenbait kasutan, ez dago batere korrelaziorik. Taula norberaren interesen arabera kontsulta daiteke, informazio izugarri aberatsa eskaintzen baitu. Hemen gauza pare bat adieraziko ditugu multzo edo faktore bakoitzerako.

Bigarren multzoan, giza eskubideen unibertsaltasunaren aldeko erantzunengatik nabarmentzen den horretan, korrelazio benetakoa eta argia dago (baina 1. multzoan gorago adierazi dugun korrelazio indartsutik oso urrun) “ETAren indarkeria onartezina da” dioen itemarekin, baina korrelazioa desagertu egiten da “Badira ETAk jarduteko arrazoiak” itemarekin, bai familiaren eremuaz ari bagara (hala ere, hemen korrelaziorik handiena), bai eskolakoaz edo lagunartekoaz ari bagara ere. Zergatik? Puntu horrekiko desbideratze bakarra 1. multzoan daukagulako (multzo horretakoak dira ETAren ekintza legitimatzen duten bakarrak).

Hirugarren multzoan –multzo horretan biltzen dira gaur egun, Euskadin, eskubideen urratzerik handiena ETAk egiten duela uste dutenen jarrerak, terrorismoaren biktimen aldekoenak eta ETA suntsitzearen aldekoenak–, oro har, 2. multzorako adierazi berri dugun jarreraren antzekoa ikusi dugu: hau da, jarrera argia “ETAren indarkeria onartezina da” itemaren

aurrean; eta eskolan eta lagunartean hori desagertu egiten da “Badira ETAk jarduteko arrazoiak” itemaren aurrean, 2. multzorako azaldu dugun arrazoi berberagatik.

Normalean familia eta lagun taldea, eta noizbait alderantzizko hurrenkeran, alegia, lagun taldea eta familia agertzen dira lehen tokian sozializazioaren eragile bezala, eta eskola beti hirugarren tokian geratzen da.

Baina hel diezaiogun berriz funtsezkoenari. Eta hauxe esatea da funtsezkoena: lagun taldea eta familia, ia biak batera, eskola ahaztu gabe, oso eragile indartsuak dira ETA justifikatzea eta legitimatzea argitzeko orduan ETA eta beraren ekintzak egiaz justifikatu eta legitimatzen dituzten ikasleengan. Beste kasu bakar batean ere ez dugu aurkitu horren antzeko korrelaziorik. Ez dugu halako sozializazio indartsurik aurkitu ez ETAren indarkeria onartezintzat jotzen duen itemean, ez giza eskubideen unibertsaltasuna onartzen duen horretan, ez terrorismoaren biktimak onartzen dituen itemean, ez torturak eta tratu txarrak gaitzesten dituen itemean, ez ETA suntsitu behar dela dioenean, e.a. Ikasleek ezertan ez dute sozializazioa hain indartsuki azaltzen ETA eta beraren ekintzak justifikatzeari buruz aritzean baino.

“Badira ETAk jarduteko arrazoiak” adierazpenaren aurrean aurkitu dugu korrelaziorik estuena, ahalmen sozializatzailerik handiena, horrela pentsatzen duten ikasleen familietan, beraien lagun taldean eta joaten diren eskolan. Horren ondorioz, ETAren ekintzak legitimatzen dituzten ikasleen taldean, nor bere baitara biltzen da norberaren erreferentziazko mundu endogamiko eta eraginezin batean; mundu horretan ezin dute eraginik izan ez zalantzak, ez beraiek aldeztutako arrazoibideen kontrako arrazoibideek ere. Ikasle horiek aparteko mundua-edo osatzen dute, gizarte paralelo bat: gizarte hori beste gauza eta eremu batzuetan besteekin nahasten da, baina ETAren deslegitimazio etiko eta politikoaz hitz egiten denean, urrundu egiten da.

Bukatu baino lehen, ikastetxea aipatu beharra dago, lerro pare batean bederen. Egiaz, ETA legitimatzeari buruzko kasu horretan ere, familiaren eta lagun taldearen ondoren kokatzen den arren, balio garrantzitsua da oraindik ere. Familia, jakina denez, emana datorren datua da ikasle batengan; lagun taldea, mugatua eta aukeratua izaten da; ikastetxea, aukeratua izan daiteke ala ez eta, batez ere, homogeneoa edo ez hain homogeneoa izan daiteke. Ikastetxe bereko irakasle guztiek ez dute berdin pentsatzen. Horregatik, 1. multzoko ikasle batek bere ikastetxean “Badira ETAk jarduteko arrazoiak” askotan entzuten duela adierazteak ez du esan nahi, derrigorrez, ikastetxeak berak ETA legitimatzen duenik. Ziurrenik irakasle bat, bi edo irakasle talde txiki batez mintzatzen ari da, ez ikastetxeak ezarritako jarraibide batez.

III

# METODOLOGIA KUALITATIBOA: EZTABAIDA-TALDEAK

Balio-transmisioan parte hartzen duten hainbat eragileren iritziak eta iradokizunak ezagutze aldera, lau eztabaida-talde eratu ziren, horretan parte-hartze zuzena zuten pertsonekin: lehen taldea irakaslez osatuta zegoen; bigarren taldean aita-amak zeuden; hirugarren taldeak berritzegunetako zuzendariak eta teknikariak nahiz hezkuntzako ikuskariak hartzen zituen, eta azken talde batean zenbait ikastetxetako DBHko ikasle batzuek parte hartu zuten.

Irakasleen, aita-amen eta berritzeguneetako zuzendari-teknikarien nahiz hezkuntzako ikuskarien taldeak zuzentzeko, aldez aurretik lan-gidoi bat egin zen, bost gai nagusiren inguruan egituratua (ikus V. Eranskina); eta DBHko ikasleek osatzen zuten taldean, bestalde, VI. Eranskinean jasoriko lan-gidoia baliatu zen, lau gai kontuan hartuta: balioak egotea; kontrabalioak egotea; indarkeria erabiltzea; eta hainbat eragileren eragina haien belaunaldiaren pentsaeran eta jokabidean.

Gai horiek abiapuntutzat harturik, galdera batzuk egin ziren talde bakoitzean parte hartzen zuten pertsonek zer iritzi zuten jakite aldera. Ondoren, lau eztabaida-talde horietan parte hartu zuten eragileengandik jasotako baieztapen eta ondorio nagusiak ematen dira ezagutzera.

## 1. GIZARTEKOITZE-ERAGILEAK

Gizartekoitze-eragileei dagokienez, nahiz eta ikasle-taldean adiskideen eragina aipatu zuten, ia aho batez adierazten zuten, azkenean, familia aurretik jartzen zutela arlo horretan. Horretarako eman zuten argudioa da beharrezkoa dela laguntza sendoagoa, eta esperientzia gehiagokoa, izatea. Horrez gain, gogoeta orokor horri komunikabideen ekarpena gehitu zioten batzuek.

– *"Gurasoak dira nik uste, haiekin bizi zarelako, haiekin egoten zara beti, txikitatik, haiengandik entzuten dituzu gauzak, ikasten duzu. Haiengandik ateratzen duzu dakizun guztia. Ikastetxeaz gain, handik ere ateratzen dituzu-eta gauza batzuk."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Nire ustez, komunikabideak."* (Ikaslea -emak.-. Sare pribatua)

– *"Nire iritziz, ez dakit, adiskideak dira garrantzitsuenak, beharbada (...) Nik ere uste dut gurasoak direla garrantzitsuenak."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Nik ere uste dut gure adinean adiskideak asko hartzen direla kontuan, nahiz eta adiskideak betiko ez izan." (...) Adiskideek eragina izan dezakete, baina zu pasatzen ari zaren berbera pasatzen ari dira une berean, eta orduan, ba, ez... Haiek zure egoera berean daude, jasaten ari dira, zu bezala, eta, orduan, nik uste, adiskideek ezin dizute transmititu. Haiek nola dauden hezita transmititu ahal dizute, edo egoera baten aurrean zer izaera duten, baina ez dut uste askoz gehiago transmititu ahal dutenik, zu pasatzen ari zaren berbera pasatzen ari direlako. Nire iritziz, familiak irakasten dizu pixkanaka, jaiotzen zarenetik, baina komunikabideek eboluzionatu ahala, familiak aukera gutxiago ditu seme-alabei nahi dutena transmitititzeko, nik uste."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

Nolanahi ere, gero adierazi zuten ez zutela aita-amekin hitz egiten gai eztabaida-sortzaileei buruz (moda, messenger-a, bideo-jokoak, litroak egitea, drogak, eta abar), ondoren azaltzen diren arrazoiengatik, eta halako gaien inguruan adiskideekin gehiago bat zetozela adierazi zuten.

– *"Halako gaiei buruz ez da gurasoekin hitz egiten, normalean, zure aitari ez diozulako esango: 'Aizu, kuadrillarekin litroak egitera noa. Ziurrenik, mozkortuta agertuko naiz, baina besterik gabe, e?' Hau da, zuk ez diozu horrela hitz egingo aitari edo amari, hori adiskideei esango diezu, gehiago, eta are gutxiago irakasle bati. Hori ez zaio ia inori bururatzen. Halakoen gainean ez da familiarekin hitz egiten, adin batera iritsi arte; orduan esaten duzu: 'Ba, bai, honetaz hitz egin behar dut, beharrezkoa delako.' Baina, bestela, adiskideengana joaten zara, hurbilenak direlako, adinagatik eta pentsaeragatik."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Lotsagatik."* (Ikaslea -giz.-. Sare publikoa)

– *"Konfiantza-faltagatik."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Emango dizuten erantzunagatik. Izan ere, beharbada zuk gauza bat pentsatzen duzu, eta haiek, beste bat, eta orduan, adin jakin batean, haiexek agintzen dute."* (Ikaslea -giz.-. Sare publikoa)

– *"Gainera, esaten badiezu –zera, baliteke lotsa izatea–, baina nik 'banoa litroak egitera' esaten badiet, haiek esango didate, 'ba, ez'. Ez, badakizulako ez dela ona zuretzat. Eta, noski, arrazoia izango dute, baina halako gauzetan badakizu ez zaretela ados egongo."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Nolabait esatearren, haiek (gurasoek) zaindu eta babestu egiten zaituzte, eta zuk esaten badiezu egiteko asmoa duzunak haiek irakatsi nahi dizutenaren kontrako ondorioak izango dituela, erantzuna ezetz izango da, eta ez zaizu inondik inora gustatuko. Orduan, hori ez da aipatzen."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

Bereziki polemikoak eta gaur egungoak diren gaien aurrean, familian dagoen komunikazio-falta horretatik ondoriozta daiteke zer zailtasun gehigarria duten aita-amek balioak transmititzeko garaian.

Aipatu den azken eragozpen horri gehitzen zaio –hasierako diskurtsoan gazteek era arrazoitu batean familia balio-transmisioaren eragile nagusitzat hautatu eta gero– saioaren bukaeran horren aurkako mezu bat eman izana, lehen gogoetaren koherentzia zalantzan jartzen duena. Oraingoan, haien iritziak laburbiltzeko moduko erantzun bat bilatu denean, eztabaida-taldeak adostu zuen, oro har, adiskideak direla eragin handieneko eragilea, hurren jasotzen denez.

– *"Nire ustez, adiskideak batez ere, zeren, bai, nire gurasoek ere bizi izan dute dena delakoa, eta esperientzia handiagoa dute, baina gurasoek emango dizuten erantzuna, beharbada, ez zaizu hainbeste gustatuko, adiskide batek ematen dizunarekin konparatuta."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Nik ere uste dut adiskideak direla, haiekin egoten zarelako gehienbat, eta gero, beharbada, familia eta ikastetxea, ez dakit."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Nire ustez, familia eta adiskideak parean samar daude, eta gero ikastetxea eta komunikabideak datoz."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Nire iritziz, adiskideak daude aurrena, adinagatik, eta gero familia eta komunikabideak datoz, biak eragile handiak direlako. Komunikabideak oso zabalduta daude, gaur egun, eta, gero, azkenean, eskola dago, baduelako eragina, baina ez hain handia, nire ustez."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Adiskideek dute eraginik handiena, haiek ulertzen zaituztelako, gero familia eta ikastetxea datoz, eta, azkenean, komunikabideak."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Nire ustez, lehenak adiskideak daude, eta gero familia eta ikastetxea, eta, azkenik, komunikabideak."* (Ikaslea -emak.-. Sare pribatua)

– *"Adiskideak eta familia lehen tokian jarriko nituzke nik, eta gero eskola eta komunikabideak."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Nik adiskideak jarriko nituzke lehenak, adinagatik, eta gero eskola, agian –ez dakit gaiaren arabera–; gero, familia. Eta komunikabideek ez dute batere eraginik nigan, horiek diotena niri bost axola; nik modu batean pentsatzen dut, eta ez naute aldaraziko, eta familiak, ordea, bai, beharbada."* (Ikaslea -giz.-. Sare publikoa)

– *"Nik adiskideak jarriko nituzke lehenak, adinagatik, gero familia, gero eskola, han ere irakasten dizutelako, eta gero komunikabideak."* (Ikaslea -giz.-. Sare publikoa)

– *"Nik, adiskideak lehenik, adinagatik, eta norbaitek talde batean sartu nahi badu, gauzak egiten dituzulako sartzeko, eta maitatua sentitzeko, nahiz eta agian ez*

*gustatu egiten ari zarena. Gero, familia, eta ikastetxea ere bai, ikastetxean denbora asko ematen duzulako; beraz, nahi eta nahi ez, ikaskideek, irakasleek-eta badute eragina zugan. Eta komunikabideak azkenak; baina agian ez diezu hainbeste kasu egiten, eta familiari bai...”* (Ikaslea -emak.-. Sare pribatua)

– *“Nik adiskideak jartzen ditut lehenak, gero familia eta komunikabideak, nik uste dudalako eskolak baino apur bat eragin handiagoa dutela.”* (Ikaslea -emak.-. Sare pribatua)

Adierazpen horiek, hortaz, argudioaren sendotasunik eza uzten dute agerian, eta pentsarazten dute, lehen batean, argudio hori ez dela fidagarria. Hala ere, koherentziarik ez nabari hori gorabehera, eman zituzten azalpenak sakonago aztertzea erabaki genuen, gertatzen dena esplikatzeko moduko hipotesi bat osatze aldera.

Ildo horretan, arrazoizkoa da ondorioztatzea ezen gazteak gurasoen jakinduriaz eta esperientziaz ohartzen direla, haien baldintzarik gabeko laguntza denboran zehar izango dutela onartzen dutela, eta gurasoak haien hezkuntzaz eta ongizateaz kezka daitezen ulertzen. Baina argudio horiek berek familiaren barruko komunikazioa eragozten dute, ikasleek jakin badakitelako beren jokabideak arriskutsuak direla eta halakoak etxean aipatzeak nahi ez diren ondorioak sor ditzakeela; horrela, bada, bereziki kritikoak diren egoeren aurrean behar diren balioak sustatzea galarazirik geratzen da.

Horrenbestez, horren harira ausartzen gara esatera ezen, nahiz eta onartzen duten aurreko urteetan zehar familia barruan irakatsitako kode etikoa ezagutu, bederen, egiten dutela, orain kode hori desafiatzeko aukera bere egiten dutela beren kabuz, gurasoei ezer esan gabe, zigorrak saihestearren.

Hala ere, gazteen eboluzioaldi horren bereizgarri gisa, oraindik behar besteko autonomia eta heldutasuna ez dutenez, oraindik ere behar dute, garapen-prozesu horren barruan, berdinen talde batean laguntza jaso eta beren burua berretsi, haurtzarotik helduarorako trantsizioa errazago egiteko.

Gurasoekin partekatu nahi ez dituzten jarduera-mota horietan denbora gehiena ziur aski ematea, edo nerabeek halako jarduerak lehentasunezkotzat edukitzeko ideia –beren berdinengana, diotenez, duten kidetasun eta enpatiarekin batera– azalpen bat izan daitezke adiskideen eragina nagusitzeko beren gogoetak laburbildu behar izan dutenean.

– *“Eta adiskideena... bai, adiskideak garrantzitsuak dira, gurasoek gauza batzuk ulertzen ez dizkizutelako, eta haiek bai, haiek ere gauza berak bizi izan dituztelako.”* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

Pentsamendu-ildo beretik, gainerako taldeengandik (aita-amak, irakasleak, eta hezkuntzako teknikariak) jasotako iritziek ere noranzko horietantxe doazen desadostasunak uzten dute agerian. Hain zuzen ere, batzuek adiskideak lehen tokian jarrita hasten zuten diskurtsoa, eta zenbaitek, horiez gain, komunikabideak ere aipatzen zituzten.

– *"Nire ustez, adiskide-taldeak ere eragin handia du, halako adinetan taldeari uzten baitiote gida ditzan neurri handi batean. Hain zuzen, denek erretzen dutelako hasten dira erretzen, eta tribu jakin batzuekin bat egitea oso gustuko dute: 'ni hauetakoa edo besteetakoa naiz, ni modu honetara janzten naiz, ni beste honetara'. Nik uste dut dena oso lotuta dagoela."* (Ama. Sare publikoa)

– *"Bueno, denok ezagutuko bide dituzuen azterlan jakin batzuk kontuan hartuz gero, gazteen artean adin txikietatik, are haurtzarotik, balioak eratzeko erakunde gisa eskolak duen garrantzia pixkanaka murriztu izan da, gero eta txikiagoa da... Beste tresna batzuk ordezkatu dute eskola, eta familia ez da haietako bat, bitxia bada ere. Halakoak komunikabideak eta kanpoko gizarte eragileak –bai familiaz kanpokoak bai eskolaren erakundeaz kanpokoak– dira; hau da, adiskideak, kuadrillak eta, batez ere, azken garai hauetan teknologia berrien garrantzia nabarmenduko nuke nik: Interneten fenomenoa, eta abar."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

– *"Komunikabideen eta teknologia berrien inpaktua sekulakoa da. Hori bai, zerbait berria dela uste dut, eta une hauetan pisu handienetakoa dela haiena. Eta, gainera, beldurra ematen dit oso, hori kontrolatzea oso zaila delako, nik uste. Eta, beraz, pentsatzen dut oso, oso arrisku handiko elementua dela; niri hala iruditzen."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

– *"Nire ustez, eraginpean egoteari dagokionez, egia da ordu asko egoten direla* Playaren *aurrean, baina ez dakit zenbateraino den eraginkorra, ez dakit. Ez daki arriskutsua den ere, baina errealitate ukaezina da. Hor egoten dira, eraginpean, baina oso era sistematiko batean. Baina nahiko nuke, horren aurrean, eta era sistematikoan eta jakinaren gainean, familiak pisu handia izaten jarraitzea... lagunekin batera. Harritzen zait, orobat, garai jakin batean adiskideen argudioak eztabaidaezinak direla, ezta? Hor daude erreferentziazko, konfiantzazko, elementuak, eta talde horretan bai biltzen direla bi gauzak, nire ustez, informazioa eta bizipenak, alegia."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

– *"Ausartuko naiz esaten adin-tarte horretan oinarrizko gizartekoitze-faktore edo -eragilea adiskide-taldea dela. Baina guk ezagututakoarekin batere zerikusirik ez duen zentzu batean, komuna-zentzuan. Agidanez, oro har, adiskideek badute oso testuinguru sinboliko zabal batzuen eraikuntza-moduko baten ideia, eta ez da kuadrillaren kontzeptua existitzen. Badirudi hori hala dela, eta adin-tarte horretan horrek askoz ahalmen biziagoa duela, gainerako faktoreek baino."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

– *"Ba, begira, nik uste dut adiskideekin, kalearekin, astialdiarekin eta abarrekin dituzten harremanek dutela eraginik handiena gure lanean izaten ditugun gazteengan. Gero, bigarren, familiak eta, hirugarren, eskolak, eta gero, ba, gainerako guztiek."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

– *"Bueno, ba nik, egia esan, ikusi dut azken urteotan inguruan izan ditudan nerabeek egiaz berdinengandik jasotzen dituztela balio garrantzitsuenak, e? Eta uste dut oso*

*kontuan hartzen dituztela komunikabideak (Internet...).*" (Irakaslea -emak.-. Sare pribatua)

– "*Nik uste, horixe da errealitatea, ezta? Bueno, beren berdinekin hezten direla uste dut, gero komunikabideekin, eta azkenak gu gaudela, eta familia, ia parean. Hau da, errealitatea horixe da.*" (Irakaslea -giz.-. Sare pribatua)

– "*Haiengan, zerk du pisu gehien? Ba, hain zuzen ere, komunikabideek eta adiskideek. Era berean, nik uste, zerak ere eragina du, ikaslea nolakoa den. Ez da egokia orokortzea, nire ikuspuntutik. Uste dut desberdintasun handia dagoela ditugun bezeroen artean. Ez da gauza bera ikastetxea publikoa edo pribatua izatea, erlijioso edo ez izatea, alde jakin batekoa edo beste batekoa izatea... eta bezero horien arabera, daitekeena da komunikabideek eragin handiagoa izatea, edo, agian, zertxobait handiagoa familiak.*" (Irakaslea -emak.-. Sare publikoa)

– "*Eta komunikabideei eta adiskideei dagokienez, argi dago adin horietan eragin handikoa dela eta horixe dela, gehienbat, jarraitzen dioten eredua. Eta ikusten dut haien hitzean gehiago fidatzen direla edozein helduren hitzean baino.*" (Irakaslea -emak.-. Sare publikoa)

– "*Bai, nire iritziz, eragina da adiskideena, komunikabideena –baina beraien artean komunikatzeko bideena–, gero gurasoenak izan beharko luke, baina ezin dute edo ez dute nahi, eta ikastetxearekin gauza bera gertatzen da: esku hartzen dugu uzten diguten eta ahal dugun neurriraino.*" (Irakaslea -giz.-. Sare publikoa)

– "*Edozer jasotzeko gai dira, eta dena barneratuko dute gure jarreren eta eginen ereduaren bidez, ez gure esanen bidez. (...) Komunikabideak oso garrantzitsuak dira, oso eragin handikoak dira, nire ustez. Neska-mutilek ordu asko ematen dituzte telebistaren edo ordenagailuaren aurrean, eta hori ere barneratzen dute, eta horren aurrean bakoitza bere modukoa da, batzuk manipulatzen errazagoak izaten dira, beste batzuk ez hainbeste, baina eragina ez da ona, ez horixe. Hain zuzen, nik arratsaldeko ordutegietan ikusten ditudan programa batzuk ez dira batere hezigarriak adingabeentzat.*" (Aita. Sare pribatua)

Hala ere, hezkuntzako beste teknikari batzuek eta guraso-taldeko beste batzuek familia proposatzen dute faktore nagusitzat balioen transmisioan:

– "*Nire iritziz, hasieran esan dizuedanez, familia da gizartekoitze-eragilerik behinena. Familia funtsezkoa da balioak transmititzean, jakina.*" (Hezkuntzako teknikaria -emak.-)

– "*Nire ustez, familiak badu oraindik oso garrantzi handia balio sakonen aldetik, nahiz eta hala ez dirudien. Hau da, identitate-prozesuarekin lotura handia duten balioen aldetik. (...) Hartara, nik esango nuke familiak nahiko pisu handia duela sakoneko gauzetan, nahiz eta ikasleek asko jotzen duten kuadrillara, hiri-tribuetara, dagoeneko etika bat den estetikara..., baina nik uste dut ez direla jaiotzen 13 edo 15 urte*

*dituztenean, baizik eta une horretara iristen direla aurretik familiak, irakasleak, inguruneak egindako balioztapen batzuekin, eta horiek direla, hain zuzen, beren heldu-identitatea eraikitzeko baliatuko dituzten piezak.”* (Hezkuntzako teknikaria -emak.-)

– *“Guztiak du eragina, nire iritziz, eta une jakin batzuetan, beharbada, daitekeena da batek beste batek baino eragin handiagoa izatea. Baina nik uste dut familia betierekoa dela.”* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

Bakoitzaren ustez gaur egun gazteengan zer eragile duen eraginik handiena gorabehera, eztabaida-talde guztiak bat datoz ardura hori funtsean familia dagokiolako ideiarekin, eta bereizi egiten dute, beraz, zer den eta zerk izan beharko lukeen.

– *“Adibidez, baliteke orain ikaskide kontrolaezin bat edukitzea, astun bat, gelan egoten ez dakiena. Zuk diozu, ‘A ze txaplata!’, baina egiaz ez da haren errua. Nire ustez, familiak ere izan behar du hor eragina. Zera... ezin zaiola ikaskide horri errua bota: familiak du eragina pertsonarengan.”* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *“Gure ustez gurasoek esku hartu behar dugu”* (Aita. Sare publikoa)

– *“Nire ustez, heziketa-denbora horretan guztian zehar, balioak transmititzea posible den denbora horretan, hain zuzen, ardura nagusia familiari dagokio. Eta nik, egia esan, uste dut gainerako eragileak neurri batean, behintzat, aukeratzea badagoela, hau da, nik ikastetxe bat aukeratu dut (...). Komunikabideekin gauza bera gertatzen da (...) hor ere ardura nirea da. Adiskideen aldetik, ba, ere bai (...), horren inguruan ere uste dut ardura nagusia familiari dagokiola.”* (Ama. Sare pribatua)

– *“Nire ustez ere, familiaren ingurukoa oso garrantzitsua da, funtsezkoa ia beti. (...) Batzuetan, lan egin, bederatzietan etxera joan, eta zertan zaude? Umearekin ordenagailuan? Telebistan zer ikus dezakeen? Gauza gehiago egin behar dira, ezin zaitezkeelako gainean egon 24 orduak. Orduan, hor ere dago koska.”* (Ama. Sare publikoa)

– *“Etxean zutaz arduratzen direla sentitzea funtsezkoa da gero nork bere buruarengan konfiantza izateko. (...) Horrenbestez, familia funtsezkoa da, nik uste.”* (Hezkuntzako teknikaria -emak.-)

– *“Eta izan behar duenari dagokionez, nik uste dut balio nagusiak familiarengandik jaso behar direla, balioak transmititzeko ardurari dagokionez, eta, orobat, familiak aukeratzen duelako non bizi, zer ikastetxetan ikasi, eta hor dagoeneko hasia delako balio batzuetarantz orientatzen; eta gero eskolarengandik ere bai, herritarrak hezteko ardura duen erakunde bat den aldetik. Hortaz, izan behar lukeenari dagokionez, familiak izan beharko luke eragile nagusia, eta gero eskolak, gizarte-erakundea den aldetik.”* (Irakaslea -giz.-. Sare pribatua)

– *“Nik uste dut familia oso garrantzitsua dela, izan ere.”* (Irakaslea -emak.-. Sare pribatua)

– *"Nire iritziz, komunikabide horiek oso gauza garrantzitsuak transmiti ditzakete, baina irudipena dut orain kontrol handirik gabe erabiltzen dituztela. Eta, horri dagokionez, funtsean familiak egin beharko luke kontrol edo jarraipen txiki bat, ea neska-mutilek zer ikusten duten."* (Irakaslea -emak.-. Sare pribatua)

– *"Nola izan beharko lukeen? Hori beste kontu bat da. Nire ikuspuntutik, lehena familiak izan beharko luke, baina orain familia absente dago. Hau da, maizenekoa 'giltzadun haurrak' aurkitzea da. Halako haurrak dira 12 urterekin ikasgelara giltzatakoa ekartzen dutenak, eta gero, lau eta erdietan, etxera doazenak eta bakarrik egoten direnak bederatzi eta erdi arte, inor ez delako etxean agertzen. Eta leiho guztiak zabalik izaten dituzte messenger-ez edo dela delakoa baliatuz komunikatzeko; izan ere, gainera, atera ere ez dira kalera ateratzen. Horrenbestez, ia ez dute harremanik 3D (dimentsioak) pertsonekin 2D izakiekin baizik, eta horretan datza arazoa. Eta gero gu, eskolan; niri ez dit arazorik sortzen balioak transmititzeak. Esan nahi dut ni solidarioa, antimilitarista eta abar sentitzen naizela, eta ikasgelan esan behar badut, esan egiten dudala. Eta ni eredu banaiz haientzat –eta halaxe izaten naiz–, ba, ederto. Ez zait batere axola esatea 'ni nagusitan bera bezalakoa izan nahi dut', eta ondo ere iruditzen zait (kar-kar). (...) Hau da, horrela izan beharko luke: familia, eskola, komunikabideak, adiskideak. Baina bestelakoa da benetan gertatzen dena, eta ez du zerikusirik. (...) Nire ustez, erakundeak (familia, eliza, eskola, unibertsitatea) nahikoa krisi handian daude, eta, gainera, gaur egun gauzak oso abiadura azkarrean aldatzen dira. Balioen arazoa da oso azkar zaharkitzen direla, eta ez direla betiko indarrean egoten. Eta lehengo transmisio-bideek ez dute funtzionatzen..."* (Irakaslea -giz.-. Sare pribatua)

– *"Nik uste dut lehen esan dudana falta dugula une honetan. Hau da, familiaren ardura-utziera gertatzen ari da. Helduari, familiari, askoz errazagoa zaio nerabeak kontatzen duena sinetsi eta ontzat ematea, ez baitzaio interesatzen ez ahalegintzea ez engaiatzea. Eta azken hori ez da gertatzen, denborarik ez dutelako, interesik ez dutelako edo zer egin ez dakitelako. (...) Nik uste dut denok izan beharko genukeela, zeren, zergatik ez komunikabideak ere bai? Bakarrik ea ados jartzen garen nolako gizartea, nolako gizakia, nahi dugun. Hartara, denok izan beharko genuke, agian, baina era adostuxeago batean. (...) Nire iritziz, gertatu den beste gauza bat izan da, halaber, aurreko belaunaldietan bizi izan diren egoerengatik, orain dena onartzen dugula, eta beste muturrera joan garela. Orduan, zer gertatzen da? Gure seme-alabek, gau egungo ikasleek, alegia, esaten dutela: 'norbaitek esan diezadala noraino irits naitekeen eta, hortik pasatzen banaiz, zer ondorio egongo diren niretzat'."* (Irakaslea -emak.-. Sare publikoa).

Kolektibo batean baino gehiagotan, gainera, esaten dute haurtzaroa dela familiagunean balioak sustatzeko adinik egokiena.

– *"Horrek haurtzaroko adinetan gertatu behar du, beste adin hauetara iristen garenean kontua zerago... delako. Adin horietan eragina gainbeheran hasten da, denbora luzea ematen dute ikastetxean, taldeetan, kiroletan egoten dira, neska-mutil batzuk ezagutzen dituzte, gero beste batzuk, eta orduan adiskideak aukeratzen*

*hasten dira. Eta gurasoek, orduan, 'kontuz han, kontuz hemen' esan behar diete, baina haiexek aukeratuko dute."* (Aita. Sare pribatua)

– *"...beraz, pentsatu behar da funtsezko pieza horiek azpian egon behar dutela, hor egoteko, eta berreraiki ahal izateko. Beraz, ezin da esan 13 urtetik 15 urtera bitartean, ez dira adin horrekin jaiotzen. Oso garrantzitsua da azpian dagoena; aldez aurretiko balioak eduki beharra dago."* (Hezkuntzako teknikaria -emak.-)

Balioen transmisioan familiak dituen gabezia horien ondorioz, hezkuntzaren arloan gabezia horiek berdintzeko ardura hartzen dute, etsita batzuek eta atseginez beste batzuek. Hala ere, horren aurrean duten jarrera gorabehera, nabarmendu egiten da zeregin hori –zuzenean haiei egokitzen zaiela uste duten zeregin hori, hain zuzen– behar bezala aurrera eramateko eskumenik eta baliabiderik ez dagoela.

– *"Baina nik uste dut, edo irudipena dut, orain familian badagoela huts egiten ari den zerbait. Lehen –ez dakit hala inposatuta ala ohituraz ala hala onartuta–, balioak familian transmititzen ziren. Ikuste dut, orain, ikasleekin ditudan harremanengatik, oro har nahiko galdurik etortzen direla, ez dituztela ideiak argi, eta lehen bai, ordea. Eta, orduan, uste dut gure ikastetxean, esate baterako, irakasleak balioak sustatzeko ahalegin horretan irmo aritzen garela. Izan ere, ikusten dugu lehen familian finkaturik edo etxean ikasirik zekarten zerbait zela, eta orain hori askoz neurri txikiagoan gertatzen dela. Horrela, ohartzen naiz ikasleek badutela interesa arlo akademikotik ateratzen den gairen bati heltzen diozunean, interesez begiratzen dute, baina beharrez ere bai. Alegia, azken urteetan ikusi egin dut (bihurrienetik hasita zereraino... guztietaraino) galduta bezala aurkitzen direla, eta zerbait –ez dakit balioak deitu edo nola– transmititzeko beharra dutela, ziurtasuna emango dien eta bizitzan nondik nora joaten jakitea ahalbidetuko dien zerbait. Eta, gero, uste dut baietz, arreta jartzen dutela adiskideengan, baina, nik uste, horrek ez die guztiz balio, baizik eta gauza batzuetarako bakarrik. Ohartzen naiz nola lehen jakintzat ematen ziren eguneroko bizitzako gauza nabari batzuk (errespetua, elkartasuna…), eta orain, berriz, gehiago errepikatu, nabarmendu, behar diren. Noski, eta ez dut gaizki hartzen, eta engaiatu egiten zara. Baina, bestalde, uste dut oso ardura handia dela guretzat, eta beharbada horretarako prestatuta ere ez gaudela, baina eskolak ematen dizkiozun nerabeek eskatu egiten dizutela nolabait. Eta badirudi ezagueren transmisioa bigarren mailan geratzen ari dela, nolabait esatearren, eta balioen transmisioari lehentasun handixeagoa eman behar diogula. Borroka horretan ari gara, gero eta tutoretza gehiago, gero eta bilera gehiago gurasoekin... Horra hor nire sentipena. Ez dakit, beharbada luzeegi hitz egin dut... (...) Hori bakoitzaren ezaugarrien araberakoa baita; izan ere, lehen 'ixo eta kito' esaten zen, besterik gabe, baina orain, lehen ere esan dudanez, irakasle eta ikasle bakoitza bere modukoa da. Eta planteatu behar duzu 'Zer egin behar dut honekin? Nola hurbilduko natzaio?' Eta lana pilatu egiten zaizu."* (Irakaslea -emak.-. Sare pribatua)

– *"Eta hori da falta dena, eta badator lotuta, neurri batean, familien jokabide orokorrari. Nire irudipena da, une hauetan, gurasoek 'funtzioen utziera' egiten dutela. Ez dakit hori gertatzen den lanean ordu asko eman behar, eta neska-mutilekin egoteko*

*astirik ez dutelako, baina haiekin daudenean, nik uste, gehienbat gauza materialak ematen dizkietela, baina ez dakit zenbateraino ematen edo transmititzen diren balioak edo behar dituzten bestelako alderdi batzuk. Bestalde, uste dut gu, orain, puntu zail samar batean gaudela; izan ere, batetik, gizarteak gauza asko eskatzen dizkigu, eta halakoak egin behar ditugu, teorian, eta zenbaitetan ia gurasoena egin dezagula eskatzen digute, eta hori ez da gure eginkizuna."* (Irakaslea -emak.-. Sare pribatua)

- *"Eta iruditzen zait horren transmisio-bidea izan behar dudala. Hezkuntzan bokazioz aritzen naiz, eta nik uste dut hauxe egin behar dela: balioak transmititzea. Eta baldin etxean horiek ez badituzte –zeren batzuetan harrituta geratzen zara itzuri egiten zaielako 'aita' zuri deitzea–, ez dakit, iruditzen zait geuk egin behar dugu hori, eta batere lotsarik gabe, gainera. (...) Hori bai, ez diezagutela eska, gero, eskolan superheroiak izateko."* (Irakaslea -giz.-. Sare pribatua)

- *"Batez ere, nik uste dut baietz, egia dela nire txera eta arreta eskatzen dutela etengabe. Hartara, une honetan gurasoen betekizunak sortzen du kezka gehien, zeren ni haiei (ikasleak) laguntzen saiatzen naiz, baina askotan haiei erantzuna emateko gai ez naizela sentitzen dut, ez dakit nola egin. Orduan, dagokidan zeregina betetzen ari naiz? Ni laguntzen saiatzen naiz, besterik ez, baina hor behar bat duzu, 'nola egingo dut?' eta 'nola...?', alegia, horra hor egoera."* (Irakaslea -emak.-. Sare publikoa)

- *"Nire iritziz, familiak, kanpoko arrazoi batzuk direla medio (laneko ordutegiak, bizi-estiloak, eta abar, eta abar) gero eta neurri handiagoan utzi ditu besteren esku hezteko eginkizunak, zehazki, edo eskolaren erakundearen esku edo familiak berak ulertzen ez dituen beste eragile batzuen esku, ezta? Horri dagokionez, niri pena handia ematen dit, baina nik esan ohi dut familiek neska-mutilen heziketa bertan behera utzi dutela (nahita edo nahi gabe, bizi-estiloak hala beharturik edo ez), alderdi guztietan, balio-heziketaren alderdia barne."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

- *"Eskolari dagokionez, balioetan heztea asko saiatuta ere, ez dakit gero asmatzen dugun ala ez, ezer lortzen dugun irakasten den edukiaz harago. Ez dakit, erakundean berez dagoen zailtasun bat da, nire ustez."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

Aita-amek alderdi honetan loturarik ez dutela (guraso horiek etxean duten presentzia eskasa nahiz gazteek ikastetxeetan ematen dituzten ordu ugariak direla kausa) eta eginkizunak, ondorioz, irakasleen esku utzi egin direla ikusita, bi taldeek azpimarratu zuten beharrezkoa zela lotura sendoak sortzea, osoko heziketa-lan arrakastatsua bermatze aldera.

- *"Txikia zarenean, zure eragin-eremua zeure familia da, aita-amek esaten dizkizutelako gauza gehienak, eta zuk hor oinarri on edo txar batzuk ezar ditzakezu nerabe egin bitartean, eta eskolan ere bai noski, zuk zeregin hori partekatzen duzulako. Orduan, ikastetxekoaren kontra ez zoazen neurrian, ba, zuzentasunez hezten ariko zara, edo zu bide batetik bazoaz eta ikastetxea beste bide horretatik...; horregatik uste dut oso garrantzitsua dela asko hitz egitea ikastetxearekin, jakiteko zer helburu*

*dituzten han, horiek zeure egite aldera, gu baikara helburuak bete nahi dituzten lehenak."* (Ama. Sare pribatua)

– *"Nire iritziz, seme edo alaba bat etxean hezi behar da lehenik eta behin. Ikastetxean elkarrekin ere, eskuz esku, lor daitezke gauza batzuk."* (Ama. Sare publikoa)

– *"...eta ikastetxeei, gehiago, nik gehiago eskatzen diet... Nire ustez, ikastetxeak ez dira hezten saiatzen ari, eskoletako irakasgaiez gain, eta, aitzitik, gauzei pixka bat ez ikusiarena egiten ari dira. Balioen arloan, nire susmoa da hori galdu egin dela"* (Ama. Sare publikoa)

– *"Baldin familia eta eskola egiaz lankidetzan aritzen badira, bat egiten badute, balio-heziketan elkar osatzen badute, nik uste dut gauza asko erdiets daitezkeela."* (Hezkuntzako teknikaria -emak.-)

– *"Uste dut denbora gutxi izaten dugula, baina familia badela oraindik, informazioaz harago, bizimoduak, jokabideak, lantzen diren eremua, eta niri iruditzen zait halakoak ez direla neurri berean lortzen balioei buruzko beste informazio-iturri batzuetan. Nahiko nuke familiak pisu handiagoa izango balu, berriz erdietsiko balu, esate baterako, futbol-entrenatzailearengan duten konfiantza bera. Harrigarria iruditzen zait irudi hori erreferentzia-puntu, babes-elementu, bihurtzea, ia aita edo ama baino gehiago, eta gustatuko litzaidake familiak, gurasoek denbora gehiago edukiz gero, eginkizun hori berreskuratuko balu. Eta, jakina, asko gustatuko litzaidake eskola balitz iturri garrantzitsu eta sistematiko bat, taldean, indartsua, oso eragin handia izatea lortzeko. Izan ere, nire ustez, konfiantzazko, erreferentziazko, laguntzazko, eta abarrezko elementuak izateko gaitasun hori galdu egin dugu. Bueno, hitz bitan, oraindik ez dakit zeinek duen eraginik handiena ere. Kasu bakoitzaren arabera. Alderdi batzuetan, informatu baino ez dira egiten, eta beste alderdi batzuetan apur bat denbora gehiago dago gauzak bizitzeko. Nik uste dut balioak horrela ikasten direla, eta nahiago nuke eskola balitz."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

– *"Norbaitek nolabait esku hartzea lortzen badu, ederto, eta aita-amekin batera lortzen badugu, zer esanik ez. Hala ere, nik uste dut etsai gisa ikusten gaituztela batzuetan, eta, horri dagokionez, tratua ez dago parekaturik. Eta, nire ikuspuntutik, zaila da haiekin hitz egitea, zu aita ez zarela esaten dizutelako, eta iritzia eman ahal izateko aita izan behar duzula, eta niri iritzia emateko gaitasuna ukatzen didate."* (Irakaslea -giz.-. Sare pribatua)

– *"Eta, jakina, ni ere bat nator zuekin familiak aspaldi etsi zuela eta familia irakasleekin ados jartzea ezinezkoa dela esatean."* (Irakaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Nire ustez, familiak eta eskolak funtsezkoak izan behar dute."* (Hezkuntzako teknikaria -emak.-).

Batzuek, areago, planteatu zuten ezen, beharbada, eragileek transmititzen dituzten balioen arteko koherentziarik ezak bultzatzen dituela ikasleak kanpoko eragileetan, adiskideen

artean, bilatzera eguneroko zereginetan babestuak sentitzeko behar dituzten egonkortasuna eta sendotasuna.

– *"Eten hori oso handi egiten denean, eskolak transmititzen dituen balioak, kanpokoekin bat ez etortzeaz gain, zenbaitetan elkarrengandik oso urrun daude eta kontraesandunak dira. Eta, orduan, zer geratzen zaigu? Aipatu duzun azken hori, berdinen taldea, kuadrillak, beren berdinekin gizarte arloko eragin-trukea izatea. Baina, noski, eragin-truke hori ere ez da kutsurik gabea, aldez aurretik lehenagoko guztiak eragina izan duelako, eta hura baldintzatu."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

– *"...eta, bestalde, badago nolabaiteko banantze bat (ez dago elkargunerik) gurasoen eta ikastetxearen artean, eta neska-mutilak, 'nahaste-borraste' horren erdian, oso galduta egoten dira batzuetan, ez dakite zeri kasu egin. Horregatik bilatzen dute hain neurri handian laguntza berdinen artean eta kanpokoan, nik uste. Niri hala iruditzen zait."* (Irakaslea -emak.-. Sare pribatua)

## 2. BALIOAK

Gazteen artean nagusi diren balioei dagokienez, haiek adiskidetasunaren garrantzia nabarmendu zuten, lehengo atalean islatu denez. Nahiz eta eztabaidan zehar "gizartekoitzeeragile" eta "balio" kontzeptuak bereizi gabe erabili diren, abiapuntutzat dugun premisa da ezen, gazteengan eraginkortasunez eragin ahal izateko, transmisio-bide horrek, era berean, haiek ezbairik gabe onartzen duten balio bat izan behar duela. Eta horrela jasorik gera dadin, ondoren azaltzen dugu adiskidetasuna berariaz baliotzat aipatzen duen baieztapen bat, hain zuzen ere, aurreko ideian, adiskidetasuna eragiletzat aipatzen duten elkarrizketatik ateratako baieztapen bat.

– *"Nik, ba, adiskidetasunaren balioak."* (Ikaslea -emak.-. Sare pribatua)

Horrez gain, eta adiskidetasunari kontrajarrita, ikasleak bat etorri ziren gainerako pertsonengana gaur egun dagoen errespetu-falta, bai irakasleenganako bai norberaren familiarenganako begirunerik eza nabarmendurik.

– *"Ba, familiaren balioak pixka bat gainbeheran daude, zeren, ez dakit... Orain gurasoenganako errespetu gutxi dagoelako (nik ia beti izaten dut begirunea), eta ingurumena ez da inondik inora errespetatzen... (...) Irakasleei dagokienez, gelan batzuetan ez, baina ez dakit..."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Nire ustez, ez dakit, agian adiskideak dira garrantzitsuena... Gero irakasleei, beharbada, gelak apur bat halakoak direlako, baina nik uste dut ez dagoela batere errespeturik, eta familian ere ez dago errespetu handirik, nire iritziz.(...) Beharbada, erantzutean, bai, ez duzu hitz egiten errespetua zor diozun pertsona bati, irakasten ari zaizun pertsona bati, hitz egin beharreko moduan. Ba, ez, erantzuten diozu zera nahiko bazenu bezala..., irakaslea konfiantzaz tratatu ahalko bazenu bezala, baina*

*eskoletan zaudenean eskoletan zaude, eta gauzak bereizten jakin beharra dago."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

- *"Eta uste dut errespetua, oro har, helduenganako eta beste pertsona batzuenganako errespetua zera dagoela, ez dagoela oso... Zeren gurasoei, edo irakasleei, edo nagusiei, edo direna direlakoei lehen zitzaien errespetua galtzen ari da, nik uste."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

- *"Eta, bai familian bai ikasgeletan, errespetua oso txikia da; irakasleen arabera, ere bai. Eta gero, e…, familia, nire iritziz, behar baino gutxiago balioesten da; adiskidetasuna gehiago balioesten da, familia baino."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

- *"Nik uste dut ez direla aspaldi bezala errespetatzen helduak, ez eta zaharrak ere; eta irakasleak, ere ez. Familian ere ez da begirunerik egoten, eta ikaskideekin, egoera zein den..."* (Ikaslea -emak.-. Sare pribatua)

- *"Nik, ba, adiskidetasunaren balioak, bai, hori, eta gero, irakasleekin, bakoitzaren arabera."* (Ikaslea -emak.-. Sare pribatua)

- *"Eta irakasleei, gehienetan, ez zaie begirunerik izaten. (...) Eta familia, familia errespetatzen dugun baino gehiago errespetatu behar da, haiek direlako etorkizunean lagunduko diguten bakarrak, eta haiek direlako ondoan izango ditugun bakarrak haien beharra dugunean."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

- *"Nire ustez, errespetu gutxi dago, jende helduarentzat zein helduak ez direnentzat. Hau da, ez dago ez gurasoenganako, ez helduenganako ez adiskideenganako errespeturik; bueno, adiskideenganako errespetua, bai."* (Ikaslea -giz.-. Sare publikoa)

- *"Ba, nik uste dut, gainerakoenganako errespetu-faltari dagokionez, haiek biek diotena gertatzen dela, eta gelan sozialki nola zauden banatuta ere bai. Hau da, 'primerako'en artean bazaude, arraroa izango da zuri zerbait gutxiesgarria esatea, baina, bestela, esan egingo dizute, nahiz eta zuk isiltzeko esan. Gero, irakasleen kontua izaten da –beste gela batzuetatik kontatzen dizutela eta– iristen zaizun famaren arabera."* (Ikaslea -emak.-. Sare pribatua)

Hezkuntzako teknikariek ere planteamendu hori aldeztu zuten. Hala, bada, familiek jasaten duten tratu desegokia nabarmendu zuten, irakasleek izaten duten tratuaren aldean.

- *"Eskolak ematen uzten digute oraindik, eta haiek zazpi orduz jasaten dute ematen diogun alamena. Eta jasan egiten dute. Gauden gizarte honetan, gogoak ematen dietena esaten dute etxean, eta ikasgelan ez dute, gehienek, nahi dutena esaten. Nire iritziz, irakaslearenganako errespetua haiekin dugun eragin-trukearen araberakoa izango da. (...) Izan ere, niri iruditzen zait eskolan dagoen gatazka oso txikia dela, egon litekeenerako. Zeren kalean, zuk zeuk esan duzu, esaiozu norbaiti kalean papera lurrera ez botatzeko, eta bidaltzen dizu zerera..., eta ez da txantxa, ez da*

*txantxa. Esan nahi dut kalean oldarkortasun-egoera eskolan baino askoz handiagoa dela."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

Ikasleek jokabide hori justifikatu zuten, irakasleei zegokienez berariaz, irakasleei berei egotzirik ez dakitela beren burua errespetarazten. Ikasleen ikuspegitik, irakasle batzuek ez dute behar bezalako estrategiarik gela menderatzeko. Horrez gain, aditzera eman zuten, *a priori* pentsa daitekeenaren kontrara, heziketa-estilo hurbilen eta dinamikoenak direla egokitasun gutxienekoak psikopedagogiaren aldetiko helburu bat arrakastaz erdiesteko.

– *"Baina errespetu gutxi dago zeren, ez dakit. Hau da, irakasle bat aurkezten dizuten lehen egunean ikusten baduzu irakasle horrek ez dizula isiltzeko esaten, gainerakoetan ere ez zara isilduko. Eta antzera gertatzen da guztiarekin, gutxi gorabehera: isiltzeko edo ariketa bat egiteko esatea berdin da, ariketa ez baduzu egiten eta ezer esaten ez badizu, ba, orduan, biharamunean ere ez duzu egingo, hark ez dizulako ezer esango. Hori gertatzen da, ba."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Ez, gure jarrera da gehiago, haiena baino"* (Ikaslea -emak.-. Sare pribatua)

– *"Beharbada, haien irakasleak hain atseginak izan ez zirenez, orain gurekin adeitsuagoak izan nahi dute, baina gu pasatu egiten gara. Hortaz, hainbeste gauza egiten uzten digutenez, esku bat eman eta bi hartu-edo gertatzen da."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Zurekin gelan nola jokatzen duten eta nolako serioak diren ere kontuan hartzekoa da. Izan ere, irakasgaiak aldatzen direnean, gelan irakasle bat sartzen da eta denok isildu eta esertzen gara, eta, beharbada, beste batzuk sartu eta bost minutu ematen dituzte "ixo, isil zaiteztela" esaten, eta ez die inork kasurik egiten. (...) Zeren, irakasleen artean, batzuk irakasgaia irakastera eta serioago egotera joaten dira, eta beste batzuk didaktikoagoak-edo dira, eta jendea gehiago ausartzen da, eta ez da isiltzen."* (Ikaslea -emak.-. Sare pribatua)

– *"…askotan, gainera, nahiz eta begirunea galdu, ez dizute ezer esaten. Nire gelan, esate baterako, bat sartzen bada adarra jotzen hasten zaizkio, beste bat sartuz gero, aldiz, –oso serioa denez eta zerbait esaten baduzu errieta egiten dizunez– ba, denok isildu egiten gara."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Ba, nik uste dut berak esan duen bezala gertatzen dela irakasleen kontuan, batzuekin konfiantza handia dugulako eta beste batzuei, ordea, beldur handia diegulako."* (Ikaslea -giz.-. Sare publikoa)

– *"Eta irakasleak, ba, hutsaren hurrengotzat hartzen dira, zeren batzuk txantxetan bezala hartzen ditugu, hau da, haietaz paso egiten dugu erabat, eta beste batzuekin badirudi hor gaudela geldi-geldi, beldurrak airean. Eta, nire ustez, berdin errespetatu behar dira batzuk eta besteak."* (Ikaslea -giz.-. Sare publikoa)

– *"Beheragoko ikasmaila batean zaudenean, jendeak esaten dizu 'a, bai, ba horrekin gogoak ematen dizuna egin dezakezu, ez dizulako ezer esaten'. Orduan, noski, zu maila horretara igaro, eta gauza bera egiten duzu.* (Ikaslea -emak.-)

Behin eztabaida-talde guztietan bilduriko ekarpenak aztertu eta gero, hainbat faktoreren eraginaren ondoriozko emaitza logiko gisa interpreta daiteke ikasleen jokabide hori.

Batetik, ikasleek berek igartzen dute irakasleek beldurra erabiltzen dutela ikastetxean autoritatea lortzeko gaur egungo bidetzat. Antza denez, emozio horretaz baliatzeak indarrean jarraitzen du gaur egun ere hezkuntza-arloan. Eta, beharbada, irakasleek tresna hori egokitzat jotzen dutelako, edo, beharbada, lehen aipatu dutenez, ezaguera eta baliabide egokiagoak eskuratzeko beharra dutelako, irakasleek prozedura hori erabiltzen jarraitzen dute gelako egoera nolabait menderatzeko bide eraginkor gisa.

– *"Nire gelan, bueno, bigarrenean geundenean, behin gure irakasle bat ez dakit zer hasi zitzaien deitzen lesbianak ziren nire bi laguni, oihuka, gelaren erdian..."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Baina irakasle batek ezin du hori esan, eta are gutxiago zure gelakide guztien aurrean. Gero, zuk antzeko zerbait esaten baduzu, sekulako istilua sortzen da, sortu ere... Nire iritziz, ezin dute hori egin, ez zuk ez haiek, ez horixe"* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Nire kasuan, adibidez, bai. Batzuetan hutsegitea izan daiteke edo ez, baina irakaslea zutaz barre egin dezake."* (Ikaslea -giz.-. Sare publikoa)

– *"Duela gutxi irakasle batek iraindu egin gintuen: 'pertsona gaiztoak, desatseginak eta analfabeto funtzionalak'."* (Ikaslea -giz.-. Sare publikoa)

– *"Baina, esaterako, gure ikastetxean, bigarrenean geundenean, esaten zizuten irakasleak barregarri uzten zintuela beti eskoletan, zerbait ongi egiten ez bazenuen. Orduan, noski, orain guk, gelan sartzen denean, denok isilik egoten gara, eta ez dugu arbelera atera nahi, barregarri utziko ote gaituen beldur."* (Ikaslea -emak.-. Sare pribatua)

Gazteenen pentsamendu-ildoa argitu nahian eman diren adibide grafiko horiek bat datoz hezkuntzaren arloko profesionalek adierazitako teoriarekin. Azken horiek nabarmendu zuten nagusitasun (irakasleak)-mendekotasun (ikasleak) balioak gorde egin direla gaur egun ere hezkuntza-sisteman; horrela, berretsi egin dituzte –nahiz eta ez hain modu zehatz eta lotsagabean– ikasleek emandako adibideak.

– *"Dena dela, nire ustez badago gauza garrantzitsu bat, alegia, gure ikasleei nagusitasun-mendekotasun eskema ikaragarriak transmititzen ari garela. Eta hori bai iruditzen zaidala larria. Larria iruditzen zait eskema horietantxe, hain zuzen, hezi baikaituzte gu ere. Guk ez dugu esplizituki esaten, baina gero eguneroko jardunean eta abarretan eramaten dugu aurrera, honela jarraitzen baitugu: batek agindu (irakas-*

*leaz ari da) eta besteak bete egiten du (ikasleez ari da), sistema izugarria delako. Eta ikaragarriena da jende bikain bat saiatu egiten dela eta gauzak egiten dituela, eta beste jende batek 'nik agindu-zuk bete' erabiltzen jarraitzen duela. Eta hori da gure neska eta mutilei ematen ari gatzaizkien eredua. Hain zuzen, denok hezten dugu balioetan: matematika irakasten dituenak, eta abarrek... Garrantzitsuena da nola ezartzen ditugun ikasleekiko harremanak eta nola komunikatzen ditugun balioak haiekin izaten dugun eragin-trukean."* (Hezkuntzako teknikaria -emak.-)

Horrez gain, faktore horiei gehitu behar zaizkie irakasle-taldeak berak bere kolektiboan bertan atzematen zuen motibaziorik eza eta haren ondoriozko engaiamendu urria.

- *"Eta irakasle batzuk 'totalak' dira. Batzuk bizibidea ateratzera baino ez doaz, eta, erne!, gurasoentzako orduan ikastetxetik atera banaiteke –'nik gurasorik ez dut eta'–, ba, alde egiten dut; esaten badidate geratu behar dudala ordu laurden bat koordinazio bat egiteko, ez, laurak eta laurdenetan bukatu egin dut, e? Metodologia bat aldatzeko esaten badidate, ez, zergatik nik, nire gai-zerrenda bukatu behar badut? Gure artean, beraz, lanbide guztietan egoten dena dago: badago asko arduratzen den jendea, eta badago hori egiten ez duena. Eta halakoak asko dira. Bai, bai... Eta nik ikusi dudanez, halako asko dira garai batean oso motibaturik zeuden pertsonetakoak. Hemen adin batekoak baino gehiagokoak gaude, baina ni ordezkoa nintzen garaian ikastetxera joaten nintzen gure lana egin behar genuela eta materiala bilatu behar genuela pentsatuz, eta azkenaldian ezagutzen ari naizen ordezkoak argi asko dute zer eskubide dituzten, eta halakoak, zoritxarrez, asko dira."* (Irakaslea -emak.-. Sare publikoa)

- *"Ni ados nago ahalegin txikienaren gai horretan, baina kontua da hori gertatzen dela ikusten dutena ikusten dutelako: irakasle batzuek horrelaxe jokatzen dutela, alegia. Horrenbestez, zer autoritate dugu guk? Eta gero, zerak, liburuak. Zer irakurketa-indize dugu? Zeren gehien irakurtzen dena* Marca *da. Orduan, zergatik gertatzen da hori guztia? Gizarteak horixe egiten duelako."* (Irakaslea -giz.-. Sare publikoa)

Kontuan izan den beste elementua izan da 'eredugarritasun'ak garatzeko eta egokitzeko tresna gisa duen eragina. Ezagutza eta jokabidezko teknika hori ordezko ikaskuntzan oinarritzen da, eta erreferentzia-puntutzat edo jarraitu beharreko eredutzat hartzen diren pertsonei ikusitako jokabideak antzeratzean datza. Horrenbestez, ez da harritzekoa, baldin hezkuntzazko lanetan oso engaiaturik ez dauden arduradunen jokabideei jarraitzen badiete, gazteek pixkanaka ikusten dituztenen antzeko jarrerak har ditzaten, parte-hartzaileek aditzera ematen zutenez.

- *"Aita erretzaile badute, ziurrenik erre egingo dute, edo gurasoek duten edozein jarrerarekin, gauza bera."* (Aita. Sare pribatua)

- *"...mundu guztiak hezten du balioetan, gustatu zein ez, baietz esan zein ezetz esan. Eta niri iruditzen zait zeharo garrantzitsua den zerbait dela; argi gera dadila, hemen hezten du zirkulazioko udaltzainak, dendariak, supermerkatuko kutxazainak, aitak, amak, apaizak, eta esamesen telesaioakoak. (...) Nik uste dut gizarte-ereduak ere*

*gizartekoitze-eragileak direla: X kantaria, txirrindularia eta atera eta edozer astakeria esaten dituzten famatuak, eta nolako jokabidea duten.... Ba isil zaitez, aizu! Eta hitz egiten duzunean fundamentuzko zerbait esan, mitotzat zaituzten neska-mutilak adi-adi dituzu eta (...). Beraz, denok hezten dugu balioetan, matematika irakasten dituenak, eta abarrek... Garrantzitsuena da nola ezartzen ditugun ikasleekiko harremanak eta nola komunikatzen ditugun balioak haiekin izaten dugun eragin-trukean."* (Hezkuntzako teknikaria -emak.-)

– *"Adingabeen artean dauden balioak, nik uste, helduen artean dauden balioetatik oso hurbil daude. Hau da, nik pentsatzen dut berebiziko gizarte-hipokresia dagoela. Esate baterako, denak daude, teorian, etorkinak gizarteratzearen alde, baina nire seme edo alabarekin, aukeran, hobeto ez; eta haiek horixe ikusten dute. (... ) Ni ados nago berarekin, balioak dira gizarteak, zure inguruneak, ezartzen dizkizutenak."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

– *"Eta, gainera, politikariek errespetuaz hitz egiten dute, eta gero ikusten dugu ez dagoela batere errespeturik; elkarri irainka aritzen dira, eta ez dago ezta errespeturik ere."* (Ikaslea -giz.-. Sare publikoa)

– *"Hainbesteko boterea duen pertsona batek (erregearen kasuan) isiltzeko agintzea ere hain biltzar garrantzitsuan, eta, gainera, zuzenean... Manerak zaindu behar dira, itzal handiko pertsona bat zarelako. Eta ez da adibide bakarra, baina jendeak ikusi egiten du, eta pertsona horiengan jartzen du arreta. Eta, gero, haien artean, errespetua izan beharra dagoela esaten ari zaizkizun pertsonen artean, eta gero haiek ez dute horrela egiten."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Nire ikuspegitik, gauza bat da gai batzuei buruz hitz egitea (sexua, drogak, indarkeria) eta beste bat da zure bizi-aukeren bitartez transmititzen duzuna, e!. Nik uste dut familia guztiok transmititzen ditugula oinarrizko balioak, oro har, adiskideek baino are gehiago, kontua da orain nerabeez ari garela; baina, bizi zaren tokitik abiatuta, hain zuzen, egiten dituzu gauzak. Noski, zeren, nola hezten duzu balioetan? Seme-alabekin baldin bazoaz txikiteora, ba, hori balioetan heztea da, eta zure jarduerak mendia joatekoak baldin badira, ba, ere bai. Zure bizitzan hartzen dituzun aukerek hezten dute egiaz balioetan. Eta gero egunen batean sexuaz edo beste gai batzuei buruz hitz egitea badago. (...) Nire ustez, irakasle eta gurasook erreferentzia-puntuak gara gazteen balioei dagokienez, eta etxean gu bizi ditugun balio errealak, kontsumoaren arloan, kontsumitzeko eta gastatzeko dugun eran, agenda 21en kontuan, eta gero ni neure 4 X 4 ibilgailuan joaten naiz aitite bisitatzera… Horiexek dira helduen –gurasoen nahiz irakasleen– jarrerak, eta haiek bizi ditugunez, gehien hezten dutenak dira. Nire iradokizuna, beraz, horren ingurukoa da. Hain zuzen, zuk balioak aldatu nahi badituzu, edo helduok ere haiek bizi ditugu, bai etxean bai ikastetxean (eredu izatea) edo, bestela, guk egiaz bizi duguna transmititzen jarraituko dugu. Eta gero, jarduera zehatzak egin behar dira; asko egiten dira ekologiari buruz, bakeari buruz, elkartasunari buruz, eta orain liburu erabili solidarioaren azokaren erdian gaude, hain zuzen; liburuak salerosi egiten ditugu, eta lortzen den diruarekin*

*Boliviako gure ikastetxe bati lagunduko diogu, baliabiderik ez du eta. Baina, nik uste, halako gertaerak une jakin batzuei lotuegi dagozkie; urtero egiten ditugu, eta ikasleek prozesu osoa bizi izaten dute (2 urte dituztenetik 18 bete bitartean, eta horiek urte asko dira). Baina, dena dela, une jakin batzuetako ekintzak ez dira balioak ezartzen dituzten jarreretarako hezten dutenak. Nik, benetan, gutxiago sinesten dut une jakin bateko ekintzetan, eguneroko balioen transmisioan baino, helduen esperientzian oinarriturik betiere. Eta orduan, gazteak balioetan hezi nahi dituzu? Ba, zeuk ere bizi itzazu."* (Irakaslea -giz.-. Sare pribatua)

– *"Ez da justifikatzeagatik, baina, ez da izango, neurri batean, bederen, irakasleok gaur egun daukagun, bizi dugun, errealitateagatik?"* (Irakaslea -emak.-. Sare pribatua)

– *"Bueno, nik argi dut transmititzen ditugun balioak direla bakoitzak daukaguna, eta egunero egiten ditugunak. Neska-mutilek benetan jartzen dute arreta gure jokabidean, eta ez bakarrik gelan esaten dugunean. Eta, bueno, azken batean horixe da, ahal duzun eta dakizun bezain ondo jarduten saiatzen zara, eta neska-mutil batzuekin hobeto moldatzen zara, beste batzuekin baino. Eta gero, une jakin bateko ekintzetan, ba, beharbada jarduera horiekin lortzen da ikasleren bati begiak irekitzea, esan ohi dudanez, eta bejondeiola, eta merezi izan du zerbait antolatzea, nahiz eta bakar horrentzat baino ez izan. Baina, egiaz, egunerokoak balio du."* (Irakaslea -emak.-. Sare pribatua)

– *"Baina, nire iritziz, kontzientziazioak zerikusi handia du guk sinesten dugunarekin eta ereduaren bidez erakusten dugunarekin. (...) Egia esan, telebistan ikusten duten guztia da diru-piloa ahalegin handirik egin gabe irabaztea. Hain zuzen, gaur egun edonor da famatua, eta horixe ikusten dute telebistan eguneko 24 orduetan."* (Irakaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"...ba, nik uste dut koska dela zuk ikasleekin portatzen zaren modua. Zer eskatzen diezun eta zer eskatzen diozun zeure buruari. Nik baldin badiot neska edo mutil batek autonomia, elkartasuna, taldean lan egiteko gaitasuna eta abar izan behar dituela, ba, begira, gu aurten ikasbidaia huts batean planteatu dugu hori. Gaur egun arte txartelen, polboroien eta halakoen bidez antolatu izan dugu. Ba, hutsetik hasi behar dugu, eta hau planteatuko diegu: bidaia zuena da, hasieratik bukaeraraino landu behar duzue. Beraz, antolatzea, taldeak, zuzendariari idaztea, telebistara telefonoz deitzea, Interneten sartzea eta hegaldi merkeak bilatzea, hau da, den-dena zuen gain hartu behar duzue, bidaia zuena delako. Gainera, guri ez digute ordaintzen zuekin joateagatik, curriculumetik kanpoko zerbait da. Hartara, hemen jende guztiak lan egin behar du; normalean gehienik neskek laguntzen dute eta nahasten dira, baina, orain, aldiz, den-denok parte hartu behar duzue. Hain gauza sinple horrek balio die. Eta orain Hezkuntzatik esan diezadatela ez dakit zer balioz hitz egin behar dudala eta tutoretzako eskola batean ez dakit norekin bat egin behar dudala, egoera hipotetikoak planteatzeko fitxa bat ekarri dizutela. Iruditzen zait haiek antzerki-lantxo baten moduan ikusten dutela. Horrenbestez, hori bideratzea eta egunez egun, eguneroko jardunean, ahal dena egitea, besterik ez."* (Irakaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Ni ados nago ahalegin txikienaren gai horretan, baina kontua da hori gertatzen dela ikusten dutena ikusten dutelako, irakasle batzuek horrela jokatzen dutela, alegia. Horrenbestez, zer autoritate dugu guk? Eta gero, zerak, liburuak, Zer irakurketa-indize dugu? Zeren gehien irakurtzen dena Marca da. Orduan, zergatik gertatzen da hori guztia? Gizarteak horixe egiten duelako."* (Irakaslea -giz.-. Sare publikoa)

Azkenik, eztabaida-taldeko parte-hartzaile batzuek pentsatzen zuten gazteek batere bete-beharrik gabeko eskubide-sistema baten arabera jokatzen dutela.

Berriro ere, zalantzarik gabe erantzukizuna hezitzaileei (adierarik zabalenean) egozten zieten, lehen ere egotzitakoa berretsirik. Horrela, gaitzetsi egiten diete gehiegizko gainbabesa, amore-ematea eta gazteen jokabideen justifikazioa, mugak ez ezartzeaz gain, horren ondorioa portaera antisozialak agertzea delako.

– *"Izan ere, paradoxikoki, gu gara gurasoek funtsezko bi balio horiek (errespetua, ardura) irakatsitako belaunaldikoak. Gu ez gara era berean transmititzen ari."* (Aita. Sare publikoa)

– *"Orain pentsatzen dut ardurarik handiena familiarena dela. Ezin da atzera begiratu, eta esan 'ez, ez, mutil, probokatu egin zaituzte eta', nik aita eta ama askori entzuten diedan bezala, seme-alabak desenkusatzearren esanez, 'hain zuzen, halakorekin elkartzen ez bada, ez da ezer gertatzen'. Justifikatzen ari dira, ba. Gero, biharko egunean, heldua denean gehiegikeriaren bat egiten badu, ez, ez, kontua da txikitatik justifikatzen ari direla. Nire iritziz, horri dagokionez, familian ez da arduraz hezten. (...) Bai, baina isiltzen bagara arazorik ez izateko, ba, horrela gabiltza, ez da atarramenturik. (...) Ba nik uste dut funtsezko kontua errespetuan datzala, lehen ere esan dugunez. Errespetu-faltan eta ardura-faltan, gurasoek seme-alabak azken horretatik salbuesten dituzte eta. Adibidez, gure ikastetxean DBHkoak astebetez joan ziren kanpora, eta arazoak izan ziren. Gero, guraso batzuek, beren umeak nahasita zeudela jakinda, gertatutakoa desenkusatu egin zuten, esanez: 'Bueno, eta nork ez du halakorik egin lehenago, adin horretan?' Hara besteak! Eta hurrengo ikasturtekoentzako ondorioak izan zituen horrek, ez zutelako izan aukerarik ongi pasatzera kanpora joateko, bai eta gela berekoentzat ere, itzuli behar izan zutelako."* (Ama. Sare publikoa)

– *"Orduan, ni gizarteko kide naizenez eta nire baliorik behinena (hona gentozela pentsatzen ari nintzen) errespetua denez, hau da oso erraz lantzeko moduko zerbait, nik uste dut hasieratik horrek gainerakora daramala. Ingurumena errespetatzea, nork bere burua errespetatzea eta, gero, ondokoa errespetatzea. Orduan, nik uste dut gizarteak hezi egin behar duela. Nagusienganako errespetua ere bai, oso gauza polita zen eta, orain galdu egin dena. Zeren hori ez bada irakasten, ahulagoarenganako errespetua, alegia, indartsuak ahula txikituko du. Hau da, errespetua, azken batean, hainbeste gauzatarako da lagungarria... Eta errespetuari esker iristen zara adiskidetasunera eta justiziara. Bai, zeren beldur gara gogorregiak, diktadoreak, ote garen, baina, benetan, mugak jarri beharra dago, horrek traumarik ekarri gabe ez haurrari ez gurasoari. Garrantzitsua da gauzak argi eta garbi utzi, eta esan 'begira, hona*

*nire iritzia, hauxe egin behar da nire ustez, eta nagusia zarenean, zeuk erabakiko duzu'. (...) Jakina, nik uste dut bertsio guztiak entzun behar direla. Nik ez dut uste hasieratik seme-alaben alde egin behar denik, zoragarriak eta munduko hoberenak direlako."* (Ama. Sare pribatua)

– *"Hori bi ahoko ezpata da eta. Batetik, haurra gainbabesten duzu haren eskubideekin, eta, bestetik, hezitzaileari eskuak lotzen dizkiozu, batzuetan denek, denek atea blindatuta dutenean."* (Aita. Sare pribatua)

– *"Ardura eman behar zaie. Nire ikuspegitik, garrantzitsuena da haurra pertsona arduratsua izatea. Funtsezkoa da nire umea arduratsua izan dadin, nik hala pentsatzen dut. Zuek, ez dakit. Nik ardura eskatzen dut oroz gainetik, zeren, arduratsuak baldin badira, bizitzan egin nahi duten horretarako libre direlako, bestela, ez dira inoiz izango. Eta arduratsu bihurrarazteko, etxean, aldiz, esne-mamitan izaten ditugu, notak gainditzekotan eta etxeko lanak egitekotan, eta orain irakasleek dioskute gela txukuntzeko, gauzak egiteko esan behar diegula, eta egia da, gero. Erosketak egitera joan daitezela, ardura har dezatela. (...) Nik ikusten dut garaiak izugarri aldatu direla nik ikasten nuenetik hona. Gogoratzen naiz irakasle batek errieta egiten zidanean, eta ni gainera lotsatuta joaten nintzen etxera, eta gainera belarrondokoa ematen zidaten. Eta orain, berriz, irakasle batek haur bat ukituz gero, harenak egin du. Mutur batetik bestera pasatu gara. Gurasoak gara, eta autoritate gehixeago izan beharra dago."* (Ama. Sare publikoa)

– *"Nik, esaterako, aipatu duzun adibide horretan, ez diot mutilari errua botatzen txanda-pasa egin nahi izateagatik. Nik errua amore eman eta hori egiten uzten dioten emakumeei botatzen diet. Ez zait ongi iruditzen txanda-pasa egin nahi izatea, baina noiz edo noiz mutila saiatuko da. Galarazi zeuk."* (Ama. Sare publikoa)

– *"...hezkuntzako Administrazioaren barruko beste elementu bat da ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko dekretu berria. Nire ustez, aukera ona da familiei, eta ikasleei berei, saltzen saiatzeko, ez zigortzeko zirkulazio-kode gisa, ez baita hori, baizik eta gastronomia-elkarte bateko estatutuen erara, e? Hau da, orain aldatu egin dutenez, abagunea da orain arte dekretu horrek izan dituen konnotazio guztiak aldatzeko." (...) Nik uste dut eskolak, erakunde gisa, baduela abantaila bat, baita hezkuntzako profesionalek ere. Hau da, balioak eraikitzen ('transmititzen' ez esatearren) laguntzen duten edo hori ahalbidetzen duten eragile horien artean, arlo horretan duen eginkizunaren jakitun den bat baldin badago, eskola da hura. Nik oso argi dut hori. Eta hori badu bere alde, gogoeta bat, plangintza bat, egiten ari delako."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

– *"Eta, bestalde, nik uste dut benetan gertatzen ari dela, oro har, ematen dizkiegun askatasunen eta arduren aldetik eskatzen diegunaren kontu hori. Nire ikuspuntutik, eskubide amaiezinak dituzte, baina horrekin batera ez dago arduren inguruko irtenbide orekaturik. Haiengan eskubideak erabiltzeko gaitasuna sortzen da, baina gero ez dituzte beren gain hartzen dagozkien ardurak. Badirudi ume egin nahi dutela."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

- *"...eta aspertuta gaude 'adiskide' diren gurasoekin. Gurasoa guraso izan dadila, eta baldin seme edo alabari zerbaitez erantzuki egin behar badio, halaxe egin dezala; bestela, ez errespeturik, ez ahaleginik, ez piperrik..."* (Irakaslea -giz.-. Sare pribatua)

- *"Dena dela, bitxia da, zeren haiexen artean, galdetzen baldin badiezu 'eta egoera horretan, zer egingo zenuke zuk?' '¿Nik? Bueno, nik neure semeari muturreko batzuk eman, eta ez dit diru gehiagorik gastatzen ikasketetan, e! Lanean jarriko nuke...' Alegia, funtsean, guztiz kontrakoa da. Errieta egin behar denean errieta egiteko eskatzen dute haiek, benetan zerbait esateko. Horixe eskatzen dute."* (Irakaslea -emak.-. Sare publikoa)

Ardurarik ez egote horren ondorioz, orain arte aipatu diren elementuez gain, gero eta errespetu eta engaiamendu gutxiagoko gizarte batean gaude sartuta, hemen ordezkatu diren kolektiboen pertzepzioaren arabera.

Gainera, konnotazio negatiboak omen dituzten beste balio batzuk ere gehitzen dizkiote egoera horri. Hona hemen parte-hartzaileek gehien nabarmendu zituzten balioak: indibidualismoa; ekonomia; ahaleginik eta jarraitutasunik eza; "hemen eta orain" ardaztzat izatea; eta frustrazioarekiko intolerantzia.

- *"Badakizu zer gertatzen den? Balio kolektiboak beherantz doazela, eta balio indibidualak, aldiz, gorantz. Lehen gizarteak kolektibotasunean hezten zuen. Nik orain ikusten dut indibidualtasunean hezten duela, ez kolektiboan. Hau da, lehenik gizabanakoa dago, eta gero harremanak-eta ezartzen ditu, baina NIK eskubide asko ditut. Bueno, ni eskolara nindoan eta, ez horixe, ez nuen ezta eskubide bat ere. Orain, berriz, haiek ez; haiek horrela ikusten dute banakako eskubideen inguruko arma asko eman dizkiegulako. Balio kolektiboak falta dira, nire ustez, eta horrek kezkatu egiten nau. Eta orain, horretaz konturatu naizenetik, baliteke aldatzen saiatzea."* (Ama. Sare pribatua)

- *"Nik uste, ez daude boladan eskola-jardueraren berezko balioak ez daude boladan. Azaldu egingo dut: heziketa-prozesua, lehenik eta behin, prozesu luzea da, denboran zehar garatzen dena. Zalantzarik gabe, pazientzia, jarraitutasuna ez daude boladan gaur egun. Hau da, zerbait nahi baldin badut, oraintxe nahi dut, eta ez naiz itxaroteko gai. (...) Ba, horixe esaten ari naiz, horixe, kontraesanean dagoela heziketa-prozesuaren berezko balioekin: jarraitutasuna, pazientzia, arrakasta balioestea norberaren ahaleginaren eta lanaren ondorio gisa, bestearekiko eta haren banakako desberdintasunekiko errespetua. Eta ez arrakasta merkea, txiriparen edo amarruaren emaitza dena, horixe baitago, hain zuzen, boladan gaur egun. Jakina, horixe ikusten dute, horixe, eta kontraesan nabaria dago. Beste gauza bat, elementu batengatik, nire ustez –kausak aztertzen hasi gabe–, adingabeei gainbabesa eman izan zaie, eta haiengan porrot egitearen eta frustrazioaren aurreko ikara itzela sortu da. Hartara, ezin zaie ezetz esan, ez dute ezetza onartzen. Hala, horiek guztiak heziketa-prozesuaren berezko balioak dira, eta ez dira aurkitzen: pazientzia izan behar duzu; ahalegindu behar duzu; lan egin behar duzu; kritikak onartu behar dituzu; frustrazio-maila jakin batzuk onartu behar dituzu zure usteak betetzen ez direnean.*

*Heziketa-prozesuari berez dagozkion balio horiek guztiak gaur egun gainbehera doaz. (...) Zergatik dago familia gero eta absenteago? Arrazoi ekonomikoengatik, jakina. Komunikabideak, komunikabideak ez dira neutroak, zerbaiten edo norbaiten zerbitzura daude, botere ekonomikoaren zerbitzura, funtsean. Eta botere ekonomiko horren interesen arabera, komunikabideek transmititzen dituzten balioak dira oso gizarte-mota zehatz bati dagozkionak, ez besteri. Gizarte hori gizarte indibidualista, kontsumo-gizartea eta gizarte globalizatua da, hain zuzen. Noski, baliabide ekonomikoek ere determinatzen dituzte gizarte-ingurunea eta bizikidetza-balio batzuk edo beste batzuk onartzea. (...) Eta gero, funtsezkoa iruditzen zaidan gauza bat: gaur egun 'elkartasun' hitza edozein unetan entzuten duzu –irratian, prentsan, telebistan, eta abarretan–, baina zertara mugatuta geratzen da elkartasuna? Hura ere kontsumoko produktu bat bihurtu da (eros ezazu elkartasunezko ez dakit zer gauza edo parte hartu ongintzazko galan..., egin zure ekarpena), eta elkartasuna dirua ordainduta betetzen da, hura ere erosten duzu. (...) Nire ustez, grazia handia du denon artean osatu dugun zerrenda horretan guztian bat atera ez izanak; hain zuzen balio hori funtsezkoa da helduen zein nerabeen munduan, are haurren munduan ere, eta izugarri mugiarazten ditu: dirua, alegia. Ikasgelan zaudela, nerabeekin hitz egiten duzunean-eta, diruari buruz izaten dituzten solasek harritu egiten naute ni. Hau da, kezka handia dute diruaren inguruan: zenbat duzu?, zenbat kostatu zaizu?, erosi behar dut ez dakit zer, irabazi nahi dut ez dakit zenbat. Hori oso esanguratsua iruditzen zait, eta jakin nahi nuke ea haiek balioen artean aipatzen duten"* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

– *"Beste gizartekoitze- eta eragin-elementu bat berreskuratu behar da, alegia, kalean galduz gero, laguntzen zigutenean izaten genuena, edo auzokideak laguntzen zizun, hurbilekoa, eskailera, auzoa... Izan ere, beste batzuetan gure diskurtsoan etengabe esaten dugu eskolan inguruko jendea behar dugula. Eta hura berez gertatzen zen. (...) Gauzak zaintzeko balioa galdu da, nik uste, baina batez ere pertsonak zaintzeko balioa."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

– *"Nire ustez, politikak eta ekonomiak badute eragin handia azkenean balio jakin batzuen transmisioan, eta balio horiek, gainera, telesaioen bidez jasotzen ari gara, ez dakit zeri buruzko telesaioen bidez, eta Interneteko jendearengandik, hori dagoeneko errealitate nabaria baita, eta oso kontuan izan behar dugu, oso kontuan, ezta? Orduan, hemen komunikabideei buruz hitz egin, hitz egiten dugu, baina zer ari dira transmititzen, funtsean? Zer ari dira hedatzen? Bueno, ba, nik uste dut hedatzen ari diren gauzak –iragarkiak, filmak, pertsona-ereduak, eta abar– gainetik dagoen zerbaitetan oso oinarriturik daudela, eta zerbait hori botere ukiezin bat dela, azkenean oso eragin handia duena mahai gainean jartzen ditugun balioetan, ezta? Eta hor ditugu interes politiko eta ekonomikoak."* (Hezkuntzako teknikaria -emak.-)

– *"...arduraren diskurtsoa zaharkituta egotea, orain ardura beste era batera bizi delako, era indibidualizatuago batean..."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

– *"Horri buruz, niri atentzioa ematen dit Batxilergoko ikasle nagusiak ez direla batere utopikoak, oso materialistak direla; ez dira batere iraultzaileak, aldarrikatzaileak, oso*

*kontserbadoreak dira. Oso balio tradizionalak dituzte, eta badirudi berriz ere ezer ez aldatzera itzultzen ari dela. Eta haiek ikusten ditut, errealitatea den bezalaxe dela pentsatzen dutela, eta galderarik ere ez dutela egiten (...). Baina hori gertatzen da, halaber, haiek dauden egoera, eta gu, oso erosoa delako. Ongizate materialagatik gozatzen dugu, eta hori deigarria zait, gizartea dinamikoa ez dela ikusten dudalako, aitzitik, ideiak –guztia– nolabait ez aurrera ez atzera daudela, geldituta." (...) Bai, baina esan nahi nuen batzuetan ikasleek badutela barneraturik gauzak ezin direla aldatu, haiek, haien bizitza dagoeneko noranzko jakin batean determinaturik dagoela."* (Irakaslea -giz.-. Sare pribatua)

– *"Lehengo egunean, afari batean irakasle asko geunden, eta batzuk unibertsitateko irakasleak ziren. Eta unibertsitatekoak beheragokoez kexatzen ziren, bai? Funtsean esaten zuten, edukiak haiek egunean jarri, jartzen zituztela, baina oroz gainetik irudimena falta zaiela. Dena eginda aurkitu dute, dena eman izan zaie, eta batez ere praktikoak dira. Zer sartzen da azterketan? Hori baino ez zaie axola, eta ez doaz aurrerago. Nire kasuan, nire irakaslerik hoberenak izan ziren esan zidatenak: 'Zer egin behar da? Molda zaitez. Eta horrela motibatu ninduten. Orain ez badiezu dena zehatz-mehatz azaltzen, ez duzu zer eginik. Noski, ildo horretan, beharbada edukiak edukiz gabetzen ari gara, gutxienera murrizten. Eta edukiak transmititzen dugun erak ere huts egiten du. Orain zerbait bilatzeko eskatzen diezu, eta, noski, zorioneko Google-ek ia dena ematen die, eta ez dira kezkatzen. Eta, bueno, aldatu, eta esaten diezu: 'Ba, orain liburutegira joango gara.' Eta, 'hara, liburuak, zer da hori? Ezin da klik egin, eta ez dago esteka bat.' Beraz, horrek irudimena itzaltzen die, hain informazio-pila handia eskura izanik. Eta, gainera, haiek ez badakite, dakienari galdetzen diote messenger-ez. Eta horrela funtzionatzen dute: batez ere praktikoak dira, eta irudimena, itzalita. Eta haien idatziak lauak dira, eta hori ere gertatzen da dena eginda dutelako, dena ikusmenaren bidez iristen zaielako, ezta? Eta hori guztiarekin gertatzen zaie. Liburu bat aukeratzeko esaten badiezu, '¿hau ala hau?' 'meheena', eta zeri buruzkoa den ere ez dakite."* (Irakaslea -giz.-. Sare pribatua)

– *"Nire iritziz, orain ez ahalegintzeko kultura barneratzen dute, indibidualismoaren kultura: ni neure egitekoetara, eta kito."* (Irakaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"...eta gero, nik asko entzuten diet esaten 'carpe diem, carpe diem.' Eta horrelaxe da, hain zuzen, hemen eta orain da."* (Irakaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Egia esan, telebistan ikusten duten guztia da diru-piloa ahalegin handirik egin gabe irabaztea. Hain zuzen, gaur egun edonor da famatua, eta horixe ikusten dute telebistan, eguneko 24 orduetan."* (Irakaslea -emak.-. Sare publikoa)

Hezkuntzako teknikariek osatu zuten eztabaida-taldean, ordea, egoera horren erantzukizuna beren gain hartu zuten, eta autokritika egin zuten gero eta zaharkituago dagoen hezkuntza-sistema bati zegokionez, non hobesten baita "azkartasuna, ontasuna baino".

– *"Eskola, betidanik, gizartearen balio tradizionalak transmititzeko eginkizuna izan du, hau da, dagoneko boladan ez dauden balioak, eskolako ateez kanpoko gainerako*

*munduarekin dagoeneko bat ez datozenak. Eta, gainera, nik uste, onartu egin behar da, –autokritika apur bat eginik– eskola kontserbadorea dela, balioen transmisioari dagokionez. Nahikoa kontserbadorea da. Askoz malgutasun gutxiago du garai berriei eta aldaketei egokitzeko."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

– *"Zein baliotan ari gara ikasleak hezten? Eta ez bakarrik eskolan –horretaz luze hitz egin baikenezake oraindik–, gizartean baizik: azkartasuna vs ontasuna, esate baterako, Ogasunari iruzur egitea, lanean ahal dena lapurtzea, lan egin eta baja hartzea, eta ez dakit, eginbeharretatik itzurtzea, errepidean aurreratzea, eta abar. Baina haurrek horixe bizitzen ari dira, eta, gainera, ez baduzu zeuk egiten 'tontolapikoa halakoa zara'. Beraz, nire iritziz, hutsune bat dago, hau da, arrakasta merkea da, hemen eta orain, zure hamar ospe-minutuak, baina, batez ere, kontua da oso zinikoak garela, zeren gauza bat dira elkartasuna, justizia eta ez dakit zer... eta oso bestelako gauza bat da gero egiten duguna."* (Hezkuntzako teknikaria -emak.-)

– *"...eskolan birrinduta daude, gero badago errespetu instituzional bat, baina, nire ustez, hori ez da errespetua, zeren, azkenean, irakasleok egiten dugu geure lana erakunde zaharkitu batean erakunde horrekin zerikusirik ez duten gazte batzuentzat. Eta, mirariz, jarraitu egiten du."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

Gurasoek ere berretsi zuten adierazpen hori.

– *"Nik xehetasun bat kontatuko dizuet. Udan Sopelara nindoan aitarekin, eta surfeko oholak zekartzaten mutil batzuk iritsi, eta zegoen ilara luzea zegoela ere, lehen-lehenak jarri ziren. Noski, eta gure aurrean zeuden hiruzpalau andreek, 18 urte inguruko mutilak zirela ikusita, ez zieten ezer esan. Eta aitak esan zuen: 'Baina, bueno, ezin diete esan andre horiek, gizabidez betiere, ilara errespetatzeko?' Eta inork ez zien ezer esaten. Baina aitak esan zien: 'Aizue, mutilak, ilaran jarri, edo itsu zaudeten eta ez duzue ikusten?' Eta haiek erantzun: "Azkarrak izan beharra dago. Eta orduan aitak esan: 'Ba, ez izan hain azkarra, eta bai gizabidetsua, eta jarri ilaran'. Gizabidea ez baita guri hainbeste irakatsi zigutena. Nik uste dut orain gauza gehiago barkatzen direla, nahiz eta irakasten ari gatzaizkien. Zeren galtzen ari da autobusean eserlekua andre zahar bati uztea, gauza asko galtzen ari dira, baina ez irakasten ez zaielako, ez da hala?"* (Ama. Sare publikoa)

Hala eta guztiz ere, kide guztiek ez datoz bat gazteen ikuspegi negatiboago horrekin. Batzuek, ondoren ikusiko dugunez, adinari egotzi zizkioten portaera horiek, gaur egungo gizarteari baino gehiago.

– *"Izan ere, adin horietan, gu nola portatzen ginen adin horretan? Esan nahi dut guk orain, heldu gisa, oso garrantzitsua den zerbait transmititzen ari garela, baina atzera begiratuz gero, adin horietan, ezarrita dagoenarekin haustea, agintzen dizutenaren aurka borrokatzea dela nerabezaroan eta nerabezaroaurrean egiten dena."* (Aita. Sare publikoa)

– *"Adinagatik izango da."* (Ama. Sare publikoa)

Dena dela, batzuek, kritikatu beharrean, ikasleen balio eta ezaugarri positibo batzuk nabarmendu zituzten, hala nola elkartasuna eta komunikatzeko eta aldarrikatzeko gaitasun handiago bat.

– *"Balioen artean, edo balio onen artean, nik uste dut neska-mutilek sormen handia dutela, bai eta komunikatzeko gaitasun handia ere. Iruditzen zait nik hitz egiten nuen baino askoz gehiago hitz egiten edo komunikatzen dutela haiek, erraztasun handiagoa dute. Nik uste, koherentzia asko aldarrikatzen dute, bai eta zoriontasuna ere."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

– *"Nik uste dut koherentzia garrantzitsua dela neska-mutilentzat. Garrantzitsua da koherentea izatea, eta, azkenean, errespetu horrek lotura handia du pertsona bat koherentea izan edo ez izatearekin. Eta neska-mutilek horri oso azkar igartzen diote, ezta? Eta hori oso interesgarria iruditzen zait. Eta gero, niri oso gai garrantzitsua iruditzen zait naturarekiko errespetua, eta, gure belaunaldian ez bezala, badirudi hori neska-mutilei interesatzen hasi zaiela, eta haien artean eragin handia izaten. Nik, batez ere, koherentzia nabarmenduko nuke, oso garrantzitsua delako, eta askatasuna ere bai, baina heldutasunari loturiko askatasuna."* (Hezkuntzako teknikaria -emak.-)

– *"Gazteen artean, nik uste, badaude lankidetza, elkartasuna, nolabaiteko errespetua. (...), baina nik uste dut oso gazteria positiboa dela. ( ...) Gazteengana itzultzearren, nik berriz diot ez datozela bat, adibidez, boluntariotza eta elkartegintza gaur egun historiako kopuru handienetan egotearekin. Nik ez dut sinesten lehen solidarioak ginela eta orain ez (...) Nire iritziz, neska-mutilek oso gauza politak egiten dituzte, eta ez zait egokia iruditzen positiboak diren balioak hasieratik ezarri, eta hortik abiatuta denak neurtzea. Nik uste dut hori oso jarrera dogmatikoa dela. Eta niri ez zaizkit gaizki iruditzen, adibidez, litroak egiten dituzten gazteak, jatorrak iruditzen zaizkit, eta eskaut ibiltzen direnak, ba, horiek ere bai. Eta ez dut ikusten ea zergatik guztiek gauza berak egin behar dituzten. Batzuk kirolen batean aritzen dira, eta beste batzuek 'hariguay' bat hartzen dute. Nik zer dakit, ba. Hau da, nire iritziz, zorrotzegiak gara gazteak neurtzeko moduan."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

– *"Eta orain ikusten ditut, eta miretsi egiten naiz. Niri gustatuko zitzaidakeen orain bezala hezi izan banininduten, orain haurrekin hitz egiten dela, haiek beren eskubideak aldarrikatzen dituztela. Nik ez nuen inoiz ezer aldarrikatu. Nik dena egiten nuen nire eginbeharra zelako. Nik ez dakit zuei, baina niri hori egokitu zitzaidan. Eta niri oraindik tokatu zitzaidan eskolan jotzen ninduten garaia, lezioa ez banekien. Nik orain haiek ikusi, eta miretsi egiten ditut, eta pixka bat bekaiztu ere egiten natzaie. Eta haiek zurekin hitz egiten dute, eta alaba txikiak gauzak esaten dizkit ia maila berean. Hau da, bera nirekin hitz egiteko eta pentsatzen eta sentitzen duena niri esateko adinako pertsona sentitzen da. Nik ez nuen inoiz halakorik bizi izan. Eta hori haiek orain duten balio bat da, nik uste. Gertatzen dena da, noski, orain duten askatasunarekin guk berehala esaten dugula 'bai, baina ez duzu betebeharrik', eta berehala alde txarra nabarmentzen dugula, eta 'bai, askatasuna baina betebeharrik gabe'. Eskubideak betebeharrik gabe. Baina nik usten dut gaur egungo gizartea, nik*

*izan nuenaren aldean, askoz aberasgarriagoa dela, eta askoz... Ume zoriontsuagoak dira, zentzu horretan, behintzat. Ni baino gehiago, nik dena derrigorrean egin behar nuelako, hitz egin eta pentsatzen duzuna esan ahal izateko lasaitasun hori gabe. Hori, oker egon bazaitezke ere, gaur egun egin daiteke, eta ni haurra nintzela, ordea, ez."* (Irakaslea -giz.-. Sare pribatua)

– *"Neska-mutilak horretarako ere praktikoagoak dira, teknologikoagoak, gu oraindik industria-aroan gaude."* (Irakaslea -giz.-. Sare pribatua)

– *"Eta arreta handia jartzen dute, halaber, zirrara sorrarazten duten gauzetan, ikusizko gauzetan."* (Irakaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Bai, ni pentsatzen ari nintzen... Gaur egungo gazteak ikus-kultura bat dute (ordenagailuak, irudiak)."* (Irakaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Orduan, eztabaida hau betiko gauza da: neska-mutilek, gazteek, ez dute balio positiborik, ez dakite zertan ari diren... beti gauza bera. Beharbada, hala jokatzen duten lauzpabost egongo dira, baina gero ehuneko handi bat, maila pertsonalean, oso jende onargarria da, eta balioak duten pertsonak dira, solidarioak direnak, gauzak ulertzen dituztenak, eta non dauden jakin badakitenak."* (Irakaslea -giz.-. Sare publikoa)

## 3. KONTRABALIOAK

Kontrabalioei dagokionez, nahikoa zabaldurik dago kontrabalio horiek gero eta indar gutxiago dutelako ideia, aurreko belaunaldiekin konparatuz gero.

– *"Nik lan egiten dudan zentroan etorkin asko dago duela urte batzuetatik, eta normalean ez dute integrazio-arazorik."* (Ama. Sare pribatua)

– *"Homosexualitateari buruz, nik gay den nire adineko bat ezagutzen dut, eta gurasoei, familia guztiari, kontatu behar izan zion, eta haren anaia zera da... homofoboa, hori, baina azkenean onartu behar izan du."* (Ikaslea -emak.-. Sare pribatua)

– *"Eta nik ez dut arazorik homosexualen aurka, niri berdin zait. Naizen bezalakoa naiz ni, eta lesbiana banintz, niri ez litzaidake gustatuko 'aizu, lesbiana zikina' inork esatea. Ba, gauza bera egingo dut nik besteekin."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Berak bezala pentsatzen dut. Ez dakit, baina nire gelan ez dira halako arazoak gertatzen, denetarik dagoen arren, arazorik ez. Dena ezin hobeto."* (Ikaslea -emak.-. Sare pribatua)

– *"Ba gure ikastetxean badaude mutil-taldeak eta neska-taldeak, eta denok elkarrekin jokatu behar baldin badugu, ba, denok elkarrekin jokatzen dugu, eta arazoren bat egonez gero, horri buruz eztabaidatzen da, ez baikaituzte zertan apartatu neskak izateagatik."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

- *“Dena dela, arrazismo eta xenofobiaren arazoaren inguruan, hemen bagaude oraindik zerbait egiteko garaiz. Nire ustez, hemen oraindik ez da agertu bere tamainarik handienean, ez da %5era iristen, beste erkidego batzuekin konparatuta. Eta gaur egun, gure ikastetxeetan ez dago arrazakeriazko jokabide nabarmenik, nik uste, baina susmoa dut hemendik urte batzuetara okerrera joan daitekeela.”* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

- *“Nik uste dut oso noizean behin gertatzen dela, eta oso kasu potoloak izaten direla, baina, oro har, lehen ere esan dudanez, oso gutxi dagoela. (...) Helduak baino gehiago? Ez dut uste. Nik neska-mutilak errumaniarrekin batera ikusten ditut, eta nire adiskideak, ez. Haiek elkarrekin askoz era malguago batean bizitzeko gai dira, gurekin konparatuta. Izan ere, helduek ez dituzte etorkinak kuadrillan integratzen.”* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

- *“Nik 20 urte daramatzat honetan, eta jarrera sexistak askoz gehiago gertatzen ziren duela urte batzuk, nik uste. Hain zuzen, gizarteak homosexual-bikoteenganako tolerantzian hezi izan du, bai eta lehen gaizki ikusita zeuden gauza askotan ere. Eta duela urte batzuk zituzten jarrerak eta entzuten zenituenak basatiak ziren, esate baterako, homosexualen aurka, eta are gehiago lesbianen aurka. Eta nik ez dut hori ikusten orain, eta adin berekoak dira. Nire iritziz, horretan bai egin dela aurrera, duela hamar urte baino ez zegoen egoerarekin konparatuta.”* (Irakaslea -giz.-. Sare pribatua)

Parte-hartzaileek berek egoera horri eman zioten azalpena izan zen gero eta gizarte heterogeneoago bat nagusitzen ari dela. Eta gazteen pentsaera irekiagoa eta aurreiritzi gutxiagokoa izateko arrazoi gisa eman zuten gazteak egoera berri horri normaltasunez egokitu izana.

- *“Gu gizarte homogeneoago bat izan gara, baina gaur egun… Horrexegatik nik uste dut gure seme-alabek naturaltasun handiagoz hartuko dutela. Haiek era zuzenago batean bizi dituzte gai horiek. Nire iloba batek Down-en sindromea du. Lehen horrelako pertsonak ezkutatu egiten ziren, baina ez dio horregatik eskolara joateari utziko, eta integraturik dago, nahiz eta sekula ezingo da puntu jakin bateraino iritsi, berak dituen mugak beste batzuenak baino handiagoak direlako. (...) Beraz, nik uste dut heldutasunaren aldi hori naturaltasun handiagoz bizi dutela. Emakumeok lan egitea edo immigrazioaren gaia naturaltasun handiagoz bizi dituzten bezala. Zeren gure etxera Ekuadorreko neska bat etorri izan da garbiketa egitera, eta komeni izan ez zaionean alde egin du, eta harreman horri eutsi egin diogu. Beraz, nik uste dut haiek errazago dutela, gizartea ez delako hain homogeneoa, beharbada geuk ditugu aurreiritzi gehiago.”* (Ama. Sare pribatua)

- *“Ezgaitasunen bat duten haurrak edo beste arraza batekoak integratzeari dagokionez, nik pentsatzen dut baietz, ohituago daudela guk bizi izan dugun baino aniztasun handiagoa ikustera..”* (Ama. Sare pribatua)

Hala ere, batzuen iritziz, gazteen artean oraindik atzematen dira, atzeman ere, kontrabalioei loturiko jarrerak eta portaerak, eta horren arrazoia haien ingurune hurbilenaren eraginari egotzi zioten.

– *"Ba, bai, noski, gizartearen isla da, kanpoan bizi izaten denaren isla."* (Irakaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Nire ustez, eragiten duen beste gauza bat da zer ingurunetan eta zer pertsonarekin mugitzen zaren; izan ere, nola gauden integratuta, zer jenderekin egoten garen eta elkarrizketan nola aritzen garen da kontua. Norbait familia hona ekartzen saiatzen ari dela dakizunean, galdetzea: 'Aizu, badituzu paperak dagoeneko?' Edo hizketan ari zarenean, pertsona hori pakistandarra dela badakizula, eta galdetzea: 'Zer moduz familia? Ongi?' Gure seme-alabek ikusten badute, noizean behin, jendearekin harreman naturalak dituzula, ez dute desberdin hautematen, ziurrenik zu bezala langileak direla ikusiko dute. Harremanak ezartzeko aukera badugu eta gure seme-alabek ikusten badute, nik diot haiek ez diotela azalaren koloreari erreparatzen."* (Ama. Sare publikoa)

Kontrabalio horien artean, bi nabarmentzen dira, nagusiki. Lehen kontrabalioa emakumeen aurkako bereizkeria da, eta hura azaltzeko oinarritu ziren gaur egun oraindik praktikatzen den matxismoan, batetik, eta emakumeek azken belaunaldian izan duten "atzerakada"n, bestetik.

– *"Bai, nik uste dut –nire gelan, bederen– bereizkeria eta arrazakeria handiak daudela, baina, batez ere, matxismoa. Adibidez, guk futbolean jokatu nahi badugu, iaz jantokiko irakasleekin hitz egin behar izaten genuen, ez zigutelako jokatzen uzten."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Esaterako, sexuen arteko berdintasunari dagokionez, niri iruditzen zait –eta ezer zehatzetan oinarritu ezin dudan sentsazioa da– atzeraka ari garela, aurreko belaunaldiarekin konparatuta. (...) Bai, emakumeek nolabaiteko atzerakada egin duten puntu bateraino iritsi gara, beharbada lasaitu egin direlako, aurreko belaunaldiaren aldean."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

Hala ere, eztabaida-taldean parte hartu zuten ikasle gehienek askoz diskurtso eguneratuago bat zuten, genero-berdintasuna beharrezkoa dela oinarritzat zuena.

– *"Gainera, duela gutxi jarri dute aitatasuneko baimena ere har dezakezula, eta hori ez zegoen lehen. Orain, esaterako, gure irakasle bat izan da lehena aitatasuneko baimena hartzen. Baina, bueno, emakumeak ardura gehiago hartzen ditu, zeren begiratzen baduzu nor joaten den seme-alaben bila, nork zaintzen dituen, nork eramaten dien ogitartekoa, hura ama da."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Nire ustez, hori gertatzen da ere haiei eman zizkieten balioengatik (aitei buruz ari dira), aita lanera eta ama etxean, horixe irakatsi zieten eta. Eta orain niri ederto iruditzen zait hori aldatzea, baina, noski, denbora beharko da. (...) Nik uste, aita berria da horretan, heziketa ematen eta halakoetan. (...) Horregatik pentsatzen dut aldaketa badela emakumearentzat, orain lan egiten baitu, baina gizonarentzat ere bai, orain hori (hezi) egin behar baitu."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Gure gurasoen belaunaldiari berak lehen esan duena irakatsi zioten: ama etxean umeak zaintzen eta garbitzen, eta aita lanera, sosak irabaztera. Nire ustez, seme-alabekin gehiago egoten dena –kezkatzen ez, ziurrenik biak berdin kezkatzen direlako–, baina seme-alaben ardura gehien hartzen duena eta alderdi gehienetan gehien laguntzen diena ama da, aitei ez dietelako horrela irakatsi. Orduan aitek hori egiten dute, horixe irakatsi zietelako txikitan."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Niri ongi iruditzen zait, zeren haiek lana izateko eta dirua etxeratzeko eskubidea badute, zergatik guk ez? Izan ere, batzuetan lanak zeure buruarekin hobeto sentitzen laguntzen dizu, ikusten duzulako bazarela norbait zeure kasa, autonomoa zarela. Nik uste dut hobea dela, zeren, adibidez, ez ezkontzea-eta erabakitzen baduzu, zeure kabuz bizi behar duzulako."* (Ikaslea -emak.-. Sare pribatua)

Berdinen artean harremanetan egotean gazte horiexek bizi eta ikusitakoek indartzen dituzte gazteenen iritzi horiek, ondoren deskribatzen dutenez.

– *"Nik uste, orain desberdintasuna oso txikia da; beharbada, lehen desberdintasun hori itzela zen, baina orain ez da hain handia."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Egoeraren arabera: mutila lotsatia bada, ba, neskak aurre egingo dio ardura horri, nolabait esateagatik; eta neska lotsatia bada, ba, orduan, mutilak aurre egingo dio."* (Ikaslea -giz.-. Sare publikoa)

– *"Elkarrekin ibiltzeko eskatu eta antzekoak, beharbada mutilek egiten dute gehiago, tradizioz-edo, baina ni ateratzen naizenean, neska gehiago ikusten dut mutilengana hurbiltzen, neskengana mutilak hurbiltzen baino. Biak gertatzen dira, bai, baina gero eta neska gehiago ikusten da, eta lehen ez zen inondik inora horrela."* (Ikaslea -emak.-. Sare pribatua)

Indarrean dagoen bigarren kontrabalio nagusia immigrazioaren ingurukoa da. Horri dagokionez, gazteek askatasunez aipatu zituzten populazio-mugimendu horren ondorioz haien ustez dauden alde on eta txarrak. Hala, hauek nabarmendu ziren: lanpostuetan lan-baldintza okerragoetan aritzea, eta bertako herritarrek ere behar dituzten laguntzak jasotzea, hurrenez hurren.

– *"Gizartea hobetzen laguntzen du, espainiarrek, hemengoek egin nahi ez ditugun lanak etorkinek egin behar baitituzte, eta zabor-kontratuekin lan egien behar izaten dute."* (Ikaslea -emak.-. Sare pribatua)

– *"Baina hemen ere badago zabor-kontratua duen jende asko, eta etorkinei, aldiz, laguntza asko ematen dizkiete, eta hemengoei ez. Eta, adibidez, gu haien herrialdeetara bagoaz, guri ez digute inongo laguntzarik ematen, ostikoa ipurdian eta hor konpon."* (Ikaslea -giz.-. Sare publikoa)

– *"Ni immigrazioaren kontra egon, ez nago, baina egia da, era berean, zu laguntzazko pisu bat emateko aurkezten bazara, ez beti, baina gehienetan etorkinei ematen*

*dizkietela. Nik ez diot gaizki dagoenik, baina hemengoek ere baditugu arazoak, eta guri ere kosta egiten zaigu pisuak ordaintzea eta lana aurkitzea."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

Gainera, ikasleak bat datoz aldarrikatzean, oro har, etorkinak gure kulturari egokitu behar zaizkiola, erlijioaren aldetik izan ezik, horretan ez baitago erabateko adostasunik.

– *"Errespetuz, baina, noski, batzuek, beste herrialde batzuetatik etorri, baina guri ez digute errespeturik."* (Ikaslea -giz.-. Sare publikoa)

– *"Nire iritziz –kontuan hartuta gure hizkuntzara moldatzen direla eta guzti, eta jende askok beste herrialde batekoak izateagatik mespretxatzea jasan behar dutela– erlijioak ez du zertan arazo bat izan, hain garrantzitsua bada haientzat, eta zapia eramatea edo dena delakoa. Lehengo egunean, hain zuzen, horri buruz hitz egin genuen gelan, eta nik uste dut, ni orain Afrikara banoa, gauza piloa izan dezakedala zuria izateagatik, baina afrikar batek hemen, ez."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Niri etorkinengandik gustatzen ez zaidana… Bueno, ongi iruditzen zait etortzea, baina, adibidez, ni Argentinara banoa, erlijiora moldatu behar dut, Argentinan berezkoa den horretara. Marokokoak edo arabiarrak hona badatoz, guk mezkitak egin behar ditugu, eta haiei egokitu, haiei guri egokitu beharrean, haiek ez dute nahi eta. Adibidez, duela gutxi, Bartzelonan edo hor nonbait, berria eman zuten ikastetxe batean bi marokoarrek zapia eraman nahi zutela, eta eskolan ez zuten nahi, txanoa eramatea debekaturik zegoelako. Azkenean, utzi egin zieten, baina, nire ustez, ez zieten utzi behar."* (Ikaslea -giz.-. Sare publikoa)

Horren inguruan, nabarmendu behar da eztabaida-talde guztiek ez zituztela identifikatu eragile berak. Gazteek etorkinekin duten nolabaiteko begirunerik eza gizarte-inguruneari egotzi zioten hezkuntzako teknikariek eta guraso-taldeak, bi eztabaida-talde horietako parte-hartzaile batzuen adierazpenek ondoren erakusten dutenez.

– *"Nik berriz ere diot koska ikastetxeetan dagoela. Ikastetxeetan onartzen dituzten erak, jende hori errekuperatzen duten erak, barruan integratzeko, eragina izango du jende horrek arazorik ez dezan. Gauza bat da haiek ikastetxe jakin batzuetara joatea eta han haien artean elkartzea. Hobe da nahas daitezen, eta haien artean taldeak ez osatzea."* (Ama. Sare publikoa)

– *"Nire ustez, ikastetxeak dagoeneko ari dira horren inguruan hezten, asko lantzen dute immigrazioaren gaia. Dezente irakasten diete, nik uste."* (Ama. Sare publikoa)

– *"Nire iritziz, berak lehen esan duena da, gutxi gorabehera, ezta? Helduekin gertatzen denaren oso antzekoa. Nik ez nuen pentsatzen gu, eta nire adiskideen artean, baina batzuetan zur eta lur geratzen zara komentarioekin eta jendearengan ikusten dituzun jarrerekin, sekula ere ez baitzenuen halakorik pentsatuko. Eta uste dut neska-mutilei antzera gertatzen zaiela: hasiera batean badirudi ezetz, baina gero, munduko elkarrizketarik normalenean eta naturaltasun osoz, etorkinei buruz hitz*

*egiten, erabat mespretxuzko modu batean aipatzen dituzte.”* (Hezkuntzako teknikaria -emak.-)

– *“Gure geletan ikasle etorkinek duten bolumen guztiz txikiarekin, hasiak dira etorkinak ez diren familien erreakzioak eskubideak eskatzen: zergatik haiei ematen zaie eskola-laguntza bat eta nire umeei ez? Eta hori gertatzen hasia da.”* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

Hala ere, ikasleek berek arrazakeria hori baliabideen jarduera eta manipulazioaren eraginari egotzi zioten. Aditzera eman zuten komunikabideek atzerritarren jatorria nabarmentzen dutela, batez ere gertaera negatiboen berri ematean; horrela lortzen dute, hortaz, jendeak ia oharkabean lot ditzan “etorkin” eta “gatazka” kontzeptuak.

– *“Orain, esaterako, errumaniarrak, ijitoak, mairuak... Zertzat hartzen dira… Gai honi buruz gelan eztabaidatu genuen, baina badago arrazakeria, orobat, beldurragatik. Uste dugu hona lapurtzera edo dena delakora datozela, eta, nire ustez, jende gaiztoa denetarikoa dela, zuria izan zein beltza izan... denetarik dago, bai horixe. (...) Nire iritziz, erruaren zati handi bat albisteena da, zeren esaten badute marokoar batek lapurtu duela, kontua da lapurtu egin dutela, ez nolako pertsonak lapurtu duen. Ez dugu esaten almeriar batek lapurtu duela. Gero, gauza negatiboak ateratzen dira, ezta? Txinatarrak direla, ez dakit zer direla, esan ohi dute. Tira, pertsonak dira azken batean, ez dago esan beharrik nongoak diren. Niri hori garrantzitsua iruditzen zait.”* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *“Nire ikuspuntutik, familia guri balio batzuk irakasten saiatzen da, baina orain, gaur egun, mezu-mordoa jasotzen dugu Internetez, berrien bidez, telebistaz dena delakoaren bidez, eta azkenean oso zaila zaie gurasoei ideia batzuk, balio batzuk, ematea, baldin kanpotik asko jasotzen badugu.”* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *“Manipulazioa, gehienbat. Manipulazioa informazioan, zeren berriak ematen ari direnean ez da gauza bera Tele 5 ikustea, adibidez, edo hemengoa, Euskal Herrikoa, den kate bat ikustea. Ez da gauza bera, zeren, adibidez, Bilbon bonba batek lehertu badu, espainiar kate batean Euskal Herria larrutu egingo dute, eta hori ikusten duten pertsonek pentsatuko dute denok hori egin duten pertsonen berdinak garela. Eta katea hemengoa bada, berria askoz era objektiboagoan ematen da, espainiar kate batean baino.”* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *“...batzuetan gurasoek ahal den hoberena egin nahi dute guk arrazakeriaz ez jokatzeko, baina, esate baterako, albistegian ateratzen dute, ez dakit, marokoar batek bitxi-denda batean lapurtu duela, eta, adibidez, aitak dio: ‘Hara, berriz, mairua!’ Orduan, noski, niri hori nagusitan erantsiko zait, agian, eta hori, ba, nire pentsaera gurasoen erruz alda daiteke. Baina gure egitekoa ere bada haiei ez kopiatzea.”* (Ikaslea -giz.-. Sare publikoa)

– *“Nire ustez, marokoarrari buruz esan duen horrekin eta abarrekin, gu arrazistak izatera behartzen ari direla, askotan esaten dutelako nongoak dira, hau da, atzerritarrak direla.”* (Ikaslea -giz.-. Sare publikoa)

Hala ere, datuak ikusita, jakintzat eman dezakegu beste kultura batekoa edo beste herrialde batekoa izatea ez dela ezinbesteko baldintza baztertua izateko. Desberdina dena, horrelakoa izateko zer ezaugarri duen gorabehera, helburu erraza izaten da haren kontra egiteko.

– *“Eta, era berean, nik uste dut bazterkeriarena oso arraroa dela; izan ere, adibidez, neska bat oso itsusia bada, mundu guztia haren kontra aritzen da, baina, ordea, oso guapa bada, inork ez dio ezer esaten-edo.”* (Ikaslea -giz.-. Sare publikoa)

– *“Gure arrazan bertan ere egon daiteke besteak baino gehiago dela usten duen talde bat, baina, bueno, haiek nahi dutena pentsatuko dute, eta guk beste gauza bat pentsatuko dugu, ezta?”* (Ikaslea -giz.-. Sare publikoa)

– *“Baina nik uste dut integrazio erreala ez dela existitzen. Nerabezarora iristen direnean, normalean beren antzeko ingurune ekonomiko eta soziala dutenekin ezartzen dituzte harremanak. Hau da, haur bat kolonbiarra bada, baina familia dirudun batekoa, esaterako, eta gelako gainerakoen gizarte-ingurune berean mugitzen bada, integratu egiten da. Baina etxean arazoak baditu, haren kultura-maila apalagoa bada, ez dakit, hori gehienetan ez da integratuko. Eta zuria balitz, ere ez. Eta ezgaitasunen bat duten umeei dagokienez, 11 edo 12 urte betetzen dituztenean, laguntzako irakaslearen arazoa izaten da, eta ez dago integrazio errealik. Hau da, elkartasuna eta justizia eta, askotan, desberdinarekiko tolerantzia den hori ez da existitzen. Batez ere, nik uste dut nerabezaroan neska-mutilak izugarri gogorrak direla.”* (Ama. Sare pribatua)

– *“Gauzak zaintzeko balioa galdu da, nik uste, baina batez ere pertsonak zaintzeko balioa.”* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

Hemen deskribatu diren gorabeheretatik ondoriozta daiteke ezen, une honetan, bestearekiko errespetua ez dela jakintzat ematen, baizik eta irabazi beharra dagoela.

Gertaera bakar batzuk direnik ez dirudienez, egoera berri horrek gogoeta egitea merezi du, lagun hurkoarekiko errespetua irakasteko beharraren inguruan, gaur egungo gizartean bizikidetza-baldintza duinak bermatzen aldera. Horretarako, ikasleek norberaren eskubideen alderdia ongitxo ezagutzen dutenez, gure eginbide morala da besteekiko betebeharrak nabarmentzea.

## 4. INDARKERIA

Indarkeriari dagokionez, talde batzuek indarkeriazko jokabide jakin batzuk ikusten dituzte gazteengan. Horren inguruko kezka agertu zuten pertsonek batez ere bi egoera asaldagarri aipatu zituzten. Lehena emakumeen aurkako oldarkortasunari zegokion.

– *“Baina adierazle batzuek kezkatu egiten naute; esate baterako, emakumeen aurkako indarkeriak. Hain zuzen, nire ustez oso kezkagarria da ikustea zein adintartetan gertatzen eta berritzen den fenomeno hori, 30 urtetik beherakoak direla*

*ikustea, alegia. Izugarrizko ehuneko handi bat 30 urtetik beherakoena da, eta haien artean, jakina, nerabeak daude."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

Bigarren egoera dagokio indarkeria gatazkak ebazteko ohiko tresnatzat erabiltzeari. Gainera, uste dute baliabide hori jende guztiaren artean zabalduta dagoela, eta gazteenek hainbat bidetatik barneraturik dutela.

– *"Nik uste dut indarkeria erabiltzen dugula biderik errazena delako. Askoz errazagoa delako norbait jotzea isil dadin, 'aizu, utzi bakean!' esatea baino"* (Ikaslea -emak.-. Sare pribatua)

– *"Indarkeriaren kontua nire borroka da. Nik esan nahi nuen indarkeria erakunde guztietan erabiltzen dela, bai eta familian ere, eta hor asko erabiltzen da. Indarkeria, hain zuzen, erabiltzen da gehienik gatazkak ebazteko. Orduan, berriz ere itzultzen gara eredugarritasunera edo eduki behar dituzten piezetara, eta baldin ez bazaio indarkeria-mota orori zilegitasuna kentzen eta ez bada desagerrarazten... Zeren nik uste dut erakunde guztietan, toki guztietan, gatazkak ebazteko egoten den eredua indarkeria dela, botere-indarkeria. Ez naiz gerrei buruz ari, tankeak erabiltzeari buruz, baizik eta botere-indarkeria, kultura-indarkeria, egiturazkoak, alegia, edozer indarkeria-mota gatazkak ebazteko. Eta hori ikastetxean bizitzen ari dira, eta gauza bera etxean: 'NIk esaten dudalako, hori halaxe da'. Izan ere, indarkeria hori, fisikoa ez bada, psikologikoa da; esaterako, irakasle batek azterketan mendekua hartzen zuenean, hori bidegabekeria-moduko bat da, eta indarkeria-moduko bat ere bai. Berak, nire iritziz, berriz aztertu behar dira erabiltzen diren eta bizitzen ari diren indarkeria-motak (telebistan, marrazki bizidunetan, familietan eta adiskideekin); oso gai garrantzitsua da, eta oso serio, oso, hitz egin behar da hari buruz, proposamenak egiterakoan. Desagerrarazi egin behar da, zilegitasuna kendu behar da, honek ez du balio. Eta hori gizartearen kontua da, ez bakarrik eskolarena. Eskolan bakarregi utzi ohi baikaituzte, eta tranpak itxuragabeki egiten zaizkigu."* (Hezkuntzako teknikaria -emak.-)

– *"Bai, bai, aipatzen zenuen hitzezko indarkeria horrek atentzioa eman dit betidanik, eta urteak daramatzat horren aurka borrokan, eta horixe jasaten dut gutxienik. Zeren, azken batean, gu helduak gara, beti izaten ditugu haiek baino baliabide gehiago, haiek gu oso gaizki tratatuta ere. Izan ere, haiek elkarren aurka ez dute baliabiderik, eta, benetan, batzuetan ikaragarria da nolako hitzezko indarkeria, zer errespetu gutxirekin, tratatzen duten elkar, zer-nolako astakeriak esaten dioten elkarri. Nik hori ezin dut jasan."* (Irakaslea -emak.-. Sare pribatua)

– *"Familian hitzezko indarkeria gertatzen da gehienbat, eta ez da jotzen. Nik ez dut haurrik ezagutzen ama jotzen duenik, baina bai, ordea, iraindu-eta egiten duenik... Indarkeria fisikoa ez da hain ohikoa, baina hitzezkoa, bai."* (Ikaslea -emak.-. Sare pribatua)

– *"Nire ustez, gaur egungo jendea guztiaren modukoa da: zurekin txarto konpontzen banaiz, hitz egin-edo beharrean, eta ados ez bazaude, ba, ez zaude ados eta kito.*

*Guztiaren modukoa da. EEOOOOO, eta guztia ostiaka, eta kito!"* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

Taldeetako parte-hartzaileek askotariko azalpenak eman zituzten, indarkeriazko jarrera haiek nola ulertzen zituzten adieraztean. Hala, batzuek gaur egungo hitzezko indarkeria adierazpen-modu hustzat hartzen zuten.

– *"Baina txantxa bat ere izan daiteke."* (Ikaslea -emak.-. Sare pribatua)

– *"Nik, bai, ikusten dut, lehen esan dudan bezala, haiek harremanak izateko duten modua, baina berezko era batean, oldarkorragoa dela. Ez dakit, errespetu gutxizedo. Hori, bai, nabaritu egiten dut."* (Irakaslea -emak.-. Sare pribatua)

– *"Baina hori helduaren ikuspuntutik da. Haiei normala iruditzen zaie edozer astakeria elkarri deitzea, ez dute horrela ikusten. Esan ohi dizute: 'Nire laguna da-eta, oso ondo moldatzen naiz berarekin, ba'."* (Irakaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Gaur egungo balioen kontua da era berri batzuetan adierazten direla. Adibidez, beste bati 'putakumea' deitzen dion gazte bat, testuinguru jakin batean, ez da iraintzen ari, berak duen adierazteko era da."* (Hezkuntzako teknikaria -emak.-)

Beste batzuen aburuz, jarrera horien arrazoia afektuzko gabeziak betetzeko beharra da, taldekidetza edo onarpena sentitzeko beharra dela, autoestimu apala konpentsatzeko mekanismoak direla, edo azpian dautzan emozio primarioak bideratzea dela.

– *"'Primerakoa' zaren itxurak egiteko."* (Ikaslea -emak.-. Sare pribatua)

– *"Gehiago zarela sentitzeko; oso 'matxo' bazara, integratu egiten zara."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Eta taldeko kide zarela sentitzeko."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Nik pentsatzen dut, orobat, haiek zerbait falta dutela. Kasu askotan, beren buruaz duten segurtasun-faltagatik da; orduan, segurtasuna bilatzeko, horrela jokatzen dute."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Nik uste dut arreta erakartzeko ere egiten dutela, haiei zerbait ere falta zaielako; izan ere, adibidez, etxean jada ez diete kasurik egiten, eta, orduan, kasurik egiten ez dietenez, arreta erakarri nahi dute, nonbaiten garrantzitsuak direla sentitu ahal izateko."* (Ikaslea -emak.-. Sare pribatua)

– *"Eta askotan, neska-mutilek beren baitan duten amorru guztia –etxean ez didatela kasurik egiten, ez direla nitaz arduratzen, irakasleak ez dakit zer... – norbaitekin ateratzen dute, eta irakasleren bat txikitzen dute."* (Irakaslea -emak.-. Sare publikoa)

Frustrazioarekiko tolerantziarik eza ere aipatu zuten faktore garrantzitsu gisa.

- *"Gaur egun dugun indarkeriari dagokionez, nik uste dut haiek frustrazio-gaitasuna barneraturik ez izatearen emaitza dela, neurri batean; horrela, horrek jokabide horietako askok eragiten ditu. Gustuko ez duten egoera baten aurrean nola erantzun ez dakitenez, indarkeriaz erantzutea erabakitzen dute, hitzez edo ekintzez."* (Irakaslea -giz.-. Sare pribatua)

Gazteek ez aspertzeko estimulu berrien bilaketa gisa aurkeztu zuten indarkeriaren erabilera.

- *"Ni, adibidez, ez naiz kalean ibiltzen gelako mutilekin, baina larunbatetan ikusten ditut. Eta, adibidez, esaten dute 'ba, aspertuta gaude, goazen istilutara', eta aurkitzen duten lehena jotzen hasten dira, eta horrek ez du ezer egin, baina berdin dio, istilutan ibiltzea gustatzen zaielako, eta azkenean mundu guztia jotzen bukatzen dute, eta dena borrokak eta.... Eta hori ere ez da ongi pasatzeko modua."* (Ikaslea -emak.-. Sare pribatua)

Eta parte-hartzaile gehien-gehienak bat etorri ziren oldarkortasun hori azaltzean mugarik ez izatearen eta adingabea gehiegi babestearen ondorio gisa:

- *"Esate baterako, orain guraso batzuk nabaritzen hasiak dira, zeren nire gelakide batek ez zuen sekula ezer egiten eskoletan, eta gurasoek jakin, ez zekiten ezer. (...) Eta erretzen harrapatu zuten, eta ezin zen erre, eta zenbat eta falta gehiago jarri, orduan eta axola gutxiago halakoei."* (Ikaslea -emak.-. Sare pribatua)

- *"Nire gelan era badago dena bost axola zaion pertsona bat, eta eskoletan gaude, eta gelatik alde egiten du, eta, gainera, faltarik ere ez diote jartzen."* (Ikaslea -giz.-. Sare publikoa)

- *"Egia da gurasoek horren berri izaten dutenean neurriak hartu behar dituztela, baina hori ere ez, zeren asko ahaleginduta ere, semeak edo alabak ez badizu erantzuten, haiek bakarrik ezin izango dute konpondu, nik uste; hau da, laguntza behar dute."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

- *"Beharbada, dena dela, gure ikuspegia aldatu da. Indarkeriazko gertaeren bat dagoenean edo borrokaren bat gertatzen denean, sekulako eskandalua sortzen da. Eta halakoak beti izan ziren, eta lehen ere jendeak elkar jotzen zuen, eta ez zen ezer gertatzen. Eta orain etxera iritsi arte jarraitzen diegu, eta espedientea abiarazten diegu, institututik atera, eta kalean elkar jotzen dutenean. Gainera, gertatu ere ez da gertatzen. Gaur haiekin hitz egin dut izugarri babesturik egoten direla eta, hau da, beren plastikozko zabuetan eta erortzen diren kortxo horietan; orain zauririk ere ez dute egiten. Eta gauza bera gertatzen da edozer txorakeria gertatzen denean, ez dakit nork esan baitit 'Hara, bullying-a, salatu egingo zaitut 'Ba, zoaz pikutara!'. Gainbabestuta daude. Eta gainera gurasoek ez digute batere sinesgarritasunik ematen, haiek neska edo mutilaren bertsioan baino ez dutelako sinesten."* (Irakaslea -giz.-. Sare pribatua)

- *"Etxetik baldin badatoz 'umeak hauxe esan dit' tematuta, orduan, ez diote kasurik egiten irakasleari."* (Irakaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Zuzenean esaten dizute. Ikastetxetik deitu, eta 'zure semeak edo alabak hau egin du', eta esaten dizute: 'bueno, haren bertsioa entzun behar dut lehenik'."* (Irakaslea -emak.-. Sare pribatua)

– *"Hitzezko erasoa bada, irain egin dizun pertsona horrekin hitz egin. Eraso fisikoa denean, orduan auzitara jo dezakezu. Nik, azken batean esan nahi dut: zergatik ez dago lege bat 14 urtetik beherakoak direnerako? Erasoa gertatu den ikastetxera doa salaketa, ez doakio haurrari, adingabea delako. Orduan, zergatik ez zaio deitzen ardura duen gurasoari, ea nola hezten duen bere umea? Beharbada, ikastetxeak eskuak lotuta dauzka. Hortaz, guraso hori ez bada umeak hezteko arduraduna, ba, orduan, beste baliabide batzuk jarri beharko dira."* (Ama. Sare publikoa)

– *"Nik uste dut lehen esan dudana falta dugula une honetan. Hau da, familiaren ardura-utziera gertatzen ari da Helduari, familiari, askoz errazagoa zaio nerabeak kontatzen duena sinetsi eta ontzat ematea, ez baitzaio interesatzen ez ahalegintzea ez engaiatzea. Eta azken hori ez da gertatzen, denborarik ez dutelako, interesik ez dutelako edo zer egin ez dakitelako."* (Irakaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Horra hor arazo nagusia: gauza batzuk instituzionalizatu egiten dira, alegia. Orduan, beste muturrera joaten da: hitz egin behar da, gogoeta egin behar da, ez dira gaizki tratatu behar, ez da ez dakit zer egin behar. Orduan, txip-aldaketa. Hau da, eredu edo jarraibide batzuk hartzen dira, orain lehen ez bezala dela, ez dela errieta egin behar, ez dela jo behar..., baizik eta hitz egin, errespetatu, toleratu. Eta, noski, mahuka zabala duten guraso batzuk topatzen dituzu –eta 'begira zer-nolako nortasuna du nire umeak'–, eta beste guraso batzuek ez diete uzten pauso bat ere ematen nora doazen esan gabe."* (Irakaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Nik ere uste dut gurasoak ez direla engaiatzen, eta seme-alabei sinetsi nahiago dute, esaten dutena, askotan, gezurra bada ere. Eta, gainera, neska-mutilek berek gurasoen aurrean bertan aitortzen dute egindakoa, eta gurasoei sekulako lotsa ematen die.... Eta halako kasu batzuk aurkitu izan ditut, ez bat edo bi. Eta, noski, pentsa mutil edo neska hori zein babesgabe sentituko da gurasoari dioenean ezetz, ezetz."* (Irakaslea -giz.-. Sare publikoa)

– *"Eta gurasoek neurri egokian errespetua jartzen ote dakiten? Nire ustez, ez.* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Nire ustez heziketa ere badago hor tartean, zeren irakasle batzuek esaten dute ez dutela ikusten, baina hori ikusi, ikusi egiten da. Izan ere, pertsona bati urte osoa zehar irain egiten badiote eta abar, zuk ez baduzu geldiarazten, azkenean txikitatik hasten dira. Hasieran tonto deitzen dizu, gero irainka hasten zaizu, eta azkenean, nagusitan, nik uste dut horiexek jotzen dituztela emakumeak."* (Ikaslea -emak.-. Sare pribatua)

Nahiz eta gazteek aditzera ematen duten ohartu egiten direla inguruan –bai ikastetxeetan bai aisialdian– duten erasokortasunaz, indarkeriazko jokabide horiei aurre egitean hautematen duten babesik eza adierazi zuten.

- *"Iaz, gure gelan bazeuden (orain ez daude) asteburuero, baita astegunetan ere, nahiko istilu larrietan sartzen diren bi mutil. Baina hori gertatzen da elkartzen diren jendeagatik, eta haiek nahi dutelako, noski, baina... Eta hortik zehar joan ohi dira edukiontziak marratzen eta lurrera botatzen; eta behin erre egin zituzten, eta irakasle batek ikusi zituen, eta azkenean epaitegietan bukatu zuen auziak. Hau da, hurbil egoten dira, horrela ez badirudi ere. Eta gelan... gogoak ematen ziena egiten zuten, ez zieten kasu egiten eskolei; eskoletara ongi pasatzera zihoazen. Eta, behin, guretik hurbil moja-ikastetxea dugu, eta Espainiako bandera jarri zuten leihoan, eta haiek, erantzuteko joera dute eta, mandarinak botatzen hasi zitzaizkien, eta mojek kexatu egin ziren, baina orduan ere ez zuten jarri haiek zuzentzeko oso neurri gogorrik. Eta horrela hasi zen, eta gero leihotik grapagailuak botatzen hasi ziren, eta aulkiak... Eta Santa Ageda garaian norbaitek makila ekarri zuen, eta bitan apurtu zuten, eta leihotik botatzen hasi ziren. Gure gelatik entziklopediak ere atera ziren mutil horien eskutik, baina badakitelako hori egin ezkero, ahoz aho ibiliko dela, institutu osoan nahiz institututik kanpo. Hori arazo bat da, zeren, gero, errieta egitera dagozkizunean eta haiek erantzukizuna hartzen ez dutenean, ikusten duzu fardela denok hartu beharko dugula geure gain ."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

- *"Gaur lauren arteko borroka egon da, ukabilkadaka, kako-kolpe eta guzti. Eta horretarako ez dago konponbiderik, zeren, hori salatzen baduzu, gu laurak eta laurdenean ateratzen gara, eta gero etxeraino jarraitzen dizute, ostikoak ematen dizkizute, motxila apurtzen dizute, hori gutxiena dela, baina..."* (Ikaslea -giz.-. Sare publikoa)

- *"Duela asteburu pare bat (...) lauzpabost neskak, edo gehiagok, neska bat harrapatu eta ukabilkadaka jo zuten. Sudurra hautsi zioten, eta ospitalean zegoen, nahiko gaizki, eta mutilak, ba, aurpegia nahiko txikituta zuen. Baina, besterik gabe. Ezagutu ere ez zituzten, eta neskak ziren. (...) Horrelaxe gertatzen da, ez bat eta ez bi, batbatean kalean norbait ikusi, eta banba! jo egiten dute; eta neska oso larri jo zuten, eta orain epaitegietan-eta ibili behar..."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

Hala ere, egoera horien aurrean, proposatu zuten –aurre egiteko estrategia baliagarri gisa– hitz egitea, pertsona arduratsu eta erreferentziazkoak bilatzea, egoeratik aldentzea, edo elkartzea, taldean erasotzaileari ez ikusiarena egiteko.

- *"Egoeraren eta arazoaren larritasunaren arabera. Ikaskide batek lepondokoa ematen badizu, iraindu duzulako edo gaizki hartu duen zerbait esan diozulako, zuk ere erantzun dezakezu, beste lepondoko bat edo eskuarekin kolpe bat emanez, edo, besterik gabe, berriz ere erantzunez, iraindu edo minduz. Baina hori aurrerago badoa, esate baterako, edozein momentutan iraintzen edo molestatzen bazaitu, gogoak ematen diolako, hori ezin duzu konpondu ez joz ez berarekin hitz eginez, ez dizulako entzungo eta kasurik egingo; pertsona hori, hasteko, txoriburu hutsa baita. Lehenik, haren gurasoengana joan beharko zenuke, eta, gero, ikastetxeko irakasleengana."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

- *"Mutil batzuk, ni lagun batekin hizketan ari nintzela etorri, eta hasten ziren 'baietz zu jo!', eta esaten nien 'ea, ba, hasi!' Eta esaten zuten ezetz, neska nintzelako Eta,*

*nire ikuspuntutik, hori ez da normala, berdin delako mutilak edo neskak izatea, arazorik baduzu, horri buruz hitz egin behar duzu."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Bai, baina norbait probokatzen badatorkizu, ezin zara ibili zu ere probokatzen, haren jokoan sartu, okerrerako izango delako."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Bai, ez da haren jokoan sartu behar; zuk paso egiten diozu, edo urrundu egiten zara."* (Ikaslea -giz.-. Sare publikoa)

– *"Nire ustez, guztion arazo bat da azkenean barre egiten dutela haiek egiten dutenez, eta ez diegula aurre egiten, eta ez ditugula uzten txoko batean bakarrik, lagunik gabe. Ez, azkenean, aintzakotzat hartzen ditugu."* (Ikaslea -giz.-. Sare publikoa)

## 5. GOMENDIOAK

1. Eztabaida-taldeek proposatu zituzten gomendioen artean, aditzera eman zuten beharrezkoa zela gizartea, oro har, engaiatzea, haren entitateen bitartez; izan ere, nabarmendu zuten ikastetxeak ez direla gai balioen transmisioaren ardura osoa haiek bakarrik beren gain hartzeko. Horretarako, hauek proposatu zituzten. sentiberatze-kanpainak; kolektiboen ekarpenak bateratzeko elkarguneak, politika berriak, eta abar.

– *"Nire iritziz, eskolak ezin du berak bakarrik. Nik, egia esan, ez diet uko egiten utopiei, eta uste dut gizarte honek zer izan nahi duen irudikatu beharko lukeela. Eta gizartean masa kritiko bat egon beharra dagoela, kultura-aldaketa gera dadin, gizarte baketsu bat lortzeko, Galtung-e emandako zentzuan, e? Eta gatazkak indarkeriarik gabe ebaztea irudikatu behar dugu. Eta gizarte-itun bat eduki beharra dago, sindikatuek, eskolak, sailak, irakasleek eta denok esateko zer eskola nahi dugun, eta kalamatrika gutxiago. Eta guztiei zera esango nieke: 'Aizu, kexa gutxiago, eta begiratu ea zertan lagundu dezakezun, zertan izan dezakezun eragina'; eta arlo bakoitza ardura dadila zer egiten duen eta zer egin dezakeen aztertzeaz. Orduan, zer egin beharko luke bakoitzak –oro har, nik ez diot eskolak bakarrik–, baldin denok hezten badugu? Hau da, gu, orain gauden belaunaldikoak, aurkitu dugun baino mundu hobea utzi behar dugu, horixe baita eraldaketaren eta arduraren funtsezko balioa. Ba, aizue, nik kanpaina potoloa proposatzen dut, norbait egin dezala hori, mesedez, eta eskola sar dadila eta parte har dezala."* (Hezkuntzako teknikaria -emak.-)

– *"Beraz, nire iritziz, berriz aztertu behar dira erabiltzen diren eta bizitzen ari diren indarkeria-motak (telebistan, marrazki bizidunetan, familietan eta adiskideekin); oso gai garrantzitsua da, eta oso serio, oso, hitz egin behar da hari buruz, proposamenak egiterakoan. Desagerrarazi egin behar da, zilegitasuna kendu behar da, honek ez du balio. Eta hori gizartearen kontua da, ez bakarrik eskolarena. Eskolan bakarregi utzi ohi baikaituzte, eta tranpak itxuragabeki egiten zaizkigu."* (Hezkuntzako teknikaria -emak.-)

- *"Nik uste dut komunitate osoa engaiatu behar dela balioen aldetik nahi dugunaren definizio horretan. Gizarte-eragileen nahiz arlo honetan zuzenean parte-hartzen duten eragile guztien arteko adostasuna bilatu behar da."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

- *"Eta horrekin batera, nik ere pentsatzen dut eskolan laguntza behar dugula, eta bestelako gizarte- nahiz familia-politikak behar direla."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.)

- *"Bat nator esandakoarekin. Hezkuntzaren antolakundean boterea berriz orekatu behar da (guraso eta ikasleen parte-hartze handiagoa)."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.)

2. Hizpide berean, bai hezkuntzako teknikariek bai irakasleek berariaz aipatu zuten beharrezkoa zela lotura sendoak ezartzea irakasleen eta aita-amen artean, adingabeetan artean balioen transmisioa sustatze aldera.

   Horrela saiatu behar da, aurreko ataletan zehar agertu denez, fronte batu bat sor dadin, non gurasoek ez baitituzte irakasleak areriotzat hartuko eta, ondorioz, haiek aitortutako aginte-kentzea saihestuko baita.

- *"Nik eskolari buruz jarraituko dut, hori baita hurbilen dudan arloa eta hor izan baitezakegu eragin handiagoa, seme-alabengan dugun eraginaz gain, ezta? Nire ustez, familiak eskolan parte hartzearen kulturan hezi beharko lirateke, eta hor ditugu ikaskuntza-komunitateak; haietan, aukera emanez gero, aita-amek parte hartu egiten dute. Eta horrek berebiziko garrantzia du, nire ustez; hau da, familia eta eskola batzen saiatzeak. Izan ere, oso bi eremu garrantzitsuak dira nerabeentzat. Nire iritziz, bide horretatik jo behar da."* (Hezkuntzako teknikaria -emak.-)

- *"Eta gurasoekin, haiek mundu honekin konektatzea, gure esperientzia zail samarra delako, nekeza da. Eta puntu hau niri, bai, asko kostatzen zait."* (Irakaslea -emak.-. Sare pribatua)

- *"...norbaitek nolabait esku hartzea lortzen badu, ederto, eta aita-amekin batera lortzen badugu, zer esanik ez. Hala ere, nik uste dut etsai gisa ikusten gaituztela batzuetan, eta, horri dagokionez, tratua ez dago parekaturik. Eta, nire ikuspuntutik, zaila da haiekin hitz egitea, zu aita ez zarela esaten dizutelako, eta iritzia eman ahal izateko aita izan behar duzula, eta niri iritzia emateko gaitasuna ukatzen didate."* (Irakaslea -giz.-. Sare pribatua)

3. Hala ere, aita-amen eta irakasleen arteko hurbilketa erreal batez gain, eztabaida-taldeetan, ikasleena barne, uste zuten komeni dela prestakuntza egituratu bat egotea halako helduentzat, balioak transmititzeko heziketa praktikaren inguruan.

- *"Baina guraso eta seme-alabena ere bai, eta gurasoek ere hitzaldiak-edo izan ditzaten. Zeren, gurasoek kontzeptu txarrak badituzte, seme-alabek ere ez dute halako kontzeptu on-on bat aterako."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

- *“Nire iritziz, gurasoei ere eman behar zaie laguntza, seme-alabak nola hezi behar duten-eta jakin dezaten; izan ere, azken batean, gurasoak ideiak argi baditu, eta ez badio umeari hasiera-hasieratik nahi duena egiten uzten, ume horrek horixe jasoko du. Bestela, dena kontroletik kanpo badago, ez dago zer eginik.”* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

- *“Laguntza profesionalaz gain, nire ustez, gurasoentzako laguntza beharko litzateke, seme-alabak balio horietan nola hezi jakin dezaten.”* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

- *“Bai, eta irakasleei ere irakastea, hasieran duten prestakuntzak ere ez die ahalbidetzen rol berri horiek beren gain hartzea. Teoria erruz dugu, baina, praktikan, aurrera egin gabe jarraitzen dugu.”* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

- *“Guk ikastetxean badugu niri asko lagundu didan gauza bat, guraso-eskola deitzen dena. Bateratze-lanean datza, eta bakoitzak berea azaltzen du, eta honelako gaiak lantzen ditugu, hala nola litroak egitearena, edo elkar jo duten lagun batzuena, eta gatazka hori nola ebatzi. Eta guraso guztion artean egokia iruditzen zaiguna erabakitzen dugu, eta azkenean gogoeta bat egiten dugu, eta horrek niri asko balio dit indarberritzeko. Hilean behin egiten da bilera, urtean bost aldiz.”* (Ama. Sare pribatua)

- *“Eta indarkeriaren kontuari buruz, lehen aipatu dugu eta, gelan arazoak ematen dituen gazte oldarkor bat, beti zigortuta ibiltzen dena eta abar... hura laguntza eske ari da ozen baino ozenago. Arazoa da askotan ez dakigula nola lagundu, zeren haren familiaren ingurunean, ziur aski, edo ez dira gai laguntzeko, edo ezin dute, edo ez dakite.”* (Aita. Sare pribatua)

4. Ikastetxeei bereziki dagokienez, lotuta dauden kolektiboek –ikasleek eta hezkuntzako teknikariek, batez ere– proposatu zuten eguneroko jardunean engaiamendu handiagoa izatea balioen transmisioan. Horren barruan leudeke, besteak beste, ordu gehiago ematea sozioafektibitatearen arloa lantzen (curriculuma murriztuta, behar izanez gero), arloaren inguruko eginkizunak ofizialki esleitzea, administrazioaren aldetiko hobekuntzak, bilerak, tutoretzak berreskuratzea, eta abar.

   - *“Horri buruz hainbat gauza esan nahi ditut. Esan nahi dut hezkuntzaren arloko Administrazioak berak, zenbaitetan, inkongruentea dela eta inkongruentzia horiek agertzen dituela. Balioen transmisioaren gai honen inguruan, hain zuzen, adibide batzuk jarri nahi ditut: berak erretiroa hartu, eta bizikidetza-taldea desagertu egiten da, ordura arte gauza garrantzitsua izan da, eta ordutik aurrera ez du gehiago halako garrantzirik. Ez dut ulertzen zergatik. Egia da bizikidetza-planak sartu egiten direla, baina nork hartu behar ditu bere gain plan horiek? Horretarako liberatuta dagoen arduradunak ala ikastetxeak, oro har? Zer gertatzen da? Eta ikastetxeetan mugitzen garenok zera badakigu, alegia, eginkizunak zuzenean esleitzen direla, eta gainerakoek jakintzat ematen dutela dena delakoa liberatuaren eginkizuna baino ez dela, eta ez gainerakoena. Nire ustez, hori aldatu egin behar da. Gero, hezkun-*

*tza arloko Administrazioak asmo-adierazpenak egiten ditu familiak bultzatzeko eta deialdia egiteko parte har dezaten eta engaia daitezen seme-alaben prozesuan eta abarretan. Eta gero, hori gauzatzeko behar diren mekanismoak ez ezartzeaz gain, oztopoak ere jartzen dituzte. Eta autokritika ere egin behar da hemen. Ez da Administrazioa oztopoak jartzen dituen bakarra; izan ere, irakasle askok parte-hartze hori onartzeko errezeloak dituzte. Nire iritziz, kultura aldatu behar da hemen, eta horretarako behar diren mekanismoak ezarri."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

– *"Ba, nire ustez, eskoletan errutinak, gauzak egiteko moduak, berreskura eta normaliza litezke. Hau da, espazio eta denbora errealak bila litezke, zeren, nik uste, hor 'kea' saltzen aritzen gara, alegia, egiten dugula esaten dugu, baina gero ez dugu egiten, astirik ez dugulako edo beste lehentasun batzuk ditugulako. Hartara, nik uste dut curriculuma moztu behar dela, eta denbora bilatu, sozioafektibitatearen arloa lantzeko eta metodologia aldatzeko (ikusi dut hemengo gela batzuetan mahaiak U forman jarrita daudela). Bueno, baina horrelako zerbait funtzionatzen hasia da, eta hori geure orduetan sar dezakegu, eta geure klaustroetan berreskuratu. Ez dakizue zer zaila den irakasle-gehiengo bat biltzea, borondatez eta jarrera positiboz, hitz egiteko. Eta zuzendaritzaren aldetik gauzak berreskuratzea: gelako batzarra, ordezkariekiko koordinazio-bilerak, berdinen arteko tutoretza, ikasle guztientzako harrera-plana…, ongi funtzionatzen diren gauza batzuk dira, baina gero hor nonbait ezkutatzen ditugunak, halakorik egiteko astirik ez dugula esanda."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

– *"Taldeen arteko lankidetza, egiturak apur bat hautsirik. Halaber, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legea sustatu eta bultzatzea; hain zuzen, gauza zoragarriak dioz hitzaurrean, idatzita daudenak, baina, gero, zehaztu egin behar direnak. Zuzendaritza-taldeen lidergoaren kontuak, lidergo hori funtsezkoa baita. Hasierako prestakuntzaren kontua; gero, metodologiak eta curriculumak. Askoz dinamika irekiagoak sortzea, ikasleek ere parte hartuta. Eta gero, denborarena, aldarrikatu egin behar dugu eta. Eta, orobat, ikastetxeetan lankidetza-dinamikak sustatzea; hor ikasleak sartu behar dituzu eragile nagusi gisa, eta, gainera, hainbat mailatako ikasleak, eta bereiziak diren baina lotura duten hainbat gaitan."* (Hezkuntzako teknikaria -emak.-)

– *"Guk, geure ikastetxeko tutoretzetan, ez dugu balioez eta halakoez hitz egiten, gu ikastetxeaz kexatu egiten gara. Oso tutoretza-eskola gutxi dugu eta, ez dugu horretaz hitz egiteko astirik."* (Ikaslea -emak.-. Sare pribatua)

5. Ikasleen eta irakasleen arteko tutoretzei dagokionez, biek kritikatu zuten alderdi teorikoa gehiegizkoa zela eta horretarako erabiltzen ziren orduak oso monotonoak zirela. Ohartarazi zuten ezen, pedagogiazko metodologia horren ondorioz –non ikasleei parte hartzeko ia eskatzen ez baitzaie–, ikasleek pentsatzen dutela eskola horiek ordu libreak direla, eta haien engaiamendua eta motibazioa ia hutsak direla. Ikasleok parte-hartzera bultzatze aldera, proposatu zuten alderdi teorikoena neurri batean baztertzea eta eskola berritzaileago, pragmatikoago eta dinamikoagoak ezartzea. Hala, eskola

horietan, kasu praktikoagoak eta zuzeneko bizipenak azaldu beharko lirateke, adingabeek bereganatuta dituzten balioez eztabaidan aritzeko.

– *"Gure ikastetxean, nik uste, gehien egiten direnak tutoretzak dira, ezta?"* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Bai, baina adin batetik aurrera tutoretzek ere ez dute askotarako balio. Beharbada, zeuk esan duzuna egin liteke: taldekako jarduerak antolatu, jendeari ere laguntzeko, edo halako zerbait."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Eta etorkinekin ere bai. Eta horrela, bueno –zailagoa izango da–, baina ikasbidaia egin beharrean, nik ezagutzen dudan batzuk Saharara joan ziren ikastetxearekin, laguntzera, eta guztiak pilo bat kontzientziatu zituzten. (...) Kontua da drogei buruz esan zigutena (drogak hau eta bestea... dira) teorikoegia zela, eta elkarrekin harremanetan egoteko gauza gehiago behar dira. Ama laugarren mailako gelara joan zen, eta jolasak-eta egin zituzten, eta gero denek esan zidaten gustura egon zirela, eta zerbait-edo ikasi zutela."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Niri gustatuko litzaidake ikastetxera jendea etortzea oraintxe hitz egin dugunari buruz hitzaldiak ematera. Iaz Down-en sindromeari buruz hitz egitera etorri ziren, eta nik, hitzaldi horretaz geroztik, jendea kontzientziatuagoa ikusten dut. Eta ingurumena asko lantzen dugun gai bat da."* (Ikaslea -emak.-. Sare pribatua)

– *"Ikasleekin tutoretzak ere aprobetxatu behar dira. Baina tutoretzetan, gehienetan, gaiak oso gainetik aztertzen dira, sakonago aztertu beharko lirateke."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Guk tutoretzak egiten ditugu, baina jendea etortzea gustatuko litzaidake, edo astebeteko edo hilabeteko trukea egitea, beste herrialde batzuk ezagutzeko eta abarretarako."* (Ikaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"Nire ustez, jendeak eskolarik ez balego bezala hartzen ditu halako eskolak –sexologia, adibidez–, hau da, ez dago zertan entzun, eta kito. Zera gertatzen da, 'Hara, jaia!, ordu libre bat bazenu bezala; eta txangoetan, ba, gauza bera."* (Ikaslea -giz.-. Sare publikoa)

– *"Esate baterako, gure ikastetxera duela bi aste inguru Afrikako bi pertsona eta Kolonbiako beste bat etorri ziren, eta egin zuten bidaiaz hitz egin zuten. Adibidez, batek esan zigun Kamerundik zetorrela, eta bi urte kostatu zitzaiola. Eta neskak esan zigun 3.000 euro ordaindu, eta eman zizkioten paperak faltsuak zirela azkenean. Eta gertatutakoak kontatzen dizkizute eta..."* (Ikaslea -emak.-. Sare pribatua)

– *"Ba, nik uste dut baduela eragin sakonagoa, eta jarrerak barrutik aldarazten dituela, eta jardutera bultzatzen zaituela. Eta horixe egin behar da ikastetxeetan, eskola zertxobait zurrunduta baitago."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

– *"Nik bakarrik esango dut asko gustatu zaidan gauza bat ikusi dudala, ikaskuntza-zerbitzua delakoa, alegia. Ezer entzun al duzue horretaz? Guri apaizek egiten ziguten bezalakoa da, azken batean: prestatu egiten zintuzten norabait laguntzera joateko."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

– *"Izugarri garrantzitsua iruditzen zait gazteen sormena aprobetxatzea eta beren prestakuntzaren protagonistak izan daitezen; bueno, nik hortik joko nuke."* (Hezkuntzako teknikaria -emak.-)

– *"Eta, jakina, ikasle guztientzat izan behar du. Ezin da dena tutoretzetan sartu. Neska-mutilak aspaldi ohartu ziren, eta esaten dute: 'tutoretza dator, erlijioaren ordezkoa, hemen ez dugu fitsik egiten. Gainera, notarik ere jarriko ez digutenez.'"* (Irakaslea -emak.-. Sare publikoa)

Ikastetxeetako arduradunek, gainera, proposatu zuten esku hartzeko ildo hori tutoretza-ordu bakan eta bakartuetatik atera behar zela, eguneroko jarduneko hainbat arlotara atera, hain zuzen, hura gauzatzeko eta normalizatzeko aukerak sortuta.

– *"Eta gero, gertaeretatik, jokabideetatik, ikasten denez, eskolan aukera sortu beharko lirateke balioak bizitzeko. Eta horrek irakasgai edo eduki bat gainditzen du.... eta ikasleak kontzientziatu egin beharko lirateke."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

6. Transmititu beharreko balioetan, funtsezko bi balio nabarmendu ziren. Lehen balioa ikasleen artean ardura eta lankidetza sustatzeari dagokio.

– *"Orduan, honi eta besteari buruzko kanpaina asko, baina gero egunerokoan, beharbada, oinarrizko gauzetan huts egiten dugu, ezta? Orduan, balioak? Ba, nik uste dut koska dela zuk ikasleekin portatzen zaren modua, zer eskatzen diezun eta zer eskatzen diozun zeure buruari. Nik baldin badiot neska edo mutil batek autonomia, elkartasuna, taldean lan egiteko gaitasuna eta abar izan behar dituela, ba, begira, gu aurten ikasbidaia huts batean planteatu dugu hori. Gaur egun arte txartelen, polboroien eta halakoen bidez antolatu izan dugu. Ba, hutsetik hasi behar dugu, eta hau planteatuko diegu: bidaia zuena da, hasieratik bukaeraraino landu behar duzue. Beraz, antolatzea, taldeak, zuzendariari idaztea, telebistara telefonoz deitzea, Interneten sartzea eta hegaldi merkeak bilatzea, hau da, den-dena zuen gain hartu behar duzue, bidaia zuena delako. Gainera, guri ez digute ordaintzen zuekin joateagatik, curriculumetik kanpoko zerbait da. Hartara, hemen jende guztiak lan egin behar du; normalean gehienik neskek laguntzen dute eta nahasten dira, baina, orain, aldiz, den-denok parte hartu behar duzue. Hain gauza sinple horrek balio die. Eta orain Hezkuntzatik esan diezadatela ez dakit zer balioz hitz egin behar dudala eta tutoretzako eskola batean ez dakit norekin bat egin behar dudala, egoera hipotetikoak planteatzeko fitxa bat ekarri dizutela. Iruditzen zait haiek antzerki-lantxo baten moduan ikusten dutela. Horrenbestez, hori bideratzea eta egunez egun, eguneroko jardunean, ahal dena egitea, besterik ez."* (Irakaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"...guri ez digute inoiz ezer eman sexuei, drogei eta antzekoei buruz. Beraz, aurten, ordezkariek eskaera eraman dute eskola-kontseilura, Udalera-edo dei dezatela, norbait ekartzeko. Pixkanaka, gauza gehiago eskatuko ditugu."* (Ikaslea -emak.-. Sare pribatua)

7 . Bigarren balioa gizartekoitasunarekin lotura handiagoa duen gaitasun baten ingurukoa da, lankidetza, enpatia eta halako pertsona arteko trebetasunak aintzat harturik. Balio hori garatzeko, boluntariotzarako guneak eta kirol-jarduerak sustatzea proposatu zuten.

– *"Nire ustez, aisia ona da, baina era kontrolatu batean, zeren, bestela, orduak eta orduak ematen dituzte kalean, eta ziur bihurrikeriaren bat bururatzen zaiela. Horregatik nik aisialdi kontrolatuan pentsatzen dut, ikastetxetik antolatua, beharbada, astialdiko taldeekin, edo mendi-taldeekin, edo kirol-jarduerekin. Kirola guztiz garrantzitsua iruditzen zait, batez ere adin horietan. Nik uste dut neska-mutil horiek dagoeneko ohartzen direla bidegabekeriez eta antzekoez, eta dena konpondu nahi izaten dutela. Eta hori halako jardueren bitartez bidera liteke, daitekeena da. (...) Orduan, neska edo mutil horietako bat ongi zuzendutako aisia batetik bidera badaiteke, ba, beharbada, hori konponbide bat izan daiteke. Azkenean, ikastetxean, matematika eta beste gauza asko ikasteaz gain, balioei buruz lan egin beharko litzateke, errespetuan oinarrituta. Azkenean, balio argiak eta muga batzuk badituzte, ba, aurrera egingo dute, baina aisia kontrolatu batekin."* (Aita. Sare pribatua)

– *"Bai, nik ikastetxeari gehiago eskatzen jarraitzen dut. Nire balioen eta nik ikasitakoaren barruan, ikastetxeak lagundu egin behar du, eta baliabideak jarri behar ditu. Beste gauza bat: kirola, nire ustez, funtsezkoa. Haur bat kirolean hasten bada, diziplina, ordutegiak izaten, eta abar irakasten dizkiozu, bai eta taldean aritzen eta lehiatzen ere.. Galtzen jakitea irabazten jakitea baino garrantzitsuagoa da. Eta seme edo alabari irakatsi behar zaizkion gauzetako bat da, arbitroak txilibitua jotzen duenean partida bukatu dela eta lehiakideari eskua estutu behar diozula, eta pentsatu: 'Lagunak irabazi ditugu.' Hau da, heziketa ikastetxean, ikastetxea gehiago engaiatzea, kirola, eta abar."* (Ama. Sare publikoa)

– *"Oso garrantzitsua iruditzen zait, halaber, ikastetxean dagoen boluntario-taldea; balioetan hezten laguntzen du, eta ostiraletan, esaterako, egiten den eskolaz kanpoko jarduera bat da. Nire iritziz, boluntariotza ezin hobea da bestelako jende bat dagoela ikusteko, eta jende horrek ez dituela, beharbada, nik ditudan aukera berberak. Nik uste dut boluntariotza sustatzea bikaina izango litzatekeela."* (Ama. Sare pribatua)

– *"Antzeko ildo batean, nik uste, neska-mutil asko oso bakarrik daude, astialdi luzearekin uzten direnak, oso aspertuta, eta boluntariotzako proiektuak eskaini ahal zaizkie halakoei. Edo gizartetik edo kulturatik datozen ekimenak izan daitezke, hala nola udaletan, Bilbao-Gaua; edo kirolaren, kulturaren, gizartearen arloko ekimenak; edo antzerkiko, dantzako, musikako taldeak; denetarik, neska-mutilak zaletasuna piztén dieten proiektuetan engaiatzeko balio duen edozer."* (Ama. Sare pribatua)

8. Balioak, taldeetan azaldu zen eran, dagozkien arlo guztietan transmititzea ahalbidetzearren, beharrezko baliabideak eskatu zituzten; hala, besteak beste, eskatu zuten baliabide ekonomiko nahiz giza baliabide egokiak kudea zitezela helburuari ematen zaion lehentasunarekin bat.

– *"Baina, batez ere, eskolan ezer alda dadin nahi badugu, erakundeek, Arartekoak edo dagokionak nahi baldin badu ezer alda dadin, dudarik gabe, denbora dezente, diru dezente, prestakuntza dezente eta ideia dezente sartu beharko ditu. (...) Orduan, ezer transmititu nahi badiegu, diziplina arteko lana egin beharko da, zeharo. Irakasleok horretan uste osoa izan beharko dugu, eta, jakina, beharrezko baliabide guztiak sartu beharko dira. Bi irakasle behar badira gelako, bi, eta hiru behar badira, hiru. Eta sentitzen dut, baina ikastetxeetara hainbeste ordenagailu bidali beharrean, diru hori beste gauza batean erabiltzen badute, ba, begira, ederto, ederto. Izan ere, oso irudi ona ematen duen eta oso ondo geratzen den ikaragarrizko sos-mordoa gastatu dute, baina, gero, metodologia berriak, gelako bi irakasle planteatzean... Ixo, Zer ari zara esaten?"* (Irakaslea -emak.-. Sare publikoa)

Baliabide fisiko horiez gain, denbora ere behar dute, lan-ordutegiak familiari egokitu ahal izateko, langileek heziketan duten eginkizuna aurrera eramateko egiazko aukera izan dezaten, eta seme-alabek arlo horretan dituzten beharrizanak bete ahal izan ditzaten; horretarako, berariaz aipatu zuten "familiarekin bateragarri egin" terminoa.

– *"Txostena Arartekoarentzat denez, badago funtsezko gauza bat: familiarekin bateragarria izatea. Hau da, jendearen lan ordutegiak zoramena dira, zoramena. Nire ustez, behar-beharrezkoa da, gizartearen aldarri bat, ez dela zentzuzkoa gurasoek etxera gaueko bederatzietan iristea. Hori ezin da hala izan. Europako gainerako lekuetan dituzten ordutegiak zentzuzkoagoak dira. Nik pentsatzen dut gizarteak garatu egin behar duela, ez dakit, ba, baina Europako ordutegiak ez dira horrelakoak. Familietan lanaldi zentzuzkoagoak izan daitezke, seme-alabekin egon ahal izateko, neska-mutilak franko bakarrik daudelako. ...bai, ba omen dago korronte bat, Europakoen antzekoagoak diren ordutegiak ezartzen saiatuko dena, familia barruko komunikazioa posible egiteko."* (Ama. Sare pribatua)

– *"Bai, nik horixe behar dut, orain etxean lagundu behar baitiet, eta batzuetan ni hainbeste egitekorekin iristen naiz etxera, ze esaten dut: 'Gaur sekulakoak entzun beharko dituzte, ziur.' Izan ere, oso nekatuta iristen naiz, eta aitortzen dut hori ez dela ona; gero, dena dela, barkamena eskatzen diet. Kontua da ni ez naizela superwoman bat."* (Ama. Sare pribatua)

9. Lehen aipatu dugun ordezko ikaskuntzaren ideian oinarritzen da txikienen artean eredu ukigaia izatearen garrantzi hori. Ideia hori abiapuntu harturik, egunez eguneko gure jarduerek heziketan duten eragina teorien eta proposamenen aurretik kokatzen da. Horregatik, adingabeentzako denbora izateaz gain, denbora hori kalitatezkoa izan dadin nahi dute; horretarako, balioak transmititzeari dagokionez, beharrezkoa da koherentziari eutsi diezaiogun predikatzen dugunaren eta gure jokabidearen artean, ondorengo adibideetan ageri denez.

– *"Eta gero, familiaren aldetik, nik balioen transmisiorako ikusten dudan metodo bakarra da koherentzia bilatzea nik kontrola ditzakedan seme-alaben inguruneetan, haietan eragina izateko aukera dagoen bitartean. Gero, ikusiko dugu nondik jotzen duten, baino bitartean, esandakoa: familiaren aldetik."* (Ama. Sare pribatua).

– *"...Nire ustez irakasle eta gurasook erreferentzia-puntuak gara gazteen balioei dagokienez. Eta etxean gu bizi ditugun balio errealak, kontsumoaren arloan, kontsumitzeko eta gastatzeko dugun eran, agenda 21en kontuan, eta gero ni neure 4 X 4 ibilgailuan joaten naiz aitite bisitatzera… Horiexek dira helduen –gurasoen nahiz irakasleen– jarrerak, eta haiek bizi ditugunez, gehien hezten dutenak dira. Nire iradokizuna, beraz, horren ingurukoa da. Hain zuzen, zuk balioak aldatu nahi badituzu, edo helduok ere haiek bizi ditugu, bai etxean bai ikastetxean (eredu izatea) edo, bestela, guk egiaz bizi duguna transmititzen jarraituko dugu."* (Irakaslea -giz.-. Sare pribatua)

– *"Eta gero, jarduera zehatzak egin behar dira; asko egiten dira ekologiari buruz, bakeari buruz, elkartasunari buruz, eta orain liburu erabili solidarioaren azokaren erdian gaude, hain zuzen; liburuak salerosi egiten ditugu, eta lortzen den diruarekin Boliviako gure ikastetxe bati lagunduko diogu, baliabiderik ez du eta. Baina, nik uste, halako gertaerak une jakin batzuei lotuegi dagozkie; urtero egiten ditugu, eta ikasleek prozesu osoa bizi izaten dute (2 urte dituztenetik 18 bete bitartean, eta horiek urte asko dira). Baina, dena dela, une jakin batzuetako ekintzak ez dira balioak ezartzen dituzten jarreretarako hezten dutenak. Nik, benetan, gutxiago sinesten dut une jakin bateko ekintzetan, eguneroko balioen transmisioan baino, helduen esperientzian oinarriturik betiere. Eta orduan, gazteak balioetan hezi nahi dituzu? Ba, zeuk ere bizi itzazu. Ezin duzu indarkeriarik EZean hezteko asmorik izan, eta zuk indarkeriaz jokatu umeekin, edo emaztearekin, edo ikasleekin, edo gizartearekin. Edo armadaren alde egin, edo helburu politikoetarako indarkeria erabiltzea aldeztu. Nik hori argi dut. Nik pentsatzen dut, gainera, gure gizartean urte asko daramatzagula indarkeriaren kontuarekin eta gatazka politikoarekin, eta horrek guztiak hezi egin du gure gizartea, eta hori kentzea prezio handia kostatuko zaigu guztioi, prezioa handia izango da, horrexek hezten baititu pertsonak, bizi denak. Horra hor zer esango nuke."* (Irakaslea -giz.-. Sare pribatua)

– *"...transmititzen ditugun balioak dira bakoitzak daukaguna, eta egunero egiten ditugunak. Neska-mutilek benetan jartzen dute arreta gure jokabidean, eta ez bakarrik gelan esaten dugunean. (...) Baina, egiaz, egunerokoak balio du."* (Irakaslea -emak.-. Sare pribatua)

– *"...lanean jarraitzea eta gero, esan den bezala, koherentzia bati eustea irakasle gisa nahiz pertsona gisa."* (Irakaslea -emak.-. Sare publikoa)

– *"...haiei irakastea, ereduaren bidez heztea, eta abar, eta abar, hitz potoloak gorabehera."* (Irakaslea -giz.-. Sare publikoa)

10. Azkenik, hezkuntzako teknikariek aldarrikatzen dute beharrezkoa dela ikasleei beren erabaki eta portaeren ardura harraraztea; eskubide eta betebeharren dekretua

nabarmendu dute berriz, ikasleek maiz ez ikusiarena egiten dioten dekretu bat, hain zuzen, azterketa honen zehar egiaztatu denez.

– *"Gero eta familia gehiago etortzen zaigu haiekin ezer egin ezin dezaketela edo zer egin ez dakitela. Eta gurasoek ezin mendera baditzakete, zer egin eskolak? Orduan, familia-politika aktiboekin lagundu behar zaie."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

– *"...ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko dekretu berria da. Nire ustez, aukera ona da familiei, eta ikasleei berei, saltzen saiatzeko, ez zigortzeko zirkulazio-kode gisa, ez baita hori, baizik eta gastronomia-elkarte bateko estatutuen erara, e? Hau da, orain aldatu egin dutenez, abagunea da orain arte dekretu horrek izan dituen konnotazio guztiak aldatzeko."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

Hitz batean, pentsa daiteke betebeharrik ez egote horren ardura –jaso diren askotariko aldagai eta hipotesiak gorabehera– kolektiboek azkenean familiari egozten diotela, eta horrekin batera badagoela oraindik ikasleen rol pasiboa sustatzen duen hezkuntza-sistema bat, adingabeen pentsamendu kritikoa eta sormena sustatzeko toki gutxi uzten duen sistema bat.

Eta, beharbada, parte-hartzaileetako batek aipatu zuenez, belaunaldien arteko balio-transmisio hutsetik harago joanik –eta orain arte baliozkoak izan diren erreferentziazko eredu batzuk emanik eta arau gisa dugun eskubide eta betebeharrei buruzko dekretua aintzat harturik– balio horiek egun duten baliozkotasuna zalantzan jarri beharko genuke, eta gaur egungo gizarterako egokiak diren balioak sortzea sustatu, norberaren gogoeta eta parte-hartzeen emaitza.

– *"Orduan, berriz ere planteatu beharreko kontu garrantzitsua da, alegia, kulturak eredu batzuk izan behar ditu, baina azkenean ez dago transmisiorik, baizik eta balioen eraikuntza gertatzen da."* (Hezkuntzako teknikaria -emak.-)

Horrela, baldin gazteei kentzen badiegu itxuraz asmo onik ez duen gizarte baten aurreko mendetasunaren eta babesgabetasunaren estalkia, eta baldin indarrean dauden balioen esperientziaren baliabideak eskuratzen badizkiegu (kritika merkea gaindituta), gutxienez bide aktibo batetik abiatzeko aukera emango diegu, nahi duten gizartearen bila, ibilbide horretan zehar agertuko diren erronkak era aktiboan beren gain hartuta.

– *"Ni ados nago berarekin, balioak dira gizarteak, zure inguruneak, ezartzen dizkizutenak, baina beste gauza bat da neska-mutilek nola prozesatzen duten hori, eta zer tresna jartzen ditugun, edozein arlotan, familian, baliabideetan eta abarretan. Zeren, jakina, dagoenarekin harremanetan jarrarazi baino ez bada egin behar, lehen ere esan dugu erabateko hipokresia dagoela, eta balio horiek existitzen dira, eta hor daude. Beste gauza bat da ea horrela irautea nahi dugun ala nahi dugun gure iritziz positiboak diren balioak bizi ditzaten adingabeek, eta etorkizunean balio horiek, hain zuzen, indarrean egon daitezen. Utopia? Beharbada, halaxe da, baina eskolan hori ez badugu planteatzen, alegia, zerbait positiboa egin daitekeela..."* (Hezkuntzako teknikaria -giz.-)

# ONDORIOAK

Atal honetan dokumentu osoan zehar azterturiko alderdietatik atera diren ondorioak jaso dira; hain zuzen, lau zati nagusitan antolatuta zeuden alderdiok:

1. Lehen Hezkuntzako 2. zikloko ikasleei eginiko galdera-sortaren azterketa.
2. Lehen Hezkuntzako 3. zikloko ikasleei eginiko galdera-sortaren azterketa.
3. DBHko ikasleei eginiko galdera-sortaren azterketa.
4. Ikasleekin, irakasleekin, aita-amekin eta berritzeguneko langile nahiz hezkuntzako ikuskariekin osatutako lau eztabaida-taldeen azterketa.

## 1. LEHEN HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOARENTZAKO GALDERA-SORTA

Kapituluaren hasieran genioenez, baldin balioaren kontzeptutzat ematen badugu pertsonen jokabidea gidatzen duen eta gure jarduerei gizartearen aldetik zentzua ematen dion hura, ongia, gaizkia, zer dagoen onartua eta zer arbuiatua zehazten duen hura, gizartean dugun presentziari esanahia ematen dion hura –barnean hartzen eta besteengandik bereizten gaituen gure antzekoen giza talde batekin partekatzen dugulako–, orduan, ulertu behar dugu ezin saihets daitekeela gizarte batean gehienek partekatzen dituzten balioen eragina, kulturaren nahiz gizartearen aldetik. Hala ere, balio partekatu batzuekin batera (horiek gizarte-gorputza egituratzen duten balio handiak dira, nolabait esatearren), badaude aldi berean beste hainbat balio-sistema, era paraleloan, eta halakoek modu bateko edo besteko eragina izaten dute, gu kokatuta gauden gizarte-sarearen arabera, baina, halaber, gu gainditzen gaituzten kanpo-eragile batzuen eraginaren arabera.

Gaur egungo gizarteetan hainbat balio-esparru aldi berean egonik, sarritan behartuta aurkitzen gara erabakiak hartzera garai batean jakintzat ematen ziren gai batzuetan. Beren unibertso nomikoarekiko koherentzia zorrotzari eusten dioten pertsona batzuk izan ezik, gehienak saiatzen dira eguneroko bizitza bateragarria egiten une jakin batzuetan, bizitzako funtsezko egoeretan, edo eboluzio-prozesuetako aldi bakoitzean baliagarriak diren balio batzuk edo beste batzuk hautatuz.

Baina, lehen ere genioenez, ziurrenik, balioak hautatzean ez dago hezkuntza baino ingurune konprometituagorik. Geure errealitatearen parez pare jarri eta besteek begiratu eta eredu-

tzat erabili bezain sarri, gure hautaketan nolabaiteko koherentzia bilatu behar izaten dugu, halabeharrez.

Haur txikienek duten balio-unibertsoa helduek –guraso eta irakasleek, bereziki– transmititzen dietenetik oso hurbil egoten da. Oraindik ez dute hasi beren pentsamendua beren nagusienetik bereizteko aldia, bizitzaren aurrean berezko diskurtsoa osatzeko. Horrek esan nahi du aita-amek eta irakasleek mailegaturiko balio-multzoa erabiltzen dutela. Ikaskuntzak baldintzatzen du zer pentsatzen duten.

**Gizartekoitze-eragile**ei dagokienez, gauza berria da irakasleak jar ditzaten lehen tokian bizitzan bide bat edo beste hartzeko orientazio-iturritzat, baita gurasoen gainetik, nahiz eta aldea oso txikia izan.

Oso daitekeena da galderak berak eragina izana erantzundakoan. Galdera “Denok jakin behar dugu zer egin behar den, edo zer den garrantzitsua eta zer ez. Zuk non ikasten duzu hori?” esanez galdetzean, beharbada ikastea eskolari lotzen zaio. Adin horretan, gauzak ikasteko bide nagusia eskola eta hango irakasleak dira. Horregatixe, hain zuzen, zaigu ulergarria haur-kolektibo horretan irakurketak duen indarra, liburuak are adiskideen gainetik ere nabarmendu zituzten eta.

Nolanahi ere, eta 8 urtetik 16 urtera bitarteko kolektibo guztiari dagokionez, hiru egiturak osatzen dute bizitzari buruzko ikaskuntza: familiak, irakasleek, eta adiskideek. Zeinek bere maila edo garrantzia duela, baina horiexek dira haurtzaro eta gaztaroko garapenaren aldietan zehar dirauten hiru gizartekoitze-zutabeak. Hiruetarik, irakasleek pisua galtzen dute denbora igaro ahala, eta beste biek aldatu gabe diraute.

Nabarmendu egiten da haur eta gazteen populazioak, oro har, adiskide-taldeari ematen dioten garrantzia, bai eta hain kolektibo aldakorrean –8 urtetik 16 urtera bitarte– atzematen den antzekotasuna ere. Adiskide-taldea, gizartekoitze-iturrietan, hasierako hiru edo lauen artean jartzen dute, eta horrek aditzera ematen du zein garrantzitsuak diren familiakoak ez diren berdinen arteko harremanak. Beharbada, familiak hain kide ugarikoak ez diren eta haurride-kopurua txikiagoa den garai batean, adiskideek ordezkatu dute berdinen erreferentzia, gizakiaren izaera gizartekoia dela medio; hain zuzen, gizakiak oso egoera zehatz eta berezi batzuetan baino ez dio uko egiten bere alderdi gizartekoiari.

Egon daitezkeen gainerako ikaste- eta gizartekoitze-eremuak, denak, garrantzia galduz joaten dira adinak gora egin ahala.

Horixe gertatzen zaie liburuei, hots, txikienen hirugarren ikaskuntza-iturriari. Nahikoa proportzio handian adierazten dute 8 urtetik 10 urtera bitarteko haurrek liburuetan ikasten dutela bizitzan zer egin behar den edo zer den garrantzitsua, baina DBHko ikasleen artean proportzio hori nabarmen gutxitzen da. Deigarria da, izan ere, populazio horretan liburuen garrantziak duen berebiziko beherakada hori. Beharbada, galderan erabiltzen den “ikaste” terminoak erantzuna bideratzen du, baina, era berean, bada egia gaur egun hezkuntza-sisteman irakurzaletasuna oso txikitatik bultzatzen saiatzen direla. Arazoa da estimulu hori galtzeko arrazoiak aurkitzea. Gogoeta egin beharko genuke adin jakin batetik aurrera hori hain neurri nabarmenean aldatzeko arrazoien inguruan.

Azpimarratu beharreko aldaketa bat erlijioen eragin-ahalmenean gertatzen da, bereziki gehiengoaren erlijioari, Eliza Katolikoari, dagokionez. Hain zuzen, 8 urtetik 10 urtera bitarteko haurretan, ia erdiak kontuan hartu zuen erlijioak duen ahalmena bizitzan zer den garrantzitsua ikasten laguntzeko, baina proportzio hori asko murrizten da adinean gora egin ahala. Alde hori interpreta daiteke, gure aburuz, lehen jaunartzearen bidez: hura 10 urterekin egiten da, eta, hala, horrek haur ugari atxikitzen du parrokietan, baina behin lehen jaunartzea egin eta gero, askoz gutxiago dira parrokietan jarraitzen dutenak, eta erlijioak haurrengan duen eragina askoz ahulago bihurtzen da.

Zehatz-mehatz azter ditzagun orain 8 urtetik 10 urtera bitarteko haurren hiru oinarrizko gizartekoitze-eragileak, banan-banan.

**Familia** gizartekoitze-esparru nagusia da; primarioa, baina, orobat, bizitza osoan zehar gehien irauten duena. Familiaren krisirik ez, baizik eta familia barruan egitura- eta funtzioaldaketak gertatu direla esan daiteke, gizartearen egitura bera aldatu izanaren ondorioz.

Familiak egituraren arabera sailkatu ditugu, hots, kideen arabera. Oraindik ere familia gehienak ama, aita eta umeak dituztenak dira, batez ere haurren artean. Populazioa osoa, oro har, hartuz gero, familiak pluralagoak izango lirateke, eta familia klasiko nuklearrak neurri zertxobait txikiagoan agertuko lirateke. Azken urteotan, gora egin dute pertsona bakarreko familiek edo familia nuklearraz bestelako harreman batzuk dituzten pertsonek osatutako familiak. Baina 8 urteko 10 urtera bitarteko familiak, gehienetan, bi gurasoek eta umeek osatzen dituzte. Gehien-gehienetan bi ume daude. Familia ugariak asko murriztu dira azken urteotan (gehienak hiru ume dituzte, eta bakanak dira, oso, hiru baino gehiago dituztenak), eta pixkanaka gehitu dira, aldiz, gurasoek eta seme edo alaba batek osaturikoak, bai eta familia gurasobakarrak ere (gehienak, umeak dituzten emakumeak dira). Familia zabalaren kontzeptua erabili dugu, guraso eta haien ondorengoaz gain, familian beste pertsona batzuk ere bizi diren egoeretarako. Halako familietan, batez ere, lehenagoko belaunaldietako kideak egoten dira, baina osaba eta izebak ere bai, are senitartekoak ez diren pertsonak; dena dela, azken kasu horietan ama edo aiten bikotekideak izaten direla pentsatzen dugu.

Ez da asmorik egon tipologia horren bidez familia-mota batzuek beste batzuen aldean dituzten ontasunak nabarmentzeko. Oinarritzat, Funes-ek familiaz eratu zuen “familia” kontzeptua hartu genuen, alegia, estimulu-, segurtasun- eta maitasun-iturri egonkorraren kontzeptua, eta horrek edozein familia-motak bete dezake, eta, halaber, edozein familia-motak ere bete gabe utz dezake. Hala ere, familia-osaerak badu eragina, eta pertsonei mota bateko edo besteko ezaugarriak eransten dizkie. Haurrengan lotura emozionaleko prozesu batzuk edo beste batzuk gertatzen dira, familia osatzen duten kideen arabera. Esate baterako, familia ugarietan, beren berdin bat baino gehiago dutela partekatzeko, mundu-ikuskerak modu batekoak izango dira, familia zabalekin erkatuta, azken horietan haurrak, beharbada, helduez osaturik mundu batean bizi direlako. Familien sailkapena ikuspegi horretatik erabili dugu.

Espero izatekoa zen 8 urtetik 10 urteko bitarteko haurrek familiaren kontzeptu klasikoa jo zezaten familiatzat. Gehien-gehienak halako familietakoak dira, baina gizartean dagoen irudi iraunkorra ere (publizitatea, telesailak, marrazki bizidunak) halako familiarena da. Neurri

txikiagoan hartzen dute familiatzat ama batek eta ume batek osatutako familia. Hala ere, hamarretik lauk, bai, familiatzat jotzen dute; horrenbestez, nahiz eta, familien artean, gurasobakarrak ez izan gehienetan aurkitzen direnetakoak, halakotzat jotzen dute neurri handi batean, proportzio hori nahikoa ez den arren familia-egiturak normalizatzeko. Bi amak eta umeek edo bi aitak eta umeek osaturiko familiak neurri txikiagoan hartzen dira halakotzat; dena dela, ama-irudiak indar handiagoa du familia bat zer izan daitekeen erabakitzerakoan.

Nagusiago egin ahala, familiaz duten kontzeptua pluralagoa da, eta eredu tradizionalaz beste eredu batzuk ere kontuan hartzen hasten dira. Familia gurasobakarrak askok onartzen dituzte, ez, ordea, guztiek; eta gay eta lesbianen familiak ere onartzen dira, neurri txikiagoan, dena dela.

Familiaren funtzionamenduari dagokionez, haurren etxe gehien-gehienetan funtzionamendu egokia dagoela ikusten da. Natural adierazten dute maitatuak sentitzen direla, txera eta maitasuna jasotzen dituztela, beharrezkoa denean zigortzen dituztela, eta gurasoekin batera egoten direla eta astialdia pasatzen dutela. Ikuspegi horretatik, esan dezakegu adin horietan hiru funtzionamendu-mota atzematen direla familietan, umeek ikusten dutenaren arabera: familia-multzo batean ezaugarri nagusiak dira txera eta maitasuna adieraztea eta seme-alaben zereginetan engaiatzea; beste familia-multzo batean, kezkatuago daude funtzionamendu-jarraibideak ezartzen; eta azken familia-mota batean, kezka nagusiak zigorrak ezartzea eta arauak betearaztea da.

Familia txeratsu eta engaiatuak familia zabaletan aurkitzen dira neurri handiagoan. Beharbada, familiak kide gehiago edukita, helduengandik txera eta maitasuna hartzeko aukerak gehiago dira. Aitonekin, amonekin edo beste senitarteko batzuekin bizi diren haurrek hautematen dute haien familia txeratsuagoa eta engaiatuagoa dela. Familia horietan, halaber, adierazten dituzte seme eta alabek neurri handiago batean gurasoekin ongi moldatzen direla. Hau da, txera, maitasuna eta gurasoak umeen zereginetan eta astialdian engaiatzea alderdi garrantzitsuak dira seme-alabek senti dezaten familiak funtzionamendu ona duela.

Familia zuzentzaileak, dirudienez, familia ugarietan gertatzen dira gehiagotan, gainerakoetan baino. Ume-kopurua handiago izanik, beharbada hori arrazoia izan daiteke gurasoek familia-funtzionamendu hertsiago bat ezartzeko, non arlo akademikoak garrantzi handia baitu familiaren barruan. Familia zabaletako haur batzuek ere lotzen diote beren familia eredu horri, baina ia ez dago familia gurasobakarretako edo ume bakarreko familietako umerik eredu horretan.

Familia zigortzaileei dagokienez, esan behar da gutxi direla, baina zigorrak beste alderdi batzuei gailentzen zaizkiela. Daitekeena da haurrek ikustea gurasoek garrantzi gehiago ematen diotela araua ezartzeari, afektibitatearen arloari baino. Hor ageri dira beren familia-harremanak ontzat ematen ez dituzten haurrak, eta horrek aditzera ematen du gatazka edo gatazka-pertzepzioa areagotu egiten dela familia-mota horretan.

Gazteegiak dira oraindik, 8 urtetik 10 urtera bitarte horretan, familian garrantzi handiko eztabaidak izateko, eta, hortaz, familiako eztabaida gehienak izaten dira anai-arrebekiko liskar eta ika-mikengatik, telebistagatik edo eskolako lanengatik. Familia gehienetan, bizpahiru

arrazoi izaten dira eztabaiden sorburu. Oso familia gutxitan eztabaidatzen da familiako arazoengatik (%4,7), eta haien artean daude, beharbada, familia arazotsuenak. Deigarria da haurren %10ek baino zertxobait gehiagok adierazi zuela gurasoekin inoiz eztabaidatu ez izana. Ez dugu, egia esan, nahikoa oinarri jakiteko zein diren eztabaidarik ez egoteko arrazoiak, kontuan izanda eztabaidatzeko arrazoi gisa aurkeztu zirenak intentsitate apalekoak zirela, hots, adin horretarako egokiak ziren gatazken araberakoak. Bizpahiru ume dituzten familietan eztabaiden maila batez bestekoaren gainetik zegoen, eta, ordea, familia zabaletan egoten da eztabaida gutxien.

Haurrak zeregin batzuk autonomiaz aurrera eramateko gaitasunak berenganatzen hasiak dira. Hala ageri da eskolako lanei eta etxean laguntzeari dagokienez. Dena dela, egin ahal duten baino gutxiago egiten dutela ere aitortzen dute. Jakin badakite gurasoek egin ohi dituzten zeregin batzuk haiek ere egiteko gai liratekeela. Bi aukera dago hor: edo gurasoek seme eta alaben zereginak egiten dituzte, baina ardura-falta aurpegiratzen dizkiete zereginok ez egiteagatik –horrela umeek ez dutela laguntzen barneratzen dute, baina egitekorik egin gabe jarraitzen dute, dagoeneko gurasoek egiten dituztelako–; edo gurasoek bere gain hartzen dituzte umeek egin ditzaketen zereginak, azken horiei autonomoak izateko aukera eman gabe. Daitekeena da seme-alabenganako gainbabesa horren azpian egotea.

**Eskola** da bigarren funtsezko oinarria haurrak gizartekoitzeko triadan. Etxetik kanpo dagoen gune horretan, hain zuzen, gertatzen dira heldu egin, ardura hartu eta arau eta mugak ikasteari loturiko prozesuetako asko. Hala ere, ikastetxeek (goragoko mailakoak, hala nola unibertsitateak, barne) gizartearen beharrizan berriak betetze aldera etengabe egokitu behar izaten dutela eta, –ikaskuntza-metodologia berrien aplikazioaz, ezaguera berriez edo hizkuntzen aldakortasunaz gain– lan-filosofia egokikorra, etengabe aldatzen dena, hartu behar izan dute, eta horrek kezka eta egonkortasunik eza sortzen ditu hezkuntzaren arloan, ez baitago oso ohiturik bere eginkizuna era horretan aurrera eramatera.

Gaur egungo gizartearen eraketak beharturik, eskolak beste gizartekoitze-eremu batzuei (erlijioa, familia, eta abar) zegozkien esku-hartzeak sartu behar izan ditu heziketa-prozesuan, eta, horrela, ardura ikastetxeari atxiki izan diote; baina, halaber, arlo berri eta ezezagun batzuk sortu dira, edo lehen gizartearen sentiberatasuna erakartzen ez zuten beste arlo batzuk. Egia da portaera arau-hausleak prebenitzeko jarduera batzuk aspalditik aurrera eramaten ari direla (droga-kontsumoa prebenitzeko jarduerak, eskolan indarkeria prebenitzea, zailtasunak dituztenen kasuei goiz antzematea, eta abar), baina, antza, ez da nahikoa izan. Hezteko eta prebenitzeko jarduerak eskatzeaz gain (baina horiek ere bai, noski), gizartea eskolari galdegiten hasia da erabateko eta osoko engaiamendua izan dezala gazteenen heziketan, aita-amen eta irakasleen arteko loturaren ardatza izan dadin, haur bakoitzarengandik ahalik eta gehiena lortzeko, haien ahalbideekin bat, betiere Horretarako, sistema arlo askotara zabaldu behar da, eta haurrei egokitu, beharbada aplikatuz osasun-arloan esan ohi dena (beharbada ez da egiten), alegia, ez dagoela gaixotasunik, gaixoak baizik; beraz, guk hemen esango genuke: "ez dago heziketarik, hezigaiak baizik".

Haurrek gogobetetasun-maila egokia adierazi zuten irakasle, gelakide eta adiskideei dagokienez. Horren erakusgarria da ezen hamarretik zortzik esan zuten harreman onak zituztela irakasle, gelakide eta adiskideekin. Eta ingurune horretan, oinarrizko balio batzuk ere

barneratzen hasten dira, hala nola elkartasuna. Hain zuzen, 8 urtetik 10 urtera bitarteko ikasle gehienek nahikoa iritzi ona zuten beren elkartasunaz. Beste haur batzuei laguntzen diete triste daudenean, gutxiago dutenekin gauzak partekatzeko joera dute, eta ez dituzte jolasak adiskide-taldera bakarrik mugatzen. Hala ere, guk uste dugu erantzun horiek arrazionalak direla, hau da, pentsatzen dutela erantzun-mota hori eman beharra dagoela, ikasi dutelako jokabide horrek indargarri positiboa dakarrela, egiaz barneraturiko eta praktikan emandako jokabide bat izan beharrean.

Generoaren araberako alde zenbait ageri dira. Neskatoek, nolabait, emakumetasunaren eredu tradizionala errepikatzen dute, haiek agertzen baitira sentiberenak gehien behar dutenak babesteko garaian, baina babesa beharrezkoa ez denean, eta egoeren artean berdintasuna dagoenean, badirudi mutikoek eskuzabaltasun handiagoa izaten dutela. Aldeak txikiak dira, eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren estereotipo batzuk oraindik badaudela baino ez dute erakusten, haietako asko gainditu diren arren.

Adin horretan gatazkakortasuna handia da, geroagoko adinetan baino handiagoa, beharbada. Norgehiagokak eta lehiak gizarte-kontrol handirik gabe azaleratzen dira. Gizarteak oso gizartekoiak ez diren portaera zenbaiti eusteko erabiltzen dituen kontrol informalak ez dituzte barneratu oraindik. Horrexegatik esaten dugu gatazken ebazpena aldi heldugabean dagoela, eta lehiak, norgehiagokak, bekaizkeriak eta segurtasunik ezak arazoak sor ditzakete ikasgelan. Hala, ikusten dugu hamar ikasletik lauk esan zutela ikaskideei burla edo barre egin zietela edo iraindu zituztela; heren batek onartu zuen ikaskideak jo izana; laurden batek aditzera eman zuen lagunak baztertu zituela, eta, beraz, pertsonak baztertzen zituela, haiekin egon nahi ez bazuen; eta %10 inguruk esan zuen lagunak mehatxatu zituela, nahi ez zuten zerbait egitera behartzeko. Berriro ere, generoak jokabide desberdinak uzten ditu agerian, nahiz eta jokabideak erabat bestelakoak ere ez diren. Badirudi neskek, mutilen aldean, neurri handiagoan jotzen dutela burlara eta irainera, eta mutilek, aldiz, gatazkak eraso fisikoaren bitartez ebazten dituztela. Hau ere, aurrekoa bezala, neskak eta mutilak gizartekoitzeko eren eraginari egozten diogu; hain zuzen, oraindik ere batzuentzat eta bestetzuentzat aukera desberdinak ezartzen dituzte.

Proportzioak egiaz handiak dira, eta aurreragoko aldietan gertatuz gero, gatazka-maila handiko eta larritasun handiagoko egoeratzat joko genuke. Nolanahi ere, interpreta daiteke jokabide horiek hazteko prozesuaren zati direla. Ez dugu inolako portaera arau-hauslerik edo arazotsurik neurtu, eta ez dugu asmorik izan EAEko ikasgeletako gatazken maila zehazteko.

Urte gehiagokoen kasuan bezala, haurren aisia zabala eta askotarikoa da. Astialdian aurrera eramaten dituzten jolas eta jarduerek, arauturiko jardueretatik kanpo, hainbat ikaskuntzetarako esparru ezin hobea eratzen dute, eta ikaskuntza horiek, beharrezkoak izanik haurrentzat, irizpide eraikitzailez bideratu behar dira, haien nortasunaren mesedetan.

Telebista ikustea dago aurreneko tokian, populazio horrek egiten dituen jardueren artean. Kirolen batean aritzeari bigarren tokia dagokio. Gurasoekin kontu kontari egoten edo elkarrekin gauzak egiten denbora pasatzea hirugarrenean dago. Eta, laugarrenik, irakurtzea –edozer irakurgai-mota– eta bideo-jokoak daude

Hau da, 8 urtetik 10 urtera bitarteko ume gehien-gehienek etxearen eta kirolean aritzearen inguruan egituratzen dute beren aisia. Oraindik ere neurri handian aurkitzen dira familiaren dinamikaren mende, eta horrek eragina du beren astialdia banatzen duten moduan.

Kirolean aritzeari dagokionez, historian zehar gertatu den generoen arteko desberdintasuna pixkanaka murriztu izan da, harik eta maila parekatuagoetan kokatu diren arte, nahiz eta neskak gutxiago aritzen diren kirolean, eta are gutxiago joaten diren kirol-ikuskizunetara. Era berean, teknologiaren inguruan antolaturiko aisia guztia, itxuraz, mutilen artean dago zabalduago; dena dela, aurrerago ikusiko dugunez, badago oinarririk pentsatzeko hori aldatzen ari dela.

**Aisia teknologiko**aren inpaktua hainbesterainokoa da, non 8 urtetik 10 urtera bitarteko haurren laurden bat baino zerbait gehiago bakarrik baita Internet erabiltzen ez duena. Hala ere, arazo kezkagarri bat da zein gutxi kontrolatzen duten helduek haurrek zer ikusten duten, nora konektatzen diren, edo nolako eragin-trukeak dituzten Interneten bidez. Internet erabiltzen duten haurren artean, ia hamarretik lauk helduren batekin egon gabe erabiltzen dute. Bizitzako beste alderdi batzuen gaineko kontrola egin egiten da, antza; hala, gurasoek seme-alabak non, norekin eta zertan jolasten diren kontrolatzen dute, telebistan zer programa ikusten dituzten, eskolan nola dabiltzan zaintzen dute, beste kontrol gutxi-asko zorrotz batzuk egiten dituzte, baina ez dute gauza bera egiten adingabeak Interneten sartzen direnean. Horrenbestez, haien adinerako egokiak ote diren kontrolatu gabeko edukiak nahiz pertsonak sartzen diren ate baten aurrean uzten ditugu. Konponbidea ez da baliabide hori eskuetatik kentzea, baizik eta tresnak ematea arriskurik gabe nabigatzeko gai izan daitezen.

Bideo-jokoei dagokienez, aisiarako beste aukera bat bilakatu da haur nahiz gazteentzat. Hain denbora gutxian hain tinko zabaldu izanak guraso batzuk nahasita utzi ditu, ez baitute baliabiderik haien erabilera kudeatzeko eta ez baitute eratu haien egokitasunari edo egokitasunik ezari buruzko irizpide argirik.

Egia esan, bideo-jokoak pixkanaka gero eta unibertsalagoak dira. Gero eta jende gehiago hasten da bide-jokoak erabiltzen urtero, eta horrek eragina du, bereziki, hazteko eta gizartekoitzeko prozesuan dauden adingabe eta nerabeengan. Errealitate ulertu eta pentsatzeko moduak eratzean haiengan duen eragina ahaltsua da, eta hori gero eta sakonago eta zehatzago ezagutu eta aztertu behar dugu. Eragin-trukeko jokoa ahalbidetzen duten denetariko gailu elektronikoak indartsu zabaldu dira halakoen aurrean sendo iraun ohi duten sektore batzuetan ere, esate baterako, adin gehiagoko pertsonen artean. Bideo-jokoen kontsola batzuk pertsona nagusien ohituretara egokitzeak belaunaldi zenbait eserarazi ditu sofan, bideo-jokoetan batera aritzeko.

Hain dira zabaldu haurren sektorean, non 8 urtetik 10 urtera bitarteko haurrek %4k baino gutxiagok esan zuen ez zela jolasten bideo-jokoekin (kontsolan zela edo ordenagailuan zela).

Badaude alde nabarmenak sexuaren arabera. Hain zuzen, badaude aldeak erabiltzen diren kontsolen aldetik. Egia da mutilak neskak baino gehiago direla kontsola guztiak erabiltzen,

baina mutilek neskek halako bi erabiltzen dute PlayStation kontsola, eta, halaber, Game Boy kontsola erabiltzen ere nabarmentzen dira mutilak, baina aldea txikiagoa da ordenagailua erabiltzeari dagokienez, eta alde hori are txikiagoa da Nintendo kontsolaren erabileran. Alde horiek ez dira neska eta mutilen apetaren emaitza, baizik eta enpresa fabrikatzaile bakoitzak xedetzat hautatu dituen populazio-sektoreen ondorio. Lehiari, indarkeriari eta mutilen kirolari loturiko balioetan oinarritzen den gizonezko-estereotipoa zehatz islatzen da kontsola batzuetan –PlayStation delakoan, esaterako–, jokoak ikuspegi horretatik diseinatzen dituzte eta; hortaz, zeharo mutilentzat prestatutako jokoak dira, nesken sektorea erakartzen ez dutenak (edo ez da interesatzen erakartzea). Hartara, PlayStation kontsolarekin jolasten diren mutilen proportzioa neskena halako bi da.

Nintendo konpainiari dagokionez, hark gizonezkoen ikuspegi tradizionala gainditu du, eta sortu dituen kontsoletako jokoek –estrategiari lotuago, baina, orobat, babestu eta zaintzeko rolei ere, animaliatxoekiko jokoei, simulazio-jokoei eta abarri– parte hartzeko aukera ireki diete neskei berrikitan. Era berean, koloretako kontsolak sortu dituzte, eta horrek gehiago erakartzen ditu neskak; areago, hori islatzen da publizitate-kanpaina batzuetan ere, neskentzat bakarrik eginiko iragarkiak dituzte eta. Konpainia horrek hainbeste zabaldu ditu aukerak, non helduen unibertsoa bereganatzeari ere ekin baitio, “adimen-estimuluko jokoak” deritzen jokoen bidez.

Bideo-jokoen inguruko kezka nagusia –gurasoena, bereziki, baina gizartearena ere bai, oro har– da makina horien erabilera haurren aisialdirako egokia izatea edo ez izatea, haurrak orduak eta orduak pantailetan murgiltzea helduen gizarteari ulertzea kostatzen zaion jarduera batean.

Hala eta guztiz ere, guk beste kezka bat dugu abiapuntu. Urbina-k eta Ramírez-ek adierazitakoa berrartuta (2002), kezkagarria da, izan ere, estereotipoak etengabe erabiltzea halako jokoetan, era murriztaile batean, horren inguruan ahots kritiko askorik gorarazi gabe. Gizon kementsu, seguru, borrokalari, bortitz, eta ausartek emakume samur edo lirain askoak dituzte parean, edo, bestela –neskentzako jokoetan– ama diren emakumeak, haur txikiak zaintzen dituztenak, janaria prestatzen dutenak, ama izaten ikasten dutenak; ez dago, ordea, *Aita izaten ikas ezazu* deitzen den jokorik.

Jokoetan dauden mota ugarien artean, bederatzi saileko sailkapen bat egitea erabaki dugu, eta gehien ikusitako joko bakoitza PEGI-k (Pan European Game Information) ezarritako kategorien arabera sailkatu genuen; hain zuzen, PEGI sistemak bideo-joko eta ordenagailu-jokoetarako adinaren araberako sailkapena ematen du, eta bideo-jokoaren industriako gehienak harexeri atxiki zaizkio borondatez. Irakurlea ohart dadin esku artean erabilitako informazio-bolumenaz, galdera irekia egin genuen, haurrek hitzez hitz idazteko zer joko erabiltzen zituzten.

Identifikatzeko moduko 796 erantzun idatzi eskuratu genituen. Jokoetako batzuk, ez asko, berraztertu egin behar izan ziren, idatzirik zeuden moduagatik (atzerriko hizkuntzaren bateko izena zuten jokoak baziren, haurrek entzuten diren bezalaxe idazten zituzten, eta soinuaren arabera identifikatu behar izan genituen).

Joko guztien artean, erabilienak dira abenturakoak, plataformakoak, estrategiakoak eta indarkeriarik gabeko ekintzakoak. Bigarrenik ageri dira filmetatik eta marrazki bizidunetatik datozen bideo-jokoak, neskato-mutikoen artean oso harrera zabala izaten dute eta. Hirugarren tokian kirolak antzeratzen dituzten bideo-jokoak daude. Zerikusia handia dute halakoekin auto- eta motor-lasterketen jokoak. Berrikitan boladan jarri diren joko batzuk dira maskotak (txakurrak, katuak, zaldiak) zaintzearen simulagailuak (neska-mutilen %15ek horiek aukeratu zituen), baina eguneroko jardueren simulagailuak ere bai (sukaldaritza, moda, baita panpinak eta haur txikiak zaintzea ere). Inkestatuen %15,3k argi eta garbi indarkeriazkoak, gerrakoak eta borroka edo ekintza gogorrekoak ziren jokoak aukeratu zituen.

Alderdi esanguratsuenetakoa da bideo-jokoen erabileran generoaren arabera dauden aldeak. Hasiera batean, bideo-jokoak mutilentzako jolas-tresna gisa agertu ziren. Estetikaren erabilera eta jokoen estiloa ongi egokitzen zitzaizkion gizonezko-estereotipoari, eta oso gaizki emakumezko-estereotipoari.

Hona hemen azterlanaren ondorio nagusietako bat: jokoa genero-desberdintasunak agertzen dituen adierazpen eraginkor bat da. Legeak generoari loturiko desberdintasunak zuzentzen saiatzen diren garai eta leku batean, joko batzuk edo beste batzuk aukeratzerakoan, genero-eredu tradizionalaren arabera hartzen da erabakia, eta halaxe gertatzen da, pedagogia lanean ari bada ere jokoan generoaren araberako profil bereizlerik ez markatzeko beharraren inguruan.

Abenturetako, plataformako eta estrategiako jokoetan bai mutilak bai neskak jolas daitezke, eta, neskak gehiago diren arren, badira –joko-mota horren barruan– neskek nahiago dituzten joko batzuk eta mutilek gogokoago dituzten beste batzuk, egia bada ere biek parteka ditzaketela.

Badaude joko batzuk argi eta garbi gizonezko edo mutilentzat direnak. Esaterako, indarkeriazko jokoak –borrokakoak edo gerrakoak–, zein mutikoen %54k erabiltzen baitzituen, nesken %9aren aldean; kirol-jokoak, mutilen %43,5ek aukeratuak, eta, aldiz, nesken %10,3k bakarrik; eta auto- eta motor-lasterketetako jokoak, mutilen %22,5en aukera, eta, bestalde, nesken %6,5arena bakarrik.

Baina badaude joko batzuk, orobat, argi eta garbi emakumezko edo neskentzat bakarrik direnak. Halako jokoak izaten dira maskotak zaindu eta babestekoak, edo haur txikiak zaintzekoak (*Jugando a ser mamá* –«ama izatera jolasten»– izen esanguratsua ageri da); hain zuzen, nesken %25,8k aukeratu zituen, mutilen %7aren aldean; badira, halaber, protagonista panpina famatuak dituzten jokoak edo tradizioz emakumeei egotzitako eginkizun bat dutenak beren dinamikan (moda, sukaldaritza, pertsonaia neska bat dela), halakoak nesken %18,7k aukeratu zituela, eta mutil batek ere ez; eta joko hezigarriak deitu diegunak –matematikako, hizkuntzako, ingeleseko, eta abarretako ariketak egiteko ondutakoak– nesken %21,5ek hautatu zituen, mutilen %8,5aren aldean.

Dena dela, PEGIren sailkapena aintzat hartuz gero, joko gehien-gehienak haien adinerako egokituriko bideo-jokoak dira, PEGI-k berak ohartarazten duen arren joko horiexek berek zakarra edo haien adinerako desegokia den hizkera izan dezaketela, edo indarkeriazko eszenak. Mutilek erabiltzen dute joko desegoki gehien.

Telebistari dagokionez, duela urte batzuetatik hona, etxeetako erdiguneko elementu bat da. Gaur egungo haur eta nerabeen gurasoak dagoeneko jaio ziren telebistak egongela, jangela eta sukaldeetan zuen betiereko presentziarekin. Hala ere, elementu horrek garrantzia ere galdu izan du gazte- eta nerabe-sektore batzuetan, azken horiek ordenagailua erabiltzea hobetsi dutelako, telebistak ematen ez dituen komunikazio etengabea eta eragin-trukea eskaintzen baitizkie, egongelako pribatutasunaz gain, telebistak ahalbidetzen ez zuen zerbait, egongelan edo etxeko guztientzako eremu batean egoten den elementua izaki.

Telebista ez zutela ikusten esan zuten 8 urtetik 10era bitarteko haurrak %2 baino gutxiago izan ziren, eta %10ek baino ez zuen adierazi asteburuetan bakarrik ikusten zuela. Gehienek gauez, eskolara joan aurretik eta eskolatik irten ondoren ikusten zuten telebista, hots, haurren asti-tarte guztiak betetzen dira.

Umeek telebistan gehien ikusten dituzten programei dagokienez, nabarmen askotarikoak dira. Haurrentzat bereziki eginiko programak ez ezik, beste asko ere ikusten dituzte, eta batzuk haurrentzat egokiak dira, eta beste batzuk ez. Aurreneko tokian, espero izatekoa zenez, marrazki bizidunak daude, eta *Shin Chan* eta *Dragoi bola* aipatu zituzten gehien; biak umeentzat dira, baina heziketaren aldetik duten balioa zalantzazkoa da.

Hurren, berez haurrentzat ez diren telesailak ageri dira, helduentzako telesailak eta guztien artean *Los Simpsons* delakoa nabarmentzen da; azken telesail horren marrazki bizidun erako formatuak haurrak erakartzen ditu, baina haren edukia eta ulermen-maila helduentzat egokituta dago, ez haurrentzat. Egoera berean dago *Padre de familia* telesaila, baina, dena dela, oso ume gutxik aipatu zuten.

Hurren, neska-mutilek esan zuten telebistan kirolak eta ikuskizunak ikusten zituztela, baina futbolaren edo tenisaren aipamen zehatzen bat kenduta, programetan nagusia *Pressing catch* deritzon saioa, antzeratutako borroka libreko saio bat, izan zen.

Horrez gain, aditzera eman zuten umorezko saioak ikusten zituztela. Gehien aipatzen dena *Escenas de matrimonio* delakoa da; telesaio hori ez da batere hezigarria 7-10 urteko umeentzat. Bigarrenik, baina ia lekukotasun huts gisa, *Wazemank*, *El hormiguero* eta *Camera café* aipatu zituzten

Hau da, haurrek ikusten dituzten programen sailkapen neutro bat haurtuko bagenu, umeek telebistan marrazki bizidunak, kirolak eta haurrentzako telesailak, edo helduentzakoak, ikusten dituztela esango genuke. Baina programen berezko azterketaren mailara joanez gero, atzeman ahal izango dugu ikusten dutena, gehienbat, ez dela oso gomendagarri edo onbideratzailea, hain zuzen. Ez genuen galdetu ea telebistaren aurreko orduetan helduren batekin egoten ote ziren, hark aparatuan ikusten dena esplikatzeko moduan, baina gogoan izan genuen hori ez gertatzeko aukera handia zela, umeak denbora-pasa edukitzeko modu ona izaten baita telebista, helduek beste zerbaiten diharduten bitartean.

Nabarmen ditzagun orain ondorio zenbait 8 urtetik 10 urtera bitarteko haurren **balio-unibertso**ari buruz.

Adin horietako neska-mutilak ulertzen hasiak dira dagoeneko gizartean hainbat rol daudela. Oraindik ez dute arrazionalizatu rol batzuk edo beste batzuk arrazoi batzuen edo beste batzuen arabera esleitzen diren, bidezkoak diren ala ez, ala bestela izan behar ote duten. Besterik gabe, era kultural batean ikusten dutena errepikatzen dute, alegia, familian, gizarte-ingurune hurbilenean, egiten dituzten jolasetan eta komunikabideetan ikusten dutena. Halako adinetan imitazio-eredua da nagusi ikaskuntzan, eta oraindik piztu gabe egoten da kontzientzia eta pentsamendu autonomoa era horretako abstrakzioetan.

Edozelan ere, ez da erraza hain ume gazteei galdetzea horren inguruan duten berezko iritzia, jarduera hori eginez gero, haiek ez baileudeke horretarako prestaturik. Horregatik, ikus-ikono batzuk baliatu ditugu, emakumezkoen eta gizonezkoen rol tradizionalen arteko aldea ongi mugaturik zuten marrazki bizidunetako bi pertsonaiena, hain zuzen, eta galdetu genien ea, hain ustez, haurren berezko zein jarduera egiten zituen Minnie-k (emakumezko pertsonaia) edo Mickey-k (gizonezko pertsonaia), alegia, zein jarduera ziren gehiago mutilenak eta zein neskenak.

Atera ziren emaitzen arabera, dagoen tradizioak determinatzen du rolak haur-jolasen bidez esleitzea. Hala, gizonezkoen rola futbolean jokatzeari eta kotxeekin jolasteari lotzen zaio, eta emakumezkoen rola, berriz, pelutxeei. Irakurtzea eta patinatzea bi rolei lotzen zaizkien bi jarduera dira, baina zerbait gehiago emakumezkoenari.

Bestela esanda, asko bereizten dira gizonezkoen eta emakumezkoen rolak jolasen banaketan. Horrek dakarren ondorioa da ezen etiketen hesiak gainditu beharko dituztela, muga zeharkatu, eta haurren unibertsoan beste generoari izendatzen zaizkion jarduera batzuk egin nahi dituzten neska eta mutilek –*statu quo*ak ezartzen duen betiko ohituratik ateratzen dira eta–, eta ziur aski gustu txarreko txantxa bat edo txantxa gaizto bat baino gehiago jasan beharko dutela.

Honetan, bitxiena da neskak eta mutilak oso ados daudela rol-esleipen horrekin. Ez dago desadostasunik, eta oso neurri handian datoz bat elkarrekin; hau da, mutilek eta neskek, biek ala biek, rol-banaketarako eredu bera erabiltzen dute zeregin batzuk edo beste batzuk esleitzeko.

Helduen mundutik hurbilago dauden rol batzuei buruz ere galdetu genien. Gizonezkoei eta emakumezkoei egozten zaizkien rolen arabera emaniko erantzunak aztertzean, egoera are bereiziago dago. Hala, bada, 7 urtetik 10 urtera bitarteko haurren aburuz, gizonezkoen rolak dira telebista konpontzea, bonbilla bat aldatzea, eta koadro bat esekitzea; eta emakumezkoen rolak dira, aldiz, arropa lisatzea, zorua garbitzea, janaria prestatzea, erosketak egitea, eta harrikoa egitea. Aipatutako rol horietako bat ere ez zaie esleitzen gizonezkoei zein emakumezkoei aldi berean. Erosketak egitea eta janaria prestatzea dira berdintsuago banatzen diren zereginak.

Oso daitekeena da inguruan ikusten dutena isla dezaten, baina, era berean, oso daitekeena da rolen eta zereginen desberdintasunean oinarrituriko ikaskuntza esanguratsua jasotzen ari izatea, eta hori haurrak hazi ahala azaleratuko da.

Desberdintasuna onartzeko gaitasunari dagokionez, bazterketa gerta daitekeen arlo batzuk aurkezturik (homosexualitatea, ezintasuna eta immigrazioa), onarpen-tasak handiagoak izan dira arbuio-tasak baino. Dena dela, batzuetan onarpena handiagoa da beste batzuetan baino.

Arbuio gehien sortzen duen gaia homosexual-bikote bat jendaurrean laztan egitea da. Ziur aski, ingurune hurbilenean entzuten dutena baino ez dute errepikatzen. Gaur egun ere, homosexualen bikoteak legez onartuta dauden arren, esan daiteke haien arteko harremanak onartzen direla, baina ez, ordea, harremanok jendaurrean adieraz ditzaten, eta haurrek, kasu honetan, entzundakoak edo ikusitako jarrerak islatzen dituzte.

Gehien kezkatzen gaituena da ezen ia heren batek esan zuela hobe zela gelan haur etorkinik ez egotea. Arbuio-proportzio hori oso handia da, are gehiago EAEko ikasgeletako etorkintasa %6,57 izanik. Egia da haur etorkinenganako onarpena nagusi dela arbuioaren aldean (%66,7k onartzen ditu). Horrek kezkatu egiten gaitu, zeren eta 8 urtetik 10 urtera bitarteko haurrek unibertso kulturaniztuna partekatu behar –bai eta etorkizunean beharko ere– baitute, eta desberdintasunak natural onartu, bidezkoa eta, era berean, errealitateari egokitua den gizarte-sistema bat eraiki ahal izateko.

Integrazio- eta tolerantzia-mailarik handiena ezintasunen aurrean agertzen da. Neska-mutilek uste dute ezintasunen bat duten haurrak integratu egin behar direla jolasean.

Elkartasunezko identitateak eraikitzeko jokabideei dagokienez, ikusten da ikasle horiek ingurumenari loturikoak errespetatzen zituztela gehien.

Arraza-bazterketa agerian geratzen da galdetzen zaienean ea etorkinekin jolasean aritzen diren. Nahiz eta gehienek aukerarik izan ez duten edo aritu ez diren, egia da laurden batek baino zertxobait gehiagok esan zuela noizbait haur etorkin bati bere jolasetan parte hartzea eragotzi ziola, eta proportzio hori oso hurbil dago gelan etorkinekin batera egotearen inguruan lorturikoarekin.

Esan dezakegu, horrenbestez, adin horietako haur horiek nahikoa zehatz adierazten dituztela helduen mundutik transmitituriko balioak. Egia da, dena dela, beren diskurtsoak eta iritziak pixkanaka eratzen dituztela bizitzako alderdi nagusiei buruz. Haiek beren pentsamendu-eremuari eusten diote, baina hurbileneko ingurunea dute horretarako iturburu. Badakite zer nahi duten eta nola nahi duten, baina oraindik ez dute garatu gaitasuna askotariko iritziak bilatu, haiek alderatu, eta beren iritzia osatzeko. Horregatixe islatzen dute zehazki jokabidea gidatzen duen balio-unibertsoan transmititzen zaiena, eta gida horri atxikitzen zaizkio beren jardunean.

Ikuspegi horretatik, gure aburuz beharrezkoa da gogoeta sakona egin dadin haurren jolasen bidezko rol-desberdintasunaren transmisioaz, bai eta desberdintasunarekiko errespetuaz ere. Adin horretan, eguneroko bizitza deskodetzeko oinarriak sendotzen ari dira, eta horiexek eragin handia izango dute haien jarreran. Egia da aurrerago pentsamendu konplexuagoak eratuko dituztela, beren bizipenetan oinarriturik, baina elkartasunezko eta tolerantziazko balioak haurtzarotik eraikitzen baldin badira, ziur aski bazterkeriazko hesi batzuk ezabatzea erdietsiko dugu.

## 2. LEHEN HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOARENTZAKO GALDERA-SORTA

Nola laburbildu eta aurkeztu begirada bakar batean heziketa-jokabidearen ereduen multzoan ageri diren alde garrantzitsuenak, ikasleek horren inguruan duten ikuspegiaren arabera? Aurreko epigrafeetan aurkezturiko gaiak era bakunagoan aurkezte aldera, azterturiko alderdiei buruzko faktore analisia egin da. Lau faktore nagusi lortu dira, guztien artean guztizko bariantzaren %31,12 aski era homogeneoan azaltzen dutenak. Gainerakoa baztertu egin da, azaltzeko zuen ahalmena %5etik beherakoa zen eta. Faktoreen izendapenak, haietako bakoitza osatzen duten osagai adierazgarrienekin batera, 90. Grafikoan ageri dira, ondoren ikus daitekeenez:

**90. Grafikoa. Heziketa-ereduaren faktore-analisia eta faktoreen osaera**

| I. F. GURASOEKIKO LANKIDETZA ETA GOGOAIDETASUNA (%8,84) | II. F. EREDU ZIGORTZAILEA (%7,18) | III. F. INDARGARRI POSITIBOEN GARRANTZIA (%8,20) | IV. F. FAMILIAKO EZTABAIDAK (%6,88) |
|---|---|---|---|
| 1. Amarekin jolasten zara edo hizketaldi atseginak izaten dituzue | 1. Gaizki portatzen zarenean, gurasoek agirika egiten dizute eta haserretu egiten dira | 1. Gurasoek gauzak ondo egiten dituzula esaten dizute | 1. Gurasoekin eztabaidatzen dudanean, ikasketengatik izaten da |
| 2. Aitarekin jolasten zara edo hizketaldi atseginak izaten dituzue | 2. Gaizki portatzen zarenean, zigortu egiten zaituzte eta ez dizute uzten gustatzen zaizun zerbait egiten | 2. Gurasoek zorionak ematen dizkizute eta poz-pozik jartzen dira | 2. Gurasoekin eztabaidatzen dudanean nire lagunak gustatzen ez zaizkielako izaten da |
| 3. Amak etxeko lanak egiten laguntzen dizu | 3. Gaizki portatzen zarenean, gurasoek belarrondoko bat ematen dizute | 3. Gurasoek poztasuna adierazten dizute musu eta besarkadekin | 3. Gurasoekin eztabaidatzen dudanean, etxeko lanetan ez laguntzeagatik izaten da |
| 4. Aitak etxeko lanak egiten laguntzen dizu | 4. Gurasoekin eztabaidatzen dudanean, erantzun txarrengatik izaten da | 4. Gurasoek gauza bat erosten dizute sari moduan | 4. Gurasoekin eztabaidatzen dudanean, telebistagatik izaten da (ikusten ditudan programengatik, orduagatik ...) |
| 5. Zinemara, antzerkira eta abar joaten zara gurasoekin... | | 5. Gaizki portatzen zarenean, gurasoek lasai azaltzen dizute zergatik dagoen txarto egin duzuna | 5. Gurasoekin eztabaidatzen dudanean, ordenagailuaren erabileragatik izaten da |
| | | | 6. Gurasoekin eztabaidatzen dudanean, bideo-jokoengatik izaten da |

Ikus daitekeenez, faktore bakoitzean aldagaiak ordenatu dira faktore horretan eginiko ekarpenaren arabera, handienetik txikienera. Ekarpen hori %10 baino gehiago zenean baino ez dira aldagaiak aukeratu. Datuek ez dute zalantzarik sortzen: 3. zikloko ikasleek aurkeztu zaizkien gaien artean, lau gai nagusi nabarmentzen dira, hezkuntzaren ikuspegitik familien kezkak biltzen dituztenak:

- I. Faktorea gurasoen seme-alabekiko engaiamendu zuzena adierazten duten itemei dagokie, bai hezkuntza-arloan laguntzearen aldetik, bai aisia eta astialdiari loturiko alderdien aldetik. Hortik dator "Lankidetza eta gogaidetasuna" izenburua. Faktore honen azaltzeko ahalmena %8,84 da.

- II. Faktorean biltzen dira gurasoen jarrera eta jokabideen arazoarekin zerikusia duten itemak, ezar daitezkeen zigorren aldetik, betiere. Horregatik jarri zaio faktoreari “Eredu zigortzailea” izena. Faktore honen azaltzeko ahalmena %7,18 da.

- III. Faktorean jaso dira gurasoek baliatzen dituzten indargarri positiboak, autokonfiantza sendotzearren eta seme-alabei adorea ematearren. Faktorea osatzen duten aldagai guztiak zentzu horretakoak dira. Faktorearen azaltzeko ahalmena %8,20 da. Faktoreari “Indargarri positiboen garrantzia” deitu diogu.

- Azkenik, IV. Faktorean familiako gatazka eta ika-mika ohikoenei loturiko itemak bildu dira. Multzo ugari horretako itemek familiako gatazkak, eztabaidak eta ika-mikak sortzen dituzten egoerak deskribatzen dituzte. Faktore honen azaltzeko ahalmena zertxobait apalagoa da, %6,88, eta “Familiako eztabaidak” deitu zaio.

Era laburtu batean eta oro har ikustearren faktore horiek nola jokatzen duten –talde bakoitza ezaugarritzen duten aldagaiak kontuan harturik–, 91. Grafikoan jaso da aipaturiko lau faktoreetan aldagaiek jokatzen duten moduaren azalpena.

**91. Grafikoa. Heziketa-eredua azaltzeko laburpena, faktore bakoitzean aldagaiek duten pisua oinarritzat hartuta**




Talde bakoitzerako, faktoreei egin zaien bariantza-analisiaren bidez lorturiko datuen arabera, emaitza hauek atera ditugu:

a) SEXUA. Analisiak frogatu du sexuaren araberako aldeak estatistikoki esanguratsuak direla lau faktoreetako hirutan. "I.F. Gurasoekiko lankidetza eta gogaidetasuna" faktorean bakarrik ez da atzeman estatistikaren aldetik esanguratsua den alderik. Horretan oinarrituta, hau esan dezakegu:

   i. Zigorra mutilekin neskekin baino gehiago baliatzen den bitartekoa da.

   ii. Neskek mutilek baino indargarri positibo gehiago izaten dituzte.

   iii. Gatazkak eta liskarrak gehiagotan gertatzen dira mutilekin, neskekin baino.

b) SARE PRIBATUA/SARE PUBLIKOA. Azterturiko ikastetxe-moten araberako aldeei dagokienez, hau da, sare publikokoak ala sare pribatukoak diren, alde esanguratsuak aurkitu dira lau faktoreetatik hirutan. "III. F. Indargarri positiboen garrantzia" faktorean bakarrik ez da atzeman estatistikaren aldetik esanguratsua den alderik. Hartara, hau esan daiteke:

   i. Gurasoekiko lankidetza eta gogoaidetasuna handiagoa da sare pribatuaren kasuan, sare publikoarekin erkatuz gero.

   ii. Era berean, agerian geratzen da ezen, sare publikokoak baino, sare pribatuko ikasleak gehiago zigortzen dituztela nahi ez diren portaeren aurrean.

   iii. Ika-mika eta gatazka gehiago egoten dira sare pribatuko ikasleetan, sare publikoko ikasleetan baino.

c) LURRALDE HISTORIKOA. Itxuraz, aldagai honek ez luke inolako eraginik izan behar hezkuntzaren arloko jokabideetan. Hala ere, emaitzek aditzera eman dute jokabidea desberdina dela Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan gertatzen denarekin konparatuta. Aldagai horren eragina azterturiko lau faktoreetan izan da esanguratsua. Egin den bariantza-analisian lorturiko puntuazioekin bat, hau nabarmendu behar da:

   i. Gurasoekiko lankidetza eta gogoaidetasuna handiagoa da Bizkaian, Araban edo Gipuzkoan baino.

   ii. Bizkaian gehiago zigortzen da, Araban edo Gipuzkoan baino.

   iii. Osagarri, gurasoen indargarri positiboak gehiago dira Bizkaian, Gipuzkoan baino.

   iv. Azkenik, Bizkaian maizago gertatzen dira liskarrak eta ika-mikak, Arabaren eta Gipuzkoaren aldean.

   Hitz bitan, Bizkaian dagoen profila Arabako eta Gipuzkoako profilak ez bezalakoa da; eta azken bien artean, bestalde, ez dago estatistikaren aldetik esanguratsua den alderik.

d) HIZKUNTZA-EREDUAK. Luze idatzi izan da kolektibo horien arteko aldeen gainean, frogatzearren euskararen arloko ikasleak zenbateraino diren gaztelaniaren arloan hezten direnen berdinak edo desberdinak, eredu horiek, hezkuntzaren aldetik ez ezik, ideologiaren eta, zergatik ez esan, politikaren aldetik ere dituzten inplikazio guztiak tartean. Hala eta guztiz ere, horren inguruko datuak argiak dira: aztertu diren lau faktoreetako batean baino ez dira atzeman estatistikaren aldetik esanguratsuak diren aldeak; gainerakoetan, kolektibo horiek era homogeneoan jokatu dute, zeharo.

   "I. F. Gurasoekiko lankidetza eta gogaidetasuna" faktorean baino ez da ikusi "A Hizkuntza Eredu"ko gurasoek gehiago laguntzen dietela seme-alabei eta haiekin gogaidetasun handiagoa dutela, gainerako ereduekin erkatuta.

e) ADINA. Populazio inkestatuan 9, 10, 11 eta 12 urteko neska-mutilak zeuden. Faktore bakar batean ere ez dira estatistikoki esanguratsuak izan adinaren araberako aldeak, bariantza-analisiak agerian utzi duenez. Adinaren aldetik, eta aipaturiko faktoreei dagokienez, 3. zikloko ikasleen jokabidea erabat homogeneoa da. IV. faktorearen kasuan (gurasoekiko ika-mika, liskar eta eztabaidei buruzkoa) baino ez da atzeman 12 urteko neska eta mutilen taldeak gurasoekin arazo eta eztabaida gehiago dituela, gainerakoen aldean. Hori, bestalde, espero izatekoa da neurri handi batean; izan ere, hazi ahala, askoz ahalmen handiagoa izaten dute adiskideak hautatzeko, bizitzako gauza askotan beren irizpidea izateko, adin txikiagoetan baino.

## 3. DBHRENTZAKO GALDERA-SORTA

### 3.1. Gizartekoitze-faktore eta -eragileak

Oro har, adingabeek garrantzi handia ematen dioten *familia*ri balioak transmititzen dituen eragile gisa (atzean ikasliburuak eta adiskideak daudela). Horrez gain, gehienek familia barruan harreman onak dituztela adierazten dute, bai eta harengan jartzen dutela konfiantza gatazka-egoeretan (txikienek bereziki).

Adingabeen portaerak egokiak direnean, gurasoek seme eta alabekin erabiltzen dituzten irakaste-estrategien artean hitzezko eta emoziozko indargarriak dira ohikoenak (neskekin bereziki). Nolanahi ere, nabarmendu behar da, halaber, aintzat hartzen ez diren portaera positiboen ehunekoa, bai eta indargarri materialez saritzen direnena ere.

Halaber, zalantzazko baliozkotasuna duten estrategia batzuk aurkitu ditugu portaera desegokiei aurre egitean, gazteen autonomia sustatuko bada. Horri dagokionez, ikusi dugu portaera horien aurrean lasai emandako azalpenak neurri handi batean falta direla (%57) eta ehuneko handi batean (%13,3) portaera horiei belarrondokoa emanez erantzuten zaiela.

Horrek heziketaren aldetik dituen ondorioen erakusgarri, atzeman izan da lotura eta antzekotasuna dagoela gurasoen estrategia horien (seme-alabekin egoerei aurre egiteko

estrategiak) eta adingabe horiek gatazkak ebazteko (ikaskideekin harreman-zailtasunak dituztenean) duten gaitasunaren artean.

Psikoheziketaren aldetiko komunikazioan neskak mesedetuak ateratzen ziren, mutilen aldean, baina etxeko lanak egiteari dagokionez, ordea, gurasoek gehiago eskatzen diete neskei, baita mutilek beren kabuz egiteko gauza direla aitortzen dutenean ere.

Azkenik, familia-inguruneari dagokionez, atzeman dugu EAEko neskek tolerantzia eta onarpen handiagoa agertzen dutela familia-egitura berriengana, hau da, gure gizartean gero eta ohikoagoak diren familia-egitura horiengana (sexu berekoen bikoteak, ama edo aita ezkongabeak, eta abar).

Ikastetxean, aldeak atzematen ditugu gazteek beren ingurunean dituzten harremanetan, espero izatekoa zenez; hala, adiskideak balioesten dituzte gehien, eta haien atzetik irakasleak daude, azken tokian utzita ikasgaiak, ikasleen %65 inguru dagoela haiekin pozik.

Nolanahi ere, datuak xehekiago azterturik, datu batzuei ñabardurak erants dakizkieke, eta beste batzuk zalantzan jarri. Hala, esaterako, irakasleen balioztapenei dagokienez, ikusten dugu halakoak hobeak direla ikastetxe pribatuetan, ikastetxe publikoekin erkaturik, eta jatorriz atzerritarrak diren ikasleek hobeto balioztatzen dituztela irakasleak, azken horiek, hezkuntza-arloko gaietatik kanpo, duten engaiamendua aintzat hartuta.

Bestalde, ikaskideei dagokienez, puntuazio handia ematen duten arren, paradoxikoki, ia ikasleen erdiak onartu zuen gelakideren bati burla edo eraso egin ziola behin baino gehiagotan.

Adiskide-taldeari dagokionez eta, beraz, eskolaren ingurunera halabeharrez mugatu gabe, gazteek berdinen artean harreman asko eta oso onak izaten zituztela aditzera eman zuten, oro har; dena dela, adiskide-kopurua nabarmen gutxiagotzen zen atzerrian jaiotakoen artean.

Komunikabideei, oro har, dagokienez, bideo-jokoetan ematen dituzten orduez gain, nabarmendu behar da zenbat ordu ematen dituzten telebistan, batetik –gauez batez ere–, eta Interneten, bestetik. Azken tresna hori programak deskargatzeko eta eskolarako lanak prestatzeko erabiltzen dute, eta hurbil geratzen den beste erabilera bat da txateatzea, hau da mezu idatziak denbora errealean trukatzeko komunikazio-tresnen bidez aritzea.

Heziketaren ikuspegitik, azpimarratu behar da zenbat gaztek ematen duten informazio egiazko eta pertsonala txataren bidez (%40), eta bereziki aipatu behar dira monitoreaz bestaldeko ezezagunekin aurrez aurreko hitzordua ezartzea onartzen dutenak (%20). Hartara, adingabeek teknologia berrietan ematen dituzten orduak bide dira faktoreetako bat irakurtzen ematen duten denbora laburra ulertzeko, gehienek urtean 0-3 liburu irakurtzen dute eta.

### 3.2. Balioak

Gazteen artean, biziki materialak eta azalekoak diren *balioak* dira nagusi, harreman onak izateari eta itxurazko *ingurumenarekiko errespetu*ari dagokienez izan ezik (dena dela, datuak ikusita, ingurunearekin duten engaiamendua, gutxienez, zalantzazkoa da).

Era berean, nabarmendu behar da zer interes gutxi duten erlijio-gaiez (Euskadin jaiotakoen artean, batik bat), politika-gaiez nahiz kultura-gaiez; hori nabaria da haien lehentasun-eskala kognitibo hutsean, hala nola haien eguneroko jardueretan eta haietako bakoitzerako erabiltzen duten denboran. Hain zuzen, denbora hori gehien bat erabiltzen dute eskura dituzten eta ahalegin pertsonal (kirolean izan ezik) eta ekonomiko handirik egiteko eskatzen ez duten jardueretan ibiltzeko. Horrenbestez, besteak beste, jarduera hauek aurkitu genituen: telebista ikustea, musika entzutea, lagunekin irtetea, eta Internet.

Kalera irteteari dagokionez, eta adingabeen adin txikiak kontuan izanik (12-14 urtekoak, gehienbat), harrigarria da, gauez irteten direnean, hamabiak baino beranduago itzultzen diren gazteen ehunekoa (%65).

Heziketaren ikuspegitik, eta gaueko jarduera horiek berezkoak dituzten droga-kontsumoko ohituren aldetik (drogak legezkoak izan zein legez kanpokoak izan), nabarmendu egin behar da kontsumo horien eta gurasoekiko harremanen artean aurkitu den korrelazioa; hain zuzen, familiako harreman hobeak dituztela diotenek erabiltzen dute gutxiena halako substantziak.

Jokabide prosozialenak eta jokabide negatiboenak erkatuz gero, nahiz eta jokabide prosozialak maiztasunaren aldetik nagusitzen diren (erabilitako eskalaren bidez lorturiko datuak bakarrik kontuan hartuta), ondoriozta daiteke begirune-falta nabarmena dela pertsona ezagunengana (aita-amak eta gurasoak) zein pertsona ezezagunengana, eta ez dituztela errespetatzen ondasun material publikoak.

Giza eskubideei dagokienez, hurbileneko ingurunean babes gehiagoren beharra dutenei ematen diete lehentasuna, baina eskubide horiei lehentasun gutxiago ematen diete beste pertsona arrotzago batzuei dagozkien kasuetan.

### 3.3. Jarrerak, desberdinekiko tolerantzia

Nesken eta mutilen arteko berdintasunari dagokionez, adingabeak berdintasunaren alde agertu ziren, heziketa-aukeren nahiz arduren aldetik. Nolanahi ere, badirudi ez dela familia-ingurunera hedatzen betebehar-banaketa hori, esparru horretan, itxura denez, orain arte egon diren rol matxista eta baztertzaileek iraun egiten baitute.

Horrez gain, badaude alde esanguratsuak sexuaren eta hizkuntza-ereduaren arabera. Sexuaren aldagaiari dagokionez, argi eta garbi neskek aldarrikatzen dute neurri handiagoan berdintasuna, eta, hezkuntza-ereduaren aldetik, badirudi ordena honetan aldezten dituztela berdintasun hori: D, A eta B.

Emaitzak ikusita, EAEko gazteak bat datoz ezgaitasunen bat duten pertsonek arlo akademikoan nahiz lan-arloan aukera-berdintasuna izatearekin. Hala ere, antza denez, jarrera horrek badu baldintza bat, alegia, haien ongizatea inola ere ez nahastea, hori gertatuz gero, bigarren mailara igaroko litzatekeelako. Kolektibo horri doazkionetan ere atzeman ditugu hezkuntza-ereduaren araberako aldeak; hain zuzen, kasu honetan A ereduak gehiago babesten duelako, atzean B eta D ereduak dituela.

Aurkeztu diren itemetan, EAEko gazteek etorkinak babestu dute gutxienik beste kolektiboen aldean. Lortu diren datuen arabera, badirudi hain gutxi babesteko ematen diren arrazoiak direla haientzat bideratzen diren gehiegizko diru-laguntzak eta gizarte- eta ekonomia-gatazka ugari sortzen dutelako biziki iritzi errotua. Kolektibo horren alde neurri handiagoan agertzen den hizkuntza-eredua A eredua da, atzean D eta B ereduak dituela.

Orain arteko dinamika berean, homosexualek onarpena jasotzen dute EAEko gazteengandik, baina gazte horiek nahigabe adierazi zuten beren inguruko pertsonak homosexualak izateko aukeraren aurrean, eta, areago, argi aitortu zuten haiek heterosexualak izan nahiago zutela. Gainera, gizarteak kolektibo horren aurka duen intrantsigentzia aipatzen dute, beren intrantsigentziaz inoiz hausnarketa egin gabe.

Homosexualekin ulerkorrago eta tolerantzia handiagoz jokatu duen hezkuntza-eredua D eredua izan da batez ere, atzean B eta A ereduak dituela.

*ETArekiko, terrorismoarekiko eta horren ondorioekiko eskola gazteek dituzten jarrerei buruzko ataleko emaitza nagusiei dagokionez:*

1. Datu batzuk kezkagarriak iruditzen zaizkigu, oso kezkagarriak. Eskola gazte portzentaje adierazgarri baten hainbat balorazio eta jarreren iraunkortasuna adierazten dute. Halakoetan ez dira giza eskubideak inolaz ere errespetatzen, terrorismo ekintzei justifikazioa ematen diete, eta areago, ETAren jardunak positiboki baloratzen dituzte. Hona hemen kopuru batzuk. Eskola ikasleen %18k "begi txarrez ikusten du hiltzea, baina kale borroka beharrezkoa dela uste du". Beste aldetik eskola ikasleen %11,5 kopuru batek uste du "ETAren ekintzak Euskadirentzat onak direla". Egia esan, badira erantzun oso positiboak ere, baina giza eskubideen eta esparru jakin batzuen gaietan ez dago tarteko baliorik. Hilketa justifikatzen da edo ez da justifikatzen, horretarako ematen diren arrazoiak edozein direlarik ere.

2. Era berean, ezkorra iruditzen zaigu %24k bakarrik pentsatzea "ETAko kideen giza eskubideak uneoro errespetatu behar direla", eta %45 baino gehiago izatea horren aurkako jarrera argia dutenak. Pertsonek (norbanakoaren edo herritarraren kontzeptuaz harago) giza eskubide (eskubide zibikoekin ez nahastu) alienaezinak dituzte, edozer ekintza burutu dutela ere.

3. Egiazki, badira datu baikorrak ere. Datu baikortzat dugu terrorismoaren biktimen aldeko laguntzak, adierazpenik irmoenean, eskola ikasleen ia %60ko babesa jasotzea eta adierazpenik "light"enetan %78ko babesa eskuratzea. Baikorra da ere, euskal eskola-ikasleen %54k argi eta garbi esatea "torturak eta tratu txarrak egoera guztietatik desagertu behar direla". Hala ere, azpimarratu beharra dago, ikasleen %20 inguruk ez duela adierazpen hori babesten.

4. Euskal eskola-ikasleek ETAren, kale borrokaren, terrorismoaren, eta barren gaineko bederatzi item edo adierazpenei emandako erantzunei Osagai Nagusien Analisi Faktoriala aplikatuz gero, egiazta dezakegu erantzunak hiru taldetan bana daitezkeela. Horiei I Faktorea, II Faktorea eta III Faktorea izena jarri diegu. Kome-

ni da jakitea teknika horrek hiru erantzun taldekatzen dituela. Azalpen ardatzak edo jarrerak dira ikasleen afinitatearen arabera emandako erantzun horren oinarri. Kasu honetan, erantzunen barreiatzearen bi heren azalduta (bariantzaren %62,3), adierazitako hiru kategoriak eskuratzen dira: ETAren alde argi eta garbi egiten dutenen (edo gaitzesten ez dutenen) erantzunak, zalantzarik gabe aurka daudenen erantzunak, eta oinarrian giza eskubideak beti defendatzegatik, ETAko kideen kasuan ere, gainontzekoengandik bereizten direnen erantzunak. Erantsi beharra dago, gainera, talde horren erantzunak III Faktorearen (ETAren gaitzespena) alde egiten duenengandik gertuago daudela, I Faktorearen alde egiten dutenengandik baino.

5. Osagai Nagusien Faktorialari jarraiki, lanean erabiltzen ari garen bederatzi adierazpenetatik sei hartu ditugu ardatz. Horiek terrorismoari eta bere ondorioei buruzkoak dira, eta gehiago zentratzen dira ETArekiko aldeko edo aurkako jarrera argiro eta zuzenean adierazten duten itemetan. Horien arabera eraiki dugu ETArekiko gaitzespen eskala. Horrela, 0tik 10era doan ohiko eskalan zifratu ditzakegu, kuantitatiboki, ETArekiko bost gaitzespen mailen artean dauden euskal eskola-ikasleak. Zehaztapenak testuan daude eta honako taulan laburtu ditugu.

**146. Taula. ETArekiko gaitzespen eskala. Ikasleen iritziak lau kuartiletan eta eskalako ibilbidearen estadistika puntu zentralean banatu ditugu (0-10)**

| ETAREKIKO GAITZESPEN MAILA | 0-10 ESKALA | ESKOLA IKASLE KOPURUA | ESKOLA IKASLE PORTZENTAJEA |
|---|---|---|---|
| Oso baxua | 0-2,5 | 15 | %2,2 |
| Baxua | 2,5-5,0 | 87 | %12,6 |
| Erdi mailakoa | 5,0 | 96 | %13,9 |
| Altua | 5,0-7,5 | 268 | %38,8 |
| Oso altua | 7,5-10 | 225 | %32,6 |
| **Guztiari erantzun dioten ikasle kopurua** | | **691** | **%100** |

Atxikitako irizpidearen (estadistikoa oso-osorik) arabera, baterako batura eskalan ETA oso maila baxuan gaitzesten duten ikasleen %2,2 edukiko genuke. %12,6k gaitzespen maila baxua dauka. Hortaz, euskal eskola-ikasleen %14,8k argi adierazten du ez duela ETA gaitzesten. %13,9k ez du jarrera argirik adierazten eta gainontzeko %71,4k argi adierazten du ETArekiko gaitzespena. Azken horien artean, %38,8k ETArekiko gaitzespen altua adierazten du eta %32,6k oso gaitzespen maila altua.

6. Azkenik, honakoa aztertu nahi izan dugu: eskola ikasleek ETAren aurrean dituzten jarreretan familiaren, eskolaren eta lagun taldearen garrantzia. Eskola ikasleen erantzunen hiru blokeak oinarri hartuta egin dugu (I Faktorea, II Faktorea eta III Faktura). Kasu bakoitzean aztertu dugu ikasleengan eragin gehien duen sozializazio,

familia, lagun eta hezkuntza zentro agentea. Analisi zehatzaren ostean, jaso dezagun oinarrizkoa. Oinarrizkoa honakoa esatea da: batez ere, lagun taldea eta familia, eskola ahaztu gabe, oso agente garrantzitsuak dira ETA justifikatzerakoan eta haren zilegitasuna azaltzerakoan. Zehazki ETA eta bere ekintzak justifikatzen eta zilegitzat hartzen dituzten eskola ikasleen kasuan. I Faktoreko erantzun blokea dugu hizpide. ETAren justifikazioa familiaren baitan sortzen da eta gertuko lagunen artean zabaltzen da.

7. Beste edozein egoeratan ez dugu antzeko harremanik aurkitu. Ez dugu horrelako gizarte irmotasunik aurkitu ETAren indarkeria onartezina epaitzerakoan, ezta giza eskubideen unibertsaltasunaren onarpenean ere. Era berean, ez dugu halakorik aurkitu terrorismoaren biktimei emandako nahitaezko aintzatespenean eta torturen eta tratu txarren zigorrean, ezta ETArekin amaitzeko beharrean, etab. ere. Eskola ikasleen sozializazioak ETA eta bere ekintzak justifikatzerakoan duen pisua ez da beste ezertan jazotzen (ikasleek beraiek diotenarekin egiten dugu lan). "ETAk jardun dezan arrazoiak daude" adierazpenaren aurrean aurkitzen dugu lotura gehien, sozializazio gaitasun maximoa, horrela pentsatzen duten eskola ikasleen familietan, beren lagun taldean eta, neurri txikiagoan den arren, joaten diren ikastetxean. Nolanahi ere, ikastetxean baino gehiago ikastetxeko irakasle batzuengan pentsatu beharko litzateke.

8. Horren ondorioz, ETAren ekintzak zilegitzat dituzten eskolako taldeetan, autoerreferentziako mundu bateko –endogamikoa- barrurako bilketa gertatzen da. Zalantzarekiko eta horiek defendatutakoen kontrako arrazoiekiko iragazgaitza bihurtzen da. Askotan idatzi dugun moduan, aparteko mundua bezalako zerbait osatzen dute. Beste gauza eta esparru batzuetan biztanleriarekin nahasten den gizarte paraleloa da. Ordea, garbi eta garbi urruntzen da ETAren deslegitimazio etikoari eta politikoari buruz hitz egiten denean. Eta horren azalpen argiena familian eta lagunartean aurkitu behar da. Eta liteke-litekeena da, kronologiaren ikuspegitik, ordena horretan izatea.

## 4. EZTABAIDA-TALDEAK

### 4.1. Gizartekoitze-eragileak

Taldeengandik jasotako ekarpenak ikusirik, familiari egozten zaio hasierako gizartekoitze-eragilearen ardura, eta adingabeen haurtzaroan gizartekoitzeko gomendioa egiten da bereziki. Nolanahi ere, gai korapilatsu zenbaiten inguruan gazteek erakusten duten inkomunikazioa dela eta, zailago bihurtzen da halakoei buruzko balioak transmititzea, eta hezkuntza-arloko profesionalek adierazten dute azkenean beren gain hartzen dutela eginkizun hori. Egoera horretan, etxe barruan ematen diren mezuen eta ikastetxeetan emandakoen arteko koherentziarik ezarengatik, batetik, eta adingabeek pasatu behar duten trantsizioaldi horretan zehar laguntza sendo eta egonkorraren beharra izateagatik, bestetik, azkenean beren berdinen artean egokitzen dira.

Egoera horretaz gain, badaude tartean gaur egungo gizartean nagusi diren konnotazio negatiboko beste balio batzuk, hala nola indibidualismoa, dirua, ahaleginik eta jarraitutasunik eza, frustrazioarekiko intolerantzia, eta "azkartasuna" nahiago izatea, ontasuna baino.

Gazteen balio positiboenen artean, elkartasunari loturikoak nabarmentzen dira gehienbat, bai eta, aurreko belaunaldien aldean, komunikatzeko eta aldarrikatzeko erraztasun handiagoa izatea ere.

### 4.2. Balioak

Nahikoa adostasun handia dago adingabeek gehien balioesten duten balioetako bat adiskidetasuna dela esateko; era berean, errespetu-falta nabarmena ikusten da ingurune horretatik kanpoko pertsona guztiengana, familia eta irakasleak barne.

Elkarrizketaturiko kolektiboek bi faktore nagusitan oinarritzen dira egoera hori azaltzeko. Batetik, hezkuntzako ereduak daude, gehiegizko edo gutxiegizko autoritaeagatik ez baitute beren irakaskuntza-zeregina betetzea lortzen; gainera, hezterakoan duten motibaziorik eza ere barneratzen dute adingabeek. Bestetik, familian gazteek jasotzen dituzten gainbabesa, amore-ematea eta justifikazioa daude, halakoek eskubideetan oinarrituriko eta betebeharrez gabeturiko balio-sistema bat bultzatzen baitute.

### 4.3. Kontrabalioak

Atal honi dagokionez, badirudi nahikoa zabalduta dagoela kontrabalioak gero eta gutxiago erabiltzen direlako ideia, horren arrazoia dela, funtsean, gazteak bizi diren gizartearen heterogeneotasuna. Nolanahi ere, emakumeen aurkako bazterkeria aipatu zuten (dena dela, elkarrizketatu ziren gazteek ez dute hala pentsatzen), bai eta etorkinen aurkakoa ere. Etorkinen kolektiboari dagokionez, elkarrizketatutako helduek adingabeen gizarte-ingurune zuzen eta hurbilenari egotzi zioten haien aurkako bazterkeria egotea, baina adingabeek, ordea, uste dute komunikabideek informazioa manipulatzen dutela berrien hartzaileek "etorkin" eta "gatazka" kontzeptuak lot ditzaten.

Azkenik, elkarrizketatu ziren talde guztietan berretsi zuten ideia bat izan zen ezen, jatorrizko herrialdea gorabehera, gehiengoaren aldean edozein desberdintasuna izatea aski dela gaur egungo gazteek norbait bazter dezaten.

### 4.4. Indarkeria

Elkarrizketatuek emakumeei erasotzeko era gisa eta gatazkak ebazteko ohiko tresna gisa nabarmendu zuten indarkeriaren erabilera. Hauek dira horretarako azalpen nagusiak: indarkeria adierazpide normalizatu gisa erabiltzea; indarkeria afektuzko gabeziak betetzeko metodo gisa erabiltzea; intolerantziari eta frustrazioari emandako erantzun gisa; estimulu berrien bilaketa gisa; eta mugarik ez izatearen eta hezitzaileek adingabea gehiegi babestearen ondorio gisa.

### 4.5. Gomendioak

Hona hemen jasotako proposamenak laburbiltzen dituzten ideiak:

- Gizartea, oro har, era aktiboan engaiatu behar da, irakasleen eta gurasoen artean lotura sendoak ezarrita.
- Beharrezkoa da baliabide ekonomiko, giza baliabide, nahiz denbora-baliabide egokiak jartzea.
- Bi kolektiboei prestakuntza egituratu bat eskaini behar zaie.
- Eskola berritzaileago, pragmatikoago eta dinamikoagoak ezarri behar dira adingabeentzat.
- Eta, azkenik, ardura, lankidetza, enpatia eta antzeko trebetasunak sustatu behar dira.

# ARARTEKOAREN GOMENDIOAK

## A) GIZARTE OSOARI ETA HAREN ERAKUNDEEI DOAZKION GOMENDIOAK

### 1. Gizartearen ardura sustatzea balioen arloan

Mundu guztiak hezten du, horretaz ohartu zein ez. Hezteko eta balioak transmititzeko lana, hortaz, gizartearen ardura da, oro har, bai eta gizarte-eragile bakoitzarena ere, nahiz eta ardura-mailak desberdinak izan daitezkeen, halaxe berez gertatzen denez.

Txosten honen bidez ikusi den errealitatea dela eta, badirudi beharrezkoa dela guztiak beren arduraren jakitun egitea. Bereziki eragina izateko ahalmena nabarmen gehitzen ari diren eragileak, jatorriz edo helburuz hezteko xede bakarra edo xede nagusia izan gabe, hala nola komunikabideak edo teknologia berriak.

Beraz, eragile horiek kontzientzia hartu behar dute, kontzientzia handiagoa izan behar dute, beren jarduerek edo produktuek adingabeen balioen eraketan duten eraginaz.

### 2. Kontrabalioak saihestea

Goian aipaturiko arrazoi berengatik, azpimarratu egin behar da zeinen garrantzitsua den gizarte-eragile guztiek noranzko berean jardun dezaten, horixe baita era bakarra koherente eta kontsekuenteak izateko denok –diogunez edo adostu dugunez– elkarrekin ditugun balioekin. Kontuan izan behar da txosten honetan aztertu diren balioak erabat oinarrizkoak direla, badagozkiela giza eskubide oinarrizkoenei, desberdinen arteko bizikidetzari, gure bizi-ingurunearen iraupen eta kontserbazioari.

Ikuspegi horretatik, eredu desegokiak saihestu behar dira, hau da, beste eragile batzuek balioak eraikitzen eginiko lana –denbora luzez, askotan– ezerezten edo oztopatzen dituzten kontrabalioak hedatzea saihestu behar da. Eta horretarako arrazoiak, nagusiki, etikaren eta heziketaren arlokoak dira.

Dena dela, ohartarazi behar da ezen, kontrabalioek indarrean dagoen legedia urratzen dutenean (sexismoa, arrazakeria, homofobia, indarkeriaren gorespena, eta abar), badagoela beste arrazoi gehigarri bat, urratze hori egiten dutenei legez jazartzea ekar dezakeena. Halakoetan, etikari eta heziketari loturiko arrazoiez gain, xedea da zigorgabetasuna gerta ez dadin lortzea.

### 3. Gizartea gehiago sentiberatzea

Aurkitu diren arazoetako batzuetarako, ezbairik gabe, erabakitasunez, sistematikoki eta espezifikoki esku hartu beharko da, gizartearen sentiberatasuna areagotzeko eta tartean diren eskubideekiko errespetu gutxi duten ikuskerak eta jarduerak berriz aztertzen laguntzeko. Hona hemen arlo batzuk, konparazione:

- Eduki sexista eta indarkeriazkoa duten bideo-jokoak kontsumitzea.
- Ingurumenaren aldeko kontzientzia lauso baten eta ingurumenarekiko engaiamendu erreal eta pertsonalaren artean atzeman den aldea.
- Ezgaitasunen bat duten pertsonak gizarteratzea.
- Sexu-joera jakin batzuen aurkako jarrera.
- Jatorriaren (etorkinak) edo etniaren (ijitoak) ziozko desberdintasunaren aurrean dagoen errezeloa;
- ETAk edo indarkeria erabiltzeak gaur egun oraindik duen babes-maila, gure gazteen artean; eta abar.

Arartekо erakundeari dagokion ikuspegitik, erakundeek duten ardura azpimarratu egin behar da, sustatu eta bultzatzeko pentsamoldeak behar den eran alda daitezen eta aurreiritzi eta estereotipoak gaindi daitezen.

## B) FAMILIAREN INGURUAN

### 4. Bateragarritasuna sustatzea eta familian ematen den denbora heziketarako erabiltzea

Aisialdia erabiltzeko moduari buruz edo komunikabideen erabilera gurasoek ez kontrolatzeari buruz txostenak ematen dituen zenbait datu oso kezkagarriak dira, nonbait. Daitekeena da hutsegite horiek gertatzea prestakuntzarik ez izateagatik edo ardurak ez hartzeagatik, baina elkarrekin egoteko denbora eta gunerik ez edukitzeagatik ere gerta daitezke, eta azken horrek lotura handia du bai eskolako bai laneko ordutegiekin.

Bestalde, horrek argi erakusten du, orobat, oraindik gaur egun zein betekizun garrantzitsua duen familiak –edozein familia-mota edo -era izanik ere– balioen transmisioan.

Badirudi beharrezkoa dela, hartara, aurrera egiten jarraitzea familia, lana eta eskola bateragarri egiteko (ordutegiak eta egutegiak) politiketan, horrela une jakin batzuetan adingabeak bakarrik senti daitezen saiheste aldera.

### 5. Gurasoen prestakuntza sustatzea. Gurasoei babes-tresnak eskuratzea.

Ziurrenik, familia askori prestakuntza egokia edo baliabide jakin batzuk faltatuko zaizkie, heziketaren aldetik dituzten eginkizunak eraginkortasun handiagoz aurrera eraman ahal izateko.

Arlo jakin batzuetan, hala nola teknologia berrien erabileran, sarritan seme-alaben ezaguerak edo trebetasunak guraso edo tutoreenak baino handiagoak dira.

Belaunaldien artean gertatzen ari den "eten digitala" gainditu edo murriztu egin behar da, eta, oro har, aita, ama eta tutoreak haien eginkizunerako oinarrizkoak diren gaitasunetarako presta daitezen sustatu behar da. Zenbaitetan, gainera, tresna baliagarriak eskuratu beharko zaizkie haien lana errazago egitearren (eduki-iragazkiak, esate baterako).

### 6. Indargarri positiboak erabiltzea, eta indarkeria zigortzeko balia dadin ez onartzea

Txostenak garbi uzten du gizartean oraindik neurri handian onartzen eta erabiltzen dela belarrondokoa, portaera batzuk zuzendu eta zigortzeko modutzat. Adin batzuetan beste batzuetan baino gehiago, eta gehiago semeekin, alabekin baino.

Daitekeena da zenbait kasutan halako praktikak jakinaren gaineko eta borondatezko aukera izatea, baina beldur gara ez ote den gehiago izango kontrol-faltaren ondorio edo beste trebetasun batzuk ez izatearen ondorio, hain kaltegarriak ez diren eta eraginkorragoak eta haurren eskubideekiko errespetutsuagoak diren erantzunak emateko.

Zeharo beharrezkoa da adingabeen portaerari mugak ezartzea, haiek heziko eta egoki garatuko badira; muga horiek adierazteko eta errespetarazteko erak, baina, gutxi-asko egokiak daitezke. Hala, bada, indargarri positiboak erabiltzea oso egokitzat nabarmendu behar da; aitzitik, indarkeria fisikoa zuzentzeko tresnatzat erabiltzea saihestu egin behar da, kaltegarria da eta.

### 7. Adingabeen beren ardura sustatzea

Bildu diren datuen arabera, gurasoek edo tutoreek, sarritan, hartzen dituzte beren gain seme edo alabek berek arazorik gabe egin ditzaketen hainbat zeregin. Halaber, datuok aditzera ematen dute zeregin horretan duten parte-hartzea ez dela berdina, mutilak ala neskak diren, eta adinaren arabera ere bai (ez da beti nahitaez gertatzen adin handiagoan ardura handiagoa izatea). Gainera, bitxia bada ere, adingabeak berak dira hori aitortzen lehenak, alegia, egiten dituzten edo egiten uzten dizkieten baino gauza gehiago egin litzaketela.

Horrela jokatzea, zalantzarik gabe, ez da mesedegarria adingabeak gara daitezen, edo autonomia edo ardura har dezaten, ez eta sexuen arteko heziketan berdintasuna egon dadin ere.

## C) KOMUNIKABIDEENTZAT

### 8. Programazioa bereziki zaintzea haurrentzako ordutegietan

Txosten honetan ikus daitekeenez, adingabeek franko kontsumitzen dute telebista, eta hainbat ordutegi dituzte horretarako: eskolara joan aurretik; eguerdian; eskolatik irten ondoren; gauean…

Ordutegi horietako asko, legearen arabera, haurrak bereziki babesteko ordu-tartetzat jotzen dira, eta, hortaz, edukien aldetik (eduki guztien aldetik) zeharo kontuz ibili behar da. Horri buruz aldian behin egiten diren jarraipen eta azterketek, baina, agerian uzten dute ordutegi horien barruan adingabeentzat desegokiak diren programak eta publizitatea ematen direla; araua gehiagotan edo gutxiagotan hausten da, telebista-katea zein den. Arau-hauste hori bereziki larria da komunikabideen titulartasuna publikoa denean.

Horrenbestez, eta Ararteko erakundeari dagokion jardun-eremua kontuan harturik, gomendatzen da, haurrak bereziki babesteko ordu-tarteei dagokienez, EiTBren programazioak eta publizitaterako irizpideak aldian behin berrazter daitezen, irizpide horiekin bat.

Irizpide horixe aplikatu beharko da beste komunikabide batzuetan, adingabearen interes gorenaren printzipioari jarraituz; daitekeena da horretarako berariazko arauren bat behar izatea (berrikitan Nafarroako Foru Komunitatean dekretu baten bidez egin den bezala) Euskal Autonomia Erkidego osoa edo haren zati bat hedadura-eremutzat (programazio osoari edo haren zati bati dagokionez) duten komunikabideentzat (esate baterako, tokiko telebistak).

## 9. Telebista-programen kalitatea eta haietan transmititzen diren balioak sustatzea

Erakunde honen aburuz, komunikabideek –titulartasun publikoa dutenek, bereziki– haurrentzat eduki desegokiak saihestu ez ezik, telebistako produktuen kalitatea era aktiboan sustatu ere egin behar dute. Hori berehala aplikatzekoa da, hemen aztertu diren gai edo balio guztiak aintzat harturik: sexuen arteko berdintasuna; desberdintasunak onartu eta errespetatzea, edozein desberdintasun-mota dela ere (jatorria, etnia, sexu-joera, eta abar); indarkeriaren erabileraren gaitzespena; ingurumena zaintzea; eta abar.

Irizpide horrek izan behar du, beraz, funtsezko irizpideetako bat bai dagoeneko merkatuan diren produktuak hautatu eta programazioan sartzeko, bai balio jakin batzuk berariaz sustatzen dituzten materialak ekoitz daitezen bultzatzeko.

## 10. Komunikabideetan parte hartzeko eta komunikabideen kontrol edo jarraipenerako organoei buruz

Euskal Irrati Telebista Herri-erakundea Sortzeko 5/1982 Legean, parte-hartzeko eta Legebiltzarrak kontrolatzeko organo batzuk ezarri ziren. Zehazki:

- Administrazio Kontseilua (II. Atala, 6.-14. artikuluak).
- Herri-erakundeko baltzuetako aholku-batzordeak (15. artikulua).
- Kontrolerako Legebiltzar Batzordea bera (20. artikulua).

Legearen testuan, alabaina, ez da berariaz aipatzen haurren eskubideen babesa organo horien eginkizunen artean. Legeak organo horietarako ezarri zituen osaeraren eta eginkizunei begiraturik, badirudi zaila dela eginkizun hori beren gain hartu ahal izan dezaten.

Gure inguruan badaude beste formula batzuk, hala nola autonomia-erkidego batzuetan sortu diren ikus-entzunezkoen kontseiluak. Halakoek badituzte beren eginkizunen artean haurren eskubideak babesteko berariazko eginkizuna, hainbat arlotan esku hartzeko eta irizpideak ezartzeko aukera dutela: programen irudi eta soinu bidezko seinaleztapenean; adingabeei buruzko datuak zabaltzeko zuhurtziazko neurrietan; ordu-tarte zehatz batzuetan eduki jakin batzuk emateko debekatzeko aukeran; adingabeen telesaioetako parte-hartzean; eta abarretan.

Halakoak betetzen direla bermatzeko mekanismoak badituzte, gainera: arautegiak egiteko, zigorrak ezartzeko eta ikuskatzeko ahala; programazioari buruzko azterlanak eta ikerketak egiteko ahalmena; esku hartzeko aukera, ikus-entzuleen kexen harira, eta abar.

Proposatzen dugu arlo honetan orain dugun araudia berrikus dadila, eta beste erkidego batzuetan dauden esperientziak eta ezarri diren formulak aztertu, haurren eskubideen babesaren aldetik berme handiagoa erdieste aldera, bereziki txosten honetan ikertu den gaiari dagokionez, alegia, haurrei balioak transmititzeari dagokionez.

## D) TEKNOLOGIA BERRIEN INGURUAN

### 11. Adingabeek teknologia berriak nola erabiltzen dituzten hobeto ezagutzea

Txosten honetan adingabeek teknologia berriak erabiltzeari buruzko datuak franko bildu dira, nahiz eta ia zeharka bildu diren, sozializazio-eragile edo balio-transmisioko eragile diren aldetik, alegia. Hala eta guztiz ere, nahikoa handia da eskuratu den informazio-bolumena, eta, gainera, adinaren, sexuaren edo bide bakoitzaren (telebista, sakelako telefonoa, Internet, bideo-jokoak, eta abar) arabera bereizitako datu esanguratsuak dira.

Itxura guztien arabera, teknologia berrien erabilera gero eta gehiago zabaltzen ari da (erabiltzaile gehiago), intentsitate handiagoz (denbora gehiago erabiltzen), eta era gehiagotan (zeregin gehiagotarako), heldu arduradunek oso kontrol gutxi eginda, eta arrisku handiak daudela adingabeen eskubideen aldetik. Teknologia horien erabilera, gainera, oso bilakaera azkarra izaten ari da, ia etengabe aldatzen baita teknikaren aukerei eta erabiltzeko praktikei dagokienez.

Erakunde honen aburuz, horrek eskatzen du jarraipen eta azterketa xeheagoa egin dadila adingabeen artean teknologia berrien erabilerek duten bilakaeraz, horren ingurukoak egunean-egunean ezagutzea eta, azken batean, era egokiagoan esku hartzea posible egiteko, teknologia horien aukerak ahalik eta gehiena aprobetxatzearren eta arriskuak ahal den guztia murriztearren.

### 12. Alderdi jakin batzuk arautzea adingabeen eskubideak babesteko

Teknologia berriak, oro har, eta Internet, zehazkiago, –haien historia, izaera eta bilakaera dela bide– ia arau-esparrurik eta, are gutxiago, adingabeen eskubideak babesteko tresna

eraginkorrik ez duten arloak dira. Agerikoa denez, teknologia horiek unibertsalak izateak zaildu egiten du arautzea eta kontrolatzea.

Hala eta guztiz ere, badaude, ordea, hurbilagoko eremu batean arau daitezkeen alderdi batzuk. Adibidez: telebistako edukiak eta haien kontrola; adingabeek ziberkafetegiak erabiltzea; adingabeei eduki kaltegarriak dituzten bideo-jokoak saltzea; produktuak modu zuzenean etiketatzea, eta abar. Arautzeko aukera horiek dagoeneko erabiltzen dira beste toki batzuetan, baina ia ez dira garatu gure autonomia-erkidegoan.

Hori egin behar da, hain zuzen, adingabearen interes gorenaren printzipioa aplikaturik, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean ezarrita dagoenez; izan ere, erakunde honen aburuz, printzipio horrek lehentasuna izan behar du merkatu-askatasunaren aurretik, bien arteko aurkakotasuna gertatuz gero.

## E) HEZKUNTZA SISTEMARENTZAT

### 13. Barnean hartzearen eta pluraltasuna egotearen alde egitea ikastetxeetan. Ghettoak era daitezen saihestea

Txostenean aztertu diren alderdietako bat, bizikidetzan eragin handiena dutenetako bat, hain zuzen, pertsonenganako errespetua izan da, sexuaren, jatorriaren, etniaren, ezgaitasunen, sexu-joeren edo beste edozein egoeraren gainetik.

Erakunde honek dagoeneko ohartarazi du lehenago ere ghettoak eratzeko arriskuez, eta halakoak saihesteko –zehazki, ikastetxeetan– gomendioak egin ditu. (*Cfr., EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna* txosten bereziko hirugarren gomendioa: “Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen banaketa orekatua bermatzeko eta eskola-ghettoak saihesteko neurriak hartzea”.)

Estereotipoak eta aurreiritziak gainditzeko modu bakarra da desberdinen artean elkar ezagutzen dezaten eta eragin-trukea izan dezaten ahalbidetzea; horretarako, ikastetxeek inguruneko gizartean dagoen pluraltasuna jaso beharko dute, eta eskolan edozer bereizketa egin dadin saihestu.

Adingabe orok hezkuntza barne-hartzailea izateko eskubidea du, eta Administrazioak hura gorde behar du beste eskubide batzuetan –hala nola ikastetxea askatasunez aukeratzeko eskubidean– eragina izan dezakeen gizarte-ondasun gisa; erakunde honen aburuz, horrek behartuko du matrikulatzeko eta beste ikastetxe batera bideratzeko irizpideak berraztertzera, kasu batzuetan, edo zenbait ikastetxetako ikasleen osaera.

### 14. Ikasleen eta familien arteko loturak nahiz lankidetza hobetzea

Arartekoak ikastetxeetako bizikidetza eta gatazkei buruz eman zuen txostenean dagoeneko, nabarmendu egin genuen zein garrantzitsuak diren irakasleen eta ikasleen familien arteko harremanak eta zein beharrezkoa zen haiek zaintzea.

Hemen dugun aztergaiak –balio-transmisioak, alegia– are ageriago uzten du, hori posible bada, lankidetza horren garrantzia, batere zalantzarik gabe erakusten baitu zein garrantzitsua den familia, balioen arloan sozializazio-eragilea den aldetik.

Balioak eraikitzeko behar dira jarraitutasuna (denbora) eta koherentzia (dauden eragileen artean). Horregatixe, hain zuzen, da behar-beharrezkoa familiaren eta eskolaren inguruneen arteko lankidetza, eta lan sistematikoa egin behar da horren inguruan.

**15. Guraso-eskolak edo balio-heziketarako prestatzeko beste bide batzuk sustatzea**

Aurreko gomendioan, ikastetxeetako familien eta irakasleen arteko lankidetza sustatu eta hobetzeko beharra aurkeztu da. Gomendio honetan beste pauso bat aurreratzea planteatzen da: lankidetzan aritu ez ezik, prestakuntza sustatu ere bai.

Zorionez, ikastetxe askotan dagoeneko eta aspalditik ari dira horretan lanean, hainbat motatako formula eta ekimenak dituztela: guraso-eskolak; eztabaida-taldeak; hitzaldi-zikloak; parte hartzeko eta erabakiak hartzeko batzordeak, eta abar. Xedea da, beraz, halako ekimenei laguntzea dagoeneko haiek dauden kasuetan, eta sustatu eta bultzatzea halakoak hain maiz egiten ez diren ikastetxeetan.

**16. Tutoretza-lana indartzea**

Banakako zein taldekako tutoretzan ematen diren orduak ere tarte abantailatsuak dira balioen inguruan lan egiteko, balio horiek praktikan erabiltzea barne (desberdintasunak errespetatzea; gatazka bide baketsuen bitartez ebaztea, eta abar).

Tutoretza-lan hori hainbat bide erabiliz sustatu behar da: berariazko prestakuntza-eskaintzak; orientazioak; materialez eta baliabidez hornitzea; tutoretza-lana aintzat hartzea; tutoretza-lanean ematen den denbora areagotzea; jardunbide egokiak ezagutaraztea, eta abar. Zenbait kasutan, dagoneko dagoen tutoretza-lanean jarraitu eta laguntza eman baino ez da egin beharko, beste zenbaitetan, era egokiagoan aurrera eramateko oinarriak ezarri beharko dira.

**17. Herritartasunerako Hezkuntzaren ezarpena berraztertzea**

Eskola-curriculumari, maila jakin batzuetan, arlo berri bat gehitu zaio: Herritartasunerako Hezkuntza, hain zuzen.

Arlo horren helburu eta edukiei begiraturik, begien bistakoa da lotura estua duela txosten honetan aztertu diren eskubide eta balioekin.

Garrantzitsua da, beraz, haren aplikazio errealari jarraipen berezia egitea (irakasleen prestakuntza, material didaktikoak, ebaluazioa, eta abar); horrela, dituen lorpenak eta hutsuneak balioztaturik, beharrezko zuzenketak egin ahalko dira, aplikatzen hasia den lehen

uneetan nahiz haren jardun onaren edo egokitasunaren inguruan kontrako jarrerak edo eztabaidak agertzen direnean bereziki.

### 18. Adingabeek berek parte hartzeko eta ardurak berenganatzeko bideak hobetzea

Arduren aldetik hazteko, beharrezkoa da norbera trebatzeko aukerak izatea, kasu bakoitzean adingabearen adinerako eta garapen-mailarako egokiak diren ardurak hartuta.

Eskola-antolamenduak eta irakaskuntza-jardunbideek ez dute beti kontuan hartzen beharrizan horiek, edo ez diete behar bezala erantzuten.

Ikuspegi horretatik, bereziki garrantzitsua da Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean ezarririko eskubidetako bat gogoraraztea, eskolan zuzenean aplikatzekoa da eta (baina ez eskolan bakarrik, beste arlo askotan ere bai): parte hartzeko eskubidea, hain zuzen. Haurren eskubideen arloko maila unibertsaleko tresna gorena hitzarmen hori izanda, gogora dezagun hitzarmeneko 12. artikuluan ezarririk dagoela haurrak bere iritzia adierazteko eskubidea izango duela berari dagozkion gai guztietan, eta iritzi hori aintzat hartuko dela.

Erakunde honen aburuz, eskubide hori era sistematikoan aplikatzea –eskolaren ingurunean, kasu honetan– oso lagungarria izango da adingabeek ardurak hartzeko, beren ekintza eta erabakien ondorioak neurri handiagoan beren gain hartzeko.

### 19. Lankidetzako metodologiak sustatzea

Azterlan guztiek aditzera ematen dute balioak, hitzen bitartez baino gehiago, ekintzen bitartez transmititzen edo ikasten direla. Edo, bestela esanda, ekintzek, jarduerek, transmititzeko ahalmen handiagoa izan ohi dutela, aholkuak edo diskurtsoek baino.

Ildo horretan, metodologia batzuek beste batzuek baino gehiago sustatzen dute balio jakin batzuk –hemen aztertutakoak kasu– lantzea, bereziki desberdintasunak errespetatu eta onartzeari nahiz bizikidetza baketsua eta gatazkak indarkeria erabili gabe ebazteari dagokionez.

Ikuspegi horretatik, oso egokiak dira lankidetzako metodologiak, halakoen edozein mota; hain zuzen, ikastetxe askotan aplikatu egiten dira dagoeneko. Halakoak sustatu eta hedatzeko proposatzen da, beraz.

## F) JARRAIPENARI BURUZ

### 20. Balioen bilakaeraren jarraipena aldian behin egitea

Erakunde honen aburuz, txosten honetan sakon aztertu diren gai eta balioak oinarrizko eta funtsezkoak dira bidezko eta bakezko gizarte baterako, pertsona guztientzako nahiz haien eskubide oinarrizkoenetarako errespetua nagusitzen den gizarte baterako.

Hala, 8 urtetik 16 urtera bitarteko gure adingabeen “argazkia” lortu da une jakin batean (2008. urtea).

Zorionez, denborak aurrera egiten du, eta, aldi berean, adingabeak aldatzen dira (ikasle-belaunaldi berriak), bai eta gizarte-balioak ere.

Hor jokoan duguna dela eta (desberdina den bestea errespetatzen den, ingurunea zaintzen den, indarkeria terroristak tokirik ez duen... gizarte bat izatea bera), beharrezkoa da halako azterketak aldian behin egin daitezen. Horien bitartez, hobeto jakingo da nolakoa den bilakaera (aurrerakadak, atzerakadak, geldialdiak), eta, horrenbestez, balioztatzeko elementu bat izango dugu erabakitako neurri, planak edo programak aplikatzean lortzen diren emaitzetarako eta, hala dagokionean, egokiagoak diren beste batzuk abian jartzeko, beharrezkoa den bezain laster.

# BIBLIOGRAFIA

AACAP (2001). *Los niños y la televisión*. 54. zk. *In* http://www.aacap.org/page.ww?section=Informacion+para+la+Familia&name=Los+Ninos+y+la+Television+No.+54.

ACCIÓN FAMILIAR (2004). *El nuevo reto. Nuevas formas de prevención: descubrir, valorar y elegir.* Madril: Agencia Antidroga de la Comunidad de Madrid - Acción Familiar.

ADESE (2006). *Estudio de hábitos y usos de los videojuegos 2006*. *In* www.adese.es/web/informes.asp.

AMNISTIA INTERNAZIONALA (2002). *Videojuegos ¿sabes a qué juegan tus hijos? videojuegos, racismo y violación de derechos humanos*. *In* www.es.amnesty.org.

AIMC (2004). Tercer estudio de AIMC sobre la relación de los niños españoles de entre 8 y 13 años con los medios de comunicación. lageneración.com, *in* http://download.aimc.es/aimc/09notas/ninos04.pdf.

ARARTEKOA:

- (2006): *Bizikidetza eta gatazkak ikastetxeetan*. Ararteko.
- (2008): *Ziberbullying-a (Teknologia berrien bidezko jazarpena prebenitzeko material didaktikoa)*. Ararteko.
- (2008): *Leihoak: Abentura erreala mundu birtualean*. Ararteko.
- (2008): *Eskolako bizikidetasuna eta gatazkak*. Ararteko.

AZNAR, I; CÁCERES, M.P.; HINOJO, F. *Estudio de la violencia y conflictividad escolar en las aulas de educación primaria a través de un cuestionario de clima de clase: el caso de las provincias de Córdoba y Granada*. Revista Electrónica Iberoamericana sobre calidad, eficacia y cambio en educación, 5-1, 164-177. Hemen eskuragarri: http://www.rinace.net/arts/vol5num1/art9.pdf. 2008ko ekainaren 3an kontsultatua.

BARRERO, M. *Los cómics como herramienta pedagógica en el aula.* Jornadas sobre Narrativa Gráfica, Jerez de la Frontera, 2002ko otsailaren 23a.

BLÁZQUEZ, D. (1995). *La iniciación deportiva y el deporte escolar*. Bartzelona, Inde.

BOFARULL, I. (2005). "Ocio en los nuevos medios de comunicación", *in* Revista de Estudios de Juventud, 68, 116-127.

BRINGUÉ, X. (2007). "Niños y jóvenes en un nuevo escenario de comunicación". Txostena, XXI Congreso Internacional de Comunicación. Nafarroako Unibertsitatea.

BUCHMAN, D.D.; FUNK, J.B. (1994). *Video games and children: Are there "high risk" players?* Txostena, International Conference on Violence in the Media, St. John's University, New York.

CASTELLS, P.; BOFARULL, I. (2002). *Enganchados a las pantallas. Televisión, videojuegos, Internet y móviles.* Bartzelona: Planeta prácticos.

CEACCU (2004). *Sondeo sobre los hábitos de consumo de televisión y de nuevas tecnologías de la infancia y juventud*. Madril: Ministerio de Sanidad y Consumo.

DIARIO ATLÁNTICO. Agentziako berria. "Siete de cada diez niños españoles usan Internet, 28 puntos más que la media de la población".

